

UPV/EHUko  
Zuzenbide Fakultatearen

# HIZTEGI JURIDIKOA

Koordinatzaileak:

Xabier Alberdi Larizgoitia

Miren Azkarate Villar

Joseba Ezeiza Ramos

Leire Imaz Zubiaur

Ixusko Ordeñana Gezuraga



erromen la zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UPV/EHUko ZUZENBIDE  
FAKULTATEAREN  
HIZTEGI JURIDIKOA



# UPV/EHUko ZUZENBIDE FAKULTATEAREN HIZTEGI JURIDIKOA

XABIER ALBERDI LARIZGOITIA  
MIREN AZKARATE VILLAR  
JOSEBA EZEIZA RAMOS  
LEIRE IMAZ ZUBIAUR  
IXUSKO ORDEÑANA GEZURAGA  
*(Hiztegi Juridikoaren koordinatzaileak)*

XABIER ALBERDI LARIZGOITIA  
*(Hiztegi Juridikoaren arduradun teknikoa)*

IRANTZU BERIAIN FLORES  
AITOR BENGOETXEA ALKORTA  
ARANTZA CAMPOS RUBIO  
LEIRE ESCAJEDO SAN-EPIFANIO  
KATIXA ETXEBARRIA ESTANKONA  
ENARA GARRO CARRERA  
IÑIGO IRURETAGOiena AGIRREZABALAGA  
ANA LETURIA NAVAROA  
IDOIA OTAEGI AIZPURUA  
GOIZEDER OTAZUA ZABALA  
ROSA OTXOA-ERRARTE GOIKOETXEA  
IRUNE SUBERBIOLA GARBIZU  
JOSÉ ÁNGEL TAMAYO ERRAZQUIN  
MIREN JASONE URKOLA IRIARTE  
*(Taldeburuak)*

LAXIA OLAGORTA GOMEZ  
*(Teknikari Laguntzailea)*

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

*CIP. Unibertsitateko Biblioteka*

**UPV/EHUko** Zuzenbide Fakultatearen hiztegi juridikoa [Recurso electrónico] / Xabier Alberdi Larizgoitia... [et al.](koordinatzaileak) ; Xabier Alberdi Larizgoitia (arduradun teknikoa) ; Irantzu Beriain Flores ... [et al.](taldeburuak) ; Laxia Olagorta Gomez (teknikari laguntzailea). – Datos. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2022]. – 1 recurso en línea: PDF (409 p.)

Ed. electrónica de la ed. impresa.

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-1319-091-4.

1. Derecho - Diccionarios vascos. 2. Euskara (Lengua) - Euskara jurídico. 3. Derecho – Terminología.  
I. Alberdi Larizgoitia, Xabier, coord. II. Beriain Flores, Irantzu, coaut. III. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Facultad de Derecho.

(0.034)34(038)

(0.034)809.169:34

UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak lagundutako liburua.

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-1319-091-4

## EGILEEN ZERRENDA OSOA

---

### **Administrazio Zuzenbidea**

TALDEBURUA: Miren Jasone Urkola Iriarte  
AUTOREAK:

Unai Aberasturi Gorriño  
Carmen Agoues Mendizabal  
M.<sup>a</sup> Nieves Arrese Iriondo  
Jose Ignacio Cubero Marcos  
Eunate Prieto Etxano  
Maite Uriarte Ricote  
Miren Jasone Urkola Iriarte  
Iñigo Urrutia Libarona

### **Estatuaren Zuzenbide Eliztarra**

TALDEBURUA: Ana Leturia Navarora  
AUTOREAK:

Ana Leturia Navarora  
Igor Minteguía Arregui

### **Europar Batasuneko Zuzenbidea**

TALDEBURUA: Iñigo Iruretagoiena Agirrezabalaga  
AUTOREAK:

Oscar Abalde Cantero  
Iñigo Iruretagoiena Agirrezabalaga

### **Finantza Zuzenbidea**

TALDEBURUA: Iruñe Suberbiola Garbizu  
AUTOREAK:

José Luis Burlada Echeveste  
Aitor Orena Domínguez  
Susana Serrano Gazteluurrutia  
Iruñe Suberbiola Garbizu

### **Hizkera eta terminologia juridikoa**

TALDEBURUA: Xabier Alberdi Larizgoitia  
AUTOREAK:

Miren Azkarate Villar  
Xabier Alberdi Larizgoitia  
Joseba Ezeiza Ramos

### **Konstituzio Zuzenbidea**

TALDEBURUA: Leire Escajedo San-Epifanio  
AUTOREAK:

Jasone Astola Madariaga  
Leire Escajedo San-Epifanio  
Amaia Inza Bartolomé  
Alberto López-Basaguren  
Maite Zelaia Garagarza

### **Lan Zuzenbidea eta Gizarte Segurantzza**

TALDEBURUA: Aitor Bengoetxea Alkorta  
AUTOREAK:

Aitor Bengoetxea Alkorta  
Garbiñe Biurrun Mancisidor

### **Merkataritza Zuzenbidea**

TALDEBURUA: Rosa Otxoa-Errarte Goikoetxea  
AUTOREAK:

Igone Altzelai Uliondo  
Nerea Iraculis Arregui  
Elena Leñena Mendizabal  
Rosa Otxoa-Errarte Goikoetxea

### **Nazioarteko Zuzenbide Pribatua**

TALDEBURUA: Idoia Otaegi Aizpurua  
AUTOREA: Idoia Otaegi Aizpurua

### **Nazioarteko Zuzenbide Publikoa**

TALDEBURUA: Iñigo Iruretagoiena Agirrezabalaga  
AUTOREAK:

Oscar Abalde Cantero  
Iñigo Iruretagoiena Agirrezabalaga

### **Zigor Zuzenbidea**

TALDEBURUA: Enara Garro Carrera  
AUTOREAK:

Enara Garro Carrera  
Jon Mirena Landa Gorostiza  
María del Río Pereda  
Ana Isabel Pérez Machío

---

---

**Zuzenbide Erromatarra**

TALDEBURUA: José Ángel Tamayo Errazquin

AUTOREA: José Ángel Tamayo Errazquin

**Zuzenbide Prozesala**

TALDEBURUAK:

Katixa Etxebarria Estankona

Goizeder Otazua Zabala

AUTOREAK:

Katixa Etxebarria Estankona

José Francisco Etxeberria Guridi

Eneko Echeverria Bereciartua

Iñaki Esparza Leibar

Ixusko Ordeñana Gezuraga

Goizeder Otazua Zabala

---

**Zuzenbide Zibila**

TALDEBURUA: Irantzu Beriain Flores

AUTOREAK:

Itziar Alkorta Idiakez

Jon Atxutegi Gutierrez

Irantzu Beriain Flores

Izaro Briones Aramendi

Madalen Goiria Montoya

Leire Imaz Zubiaur

Maite Oria Elgarresta

Amaia Uskola Mendieta

Ibon Viteri Zubia

**Zuzenbidearen Teoria, Filosofia**

TALDEBURUA: Arantza Campos Rubio

AUTOREAK:

Arantza Campos Rubio

Eneko Compains Silva

Fernando Tapia Alberdi

---

# AURKIBIDEA

<b>Hitzaurrea</b> .....	XI
<b>Sarrera</b> .....	XIII
Hiztegiaren testuingurua: sorrera eta helburua .....	XIII
Terminologiarekiko ikuspegia, definizio-moldeak eta izaera deskriptiboa .....	XIV
Lanerako metodologia .....	XVI
Hiztegiaren egitura .....	XVI
Hiztegiaren mikroegitura: sarrerren egitura .....	XVII
Azken oharra hiztegi juridikoaren garrantziaz eta zabalkundeaz .....	XX
<b>Zuzenbidearen arloak eta haien laburdurak</b> .....	XXIII
<b>Siglak</b> .....	XXV
<b>Erakundeak</b> .....	XXXIII
Estatuko administrazio orokorra .....	XXXIII
EAE .....	XXXVIII
Nafarroa .....	XXXIX
Araba .....	XXXIX
Bizkaia .....	XXXIX
Gipuzkoa .....	XXXIX
<b>Epaitegiak</b> .....	XLI
<b>Arau-xedapenak</b> .....	XLIII
Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko arau-xedapenak .....	XLIII
Nazioarteko Zuzenbide Publikoko arau-xedapenak .....	XLV
Estatuko arau-xedapenak .....	XLVI
Euskal Autonomia Erkidegoko arau-xedapenak .....	LVII
Nafarroako Foru Erkidegoko arau-xedapenak .....	LVIII
Lurralde historikoen arau-xedapenak .....	LX
<b>Zergak</b> .....	LXXV
<b>Hiztegia</b> .....	1
<b>Glosarioa</b> .....	263





## HITZAURREA

Diziplina akademiko orok corpus linguistiko normalizatu eta egonkor bat eduki behar du, espezialistek ikertzeko, lan berriak kontrastatzeko eta lan horiek modu argian zabaltzeko aukera izan dezaten, irakaskuntzaren eta dibulgazioaren bitartez. Hizkuntza normalizatu bat izan ezean, ahalegin akademikoak atzean geratzera eta, are okerrago, nahasmenera kondenatuta daude.

Hizkuntza, azken batean, zientzia eta kulturarako tresna bat da. Eta zientziak eta kulturak beharrezkoa dute tresna hori guztiz zehatza izatea, pentsamenduaren behar guztiei erantzuteko eta ideiak eta errealitateak, kontzeptuak eta teoriak modu egokian islatzeko.

Euskal Herriko Unibertsitatean erabat jabetzen gara egoera horretaz. Erakunde akademiko bat garen neurrian, gure konpromisoetako bat euskarari beharrezkoak dituen elementu kontzeptualak ematea izan da, goi mailako prestakuntza eta bikaintasuneko ikerketa euskaraz gara daitezten. Mendeetan zehar zientziatik eta kulturatik aldentuta egondako hizkuntza batez ari gara, orain, zorionez, unibertsitate lanerako bitarteko zehatz eta eraginkor bihurtu dena.

Izan ere, gaur egun, lan akademiko eta intelektual izugarri handia egiten da euskaraz; lan bat, jakintza arlo guztietara iristen dena. Harro sentiarazten nau (gure unibertsitateko kide guztiok harro sentiarazi behar gaitu) UPV/EHU, neurri handi batean, aurrerapen aparta horren erantzule izateak.

Ezbairik gabe, euskal gizarte osoak batera egingandako ahalegin batez hitz egiten ari gara, horren barruan sartuta erakunde publikoak eta beste-

Toda disciplina académica necesita un corpus lingüístico normalizado, estable, que permita a especialistas desarrollar sus investigaciones, contrastar nuevos trabajos, y difundirlos de forma clara a través de la docencia y la divulgación. Sin un lenguaje normalizado, los esfuerzos académicos están condenados al retraso y, todavía peor, a la confusión.

La lengua, al fin y al cabo, es un instrumento para la ciencia y la cultura. Y la ciencia y la cultura necesitan que ese instrumento sea muy preciso, responda a todas las necesidades del pensamiento y refleje con fidelidad ideas y realidades, conceptos y teorías.

En la Universidad del País Vasco somos plenamente conscientes de esa circunstancia. Uno de nuestros compromisos como institución académica ha sido dotar al euskera de los elementos conceptuales necesarios para desarrollar la formación superior y la investigación de excelencia. Hablamos de una lengua secularmente apartada de la ciencia y la cultura, y que ahora, por fortuna, ya se ha convertido en un medio preciso y eficaz para el trabajo universitario.

En efecto, hoy día se desarrolla en euskera un ingente trabajo académico e intelectual, un trabajo que alcanza todas las áreas de conocimiento. Me llena de orgullo (nos debe llenar de orgullo a todas las personas que formamos parte de nuestra comunidad universitaria) que la UPV/EHU haya sido, en buena parte, responsable de ese extraordinario avance.

Hablamos, sin duda, de un esfuerzo comparado con toda la sociedad vasca, con sus instituciones públicas y con muchas otras en-

lako kultur erakunde eta elkarte asko. Edonola ere, prozesu kolektibo horretan, Euskal Herriko Unibertsitateak ezinbesteko ekarpena egin du euskaraz emandako irakaskuntzaren bidez, euskarazko ikerketen bidez, euskarazko idatzien eta argitalpenen bidez, euskarazko material pedagogikoen sorreraren bidez, euskarazko sormen artistikoaren bidez...

Lan hori egin baldin badugu zientziaren eta teknologiaren hainbat adarretan, gaur egun euskara tresna baldin bada medikuntzan edo arkitekturan, ingeniartzan edo arte ederretan, helburu saihestezin bat zen zuzenbidearen mundura ere zabaltzea.

Jakina, hau ez da lan berri bat: pertsona askok denbora daramate lanean helburu hori betetzeko (gure unibertsitatearen Zuzenbide Fakultateak mende erdi bete du, eta euskaraz irakastea eta ikertzea konpromiso bat izan da beti ikastegi honetan), baina normalizazio terminologikoko lan horrek ekarpen berriak eskatzen ditu etengabe, lege berriak sortzen direlako, kontzeptu juridiko berriak, eta gero eta modu zehatzagoan definitu behar dira.

Alde horretatik, gaur aurkezten dugun hiztegi terminologikoa funtsezko ekarpen bat da. Hemendik aurrera, erreferente zientifiko bat izango da zuzenbidearen arloko profesionalentzat, irakasleentzat eta baita justiziaren arloko pertsona guztientzat ere.

Beraz, errektore gisa, gure unibertsitateko Zuzenbide Fakultateari bene-benetan eskerrak ematea dagokit, eginiko ahaleginagatik, eta bereziki Euskara Batzordeari eta, egile gisa edo koordinatzaile gisa, proiektuan gogotsu parte hartu duten lagun guztiei.

Eskerrik asko eginiko lanagatik eta eskerrik asko, batez ere, emaitza bikainarengatik.

Nekane Balluerka Lasa  
*UPV/EHUko errektorea*

tidades y asociaciones culturales. Pero la Universidad del País Vasco, a través de la docencia en euskera, la investigación en euskera, la escritura y la publicación en euskera, la elaboración de materiales pedagógicos en euskera, la creación artística en euskera... ha sido responsable de una aportación imprescindible en ese proceso colectivo.

Si hemos desarrollado esa tarea en las distintas ramas de la ciencia y la tecnología, si el euskera es hoy una herramienta para la medicina o la arquitectura, para la ingeniería o las bellas artes, extenderla al mundo del derecho era un objetivo inevitable.

Por supuesto, esta no es una labor nueva: muchas personas llevan tiempo trabajando en pos de ese objetivo (La Facultad de Derecho de nuestra universidad tiene medio siglo de existencia, y en ella la docencia y la investigación en euskera siempre han sido un compromiso), pero esa labor de normalización terminológica requiere constantemente nuevas aportaciones, porque surgen nuevas leyes, nuevos conceptos jurídicos, y deben definirse de forma cada vez más precisa.

En ese sentido, el diccionario terminológico que hoy presentamos es una aportación capital. A partir de ahora, será un referente científico para profesionales del derecho, para docentes y también para todas las personas vinculadas con el mundo de la justicia.

Solo me queda, como rectora, agradecer muy sinceramente a la Facultad de Derecho de nuestra universidad el esfuerzo realizado, en especial a la Comisión de Euskera y a las decenas de personas que han participado activamente en el proyecto, a través de la autoría o la coordinación.

Gracias por tanto trabajo y gracias, sobre todo, por los excelentes resultados.

Nekane Balluerka Lasa  
*Rectora de la UPV/EHU*

## SARRERA

### Hiztegiaren testuingurua: sorrera eta helburua

UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko Euskara Batzordearen ekimenez sortu zen euskarazko hiztegi juridikoaren proiektua, eta fakultateko irakasle elebidunen langintza eta lankidetzari esker gauzatu da orain dela urte batzuk egitasmo hutsa zena. Une egokian argitaratuko da lan hau; hain zuzen ere, **Zuzenbide Fakultatearen 50. urteurrena** ospatzen ari garen honetan. Hiztegi juridiko honek, mende erdiko ibilbidean egindako beste lanek bezalaxe, agerian uzten du UPV/EHUren Zuzenbide Fakultateak **euskara juridikoaren garapen- eta normalizazio-prozesua** sustatzeko duen **konpromiso irmoa** eta helburu horri begira egiten duen **lan etengabea**. Ez gabiltza oso oker esaten dugunean, **zuzenbideko irakasle euskaldunen hiru belaunaldi**, behintzat, daudela ordezkaturata lan honen egile-taldean. Haietako batzuk, **aitzindariak izan dira dagokien alorrean euskaraz irakasten; beste batzuk, berriz, zuzenbideko ikasketak osorik euskaraz** egin dituzten irakasle gazteak.

Urte asko joan dira UZEIk 1985ean lehen Zuzenbide Hiztegia argitaratu zuenetik, eta harrezkero ibilbide luzea egin da euskara juridikoa garatzeko. Aipagarriak dira eragile askoren lanak: besteak beste, Euskal Herriko administrazioen eta bereziki IVAPen lana, UPV/EHUK eta Deustuko Unibertsitateak egindakoa, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak eta Terminologia Batzordeak egindakoa... Erabateko normalizaziotik urrun bagaude ere, ikaragarria da egin den aurrerapena; horren lekuko, Zuzenbide Corpusak<sup>1</sup> jasotzen dituen emaitzak. Azken hamarkada hauetan gaikako edo arlokako hiztegi juridiko asko egin eta argitaratu dira, baina, hala eta guztiz ere, **nabaria zen hiztegi juridiko orokor edo orotariko baten falta**. Eta, hain zuzen ere, hutsune hori betetzera etorri da orain esku artean duzun hiztegi juridiko hau.

Euskal Herri osoan UPV/EHUko Zuzenbide Fakultatea da ikasketa guztiak euskaraz eskaintzen dituen eragile bakarra eta, dimentsio hori kontuan hartuta, ezinbestekotzat jo genuen bertako ikasle, **irakasle eta langileek erabili ahal izango zuten hiztegi juridikoa** sortzea. Funtsezko tresna da hiztegia, gure egunerokoa erabiltzen dugun terminologia juridikoari batasuna eta oinarri sendoagoa emateko. **Gure komunitate juridikoan terminologia bateratua adosteko eta erabiltzeko aukera ahalbidetzen duen euskarri elebiduna da hiztegi juridiko hau**. Irakaskuntzan, ikerketan zein kudeaketan erabiltzeko tresna aproposa. Fakultatea osatzen dugunon lanaren kanpo- eta barne-eremu guztietan erraz integratzen den baliabidea. Fakultatean egiten dugun lana ikusgai jartzen duena.

Hiztegiaren **lehen erabiltzaileak**, lana egiterakoan bereziki gogoan izan ditugunak, UPV/EHUko ikasle, irakasle eta langileak dira, baina ez dago esan beharrik **arlo juridikoko eragile guztien-**

---

<sup>1</sup> <http://www.ehu.es/ehg/zuzenbidea/>

**tzat** pentsatuta dagoela hiztegia. Are gehiago, zuzenbideak gizarte-bizitzan eta hedabideetan duen eragin ikaragarria kontuan harturik, zilegi da esatea gizarte osoa dela hiztegi honen hartzailea.

Esan bezala, UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko irakasle askok lan egin dute hiztegian: **5 koordinatzailek, 15 taldeburuk eta 51 autorek**. Beraz, erabatekoa izan da fakultateko irakasle elebidunen inplikazioa. Hiztegia arloka antolatu zen eta arlo bakoitzean taldeburu bat arduratu zen lana koordinatzeaz. Hamalau arlo hauek bereizi dira hiztegian:

- Administrazio Zuzenbidea (*Admin. Zuz.*)
- Europar Batasuneko Zuzenbidea (*EB. Zuz.*)
- Finantza Zuzenbidea (*Fin. Zuz.*)
- Konstituzio Zuzenbidea (*Konst. Zuz.*)
- Kontzientzia Askatasunari buruzko Zuzenbidea (*Kontz. Ask. Zuz.*)
- Lan Zuzenbidea eta Gizarte Segurantzza (*Lan Zuz.*)
- Merkataritza Zuzenbidea (*Merkat. Zuz.*)
- Nazioarteko Zuzenbide Pribatua (*Nart. Zuz. Pr.*)
- Nazioarteko Zuzenbide Publikoa (*Nart. Zuz. Pu.*)
- Zigor Zuzenbidea (*Zig. Zuz.*)
- Zuzenbide Erromatarra (*Zuz. Err.*)
- Zuzenbide Prozesala (*Zuz. Proz.*)
- Zuzenbide Zibila (*Zuz. Zib.*)
- Zuzenbidearen Teoria (*Zuz. T.*)

Haien artean, Zuzenbide Fakultatean **hizkera eta komunikazio juridikoa irakasten eta jurilinguistikaren alorrean lan egiten duten hiru hizkuntzalari** aritu dira proiektuan. Haiek arduratu dira hiztegiaren diseinuaz, terminologia erauzi eta lantzeko metodologiaz, definizioen idazketa-gidalerroez eta hizkuntza-irizpidez eta edizioaz.

## Terminologiarekiko ikuspegia, definizio-moldeak eta izaera deskriptiboa

**Hiztegi gintzari buruzko ikuspegiari dagokionez, *Diccionario del español jurídico (DEJ)*<sup>2</sup> izan dugu eredu eta gidari.** Eta horrek esan nahi du hizkuntza-hiztegiak egiteko erabili ohi diren metodologia eta **irizpide lexikografikoak** erabiltzea: definizio entziklopediko luzeak eman beharrean, **ahalik eta definizio laburren eta argienak** ematen ahalegindu gara, argibide osagarriekin osatuz terminoari buruzko informazioa.

Gure ikuspegia, beraz, **Terminologiaren Teoria Komunikatiboaren (TCT) ildoan** kokatzen da (Cabré, 1993)<sup>3</sup>, eta guztiz aldentzen da Wüster-en (1979)<sup>4</sup> Terminologiaren Teoria Orokorretik (TTO). Izan ere, TTOren arabera: kontzeptu espezializatuak (haien ustez, hizkuntzaren aurretikoak

---

<sup>2</sup> <https://dej.rae.es/>

<sup>3</sup> Cabré, M.T. (1993): *La terminología: teoría, metodología, aplicaciones*. Barcelona: Antártida/Empúries.

<sup>4</sup> Wüster, E. (1998), *Introducción a la Teoría general terminológica y a la lexicografía terminológica*. Barcelona: IULA (1979koa da jatorrizkoa).

eta unibertsalak) ditu aztergai terminologiak, eta ez hitzak eta haien esanahiak; ez da onartzen polisemiarik eta sinonimiarik; hiztegi espezializatuetatik kanpo geratzen dira kategoria predikatiboak (aditzak, esaterako); definizio-bide bakarra onartzen da (deskriptore generikoa + ezaugarri bereizgarriak); kontzeptuen antolaketa hierarkiko eta zurruna du oinarri terminologiak...

Oso bestelakoa da teoria komunikatiboaren ikuspegia. TCTren arabera, terminologiak balio espezializatuko unitate linguistikoak (BEUak) ditu aztergai eta hizkuntza naturala du oinarri. Eta horrek esan nahi du ez dagoela hitzen eta terminoen arteko bereizketa zurrun eta erabatekorik: izan ere, terminoak, azken batean, komunikazio espezializatuaren jardunean balio terminologikoa bereganatzen duten unitate linguistiko arruntak baino ez dira (hau da, komunikazio espezializatuan erabiltzen direnean aktibatzen da hitzen balio espezializatuak). Hortaz, kontzeptuak ez dira existitzen izaki bakartu gisa, testu espezializatuari esker baizik. Ondorioz, izaera linguistikoa du terminoen esanahiak, eta **hizkuntzaren beste edozein unitatetan bezain ohikoak dira sinonimia eta aldakortasuna terminoen (BEUen) alorrean.**

Teoria komunikatiboaren arabera jokatu dugu euskarazko hiztegi juridiko honetan **definizioak** (*definiendum*) moldatzean: a) erabiltzailearen soslaiaren arabera egokitu ditugu definizioak (erabiltzaile ez-adituak ulertzeko moduko definizio labur eta al bait argienak); b) sarrera polisemikoak ere jaso ditugu; c) askotariko estrategiak erabili ditugu definizioak idaztean (definizio inklusibo klasiko «aristotelikoa» —deskriptore generiko hiperonimikoa + ezaugarri bereizgarriak—, parafraisi bidezkoa, eta sinonimoen bidezkoa); d) aldakortasun kontzeptuala (sinonimia) jasotzen ahalgindu gara. Labur esanda, lexikografiaren eruditik gertu ibili gara terminoak definitzean: definizioaren helburua ez baita ahalik eta kontzeptuari buruzko xehetasun gehien ematea, baizik eta irakurlea balio espezializatuko unitate (BEU) horren esanahiaz jabetzeko adinako informazioa ematea; eta horregatik jo izan dugu definizio laburretara.

Terminologia juridikoa bateratzea eta finkatzea da hiztegi honen helburu nagusietako bat, baina, hala ere, horrek ez du esan nahi hiztegi arauemaitzat jo behar denik. Hain zuzen ere, geure egin dugun ikuspegi komunikatibo horretatik eratortzen da hiztegiaren **izaera deskriptiboa**: UPV/EHUko testuetatik elikatzen da hiztegi hau, eta, ezinbestean, Euskaltzaindiaren hiztegi batua du oinarri. Helburua, beraz, aldakortasuna onartzen duen eredu bat eskaintzea da, eta ez, hainbeste, eredu zurrun bat inori ezartzea.

Aldi berean, euskaraz komunikatzean **segurtasun juridikoa eta herritarrek ulertzeko duten eskubidea**<sup>5</sup> bermatzen laguntzea da hiztegi honen beste helburu garrantzitsu bat. Argitalpen hau hizkera argiaren bidetik aurrera egiteko beste urrats erabakigarri bat izatea nahi genuke.

<sup>5</sup> Ikus lan hauek, besteak beste:

Herritarrek Justiziaren aurrean dituzten eskubideen Gutuna (2002): [https://www.justizia.eus/servlet/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fpdf&blobheadername1=Content-Disposition&blobheaderval1=filename%3Ddocumentos-303-carta-derechos-EUSK\\_0.pdf&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1290510252341&ssbinary=true&miVar=1524343183302](https://www.justizia.eus/servlet/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fpdf&blobheadername1=Content-Disposition&blobheaderval1=filename%3Ddocumentos-303-carta-derechos-EUSK_0.pdf&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1290510252341&ssbinary=true&miVar=1524343183302)

Hizkera Juridikoa Modernizatzeko Batzordearen txostena (9):

<http://www.upv.es/entidades/VRSC/info/U0711342.pdf>

Ainhoa Altzuguren-en «Hizkera juridiko argia» web-orria:

<https://ainhoaltzuguren.wixsite.com/hizkerajuridikoargia>

## Lanerako metodologia

Terminologiari buruzko ikuspegi komunikatiboari jarraituz, UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko irakasleen testuetan oinarritu ginen euskarazko hiztegi juridiko hau egiteko: alegia, hasteko, irakasleen testugintza izan genuen oinarri eta hartatik erauzi genituen aukeraturiko arlo juridikoe-tako glosarioak osatzeko terminoak (UPV/EHUko «Terminologia Sareak Ehunduz» programaren bidez)<sup>6</sup>. Beraz, UPV/EHUko testu errealak eta testu haietatik erauzitako terminoak izan ziren hiztegiaren lehen iturria, barne-iturria, alegia.

Bestalde, UPV/EHUko ekoizpenarekin jarraituz, gure hiztegi juridikoan definitu beharreko terminoen zerrenda finkatzeko orduan oso kontuan hartu genuen, halaber, UPV/EHUK argitaratutako Legeak/Leyes<sup>7</sup> bildumako terminologia.

Azkenik, kanpo-iturriak ere erabili genituen hiztegiko sarrerak finkatzeko: alde batetik, erdal hiztegi juridikoak<sup>8</sup>, Terminologia Batzordeak arlo juridikoan landutako glosarioak<sup>9</sup>, Euskalterm<sup>10</sup>, Deustuko Unibertsitateak argitaratutako berbategiak eta abar.

Behin terminoen erauzketa eginda eta barne- eta kanpo-iturriak kontsultatuta, definitu beharreko terminoen zerrenda —hiztegiaren oinarria— finkatu zen koordinatzaileen artean eta taldeburuen laguntzaz: ezinbestean, termino ugari utzi behar izan ziren kanpoan, argitalpena arrazoizko luzeraneurri batera ekartzearren. Handik aurrera, arloz arlo, definizioak idazteari eta sarrerak osatzeari ekin zioten hamalau arlo juridikoetako taldeburu eta autoreek.

Bestalde, hasieratik eta bukatu arte, hizkuntza-arduradunek arreta handiz gainbegiratu eta zuzendu dute erredakzio-lana: hasieran definizioak idazteko estilo-liburu baten bidez, eta prozesuaren erdian eta amaieran testuak eta moldiztegiko probak zuzenduta.

## Hiztegiaren egitura

Atal batzuez osatuta dago euskarazko hiztegi juridiko hau, baina, euskarazko sarrerak alfabetikoki ordenatuak dituen atala —definizioz eta oharrez hornitua— da, zalantzarik gabe, lanaren

---

<sup>6</sup> Zuzenbide Fakultateko irakasle elebidun ia guztiek parte hartu zuten UPV/EHUko «Terminologia Sareak Ehunduz (TSE)» programan: <https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/terminologia-sareak-ehunduz>

<sup>7</sup> <https://www.ehu.eus/es/web/euskara/legeak-leyes-bilduma>

<sup>8</sup> Funtsezkoa den *Diccionario del español jurídico (DEJ)* hiztegi azar (a)parte (<https://dej.rae.es/>), honako hauek, besteak beste:

Arco Torres, M.A.; Villa-Real, R. (2006): *Diccionario de términos jurídicos*. Granada: Comares.

Fernández Martínez, J. M. (2012): *Diccionario jurídico*. Pamplona: Aranzadi.

Fonseca Herrero, J.I.; Iglesias Sánchez, M.J. (2010): *Diccionario jurídico*. Madrid: Colex.

Fundación Tomás Moro (2004): *Diccionario jurídico Espasa*. Madrid: Espasa.

Gómez de Liaño, F. (1979): *Diccionario jurídico*. Oviedo: Forum.

Ortiz Sánchez, M.; Pérez Pino, V. (2012): *Diccionario jurídico básico*. Tecnos.

Villa-Real, R.; del Arco Torres, M.A. (2014): *Diccionario jurídico elemental*. Granada: Comares, 7. argitaraldia.

<sup>9</sup> <http://www.euskadi.eus/hiztegiak-banku-terminologikoak-eta-entziklopediak/web01-a2eutres/eu/>

<sup>10</sup> <http://www.euskadi.net/euskalterm>

muina. Izan ere, lehenengo eta behin, erabiltzaile euskalduna izan dugu gogoan hiztegia osatze-rakoan.

Hala ere, mesede gutxi egingo genion geure buruari eta gizarteari, euskara hutsezko hiztegi juri-diko bat egin izan bagenu. Izan ere, askotan azpimarratu izan denez, onenean mundu juridikoaren errealitatea elebiduna da gure artean: alegia, ezinbestean, gaztelania alboan edo gogoan duela ibili beharra dauka jurista euskaldunak.

Beraz, errealitate elebidunak baldintzatu du hiztegiaren egitura. Hasieran, eranskin elebidun ba-tzuk jarri ditugu, erabiltzaileari lana erraztuko diotelakoan:

- Zuzenbidearen arloak edo adarrak, eta haien laburdurak.
- Siglak: auzitegien eta arauen izenak eta siglak.
- Erakundeen izenak.
- Epaitegi eta auzitegien izenak.
- Arau-xedapenak (maila guztietakoak: Nazioarteko Zuzenbide Publikokoak, Zuzenbide Priba-tukoak, Estatukoak, Euskal Autonomia Erkidegokoak, Nafarroako Foru Erkidegokoak eta lu-rralde historikoenak).
- Zergen izenak.

Gero, atal nagusia dator: euskarazko sarrera definiziodunen atala, hurrenkera alfabetikoan orde-natua. Oro har, laburrak dira sarrera gehienak, nahita baztertu baitugu hiztegi entziklopedikoetako artikuluen estiloa: funtsezko argibideak ematen dira definizioan, eta gero argibide osagarriak (ikus beherago sarreren egiturari buruzko atala, gainerako xehetasunen berri jakiteko). Guztira, sinoni-moak kontatuta, 3.500 termino baino gehiago ditu hiztegiak.

Eta, azkenik, termino guztien zerrenda elebidun hutsa dator: gaztelania-euskara zerrenda defini-ziorik gabea. Esan bezala, atal hau ere funtsezkoa izango da hiztegiaren erabiltzailearentzat.

## Hiztegiaren mikroegitura: sarreren egitura

Sarrera lexikografiko batek honelako egitura izan ohi du:

definigaiak	+	kategoria lexikoa	+	definizioa
(definitu beharreko hitza, «definiendum»)		(izena, izenondoa, aditza, adberbioa...)		(«definiens»)

Hiztegi juridiko honetan —*Diccionario del español jurídico* hiztegian eta Euskalermen bezala<sup>11</sup>— ez da zehazten kategoria, baina horrek ez du esan nahi kategoria desberdinak jaso ez direnik. Izan

<sup>11</sup> Cercaterm terminologia-bankuan (<https://www.termcat.cat/ca/cercaterm>), berriz, kategoria lexikoa zehazten dute: adibidez,

ca **acusar**, v tr  
es **acusar**, v tr



ere, Terminologiaren Teoria Orokorren arabera lan terminografikoetan ez bezala, kategoria predikatibo ugari jaso ditugu hiztegian (batez ere, aditzak, hala nola *aldarrikatu*, *akusatu*, *alegatu*, *artxibatu*, *aurkaratu*, *aurrejuzgatu*, *baliozkotu*, *derogatu*, *deuseztatu*, *errebokatu*, *eskualdatu*, *epatu*, *errefusatu*, *errekusatu*, *espetxeratu*, *heredatu*, *inkulpatu*, *jarauntsi*, *kalifikatu*, *mugarritzatu*, *ordezkatu*, *tatxatu*, *xedatu*, *zedarritzatu*...).

Sarrera bi hauek ditugu jokaera horren erakusgarri (lehen terminoa izena da; bigarrena, berriz, aditza):

**akusatu 1** [*acusada, acusado*] ♦ *Zuz. Proz.* Zigor-prozesuko beharrezko alderdi pasiboa, akusazio-idazkiaren bitartez gauzatutako akusazioa pairatzen duena. Oh. PKL, 760 III, 368., 371., 373., 448., 512., 687. art. Ik. *alderdi akusatu*.

**akusatu 2** [*acusar*] ♦ *Zuz. Proz.* Zigor-akzioa egikaritu pertsona zehatz baten kontra.

Beraz, egia bada ere sarrera terminologiko gehienak izenak edo izen-kategoriakoak direla (*ahalmen*, *alderdi*, *aldarrikapen*, *aplikazio-eremu*...; *jabetza pribatu*, *itxurazko kontratu*...), merezi du azpimarratzea arlo juridikoko **aditz espezializatuen garrantzia**.

Bestalde, hizkuntza-hiztegi orokorretan ez bezala —eta egungo terminografia-lanetan egin ohi denez—, **askotariko «balio espezializatuko unitateak» (BEUak)** jaso dira hiztegi juridiko honetan sarrera gisa, eta ez bakarrik izen-kategoriakoak edota kategoria lexiko soilak:

**BEU lexikoak:** bakunak / konplexuak (eratorriak, elkartuak...):

- izenak (*abokazio*, *abokatu*...) / (*ahozkotasun*, *agerraldi*...)
- aditzak (*alegatu*, *kereilatu*, *zedarritzatu*...) / (*aurrejuzgatu*, *eskualdatu*...)
- ...

**BEU ez-lexikoak:**

- izen-sintagmak:
  - Europako Banku Zentrala*, *ahozko bista*, *ahozkotasun-printzipio*, *akats judicial*, *akusazio-sistema formal*, *alderdien galdeketa*, *demandaren prebentziozko oharpen*...
- aditz-sintagmak:
  - sorospen-betebeharra ez betetze*, *kanpora-bidaltze*, *atzera-itzultze*, *bidegabeko kaleratze*, *zor ez diren sarrerak itzultze*...

Behin kategoriaren kontua argituta, ikus ditzagun sarrera batzuk, hiztegi honetarako hautatu dugun mikroegituraren nondik norakoak azaltzeko:

**afektazio** [*afectación*] ♦ *Admin. Zuz. 1.* Eskubideak zein ondasunak interes orokorreko erabilera publiko batera zuzentzea. Normalean nahitaezko desjabetze desjabetze-prozeduretan da. Oh. 1954ko Nahitaezko Desjabetze Legea, 9. art. 2. Ondasun edo eskubideek jabari pu-

blikoko izaera eskuratzeko beharrezko den egintza. Horren bidez, ondasun edo eskubidea erabilera orokorrari edo zerbitzu publikoari atxikitzen zaio. Oh. 33/2003 Legea, 65. art. **Sin. xedemate Ik. jabari publiko, zerbitzu publiko.**

**arrazoitze [motivación]** ♦ *Zuz. T.* Ebazpen jakin bat oinarritzen duten arrazoien adierazpena. Ordenamendu juridikoak hainbat ebazpen edo egintza juridiko motibatzea eskatzen du, hala nola ebazpen judizialak eta Europar Batasuneko egintza juridikoak. **Oh.** 6/1985 Lege Organikoa, 247. art. eta 248. art.; Europar Batasuneko Funtzionamendu Hitzarmena, 296. art. **Sin. motibazio** ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio-egintza funtsatzen duten egitateen eta zuzenbideko oinarrien adierazpena. Administrazioak bere jardunean izan behar duen gardentasunak eta administrazio onaren eskubideak administrazio-egintza motibatzea eskatzen dute. Horrez gain, administrazio-erabakien kontrola ere errazten du. 39/2015 Legearen 35. artikulua zehazten du zein administrazio-egintzatan den nahitaezko arrazoitzea. **Oh.** 39/2015 Legea, 35 art. **Sin. motibazio Ik. administrazio-egintza.**

Aurreko adibideetan ikus daitekeenez, lehen-lehenik euskarazko terminoa (lema) ageri da, letra lodiz; ondoren, gaztelaniazko ordaina (letra etzanean eta parentesi karratuen artean): **afektazio [afectación]**.

Sarreretan, ♦ **ikurra** erabili da adierak zuzenbidearen adarren arabera bereizteko: goragoko lehen adibidean (*afektazio*), Administrazio Zuzenbidekoak (*Admin. Zuz.*) dira terminoaren bi adierak (1. «Eskubideak zein ondasunak...». 2. «Ondasun edo eskubideek...»). Bigarren adibidean (*arrazoitze*), berriz, Zuzenbidearen Teoriakoa (*Zuz. T.*) da lehen adiera («Ebazpen jakin bat...»), eta Administrazio Zuzenbidekoa (*Adm. Zuz.*), bigarren adiera («Administrazio-egintza...»).

Sarreretan, bestalde, **zenbakiak (1, 2, 3...)** erabili dira zuzenbidearen adar baten barruan termino batek adiera bat baino gehiago dituenen: esate baterako, *afektazio* sarreran, Administrazio Zuzenbidekoak dira terminoaren bi adierak (1. «Eskubideak zein ondasunak...». 2. «Ondasun edo eskubideek...»). *Arrazoitze* sarreran, berriz, ez da zenbakirik erabili; izan ere, bi adierak zuzenbidearen adarraren arabera (♦ *Zuz. T.* / ♦ *Admin. Zuz.*) bereizten dira.

Formatuari dagokionez, **letra lodi etzanez** eman ditugu **latinezko eta erdal terminoak**: *ius cogens*, *ius praetorium*, *iuris tantum*, *iuris tantum* presuntzio...

Era berean, letra etzanezko laburduren bidez adierazi dugu **zuzenbidearen arloa edo adarra** (hiztegiaren hasieran ageri da laburduren zerrenda): *Admin. Zuz.* (Administrazio Zuzenbidea), *Err. Zuz.* (Erromatar Zuzenbidea), *Nart. Zuz. Pu.* (Nazioarteko Zuzenbide Publiko) eta abar.

Sarrera askotan oharrak gehitu dira, gehienbat lege-esparruaren erreferentzia zehatza emateko; alegia, delako terminoa jasotzen, aipatzen edo definitzen duten legeen artikuluetara bidaltzen da irakurlea, nahi izanez gero, argibide zehatzagoak eskuratzeko. Horretarako, **Oh. laburdura** erabili da. *Arrazoitze* terminoaren lehen definizioaren ostean, esaterako, honako xehetasun hauek ematen dira: «**Oh.** 6/1985 Lege Organikoa, 247. art. eta 248. art.; Europar Batasuneko Funtzionamendu Hitzarmena, 296. art.». Erabaki horretan ere, *Diccionario del español jurídico (DEJ)*<sup>12</sup> hartu dugu

<sup>12</sup> <https://dej.rae.es/>

eredutzat; izan ere, sinetsita gaude erreferentzia osagarri horiek guztiz aberasgarri eta lagungarriak izango direla irakurlearentzat.

Lexikografian, ezinbestean, ohikoa izaten da hitz batzuk sinonimiaren bidez «definitzea». Eta hiztegi juridiko honetan ere, sinonimo ugari ageri dira. Arlo espezializatuetan oro har, eta arlo juridikoan zer esanik ez, eguneroko gertaera ezin saihestuzkoa da aldakortasuna, eta aldakortasun horren isla da gure hiztegian sinonimo ugari jaso izana. Horretarako, **Sin. laburdura** erabili dugu sarreraren amaieran; *arrazoitze* terminoaren kasuan: «**Sin. motibazio**».

Bestalde, termino batzuetan **Ik. laburdura** gehitu da sarreraren amaieran, modu laburrean kontzeptuaren inguruko argibide gehiago emateko edota definigaiarekin (*definiendum* delakoarekin) lotura duten beste termino batzuk ikusteko. *Arrazoitze* terminoaren kasuan, adibidez: «**Ik. administrazio-egintza**».

Batzuetan, hala ere, sinonimoen berri emateko erabili da **Ik. laburdura**: lehenesten den terminoaren ostean jaso dira definizioa eta sinonimoa (ikus *arrazoitze* sarrera); beste hitz sinonimoaren sarreran, berriz, termino lehenetsira bidaltzen da irakurlea, definiziorik eman gabe (Ikus *motibazio* sarrera). *Arrazoitze* eta *motibazio* terminoen kasuan, honela:

**arrazoitze [motivación]** ♦ *Zuz. T. (DEFINIZIOA) Sin. motibazio;* ♦ *Admin. Zuz. (DEFINIZIOA) Sin. motibazio*

**motibazio [motivación]** ♦ *Zuz. T., Admin. Zuz. Ik. arrazioitze.*

Sarreraren mikroegiturari buruzko atal hau amaitzeko, argitu dezagun zer definizio-eredu hautatu dugun hiztegi honetarako. Jakina denez, definizioa funtsezko osagaia da espezialitate-hiztegi baten sarreretan. Bada, gorago azaldu dugunez eta aurreko adibideetatik ondoriozta daitekeenez, oro har, **definizio laburraren bidetik** jo izan dugu hiztegian zehar, lexikografiako eredu geure eginez eta definizio entziklopedikoak bazterturik. Gehienbat, hiztegiaren erabiltzaile ez-aditua izan dugu gogoan: izan ere, helburua ez da kontzeptuaren inguruko xehetasun guztiak jasotzea, baizik eta azken batean irakurlea kontzeptu juridiko bakoitzaren muinaz jabetzea.

## Azken oharra hiztegi juridikoaren garrantziaz eta zabalkundeaz

Espainiako Hizkera Juridikoa Modernizatzeko Batzordeak bere txosten orokorrean dioenez<sup>13</sup>, zuzenbide-estatu batean beharrezkoa da ekintza eta arau juridikoak ulergarriak izatea herritarrentzat, eta, beraz, zuzenbideko eragile juridikoek erantzukizun berezia dute arlo horretan; eta are erantzukizun handiagoa dute erakundeek herritarren ulertzeko eskubidea bermatzeko orduan.

UPV/EHUK, hiztegi hau argitaratuta, pauso garrantzitsu bat ematen du herritarren ulertzeko eskubidea bermatzeko ahaleginean: izan ere, hiztegi hau guztiz lagungarria izan daiteke zuzenbideko ikasle eta profesional euskaldunen komunikazio-prestakuntzan aurrera egiteko.

---

<sup>13</sup> <http://www.upv.es/entidades/VRSC/info/U0711342.pdf>

Orain UPV/EHUK euskarazko hiztegi juridiko hau liburu-formatuan eta euskarri digitalean argitaratu du; baina onuragarria litzateke unibertsitateak gizarte osoarentzat etorkizun hurbilean hiztegia Internet bidez zabalduko balu, RAEk *Diccionario del español jurídico* hiztegiarekin egin duen moduan. Hala izango ahal da!

Bitartean ere, zintzoki espero dugu lan honen bidez Zuzenbidea euskaraz irakasteko eta Zuzenbidea euskaraz ikasteko hautua egin duten eta egingo duten guztiei dagokien aitortza ere egin izana. Izan ere, proiektu honetan eskuz esku aritu diren askok ondo dakitenez, ekinez egiten da bidea, eta hementxe dugu 35 urteko bide horretan UPV/EHUren Zuzenbide Fakultatean euskararen alde konpromisoa hartu duten guztiek euskarari egin dioten ekarpenaren ebidentzia adierazgarria.

Lana ez da hemen amaitu, noski. Bada, balio dezala hiztegi honek euskara juridikoaren aurrerabidean beste mugarri bat jartzeko, eta etorkizuneko lanei beste oinarri bat eskaintzeko.

Leioan, 2019ko uztailaren 19an

Hiztegiaren koordinatzaileak



## ZUZENBIDEAREN ARLOAK ETA HAIEN LABURDURAK

Administrazio Zuzenbidea	Admin. Zuz.
Europar Batasuneko Zuzenbidea	EB. Zuz.
Finantza Zuzenbidea	Fin. Zuz.
Konstituzio Zuzenbidea	Konst. Zuz.
Kontzientzia Askatasunari buruzko Zuzenbidea	Kontz. Ask. Zuz.
Lan Zuzenbidea eta Gizarte Segurantza	Lan Zuz.
Merkataritza Zuzenbidea	Merkat. Zuz.
Nazioarteko Zuzenbide Pribatua	Nart. Zuz. Pr.
Nazioarteko Zuzenbide Publikoa	Nart. Zuz. Pu.
Zigor Zuzenbidea	Zig. Zuz.
Zuzenbide Erromatarra	Zuz. Err.
Zuzenbide Prozesala	Zuz. Proz.
Zuzenbide Zibila	Zuz. Zib.
Zuzenbidearen Teoria	Zuz. T.



## SIGLAK

AAE	Administrazioarekiko Auzien Epaitegia	JCA	Juzgado de lo Contencioso Administrativo
AE	Autonomia Estatutuak	EEAA	Estatutos de Autonomía
AAEZ	Administrazioarekiko Auzien Epaitegi Zentrala	JCCA	Juzgado Central de lo Contencioso Administrativo
AAI	Arbitrajeko Auzitegi Iraunkorra	CPA	Corte Permanente de Arbitraje
AAJL	Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legea	JJCA	Ley de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa
ADR	<i>Alternative dispute resolution</i> , gatazken konpontze alternatiboa	ADR	<i>Alternative dispute resolution</i> , resolución alternativa de conflictos
AE	Adingabeen Epaitegia	JM	Juzgado de Menores
AEDZ	Alkoholaren eta Edari Deribatuen gaineko Zerga	IABD	Impuesto sobre el Alcohol y Bebidas Derivadas
AEO	Espainiako Abokatzuzaren Estatutu Orokorra	EGA	Estatuto General de la Abogacía española
AEZ	Adingabeen Epaitegi Zentrala	JCM	Juzgado Central de Menores
AFHZ	Aberastasun eta Fortuna Handien gaineko Zerga	IRGF	Impuesto sobre la Riqueza y Grandes Fortunas
AG	Auzitegi Gorena	TS	Tribunal Supremo
AGE	Auzitegi Gorenaren Epaia	STS	Sentencia del Tribunal Supremo
AgKL	Agentzia Kontratuari buruzko Legea	LCA	Ley del Contrato de Agencia
AJL	Arazo Jurisdikzionalen Legea	LCJ	Ley de Conflictos de Jurisdicción
AKL	Aseguru Kontratuari buruzko Legea	LCS	Ley del Contrato de Seguro
AL	Arbitraje Legea	LA	Ley de Arbitraje
ALHAO	Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala	BOTHA	Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava



AN	Auzitegi Nazionala	AN	Audiencia Nacional
APZ	Aseguru Primen gaineko Zerga	IPS	Impuesto sobre Primas de Seguros
ASLO	Askatasun Sindikalaren Lege Organikoa	LOLS	Ley Orgánica de Libertad Sindical
ASSELO	Alarma-, Salbuespen- edo Setio-egoeren Lege Organikoa	LOEAES	Ley Orgánica de Estado de Alarma, Excepción y Sitio
AZEL	Adingabeen Zigor Erantzukizunaren Legea	LRPM	Ley de Responsabilidad Penal del Menor
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala	BOB	Boletín Oficial de Vizcaya
BE	Bake Epaitegia	JPaz	Juzgado de Paz
BEGFZ	Berotegi Efektua duten Gas Fluordunen gaineko Zerga	IGFEI	Impuesto sobre Gases Fluorados de Efecto Invernadero
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga	IVA	Impuesto sobre el Valor Añadido
BJKN	Botere Judizialeko Kontseilu Nagusia	CGPJ	Consejo General del Poder Judicial
BJL	Borondatezko Jurisdikzioaren Legea	LJV	Ley de Jurisdicción Voluntaria
BJLO	Botere Judizialaren Lege Organikoa	LOPJ	Ley Orgánica del Poder Judicial
BJKN	Botere Judizialeko Kontseilu Nagusia	CGPJ	Consejo General del Poder Judicial
BML	Balore Merkatuari buruzko Legea	LMV	Ley del Mercado de Valores
BZES	Banku Zentralen Europako Sistema	SEBC	Sistema Europeo de Bancos Centrales
CEDEX	Herri-lanen arloko Azterlanetarako eta Esperimentaziorako Zentroa	CEDEX	Centro de Estudios y Experimentación de Obras Públicas
D	Dekretua	D	Decreto
DBE	Delituaren Biktimaren Estatutua	EVD	Estatuto de la Víctima del Delito
DEPJL	Demarkazio eta Planta Judizialeko Legea	LDYPI	Ley de Demarcación y Planta Judicial
DLJL	Doako Laguntza Juridikoaren Legea	LAJG	Ley de Asistencia Jurídica Gratuita
EAA	Europako Atxilotzeko Agindua	ODE	Orden de Detención Europea

EAE	Euskadiko Autonomia Estatutua	EAPV	Estatuto de Autonomía del País Vasco
EAO	Estatuko Aldizkari Ofiziala	BOE	Boletín Oficial del Estado
EAPEO	Espainiako Auzitegietako prokuradoreen Estatutu orokorra	EGAE	Estatuto general de los procuradores de los Tribunales de España
EBZ	Europako Banku Zentrala	BEC	Banco Central Europeo
EBZEEAL	Europar Batasunean Zigor-ebazpenen Elkarrekiko Aintzatespenaren Legea	LRMRPUE	Ley de Reconocimiento Mutuo de Resoluciones Penales en la Unión Europea
ED	Errege Dekretua	RD	Real Decreto
EE	Europako Erkidegoa	CE	Comunidad Europea
EEE	Europako Ekonomia Erkidegoa	UEE	Unión Económica Europea
EEEBZ	Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zerga	IVPEE	Impuesto sobre el Valor de la Producción de la Energía Eléctrica
EEEZ	Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga	IRNR	Impuesto sobre la Renta de No Residentes
EFN	Estatuko Fiskal Nagusia	FGE	Fiscal General del Estado
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria	BOPV	Boletín Oficial del País Vasco
EIE	Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegia	JVM	Juzgado de Violencia sobre la Mujer
EIOZ	Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga	ICIO	Impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras
EJZ	Ekonomia Jardueren gaineko Zerga	IAE	Impuesto sobre Actividades Económicas
EK	Espainiako Konstituzioa	CE	Constitución Española
ELD	Errege Lege-Dekretua	RD-Ley	Real Decreto-Ley
ELOO	Espetxeen Lege Organiko Orokorra	LOGP	Ley Orgánica General Penitenciaria
ENAHEIZBZ	Erregai Nuklear Agortua eta Hondakin Erradioaktiboak Instalazio Zentralizatueta Biltegiatzearen gaineko Zerga	IACNGRRIC	Impuesto sobre el Almacenamiento de Combustible Nuclear Gastado y Residuos Radiactivos en Instalaciones Centralizadas

ENSDENAHESZ	Energia Nukleoelektrikoa Sortzetik Deribatutako Erregai Nuklear Agortua eta Hondakin Erradioaktiboak Sortzearen gaineko Zerga	IPCNGRRRGEN	Impuesto sobre la Producción de Combustible Nuclear Gastado y Residuos Radiactivos Resultantes de la Generación de Energía Nucleoeléctrica
EPL	Estradizio Pasiboaren Legea	LEP	Ley de Extradición Pasiva
EZ	Elektrizitatearen gaineko Zerga	IE	Impuesto sobre la Electricidad
EZE	Espetxeratuen Zaintzako Epaitegia	JVP	Juzgado de Vigilancia Penitenciaria
EZEZ	Espetxeratuen Zaintzako Epaitegi Zentrala	JCVP	Juzgado Central de Vigilancia Penitenciaria
FA	Foru Araua	NF	Norma Foral
FD	Foru Dekretua	DF	Decreto Foral
FDA	Foru Dekretu Arauemailea	DFN	Decreto Foral Normativo
FL	Foru Legea	LF	Ley Foral
FZB	Fabrikazio Zerga Berezia	IEF	Impuesto Especial de Fabricación
GAO	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala	BOG	Boletín Oficial de Guipúzcoa
GEAI	Giza Eskubideen Auzitegi Interamerikarra	CIDH	Corte Interamericana de Derechos Humanos
GEEA	Giza Eskubideen Europako Auzitegia	TEDH	Tribunal Europeo de Derecho Humanos
GSLO	Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra	LGSS	Ley General de la Seguridad Social
GZ	Garagardoaren gaineko Zerga	IC	Impuesto sobre la Cerveza
HAEE	Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea	IVAP	Instituto Vasco de la Administración Pública
HCPLO	<i>Habeas Corpus</i> Prozeduraren Lege Organikoa	LOPHC	Ley Orgánica del Procedimiento de <i>Habeas Corpus</i>
HLBGZ	Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga	IIVTNU	Impuesto sobre el Incremento de Valor de Terrenos de Naturaleza Urbana
IAEE	Ikatzaren eta Altzairuaren Europako Erkidegoa	CECA	Comunidad Europea del Carbón y del Acero
ICSID	Inbertsioei buruzko Gatazken Konponketarako Nazioarteko Zentroa	CIADI	Centro Internacional de Arreglo de Diferencias relativas a Inversiones

IDAE	Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutua	IDAE	Instituto para la Diversificación y Ahorro de la Energía
IE	Instrukzioko Epaitegia	JJ	Juzgado de Instrucción
IEZ	Instrukzioko Epaitegi Zentrala	JCI	Juzgado Central de Instrucción
IKEL	Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko Legea	LIIC	Ley de Instituciones de Inversión Colectiva
INL	Itsas Nabigazioari buruzko Legea	LNM	Ley de Navegación Marítima
JAN	Justizia Auzitegi Nagusia	TSJ	Tribunal Superior de Justicia
JDZ	Jaraunspen eta Dohaintzen gaineko Zerga	ISD	Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones
JJZ	Joko Jardueren gaineko Zerga	IAJ	Impuesto sobre Actividades de Juego
JML	Jurisdikzio Militarren Legea	LJM	Ley de la Jurisdicción Militar
JT	Jokoen gaineko Tributuak	TJ	Tributos sobre el Juego
KA	Konstituzio Auzitegia	TC	Tribunal Constitucional
KAE	Konstituzio Auzitegiaren Epaia	STC	Sentencia del Tribunal Constitucional
KAL	Kontuen Auditoretzari buruzko Legea	LAC	Ley de Auditoría de Cuentas
KALO	Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoa	LOTC	Ley Orgánica del Tribunal Constitucional
KBL-	Kapital Baltzuen Legea	LSC:	Ley de Sociedades de Capital
KBOL	Kontrataziorako Baldintza Orokorren Legea	LCGC	Ley sobre Condiciones Generales de la Contratación
KEGZ	Kreditu Erakundeetako Gordailuen gaineko Zerga	IDEC	Impuesto sobre los Depósitos en las Entidades de Crédito
KN	Kautelazko neurriak	MMCC	Medidas cautelares
KLTL	Kanbio-letrari eta Txekeari buruzko Legea	LCCH	Ley Cambiaria y del Cheque
KonA	Kontuen Auzitegia	Tcu	Tribunal de Cuentas
KonL	Konkurto Legea	LC	Ley Concursal
KPO	Kontabilitate Plan Orokorra	PGC	Plan General de Contabilidad
KSL	Kapital Sozietateei buruzko Legea	LSC	Ley de Sociedades de Capital
KZ	Kode Zibila	CC	Código Civil
L	Legea	L	Ley

LAE	Lehen Auzialdiko Epaitegia	JPI	Juzgado de Primera instancia
LBL	Lehiaren Babesari buruzko Legea	LDC	Ley de Defensa de la Competencia
LDL	Lehia Desleialari buruzko Legea	LCD	Ley de Competencia Desleal
LE	Lan arloko Epaitegia	JS	Juzgado de lo Social
LED	Legegintzako Errege Dekretua	RDL	Real Decreto Legislativo
LGZ	Luxuzko Gastuen gaineko Zerga	IGS	Impuesto sobre gastos suxtuarios
LHK	Lan Harremanen Kontseilua	CRL	Consejo de Relaciones Laborales
LHL	Lurralde Historikoei Buruzko Legea	LTH	Ley de Territorios Históricos
LJL	Lan arloko Jurisdikzioaren Legea	LJS	Ley de la Jurisdicción Social
LO	Lege Organikoa	LO	Ley Orgánica
LPM	Lege Prozesal Militarra	LPM	Ley Procesal Militar
LZ	Luxuaren gaineko Zerga	IL	Impuesto sobre el lujo
ME	Merkataritza Epaitegia	JMer	Juzgado de lo Mercantil
MEE	Merkataritzako Erregistroaren Erregelamendua	RRM	Reglamento del Registro Mercantil
MF	Ministerio Fiskala	MF	Ministerio Fiscal
MFEO	Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoa	EOMF	Estatutu Orgánico del Ministerio Fiscal
MK	Merkataritza Kodea	Ccom	Código de Comercio
ML	Marken Legea	LM	Ley de Marcas
NAO	Nafarroako Aldizkari Ofiziala	BON	Boletín Oficial de Navarra
NBEF	Nekazaritza Bermearen Espainiako Funtsa	FEGA	Fondo Español de Garantía Agraria
NJA	Nazioarteko Justizia Auzitegia	CIJ	Corte Internacional de Justicia
NJAI	Nazioarteko Justizia Auzitegi Iraunkorra	CPJI	Corte Permanente de Justicia Internacional
OEZEJDZ	Ondasun Eskualdaketen gaineko Zerga eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga	ITPAJD	Impuesto de Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados
OHZ	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga	IBI	Impuesto sobre Bienes Inmuebles

OZ	Ondarearen gaineko Zerga	IP	Impuesto sobre el Patrimonio
PA	Probintzia auzitegia	AP	Audiencia Provincial
PAE	Probintzia auzitegiaren epaia	SAP	Sentencia de la Audiencia Provincial
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga	IRPF	Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas
PKL	Prozedura Kriminalaren Legea	LECrim	Ley de Enjuiciamiento Criminal
PL	Patenteen Legea	LP	Ley de Patentes
PZL	Prozedura Zibilaren Legea	LEC	Ley de Enjuiciamiento Civil
SIK	Segurtasun eta Indar Kidegoak	FCS	Fuerzas y Cuerpos de Seguridad
SIKLO	Segurtasun eta Indar Kidegoen Lege Organikoa	LOFCS	Ley Orgánica de Fuerzas y Cuerpos de Seguridad
SLGKL	Salgaien Lurreko Garraio-kontratuaren Legea	LCCTM	Ley de Contrato de Transporte Terrestre de Mercancías
SZ	Sozietateen gaineko Zerga	IS	Impuesto sobre Sociedades
TLZ	Tabako Laboreen gaineko Zerga	ILT	Impuesto sobre las labores del tabaco
TMAL	Txikizkako Merkataritza Antolatzeko Legea	LOCM	Ley de Ordenación del Comercio Minorista
TOUZ	Telekomunikazio Operadoreen Udal Zerga	TLOT	Tributación local de los operadores de telecomunicaciones
TZ	Tinbrearen gaineko Zerga	IT	Impuesto del Timbre
ZE	Zinpekoen epaimahaia	TJ	Tribunal del Jurado
ZE	Zigor arloko epaitegia	JPe	Juzgado de lo Penal
ZELO	Zinpekoen Epaimahaiaren Lege Organikoa	LOTJ	Ley Orgánica del Tribunal del Jurado
ZEZ	Zigor-arloko Epaitegi Zentrala	JCPe	Juzgado Central de lo Penal
ZGZB	Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia	IEDMT	Impuesto especial sobre determinados medios de transporte
ZHTSZ	Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zerga	IVMDH	impuesto sobre ventas minoristas de determinados hidrocarburos
ZK	Zigor Kodea	CP	Código penal
ZMBL	Auzi Zibil eta Merkataritzazkoetako Bitartekaritza buruzko Legea	LMACM	Ley de Mediación en Asuntos Civiles y Mercantiles



## ERAKUNDEAK

### ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRA

ADIF-Abiadura Handia	ADIF-Alta Velocidad
Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutua	Instituto de Mayores y Servicios Sociales
Aire Segurtasunerako Estatu Agentzia	Agencia Estatal de Seguridad Aérea
Orden Foral 350/2000, de 5 de mayo, por la que se desarrolla el Decreto Foral 42/2000, de 2 de mayo, por el que se regulan determinadas cuestiones relativas al pago de las deudas tributarias y demás deudas de derecho público mediante su domiciliación bancaria y se modifican determinados preceptos del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Norma Foral 2/2002, de 20 de marzo, del Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos

Norma Foral 4/2003, de 19 de marzo, de reforma del sistema de tributación local.

Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre organización institucional, Gobierno, y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Norma Foral 7/2006, de 20 de octubre, de montes de Gipuzkoa.

Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Norma Foral 10/2012, de 18 de diciembre, del Impuesto Sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas.

Norma Foral 2/2014, 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Norma Foral 4/2014, de 6 de febrero, de transparencia y acceso a la información pública de Gipuzkoa.

<p>Gipuzkoako Foru Aldundiaren 14/2014 Foru Araua, abenduaren 10ekoa, lanari utzi ondorengo egoera jakin batzuetarako zerga-tratamendu berezia ezartzen duena.</p>	<p>Norma Foral 14/2014, de 10 de diciembre, por la que se establece un tratamiento tributario alternativo para determinadas situaciones postlaborales.</p>
<p>Gipuzkoako Foru Aldundiaren 16/2014 Foru Araua, abenduaren 10ekoa, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena.</p>	<p>Norma Foral 16/2014, de 10 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes.</p>
<p>Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako</p>	<p>Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres de Gipuzkoa.</p>
<p>Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2/2017 Foru Dekretu-Araua, martxoaren 28koa, hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga aldatzen duena.</p>	<p>Decreto Foral-Norma 2/2017, de 28 de marzo, por el que se modifica el impuesto sobre el incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana.</p>
<p>Gipuzkoako Foru Aldundiaren urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretua, ondasun higiezin hiritarren balio katastrala eta balio egiaztatua merkatuko batez besteko prezioen bitartez zehazteko prozedura onartzen duena.</p>	<p>Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero, por el que se aprueba el procedimiento para la determinación del valor catastral y el valor comprobado a través del medio de precios medios de mercado, de los bienes inmuebles de naturaleza urbana.</p>
<p>Gipuzkoako Foru Aldundiaren abenduaren 21eko 115/1999 Foru Dekretua, telekomunikazioetako operadoreek udal-zergak ordaintzeari buruzko azaroaren 10eko 5/1998 Foru Araua garatzen duena.</p>	<p>Decreto Foral 115/1999, de 21 de diciembre, por el que se desarrolla la Norma Foral 5/1998, de 10 de noviembre, de tributación local de los operadores de telecomunicaciones.</p>
<p>Gipuzkoako Foru Aldundiaren 42/2006 Foru Dekretua, irailaren 26koa, zerga-urraketen eta zigoren araubidea garatzeko Erregelamendua onartzen duena.</p>	<p>Decreto Foral 42/2006, de 26 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento del régimen de infracciones y sanciones tributarias.</p>
<p>Gipuzkoako Foru Aldundiaren abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua onartzen duena.</p>	<p>Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa.</p>
<p>Gipuzkoako Foru Aldundiaren irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua onartzen duena.</p>	<p>Decreto Foral 41/2006, de 26 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa en materia de revisión en vía administrativa.</p>
<p>Gipuzkoako Foru Aldundiaren 49/2006 Foru Dekretua, abenduaren 5ekoa, zerga-kontsulta idatzien eta aurretiazko tributazio-proposamenen prozedurak garatu eta Zergen Aholku Batzordea sortzen duena.</p>	<p>Decreto Foral 49/2006, de 5 de diciembre, por el que se desarrollan los procedimientos relativos a consultas tributarias escritas y propuestas previas de tributación y se crea la comisión consultiva tributaria.</p>

Gipuzkoako Foru Aldundiaren abenduaren 16ko 79/2008 Foru Dekretua, Zergen Foru Arau Orokorean balioen egiaztapenerako aurreikusita dagoen prozedura garatzen duena.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 14/2009 Foru Dekretua, maiatzaren 19koa, zenbait zerga-prozedura ebazteko epeak finkatu eta horiek ez ebazteak dakartzan ondorioak ezartzen dituena.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 31/2010 Foru Dekretua, azaroaren 16koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua onartzen duena.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Martxoaren 22ko 9/2011 Foru Dekretua, Gipuzkoako lurralde historikoko Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duena.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 42/2012 Foru Dekretua, urriaren 22koa, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duena.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 47/2013 Foru Dekretua, abenduaren 17koa, zerga-betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua onartzen duena.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 33/2014 Foru Dekretua, urriaren 14koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartu eta zerga-betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duena.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 17/2015 Foru Dekretua, ekainaren 16koa, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duena.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 11/2016 Foru Dekretua, maiatzaren 17koa, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duena.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2016ko azaroaren 29ko 25/2016 Foru Dekretua, finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen zerga-egoitza identifikatzeko eta elkarren arteko laguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebehara ezartzen duena.

Decreto Foral 79/2008, de 16 de diciembre, por el que se desarrolla el procedimiento de comprobación de valores de la Norma Foral General Tributaria.

Decreto Foral 14/2009, de 19 de mayo, por el que se establecen los plazos de resolución y los efectos de la falta de resolución de determinados procedimientos de gestión tributaria.

Decreto Foral 31/2010, de 16 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Inspección Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Decreto Foral 9/2011, de 22 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Decreto Foral 42/2012, de 22 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones

Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales.

Decreto Foral 33/2014, de 14 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y se modifica el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales.

Decreto Foral 17/2015, de 16 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre Sociedades.

Decreto Foral 11/2016, de 17 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de no Residentes.

Decreto Foral 25/2016, de 29 de noviembre, por el que se establece la obligación de identificar la residencia fiscal de las personas que ostenten la titularidad o el control de determinadas cuentas financieras y de suministro de información acerca de las mismas en el ámbito de la asistencia mutua.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren irailaren 25eko 847/2006 Foru Agindua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua onartzen duen abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuan aipatutako organo eskudunak finkatzekoa.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 492/2007 Foru Agindua, maiatzaren 7koa, Zergen Aholku Batzordearen funtzionamendu arauei buruzkoa.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 1074/2008 Foru Agindua, abenduaren 11koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzenbide publikoko sarrerak ordainketa pasabidearen bitartez ordaintzea arautzen duena.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 1116/2008 Foru Agindua, abenduaren 18koa, gordailu-entitateetan irekita dauden kontuetako dirua bide telematikoz bahitzeko prozedura ezartzen duena.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 1131/2008 Foru Agindua, abenduaren 23koa, koefiziente biderkatzailleak, eta horien indarraldia eta haiek kalkulatzeko metodologia teknikoa onartzen dituen, 1999ko urtarrilaren 26ko 6/99 Foru Dekretuak, ondasun higiezin hiritarren balio katastrala eta balio egiaztatua zerga alorreko erregistro ofizialetan ageri diren balioak erreferentzia hartuta zehazteko prozedura onartzen duenak, 32. artikuluan jasotakoak garatze aldera.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 1005/2010 Foru Agindua, azaroaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamenduaren 42.1. artikuluan aipatzen diren gutxieneko kopuruak ordaintzeko moduak eta epeak ezartzen dituena.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 1093/2013 Foru Agindua, abenduaren 19koa, ordainketa-pasabidearen bitartez ordaindu daitezkeen aitorten telematikoak zehazten dituena.

Orden Foral 847/2006, de 25 de septiembre, sobre determinación de órganos competentes dentro del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por Decreto Foral 38/2006, de 2 agosto.

Orden Foral 492/2007, de 7 de mayo, por la que se aprueban las normas de funcionamiento de la Comisión Consultiva Tributaria.

Orden Foral 1074/2008, de 11 de diciembre, por la que se regula el pago de ingresos de derecho público de la Diputación Foral de Gipuzkoa a través de la pasarela de pagos.

Orden Foral 1116/2008, de 18 de diciembre por la que se establece el procedimiento para efectuar por medios telemáticos el embargo de dinero en cuentas abiertas en entidades de depósito.

Orden Foral 1131/2008, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los coeficientes multiplicadores y su vigencia, así como la metodología técnica empleada para su cálculo, en desarrollo de lo dispuesto en el artículo 32 del Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero, por el que se aprueba el procedimiento para la determinación del valor catastral y el valor comprobado a través del medio de estimación por referencia a los valores que figuren en los registros oficiales de carácter fiscal, de los bienes inmuebles de naturaleza urbana.

Orden Foral 1005/2010, de 19 de noviembre, por la que se regulan los medios y plazos para el pago de los ingresos mínimos previstos en el artículo 42.1 del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Orden Foral 1093/2013, de 19 de diciembre, por la que se establecen las declaraciones telemáticas susceptibles de ingreso a través de la pasarela de pagos.





## ZERGAK

Aberastasun eta Fortuna Handien gaineko Zerga	Impuesto sobre la Riqueza y Grandes Fortunas
Alkoholaren eta Edari Deribatuen gaineko Zerga	Impuesto sobre el Alcohol y Bebidas Derivados
Aseguru Primen gaineko Zerga	Impuesto sobre Primas de Seguros
Balio Erantsiaren gaineko Zerga	Impuesto sobre el Valor Añadido
Berotegi Efeztuko Gas Fluordunen gaineko Zerga	Impuesto sobre Gases Fluorados de Efecto Invernadero
Ekonomia Jardueren gaineko Zerga	Impuesto sobre Actividades Económicas
Elektrizitatearen gaineko Zerga	Impuesto sobre la Electricidad
Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zerga	Impuesto sobre el Valor de la Producción de la Energía Eléctrica
Energia Nukleolektrikoa Sortzetik Deribatutako Erregai Nuklear Agortua eta Hondakin Erradioaktiboak Sortzearen gaineko Zerga	Impuesto sobre la Producción de Combustible Nuclear Gastado y Residuos Radiactivos Resultantes de la Generación de Energía Nucleoeléctrica
Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga	Impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras
Erregai Nuklear Agortua eta Hondakin Erradioaktiboak Instalazio Zentralizatueta Biltegitzearen gaineko Zerga	Impuesto sobre el Almacenamiento de Combustible Nuclear Gastado y Residuos Radiactivos en Instalaciones Centralizadas
Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga	Impuesto sobre la Renta de No Residentes
Fabrikazio Zerga Berezia	Impuesto Especial de Fabricación
Garagardoaren gaineko Zerga	Impuesto sobre la Cerveza
Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga	Impuesto sobre el incremento de valor de terrenos de naturaleza urbana
Jaraunspen eta Dohaintzen gaineko Zerga	Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones
Joko Jardueren gaineko Zerga	Impuesto sobre Actividades de Juego
Jokoen gaineko Tributuak	Tributos sobre el Juego
Kreditu Erakundeetako Gordailuen gaineko Zerga	Impuesto sobre los Depósitos en las Entidades de Crédito
Luxuaren gaineko Zerga	Impuesto sobre el lujo

Luxuzko Gastuen gaineko Zerga	Impuesto sobre gastos suntuarios
Ondarearen gaineko Zerga	Impuesto sobre el Patrimonio
Ondasun Eskualdaketen gaineko Zerga eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga	Impuesto de Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados
Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga	Impuesto sobre bienes inmuebles
Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga	Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas
Sozietateen gaineko Zerga	Impuesto sobre Sociedades
Tabako Laboreen gaineko Zerga	Impuesto sobre las labores del tabaco
Telekomunikazio Operadoreen Udal Zerga	Tributación local de los operadores de telecomunicaciones
Tinbrearen gaineko Zerga	Impuesto del Timbre
Zenbait Garraibideren gaineko Zerga Berezia	Impuesto especial sobre determinados medios de transporte
Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zerga	Impuesto sobre Ventas Minoristas de determinados Hidrocarburos

# HIZTEGIA

---

---



# A

---

**abagune-printzipio** [*principio de oportunidad*] ♦ *Zuz. Proz.* **1.** Prozesu zibila informatzen duen printzipioa; haren arabera, herritarrak dira, beren autonomiaren egikaritzan, gatazka bat pairatzen dutenean, hura ebazteko prozesura jotzea erabaki dezaketenak; izan ere, ofizioz ezin has daiteke. Behin prozesua hasita, herritarren interesa da prozesua informatzen duena. **2.** Ministerio Fiskalak, interes publikoa larriki eraginda ez dagoenean, zigor-jazarpena ez has-teko edo hasitakori bukaera emateko ahalmena. **Sin.** *aukera-printzipio, egokiera-printzipio.*

**abandonu** [*abandono*] ♦ *Lan Zuz.* Langileak bere lana uztea enpresaburuari jakinarazi gabe. Legezkontrako jokabidea da, eta lan-harremanaren iraungipena eragiten du.

**abdikazio** [*abdicación*] ♦ *Konst. Zuz.* Erre-suma baten subiranotasuna edo koroa beste pertsona baten esku uztea edo hari uko egitea. **Oh.** EK, 57. art. **Sin.** *erregetza uzte.*

**abeniko** [*acuerdo*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *adiskidetzeko-akordio.*

**ab intestato oinordetza** [*sucesión ab intestato*] ♦ *Zuz. Zib.* **Ik.** *legezko oinordetza.*

**abintestato oinordetza** [*sucesión abintestato*] ♦ *Zuz. Zib.* **Ik.** *legezko oinordetza.*

**abokatu** [*abogada, abogado*] ♦ *Zuz. T., Zuz. Proz., Admin. Zuz., Zuz. Err.* Zuzenbideko profesionaia, lanean jarduten duena dela bere bezeroei laguntza juridikoa emateko, dela beste subjektu batzuen aurrean bere interesak juridikoki babesteko, edota dela judizio auzietan zein prozedura administratiboetan bere eskubide eta interesak babesteko, betiere, abokatutza jarduera arautzen duten arauetan ezarritako irizpideak kontuan hartuz. Gainera, gai juridikoen inguruko aholkularitza lanak ere egin ditzake. ♦ *Zuz. Err.* **Sin.** *advocatus, cognitor, orator, rhetor.*

**abokatu nagusi** [*abogada, abogado general*] ♦ *EB. Zuz.* EBko Justizia Auzitegiaren kidea. Bere eginkizuna, inpartzialtasun eta independentzia osoz, arrazoitutako ondorioak publikoki aurkeztea izango da, bere esku hartzea galdatzen duten auzietan. Abokatu nagusiak Auzitegiari laguntzen dio baina haren ondorioak eta irizpenak ez dira lotesle. **Oh.** EBT, 19.2 art.; EBFT, 252. art.

**abokatuen elkargo** [*colegio de abogadas y abogados*] ♦ *Zuz. Proz.* Abokatuak biltzen dituen zuzenbide publikoko korporazioa. Haren funtzio nagusiak hauek dira: lanbidearen egikaritzaren ordenazioa eta kideen interesen

defentsa eta ordezkaritza. Abokatuen Elkargo baten kidea izatea beharrezkoa da abokatutzan jardun ahal izateko. **Ik.** *abokatu*.

**abokatutza** [*abogacía*] ♦ *Zuz. T. 1.* Abokatuaren lanbidea edo honen jarduera juridikoa. **2.** Jarduneko abokatuen multzoa.

**abokazio** [*avocación*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio-organo batek hierarkikoki beherago dagoen beste organo batek daukan gai bat eza-gutu edo ebazteko eskumena bereganatzea. Eskuordetzaren kontrako prozesua. **Oh.** 40/2015 Legea, 10. art. **Sin.** *bereganatze*.

**abortu** [*aborto*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Haurdunaldiaren etetea, dela borondatez eraginda dela kausa naturalak medio. **Oh.** 2/2010 Lege Organikoa eta ZK, 144. art. eta hurr.

**absentismo** [*absentismo*] ♦ *Lan Zuz.* Langilea aldizka lanera ez joatea, arrazoi justifikatuak direla eta. **Oh.** LE, 52. d) art.

**absolutismo** [*absolutismo*] ♦ *Kontz. Zuz.* **1.** Antolakuntza politiko ez-demokratikoa, zeinaren arabera pertsona edo pertsona talde batek mugarik gabeko boterea ezartzen baitu. **2.** Botere osoa konzentratzen zuen dominazio-erregimen feudala.

**absoluzio** [*absolución*] ♦ *Zuz. Proz., Zuz. Err.* Prozesuari amaiera ematen dion jurisdikzio-organoaren erabakia. Horren bidez, egin zaion eskaera (demandatzaileak aurkeztutako uzia zein akusatzaileak egindako akusazioa) ezesten du jurisdikzio-organoak.

**abstentzio** [*abstención*] ♦ *Kontz. Zuz.* Bozketan batean botorik ez ematea. ♦ *Admin. Zuz.* Prozedura administratibo batean parte hartzen ari den administrazio publiko batentzat lan egiten duen autoritate edo langile batek parte hartze horri uko egiteko egintza, hain zuzen ere, prozedura horrekin harreman berezi bat izategatik egiten dena. **Oh.** 40/2015 Legea, 23. art. **Sin.** *uko egite*. ♦ *Zuz. Proz.* Epaille eta magis-

tratuaren inpartzialtasuna bermatzeko bitartekoa. Horren bidez, legeak aurreikusitako arrazoiak daudenean, epaileak zein magistratuak auzi bat ezagutzeari uzteko eskaera egiten du.

**abusu** [*abuso*] ♦ *Kontz. Zuz.* Erabilera okerra, bidegabea edo gehiegizkoa.

**actio** [*acción*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *akzio*

**actio libera in causa** [*actio libera in causa*] ♦ *Zig. Zuz.* «Egozgarritasun eza» egoeran eginitako delitu-portaera; zigorgarria izango da, subjektu aktiboa egoera horretara bere borondatez heldu delako gero delitu egitea ahalbidetzeko.

**actio popularis** [*actio popularis*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Nahiz eta egintza ez-zilegirik zuzenean ez kaltetu, edozein estatuk erantzukizuna erreklamatzeko akzioa egikaritzeko duen aukera. *Ius accusandiaren* (akusatzeko eskubidearen) adierazpenetako bat da.

**actio Publiciana** [*acción Publiciana*] ♦ *Zuz. Err.* Gauzaren edukitzaileak usukapioa burutzeko denbora nahikoa ez pasa arren, preto-reak iraungitza ematen duen fikziozko akzioa, gauzaz jabetzeko aukera ematen duena (*actio ficticia*).

**adhesio** [*adhesión*] ♦ *Nart. Zuz. Pu. Ik.* *atxikitze*.

**adhesio-instrumentu** [*instrumento de adhesión*] ♦ *Nart. Zuz. Pu. Ik.* *atxikitze-instrumentu*.

**ad hoc sala** [*sala ad hoc*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Gai zehatz bat aztertzeko zein denbora-tarte jakin baterako eratutako auzi-aretoa.

**adierazpen** [*declaración*] ♦ *Kontz. Zuz.* **1.** Jendaurrean zerbait aditzera emateko egiten den azalpena. **2.** Norbaitek bere barnean dituen iritzi, ideia edo bestelakoak kanporatzea. ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *deklarazio*.

**adierazpen-askatasun** [*libertad de expresión*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Pentsamendu, ideia eta iri-

tziak -hitzez, idatziz nahiz beste edozein bidez-askatasunez adierazteko edo zabaltzeko eskubidea. **Oh.** EK, 20.1.a art.

**adierazpen-babes** [*tutela declarativa*] ♦ *Zuz. Proz.* Eskubidea aitortzea helburu duen jurisdikzio-babes mota. Herritarrak jurisdikzio-organismoari eskatzen dio auzi zehatza epai dezala, hots, eskubidearen adierazpena egin dezala. **Sin.** *adierazpenezko babes*. **Ik.** *babes deklaratio*.

**adierazpen hutseko epai** [*sentencia meramente declarativa*] ♦ *Zuz. Proz.* Mota bereko uzia onartzen duen epaia; hau da, epailearen adierazpen hutsarekin asetzen den uzia onartzen duen epaia.

**adierazpen interpretatzaile** [*declaración interpretativa*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Edozein unetan estatu batek parte den nazioarteko tratatu aldeaniztun bati dagokionez egiten duen borondate-adierazpena, zeinaren bitartez zehazten baita haren xedapen baten edo gehiagoren interpretazioa eta irismena. **Oh.** 25/2014 Legea, 2.t art. **Sin.** *deklarazio interpretatzaile*.

**adierazpen-prozesu** [*proceso declarativo*] ♦ *Zuz. Proz.* Herritarrek organo jurisdikzionaleri aurkeztutako uziaren araberrako prozesu mota. Haren helburua zuzenbidea egoera zehatz batean aplikatzea da, eskubidea zein harreman juridikoa aitortuz, sortuz, eraldatuz edo iraungiz edota alderdietako bat zerbait egitera, ematera edo ez egitera behartuz. **Sin.** *adierazpenezko prozesu, prozesu deklaratio*.

**adierazpenezko babes** [*tutela declarativa*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *adierazpen-babes*.

**adierazpenezko prozesu** [*proceso declarativo*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *adierazpen-prozesu*.

**adin** [*edad*] ♦ *Konst. Zuz.* Norbait edo zerbait sortu zenetik igaro den denbora.

**adin-nagusi** [*mayor de edad*] ♦ *Zuz. Zib.* Adin-nagusitasuna eskuratu duen pertsona fisikoa.

**adin-nagusitasun** [*mayoría de edad*] ♦ *Zuz. Zib.* Pertsonaren jarduteko gaitasun osoaren adierazlea. Espainiar ordenamendu juridikoaren arabera, adin-nagusitasuna 18 urterekin eskuratzen da automatikoki. Salbuespenak salbu, adin nagusia une horretan ordu arteko babes-erakundeen menpetik irteten da, eta beste inoren laguntzarik eta baimenik gabe eskubideak eta betebeharrak egikaritzeko gaitasuna izaten du.

**adinez gaitu** [*habilitada, habilitado de edad*] ♦ *Zuz. Zib.* Bere kontura bizi den adingabea. Gurasoen adostasunez emantzipatutzat hartzen da. Emantzipazioa deklaritzen duen ebazpen judizialik ez dagoenez, guraso-ahala etenda geratzen da soilik eta erreboka daitekeen egoera bat da. Ez da Erregistro Zibilean inskribatu behar eta, ondorioz, ez du fede oneko hirugarrenengan efekturik izaten. **Oh.** KZ, 303. art. eta hurr.

**adingabe** [*menor de edad*] ♦ *Zuz. Zib.* **1.** Hemezortzi urtetik beherako pertsona fisikoa. **2.** Adin-nagusitasuna eskuratu ez duena.

**adingabeen usteltzeari buruzko delitu** [*corrupción de menores*] *Zig. Zuz.* Sexu-ukigabetasunaren aurkako delitua, adingabea sexu-izaerako jokabide batean parte hartzera behartzen duena eta adingabe horren nortasunaren bilakaerari edo garapenari kalte egiten diona. **Oh.** ZK, 189. art.

**adingabetasun** [*minoría de edad*] ♦ *Zuz. Zib.* Gaitasun juridikoa mugatua duen 18 urte baino gutxiagoko pertsonaren egoera. Gaitasun oso falta hau dela eta, adingabeak bere kabuz egikaritu ezin dituen egintzatarako legezko ordezkariak ditu. Funtzio hau betetzea gurasoei edo tutoreei dagokie guraso-ahalaren edo tutoretzaren eraentzak ezartzen dituzten erregelen arabera. Horiek ordezkutzen dute adingabea bere kabuz hartu ezin dituen erabaki pertsonaletan zein ondarezkoetan.



**adiskidetze** [*conciliación*] ♦ *Zuz. Proz., Admin. Zuz., Lan Zuz.* Gatazkak konpontzeko ordezeko bidea. Haren bidez, alderdiek arazoari konponbidea ematen diote hirugarren inpartzial baten esku-hartzeari esker.

**adiskidetze-ahalegin** [*intento de conciliación*] ♦ *Lan Zuz.* Adiskidetzaileren laguntzarekin, prozesuko alderdiak adostasuna lortzen saiatzea. **Sin.** *adiskidetze-saio*.

**adiskidetze-akordio** [*acuerdo de conciliación*] ♦ *Lan Zuz.* Adiskidetzaileren laguntzarekin, prozesuko alderdiek lortutako adostasuna. **Sin.** *abeniko*.

**adiskidetze-akta** [*acta de conciliación*] ♦ *Lan Zuz.* Adiskidetze-saioan gertaturikoa jasotzen duen agiria.

**adiskidetze-batzorde** [*comisión de conciliación*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Nazioarteko gatazkak konpontzen eta aldean ikuspuntuak hurbiltzen saiatzen den zenbaki bakoitiko kidez osatutako organua, egitateen zein aplikagarria den zuzenbidearen inguruko irizpen ez-lotesleak aurkezten dituena. **Sin.** *kontziliazio-batzorde*.

**adiskidetze-egintza** [*acto de conciliación*] ♦ *Zuz. Zib.* Interes kontrajarriak dituzten bi alderdiren arteko gatazka juridikoa konpontzeko tresna, epaitegietan demanda jarri baino lehen, alderdien borondatez, alderdi horien artean, eta epailearen aurrean, adostasuna bilatzen duen egintza juridikoa.

**adiskidetze-orri** [*papeleta de conciliación*] ♦ *Lan Zuz.* Prozesuko alderdi demandatzailearen kontziliazio-eskaera jasotzen duen agiria.

**adiskidetze-saio** [*intento de conciliación*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *adiskidetze-ahalegin*.

**aditu-froga** [*prueba pericial*] ♦ *Zuz. Proz.* Zuzenbidea ez den beste edozein arlotan eza-gutza duen pertsonak, epaiketa batean, idatziz zein ahoz, eztabaidatutakoa epaileari ulertzen

laguntzeko egindako jarduera. **Sin.** *peritu bidezko froga*.

**aditu-txosten** [*informe pericial*] ♦ *Zuz. Proz.* Zuzenbidea ez den beste edozein arlotan eza-gutza duen pertsonak, epaiketa batean eztabaidatutakoa epaileari ulertzen laguntzeko aurkezten duen lan idatzia. **Sin.** *adituaren txosten, peritu-irizpen*.

**adituaren txosten** [*informe pericial*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *aditu-txosten*.

**administratu** [*administrada, administrado*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio publikoaren jarduerak ukitzen duen pertsona fisiko edo juridikoa.

**administratzaile** [*administradora, administrador*] ♦ *Zuz. Zib.* Ondare oso bat edo ondare baten parte diren ondasun bat edo batzuk administratzeko funtzioa betetzen duen pertsona.

**administrazio** [*administración, administración pública*] ♦ *Admin. Zuz., Konst. Zuz.* Nortasun juridiko propioa daukan erakundea, botere exekutiboa ordezkatuz, interes orokorra babestu eta sustatzea helburu izan behar duena; eskuarki, hainbat organok osatua. **Oh.** 39/2015 Legea, 2. art. **Ik.** *administrazio publiko*.

**administrazio-ahal** [*potestad administrativa*] ♦ *Admin. Zuz.* Errealitatearen eremu batean jarduteko arauak administrazio-organoei esleitzen dieten botere-kuota: ahal erregelamendugilea, ahal zigortzailea, eta abar. **Oh.** 29/1998 Legea, 2. art.

**administrazio-ahalmen** [*facultad administrativa*] ♦ *Zuz. T.* Zuzenbideak pertsona bati emandako jarduteko aukera. Hiru eratakoak izan daitezke, gutxienez: pertsona-izaerari lotutakoak, harreman juridiko baten edukia osatzen dutenak eta eskubide baten edukia osatzen dutenak. ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio-organo batek gai zehatz baten inguruan jarduera bat aurrera eramateko daukan aukera. Administrazio publikoaren kasuan ere, mota anitzekoak

daude: esate baterako, pertsona juridiko publikoaren izaerari lotutakoak, harreman juridiko baten edukia osatzen dutenak eta eskubide nahiz ahalen edukia osatzen dutenak. Nahiz eta askotan eskumenaren parekotzat hartu, ahalmen asko izango dira eskumenaren edukia.

**administrazio autonomiko** [*administración autonómica*] ♦ *Admin. Zuz.* Autonomia erkidego batean botere betearazlea ordezkatzen duen erakunde multzoa.

**administrazio-auzien errekurtsio** [*recurso contencioso-administrativo*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio-egintzak —ebazpenak zein izapidetze-egintza kualifikatuak— eta erregelamenduak organo judizialen aurrean errekurritzeko tresna. **Oh.** 29/1998 Legea, 25., 29. eta 30. art.

**administrazio-auzien jurisdikzio** [*jurisdicción contencioso-administrativa*] ♦ *Admin. Zuz.* Erakunde judiziala, erabakiak hartzeko eskumena duena administrazio publikoa auzi bateko parte denean zein izaera administratiboa duten jardueren inguruan erabaki behar denean. Administrazioaren jarduerarik eza eta egitate-bidea ere in pugna daitezke in pugnazio-bide hau erabiliz. **Oh.** 29/1998 Legea, 1. art.

**administrazio desleial** [*administración desleal*] ♦ *Zig. Zuz.* **Ik.** *bidegabeko eralgitze.*

**administrazio-egintza** [*acto administrativo*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Erregelamendu ahala ez den beste edozein ahal baliatuz herri administrazioak hartutako erabakia edo bideratutako jarduera. Horren bidez, administrazioak zer-bait adierazten, betearazten, egiaztatzen edo aholkuak ematen ditu. **Oh.** 39/2015 Legea, 34-36. art. **2.** Zenbait kasutan, duen zehaztapena zein egiaztapena pertsonen eskubide eta obligazioei buruz. **Oh.** 39/2015 Legea, 88. art. **Ik.** *administrazio-prozedura, erregelamendu, xedapen orokor.* **Sin.** *egintza administratibo.* ♦ *Zuz. Zib.* Ondare oso baten edo zati baten

kudeaketa helburu duen egintza juridikoa, ondasunaren balioa kontserbatzea eta hark ekotzitako fruituak eskuratzea bilatzen duena.

**administrazio-erregistro** [*registro administrativo*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Dokumentuen sarreren eta irteeren idazpenak egiteko izapidea. **Oh.** 39/2015 Legea, 16.1. art. **2.** Dokumentuen erregistroa egiten den administrazio-zerbitzua. **Oh.** 39/2015 Legea, 16.1 art.

**administrazio errekurtsio** [*recurso administrativo*] ♦ *Admin. Zuz.* Auzitara jo aurretik administrazioaren aurrean jarritako errekurtsioa, dela administrazio publiko baten egintza baten, dela administrazioaren isiltasunaren aurka jartzen dena. Errekurtsio ohikoek honakoak dira: berraztertze-errekurtsioa, gorako errekurtsioa eta ez-ohiko berrikuspen-errekurtsioa. **Oh.** 39/2015 Legea, 112. art.

**administrazio-espeditente** [*expediente administrativo*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio-prozedurako jarduketak (denboran zehar taxututako izapide-segidak, administrazio-ebazpenaren aurrekari eta oinarri direnak, alegia) islatzen eta biltzen dituen euskarri dokumentala. **Oh.** 39/2015 Legea, 70.1 art.

**administrazio-jarduera material** [*actividad administrativa material*] ♦ *Admin. Zuz.* Interes orokorra asetzeko administrazioak aurrera eramaten duen jarduera ez-formala, egintza administratibo, erregelamendu eta mota horretako beste jarduera juridiko formalei kontrajartzen zaiena: jarduera informatiboa, gizarte-zerbitzuak ematea, adibidez. **Oh.** 29/1998 Legea, 25. art. **Sin.** *administrazio-jarduera tekniko.*

**administrazio-jarduera tekniko** [*actividad administrativa material*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** *administrazio-jarduera material.*

**administrazio-karrera** [*carrera administrativa*] ♦ *Admin. Zuz.* Funtzionario publikoek beraien karrera profesionalen gora egiteko edo

promozionatzeko dituzten aukeren multzoa. **Oh.** 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 14.c) art. eta 6/1989 Legea, 44. art.

**administrazio-kontratu** [*contrato administrativo*] ♦ *Admin. Zuz.* Interes orokorra ase edo sustatzeko administrazio batek edo administrazio baten menpe dagoen beste entitate batek formalizatutako kontratua. Hainbat kontratu mota jasotzen dira kategorian honetan, guztiak araudi berezi bati lotuak. **Oh.** 9/2017 Legea, 2. eta 20. art. **Ik.** *sektore publikoko kontratu*.

**administrazio laboral** [*administración laboral*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *lan-administrazio*.

**administrazio lokal** [*administración local*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** *toki-administrazio*.

**administrazio-organo** [*órgano administrativo*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio-organoa administrazioaren egituran txertatua dagoen atal berezia da, zeregin propioak dituena. Administrazioa (bere osotasunean harturik) nortasun juridikoaren jabe da; administrazio-organoek, ordea, ez dute nortasun juridiko propioirik, administrazio osoaren nortasun juridikoaz balia badaitezke ere. Administrazio-organoek hirugarrenen aurrean eragin juridikoak sortzeko gaitasuna duten administrazio-atalak dira, baita administrazioak erabakiak hartze aldera ezinbestekoak diren jarduketak burutzen dituzten administrazio-atalak ere. Ezaugarri hori kontuan izanik administrazio-organoak eta administrazio-unitateak desberdintzen dira. Administrazio-unitateak egitura organikoetako oinarritzko antolakuntza-elementuak dira. Unitateen barnean, lanpostuak edo dotazioak daude, eginkizunen arabera funtzionalki lotura dutenak eta, organikoki, buruzagitza komun bat dutenak. Administrazio-unitate konplexuak ere badaude, beren baitan bi unitate txikiago edo gehiago barne hartzen dituztenak. **Oh.** 40/2015 Legea, 5. eta 56. art. **Sin.** *organo administratibo*.

**administrazio-prozedura** [*procedimiento administrativo*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio publikoak bere funtzioen egikaritzan diharduenean zaindu edo jarraitu behar duen izaipide multzo arautua. Sistema honek administrazioaren jardueraren kontrola ahalbidetzen du. **Oh.** Espainiako Konstituzioa, 105. art.; **Ik.** *administrazio espediente*.

**administrazio publiko** [*administración pública*] ♦ *Admin. Zuz.* Nortasun juridiko propioa daukan erakundea, botere exekutiboan ordezkatuz, interes orokorra babestu eta sustatzea helburu izan behar duena; eskuarki, hainbat organok osatua. **Oh.** 39/2015 Legea, 2. art. **Sin.** *administrazio*.

**administrazio-unitate** [*unidad orgánica*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** *unitate organiko*.

**administrazio-zuzenbide** [*derecho administrativo*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazioaren funtzionamendua eta antolakuntza, eta administrazioek beste subjektuekin dituzten harremanak ordenatzen eta aztertzen dituen zuzenbidearen adarra.

**administrazioarekiko auzien prozesu** [*proceso contencioso-administrativo*] ♦ *Zuz. Proz.* Herritarrek edozein administrazioren kontra aurkeztutako erreklamazioak aztertzeko prozesu mota. Botere judizialak administrazioaren edo botere betearazlearen egintzak kontrolatuko ditu eta legearekin bat datozen adieraziko du.

**administrazioaren ondare-erantzukizun** [*responsabilidad patrimonial*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** *ondare-erantzukizun*.

**administrazioaren ondare-ondasun** [*bien patrimonial*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** *ondare-ondasun*.

**adostasun 1** [*conformidad*] ♦ *Zuz. T., Konst. Zuz.* **1.** Ados egotea edo bat etortzea. **2.** Ones-teko ekintza eta horren ondorioa. ♦ *Zuz. Proz.* Zigor-prozesuan aurreikusitako aukera pro-

zesala. Hari esker, akusatua aukera du bere kontra aurkeztutako akusazioa onartzeko eta ahozko epaiketarik egin gabe prozedura bukatu da.

**adostasun 2 [consentimiento]** ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Nazioarteko subjektu batek obligazio bat bere egiteko edota hura betetzetik salbuesteko egiten duen borondate-adierazpena. Adierazpen horren eraketa irregularrak deusez bihurtu dezake adierazpena bera. ♦ *Zig. Zuz.* Biktimak egilearen portaera onartzea. Erantzukizuna baztertzeko kausa izan daiteke. Horretarako, biktimak, baldintza zehatz batzuk tartean dirrela, egilearen portaera onartzen du; onespren hori eduki ezean portaera hura delitua litzateke. Arrazoiak bi izan daitezke: portaera atipikoa bihurtzea edo bidezkotze-kausa dela ulertzea.

**adostasun-akats [vicio del consentimiento]** ♦ *Zuz. Zib.* Egintza juridiko bat aurrera eramateko beharrezkoa den adostasunean nahasmen-dua eragin dezakeen akatsa. Adostasun-akatsa errorean, doloan edota biolentzian oinarritua egon daiteke, eta egintza juridikoaren beraren deuseztasuna ekar dezake. **Oh.** KZ, 1245. art.

**adostasun-akta [acta de conformidad]** ♦ *Fin. Zuz. Ik.* *adostasuneko akta.*

**adostasun-epai [sentencia de conformidad]** ♦ *Zuz. Proz.* Akusatua akusatzaileak eskatutako zigorra onartzearen ondorioz ematen den ebazpen judiziala. Epaiketan akusatzaile batzuk izanez gero, eskatutako zigorrik altuena-erikiko adostasuna adierazi behar du akusatua. **Sin.** *adostasuneko epai.*

**adostasuneko akta [acta de conformidad]** ♦ *Fin. Zuz.* Tributu-beharpekoak ikuskapen-aktaren edukia oso-osorik onartzen duenean (hau da, ikuskapen-aktan jasotako egitateekin eta likidazio-proposamenarekin ados dagoenean) erabiltzen den akta. Ikuskapen-aktak ikuskatzaileak egindako agiri publikoak dira. **Sin.** *adostasun-akta.*

**adostasuneko epai [sentencia de conformidad]** ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *adostasun-epai.*

**adpromissio [adpromissio]** ♦ *Zuz. Err.* Aurretik sortutako obligazio bat ordainduko duela hitz ematen duen hirugarren batekin (*sponsor sponsio* edo *stipulatio* hitzezko kontratuaren bidez hitzartutako berme-akordioa. Haren jatorrian, zordun nagusiak bere gorpuarekin ordaindu behar zuen (*solutio in noxa*).

**ad quem organo [órgano ad quem]** ♦ *Zuz. Proz.* Errekurtso debolutiboaz aztertutako duen organoa. Aurkaratzen den ebazpena eman duen organoaren goiko organoa.

**ad referendum [ad referendum]** ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Nagusiak, dagokion autoritate eskudunak, agintariak edo, azken finean, horretarako boterea duenak onartzekotan gauzatutako egintza.

**ADR teknika [técnica ADR]** ♦ *Zuz. Proz.* Estatu Batuetan eta sistema anglosaxoian oinarri duen gatazkak konpontzeko jurisdikzioz kanpoko eredu. Arazoari amaiera emango dion erabakia lortzeko gaian teknikoak den hirugarren batek lagunduko du. Teknika horien adibide ditugu: negoziazioa, bitartekaritza, adiskidetzea eta arbitrajea.

**adua-na [adua-na]** ♦ *Konst. Zuz.* Organismo publikoa, itsasalde eta mugetan jartzen dena, eta nazioarteko joan-etorrian inportatu eta esportatzen diren ondasun eta salgaien erregistroa egitea eta kasuan kasuko zergak ezartzea helburu duena.

**adua-na-batasun [unión aduanera]** ♦ *EB. Zuz.* EBren integrazio ekonomikoaren fasea. Aduana-batasunak ondorio hauek dakartza: estatu kideen arteko salgaien inportazio-esportazioetako adua-na-tarifak eta ondorio baliokideak dituzten beste ordainarazpenen debekua eta hirugarren herrialdeekiko harremanetan adua-na-tarifa erkidearen ezarpena. **Oh.** EBFT, 28. art. **Ik.** *salgaien zirkulazio aske.*

**aduanazerga** [*arancel de aduana*] ♦ *Fin. Zuz.* Merkantziak esportatzeko edo inportatzeko aduanetako-lerro bat zeharkatze hutsagatik ordaintzen den tributua.

**advocatus** [*abogada, abogado*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *abokatu.*

**aequitas** [*equidad*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *ekitate.*

**afektazio** [*afectación*] ♦ *Admin. Zuz. 1.* Eskubideak zein ondasunak interes orokorreko erabilera publiko batera zuzentzea. Normalean nahitaezko desjabetze-prozeduretan gauzatzen da. **Oh.** 1954ko Nahitaezko Desjabetze Legea, 9. art. **2.** Ondasun edo eskubideek jabari publikoko izaera eskuratzeko beharrezko den egintza. Horren bidez, ondasuna zein eskubidea erabilera orokorrari edo zerbitzu publikoari atxikitzen zaio. **Oh.** 33/2003 Legea, 65. art. **Sin.** *xedemate.* **Ik.** *jabari publiko, zerbitzu publiko.*

**afekzio-sari** [*premio de afección*] ♦ *Admin. Zuz.* Nahitaezko desjabetzea jasan duen desjabetuari balio justuaz gain ematen zaion %5eko sari gehigarria. **Oh.** 1954ko Nahitaezko Desjabetze Legea, 47. art.

**afiliazio sindikal** [*afiliación sindical*] ♦ *Lan Zuz.* Langilea sindikatu baten kide izateko aukera, askatasun sindikalean oinarritua. **Oh.** EK, 28.1 art., ASLO, 1-3. art.

**afinitate** [*afinidad*] ♦ *Zuz. Zib.* Ezkontide bien arteko zein ezkontide bakoitzaren eta beste ezkontidearen ahaideen arteko ahaidetasun-lotura. **Ik.** *ahaide.*

**aforismo** [*aforismo*] ♦ *Zuz. T.* Zuzenbidezientziaren alorreko printzipio bat adierazten duen doktrinazko esaldi laburra.

**agente diplomatiko** [*agente diplomático*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Bere egitekoak direla eta, berarizkoak diren pribilegio zein immunitateak dituen misio diplomatiko baten langile-taldeko kidea. **Oh.** HDVH, 29-41. art.

**agente kontsular** [*agente consular*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Bulego kontsularreko buru kategoria duen funtzionario kontsularra.

**agere** [*actuar / procedimiento*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *akzioa indarrean jarri, prozedura.*

**agere per formulas** [*procedimiento formula-rio*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *formula bidezko prozedura.*

**agerraldi** [*comparecencia*] ♦ *Zuz. Proz., Konst. Zuz.* Jurisdikzio-organoan aurkeztean burututako egintza prozesala. **Sin.** *agertze.*

**agertze** [*comparecencia*] ♦ *Zuz. Proz., Konst. Zuz. Ik.* *agerraldi.*

**agindu 1** [*mandato, orden*] ♦ *Zuz. T.* Agintea duenaren borondate-adierazpen loteslea, gizabanako edo giza talde baten portaera bideratzeko ematen dena. **Sin.** *manu, manamendu.*

**agindu 2** [*mandar, ordenar*] ♦ *Zuz. T.* Egin behar dena edo egin behar ez dena adierazi. Agintea duenari dagokio. **Sin.** *manatu. Ik.* *manamendu, manatu.*

**agindu 3** [*prometer*] ♦ *Zuz. T.* Norbaitek zer bait egingo duela hitz eman. **Sin.** *promes egin.*

**agindu judicial** [*orden judicial*] ♦ *Zuz. Proz.* Jurisdikzio-organoaren erabakia, jasotzailea zer bait egitera, ez egitera edo egiteari uztera behartzen duena. **Sin.** *epai-agindu.*

**aginduzale** [*imperativista*] ♦ *Zuz. T. 1.* Arau juridiko oro agindutzat jotzen duen Zuzenbidearen ikuskera. **2.** Arau juridikoaren ikuskera aginduzalea defendatzen duen teoriarria.

**aginduzko arau** [*norma imperativa*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Estatuaren Nazioarteko Komunitateak bere osotasunean onartu eta aintzatetsitako araua, kontrako akordiorik onartzen ez duena eta bakarrik maila berekoa den nazioarteko zuzenbide orokorreko beste ondorengo arau bategen alda dezakeena. **Oh.** TZVK, 53. art. **Sin.** *arau inperatibo, ius cogens.*

**agintaldi** [*mandato*] ♦ *Konst. Zuz.* Edozein erakundetako hautetsiek agintea egikaritzeko duten epea.

**agintari** [*autoridad*] ♦ *Konst. Zuz.* Agintea duen pertsona.

**agintaritzea** [*autoridad*] ♦ *Konst. Zuz.* Agintea gauzatzen den kargua edo erakundea.

**aginte** [*poder*] ♦ *Konst. Zuz.* Agintzen duenaren eskua edo boterea.

**aginte betearazle** [*poder ejecutivo*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Estatuaren aginte independenteetako bat, botere legegilearekin eta judizialarekin batera. Estatuaren eguneroko kudeaketaren arduraduna eta, besteak beste, hari dagozkio legeen aplikazio eta garapena, eta ahalmen araugilea. **2.** Aginte legegileak garatutako eta aginte judizialak administraturiko legeak egikaritzea bermatzen duen organoa.

**aginte-desbideratze** [*desviación de poder*] ♦ *Admin. Zuz.* Ahalmen administratiboak erabiltzea, ahalmen horiek esleitzen dituzten arauk ezarritakoez bestelako helburuak lortzeko. Aginte-desbideratzeak egintzaren deuseztagarritasuna ekarriko du. **Oh.** 39/2015 Legea, 48.1 art. **Sin.** *botere-desbideratze.*

**aginte esleitzailerik** [*poder adjudicador*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** *botere esleitzailerik.*

**aginte judizial** [*poder judicial*] ♦ *Konst. Zuz.* Gizarte batean justizia banatzeko ardura duen estatu-agintea.

**aginte legegile** [*poder legislativo*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Parlamentuek egikarituriko agintea, lege-mailako arauak onartzeko dituzten eskumenen arloan burutzen dutena. **2.** Legeak garatu, berregin edo indargabetzen dituen organoa.

**aginteen banaketa** [*separación de poderes*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Egoera bat, zeinean organo publiko desberdinek gauzatzen baitituzte esta-

tuaren eginkizun legegile, betearazle eta judiziala. Haren helburua da botere horien arteko independentzia, gobernatuaren askatasuna eta zerbitzu publikoen funtzionamendu egokia bermatzea. **2.** Aginteen banaketa eta bata bestearekiko independentzia aldarrikatzen duen printzipioa, zeinaren arabera bakoitzak bere funtzioak egikaritzen baititu.

**agintekeria** [*despotismo*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Beste pertsonen gain nagusikeria, botere-abusua edo gehiegizko indarra erabiltzea. **2.** Legeen mugez kanpo dagoen aginte mota.

**agiri-faltsutze** [*falsedad documental*] ♦ *Zig. Zuz.* Agiri publikoak, ofizialak, merkataritza-agiriak eta telekomunikazio-zerbitzuen bidez bidalitako idatz-agiriak faltsifikatzeko delitua. **Oh.** ZK, 390. eta hurr. art.

**agiri publiko** [*documento público*] ♦ *Zuz. Zib.* Notarioak edo enplegatu publiko eskudunak legeak agindutako solemnitateekin baimentzen edo eskuesten duen dokumentua. Parte hartzaile, epe eta egitateari buruzko frogak egiten du agiri publikoak.

**agorpen** [*agotamiento*] ♦ *Zig. Zuz.* Delituaren egileak bere helburua lortzean gertatzen den *iter criminisaren* fasea. **Ik.** *burutze, konspirazio, saiakera, zirikatzeta.*

**agregazio** [*agregación*] ♦ *Zuz. Zib.* Jabetza Erregistroan inskribatutako finka baten aldaketa juridikoa dakarren figuretariko bat. Agregazioaren bidez, hainbat finka edo hauetako hainbat zati batu egiten dira. Finka irenslea dago eta besteak honi atxikitzen zaizkio, denak Erregistroan inskribatuak egonik. Atxikitzen diren finkek edo zatiek ez dute gaintzen finka irenslearen hedaduraren bostena. Finka irensleak ez du folio berria irekitzen. **Ik.** *finka.*

**agresio** [*agresión*] ♦ *Nart. Zuz. Pu. Ik.* eraso.

**agresio-gerra** [*guerra de agresión*] ♦ *Nart. Zuz. Pu. Ik.* *agresio.*

**ahaide** [*pariente*] ♦ *Zuz. Zib.* Jatorri komuna duen familia bereko pertsona. Ahaideak izan daitezke, lerro zuzenekoak edo alboko lerrokoak. Lerro zuzeneko ahaideak dira gurasoak eta hauen ondorengoak (seme-alabak, bilobak...) eta gurasoak eta hauen aurrekoak (aita eta ama, aitita eta amama...). Alboko lerrokoak dira, ordea, enbor edo jatorri komuna dutenak (anai-arrebak, lehengusu-lehengusinak...). **Oh.** KZ, 915. art. eta hurr. **Ik.** *alboko ahaide, aurreko ahaide, ondorengo ahaide.*

**ahaide-kontseilu** [*consejo familiar*] ♦ *Zuz. Err. Paterfamilias* den familiako buruari erabakiak hartzeko aholku ematen duen senideez osatutako batzorde ez-erabakigarria. **Sin.** *consilium propinquorum, consilium domesticum.*

**ahaidego** [*parentesco*] ♦ *Zuz. Zib.* **Ik.** *ahaide-tasun.*

**ahaidetasun** [*parentesco*] ♦ *Zuz. Zib.* Jatorri komuna duen familia bereko pertsonen arteko lotura. **Sin.** *ahaidego, senidetasun.*

**ahal** [*potestad*] ♦ *Konst. Zuz., Zuz. T., Admin. Zuz.* Ordenamendu juridikoak emaniko jardunerako botere orokorra; botere horren titular-tasunak ez dakar betebeharrak dituzten subjektuen existentzia, baizik eta botere horrek eragin diezaiekeen eta berari lotuta dauden subjektuen existentzia.

**ahal diskrezional** [*potestad discrecional*] ♦ *Admin. Zuz.* Arauek administrazio-organoen alde aurreikusten dituzten ahalak, zeintzuen arabera administrazioari erabakitzeke aukera ematen baitzaio bere irizpide propioak aplikatuz. Guztiz arautuak ez dauden ahalen kasuan, administrazio-organoei aukera dute horiek interpretatzeko eta baita horien inguruan erabakitzeke ere. **Oh.** 39/2015 Legea, 35.1.i) art.

**ahaldun** [*titular de la potestad*] ♦ *Konst. Zuz.* Ahala duen pertsona, kargua edo erakundea.

**ahaldundu** [*apoderar, facultar*] ♦ *Zuz. T.* Norbaiti zerbaitetarako boterea edo ahalmena eman. **Sin.** *ahalmendu, ahalordetu.*

**ahalegin fiskal** [*esfuerzo fiscal*] ♦ *Fin. Zuz.* Nazio baten presio fiskalaren eta nazio barruko errentaren (*per capita* errenta) arteko harremana.

**ahalgabetze** [*desapoderar, suspender*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Ahala duenari ahal hori kentzea. **2.** Arau edo ekintza baten ondorioen aldi baterako geldiera.

**ahalmen** [*capacidad, facultad*] ♦ *Zuz. T.* Zerbait egiteko edo ez egiteko ahala edo gaitasuna. ♦ *Konst. Zuz.* Atribuzioa edo eskumena.

**ahalmen erregelamendugile** [*potestad reglamentaria*] ♦ *Konst. Zuz.* Botere-betearazleak eta herri-administrazioek arauak sortzeko duten ahalmena. **Oh.** 50/1997 Legea, 26. art.; 39/2015 Legea, 128. art.

**ahalmen jurisdikzional** [*potestad jurisdiccional*] ♦ *Zuz. Proz.* Estatuaren subiranotasunetik eratorritako boterea; era ezeztazinean epaituz eta epaitutakoa betearaziz, zuzenbidea kasu konkretuetan aplikatzean datza. Ahalmena, independenteak diren epaile eta magistratuz osatutako epaitegi eta auzitegiek eskusibotasunez egikaritzen dute. **Sin.** *jurisdikzio-ahalmen.*

**ahalmendu** [*apoderar, facultar*] ♦ *Zuz. T.* **Ik.** *ahaldundu.*

**ahalorde** [*poder*] ♦ *Zuz. Zib.* Ordezkatuaren eremu juridikoan aritzeko ordezkariari ematen zaion ahalmena. **Ik.** *mandatu, mandatu hartzaile, mandatugile.*

**ahalorde-emaile** [*poderrante*] ♦ *Zuz. Zib.* Ahalordea ematen duena. **Ik.** *ahalorde.*

**ahalordetu** [*apoderar, facultar*] ♦ *Zuz. T.* **Ik.** *ahaldundu.*

**ahozko bista** [*vista oral*] ♦ *Zuz. Proz.* Ahoz-kotasun-printzipioak bildutako bermeak erres-

petatuz epaile edo magistratuaren aurrean burututako ekitaldia; oro har, epaiketa egiteko edo intzidente baten gainean erabakitzeke. **Sin.** *ahozko ikustaldi*. **Ik.** *bista*.

**ahozko epaiketa** [*juicio oral*] ♦ *Zuz. Proz.* Zigor-prozesuko fase nagusia, jurisdikzio-organoa epaia emateko oinarritzko materialaz hornitzen duena. **Sin.** *ahozko judizio*.

**ahozko ikustaldi** [*vista oral*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *ahozko bista*.

**ahozko judizio** [*juicio oral*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *ahozko epaiketa*.

**ahozkotasun** [*oralidad*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *ahozkotasun-printzipio*.

**ahozkotasun-printzipio** [*principio de oralidad*] ♦ *Zuz. Proz.* Egintza judizialak ahoz eta erabaki behar duen organoaren aurrean burutzea lehenesten duen prozedura-printzipioa. Haatik, printzipioak ez du ekiditen egintza guztiak edo haietako zenbait idatziz jasotzea. Ahozkotasun-printzipiotik ondorioztatzen dira hurrekotasuna, kontzentrazioa eta publikotasuna. **Sin.** *ahozkotasun*.

**aitzatetsi** [*reconocer*] ♦ *Zuz. T.* Norbaitek egindako ekintza edo norbaiten egoera jakina —eskubide bat, esate baterako— onartzen dela adierazi.

**aitatasun** [*paternidad*] ♦ *Zuz. Zib.* Aitaren eta seme-alaben arteko lotura juridikoa. Aitatasuna judizialki edo judizioz kanpo ezar daiteke, eta zehaztua geratzen denean, indarrean sartzen dira ordenamendu juridikoak seme-alabatasunari egokitzen dizkion eskubide eta obligazioak. **Oh.** KZ, 112-141. art.

**aitatasun-prestazio** [*prestación de paternidad*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren sistemak aitatasunagatik langile bati aldi baterako aitortzen dion eskubidea, lanik egin gabe diru-kopuru bat eskuratuta. **Oh.** GSLO, 183-185. art.

**aitorpen** [*declaración*] ♦ *Fin. Zuz., Admin. Zuz.* Tributu Administrazioari aurkezten zaion eta, tributuak aplikatzeari begira, edozein gertaera garrantzitsu egin izana aitortu edo agerian uzten duen edozein dokumentu. **Sin.** *deklarazio*.

**aitorpen arrunt** [*declaración ordinaria*] ♦ *Fin. Zuz.* Aitorpen mekanizatua edo autoliki-dazio-proposamena ez den modalitatea.

**aitorpen erraztu** [*declaración simplificada*] ♦ *Fin. Zuz.* Jarduera ekonomikoak burutzen dituzten pertsona fisikoek zuzeneko zerbatespenaren modalitate erraztuaren arabera kalkula ditzakete beren jardueren etekin garbiak, betiere burututako jarduera guztien eragiketa bolu-mena ez bada 600.000 €-tik gorakoa.

**aitorpen mekanizatu** [*declaración mecanizada*] ♦ *Fin. Zuz.* Errenta Mekanizatuko Bulegoetan egiten den aitortpena. Horretarako, zergadunak hitzordua eskatu behar du alde aurretik telefono zenbaki batera deituz edo interneteko helbide batean eskatuz.

**aitorpen osagarri** [*declaración complementaria*] ♦ *Fin. Zuz.* Lehendik aurkeztutakoa osatu edo aldatzeko erabiltzen den aitortpena. Aitorpen osagarriak aurkeztu ahal izateko, aurreko aitortpenean baino zenbateko handiagoa ordaindu behar da edo aurreko aitortpenean baino zenbateko txikiagoa konpentsatu edo itzuli behar da.

**aitortu** [*confesar, reconocer, declarar*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Zerbaitetan parte hartu izana onartu edo ezagutu. **2.** Aldebakarreko ekintza bidez hirugarren batek jarduera bat baliozkotu. ♦ *Zuz. T.* **1.** Lekukotasuna eman. **2.** Zerbait edo norbait halakotzat ezagutu.

**aitortza** [*confesión, reconocimiento*] ♦ *Zig. Zuz.* Delitugileak prozedura judiziala bere kontra doala jakin aurretik agintaritzari delituaren berri ematean datzan inguruabar aringarria. **Oh.** ZK, 21.4 art. ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Zerbait



tan parte hartu izana onartzea edo ezagutzea. **2.** Aldebakarreko ekintza bidez hirugarren bategi jarduera bat baliozkotzea.

**aitortzaile [declarante]** ♦ *Fin. Zuz.* Zerga bat aitortzen duen pertsona edo erakundea.

**ajuste [ajuste]** ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Estatuarena ez den beste ordenamendu baten eremuan sortutako egitate edo negozio juridiko bat estatuko legeekin bat etor dadin egiten den doikuntza. **Oh.** KZ, 80. art. **Sin.** *doikuntza*. **Ik.** *homologazio, efektu zibilen aitopen*.

**akats [defecto, vicio]** ♦ *Zuz. T.* Arau zein egintza juridikoak baliozkoak ez izatea dakarren hutsa edo gabezia, baliozkotasun-baldintzak ez betetzean datzana.

**akats-zuzenketa [rectificación de errores]** ♦ *Fin. Zuz.* Egintza edo erreklamazioaren ebazpena eman duen organoak akats materialak, egitatezkoak edo aritmetikoak zuzenduko ditu edozein unetan, ofizios edo interesatuak eskatuta, betiere preskripzio-epaia igaro ez bada. **Sin.** *oker materialak, egitatezkoak edo aritmetikoak zuzentze*.

**akats formal [vicio formal]** ♦ *Zuz. T.* Arau zein egintza juridikoak baliozkoak ez izatea dakarren hutsa edo gabezia, formazko baliozkotasun-baldintzak ez betetzean datzana. **Sin.** *formazko akats*.

**akats judizial [error judicial]** ♦ *Zuz. Proz.* Zuzenbidearekin bat ez etortzeagatik ebazpen judizialean gertatzen den okerra edo errakuntza. Akatsa sortzeko arrazoiak, besteak beste, honako hauek ditugu: arau juridikoen aplikazio okerra, egitateen balorazio okerra edota oinarritzko frogaelementuak ebazpenean ez jasotzea. Akats judizialak Justizia Administrazioaren funtzionamenduari lotutako estatuaren erantzukizuna sor dezake. **Sin.** *oker judizial*.

**akats material [vicio material, vicio sustantivo]** ♦ *Zuz. T.* Arau zein egintza juridikoak ba-

laziozkoak ez izatea dakarren hutsa edo gabezia, materiazko baliozkotasun-baldintzak ez betetzean datzana. **Sin.** *materiazko akats, akats substantibo*.

**akats prozesal [defecto procesal, error procesal]** ♦ *Zuz. Proz.* Arau prozesalean oinarri duen okerra. Hots, okerrak formarekin du lotura; ez, ordea, auziaren muinarekin.

**akats substantibo [vicio material, vicio sustantivo]** ♦ *Zuz. T.* **Ik.** *akats material*.

**akonfesionaltasun [aconfesionalidad]** ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Inolako konfesiorik jarraitzen ez duenaren nolakotasuna. **Ik.** *estatu akonfesional*.

**akordio [acuerdo]** ♦ *Konst. Zuz.* Boronda-teak batzen dituen subjektu edo organoen arteko hitzarmena. **Ik.** *hitzarmen*. ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Estatuak erlijio-konfesioekin sinatutako lankidetzarako hitzarmena. **Oh.** 7/1980 Lege Organikoa, 7. art. ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Nazioarteko negoziazio, nazioarteko konferentzia edota nazioarteko erakunde baten baitan parte-hartzaileek lortzen duten elkarrekiko adostasuna. **Ik.** *hitzarmen, tratatu*.

**akordio arbitral [acuerdo arbitral]** ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Konpromiso klausularen edo akordio independentearen itxura har dezakeen aldean arteko akordioa, zeinak helburu baitu arbitrajearen bitartez eabaztea aldean artean sortu diren edo etorkizunean sor daitezkeen gatazkak. **Sin.** *hitzarmen arbitral*.

**akordio kolektibo [acuerdo colectivo]** ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuaren eta enpresako langileen ordezkarien artean egindako ituna, teknikoki hitzarmen kolektiboaz bestelakoa.

**akreditazio-aniztasun [multiplicidad de acreditaciones]** ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Misio buru batek hainbat estatutan bere funtzioak aldi berean egikari ditzan estatu batek emandako akreditazioa. **Oh.** HDVH, 5. eta 6. art.

**akta [acta]** ♦ *Zuz. T., Konst. Zuz.* **1.** Organo kolegiatu baten batzarretan gertatutako eztabaiden nondik norakoak zein horietan hartutako erabakiak gorde eta islatuko dituen dokumentua. **2.** Hainbat egitate edo adierazpen egiaztatzeko edo haien fede emateko, administrazio organoek, organo judizialek eta fedemaile publikoek egindako dokumentua, egiaztatu edo fedemandakoak Zuzenbidearen arloan dagokion eragina nahiz ondorioak izan ditzen osatzen dena. ♦ *Fin. Zuz.* Tributu-ikuskatzaileak araudian ezarritako kasuetan egiten duen agiri publikoa. Ikuskatzailearen egiaztapenen eta ikerketen emaitza bildu eta zergapekoaren tributu-egoerari buruz bidezko erregularizazioa proposatzeko erabiltzen da edo egoera hori zuzentzat jotzen du. ♦ *Admin. Zuz.* **Oh.** 40/2015 Legea, 18. art.

**aktibo finantzario [activo financiero]** ♦ *Merkat. Zuz.* Finantza-tresna, erosleari edo inbertitzaileari eskubidea ematen diona aktiboaren saltzailearengandik edo jaulkitzailearengandik diru-sarrerak jasotzeko etorkizunean. Aktibo finantzario bat eskuratzearen ondorioz saltzailea edo jaulkitzailea finantzatu egiten da eta horren truke eskuratzaileak diru-sarrera batzuk jasoko ditu etorkizunean. Aktibo finantzario baten eskuratzaileak etorkizunean jasoko dituen diru-sarrerak aktibo horren jaulkitzailearen jardueraren bilakaeraren menpe egongo dira. Beraz, aktibo finantzario bat eskuratzeak bere jaulkitzailearen arriskuaren zati bat onartzea dakar. Aktibo finantzarioen ezaugarrietako bat arriskua da, besteak errentabilitatea eta likidezia izango dira. **Oh.** KPO, 9. araua. ♦ *Fin. Zuz.* Finantza-tresna, alde bateko finantza-aktibo bat zein beste alde bateko finantza-pasibo bat edo kapital-tresna bat sortuko duen edozein kontratu. Kontzeptu horren barruan sartzen dira: beste erakunde batzuen kapital-tresnak edo ondare garbiaren tresnak, hirugarren batengandik dirua edo beste finantza-aktibo bat jasotzeko eskubideak, edo hi-

rugarren batekin finantza aktibo edo pasiboak trukatzeko eskubideak, potentzialki aldekoak diren baldintzetan. Halaber, kontzeptu honen barruan sartzen dira baloreetan adierazitako zorrak, kreditueragiketak, deribatuen eragiketak, eta bestelako edozein betebeharrak, gal-dagarri eta nahitaezko, hirugarren bati dirua edo beste finantza-aktibo bat emateko, edota hirugarren batekin finantzaaktibo edo -pasiboak trukatzeko, baldintza txarretan. **Sin.** *finantza-aktibo*.

**aktuario [actuario]** ♦ *Fin. Zuz.* Egiaztapen-eta ikerketa-jarduketak egiten dituen ikuskatzailea.

**akusatu 1 [acusada, acusado]** ♦ *Zuz. Proz.* Zigor-prozesuko beharrezko alderdi pasiboa, akusazio-idazkiaren bitartez gauzatutako akusazioa pairatzen duena. **Oh.** PKL, 760 III, 368., 371., 373., 448., 512., 687. art. **Ik.** *alderdi akusatu*.

**akusatu 2 [acusar]** ♦ *Zuz. Proz.* Zigor-akzioa egikaritu pertsona zehatz baten kontra.

**akusatzaile [acusadora, acusador]** ♦ *Zuz. Proz.* Zigor-prozesuko posizio aktiboko alderdia, zigor-akzioa egikaritzuz akusazioa gauzatzeko duena. **Sin.** *alderdi akusatzaile*.

**akusatzaile partikular [acusadora, acusador particular]** ♦ *Zuz. Proz.* Zigor-prozesuko alderdi akusatzailea, zigor-akzioa egikaritzen duen delituak ofenditua dena. Prozesuan jarduteko legitimazio arrunta dauka eta Espainiako Konstituzioaren 24.1 artikuluan du oinarri. **Oh.** EK, 24.1 art.

**akusatzaile pribatu [acusadora privada, acusador privado]** ♦ *Zuz. Proz.* Zigor-prozesuko alderdi akusatzailea, delitu pribatu batek ofenditua izateagatik kereila aurkezten duena. Delitu pribatuak jazartzeko prozesuetan bera da zigor-akzioaren titular bakarra eta, horregatik, akusatzaile bakarra.

**akusazio 1** [*acusación*] ♦ *Zuz. Proz.* Kalifikazio- edo akusazio-idazkien bitartez pertsona akusatua eta hari leporatzen zaizkion egitateak zehaztea, delituaren kalifikazioa jasoz eta egokiak diren zigorrak ezartzeko jurisdikzio-organoari epaitzeko eskatuz. **Ik.** *akusazio-idazki*.

**akusazio 2** [*acusación*] ♦ *Zuz. Proz.* Akusazioa gauzatzen duen alderdi prozesala. **Sin.** *akusatzaile, alderdi akusatzaile*.

**akusazio-idazki** [*escrito de acusación*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozedura laburtuan Ministerio Fiskalak eta gainerako alderdi akusatzaileek aurkeztutako dokumentua; haren helburua da ahozko epaiketaren hasiera eskatzea eta pertsona akusatua, delituzko egitateak, haien kalifikazio juridikoa, egiletasun-maila eta inguruabar aringarri edo astungarriak eta ezarri beharreko zigorra zehaztea. Era berean, dokumentu horretan epaiketaren ekitaldian burutzeko frogak eskatzen dira, kalifikazio juridiko zibila jasotzen da eta erantzukizun eta erantzule zibilak zehazten. **Oh.** PKL, 781.1 art.

**akusazio-printzipio** [*principio acusatorio*] ♦ *Zuz. Proz.* Zigor-prozesua eraentzen duen printzipioa. Haren arabera, epaileak ezin du ofizioz zigor-akzioa egikaritu, ezta prozesuko objektua zehaztu ere.

**akusazio-sistema** [*sistema acusatorio*] ♦ *Zuz. Proz.* Kontrajartze zigor-sistema prozesal bat, zeinean alderdiak (akusatzailea eta akusatua) aukera-berdintasunean baitaude epaile inpartzial baten aurrean. Sistema honetan alderdiek emandako froga eta argudioetan bakarrik oinarrituz emango du epaileak absoluzioa edo kondena.

**akusazio-sistema formal** [*sistema acusatorio formal*] ♦ *Zuz. Proz.* Akusazio- eta inkisizio-sistemen zeinuak biltzen dituen zigor-sistema prozesala. Espainiako zigor-sistema prozesalaren oinarria da.

**akzesio** [*accesión*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Lurraldearen gaineko eskumena bereganatzeko titulu juridikoa. Honen bitartez, estatuaren lurraldea zabaltzen da bere egiten baitu batzen, eransten edo inguruan dagoena, dela kausa natural baten ondorioz, edo gizakiaren esku-hartzearen ondorioz. ♦ *Zuz. Zib.* Ondasun baten titularrak duen eskubidea bere egiteko ondasunak ekoizten duena edota ondasunari, naturalki edo artifizialki, atxikitzen zaiona. Jabetza eskubi-deak barnebiltzen duen ahalmena da: ondasun nagusiaren titularra ondasun horren osagarrien eta fruituen titularra ere bada. Osagarriak nagusiarri jarraitzen dio. **Ik.** *ondasun, ondasun higiezin, ondasun higigarri*.

**akzio 1** [*acción*] ♦ *Merkat. Zuz.* Sozietate anonimoak jaulkitzen duen balore negoziagarria, kapitalaren zati alikuota bat adierazten duena eta tituludunari bazkide izaera ematen diona. Akzioak zatiezinak eta pilagarriak dira eta titulu edo kontu idazpenen bidez ordezka daitezke. **Oh.** KBL, 1, 90, 113 eta 118. art.

**akzio 2** [*acción*] ♦ *Zuz. Err.* Prozesu bat zabaltzeko, mandatua edo kaltegilea preto-rearen aurrera eramateko, epaile bat alderdien artean hautatzeko, eta frogak aztertu ondoren epaia emateko, ordenamendu juridikoak partikularreei eskaintzen dien baliabide juridikoa. **Sin.** *actio*. ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *akzio-eskubide*.

**akzio-eskaintza** [*ofrecimiento de acciones*] ♦ *Zuz. Proz.* Delituak ofenditu eta kaltetuak izan direnei bidezko zigor-akzioak eta akzio zibilak egikaritzuz prozesuan parte hartzeko aukeraren berri ematean datzan egintza prozesala. **Oh.** PKL, 109. eta 706. art.

**akzio-eskubide** [*derecho de acción*] ♦ *Zuz. Proz.* Interesen edo eskubideen babesa eskatzeko jurisdikzio-organoetara jotzeko eskubide publikoa. **Sin.** *akzio*.

**akzio-metaketa** [*acumulación de acciones*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *akzioen metaketa*.

**akzio publiko** [*acción pública*] ♦ *Admin. Zuz.* Edozein herritarrek prozedura administratibo batean edo administrazioarekiko auzibidezko jurisdikzioan prozesu batean parte hartzea ahalbidetzen duen legitimazioa, baita prozedura edo prozesu horretan interes zuzenik ez duenean ere. Aukera hau ez da orokorra, eta lege bidez xedatzen da. **Oh.** 29/1998 Legea, 19.1.h) art. **Sin.** *herri-akzio 2.*

**akzio zuzen** [*acción directa*] ♦ *Zuz. Zib.* Legeak hartzekodun jakin batzuei ematen dien boterea edo ahalmena, hartzekodunak bere izenenan egikaritzeko zordunaren akzioa eta ez zordunaren izenean.

**akzioen metaketa** [*acumulación de acciones*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozedura bakarrean uzi bat baino gehiago eta uzi horien prozesuak bateratzea, ekonomia prozesala eta azkartasuna irabazteko eta kontraesanezkoak diren epaiak ekiditeko. **Sin.** *akzio-metaketa.*

**alargun-pentsio** [*pensión de viudedad*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren sistemak alarguntasunagatik langile bati aitortzen dion bizi arteko eskubidea, zeinaren arabera, hildako langilearen diru-sarreraren ordez diru kopuru bat eskuratuko baitu alargunak. **Oh.** GSLO, 219-221. art.

**alargun-prestazio** [*prestación de viudedad*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren sistemak alarguntasunagatik langile bati aitortzen dion eskubidea, zeinaren arabera, hildako langilearen diru-sarreraren ordez diru-kopuru bat eskuratu-ko baitu alargunak. **Oh.** GSLO, 222. art.

**alarma** [*alarma, estado de alarma*] ♦ *Konst. Zuz.* **Ik.** *alarma-egoera.*

**alarma-egoera** [*alarma, estado de alarma*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Ordena publikoa arriskuan jar dezakeen egoera; batez ere, hondamen naturalak, osasun-krisiak, zerbitzu publikoen geldierak edo hornikuntza ezak sorrarazirikoa.

**Sin.** *alarma. 2.* Hondamen naturalak, osasun-krisiak, zerbitzu publikoen geldierak edo hornikuntza ezak sorrarazitako egoera berezia dela-eta gobernuak aitor dezakeen egoera, normaltasunera itzuli bitartean aldi baterako gaitasun bereziak ematen dizkiona.

**albaramendu** [*sedición*] ♦ *Zig. Zuz.* Ordena publikoaren aurkako delitua: agerian eta modu nahasian altzatzea, indarrez edo legeko bideetatik kanpo, legeen aplikazioa edo funtzionario publikoei beren funtzioan bidezko eran jardutea edo beren erabakiak edo ebazpenak betetzea eragozteko. **Oh.** ZK, 544. art. eta hurr.

**albazea** [*albacea*] ♦ *Zuz. Zib.* Testamentugileak izendatutako pertsona, testamentugilea bera hiltzean bere testamentuaren exekuzioaz arduratzen dena. Pertsona bat baino gehiago izenda daiteke albazea, aldi berean edo jarraian. Euskal Zuzenbide zibilean, albazearen funtzioak maiz komisarioak betetzen ditu, nahiz eta bi pertsona ezberdin izan daitezkeen. **Sin.** *testamentu-betearazle.*

**alboko ahaide** [*pariente colateral*] ♦ *Zuz. Zib.* Alboko lerroan familiakoei erreferentzia egiten dion terminoa (neba-arrebak, osaba-izebak, lehengusu-lehengusinak...). **Ik.** *ahaide.*

**aldaberritze-greba** [*huelga novatoria*] ♦ *Lan Zuz.* Hitzarmen kolektiboaren edukia aldatzeko egiten den greba.

**aldarrikapen** [*declaración, proclamación, promulgación*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Aldebakarreko ekitaldi batzuei (adibidez, gerrate-adierazpena) eta, oro har, nazioarteko akordio aldeaniztun eta ez-lotesleei loturik aurkezten den dokumentua. **2.** Gertarera edo egoera juridiko baten baieztapena. ♦ *Zuz. T. 1.* Testu juridiko bat ofizialki indarrean sartzen dela adieraztean datzan ekintza eta horren ondorioa. **Sin.** promulgazio. **2.** Zerbaiten defentsa aldarrikatzean datzan ekintza eta horren ondorioa.

**aldarrikatu** [*proclamar, promulgar*] ♦ *Konst. Zuz., Zuz. T.* **1.** Era ospetsu edo solemne batean lege bat edo beste xedapen orokor bat argitaratu. **Oh.** EK, 91. art. **Sin.** *promulgatu*. **2.** Kargu edo hierarkia batzuetarako norbait izendatu. **3.** Zerbituen defentsan agertu

**aldeaniztasun** [*pluralidad de partes*] ♦ *Zuz. Zib.* Erlazio juridiko batean, posizio juridiko ezberdinak egotea. Obligaziozko erlazioetan, bi alderdi daude: zorduna eta hartzekoduna, nahiz eta zordunaren posizioan, edo hartzekodunaren posizioan, pertsona bat baino gehiago egon daitekeen. Aldeaniztasuna, beraz, ez da subjektu aniztasunarekin nahastu behar. **Ik.** *subjektu aniztasun*.

**aldebakarreko egintza** [*acto unilateral*] ♦ *Zuz. Zib.* Alderdi bakar baten borondatez eta bere parte hartzearen ondorioz sorturiko gertakaria.

**aldebakarreko kontratu** [*contrato unilateral*] ♦ *Zuz. Zib.* Obligazio nagusia alderdi bakarrentzat sortzen duen kontratua. Dohaintza, aldebakarreko kontratua litzateke, alderdi bakarrak gauzatzen baitu prestazioa, eskuzabaltasun hutsean oinarrituz, beste alderdiaren kontraprestaziorik gabe ordainetan.

**aldebakarreko negozio** [*negocio unilateral*] ♦ *Zuz. Zib.* Pertsona batek egiten duen borondate adierazpena, zeinaren bitartez betebeharr juridiko bat berenganatzen duen. Legeak, kasu bakoitzean, ezartzen duen efikazia juridikoa izaten du. Esate baterako, testamentua egitea, jaraunspena onartzea edo ahalordea norbaiti ematea aldebakarreko negozio juridikoak dira. **Ik.** *negozio juridiko*.

**aldebakartasun** [*unilateralidad*] ♦ *Zuz. Zib.* **1.** Alde bakarra duenaren izaera. **2.** Alde bakarrari betebeharrak ezartzen dizkionak duen izaera. **3.** Alde bakar baten borondateak ondorioak sortzen dituenaren izaera. **Ik.** *dohaintza, fidantzia, gordailu, komodatu, testamentu*.

**aldebiko kontratu** [*contrato bilateral*] ♦ *Zuz. Zib.* Bi alderdientzat obligazioak sortzen dituen kontratu mota. Adibidez, salerosketa kontratuan, alde batek bere gain hartzen du ondasun bat emateko obligazioa eta beste aldeak, prezio bat ordaintzekoa.

**aldebikotasun** [*bilateralidad*] ♦ *Zuz. Zib.* Alde bi dituenaren izaera. **2.** Alde biei eskubide zein betebeharrak ezartzen dizkionak duen izaera.

**alderdi 1** [*parte*] ♦ *Zuz. Proz.* Epaiketa batean agertzen diren bi posizioetako edozeinetan bere interesak defendatzeko agertzen den herritarra. **Sin.** *alderdi prozesal, prozesuko alderdi*. ♦ *Zuz. Zib.* Beraien artean kontratua egiten duten aldeetako bakoitza edo negozio berean interesa duen alde bakoitza. Alderdi bakoitzak, normalean, posizio juridiko ezberdina du kontratu edo negozioan. Alderdi bakoitza subjektu bakar batez edo subjektu anitzez osatua egon daiteke.

**alderdi 2** [*partido*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Herritarrek politikan eta botere publikoan parte hartzea ahalbidetzen duen erakundea, programa, oinarri eta ideia jakin batzuen arabera antolatuta dagoena. **2.** Interes, printzipio, balio edo helburu berak partekatzen dituzten pertsonen elkarte antolatua, ideologia eta programa bati jarraitzen diona.

**alderdi akusatu** [*parte acusada*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *akusatu 1*.

**alderdi akusatzailerik** [*parte acusadora*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *akusatzailerik*.

**alderdi-aniztasun** [*pluralidad de partes*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesua osatzen duten posizioetako bietan edo edozeinetan interes bat baino gehiago agertzean gertatzen den fenomeno prozesuala. **Sin.** *alderdien aniztasun*.

**alderdi-aniztasun ebentual** [*pluralidad de partes eventual*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesua osa-

tzen duten posizioetako bieran edo edozeinetan interes bat baino gehiago agertzeko aukera. **Sin.** *alderdien aniztasun ebentual*.

**alderdi apelatu** [*parte apelada*] ♦ *Zuz. Proz.*  
**Ik.** *apelatu 1*.

**alderdi apelatzaile** [*parte apelante*] ♦ *Zuz. Proz.* Alderdia zeinaren aurka apelazio-errekurtsoa jartzen baita. **Sin.** *apelatzaile*.

**alderdi demandatu** [*parte demandada*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *demandatu 1*.

**alderdi demandatzaile** [*parte demandante*] ♦ *Zuz. Proz., Admin. Zuz.* Prozesu bateko subjektu aktiboa; epai-organoari babeska eskatzen dio uzi bat aurkeztuta. **Sin.** *auzijartzaile, demandatzaile*.

**alderdi den estatu** [*estado parte*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* **Ik.** *estatu kide*.

**alderdi indibidual** [*parte individual*] ♦ *Lan Zuz.* Lan-harremanean subjektu indibidual gisa diharduen langile edo enpresaburua.

**alderdi kolektibo** [*parte colectiva*] ♦ *Lan Zuz.* Lan-harremanean subjektu kolektibo gisa diharduen langileen ordezkaria, enpresaburua, edo enpresaburuen ordezkaria.

**alderdi negoziatzaile** [*parte negociadora*] ♦ *Lan Zuz.* Negoziazio kolektiboan, langileen interesak edo enpresaburuen interesak defendatzen dituen alderdia. **Oh.** LE, 87. art.

**alderdi prozesal** [*parte procesal*] ♦ *Zuz. Proz.*  
**Ik.** *alderdi*.

**alderdien aniztasun** [*pluralidad de partes*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *alderdi-aniztasun*.

**alderdien aniztasun ebentual** [*pluralidad de partes eventual*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *alderdi-aniztasun ebentual*.

**alderdien autonomia** [*autonomía de las partes*] ♦ *Lan Zuz.* Lanaren Zuzenbideak lan-

harremanaren bi alderdiei, bie batera, beren interesak modu autonomoan defendatzeko aitortzen dien ahalmena.

**alderdien autonomia kolektibo** [*autonomía colectiva de las partes*] ♦ *Lan Zuz.* Lanaren Zuzenbideak negoziazio kolektiboaren bi alderdiei bie batera, arau eraginkortasuna duten hitzarmen kolektiboak adosteko aitortzen dien ahalmena. **Oh.** EK, 37.1 art.

**alderdien ekarpen-printzipio** [*principio de aportación de parte*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesua informatzen duen printzipioa; haren arabera, alderdiak dira epaiketara egitateak ekarri eta horien gaineko frogak eska ditzaketen bakarrak. Epaileak horiekin bat erabakiko du auzia.

**alderdien galdeketa** [*interrogatorio de parte*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuko frogak; alderdi batek besteetarikoa batek edo gehiagok galdera batzuei erantzuteko eskatzea epaileari. **Sin.** *alderdien itaunketa*.

**alderdien itaunketa** [*interrogatorio de parte*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *alderdien galdeketa*.

**aldi baterako errenta** [*renta temporal*] ♦ *Fin. Zuz.* Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan denboran mugatuta kobratzen den errenta, kapital higigarri gisa tributatzen duena.

**aldi baterako ezintasun** [*incapacidad temporal*] ♦ *Lan Zuz.* Osasun tratamendua jasotzen ari den langilearen egoera, ustez, aldi baterako izaera duen ezintasuna. GSLO, V. kapitulua. **Ik.** *ezintasun iraunkor*.

**aldi baterako hornikuntza-erregimeneko epaile** [*jueza, juez en régimen de provisión temporal*] ♦ *Zuz. Proz.* Lehiaketetan hutsik geratu den epaile-hutsunea behinbehinean betetzen duen epailea. Prozedura arrunten bidez hutsunea bete arte aritzen da jardunean.

**aldi baterako kontratu** [*contrato temporal*] ♦ *Lan Zuz.* Iraupen mugatua duen lan-kontratu. Legezko justifikazioa behar du, printzi-

pioz, lan-kontratuak iraupen mugagabeak direlako.

**aldi baterako prestazio** [*prestación temporal*]

◆ *Lan Zuz.* Iraupen mugatua duen prestazioa. Prestazio hauek subsidio izaera dute.

**aldizkako azterketa unibertsal** [*examen periódico universal*]

◆ *Nart. Zuz. Pu.* Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluak, giza eskubideen arloan zein nazioarteko araudia-aren aplikazioaren inguruan egikaritzen duen kontrol-tresna, hitzarmenezko izaera ez duena. Horren bitartez, estatuek aldi-aldi aurkeztu behar dituzten txostenak aztertzen eta baloratzen dira. Txosten horiek giza eskubideen arlokoak zein nazioarteko obligazioen betetze mailaren ingurukoak izan ohi dira.

**aldizkako lan finko** [*trabajo fijo discontinuo*]

◆ *Lan Zuz.* Aldizkako lana, iraupen mugagabearen lan-kontratuaren baitakoa. Urtero, sasoi jakin batean egiten den lana.

**aldizkari ofizial** [*diario oficial*]

◆ *Admin. Zuz.* Administrazioek arauetara orotariko izaera duten erabakiei publikotasuna emateko erabiltzen duten buletina. **Oh.** 39/2015 Legea, 131. art.

**aldundi** [*Diputación*]

◆ *Admin. Zuz.* EAEren esparruan probintzia eremuko administrazioa osatzen duen erakundeetako bat. Probintzia eremuko gobernu-organoa. **Oh.** Espainiako Konstituzioa, 141. art. **Sin.** *diputazio*.

**alegatu** [*alegar*]

◆ *Zuz. Proz.* Ahoz zein idatziz argudiatu, uzi baten aldeko egitateak zein zuzenbidezko arrazoiak aurkeztuz.

**alegazio** [*alegación*]

◆ *Zuz. Proz.* Eztabaidagai diren egitateen zein eztabaidagaiari aplikagarri zaizkion arau juridikoen gaineko arrazoitzea. Jurisdikzio-organoiari interesatuak egindako argudiaketa, hark gatazkaren gainean erabaki dezan. ◆ *Admin. Zuz.* Interesdunak prozedura administratibo baten baitan aurrera eramaten duen egintza, xede duena gai baten inguruko

argudio juridikoak edota egitatezko argudioak aurkeztea. Prozedura administratiboaren fase edo izapide zehatz batzuetan egin daiteke bakarrik. **Oh.** 39/2015 Legea, 76. art.

**alikuota beherakor** [*alícuota decreciente*]

◆ *Fin. Zuz.* Karga-tasa mota bat, non oinarri zergagarria handitu ahala txikiagoa baita karga-tasa.

**alikuota gorakor** [*alícuota creciente*]

◆ *Fin. Zuz.* Karga-tasa mota bat, non oinarri zergagarria handitu ahala handiagoa baita karga-tasa.

**alkar-poderoso** [*alkar-poderoso*]

◆ *Zuz. Zib.* Ezkontideek edo erregistratutako izatezko bikotekideek, testamentu-ahalorde bidez bata bestea komisario izendatzea. **Ik.** *komisario*.

**alkate** [*alcalde*]

◆ *Konst. Zuz. 1.* Udal bateko gobernuburua. **2.** Udal-batzarreko lehendakaria, akordioak betearazten dituen.

**alta-egoera** [*situación de alta*]

◆ *Lan Zuz.* Lanean eta kotizatzen ari denean langileari dagokion Gizarte Segurantzako egoera. Gizarte Segurantzak babes emateko galdatzen duen betekizun orokorra. **Oh.** GSLO, 139. art.

**alta-egoera berezi** [*situación de alta especial*]

◆ *Lan Zuz.* Greba edo ugazaben itxierako egoeretan, lanik eta kotizaziorik ez izan arren, ematen den alta egoera. **Oh.** GSLO, 166. art.

**altarekin parekatutako egoera** [*situación asimilada al alta*]

◆ *Lan Zuz.* Hainbat egoeretan, lanik ez egon arren, ematen den alta egoera. **Oh.** GSLO, 166. art.

**altxor publikoaren kontu** [*cuenta del tesoro público*]

◆ *Fin. Zuz.* Zerga-administrazioaren esparruan, ogasun publikoek zerga-bilketa eta direlako diru-emateak errazteko daukaten banku-kontua (era askotakoak izan daitezke). Araututa egoten da.

**amaiera** [*extinción*]

◆ *Lan Zuz.* Lan-harremanaren amaiera. **Oh.** LE, 49. art. **Sin.** *azkentze*.

**amatasun** [*maternidad*] ♦ *Zuz. Zib.* Amaren eta seme-alaben arteko lotura juridikoa. Amatasuna judizialki edo judizioz kanpo ezar daiteke, eta zehaztua geratzen denean, indarrean sartzen dira ordenamendu juridikoak seme-alabatasunari egokitzen dizkion eskubide eta obligazioak. **Oh.** KZ, 112-141. art.

**amatasun-baja** [*baja de maternidad*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren sistemak amatasunagatik langile bati aldi baterako aitortzen dion eskubidea, zeinaren arabera langileak ez baitu lanik egingo eta ezta enplegua ere galduko. **Oh.** GSLO, 177-180. art.

**amatasun-prestazio** [*prestación de maternidad*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren sistemak amatasunagatik langile bati aldi baterako aitortzen dion eskubidea, zeinaren arabera, lanik egin gabe diru kopuru bat eskuratuko baitu langileak.

**amicitia** [*amicitia*] ♦ *Zuz. Err. Honestitas, virtus, officium, aequitas, bona fides* printzipioaz josirik zegoen zenbait pertsonaren arteko (*amicia*) laguntasun leiala. Ciceronen esanetan, *amicitia*-rik gabe ez zegoen Erroman ez surik, ezta urik ere.

**anaiarte** [*hermandad*] ♦ *Zuz. T.* Interes bera daukaten pertsonen osatutako taldea. Gehienetan gai erlijiosoen lotuta daude. ♦ *Admin. Zuz.* Arabako Lurralde Historikoan, nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna duen toki-entitatea, udal eta kontzejuak (edo kontzejuak bakarrik) elkarrekin mankomunatu, beren ardurako lan eta zerbitzuak batera eskaini eta kudeatu ahal izateko sortua.

**analogia** [*analogía*] ♦ *Zuz. T., Zuz. Zib.* Hutsune juridikoak betetzeko metodoa, arrazoi berdintasunak eraginda, arau juridiko baten ondorioak horrek aurreikusten ez dituen kasuei luzatzean datzana. Analogia hitzak antzekotasunari egiten dio erreferentzia. Bi motatakoa izan daiteke: *analogia iuris eta analogia legis*. **Oh.** KZ, 4.1 art.

**analogia iuris** [*analogia iuris*] ♦ *Zuz. Zib.* Auziaren egitatezko kasuaren antzeko araurik ezean, printzipio orokorrak aplikatzea auziari erantzuna emateko.

**analogia legis** [*analogia legis*] ♦ *Zuz. Zib.* Arau batek kasu zehatza arautu ez arren, oinarri berdina duen antzeko kasu bati aplikatzea.

**anarkia** [*anarquía*] ♦ *Zuz. T. 1.* Estatuaren antolaketarik eza edo gobernu-egitura eza. **2.** Botererik ezak giza talde batean edo gizarte batean sorrarazten duen egoera nahasia.

**anarkismo** [*anarquismo*] ♦ *Zuz. T.* Gizabakoaren askatasuna lortzeko xedez Estatu-erakundeak desagertzearan alde egiten duen doktrina politiko iraultzailea.

**anatozismo** [*anatocismo*] ♦ *Zuz. Zib.* Zor den diru kopuru baten interesen kapitalizazioa. Maileguan jasotako kapital batek eragiten dituen interesak ordaintzen ez direnean, berandutza horrek beste interes batzuk sortzen ditu. Ordaindu gabeko interes kantitate hori maileguan jasotako kapitalari gehitzen zaio eta, ondorioz, interes berriak kalkulatzeko dira kapital zifra berri horrekiko, zorraren zama areagotzen dutenak.

**aniztasun** [*pluralidad*] ♦ *Konst. Zuz.* Zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoaren oinarriko printzipio konstituzionala. Haren bitartez, biztanleriaren interesen defentsa-bideak legitimatzen dira. Alderdi politiko, sindikatu eta enpresa elkarten bitartez gauzatzen da.

**aniztasun juridiko** [*pluralismo jurídico*] ♦ *Zuz. T. 1.* Lurralde jakin batean egoera faktiko berdinak erregulatzen dituzten sistema juridiko ezberdinak aldi berean egotea. **2.** Monismo juridikoari aurre egiten dion teoria-multzoa.

**aniztasun politiko** [*pluralismo político*] ♦ *Zuz. T. 1.* Lehiakide diren aukera politiko anitz egon daitezen bermatzen duen sistema politikoaren bereizgarria. **2.** Sistema parte-hartzailea



ordezkagarrietan elkarren aurka lehia diharduten elite ezberdinak daudela aldarrikatzen duen Estatuaren teoria pluralista.

**ankerkeria** [*ensañamiento*] ♦ *Zig. Zuz.* Biktimaren sufrimendua nahita eta modu ez-gizatiarrean handitzean datzan inguruabar astungarria; delitua exekutatzeke beharrezkoak ez diren pairamenak jasanarazten zaizkio biktimari. **Oh.** ZK, 22.5 art.

**antijuridiko** [*antijurídico*] ♦ *Zuz. T., Zig. Zuz.* Zuzenbidearen kontrakoa dena. **Sin.** *zuzenbide-kontrako*.

**antikresis** [*anticresis*] ♦ *Zuz. Zib.* Ondasun higiezinaren gaineko bermezko eskubide erreala. Hartzekodunak ondasun higiezin jakin baten edukitza jasotzen du eta ondasun horretatik eratoritzen diren fruitu eta errentekin bere kredituaren amortizazioa gauzatzen du, lehenengo interesak likidatuz eta, azkenik, kapital nagusia. **Ik.** *errenta, fruitu, kreditu-eskubide*.

**antinomia** [*antinomia*] ♦ *Zuz. T.* Sistema juridiko berekoak diren eta baliozkotasun-esparru bera duten bi arauen arteko bateraezintasuna.

**antolaketa** [*organización*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio bat osatzen duten organoen jarduerak ordenatzeko ekintza. **Oh.** 40/2015 Legea, 54. art.

**antolaketarako eginbide** [*diligencia de ordenación*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *ordenazio-eginbide*.

**antolakunde** [*organización*] ♦ *Konst. Zuz.* Gizatalde bat, pertsona batzuek osatua, egiteko batzuk dituen eta administrazio sistema bat dela medio helburu bat lortzeko asmoz egituratua. **Sin.** *organizazio*. **Ik.** *Erakunde* (3. adiera).

**antolakuntza-arrazoi** [*causa organizativa*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaren antolakuntzari dagokion arrazoi, lan-baldintzak aldatzea edo lan-kontratuak iraungitzea justika dezakeena. **Oh.** LE, 51.1 art. **Sin.** *antolakuntzako arrazoi*.

**antolakuntza-botere** [*poder de organización*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuak langileen lana antolatzeko duen boterea. **Oh.** LE, 1.1 art.

**antolakuntzako arrazoi** [*causa organizativa*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *antolakuntza-arrazoi*.

**aparteko berrikuspen-errekurtso** [*recurso extraordinario de revisión*] ♦ *Fin. Zuz.* Tributu Administrazioaren egintza irmoen eta ekonomia-administraziozko auzitegien ebazpen irmoen aurka interesatuek, kasu batzuetan (adibidez, epai irmoaren bidez faltsuak direla adierazitako lekukotza edo dokumentuek ebazpenean eragin handia izatea) jar dezaketen errekurtsoa.

**aparteko errekurtso** [*recurso extraordinario*] ♦ *Zuz. Proz.* Jurisdikzio-organo batek hartutako erabakiak aurkaratzeko bidea, ebazpen zehatz batzuen kontra eta legeak aurrekusi-tako arrazoiengatik soilik aurkez daitekeena. **Sin.** *ezohiko errekurtso*.

**aparteko ordainsari** [*paga extraordinaria*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *aparteko paga*.

**aparteko ordu** [*hora extraordinaria*] ♦ *Lan Zuz.* Lanordu arruntez haratago egiten den lanordua. **Oh.** LE, 35. art.

**aparteko paga** [*paga extraordinaria*] ♦ *Lan Zuz.* Hileroko ohiko soldataz gain ordaintzen den soldata. **Oh.** LE, 31. art. **Sin.** *aparteko ordainsari*.

**apartheid** [*apartheid*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Zapalketa eta menerapen sistematikoko erregimen instituzionalizatua, arraza-talde batek beste arraza-talde baten edo gehiagoren gain inposatutakoa.

**apatrida** [*apátrida*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Inongo estatuk, bere legediaren arabera, bere nazionaltatz hartzen ez duen pertsona. **Oh.** AEH, 1.1 art.

**apelatu 1** [*parte apelada*] ♦ *Zuz. Proz.* Apelazio-errekurtsoa jartzen duen alderdia. **Sin.** *alderdi apelatu*.

**apelatu 2** [*apelar*] ♦ *Zuz. Proz.* Apelazio-errekurtsoa jarri.

**apelatzaile** [*apelante*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** alderdi apelatzaile.

**apelazio** [*apelación*] ♦ *Zuz. Proz., Admin. Zuz.* **Ik.** apelazio-errekurtso.

**apelazio-errekurtso** [*recurso de apelación*] ♦ *Zuz. Proz., Admin. Zuz.* Jurisdikzio-organo batek hartutako erabakiak aurkaratzeko bidea. Haren bidez egiteko zein zuzenbidezko elementuak berriki ditzake ebazpena eman duen organoaren goragokoak. **Sin.** apelazio.

**aplikagarritasun** [*aplicabilidad*] ♦ *Zuz. T.* Aplikatu daitekeen arauaren nolakotasuna.

**aplikazio-eremu** [*ámbito de aplicación*] ♦ *Zuz. T.* Arau juridikoak edo bestelakoak aplikagarri diren esparrua, denborazkoa, espaziala, pertsonala zein materiala izan daitekeena. ♦ *Konst. Zuz.* **Ik.** eremu.

**aplikazio-eremu funtzional** [*ámbito de aplicación funcional*] ♦ *Lan Zuz.* Hitzarmen kolektiboaren aplikazio-esparrua, betiere, enpresaren edo sektorearen arabera.

**aplikazio-eremu pertsonal** [*ámbito de aplicación personal*] ♦ *Lan Zuz.* Hitzarmen kolektiboaren aplikazio-esparrua, betiere, bere eraginpean dauden langileen arabera.

**apologia** [*apología*] ♦ *Zig. Zuz.* Delitua edo haren egilea goratzeko, justifikatzeko edota gutxiesteko jarduna. Batzuetan beste delitu baten prestamen-ekintza da, batzuetan delitu independente eta autonomo gisa tipifikatzen da Zigor Kodean. **Oh.** ZK, 18. art. eta 578. art.

**a quo organo** [*órgano a quo*] ♦ *Zuz. Proz.* Aurkaratzen den ebazpena eman duen organoa.

**arartekaritza** [*buenos oficios*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Gatazkak modu baketsuan konpontzeko prozedura, aldean arteko harremana ahalbidetzeko edo berrezartzeko hirugarren inpartzial

baten parte hartzean datzana. Prozedura hau ez da jurisdikzionala. Hirugarren inpartzialak, bestalde, ez du negoziazioan parte hartzen, ezta proposamenik ere egiten. **Oh.** NBG, 33. art. **Sin.** arartekotasun, jardunbide egokiak, ofizio onak.

**Ararteko** [*Defensor del Pueblo Vasco*] ♦ *Konst. Zuz.* Euskadiko Autonomia Erkidegoko herritarren eskubideen babeslea. **Oh.** EAEko Estatutua, 15. art. Ingelesez: *Ombudsman*. Estatu-mailan dagoen antzeko erakundea: Herriaren Defendatzailea.

**arartekotasun** [*buenos oficios*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* **Ik.** arartekaritza, ofizio onak.

**arau** [*norma*] ♦ *Konst. Zuz., Zuz. T.* **1.** Agindu edo manua. **Sin.** erregela. **2.** Giza portaera bideratzeko funtzioa duen erregela.

**arau aplikagarri** [*norma aplicable*] ♦ *Zuz. T.* Kasu jakin bat ebazteko erabili daitekeen erregela, errealitatean gaurkotu den egitatezko suposamendu jakin bat bere baitan hartzen duena.

**arau-bateraezintasun** [*incompatibilidad normativa*] ♦ *Zuz. T.* **Sin.** arauen bateraezintasun. **Ik.** antinomia.

**arau eratorri** [*norma derivada*] ♦ *Zuz. T.* Arau-sistema batean sistema bereko beste arau baten ondorio logikoa dena.

**arau eratzaile** [*norma constitutiva*] ♦ *Zuz. T.* Arautzen dituen gertakari instituzionalak sorrarazten dituen erregela.

**arau etiko-moral** [*norma ético moral*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Norberaren konbikzio edo uste sendoetan oinarritutako arauak, pertsonarentzat lotesle izan daitezkeenak, betiere, kosmosikuspegi, filosofia edo antzerakoen arabera. Arau juridikoen kasuan ez bezala, estatu demokratiko ez konfesioaletan ez dagokie botere publikoei arau horien betearazpena.

**arau foral** [*norma foral*] ♦ *Admin. Zuz. Ik. foru-arau.*

**arau-haule** [*autora, autor*] ♦ *Zig. Zuz. Ik. egile.*

**arau-hauste** [*infracción, violación de normas*] ♦ *Zuz. T. Araua ez betetzean datzan ekintza eta horren ondorioa.*

**arau heteronomo** [*norma heterónoma*] ♦ *Zuz. T. Arau sortzaile batek beste eragileen portaera bideratzeko emandako erregela.* ♦ *Lan Zuz.* Botere publikoak alderdien autonomia kolektibotik kanpo emandako araua.

**arau-hierarkia** [*jerarquía, jerarquía normativa*] ♦ *Admin. Zuz.* Arauen arteko harremana antolatzeko orduan zein arau dagoen beste baten gainetik adierazten duen printzipioa. Printzipio honen arabera, gai bat arautzeko arau bat baino gehiago aplikatu badaiteke, gorago dagoen arauak izango du lehentasuna, betiere, ezarritako hierarkiaren arabera. **Oh.** 39/2015 Legea, 128. art. **Sin.** *arauen hierarkia-sistema. Ik. hierarkia.*

**arau hoberenaren printzipio** [*principio de norma más favorable*] ♦ *Lan Zuz. Ik. arau mesedegarrienaren printzipio.*

**arau indargabetzaile** [*norma derogatoria*] ♦ *Zuz. T.* Xedapen edota arau jakinak indargabetzen dituen erregela.

**arau inperatibo** [*norma imperativa*] ♦ *Zuz. Zib.* Subjektuen borondate autonomiaren eremutik kanpo dagoen arau juridikoa. Haren edukia nahitaez bete behar da. Zuzenbide Zibileko arauak, oro har, xedagarriak dira, eta aplikagarri izango dira alderdiek besterik hitzartu ezean. Beste eremu batzuetan ere badira arau inperatiboak, hala nola kontsumo zuzenbidean, etxebizitza errentamenduetan eta abar. ♦ *Nart. Zuz. Pu. Ik. aginduzko arau.*

**arau juridiko** [*norma jurídica*] ♦ *Zuz. T., Konst. Zuz. 1.* Sistema juridiko bati dagokion erregela, betiere, barnekotasun-irizpide jakinen

araberakoa. **Sin.** *zuzenbidezko erregela. 2.* Esakune edo xedapen juridiko baten esanahia.

**arau justu** [*norma justa*] ♦ *Zuz. T.* Justiziazko printzipio jakinen edota printzipio moral jakinen araberakoa den erregela.

**arau konbentzional** [*norma convencional*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Nazioarteko tratatua iturri duen araua.

**arau konsuetudinario** [*norma consuetudinaria*] ♦ *Nart. Zuz. Pu. Ik. ohiturazko arau.*

**arau-lerrun** [*rango normativo*] ♦ *Zuz. T.* Hierarkikoki ordenaturiko arau-sistema baten barruan arau edo testu juridiko bati dagokion maila, indar normatiboarekin lotzen dena.

**arau material berezi** [*norma material especial*] ♦ *Nart. Zuz. Pr.* Nazioarteko egoera pribatuei erantzun juridiko zuzen, berehalako eta sustantiboa ematen dien araua. Honelako arauak ez diote igorpenik egiten beste estatuetako inolako legeri.

**arau mesedegarrienaren printzipio** [*principio de norma más favorable*] ♦ *Lan Zuz.* Eduki kontrajarria duten arauak daudenean, langileentzat mesedegarriena dena aplikatu behar dela dioen printzipioa. **Oh.** LE, 3.3 art. **Sin.** *arau hoberenaren printzipio.*

**arau orokor** [*norma general*] ♦ *Zuz. T.* Subjektuaren irizpidearen arabera, subjektu mota zehaztugabeei zuzenduriko erregela. Egokieraren irizpidearen arabera, berriz, egokiera zehatzik aurreikusten ez duena.

**arau positibo** [*norma positiva*] ♦ *Zuz. T. 1.* Gizakiak sorturiko araua. **2.** Herrialde bateko agintari eskudunak, indarraren erabilerean monopolioa duenak, emandako araua.

**arau preskribatzaile** [*norma prescriptiva*] ♦ *Zuz. T.* Portaera jakinak derrigorrezkotzat, debekatutzat edo baimendutakotzat jotzen dituen erregela. **Sin.** *preskripzio.*

**arau tekniko** [*norma técnica*] ♦ *Zuz. T.* Helburu jakina erdiesteko beharrezkoak diren bitartekoak zehazten dituen erregela.

**arauaren eraginkortasun** [*eficacia normativa*] ♦ *Lan Zuz.* Hitzarmen kolektiboak bere aplikazio betebeharren eremuko langile eta enpresaburuengan duen betebeharren eraginkortasun. **Oh.** LE, 82.3 art.

**araubide** [*normativa, reglamentación*] ♦ *Zuz. T., Konst. Zuz.* Giza jardunbide jakinak arautzen edo xedatzen dituen arau-multzoa. **Sin.** *araudi, arautegi.*

**araubide berezi** [*régimen especial*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren araubide orokorraz gain, ekarpeneko mailan dagoen edozein araubide. **Oh.** GSLO, 10. art.

**araubide orokor** [*régimen general*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren ekarpeneko mailan dagoen araubidea, araubide bereziak dituzten itsas langileei eta meatzariei izan ezik, besteren konturako langile guztiei dagokiena.

**araudi** [*normativa*] ♦ *Admin. Zuz., Konst. Zuz., Zuz. Zib.* Jarduera edo gai zehatz bat xedatzen duen arauen eta printzipioen multzoa.

**arauemaile** [*normador*] ♦ *Konst. Zuz. Ik.* *arauemaile.*

**arauen bateraezintasun** [*antinomia*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *arau-bateraezintasun.*

**arauen hierarkia-sistema** [*jerarquía normativa*] ♦ *Admin. Zuz. Ik.* *arau-hierarkia.*

**araugile** [*regulador*] ♦ *Konst. Zuz., Zuz. T.* Arauak ekoizten dituen subjektu edo organoa. **Sin.** *arauemaile.*

**araugintza** [*desarrollo normativo, elaboración de normas*] ♦ *Zuz. T.* Arauak sortzean datzan ekintza edo jarduna.

**araugintza-ekimen** [*iniciativa legislativa*] ♦ *EB. Zuz. Ik.* *legegintza-ekimen.*

**arauketa** [*regulación*] ♦ *Zuz. Zib.* Egitatezko egoera bat bideratzeko onartu den arau multzoa.

**arautegi** [*reglamento*] ♦ *Zuz. Zib.* Lege bat garatzeko onartzen den beheragoko mailako erregulazioa. ♦ *Konst. Zuz. Ik.* *erregelamendu.*

**arautu** [*reglamentar, regular*] ♦ *Zuz. T., Konst. Zuz.* Egoera edo giza portaera bat arau jakinen menpean jarri.

**arauturiko ahal** [*potestad reglada*] ♦ *Admin. Zuz.* Arauek administrazio organoen alde aurreikusten dituzten ahalak, arau bidez zehazturik eta baldintzaturik daudenak. Honela, administrazio-organoez ez dute aukerarik izango beren irizpide propioak erabiltzeko ahal horiek baliatzean. Aitzitik, automatikoki egikarituriko dira.

**arauturiko elementu** [*elemento reglado*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazioaren erabaki bat osatzen duten elementuen artean, arauak aurretiaz deskribatu eta zehaztutakoak. Eskuarki prozedura, helburua eta eskuduntza izaten dira elementu arautuak. Elementu horiei dagokienez, administrazioak ez du irizpide propiorik aplikatzeko aukera. **Oh.** 29/1998 Legea, 2. art. **Sin.** *araututako elementu.*

**araututako elementu** [*elemento reglado*] ♦ *Admin. Zuz. Ik.* *arauturiko elementu.*

**arauzko** [*normativo, reglamentario*] ♦ *Zuz. T.* Arau jakinekin bat datorren portaera edo egoera.

**arazo intzidental** [*cuestión incidental*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuaren objektuarekin lotura zuzena duen auzia; baita prozesuan eragina duten aurespostuekin eta betekizunekin lotura duena ere.

**arazo prejudizial** [*cuestión prejudicial*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuaren objektu nagusiarekin lotura zuzena duen auzigaia, prozesuarekin hasi aurretik erabaki beharrekoa eta organo

aztertzailleaz besteko jurisdikzio-ordena bati dagokiona. **Sin.** *prozesu aurreko arazo*. ♦ **EB.** *Zuz.* Intzidentzia prozesala, zeinaren bidez estatutu kide baten jurisdikzio organo batek Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari EBren zuzenbidearen baliozkotasunari edo interpretazioari buruzko galdera luzatzen baitio, beharrezkotzat jotzen badu maila nazionalean ezagutzen ari den auzia ebatzi ahal izateko. **Oh.** EBFT, 267. art. **Sin.** *epaiketa aurreko arazo*.

**arbitraje** [*arbitraje*] ♦ *Zuz. Proz., Admin. Zuz., Nart. Zuz. Pu., Zuz. Zib.* Xedapenezko eskubideen gaineko gatazkak konpontzeko jurisdikzioz besteko sistema. Alderdiek arbitraje hitzarmenaren bitartez gatazkaren ebazpena hirugarren baten esku uzten dute (arbitroa) eta hark emandako ebazpenak (laudoak) betearazpen-tituluaren indarra du.

**arbitraje-auzitegi** [*tribunal arbitral*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Aldeek hautatutako kideek osatzen duten nazioarteko gatazken konponketarako jurisdikzio-organoa, nazioarteko zuzenbidean oinarrituta edo *ex aequo et bono*, behin betiko eta bete beharreko erabakiak —laudoak— ematen dituena.

**arbitraje-batzorde** [*junta arbitral*] ♦ *Fin. Zuz.* Estatuko zergen Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo, bestela, foru-aldundien eta edozein autonomia-erkidegotako Administrazioaren artean sortzen diren tributuei eta zergei buruzko gatazkak eztabaidatu eta ebazten dituen organoa. Ekonomia Itunak zehazten ditu haren eginkizunak (adibidez, zergadunaren egoitza dela-eta gerta litezkeen desadostasunak ebaztea).

**arbitraje-hitzarmen** [*convenio arbitral*] ♦ *Zuz. Zib.* Erlazio juridiko konkretu batean dauden edo etorkizunean gerta daitezkeen eztabaida edo auziak, arbitraje sistema bidez erabakitzeko alderdiek harturiko akordioa. **Oh.** 60/2003 Legea, 9. art. **Ik.** *arbitraje*.

**arbitrariotasun** [*arbitrariedad*] ♦ *Zuz. T.* Bidezkoa edo justua ez den ekintza.

**arbitro** [*árbitro*] ♦ *Zuz. Proz., Zuz. Err., Zuz. Zib.* Arbitraje-sisteman erabakia hartuko duen pertsona bakarreko edo anitzeko organoa. **Oh.** 60/2003 Legea, 12. art. eta hurr. **Ik.** *arbitraje*.

**areto** [*sala*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** sala.

**ariel** [*arbitrio*] ♦ *Fin. Zuz.* Gastu publikoak asetzeko galdatzen den zerga eta eskubidea.

**aringarri** [*atenuante*] ♦ *Zig. Zuz.* Zigorerantzukizuna biguntzeko inguruabarra, zigorraren zehaztapen mesedegarriagoa eragiteko balio dezakeena. Aringarriak dira, besteak beste, salbuesle ez-osoak, droga edo alkoholaren mendekotasuna, aitortzea, kaltea konpontzea, prozedura bidegabe atzeratu izana eta antzekoak. **Oh.** ZK, 21. art. **Sin.** *inguruabar aringarri*.

**arlotu publiko** [*sector público*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** *sektore publiko*.

**arma-berdintasun** [*igualdad de armas*] ♦ *Zuz. Proz.* Konstituzioak aintzatetsitako legearen aurreko berdintasun-printzipio orokorren isla, prozesuan aplikatzen dena. Printzipio honek galarazten du prozesuan alderdi batek pribilegioa izatea beste alderdien kalterako. **Sin.** *armen berdintasun*.

**armen berdintasun** [*igualdad de armas*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *arma-berdintasun*.

**arrantzarako zonalde eskusibo** [*zona exclusiva de pesca*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Lurraldeko itsasoaz haratago dagoen eta, praktikaren arabera, zabalera uniformeak ez duen itsas eremua. Ereku horretan kostaldeko estatuak eskubide subirañoak egikaritzen ditu baliabide naturalak kontserbatu nahiz ustiatzeko, harrapaketak beretzat soilik erreserbatuz edo hirugarrenen arrantza bere baimenaren mende ezarrit.

**arrazionalista** [*racionalista*] ♦ *Zuz. T.* Arrazionalismoaren jarraitzailea edo arrazionalismoari dagokiona.

**arrazionaltasun** [*racionalidad*] ♦ *Zuz. T.*  
**1.** Printzipio arrazionalen arabera jokatzeko ahalbidetzen duen giza gaitasuna. **2.** Helburu jakinak erdiesteko bitarteko egokiak aukeratzeko datzan ahalmena.

**arrazoi** [*causa*] ♦ *Zuz. T.* Zerbaiten arrazoi edo jatorria. **Sin.** *kari*.

**arrazoi ekonomiko** [*causa económica*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaren egoera ekonomiko negatiboari dagokion arrazoia, lan-baldintzak aldatzea edo lan-kontratuak iraungitzea justika dezakeena. **Oh.** LE, 51.1 art.

**arrazoi objektiboengatikoa kaleratze** [*despido por causas objetivas*] ♦ *Lan Zuz.* Langilearen jarrerarekin zerikusirik ez duen arrazoi objektiboetan oinarrituriko kaleratzea. **Oh.** LE, 52. art.

**arrazoi tekniko** [*causa técnica*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaren ekoizpen-baliabideei dagokien arrazoia, lan-baldintzak aldatzea edo lan-kontratuak iraungitzea justika dezakeena. **Oh.** LE, 51.1 art.

**arrazoiak eman** [*argumentar, razonar*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *arrazoitu*.

**arrazoibide** [*razonamiento*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *arrazoiketa*.

**arrazoiketa** [*razonamiento*] ♦ *Zuz. T.* Arrazoiak ematean datzan ekintza eta horren ondorioa. **Sin.** *arrazoibide, arrazonamendu*.

**arrazoitu** [*argumentar, razonar*] ♦ *Zuz. T.*  
**1.** Zerbaiten arrazoiak eman. **Sin.** *arrazoiak eman*. **2.** Ideiak arrazoimena erabiliz elkarrekin lotu, dela ondorio jakinetara heltzeko edota dela judizio bat frogatzeko.

**arrazoitze** [*motivación*] ♦ *Zuz. T.* Ebazpen jakin bat oinarritzen duten arrazoien adierazpe-

na. Ordenamendu juridikoak hainbat ebazpen edo egintza juridiko motibatzea eskatzen du, hala nola ebazpen judizialak eta Europar Batasuneko egintza juridikoak. **Oh.** 6/1985 Lege Organikoa, 247. art. eta 248. art.; Europar Batasuneko Funtzionamendu Hitzarmena, 296. art. **Sin.** *motibazio* ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio-egintza funtsatzen duten egitateen eta zuzenbideko oinarrien adierazpena. Administrazioak bere jardunean izan behar duen gardentasunak eta administrazio onaren eskubideak administrazio-egintza motibatzea eskatzen dute. Horrez gain, administrazio-erabakien kontrola ere errazten du. 39/2015 Legearen 35. artikulua zehazten du zein administrazio-egintzetan den nahitaezko arazoitzea. **Oh.** 39/2015 Legea, 35. art. **Sin.** *motibazio Ik. administrazio-egintza*.

**arrazoizko balio** [*valor razonable*] ♦ *Merkat. Zuz.* Akzioei edo partizipazio sozialei dagokien zenbatekoa balioesteko irizpide bat, honako kasuetan aplikagarri dena: *inter vivos* egintzen bidez borondatezko eskualdaketetan, *mortis causa* eskualdaketetan, sozietateak partizipazio sozial berekien besterentzean, lehen-tasuneko harpidetza-eskubidea kentzean, sozietatea uztean eta sozietatetik kanporatzean. **Oh.** KSL, 110.2 art.

**arrazoizko egokitzapen** [*ajuste razonable*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Kultura anitzeko eremuetan, gutxiengoaren diskriminazioa saihestu eta haien eskubideak bene-benetan bermatzeko aplikatzen den teknika, arazoizkotzat jotzen dena, betiere, sortarazten duen karga gehiegizkoa ez bada.

**arrazonamendu** [*razonamiento*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *arrazoiketa*.

**arrisku estremo** [*peligro extremo*] ♦ *Nart. Zuz. Pu. Ik.* *muturreko arrisku*.

**arrisku sozial** [*riesgo social*] ♦ *Lan Zuz. Ik.* *gizarte-arrisku*.

**arriskuen ebaluazio** [*evaluación de riesgos*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuak enpresaren jardunak sortzen dituen arriskuak aztertzeke duen betebeharra.

**arriskugarritasun** [*peligrosidad*] ♦ *Lan Zuz.* Lanaren ezaugarria, soldata osagarriko esku-bidea eragin dezakeena.

**artekaritza-lan** [*mediación*] ♦ *Nart. Zuz. Pu. Ik.* bitartekaritza.

**artikulu** [*artículo*] ♦ *Konst. Zuz.* Lege bat zati-tua dagoen atal edo puntu zenbakidunetako bakoitza.

**artxibatu** [*archivar*] ♦ *Zuz. Proz.* Auzia amaitzat jo. **Sin.** *largetsi.*

**artxibatze** [*archivo*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *largespen.*

**artxipelago** [*archipiélago*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Elkarrekin estuki harremanetan egotearen ondorioz, berezko entitate geografiko, ekonomiko eta politikotzat jotzen den edo, baldintza horiek bete gabe, historikoki horrela kontsideratu izan den irla taldea, barne hartzen dituen, halaber, irlen zatiak, horiek lotzen dituzten urak eta bertan dauden bestelako elementu naturalak. **Oh.** IZNBK, 46.b) art.

**artxipelagoko ur** [*aguas archipelágicas*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Nazioarteko zuzenbidearen arabera, artxipelagotik urrutien dauden irla eta uharren artean marraztutako oinarri-lerro artxipelagiko multzo batek itxitako urak, nora zabaltzen baita estatu artxipelagiko horren subiranotasuna. **Oh.** IZNBK, 47. eta 49.1 art.

**asaldatze** [*rebelión*] ♦ *Zig. Zuz.* Indarkeriaz eta jendeaurrean altxatzea, betiere helburu jakin baten bila. Helburuok dira: Konstituzioa indargabetea; errege, erregeorde edo erregeordetzakideak karguetatik kentzea; hauteskundeak eragozte; legebiltzarrak desegitea; nazio-lurralde zati baten independentzia aldarrikatzea; eta gobernu bera ordezte. **Oh.** ZK, 472. art. eta hurr.

**aseguratu** [*asegurada, asegurado*] ♦ *Zuz. Zib.* Aseguru-kontratu jakin batean, babesaren objektu den interesaren titularra den pertsona fisikoa edo juridikoa. Aseguruak babesten duen pertsona. **Ik.** *aseguru, aseguratzaile, asegurua-aren hartzaile.*

**aseguratzaile** [*aseguradora, asegurador*] ♦ *Zuz. Zib.* Aseguru kontratu jakin batean babesaren objektu den arriskuaren ondorioak bere gain hartzen dituen pertsona juridikoa. **Ik.** *aseguru, aseguratu, asegurua-aren hartzaile.*

**aseguru** [*seguro*] ♦ *Zuz. Zib.* Kontratu bat, zeinaren bidez aseguratzaileak prima bat ko-bratzen dion aseguratuari eta ordainean, es-talduraren objektu den arriskuzko gertakaria gauzatuz gero, indemnizatzeke obligazioa bere gain hartzen duen, itundutako muga batzuen barnean. Ordainketa hau izan daiteke kapital bat, errenta bat edota bestelako prestazioren bat. **Oh.** 50/1980 Legea, 1. art.

**aseguru kolektibo** [*seguro colectivo*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresako langileen arriskuak babes-teko gizarte segurantzaren osagarri gisa egiten den aseguru.

**aseguru-kontratu** [*contrato de seguro*] ♦ *Merkat. Zuz.* Kontratu mota bat, zeinaren bi-dez aseguratzaileak konpromisoa hartzen bai-tu aseguratuari kalte-ordain bat ordaintzeko edo kapital bat, errenta bat edo prestazio bat emateko, hitzartutakoaren arabera, baldin eta aseguratuari kontratuan zehaztutako ezbeharra gertatzen bazaio. **Oh.** AKL, 1. art.

**aseguru-sistema pribatu** [*sistema de seguro privado*] ♦ *Lan Zuz.* Langileen arriskuak ba-besteko egiten den izaera pribatuko aseguru-sistema.

**aseguru-sistema publiko** [*sistema de seguro público*] ♦ *Lan Zuz.* Langileen arriskuak ba-besteko egiten den izaera publikoko aseguru-sistema.

**asegurua hartzaile** [*tomadora, tomador*]

◆ *Zuz. Zib.* Aseguru kontratua hitzartu eta sinatzen duen pertsona, bertan ezartzen zaizkion betebeharrak onartuz, oinarritzkoena primaren ordainketa izanik. **Ik.** *aseguru, aseguruatu, aseguratzaile.*

**asetze estraprozesal** [*satisfacción extraprocesal*]

◆ *Zuz. Proz.* **Ik.** *prozesuz kanpoko asetze.*

**asilo** [*asilo*]

◆ *Nart. Zuz. Pu.* Zenbait gizabanakori, atzerritar zein apatrida, estatuak eskaini diezaieken babes, betiere, baldin eta haien jatorrizko estatuen aldetik jazarpena jasan badute, dela arrazoi ideologikoengatik, dela arrazoi politikoengatik. **Oh.** 12/2009 Legea, 2. art. ◆ *Zig. Zuz.* Delitu batengatik prozesatua izan aurretik pertsona batek izan dezakeen babes-estatusa; beste herrialde batek eman dezake estatus hori pertsona bat bere herrialdean erlijioagatik, ideologiagatik, arrazagatik edo antzeko arrazoiengatik pertsegitua izaten denean.

**asilo diplomatiko** [*asilo diplomático*]

◆ *Nart. Zuz. Pu.* Zenbait gizabanakori, atzerritar zein apatrida, estatuak atzerrian dituen bere misio diplomatikoen lokaletan eskaini diezaieken babes, betiere, baldin eta haien jatorrizko estatuen aldetik jazarpena jasan badute, dela arrazoi ideologikoengatik, dela arrazoi politikoengatik.

**asimilazio** [*asimilación*]

◆ *Kontz. Ask. Zuz.* Herritarren integrazioari begira, gutxiengoei ezartzen zaien eskakizuna, gehiengoaren kultura-zeinuetara berdindu daitezen, berezko dituztenak baztertuta.

**askapen-mugimendu nazional** [*movimiento de liberación nacional*]

◆ *Nart. Zuz. Pu.* Meneratze kolonial edo atzerritarraren pean dagoen herri baten adierazpen antolatua. Nazioarteko zuzenbideak nazioarteko subjektibotasun mugatua eta behin-behinekoa aitortzen die, bereziki nazioarteko erakundeetan

mugatutako estatutu baten bitartez (normalean begirale moduan) parte hartuz eta nazioarteko zuzenbide humanitarioko arauak beraiei aplikatuz. **Oh.** GHP1, 1.4. art. **Sin.** *askapenerako mugimendu nazional.*

**askapenerako mugimendu nazional** [*movimiento de liberación nacional*]

◆ *Nart. Zuz. Pu.* **Ik.** *askapen-mugimendu nazional.*

**askatasun** [*libertad*]

◆ *Kontz. Zuz.* Autonomia edo autodeterminazio-gaitasuna. ◆ *Zuz. T.* **1.** Zuzenbideak, Konstituzioak batik bat, alor jakinetan gizabanakoari bere borondatearen arabera jokatzeko aitortzen dion gaitasuna edo ahala. **2.** Besteen menpe ez dagoenaren egoera.

**askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparru** [*espacio de seguridad, libertad y justicia*]

◆ *EB. Zuz.* EBk bertako herritarrei eskaini nahi dien barne-mugarik gabeko eremua, non pertsonen zirkulazio askea bermatuta egongo baita eta kanpo-mugen kontrolerako, asilorako, immigrazioarako eta delinkuentziaren kontrako borrokarako neurri egokiak hartuko baitira. **Oh.** EBT, 3.2. art.; EBFT, 67. art.

**askatasun-gabetu** [*presa, preso*]

◆ *Zuz. Proz.* **Ik.** *preso.*

**askatasun-gabetze zigor** [*pena privativa de libertad*]

◆ *Zig. Zuz.* Mugitzeko askatasunaz gabetzean datzan zigorra. Horren iraupena, salbuespenak salbuespen, hiru hilabetetik hogeitun urte artekoa izan daiteke, egindako delituen larritasunaren arabera. Lau motatakoak izan daitezke: presoaldi iraunkor berriusgarria, presoaldia, lokalizazio iraunkorra eta isuna ez ordaintzeagatik sorturiko erantzukizun pertsonal subsidiarioa. **Oh.** ZK, 36. art. **Sin.** *presoaldi.*

**askatasun sindikal** [*libertad sindical*]

◆ *Lan Zuz.* Sindikatuak sortzeko, sindikatueta afiliatzeko, eta jarduera sindikala aurrera eramateko eskubiak. **Oh.** EK, 28.1; ASLO, 1-3. art.



**asteburuko egonaldi** [*permanencia de fin de semana*] ♦ *Zig. Zuz.* Asteburuetan bakarrik mugitzeko askatasunaz gabetzean datzan zigorra. Zigor Zuzenbide konparatuan zigor gisa erabiltzen bada ere, Espainiako Zigor Kodean egun ez da zigor gisa aurreikusten.

**asteko atsedenaldi** [*descanso semanal*] ♦ *Lan Zuz.* Langileak astero duen atsedenaldirako eskubidea. **Oh.** LE, 37.1 art.

**astungarri** [*agravante*] ♦ *Zig. Zuz.* Delitugilearen zigor erantzukizuna astuntzen duen inguruabarra. **Oh.** ZK, 22. art. **Sin.** *inguruabar astungarri.*

**atal sindikal** [*sección sindical*] ♦ *Lan Zuz.* Sindikatu berean afiliatuak dauden langileek beren enpresan sortzen duten organo sindikala. **Oh.** ASLO, 8. art.

**atariko fase** [*fase preliminar*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* atariko prozedura.

**atariko prozedura** [*procedimiento preliminar*] ♦ *Zuz. Proz.* Deklarazio zigor-prozesuko hasierako fasea, egitateen inguruabarrak eta delitugileak ikertzea helburu duena. Ahozko epaiketa prestatzeko fasea da eta ikerketa-eginbideek eta prozesua modu egokian aurrera eramanez ahal izateko jarduerak osatuta dago. Legeak atariko prozedurari «sumario» deritzo delitu larriengatik zigor-prozesu arruntean, «aurretiazko eginbideak» prozesu laburtuan eta «premiazko eginbideak» epaiketa azkarretan. **Oh.** PKL, 299. art. **Ik.** *aurretiazko eginbideak, sumario.* **Sin.** *atariko fase.*

**atentatu** [*atentado*] ♦ *Zig. Zuz.* Ordena publikoaren aurkako delitua, agintariaren, agintaritzaren agenteen edo funtzionario publikoen aurka indarra erabiliz burutzen dena, beren karguetako funtzioetan ari direnean. **Oh.** ZK, 550. art.

**atestatu** [*atestado*] ♦ *Zuz. Proz.* Polizia judizialaren agenteek burututako ikerketa-eginbideak

eta haien emaitzak jasotzen dituen dokumentua. **Oh.** PKL, 292. eta 297. art. **Sin.** *atestatu polizia, polizia-atestatu.*

**atestatu polizia** [*atestado policial*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* atestatu.

**atribuzio-irizpideak** [*criterios de atribución*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *eskumena egozteko irizpideak.*

**atxikimendu** [*vinculación*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Obligazio batekiko lotura. **Sin.** *lotura.* **2.** Ondasun batzuei ezarritako karga, sortzaileak zehaztutako helburu edo familia bati lotua.

**atxikipen** [*retención*] ♦ *Fin. Zuz.* Errenten gaineko zergetan, etekinak ordaintzen dituztenei atxiki beharreko zenbatekoa. Kontura egiten den atxikipen hau etekinen ordaintzailearen betebeharra da (etekin horien zati bat atxiki, aitorpena egin eta Ogasunean sartu).

**atxikipen-kontratu** [*contrato de adhesión*] ♦ *Lan Zuz.* Langileari negoziatzeko aukerarik ematen ez dion kontratua, zeinaren arabera, langilea enpesaburuak eskaintzen dionari atxiki ezean, ez baitago kontraturik. ♦ *Merkat. Zuz.* Kontratu mota bat, alderdi bakar batek aurrez prestatutakoa, beste alderdiarentzat ezarrazitakoa eta banan-banan negoziatu gabekoa. Eskuarki, kontratu berdin askotan ezarritako klausulak izaten ditu. **Oh.** KBOL, 1. art.

**atxikitzaile** [*retenedor*] ♦ *Fin. Zuz.* Atxikipenak egitera behartua dagoen subjektua edo erakundea.

**atxikitze** [*adhesión*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Izaera solemnea duen adostasun-adierazpen prozedura, tratatu baten arabera obligatu egiten duena. Prozedura hau erabiltzen da tratatuaren negoziazioan parte hartu ez denean, edo parte hartu arren, aurretik hura sinatu ez denean. **Oh.** TZVH, 15. art., 25/2014 Legea, 2.ñ) art. **Sin.** *adhesio.*

**atxikitze-eskubide** [*derecho de afección*] ♦ *Fin. Zuz. Ik.* *ondasunen atxikipen.*

**atxikitze-instrumentu** [*instrumento de adhesión*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Nazioarteko subjektu bategi tratatu bati adhesionaren bitartez atxikita gertatzeko borondate-adierazpenaren testua jasotzen duen dokumentua. **Sin.** *adhesio-instrumentu*.

**atxikitze-kontratu** [*contrato de adhesión*] ♦ *Zuz. Zib.* Alderdi batek soilik alde zuzenetik eta berak nahi bezala eginiko kontratua, masan edo orokorki erabiltzeko xedearrekin. Kontratu mota hauetan beste aldeak duen aukera bakarra, berau onartzea edo ez onartzea da, negoziaketarako aukerarik izan gabe.

**atxikitze-tratatu** [*tratado de adhesión*] ♦ *EB. Zuz.* Nazioarteko tratatua da zeinean jasotzen baita EBko estatu kideen eta hirugarren estatu baten edo gehiagoren arteko atxikitzea gauzatzeko moduari dagokion akordioa.

**atxiloketa** [*detención*] ♦ *Zuz. Proz.* Legeak zehaztutako eta oinarritutako zioengatik pertsona bat zirkulazio-askatasunaz une batez gabetzea. **Oh.** EK, 17. eta PKL, 489. art.

**atxiloketa-agindu** [*orden de detención*] ♦ *Zuz. Proz.* Pertsona bat atxilotzeko jurisdikzio-organoak hartutako erabakia. **Sin.** *atxilotze-agindu*.

**atxilotze-agindu** [*orden de detención*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *atxiloketa-agindu*.

**atzera egin** [*desistir*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesu bateko demandatzaileak, berak martxan jarri duen epaiketa bertan behera utzi.

**atzera-egite 1** [*desistimiento*] ♦ *Admin. Zuz.* Interesdunaren edo Administrazioaren borondatezko adierazpena, prozedura bertan behera uztekoa. Administrazioak ofizios hasitako prozeduretan arrazoiturik dauden eta legeetan aurreikusitako kasuetan egin dezake atzera. Interesdunek ere egin ahal dute atzera, eta administrazioak bere horretan onartuko du eskaera. Horrekin amaitutzat emango du prozedura, baldin eta ez badago hirugarren interesdunik,

prozedura jarraitzeko eskatzen duena. **Oh.** 39/2015 Legea, 93. eta 94. art. ♦ *Zuz. Proz.* Prozesu bateko demandatzaileak, berak martxan jarri duen epaiketa bertan behera uzteko egiten duen adierazpena.

**atzera-egite 2** [*retirada*] ♦ *EB. Zuz.* Estatu kide batek EB uzteko hartzen duen erabakia, EBk eta estatu kideak adosturiko akordio bategi gauzatzeko dena. Akordiorik ezean, EB uzteko asmoa Europako Kontseiluari jakinarazi, eta handik bi urtera gauzatu da. **Oh.** EBT, 50. art. **Sin.** *erretira*.

**atzera-eskuratze** [*retracto*] ♦ *Zuz. Zib.* Pertsona bati ondasun baten jabe bihurtzeko lehentasuna ematen dion eskubidea. Ondasunaren jabeak hirugarren bati eskualdatzen badio ondasun hori, atzera-saltze eskubidearen titularrak kontuan hartu gabe, honek badu ahalmena hirugarrenarekin egindako eskualdaketaen aurka egiteko. Bi modutara eskura daiteke ahalmena: kontratu bidez edo legeak hala ezarrita.

**atzera-itzultze** [*retrocesión*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Estatu batek aurreko bere titularrari lurralde bat itzultzeko ekintza, azken honek aurretik lagatu izan zuen kasuetan. Konkistatutako edo okupatutako lurralde baten kasuan, berriz, berintegrazio-ekintza.

**atzera-itzultzearen bidezko deskolonizazio** [*descolonización mediante retrocesión*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Lurralde bat bere jatorrizko titularrari itzuliz egikaritzen den deskolonizazio prozesua. Hong Kong dugu horren adibide.

**atzerabidezko akzio** [*acción de repetición, acción de regreso*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazioaren erantzukizunarekin zerikusia duten gaien kasuan, erakundearen agintari zein langileei erantzukizuna eskatzeko aurreikusten den akzioa, behin kalteak ordaindu ondoren ofizios egiten dena, baldin eta dolo, erru edo zabarkeria astuna egon bada beren jardunean. **Oh.** 40/2015 Legea, 36. art.

**atzerabidezko kanbio-akzio** [*acción cambiaria en vía de regreso*] ♦ *Merkat. Zuz.* Legeak kanbio-letraren hartzekodunari eskaintzen dion kanbio-akzioetako bat. Akzio honen bidez, hartzekodunak letraren betebehardunei (igorleei, endosatzaileei eta gainerako betebehardunei) bide judiziala erabiliz eskatuko die letra zenbatekoaren ordainketa. **Oh.** KLTL, 49. 1 art.

**atzaeragin** [*retroactividad*] ♦ *Zuz. Zib.* Arau batek iraganen sortutako egoeretan duen eragina. ♦ *Admin. Zuz.* Arau batek jasotako erregulazioa edo administrazio-egintza baten edukia iraganeko egoera bati edo egitate bati aplikatzen zaionean sortzen den egoera. **Oh.** 39/2015 Legea, 39. eta 47.2. art.

**atzaeragin ez** [*irretroactividad*] ♦ *Admin. Zuz.* Printzipio juridikoa, zeinaren arabera, arauak ez baitute indarrik, berauek argitaratu aurreko egitatei dagozkenez, kontrako xedapen espresik ez den bitartean. **Oh.** 40/2015 Legea, 26. art.

**atzaeraginezko ondore** [*efecto retroactivo*] ♦ *Zuz. T.* Arau edo egintza juridiko batek berau sortu baino lehenago izan diren egitate edo ekintzen gain duen ondorioa.

**atzerasaltze** [*retroventa*] ♦ *Zuz. Zib.* Saltzaileak saldutako gauza eroslearengandik berreskuratzeko eskubidea, erosleari honek ordaindutako prezioa itzuliz. **Ik.** *salerosketa*.

**atzerasaltze-itun** [*pacto de retroventa*] ♦ *Zuz. Zib.* Saltzaileari, saldu den gauza berriro eskuratzeko eskubidea aitortzen dion alderdien arteko akordioa, egindako salerosketa suntsiarazten duena. Saltzaileak, salneurria itzuli eta salerosketa-gastuak eta saldutako gauzetan egindako gastuak bueltatu behar ditu besteak beste. **Oh.** KZ, 1507. art.

**atzerri-ekintza** [*acción exterior*] ♦ *EB. Zuz.* **1.** Atzerri -eta segurtasun-politika erkidea eta EBFTaren 5. atalean arautzen diren EBren kanpo-harremanak barne hartzen dituen ekin-

tza-eremua. **Oh.** EBT, 21. art. **Sin.** *EBren atzerri-ekintza, kanpo-ekintza*. **2.** EBren kanpo-harremanak barne hartzen dituen EBren ekin-tza-eremua, nagusiki, arlo huez arduratzen dena: merkataritza politika erkidea, hirugarren herrialdeekiko lankidetzeta eta laguntza humanitarioa, neurri mugatzaileak, nazioarteko akordioak, nazioarteko erakundeekin eta hirugarren herrialdeekin izandako harremanak eta, azkenik, elkartasun-klausula. **Oh.** EBFT, 205-222. art.

**atzerri- eta segurtasun-politika erkide ASPE** [*política exterior y de seguridad común, PESC*] ♦ *EB. Zuz.* EBren atzerri-ekintzaren eremu bat da, bere baitan hartzen dituen atzerri-politikaren eremu guztiak eta segurtasunari buruzko gai guztiak, defentsa-politika erkidearen definizio progresiboa barne. **Oh.** EBT, 24. art. **Ik.** *segurtasun- eta defentsa-politika erkide*.

**atzeritar ebazpenen aintzatespen** [*reconocimiento resoluciones extranjerías*] ♦ *Nart. Zuz. Pr.* Atzerriko epaileek zein autoritateek emandako ebazpenek. Espainiako ordenamenduan ondorio juridikoak sor ditzaten bete behar dituzten baldintzen eta prozeduren multzoa.

**atzeritartasun** [*extranjería*] ♦ *Konst. Zuz.* Atzeritarren baldintzak, ekintzak eta interesak arautzen dituen sistema edo arau multzoa.

**auctoritas** [*auctoritas*] ♦ *Zuz. Err.* Bere iritziak betearazteko indar fisikorik ez izan arren, zenbait pertsona eta erakunderi bizpahiru gairen inguruan aburu adituak emateko onartzen zaien ahalmen morala.

**auditoretza** [*auditoría*] ♦ *Merkat. Zuz.* **Ik.** *auditoria*.

**auditoria** [*auditoría*] ♦ *Merkat. Zuz.* Enpresa edo sozietate (baltzu) baten urteko kontuak ikuskatzeko prozesua. Honen bitartez, kontu-ikuskariak egiaztatuko du ea enpresa edo sozietate horren urteko kontuak bat datozen

enpresaren ondare, emaitza eta egoera finantzarioarekin (irudi leiala). **Oh.** KSL, 263.1 art. **Sin.** *auditoretza*.

**aukera-printzipio** [*principio de oportunidad*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. abagune-printzipio*.

**aukerako foro** [*foro alternativo, concurrente*] ♦ *Nart. Zuz. Pr.* Egoera honetan, bateko epaitegiak eskudun izan daitezke auzia ezagutzeko, baina baita, aldi berean, beste estatu bateko auzitegiak ere, baldin eta alderdiek hala erabaki badute (esanbidez ala isilbidez) edota delako auzia irizpide honetan oinarrituta badago.

**aukeramen** [*albedrío, arbitrio*] ♦ *Zuz. T.* Aukeratzeko ahalmena; hautabide jakin bat ontzat emateko gaitasuna. **Sin.** *erabakimen*.

**aurka egite** [*resistencia*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. erresistentzia*.

**aurkaratu** [*impugnar*] ♦ *Zuz. Proz.* Ebazpen judizialen aurka egin, errekurtoa aurkeztuz edo erabakia berrikus dezakeen bidea erabiliz.

**aurre hiltze** [*premorienzia*] ♦ *Zuz. Zib.* Elkar oinordetzeraz deitutakoen artean lehenago nor hil den zehazten duen legezko terminoa.

**aurrebabes** [*prevención*] ♦ *Lan Zuz.* Laneko arriskuen aurrean, arriskuak istripu bihurtu baino lehen babestea.

**aurreikusitako balantze** [*balance previsional*] ♦ *Fin. Zuz.* Aurretiazko balantzea, dago-kion erakunde edo entitateak ekonomia-ekitaldiaren azken egunean izango duen ondare eta diru-egoeraren aurreikuspena jasotzen duena.

**aurreikusitako finantzaketa-taula** [*cuadro de financiamiento previsional*] ♦ *Fin. Zuz.* Aurretiazko finantzen taula, zer baliabide eskuratzeko asmoa dagoen, nondik eskuratuko diren eta zertan erabiliko diren —higiezinan edo mugikorrean— zehazten duena. Helburua ekonomia-ekitaldian zehar erakunde edo entitate bakoitzaren ondarearen edo finantzen

egoeran zer-nolako aldaketak izan daitezkeen ezagutzea da. **Sin.** *finantzen aurretiazko taula*.

**aurreikusitako galera-irabazien kontu** [*cuenta previsional de pérdidas y ganancias*] ♦ *Fin. Zuz.* Finantzen aurretiazko egoera-orrietan, kasuan kasuko erakundeak ekitaldian zehar egingo edo lortuko dituen gastu nahiz diru-sarrera guztien aurreikuspenak eta kontabilitate-emaizta zenbatetsia jasotzen dituen kontua.

**aurreikuspen gabezia klausula** [*cláusula de imprevisión*] ♦ *EB. Zuz. Ik. inprebisio-klausula*.

**aurreikuspen-sistema** [*sistema de previsión*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte-arriskuei aurre egiteko tresna multzoa.

**aurrejuzgatu** [*prejuzgar*] ♦ *Zuz. Proz.* Auzi nagusiak edo beste akzio baten egikaritzak aurrera egitea eragozten duen eztabaidagaia ebatzi.

**aurrekari 1** [*antecedente*] ♦ *Zig. Zuz.* Delitu jakin bat egin aurretik egin eta kondena jaso duen bestelako delitu bat edo batzuk daudenean gertatzen den egoera. Zigor arloan delitu bat egin izanak astungarri bat osatzen du baldintza jakin batzuk gertatuz gero. Denbora-epe bat pasatu ondoren aurrekaria ezeztatzen da. **Oh.** ZK, 22.8 art. **Ik.** *aurrekariak ezeztatze, berrerortze*.

**aurrekari 2** [*precedente*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Efektu juridikoak dituen nazioarteko zuzenbideko subjektu baten portaera nabaria, egoera bera gertatzen den bakoitzean errepikatzen dena, eta ohiturazko arauen sorreran laguntzen duena. ♦ *Zuz. T. Ik. aurrekasu*.

**aurrekasu** [*precedente*] ♦ *Zuz. T.* Epaila edo auzitegi baten erabakia, kasu jakin batean agertutako zuzenbidezko arazo bati buruz arrazoitu ondoren hartutakoa, haren ondoren gertatzen diren antzeko kasuetan loteslea dena auzialdi

judizial horrentzat eta maila berean zein azpiko mailan daudenentzat. **Sin.** *aurrekari*.

**aurreko ahaide** [*ascendiente*] ♦ *Zuz. Zib.* Goranzko belaun-lerroko ahaidea (gurasoak, aitona-amonak...). **Ik.** *ahaide*.

**aurreko entzunaldi** [*audiencia preliminar*] ♦ *Zuz. Proz.* Zinpeko epaimahaiaren aurrean ahozko epaiketa irekitzea komenigarria den erabakitzeke burutzen den jarduera prozesala.

**aurreko erreklamazio administratibo** [*reclamación administrativa previa*] ♦ *Admin. Zuz.* Jurisdikzio zibilerako jo aurretiko erreklamazioa da, administrazioaren aurrean jartzen dena. Partikular batek administrazioaren aurka jurisdikzio zibilean akzioa jarri nahi duenean, aldeztatik, derrigorrez, erreklamazio bat egin behar du administrazioaren aurrean. Betebehar hori ez da ezartzen 39/2015 Legean. **Oh.** 39/2015 Legea, Azken Xedapenetatik Hirugarrena.

**aurreko tratu** [*tratos preliminares*] ♦ *Zuz. Zib.* Kontratu bat egin baino lehenago suerta daitekeen egintza, alderdiek beren arteko eskaintza-erabakiak eta azken horien baldintzak finkatzeko erabilia. Aurre egintza hau fede onaren printzipioak gidatu beharra dauka.

**aurrekontu** [*presupuesto*] ♦ *Konst. Zuz.* Estatuaren eta erakunde publikoen baliabideen eta gastuen gehieneko zenbatekoa zehazten duen ekintza; gehienetan urtearekin bat etortzen da.

**aurrekontu-defizit** [*deficit presupuestario*] ♦ *Fin. Zuz.* Estatuak zein bestelako lurralde-administrazioek epe zehatz batean (aurrekontu-ekitaldi batean, arruntena) burututako gastuek sarrera ez-finantzarioak gaintzen dituztenean gertatzen den egoera. **Sin.** *zerga-defizit*.

**aurrekontu-ekitaldi** [*ejercicio presupuestario*] ♦ *Fin. Zuz.* Denbora-epe bat, zeinerako erakunde publiko baten aurrekontua osatzen

duten sarrera eta gastuen aurreikuspena eta baimentzea jasotzen baita.

**aurrekontu-emaitza** [*resultado presupuestario*] ♦ *Fin. Zuz.* Aurrekontuaren likidazioaren parte izanik, aurrekontu-ekitaldi batean likidatutako aurrekontu-eskubideen eta aurrekontu-obligazio garbi guztien arteko diferentzia.

**aurrekontu-eragiketa** [*operación presupuestaria*] ♦ *Fin. Zuz.* Gastuen zein sarreren esparruan aurrekontu batean ekitaldi bakoitzerako jasotako eragiketa. Zuzenbideko printzipioei lotuta egoten dira: urterokotasuna, bateratasuna, oreka, unibertsaltasuna, gardentasuna, kudeaketa ona.

**aurrekontu orokor** [*presupuesto general*] ♦ *Fin. Zuz.* Ekitaldi ekonomiko eta aurrekontu-ekitaldi bakoitzean egin beharreko jarduna zuzentzen duten erabaki guztien multzoa, finantza- eta kontabilitate-terminoetan dokumentu bidez islatuta dagoena. Era berean, aurrekontuak, ente publikoaren baliabideen administrazio zuzenaren kontrolerako tresna izanik, finantza-orekaren, unibertsaltasunaren, afektazio ezaren eta osotasunaren printzipioekin bat etorrita egiten dira. Estatuaren zein autonomia-erkidegoen kasuan, Aurrekontu Orokorrek urtean urtekoak izango dira, legez, eta erakundeko sektore publikoaren sarrera eta gastu guztiak bilduko dituzte, baita erakundearen tributuei dagozkien onura fiskalak ere. Aurrekontu Orokorren Legearen bidez onartzen dira, urtez urte.

**aurrekontu-superabit** [*superavit presupuestario*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga-defizitarekin kontrajarrita, aurrekontu zehatz batean (arruntena, urte batekoan) administrazio publikoen diru-sarrerak gastuak baino handiagoak direnean gertatzen den egoera.

**aurrekontu-zuzkidura** [*dotación presupuestaria*] ♦ *Fin. Zuz.* Aurrekontuen esparruan, aurrekontua osatzen duten kontzeptuetako ba-

koitzari —horretan gastatzeko— esleitzen zaion diru kopurua.

**aurrekontua betearazteko oinarriak** [*bases de ejecución presupuestaria*] ♦ *Fin. Zuz.* Dagokion erakunde publikoaren aurrekontu bakoitzaren esparruan, aurrekontua antolatu eta egokitzeko eratu den testuinguru juridiko araugilea sortzen duten irizpideak. **Sin.** *aurrekontua exekutatzeko oinarri.*

**aurrekontua exekutatzeko oinarri** [*bases de ejecución presupuestaria*] ♦ *Fin. Zuz.* **Ik.** *aurrekontua betearazteko oinarri.*

**aurrekontuz kanpoko eragiketa** [*operación extrapresupuestaria*] ♦ *Fin. Zuz.* Erakunde publiko batek egiten duen izaera ekonomikoko eragiketa berezia, aurrekontuarekiko osagarri eta lagungarria edo harekiko independentea dena.

**aurrelegatu** [*prelegado*] ♦ *Zuz. Zib.* Jaraunse denaren alde egiten den legatua. **Ik.** *legatu.*

**aurreneurritzko enbargo** [*embargo preventivo*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *enbargo prebentibo.*

**aurrerakin laboral** [*anticipo laboral*] ♦ *Lan Zuz.* Lan elkartuko kooperatibetan, langile-bazkideak bere lanaren truke jasotzen duen eskurapena.

**auresupostu prozesal** [*presupuesto procesal*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesua baliozkoa izateko, horri ekin baino lehen, beharrezkoa den baldintza (eskumena edo gaitasuna, kasurako). Baldintza horiek bete ezean, jardundakoa deuseza izango da. **Sin.** *presupostu prozesal.*

**aurretiaz erabaki beharreko artikulua** [*artículo de previo pronunciamiento*] ♦ *Zuz. Proz.* Auziaren mamian sartu eta ahozko zigor-epaiketa hasi baino lehen aztertu behar den arazo prozesala. Prozedura Kriminalaren Legearen arabera, aurretiaz erabaki beharreko artikulua dira: jurisdikzio-deklinatoria, gauza epaitua, delituaren preskripzioa, amnistia edo

indultua eta prozesatzeko baimen administratibo falta. **Oh.** PKL, 666. art.

**aurretiazko arazo** [*cuestión previa*] ♦ *Nart. Zuz. Pr.* **1.** Gatazka-arauak eraentzen duen nazioarteko egoera pribatu bat konpondu baino lehen erabaki behar den arazo juridikoa, harekin lotura estua duena eta egoera nagusia baino lehen erabaki behar dena. **2.** Oinordetza-gatazketan, oinordekoak nortzuk diren zehaztu aurretik ebatzi beharreko auzia, hildakoaren ezkontzari edo jatorrizko seme-alabatasuna edota adopzioari ezargarri zaion legea zein den zehaztu beharra ezinbesteko denean.

**aurretiazko balorazio-erabaki** [*acuerdo previo de valoración*] ♦ *Fin. Zuz.* Tributu Administrazioak egiten duen balorazioa. Tributu bakoitzaren legeek edo erregelamenduek hala jasotzen dutenean, tributu-betebeharpekoek Tributu Administrazioari eska dieziokete ezar dezala, aldeztu aurretik eta modu loteslean, zerga-ondorioetarako, errentek, produktuek, ondasunek, gastuek eta tributu-zorraren gaine-rako osagaiek zer balorazio duten.

**aurretiazko bidezko defentsa** [*legítima defensa preventiva*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* **Ik.** *bidezko defentsa prebentibo.*

**aurretiazko eginbideak** [*diligencias previas*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozedura laburtuko instrukzio fasea. **Ik.** *atariko prozedura, instrukzio, sumario.*

**aurretiazko froga** [*prueba anticipada*] ♦ *Zuz. Proz.* **1.** Legeak zehaztutako fasean burutu ezin izateko arriskua egoteagatik, demanda jarri baino lehen edo hasitako prozedurako edozein unetan, frogabide bat segurtatzeko alderdiek eskatutako jarduera prozesala. **Oh.** PZL, 293-298. art. **2.** Zigor-prozesuan ahozko ikustaldiaren saioak hasi baino lehen burututako froga. **Oh.** PKL, 448. eta 657.3 art.

**aurretiazko komunikazio** [*comunicación*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** *komunikazio.*

**aurretziazko kontuak** [*cuestiones previas*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozedura laburtuko ahozko epaiketaren saioen hasieran alderdiek egin ditzaketan alegazioak —epaileak haietaz erantzun dezan—: jurisdikzio-organoaren eskumenaz, oinarritzko eskubideren baten urraketaz, aurretiaz erabaki beharreko artikuluen existentziaz, ahozko epaiketaren eskepin-zioez, jardueren deuseztapenez edo ekitaldian burutu beharreko frogez egoki deritzotena mahaigaineratzeko egiten dira alegazioak. **Oh.** PKL, 786.2. art.

**aurretziazko zorpekin** [*contraído previo*] ♦ *Fin. Zuz. Ik.* *aurretziazko zorpetu.*

**aurretziazko zorpetu** [*contraído previo*] ♦ *Fin. Zuz.* Kobratu baino lehen kontabilizatzen den zenbatekoa, zergadunak ordain dezan hari jakinarazi zaion zor likidatu bati dagokiona. **Sin.** *aurretziazko zorpekin.*

**aurrez osatutako froga** [*prueba preconstituida*] ♦ *Zuz. Proz.* Haren izaeragatik ahozko epaiketaren saioetan froga moduan errepikatu ezin den ikerketa-eginbidea, polizia-ikerketan edo epailearen instrukzioan burutua. Aurrez osatutako frogak kondena-epaia oinarritu ahal izateko, beharrezkoa da eginbidearen emaitza jasotzen duen dokumentua ahozko epaiketari irakurtzea eta kontrakotasuna bermatzea.

**aurrezaintza** [*prevención*] ♦ *Zig. Zuz.* Zigorrek duten helburu nagusia, teoria erlatiboek zigorri erantzen diotena. **Sin.** *prebentzio.*

**aurrezaintza berezi** [*prevención especial*] ♦ *Zig. Zuz.* Zigorrek duen helburua, pertsona jakin bati eragiten diona eta pertsona hori birgizarteratzera zuzentzen dena. **Sin.** *banakako aurrezaintza.*

**aurrezaintza orokor** [*prevención general*] ♦ *Zig. Zuz.* Zigorrek duen beste helburu bat, gizarte osoari zuzenduta dagoena, beldurrarazte, hertsapen psikologiko edo legezko mehatxu batekin parekatzen dena, zuzenbidearen errespeta bermatzeko beharrezkoa dena.

**aurrezkiaren likidazio-oinarri** [*base liquidable del ahorro*] ♦ *Fin. Zuz.* Aurrezpenaren oinarri likidagarria lortzeko, aurrezpenaren oinarri zergagarriari pentsio konpentsagarrietatik eta urteko mantenerako ordainketengatik nahiz baterako aitorenagatik egindako murrizpenaren gerakina kendu behar zaio, halakorik badago. **Sin.** *aurrezpenaren oinarri likidagarri.*

**aurrezpenaren errenta** [*renta del ahorro*] ♦ *Fin. Zuz.* Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan kontzeptu hauetaz osatutako errenta: kapital higigarrien etekinak (izaera orokorrean), eta gauza edo eskubideak eskualdatzeagatik izandako ondare-irabaziak edo -galerak.

**aurrezpenaren oinarri likidagarri** [*base liquidable del ahorro*] ♦ *Fin. Zuz. Ik.* *aurrezkiaren likidazio-oinarri.*

**auto** [*auto*] ♦ *Zuz. Proz.* Epaileak edo magistratuak emandako ebazpen judizial arrazoitua. Autoak egitura jakina du: era banatuan aurrezpenaren egitateak, oinarri juridikoak eta xedapenak. Haren bidez, probidentzien aurkako errekurtsoak, arazo intzidentalak, aurrezpenaren prozesalari eta prozeduraren deuseztasuna ebazten da, baita legeak aurreikusitako gainerrakoa kasuak ere.

**autobabes** [*autodefensa*] ♦ *Zuz. Proz., Zuz. T. Ik.* *autodefentsa.*

**autodefentsa** [*autodefensa*] ♦ *Zuz. Proz., Zuz. T.* Alderdiek, modu pertsonal eta zuzenean, prozesuan parte hartzeko eskubidea. **Sin.** *burubabes, autotutela, autobabes.*

**autodeterminazio-eskubide** [*derecho de autodeterminación*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Herriek beren izaera politikoa erabakitzeke eta beren garapen ekonomiko, sozial eta kulturala libreki bilatzeko duten eskubidea. **Oh.** BN 1514 (XV); BN 1541 (XV); BN 2625 (XXV); **Sin.** *determinazio askerako eskubide.*

**autoenplegu** [*autoempleo*] ♦ *Lan Zuz.* Langileek beren buruari enplegua ematea.

**autoenplegu indibidual** [*autoempleo individual*] ♦ *Lan Zuz.* Langile batek bere buruari, langile autonomo gisa enplegua ematea.

**autoenplegu kolektibo** [*autoempleo colectivo*] ♦ *Lan Zuz.* Langileek modu kolektiboan beren buruari enplegua ematea, lan elkartuko kooperatibak edo lan-sozietateak baliatuta.

**autoeraketa** [*autogestión*] ♦ *Lan Zuz.* Langileek berek kudeatzea lan egiten duten enpresa.  
**Sin.** *autogestio.*

**autogestio** [*autogestión*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *autoeraketa.*

**autogobernu** [*autogobierno*] ♦ *Konst. Zuz.*  
**1.** Erakunde baten zuzendaritza mota bat, jarduteko gaitasun osoa eta erabakiak askatasunez hartzeko askatasuna bereizgarri dituena.  
**2.** Autonomia duten eskualde zein lurraldeen administrazio-sistema.

**autokonposizio** [*autocomposición*] ♦ *Zuz. Proz.* Gatazkak konpontzeko bidea, indarraren erabileraren bidez konponbidea ezartzean datzana. Estatu ahuletan gailentzen den sistema irrazional eta guztiz arbitrarioa. Oro har, egungo antolamendu juridikoak ez du onartzen.

**autolikidazio** [*autoliquidación*] ♦ *Fin. Zuz.* Tributu-betebeharpekoak bere kabuz egiten duen aitortpena, hain zuzen ere, helburu hau duena: tributua likidatzeko beharrezkoak diren datuak eta eduki informatiboko bestelakoak Tributu Administrazioari jakinaraztea eta, horrez gain, tributuzorren zenbatekoa edo, hala badagokio, itzuli edo konpentsatu behar den zenbatekoa zehaztu eta ordaintzeko beharrezko kalifikazio- eta zenbaketa-eragiketak egitea.

**autonomia** [*autonomía*] ♦ *Zuz. T.* Gizabana-koak alor jakin batean zein oro har bere kabuz aritzeko duen askatasun-maila. ♦ *Konst. Zuz.*  
**1.** Estatuaren barruan udalek, probintziek, es-

kualdeek eta beste erakunde batzuek duten gaitasuna, beren burua arauen bidez eta berezko gobernu-organoen bidez gidatzekoa. **2.** Espainian, autonomia erkidegoa.

**autonomia-erkidego** [*comunidad autónoma*] ♦ *Admin. Zuz.* Espainiako 1978ko Konstituzioak ezarritako ordenamenduaren barruan legeak egin eta betearazteko autonomia eta eskumenak dituen lurralde-erakunde. Espainiako Konstituzioaren 2. artikulua nazionalitateei eta eskualdeei autonomia politikoa aitortzen die, eta, horren ondorioz, Estatuaren antolakuntza autonomikoari ematen dio bide.

**autonomia-erkidegoaren estatutu** [*estatuto de comunidad autónoma*] ♦ *Konst. Zuz.* Espainiako autonomia erkidegoetako bakoitzaren zein hiri autonomoen oinarrizko erakunde-araua. **Oh.** EK, 147. art.

**autonomia indibidual** [*autonomía individual*] ♦ *Lan Zuz.* Langile eta enpresaburu indibidualek lana eta lanaren baldintzak kontratatzekeo duten boterea. **Sin.** *norbanakoaren autonomia.*

**autonomia kolektibo** [*autonomía colectiva*] ♦ *Lan Zuz.* Langileen ordezkariak eta enpresaburuek zein beren ordezkariak hitzarmen kolektiboak adosteko duten boterea.

**autonomia-printzipio** [*principio de autonomía*] ♦ *EB. Zuz.* EBko zuzenbidearen printzipioa. Printzipio honen arabera, Europar Batasunaren zuzenbideak ez du zertan bat egin estatu kideen barne-ordenamenduekin. Izan ere, ez dago konstituzio nazionaletan jasotako printzipioen, arau-ekoizpen moduen eta efektu juridikoen menpe. **Sin.** *Europar Batasuneko zuzenbidearen autonomia-printzipio.*

**autoritarismo** [*autoritarismo*] ♦ *Zuz. T.* Herri-agintariak botere absolutuak bilduz bere gisa eta oposizioarik gabe gobernatzeko modua.



**autoritate** [*autoridad*] ♦ *Zuz. T.* Aginduak emateko eta obeditua izateko ahalmen edo boterea.

**autorregulazio** [*autorregulación*] ♦ *Lan Zuz.* Langileen ordezkariak eta enpresaburuak edo bere ordezkariak beraien arteko harremanak arautzeko duten boterea.

**autotutela** [*autotutela*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio publikoek duten prerrogatiba, zeinaren arabera, eurek erabakitako egintzak berehala betearaztekoak izango baitira, legeak aurreikusitako kasuetan izan ezik. **Oh.** 39/2015 Legea, 98.1 art. ♦ *Zuz. Proz., Zuz. T. Ik. autodefentsa.*

**auzi-ihes** [*rebeldía*] ♦ *Zuz. Proz., Zuz. Err.* **1.** Prozesuan demandatuak epailearen adierazpen baten ondorioz duen izaera, betiere bertaratzeko deitua izan eta hasieratik ezer ez egiteagatik. **2.** Zigor-prozesuan, errekisitorian zehaztutako epe barruan auzipetua ez agertzeagatik ematen den deklarazioa.

**auzi-iheslari** [*rebelde*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuan, bertaratzeko deitua izan ondoren, hasieratik ezer egin ez duen demandatua. Epaileak ofizios eta berariak eratzikitzen dio izaera hau.

**auzi-jartzaile zibil** [*actor civil*] ♦ *Zuz. Proz.* Zigor-prozesuan uzi zibila besterik egikaritzen ez duen alderdia. **Sin.** *demandatzaile zibil.*

**auzialdi** [*instancia*] ♦ *Zuz. Proz., Admin. Zuz.* Hasieratik bukaerara, osotasunean, ezagututako prozedura judiziala. Gatazka epaitzeko eskuduna den jurisdikzio-organoan burututako prozedura (lehen auzialdia) nahiz, apelazio-errekurtsoa aurkeztuz gero, goragoko organoan berrikusitako prozedura (bigarren auzialdia).

**auzialdi bakar** [*única instancia*] ♦ *Zuz. Proz., Lan Zuz.* Jurisdikzio-organoek aurkeztutako auzigaia eta horri lotutako frogak behin bakarrik aztertzeko aukera eskaintzen duen sistema, berrikuspenerako biderik aurreikusten ez duena.

**auzialdi bikoitz** [*doble instancia*] ♦ *Zuz. Proz.* Auzigaia birritan azterzea edo ebazpen judiziala berrikusteko aukera eskaintzen duen sistema; goragoko organoak egiten du berrikuspena.

**auzialdiko absolutio** [*absolución de instancia*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesu zibilean, akats formalak direla eta, epaileak gatazkaren mamian sartu gabe ematen duen erabakia.

**auzialdiko epaitegi** [*juzgado de instancia*] ♦ *Lan Zuz.* Auzialdi bakarreko epaitegia. Bere epaien aurka ezohiko errekursoak jar daitezke soilik, epaitegi hauetan ez baitago bigarren auzialdirik.

**auziaren funts** [*fondo del asunto*] ♦ *Zuz. Proz.* Jurisdikzio-organoak aztertu edo erabaki beharreko gatazkaren muina. **Sin.** *auziaren mami.*

**auziaren mami** [*fondo del asunto*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. auziaren funts.*

**auzibide** [*vía judicial*] ♦ *Konst. Zuz.* Zentzu zabalean, auzi edo eztabaida juridikoak konpontzeko bideetako bat, epaitegien bidez gauzatzen dena. Haren ordezeko bideetako bat arbitrajea da.

**auzibitarte** [*litispendencia*] ♦ *Zuz. Proz.* Jurisdikzio-organo baten ezagutzapean dagoen gatazka juridikoaren ondore prozesal nagusia. **Oh.** PZL, 410. art. **Sin.** *litispendentzia.*

**auzigai** [*motivo de pleito*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. auzi.*

**auzigaien banaketa** [*reparto de asuntos*] ♦ *Zuz. Proz.* Justizia auzitegi nagusietako gobernu-salak onartutako arauen arabera gradu eta ordena jurisdikzional bereko jurisdikzio-organoen artean auzigaiak banatzea. **Sin.** *negozioen banaketa.*

**auzijartzaile** [*demandante*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. alderdi demandatzaile.*

**auzikidetz**a [*litisconsorcio*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesu jakin batean, hasieratik uziarekiko alderdien aniztasuna —aktiboa, pasiboa edo mistoa— gauzatzen den egoera. Legitimaziotik eratorritako egoera prozesala. **Oh.** PZL, 12. art. **Sin.** *litiskonsortzio*. **Ik.** *alderdi-aniztasun*.

**auzikidetz**a aktibo [*litisconsorcio activo*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuaren posizio aktiboan alderdi bat baino gehiago eta hainbat interes egotea.

**auzikidetz**a pasibo [*litisconsorcio pasivo*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuaren posizio pasiboan alderdi bat baino gehiago eta hainbat interes egotea.

**auzilari** [*litigante*] ♦ *Zuz. Proz.* Epaiketa edo prozesu bateko alderdia. **Ik.** *alderdi*.

**auzipetu 1** [*encausada, encausado*] ♦ *Zuz. Proz.* Jurisdikzio-organoak instrukzioaren amaieran delituzko egitea modu formalean inputatzen dion pertsona.

**auzipetu 2** [*encausar*] ♦ *Zuz. Proz.* Pertsona zehatz bati edo batzuei jurisdikzio-organoak delituzko egiteak modu formalean egotzi.

**auzitegi** [*tribunal*] ♦ *Zuz. Proz.*, *Admin. Zuz.*, *Konst. Zuz.*, *Zuz. T.* Kide anitzeko jurisdikzio-organoa, hiru magistratuz edo gehiagoz osatua.

**auzitegi-mediku** [*médico forense*] ♦ *Zuz. T.* **Ik.** *auzitegiko mediku*.

**auzitegi-mugape** [*demarcación judicial*] ♦ *Zuz. Proz.* Jurisdikzio-organoen eskumenaren hedadura biltzen duen lurralde-eremua. Honako lurralde-eremu hauek dira auzitegi-mugapeak: Espainiako estatua, autonomia-erkidegoa, probintzia, barruti judiziala eta udalerria. **Sin.** *epai-mugape, mugape judizial*.

**auzitegiko mediku** [*médico forense*] ♦ *Zuz. T.* Epaitegi batera atxikitako sendagilea, aditu gisa jarduteko zenbait eskumen dituena. **Sin.** *auzitegi-mediku*.

**auzitegiko presidente** [*presidente del tribunal*] ♦ *Zuz. Proz.* Auzitegi Gorenean, Auzitegi Nazionalean, justizia auzitegi nagusietako eta probintzia-auzitegiatan dagoen gobernu-organoa. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak aukeratzen ditu presidenteak bost urteko epe-rako.

**auzolan** [*auzolan*] ♦ *Admin. Zuz.* Pertsonen oinarriko beharizanak garapen komunitarioaren bidez asetzea helburu duen egitasmoa. Komunitate bateko kideen arteko elkarlana; doan egiten den lana. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako toki askotan egiten da.

**auzotar** [*vecina, vecino*] ♦ *Admin. Zuz.* Ohiko bizilekua udalerrri batean izanik, bertako udal-errolan inskribatuta dagoen pertsona. **Oh.** 7/1985 Legea, 15. art. **Ik.** *udal-errola*.

**auzotasun** [*vecindad*] ♦ *Zuz. Zib.* Auzotar egoera edo izaera.

**auzotasun zibil** [*vecindad civil*] ♦ *Zuz. Zib. 1.* Espainiako naziokotasuna duen bati, Estatuko zein ordenamendu zibil aplikagarri zaion finkatzen duen pertsonaren egoera juridikoa. **2.** Nazioarteko zuzenbide pribatuan, Espainiako barne lege gatazkak argitzeko lehentasunezko konexio irizpidea. **Oh.** KZ, 14. art.

**axiologia** [*axiología*] ♦ *Zuz. T.* Baloreen edo balio-judizioen izaera aztergai duen diziplina filosofikoa.

**axioma** [*axioma*] ♦ *Zuz. T. 1.* Sistema normatiboari eta antzekoei dagozkien esakuneen dedukzio-sistema baten abiapuntuan ezartzen den printzipio edo hipotesia. **2.** Froga beharrik gabe egiazkotzat onartzen den printzipio nabari eta frogaezina.

**azalera-eskubide** [*superficie*] ♦ *Zuz. Zib.* Lursail baten gainean eraikitzeko zein landatzeko, edota berau mantentzeko ahalmena ematen duen gozamen-eskubide erreal mugatua. **Ik.** *jabetza*.

**azkeneko hitz** [*última palabra*] ♦ *Zuz. Proz.* Epairako epaiketa ikusitzat jo baino lehen, pertsona akusatuei hitza hartzeko aintzatetsitako eskubidea, nahi izanez gero, azkeneko adierazpena edo alegazioa egiteko.

**azkeneko txosten** [*informe final*] ♦ *Zuz. Proz.* Ahozko epaiketaren izapidea, alderdi akusatzaileek eta defentsek xehetasun hauek adierazteko erabilia: epaiketan frogatutzat ematen dituzten egitateak, beren legezko kalifikazioa, akusatuen parte-hartzea eta haien edo hirugarren pertsonen erantzukizun zibila.

**azkentze** [*extinción*] ♦ *Lan Zuz. Ik. amaiera*.

**azpieraikuntza** [*subedificación*] ♦ *Zuz. Zib.* Egiteke edota eraikia dagoen ondasun higiezin baten lur-azpian, bere titularrari, eraikitzeko ahalmena aitortzen dion gozamen-eskubide erreal mugatua. **Oh.** JHL, 12. art. **Ik.** *jabetza horizontal, gozamen-eskubide*.

**azpierrentamendu** [*subarriendo*] ♦ *Zuz. Zib.* Jabearen edota administratzailearen ordez, bigarren errentatzaile baten eskutik zerbait errentan jaso edo ematea. **Oh.** KZ, 1550. art. **Ik.** *errenta*.

**azpieskala** [*subescala*] ♦ *Admin. Zuz.* Estatu gaikuntzako funtzionarioen eskalen zatiketa. Eskala horrek azpieskala hauek ditu: idazkaritza, kontu-hartzailletza/diruzaintza eta idazkaritza/kontu-hartzailletza. **Oh.** 7/1985 Legea, 92. bis art.

**azpikontrata** [*subcontrata*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresa batek bere jarduera egin dezan beste enpresa batekin egiten duen kontratua. Kontraturiko enpresak bere langile propioekin egingo du jarduera. **Oh.** LE, 42. art.

**azpikontratazio** [*subcontratación*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresa batek bere jarduera egin dezan beste enpresa bat kontratatzea. Kontraturiko enpresak bere langile propioekin egingo du jarduera. **Oh.** LE, 42. art.

**azpikontratazio-kate** [*cadena de subcontratación*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresa batek, bere jarduera egin dezan beste enpresa bat kontratatzea, bigarren horrek hirugarren bat kontratatzea, eta jarrai dezakeen azpikontratazio horrek sortzen duen katea. Kontraturiko enpresa bakoitzak bere langile propioekin egingo du jarduera. **Oh.** LE, 42. art.

**azpikontratista** [*subcontratista*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresa batek bere jarduera egin dezan kontratatzen duen enpresa. Enpresa horrek jarduera bere langile propioekin egingo du. **Oh.** LE, 42. art.

**azpikontratu** [*subcontrato*] ♦ *Zuz. Zib.* Jatorrizko kontratu batean esleituriko betebeharrak bigarren bati besterentzea adosten duen kontratua. Jatorrizko kontratuan ezarritako prestazioa bitan edo gehiagotan banatzen da eta obligaziodun berriak sortzen dira.

**aztura** [*hábito*] ♦ *Zuz. T.* Indar loteslerik gabeko ohitura edo jardunbidea.

# B

---

**babes** [*acción protectora*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzako sistemak duen babes-esparrua. **Oh.** GSLO, 42. art. **Sin.** *babesgintza*.

**babes-, koordinazio- eta osagarritasun- eskumen** [*competencias de apoyo, coordinación y complemento*] ♦ *EB. Zuz. Ik.* *Laguntza-, koordinazio- eta osagarritasun-eskumen.*

**babes-agindu** [*orden de protección*] ♦ *Zuz. Proz.* Genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktima diren pertsonak babesteko helburuz, arrisku-egoera objektiboa dagoenean zigor-izaerako babes- eta segurtasun-neurriak eta neurri zibilak ezartzeko jurisdikzio-organismoak, auto bitartez, emandako ebazpena.

**babes-erakunde** [*institución de protección*] ♦ *Zuz. Zib.* Adingabeen eta ezgaituen pertsona eta ondarea babesteko Zuzenbideak arautzen duen erakundea. Hala nola, tutoretza, kuradoretza, defentsa judiziala edo zaintza.

**babes-errekurtso** [*recurso de amparo*] ♦ *Zuz. Proz.* Oinarritzko eskubideen babesean Konstituzio Auzitegian aurkeztutako errekurtsoa. **Sin.** *babes eskeko errekurtso*.

**babes-jardunaren hedadura** [*ámbito de la acción protectora*] ♦ *Lan Zuz. Ik.* *babes-jardunaren irismen.*

**babes-jardunaren hobekuntza** [*mejora de la acción protectora*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzako sistemak duen babes-esparrua hobetzen duen sistema.

**babes-jardunaren irismen** [*ámbito de la acción protectora*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzako sistemak duen babes esparrua; zein arrisku babesten dituen, noraino heltzen den. **Oh.** GSLO, 42. art. **Sin.** *babes-jardunaren hedadura*.

**babes betearazle** [*tutela ejecutiva*] ♦ *Zuz. Proz.* Estatuak, jurisdikzio-organoen bidez, epaien eta titulu exekutiboen egikaritzea erreala bermatzeko eskaini beharreko neurrien multzoa. **Sin.** *betearazpen-babes*.

**babes deklaratibo** [*tutela declarativa*] ♦ *Zuz. Proz.* Estatuak, jurisdikzio-organoen bidez, alderdiek aurkeztutako eskaerari erantzuteko asmoz epaiketa edo adierazpen bat bermatzeko eskaini beharreko neurrien multzoa. **Sin.** *adierazpen-babes*.

**babes diplomatiko** [*protección diplomática*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Estatu batek beste estatu baten kontra nazioarteko erantzukizuna galdartzeko duen akzioa, bigarren horrek egindako nazioarteko egintza ez-zilegi batek aurrekoa-

ren naziokotasuna duen pertsona fisiko zein juridikoa kaltetu duen kasuetan baliatzen dena.

**Oh.** BDP (2006), 1. art.

**babes eskeko errekurto** [*recurso de amparo*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *babes-errekurto*.

**babes humanitario** [*asistencia humanitaria*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* **Ik.** *laguntza humanitario*.

**babes judizial** [*tutela judicial*] ♦ *Zuz. Proz.* Berme guztiak dituen prozesu baten bidez norbanakoaren interes eta eskubideak babesteko beharra. **Sin.** *epai bidezko babes*.

**babes judizial eraginkorrerako eskubide** [*derecho a la tutela judicial efectiva*] ♦ *Zuz. Proz.* Espainiako Konstituzioaren 24. artikuluan aurreikusitako oinarritzko eskubidea. Haren arabera, pertsona orok jurisdikzio-organoen jarduna eragin dezake bere eskubideen zein interesen defentsan eta eskubidea du orobat berme guztiak dituen prozesu baten ondoren zuzenbidean oinarritutako ebazpen arrazoi-tua jasotzeko eta betearazteko. **Sin.** *benetako babes judizialerako eskubide, epai bidezko babes eraginkorrerako eskubide*.

**babesgabetasun 1** [*desamparo*] ♦ *Konst. Zuz.* Babesa behar duen norbait edo zerbait, *de facto*, legea hautsita edo legeetan ezarritako betebeharrak era egokian ez betetzeagatik sortzen den egoera. **Oh.** KZ, 172. art.

**babesgabetasun 2** [*indefensión*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *defentsa-gabezia*.

**babesgabezia** [*indefensión*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *defentsa-gabezia*.

**babesgintza** [*acción protectora*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *babes-jardun*.

**babesturiko egoera** [*situación protegida*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzako sistemak babesten duen beharrizan-egoera zehatza.

**babestutako gertagarri** [*contingencia protegida*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzako siste-

mak babesten duen gertagarri zehatza, betiere, beharrizan-egoera eragiten duena.

**badia historiko** [*bahía histórica*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Badia juridikotik bereiziz eta kostaldeko estatuko autoritatearen egikaritzza eraginkor nahiz jarraian oinarritutako eskubide historikoei jarraiki, berez dituen berezitasun geografikoak kontutan hartu gabe, lerro zuzen batez itxi daitekeen badia. Badia horren barruan geratzen diren urei barne-ur izaera ematen zaie. **Oh.** IZNBK, 10.6 art.

**badia juridiko** [*bahía jurídica*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Ondo zehaztutako kostaldeko irekiera, lurraldean barneratzen dena, bere ahoaren zabalera kontutan hartuz, halako moduan, ezen bere barnean kostaldeak inguratutako urak geratzen baitira eta kostaldearen inflexio soila baino zerbait gehiago den. Kostaldeko estatuak itsasbeheran marraz dezake itxiera-lerro zuzen bat sarbideko puntu naturalen artean, eta barne-ur gisa kalifikatu barruan geratzen diren urak, betiere, marrazturiko lerro zuzenen distantzia ez bada 24 itsas-milia baino luzeagoa eta barruan geratzen den ur azalera ez bada irekiera horren ahoaren diametroa duen semizirkuluarena bera edo handiagoa. **Oh.** IZNBK, 10. art.

**bahi** [*embargo*] ♦ *Zuz. Proz., Admin. Zuz., Zuz. Zib.* **Ik.** *embargo*.

**bahiketa** [*secuestro*] ♦ *Zig. Zuz.* Pertsona baten mugitzeko askatasunaren aurkako delitua, helburu ekonomiko bat edo bestelako eskakizun batzuk lortzeko burutzen dena. **Oh.** ZK, 164. art.

**bahikuntza** [*confiscación*] ♦ *Konst. Zuz.* Estatuak pertsona baten ondasunak hartzean dartzan zigorra. **Sin.** *konfiskatze*.

**bahitura 1** [*embargo*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *embargo*.

**bahitura 2** [*prenda*] ♦ *Zuz. Err.* Aurretik bi alderdiren artean hitzartutako obligazio bat bermatzeko zordunak hartzekodunari gauza

bat entregatzearekin sortutako kontratu erreal eta sinalagmatiko ez-perfektua. Horren arabera, aurreko obligazioa betetzen ez bada, gauza galduko du zordunak, hartzekodunaren alde.

Betetzen bada, berriz, gauza itzuli beharko du hartzekodunak. **Sin.** *pignus, pignus datum*. ♦ *Zuz. Zib. 1.* Zor zaiona ordaindu bitartean, hartzekodunak zordunaren gauza bat atxikitzeko duen ahalmena, zordunak zorra ordainduko duela bermatzeko helburuz. **2.** Bahitura-kontratuaren objektu den atxikitako gauza. ♦ *Merkat. Zuz.* Sozietate (baltzu) baten akzioen edo partizipazioen gaineko berme-eskubide erreala. Honen bidez akziodun edo bazkide zordunak akzioen edo partizipazioen edukitza hartzekodunari eskualdatuko dio, zorra beteko duela bermatzearen. Akzioen edo partizipazioen edukitza duen hartzekodunak (hartzekodun pignorazioak) erraztu beharko dio zorduna den akziodunari edo bazkideari, batzar nagusira joaten denean, dituen eskubideak gauzatzea. Oh. KSL, 132. art.

**baietsi** [*aceptar, estimar*] ♦ *Zuz. Proz., Zuz. T.* Auzitegi baten aurrean aurkeztutako eskaera edo uzia —nagusia edo interlokutorioetako bat, osorik edo partzialki— ebazpen baten bitartez onartu.

**baimen** [*autorización, permiso*] ♦ *Zuz. T. 1.* Zerbait egitea edo ez egitea zilegi dela erabakitzeke eskumena duenak norbaiti hartarako egindako aitortza. **2.** Debekurik eta betebeharririk eza.

**baimen ordaindu** [*permiso retribuido*] ♦ *Lan Zuz.* Zenbait arrazoi tarteko, lanera ez joateko ematen den baimena, zeinaren arabera, soldata osoa eskuratuko baitu langileak. **Oh.** LE, 37.3 art.

**baimendu** [*autorizar, permitir*] ♦ *Zuz. T.* Norbaiti zerbait egiteko baimena eman. **Sin.** *baimena eman*.

**baja-berrespen** [*confirmación de baja*] ♦ *Lan Zuz.* Bajan dagoen langilea aztertu ondo-

ren, osasun arrazoiak medio, langileak bajan jarrai dezala erabakitzea.

**baja-egoera** [*situación de baja*] ♦ *Lan Zuz.* Langilea, gaixotasunagatik edo istripuren bat dela medio, lanean ari ez denean dagokion Gizona Segurantzako egoera.

**baja mediko** [*baja médica*] ♦ *Lan Zuz.* Osasun ikuspegitik, medikuak langileari emandako baja.

**bake-akordio** [*acuerdo de paz*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Gerra amaitzeko, gerra-egileen liskarrei amaiera formala ematen dien akordioa.

**bake-betebehar** [*deber de paz*] ♦ *Lan Zuz.* Langileen ordezkariak greba-deialdia ez egiteko betebeharra.

**bake-epaile** [*jueza, juez de paz*] ♦ *Zuz. Proz.* Lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegirik ez dagoen udalerrietan, izaera jurisdikzionalako zenbait eginbehar betetzeko izendatutako pertsona. Izendapena justizia auzitegi nagusiko gobernu-salak egiten du, udaletxeko osoko bilkuraren proposamenez, eta 4 urteko iraupena du.

**bake-haustura** [*quebrantamiento de la paz*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Nazio Batuen Gutunaren 39. artikuluan jasotako kontzeptua. Horren arabera, Segurtasun Kontseiluak bake-haustura egiaztatzen badu, eskumena du nazioarteko bakeari eta segurtasunari eusteko edo bakea eta segurtasuna berrezartzeko beharrezkoak irizten dituen gomendio eta erabakiak hartzeko. **Oh.** NBG, 39. art. **Sin.** *bakearen haustura*.

**bake-klausula** [*cláusula de paz*] ♦ *Lan Zuz.* Hitzarmen kolektiboan, langileen ordezkariak greba-deialdia ez egiteko betebeharra jasotzen duen klausula.

**bake-konferentzia** [*conferencia de paz*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Gerra amaitzearen, gerra-egileek zein bestelako estatuek liskarrei amaiera emateko egiten duten nazioarteko bilkura.

**bakearen haustura** [*quebrantamiento de la paz*] ♦ *Nart. Zuz. Pu. Ik. bake-haustura.*

**bakearen mehatxu** [*amenaza para la paz*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Nazio Batuen Gutunaren 39. artikuluan jasotako kontzeptua. Horren arabera, Segurtasun Kontseiluak bakearen mehatxua egiaztatzen badu eskumena du nazioarteko bakeari eta segurtasunari eusteko edo bakea eta segurtasuna berrezartzeko beharrezkoak irizten dituen gomendio eta erabakiak hartzeko. **Oh.** NBG, 39. art.

**bakerako kultura** [*cultura por la paz*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Gizarte mailako elkarbizitzan biolentzia arbuia eta gatazkei aurre hartzea xede duten balio, jarrera, jarduera eta bizimoduak, helburu hori erdiesteko, parteen eta estatuaren arteko elkarriketa eta negoziazioa baliatzen dutenak elkar ulertzeko bide gisa.

**bakezko prozedura** [*procedimiento pacífico*] ♦ *Lan Zuz.* Lan-gatazka konpontzeko prozedura, zeinean alderdi batek ez baitu presionatuko bestea. Prozedura horiek adiskidetzeari, bitartekaritza eta arbitraje dira.

**balantze** [*balance*] ♦ *Merkat. Zuz.* Enpresaren egoera ekonomikoa adierazten duen dokumentua. Aktiboa (ondasun eta eskubideak), pasiboa (zorrak) eta ondare netoa (baliabide propioak) bereizten ditu. Ekitaldi ekonomiko bakoitzaren amaieran enpresak aurkeztu behar dituen urteko kontuak osatzen dituzten dokumentuen arteko bat da. **Oh.** MK, 35. art.

**baldintza-baliokidetasunaren teoria** [*teoría de la equivalencia de condiciones*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazioari erantzukizuna egotzi ahal izateko, haren jardueraren eta sorturiko kaltearen artean egon beharko lukeen kausalitate-loturari buruzko teoria. Kaltearen sorreran kausa bat baino gehiago egon badira, horietako bakoitzaren eraginaren arabera izango da kalte-ordaina.

**baldintza etenarazle** [*condición suspensiva*] ♦ *Zuz. Zib. Ik. baldintza etengarri*

**baldintza etengarri** [*condición suspensiva*] ♦ *Zuz. Err., Zuz. Zib., Merkat. Zuz.* Geroko gertaera, zeinaren betetze ezezagunaren menpe dagoen negozioren efektuen sorrera. **Oh.** KZ, 1113-1114. art. **Sin.** *baldintza etenarazle.*

**baldintza hoberenaren printzipio** [*principio de condición más beneficiosa*] ♦ *Lan Zuz.* Arauak aldatu arren, lan-kontratuaren bitartez langileak eskuratu dituen baldintzek bere horretan jarraituko dutela bermatzen duen printzipioa. **Sin.** *baldintza onuragarrienaren printzipio.*

**baldintza onuragarrienaren printzipio** [*principio de condición más beneficiosa*] ♦ *Lan Zuz. Ik.* *baldintza onuragarrienaren printzipio.*

**baldintza orokorrak** [*condiciones generales*] ♦ *Zuz. Zib., Merkat. Zuz.* Kontratu batean baino gehiagotan txertatzeko aurrez prestatutako klausulak, alderdietako batek kontratuan sartzen dituenak, edozein direla ere klausula horien egile materiala, kanpoko itxura, hedadura eta bestelako inguruabarrak.

**baldintza suntsiarazle** [*condición resolutoria*] ♦ *Zuz. Err., Zuz. Zib., Merkat. Zuz.* Geroko gertaera, zeinaren betetze ezezagunaren menpe dagoen negozioren efektuen suntsitzea. **Oh.** KZ, 1114. art.

**baldintzapeko askatasun** [*libertad condicional*] ♦ *Zig. Zuz.* Presoaldiaren azkeneko fasea, espetxean ez baizik eta aske eman daitekeena, betiere beste deliturik ez egiteko baldintzapean. Ez da automatikoki lortzen eta delituen arabera eraentza bigun edo gogorragoa dakar. **Oh.** ZK, 90. art. eta hurr. **Sin.** *laugarren gradu.* **Ik.** *eraentza ireki, hirugarren gradu.*

**baliabide propioen sistema** [*sistema de recursos propios*] ♦ *EB. Zuz.* EBren aurrekontuaren finantzaketa bermatzen duen sistema, zeinaren arabera, aurrekontua EBren eskumeneko jardueretatik eratorririko baliabide propioekin elikatzen baita. **Oh.** EBFT, 311. art.

**baliabideen nahikotasun-printzipio** [*principio de suficiencia de medios*] ♦ *EB. Zuz.* EBren eskumenen egikaritzea gidatzen duen printzipioa. Horren arabera, EBk bere helburuak lortzeko eta bere politikak aurrera eramateko bitarteko egokiak erabiliko ditu eta behar dituen baliabideak bereganatuko ditu. **Oh.** EBT, 3.6 art.; EBFT, 311. art. **Sin.** *bitartekoen nahikotasun-printzipio*.

**baliaezintasun handi** [*gran invalidez*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren esparruan, ezintasun iraunkorraren maila larriena. Maila hau aitortuko zaio langileari, baldin eta, galera anatomiko edo funtzionalengatik, beste pertsona bat behar badu bizitzaren funtsezko egintzetarako, alegia, jantzi, mugitu, jan, eta antzekoetarako. **Oh.** GSLO, 194. art.

**baliaezintasun handiko pentsio** [*pensión de gran invalidez*] ♦ *Lan Zuz.* Baliazintasun handia aitortua duen langileari dagokion bizi arteko prestazioa. **Oh.** GSLO, 196.4 art.

**balio** [*valor*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Gauzen erabilgarritasun-maila, edota beharrak zein ongizatea eta atsegina asetzeko gauzek duten gaitasuna. **2.** Objektu guztiei, fisiko zein abstraktuei, gaineratutako propietatea, haien garrantziaren maila adierazten duena. Haren erreferentzia erabilita askotariko ekintzen egokitasuna alde-ratu daiteke. ♦ *Zuz. T.* Gizartearen edo norbakoaren portaera eta arau-sistemak epaitzeko erabiltzen den irizpide intelektuala, giza lehen-tasun bat adierazten duena.

**balio-egiaztapen** [*comprobación de valores*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga Ogasunak ondasun edo zerbitzu baten balioa zehazteko egin dezakeen jarduera. **Sin.** *balio-egiaztatze*.

**balio-egiaztatze** [*comprobación de valores*] ♦ *Fin. Zuz.* **Ik.** *balio-egiaztapen*.

**balio-galera** [*depreciación*] ♦ *Fin. Zuz.* Ondasun baten aldizkako balioaren jaitsiera.

**balio-judizio** [*juicio de valor*] ♦ *Zuz. T.* Iritzi edo sinesmen batean oinarritutako balorazioa.

**balio frogagarri** [*valor probatorio*] ♦ *Zuz. Proz.* Errugabetasun-presuntzioa deuseztatze-ko ahalmena duen frogaren nolakotasuna.

**balio justu** [*justiprecio*] ♦ *Admin. Zuz.* Nahitaezko desjabetzen kasuan onuradunak desjabetuari ordaindu behar dion kalte-ordaina. **Oh.** Nahitaezko Desjabetze Legea, 24. art. eta hurr.

**balio nagusi** [*valor superior*] ♦ *Konst. Zuz.* Balio desberdinak alderatzean garrantzi gehiagokotzat jotzen den hori.

**balio zenbatetsi** [*valor estimado*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Desjabetze-prozeduran desjabetuak desjabeturiko objektuari buruz egiten duen balorazio ekonomikoa. **Oh.** Nahitaezko Desjabetze Legea, 29. art. **Sin.** *zenbatetsitako balio*. **2.** Sektore publikoko kontratuen arloan, kontratazio-organoaren aurreikuspenen arabera ordaindu behar den diru-kopuru osoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kontuan hartu gabe zenbatesten dena. **Oh.** 9/2017 Legea, 101. art.

**balioeste** [*valoración*] ♦ *Zuz. Zib.* Zerbaiten balioa zehaztea edo estimatzea.

**balioetsi** [*validar*] ♦ *Konst. Zuz.* Indarra edo irmotasuna eman, baliozkoa egin. **Sin.** *balioz-kotu*.

**baliogabe** [*inválido*] ♦ *Zuz. T.* Arauei zein egintzei aplikatuta, izate juridikorik gabekoa.

**baliogabetasun** [*invalidez*] ♦ *Zuz. Zib.* **Ik.** *baliogabezia*.

**baliogabetu** [*anular, invalidar*] ♦ *Zuz. T.* Juridikotzat jo den arau edo egintzak balioa galdu, baliogabe bihurtu.

**baliogabezia** [*invalidez*] ♦ *Zuz. Zib.* Kontratu bati dagozkion efektuak sorraraztea oztopatzen duen egoera. Kontratua eratzekeo irregularta-



sunean du bere oinarria, kontratua existitze-ko beharrezkoak diren funtsezko betekizunak falta direlako, edo, hala dagokionean, horiek akastunak direlako.

**baliokidetasun-errekargu** [*recargo de equi-valencia*] ♦ *Fin. Zuz.* BEZaren erregimen berezi bat. Eraldatu gabe merkatariek saltzen dituzten produktuei nahitaez aplikatu beharre-ko erregimena.

**baliokidetzatza** [*equivalencia*] ♦ *Zuz. Zib. 1.* Bi egoera ezberdini balio bera onartzea; obligazioak ez diruzkoak direnean eta bere horretan bete ezin direnean, prestazio edo obligazioaren baliokidea dirutan lortzen da obligazioa betetzat jo dadin. **2.** Zuzenbide konparatuaren alorrean, egoera juridiko zehatz bati onartzen zaion balioa, egoera juridiko ezberdin baina parekatu bati esleitzea.

**baliotasun** [*validez*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *baliokotasun.*

**baliozko** [*válida, válido*] ♦ *Zuz. T.* Baliozko-tasun-baldintzen arabera arau edo egintza, izate juridikoa duena.

**baliokotasun** [*validez*] ♦ *Zuz. Zib.* Legezko-tasunaren barruan gauzaturiko egintza juridiko baten izaera, ondorio juridikoak sortzeko gaitasuna aitortzen diona. **Ik.** *deuseztasun.* ♦ *Zuz. T.* Zuzenbidegintzari buruzko bigarren mailako arauen arabera existitzen den arau edo egintzaren nolakotasuna. **Sin.** *baliotasun.*

**baliokotasun-baldintza** [*condición de validez*] ♦ *Zuz. T.* Arau edo egintza bat baliozkoa edo, gauza bera dena, zuzenbidezkoa izan dadin nahitaez bete behar dena. **Sin.** *baliokotasunerako baldintza.*

**baliokotasun-presuntzio** [*presunción de validez*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio publikoek emandako egintzak, bere horretan, zuzenbidearen arabera eta bete beharrekoak direla xedatzen duen printzipioa. Horren arabera,

administrazio-egintzak baliozko izango dira, eta ondorioak izango, hain zuzen, ematen diren egunetik bertatik aurrera, besterik xedatu ezean.

**baliokotasunerako baldintza** [*condición de validez*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *baliokotasun-baldintza.*

**baliokotu** [*convalidar, validar*] ♦ *Konst. Zuz.* Zerbaiten balioa sendotu, berretsi; bereziki egintza juridikoei aplikatzen zaie. **Ik.** *balioetsi.*

**baliotapen-kontratu** [*contrato estimatorio*] ♦ *Merkat. Zuz.* Kontratu mota bat, zeinaren bidez alderdi batek (tradens deiturikoak) aurreikusitako balio bateko ondasun higigarriak ematen baitizkio beste bati (accipiens), honek epe finko batean sal ditzan. Epea iristean saldutako ondasunen aurreikusitako prezioa ordaindu eta saldu ez diren ondasunak itzuliko ditu accipiens honek.

**baliotatu** [*validar*] ♦ *Zuz. T. 1.* Zerbait baliozkatat jo. **2.** Zerbaiti balioa esleitu.

**balizko egoera** [*supuesto de hecho*] ♦ *Zuz. T.* Arau bat osatzen duten bi elementuetako bat, delako araua zer egoeratan edo zer kasutan aplikatuko den zehazten duena.

**balore-merkatu** [*mercado de valores*] ♦ *Merkat. Zuz.* Merkatu antolatua, zeinean entitate pribatu zein publikoek jaulkitako balore negoziagarriak (akzioak, obligazioak, obligazio bihurturak, bonoak, etab.), eta finantza-aktibo deribatua saldu eta erosten baitira. **Oh.** BML, 2. art.

**balore-titulu** [*título valor*] ♦ *Merkat. Zuz.* Balorea duen eskubide bat adierazten duen dokumentua. Dokumentu honek bere edukitzaile legitimoaren aldeko eskubide bat agertzen du; bere alde prestazioren bat egiteko obligazioa, alegia. Edukitzaile horrek obligatuari prestazioa egitea galdatu ahal izango dio dokumentuaren edukitza legitimoan oinarrituz. Besteak beste, honako hauek dira balore-tituluak: kan-

bio-letrak, txekeak, ordaindukoak, akzioak eta bonoak.

**balore-tituluen eskualdaketa** [*transmisión de títulos valores*] ♦ *Merkat. Zuz.* Balore-tituluak jabe baten eskuetatik beste jabe baten eskuetara pasatzea. Funtzio ekonomikoaren arabera balore-titulu zuzenak eta zirkulanteak bereizten dira. Balore-titulu zuzenen kasuan kredituen lagapenaren sistema jarraituz transmititzen dira eskubideak. Balore-titulu zirkulanteen kasuan, berriz, eskubidearen transmisioa dokumentuarenarekin egiten da: entregatzearekin (eramaileari) edo dokumentua entregatu eta endosua eginaz (aginduz), alegia.

**baltzu** [*sociedad*] ♦ *Merkat. Zuz.* Kontratu bidez sortzen den pertsona elkarte, zeina osatzeko kide bakoitzak ekarpen bat egingo baitu helburu zehatz eta komun bat lortzearren. Doktrina tradizionalaren arabera, helburu hori irabaziak lortu eta banatzea izango da. **Oh.** KZ, 1665. art. eta MK, 116. art. **Sin.** *sozietate*.

**baltzu anonimo** [*sociedad anónima*] ♦ *Merkat. Zuz.* Baltzu kapitalista zeinean bazkideen ekarpenek osatzen baitute baltzuaren kapitala. Baltzu anonimoa sortzeko 60.000 €ko kapitala osatu beharko da gutxienez. Kapital hori akzioetan banatuko da. Baltzu anonimoetan bazkideek ez dute baltzuaren zorrenatik erantzuten. **Oh.** KBL, 1.3 art. **Sin.** *sozietate anonimo*.

**baltzu kapitalista** [*sociedad capitalista*] ♦ *Merkat. Zuz.* Egitura korporatiboa duen baltzua zeinean bazkideek ez baitute baltzuaren zorrenatik erantzuten. Legeak hiru baltzu kapitalista arautzen ditu: anonimoa, erantzukizun mugatukoa eta akziozko baltzu komandataria. **Oh.** KBL, 1. art.

**baltzu kolektibo** [*sociedad colectiva*] ♦ *Merkat. Zuz.* Egitura pertsonalista duen baltzua; bazkidearen nortasuna da garrantzitsua tal-

dearentzat, ez hainbeste egiten duen ekarpena. Bazkide guztiek hartzen dute parte kudeaketan eta denek erantzuten dute mugarik gabe eta solidarioki baltzuaren zorrenatik, betiere, baltzuak berak ez badu ondare nahikorik (erantzukizun subsidiarioa). **Oh.** MK, 125-144. art.

**baltzu komanditario simple** [*sociedad comanditaria simple*] ♦ *Merkat. Zuz.* Egitura pertsonalista duen baltzua, bi bazkide mota dituena. Alde batetik, bazkide kolektibo bat izango du gutxienez. Bazkide hau kudeaketaz arduratuko da eta baltzuaren zorrenatik mugarik gabe erantzungo du. Bestetik, bazkide komanditario bat izango du. Bazkide komanditario ez da kudeaketan inplikatu eta egin beharreko ekarpenarekin soilik erantzungo du. **Oh.** MK, 145-150. art.

**baltzu publiko** [*sociedad pública*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazioaren menpe dagoen merkataritza-sozietatea. Publikotzat jotzeko, administrazioak edo sektore publiko-instituzionala osatzen duten entitateetako batek sozietate-kapitalaren % 50 izango du, gutxienez. **Oh.** 40/2015 Legea, 111. art. eta 1/1997 Legegintzako Dekretua, 19. art.

**baltzu talde** [*grupo de sociedades*] ♦ *Merkat. Zuz.* Zuzendaritza ekonomiko bakarra duten baltzu juridikoki independenteek osatzen duten taldea. Bi baltzu talde mota daude: bertikalak edo menpekotasunezkoak (baltzu menperatzaile bat eta baltzu menperatu bat edo gehiago daudenean) eta horizontalak edo koordinaziozkoak (akordioen fruitu, zuzendaritza bakarra dutenak). **Oh.** MK, 42. art. eta KBL, 260. art.

**baltzu unipertsonal** [*sociedad unipersonal*] ♦ *Merkat. Zuz.* Bazkide bakarra duen baltzua. Aukera hau onartzen da baltzu kontzeptuaren salbuespen bezala, betiere, enpresari pertsona fisikoaren erantzukizuna mugatze-ko formula gisa. Izaera hori argi geratu behar da baltzuaren deituran. Baltzu bat bazkide ba-

karreko bilakatzen bada behin eratu ondoren eta aldaketa hori ez bada inskribatzen, bazkide hori izango da baltzuaren zorren erantzule. **Oh.** KBL, 12-17. art.

**baltzu zibil** [*sociedad civil*] ♦ *Merkat. Zuz.* Izaera pertsonalista duen baltzua, jarduera ekonomiko zibilak (nekazaritza, abeltzaintza, artisautza, lanbide liberalak, etab.) ustiatzeko eratzen dena. Baltzu zibiletan bazkideek pertsonalki eta mugarik gabe erantzuten dute baltzuaren zorreatatik, baltzuarekiko subsidiarioi eta modu mankomunatuan beren artean. **Oh.** KZ, 1665-1708. art.

**baltzu-zuzenbide** [*derecho de sociedades*] ♦ *Merkat. Zuz.* Kontratu bidez helburu komunak lortzeko sortzen diren talde pribatuen egitura juridikoak jasotzen dituen zuzenbidea. Nahiz eta baltzu mota guztiek oinarri konstituzional bera izan (KE, 22. art.), baltzu mota desberdinak kode eta lege ezberdinen bidez arautzen dira. Hori horrela, dispersioa da espainiar baltzu zuzenbidearen ezaugarri bat.

**banakako aitortpen** [*declaración individual*] ♦ *Fin. Zuz.* Familia-unitate bateko kide bakoitzak pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga banaka aitortzea. **Sin.** *banakako tributazio.*

**banakako aurrezaintza** [*prevención especial*] ♦ *Zig. Zuz.* **Ik.** *aurrezaintza berezi.*

**banakako tributazio** [*tributación individual*] ♦ *Fin. Zuz.* **Ik.** *banakako aitortpen.*

**banaketa-kontratu** [*contrato de distribución*] ♦ *Merkat. Zuz.* Kontratu mota atipiko eta arautugabea: bi alderdi ditu, ekoizlea eta merkatu geografiko batean bere produktuak (edo zerbitzuak) salduko dituen banatzailea. Bi kontratukideak enpresari independenteak dira eta beraien arteko harremanak iraupen bokazioa dauka, ez da noizik behingo kolaborazioa. Normalean banatzaile desberdinekin sare bat osatuko du enpresari ekoizleak.

Salerosketa eskusiboa, banaketa selektiboa, emakida edo frankizia daude banaketa-kontratuen artean.

**banaketa-sistema** [*sistema de reparto*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren finantzatzeko sistema, zeinaren arabera, urteroko sarrerak urtero ordaindu beharreko prestazioak finantzatzeko erabiltzen baitira. **Oh.** GSLO, 110. art.

**banan-banako laneratze-ibilbide** [*itinerario de inserción personalizado*] ♦ *Lan Zuz.* Laneratzean laguntzeko, enplegu-zerbitzuak langabetuari bere behar pertsonalen arabera eskaintzen dion ibilbidea. **Oh.** EL, 29. art.

**banatze-eraentza** [*régimen de separación*] ♦ *Zuz. Zib.* Ezkontzaren ondasun-eraentza, zeinaren arabera ezkontide bakoitzak, ezkondu aurretik eta ondoren, dituen ondasunen jabetza zein kudeaketa izango duen. **Ik.** *ezkontza, ezkontza-kapitulazio, ezkontzaren ondasun-eraentza, foru-komunikazio, irabazpidezko erkidego, partaidetza-eraentza.*

**bando** [*bando*] ♦ *Admin. Zuz.* Alkateak salbuespen- edo larrialdi-egoeretan emandako xedapen orokorra. Betebeharrak gogoratzeko zein iragarkiak zabaltzeko erabil daiteke bandoa. Azken kasu horretan, bandoek ez dute balio arauemailea.

**banku-berme** [*garantía bancaria*] ♦ *Merkat. Zuz.* Kreditu-erakundeek bezeroek hirugarrenekin dituzten obligazioen betetzea ziurtatzeko ematen duten bermea. Diru-kopuru edo komisio baten truke ematen da. Zerbitzu honek fidantzaren izaera du. **Oh.** MK, 439-442. art. eta KZ, 1822-1856. art.

**banku-deskontu** [*descuento bancario*] ♦ *Merkat. Zuz.* Kontratu mota atipikoa, zeinaren bidez pertsona batek (bezeroak) kreditu-erakunde bati (deskontugileari) diruzko kreditu bat mugaeguna baino lehen transmititzen baitio («amaiera onik ezean») kreditu-erakundeak, trukean, dagokion diru kopurua aurreratzen dio

bezeroari, interes edo portzentaje bat kenduaz. Zordunak bere obligazioa ordaintzen ez badu, alderdiek aurrez emandakoa itzuli beharko diote elkarri.

**banku-kontratu** [*contrato bancario*] ♦ *Merkat. Zuz.* Kreditu-erakundeek bezeroekin egiten duten kontratua. Gehienak atipikoak dira. Gordailua eta mailegua soilik daude arautuak. Oro har, baldintza orokorren bitartez gauzatzen dira, eta atxikimenduzko eta iraupenezko kontratuak izaten dira. Hiru banku-kontratu mota daude: eragiketak edo kontratu aktiboak, kontratu pasiboak eta kontratu neutroak. **Oh.** MK, 303 eta 311. art.

**banku-liburu** [*libro de bancos*] ♦ *Fin. Zuz.* Banku eragiketak jasotzen dituen liburua.

**Banku Zentralen Europako Sistema BZES** [*Sistema Europeo de Bancos Centrales, SEBC*] ♦ *EB. Zuz.* Europako Banku Zentralak eta estatu kide guztietako banku zentral nazionalak osatzen duten egitura instituzionala, euroa moneta gisa hartu duten edo ez kontutan izan gabe. **Oh.** EBFT, 282. art.

**bankuko eragiketa aktibo** [*operación bancaria activa*] ♦ *Merkat. Zuz.* Finantzaketa kontratu mota, zeinaren bidez bankuak, hartze-kodun gisa, dirua ematen baitie bere bezeroei interes baten truke. Hauek dira bankuko eragiketa aktiboen adibideak: maileguak, deskontuak, kreditu-irekierak eta leasing- zein factoring-kontratuak.

**bankuko eragiketa neutro** [*operación bancaria neutra*] ♦ *Merkat. Zuz.* Eragiketa mota bat, zeinaren bidez bankuek zerbitzu jakinak ematen baitizkiete bezeroei komisio baten truke. Eragiketa hauetan ez da dirurik ematen edo jasotzen. Hauek dira bankuko eragiketa neutroen adibideak: errezibuen kobru-zerbitzuak, transferentziak, segurtasuneko kutzak alokatzea, baloreen merkatuari buruzko eragiketak eta dokumentuzko kredituak.

**bankuko eragiketa pasibo** [*operación bancaria pasiva*] ♦ *Merkat. Zuz.* Eragiketa finantzario mota bat, zeinaren bidez bankuak dirua jasotzen baitu bere inbertsio helburuetarako. Hori horrela, eragiketa pasibo baten ondorioz, bankua zordun bihurtuko da eta diru hori itzuli beharko du adostutako modu eta epean. Eragiketa pasibo ohikoena diru-gordailuak dira: diru-gordailu soilak, kontu korrante bati atxikitako gordailuak eta aurrezki-kontu bati atxikitako gordailuak. **Oh.** MK, 303-310. art.

**bankuko kontu korrante** [*cuenta corriente bancaria*] ♦ *Merkat. Zuz.* Kontratu bat, zeinaren arabera, bezeroak dirua sar baitezake bankuan, behar duenean erabiltzeko eskubidearekin. Hori horrela, bankuak kutxa-zerbitzu bat eskaintzen dio bezero horri, eta zerbitzu horren bidez bezeroak ordainketak (erreziboen ordainketak, transferentziak, txartelen karguak, etab.) zein kobrantzak (nominaren helbideratzeak, txeekeen kobrantza, etab.) egin ditzake.

**bankuko mailegu** [*préstamo bancario*] ♦ *Merkat. Zuz.* Bankuak bezeroari egiten dion mailegu mota bat. Mailegu mota hauen kasuan, eskuarki, bankuak diru-kopuru bat jartzen du bezeroaren esku kontu korrante baten bidez. Bezeroak jasotako kapitala itzuli, eta adostutako interesak ordaindu beharko ditu (interes nominala eta gehitzen zaizkion bestelako komisioak, dela mailegua irekitzeagatik, dela eragindako gastuengatik, eta, hala dagokionean, ordainketetan berandutzeagatik). Bankuko mailegu berezien artean hiru mailegu berezi daude: hipotekaduna, baloreekin bermatutakoa edo sindikaturikoa. **Oh.** MK, 311. art.

**barkamen** [*perdón*] ♦ *Zig. Zuz.* Erantzukizun kriminala azkentzeko arrazoiatariko bat. Bakarrik izango da onargarria delitu arinak direnean, edo legeak horrela ezartzen duenean. Barkamenak berariaz emana izan beharko du epaiak aditzera eman baino lehen. Adingabeen edo babes berezia behar duten desgaituen aur-

kako delituetan barkamena eraginkortasun bariarik utz daiteke. **Oh.** ZK, 130.4 art.

**barne araubideko erregelamendu** [*reglamento de régimen interior*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuak sortutako araubidea, enpresaren barne-arauak ezartzen dituen.

**barne-autodeterminazio** [*autodeterminación interna*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Estatu batek, eskubideen berdintasun eta herrien determinazio askearen printzipioaren arabera, arraza, sinisimen edo koloreगतिको inolako bereizketarik egin gabe bere baitan dagoen herriaren osotasuna ordezkatuko duen gobernu bat ez duen kasuetan, herri horrek bere izaera politikoa eta bere garapen ekonomiko, sozial eta kulturala erabakitzeko duen eskubidea. Egoera honek, nazioarteko zuzenbidearen arabera, ez luke independentzia lortzeko aukera emango; bai, ordea, estatu horren barne nolabaiteko autonomia aitortua izateko eskubidea. **Sin.** *barruranzko autodeterminazio.*

**barne-autonomia** [*autonomía interna*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Erljio-konfesioei beren antolaketa, barne-erregimena eta berezko duten pertsonalaren erregimena ezartzeko aitortzen zaien ahala. **Oh.** 7/1980 LO, 6. art.

**barne-demokrazia** [*democracia interna*] ♦ *Lan Zuz.* Sindikatuek eta enpresaburu-elkar-teek, barne-egitura eta funtzionamendu demokratikoak eduki beharra aldarrikatzen duen printzipioa. **Oh.** EK, 7. art.

**barne-merkatu** [*mercado interior*] ♦ *EB. Zuz.* Barne-mugarik gabeko esparrua, non salgaien, pertsonen, zerbitzuen eta kapitalen zirkulazio askea bermaturik baitago EBko zuzenbidean aurreikusiriko salbuespenak salbu. **Oh.** EBFT, 26.2 art.

**barne-promozio** [*promoción interna*] ♦ *Ad-min. Zuz.* Funtzionarioek lanbidean gora egiteko aukera. Bi promozio-bide daude: bertikala eta horizontala. Bertikala: azpitalde batean

integratzen den kidego edo eskala batetik goragoko azpitalde bateko kidego edo eskalara igarotzea dakar. Horizontala: azpitalde berean betiere, kidego edo eskala batetik goragoko kidego edo eskalara igarotzea dakar. **Oh.** 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 16. eta 18. art.

**barne-ur** [*aguas interiores*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Kostaldeko estatuaren lurraldeko itsasoaren oinarri lerroaren eta lehorraren artean dauden haren subiranotasunpeko urak. **Oh.** IZNBK, 8. art. **Sin.** *barneko ur.*

**barneko ur** [*aguas interiores*] ♦ *Nart. Zuz. Pu. Ik.* *barne-ur.*

**barneratze** [*internamiento*] ♦ *Zig. Zuz.* Askatasun-gabetzailea den segurtasun-neurria. Barneratzea bete daiteke heziketa bereziko zentro batean, zentro psikiatriko batean edo mende-kotasuna gainditzeko zentroa batean. **Oh.** ZK, 96. art.

**barruko malgutasun** [*flexibilidad interna*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresak zailtasunak dituen, enplegua ez galtzarren, enpresari lan-baldintzak aldatzeko eskaintzen zaion malgutasuna.

**barruranzko autodeterminazio** [*autodeterminación interna*] ♦ *Nart. Zuz. Pu. Ik.* *barne-autodeterminazio.*

**barruti judicial** [*partido judicial*] ♦ *Zuz. Proz.* Probintzia berekoak diren eta elkarren ondoan dauden udalerrri bat edo gehiago biltzen dituen auzitegi-mugapea. **Sin.** *epai-barruti.*

**baserri** [*caserío*] ♦ *Zuz. Zib.* Familiaren ustategia, nekazaritzaren nahiz abeltzaintzaren arlokoa. Ustategi hori eratzen dute landetxeak berak, eta, horrekin batera, osagai higigarri desberdinek: abelburuek, ustiatze-eskubideek, makineriak, instalazioek, eta, orobat, landa, lursail edo mendi batek edo batzuek. Lursail edo landa horiek landetxearen ondoan egon daitezke edo horretatik aparte, eta, halakoak izendatzeko, baserriari dagozkion lurak direla

esan ohi da. **Ik.** *onibar, tronkalitate, tronkaleko senide.*

**Batasunaren altxor** [*acervo de la Unión*] ♦ *EB. Zuz.* EBko estatu kide guztiak lotesten dituen arau, egintza, printzipio eta helburuen multzoa. **Sin.** *batasunaren ondare, ondare komunitario.*

**Batasunaren ondare** [*acervo de la Unión*] ♦ *EB. Zuz. Ik.* *batasunaren altxor.*

**Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkar** [*alto representante de la Unión para asuntos exteriores y política de seguridad*] ♦ *EB. Zuz.* EBren kanpoe-kintzari egonkortasuna, ikusgaitasuna eta koherentzia ematen dion kargu instituzionala. Kontseilu Europarraren bileretan parte hatzen du, Atzerri Arazoetako Kontseiluaren presidentzia berari dagokio eta, gainera, Batzordeko presidenteorde da. **Oh.** EBT, 18. eta 27. art. **Sin.** *goi-ordezkar.*

**Batasuneko herritartasun** [*ciudadanía de la Unión, ciudadanía europea*] ♦ *EB. Zuz.* EBko estatu kideen nazionalitatea duten pertsonen estatutu propioa, herritartasun nazionalari gehitzen zaiona berori ordezkatu gabe. EBko herritarrei berariazko zenbait eskubide aitortzen dizkie. **Oh.** EBFT, 20.-24. art. EBOEG, 39.-46. art. **Sin.** *batasuneko hiritartasun, europar herritartasun.*

**bateraezintasun-erregimen** [*régimen de incompatibilidades*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio publikoan lanean diharduten pertsonen lanpostu bakar batean jardun behar dutela dioen printzipioan oinarritzen den administrazio-erregimen berezia. Sektore publikoan edo pribatuan beste lan edo jardunen baten aritu ahal izateko, administrazioak aldez aurretik, hurrenez hurren, berariazko bateragarritasun-baimena eta bateragarritasun-aitorpena eman beharko du. **Oh.** 53/1984 Legea, 3.1 eta 14. art.

**baterako aitorten** [*declaración conjunta*] ♦ *Fin. Zuz.* Familia-unitate bateko kide guztiak pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga batera aitortzea. **Sin.** *baterako tributazio.*

**baterako tributazio** [*tributación conjunta*] ♦ *Fin. Zuz. Ik.* *baterako aitorten.*

**baterakuntza fiskal** [*consolidación fiscal*] ♦ *Fin. Zuz. Ik.* *konsolidazio fiskal.*

**batez besteko karga-tasa** [*tipo de gravamen medio*] ♦ *Fin. Zuz.* Kuota oinarriaz zatituz ateratzen den emaitza. Bi zenbaki hamartarrekin adierazten da.

**batzar 1** [*junta*] ♦ *Merkat. Zuz.* Sozietatearen organo bat, bazkideen borondatea agertzen duena; alegia, bazkideen bilera. Batzarretan legeak edo sozietateko estatutuek ezarritakoaren arabera egiten dira deialdiak, eztabaidatzen dira gaiak eta hartzen dira erabakiak. Erabakiak, betiere, bazkideen gehiengoaren aldeko botoa izan beharko dute. **Oh.** KSL, 159. art. eta hurr.

**batzar 2** [*asamblea*] ♦ *Konst. Zuz.* Enpresako langile guztiak elkartzen dituen organoa, erabaki kolektiboak hartzea xede duena. **Oh.** LE, 77-80. art. **Sin.** *biltzar, bilkura.*

**batzar konstituziogile** [*asamblea constituyente*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *konstituziogile.*

**Batzar Nagusiak** [*Juntas Generales*] ♦ *Konst. Zuz.* Euskal Autonomi Erkidegoko lurralde historikoen legebiltzar eta erakunde legegileak.

**batzorde arbitral** [*comisión arbitral*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Arbitrajean hirugarren inpartziala antolatzeko modua. Gatazkan dauden naziokotasun ezberdineko bi alderdien eta «superarbitro» batez osatutako batzorde paritarioa, zeinean azken horrek erabakitzeko eskumena baitu, betiere, baldin eta ez bada lortzen akordiorik aldeek izendatutako kideen artean.

**batzorde legegile iraunkor** [*comisión legislativa permanente*] ♦ *Konst. Zuz.* Lege-egitasmo edo -proposamenak onartzean Gorte Nagusien ordezkariak har dezakeen parlamentu-batzordea. **Oh.** EK, 75. art.

**batzorde negoziatzaile** [*comisión negociadora*] ♦ *Lan Zuz.* Hitzarmen kolektiboaren negoziatioan, bi alderdi negoziatzaileak batzen dituen organoa. **Oh.** LE, 88. art.

**batzorde parekide** [*comisión paritaria*] ♦ *Konst. Zuz.* Alderdi desberdinetako kideak bilzen dituen batzordea; alderdiek kide kopuru bera eta eskubide berak dituzte batzordean. Eskuarki, ugazaben elkarteen eta langileen ordezkariak ere bildu ohi dira batzorde parekideetan. ♦ *Lan Zuz.* Hitzarmen kolektiboan derrigorrez jaso beharreko organoa. Bi alderdi negoziatzaileen ordezkariak osatuko dute batzordea, eta ordezkari-kopuru bera izango dute bertan. Besteak beste, hitzarmenaren interpretazioa dagokio. **Oh.** LE, 85.3 art. **Sin.** *batzorde paritario*.

**batzorde paritario** [*comisión paritaria*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *batzorde parekide*.

**Batzordearen kolegialtasun-printzipio** [*principio de colegialidad de la Comisión*] ♦ *EB. Zuz.* EBko Batzordearen jardute kolektiboa eraentzen duen printzipioa, aldi berean, batzordekideen independentzia indibiduala bermatzen duena. **Oh.** EBJAren epaia, C-191/95, *Batzordea vs Alemania*.

**batzordekide** [*comisaria, comisario*] ♦ *EB. Zuz.* EBko Batzordearen kidea. **Oh.** EBT, 18.3 art. **Sin.** *komisario*.

**bazkide** [*socia, socio*] ♦ *Zuz. Zib.* Sozietate kontratu bat hitzartzen duen pertsona, zeinak beste batzuekin batera diru bat, ondasun bat edo industria bat jartzeko obligazioa hartzen duen, irabaziak elkarren artean banatzeko helburuarekin. ♦ *Merkat. Zuz.* Sozietateko (balzuko) kidea. Bazkideak izaera berezia duen sozietate-kontratu bidez elkartzen dira, helburu

komun bat erdiestearren. Oro har, bazkideek gaitasuna ematen diote taldeari —sozietateari— hirugarrenekin erlazioak izan ditzan. Horrela, sozietateak eskuratzen du nortasun juridikoa, hau da, trafikoan jarduteko gaitasun osoa. Hala ere, posible da kideek sozietateari gaitasun hori ez ematea; kasu horretan, beraz, sozietateak ez du izango nortasun juridikorik.

**bazkide langile** [*persona socia-trabajadora*] ♦ *Lan Zuz.* Lan elkartuko kooperatiban, aldi berean kooperatibako bazkide eta kooperatibako langile dena.

**bazkideen derrigorrezko baja** [*baja obligatoria de las personas socias*] ♦ *Lan Zuz.* Lan elkartuko kooperatiban, langile bazkidea kaleiratzea, enpresaren zailtasunak direla eta.

**baztertzaile** [*excluyente*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Norberarenak ez bezalakoak diren adierazpenak baztertu edo kanporatzen dituena. Gizarte mailan, integrazioaren kontrako; alegia, etnia, arraza, kultura, erlijio edo bestelako inguruabar pertsonal edo sozialengatik norbanakoak edo taldeak alboratzen dituena eta sarritan diskriminazioa sortarazten duena.

**baztertze** [*apartamento*] ♦ *Zuz. Zib.* Kausatzaileak duen eskubidea bere derrigorrezko oinordekoetatik bat edo batzuk aukeratu eta besteak oinordetatik kanpo uzteko. Oinordetza-sistema batzuetan, senipartea kolektiboa denean, kausatzaileari baztertze ahalmena ematen zaio, hark derrigorrezko oinordekoen taldea osatzen dutenen artean senipartea askatasunez banatzeko. **Ik.** *jaraunsgabetze*.

**begi-ikuskapen** [*inspección ocular*] ♦ *Zuz. Proz.* Epaile edo auzitegiak delituzko egitatea burutu zen lekua aztertzean datzan eginbidea. Alderdien aurrean burutzen da eta, kasua denean, delituaren aztarnak edo froga materialak jasotzen eta gordetzen dira. **Oh.** PKL, 326. art.

**behaketa** [*observación*] ♦ *Zuz. T. 1.* Behatzeke ekintza eta horren ondorioa. **2.** Feno-

menoei zein gertaerei buruzko datuak analisi edo neurketa zientifikoak egiteko xedez jasotzea.

**behar** [*obligación*] ♦ *Zuz. Zib. Ik. betebehar.*

**beharrezko alderdi-aniztasun** [*pluralidad de partes necesaria*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesu bat ondo egituratuta egoteko, posizio bietan edo batean galdatzen den interes-aniztasuna. **Sin.** *beharrezko alderdien aniztasun.*

**beharrezko alderdien aniztasun** [*pluralidad de partes necesaria*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. beharrezko alderdi-aniztasun.*

**beharrezko gutxieneko kotizazio-aldi** [*período mínimo de cotización necesario*] ♦ *Lan Zuz.* Prestazio batzuetarako eskubidea edukitzeko Gizarte Segurantzak galdatzen duen betekizuna.

**beharrezkotasun-printzipio** [*principio de necesidad*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. beharrian-printzipio.*

**beharrizan** [*deber ser, necesidad*] ♦ *Zuz. T.* Beharra, premia, urgentzia.

**beharrizan-egoera 1** [*estado de necesidad*] ♦ *Zig. Zuz.* Norberaren edo hirugarren baten kalte bat ekiditeko beste baten ondasun juridiko bati kalte egiten dionari edo obligazio bat urratzen duenari aplikagarri zaion salbueslea. Salbueslea aplikatzeko ezinbestekoa da: eragindako kaltea saihestu dena baino handiagoa ez izatea; subjektuak beharrian-egoera nahita eragin ez izatea; eta beharrian duenak bere burua sakrifikatzeko betebeharririk ez izatea, ogibidea edo kargua dela eta. **Oh.** ZK, 20.5 art. **Ik.** *bidezkotze kausa, erruduntasun.* ♦ *Nart. Zuz. Pu. Ik. premiazko egoera.*

**beharrizan-egoera 2** [*situación de necesidad*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte-arriskua gauzatzera gertatzen dena. Sortzen den beharrian ekonomikoa edota osasun laguntzarena izan daiteke.

**beharrizan-printzipio** [*principio de necesidad*] ♦ *Zuz. Proz.* Zigor-prozesua eraentzen duen printzipioa. Haren arabera, prozesua da *ius puniendi* edo zigor-zuzenbidea aplikatzeko baliabide bakarra. Horregatik, esan daiteke zigor-prozesutik kanpo ez dagoela zigor-zuzenbidearen aplikaziorik. **Oh.** PKL, 1. art. **Sin.** *beharrezkotasun-printzipio.*

**beharrizanezko judizio** [*juicio de deber ser*] ♦ *Zuz. T.* Egiaztatu ezina den esakune normatibo edo preskribatzailea.

**behin-behineko artxibatze** [*sobreseimiento provisional*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. behin-behineko largespen.*

**behin-behineko askatasun** [*libertad provisional*] ♦ *Zuz. Proz.* Zigor-prozesuan zehar behin-behinean espetxeratuta ez dagoen iker-tuaren, auzipetuaren edo akusatuaren kaute-lazko egoera. Kautelazko neurri hau fidantza-pekua izan daiteke edo fidantzarik gabekoa eta beste betebehar batzuk eraman ditzake berekin, esaterako, epailearen aurrean aldizka agertu beharra. **Oh.** PKL, 529. art. **Ik.** *kautela-neurri.*

**behin-behineko betearazpen** [*ejecución provisional*] ♦ *Zuz. Proz.* Errekurrutua izan den eta horregatik irmoa ez den ebazpen judicial bat egikaritzera zuzendutako prozedura. **Sin.** *behin-behineko exekuzio.*

**behin-behineko espetxealdi** [*prisión provisional*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. behin-behineko espetxeratze.*

**behin-behineko espetxeratze** [*prisión provisional*] ♦ *Zuz. Proz.* Legezko epeak eta baldintzak errespetatuz, zigor-prozesua amaitu gabe dagoen bitartean, ikertu, auzipetu edo akusatu bat espetxean sartuz askatasunaz gabetzean dartzan kautelazko neurri pertsonala. **Oh.** PKL, 502-519. art. **Sin.** *behin-behineko espetxealdi.* **Ik.** *kautela-neurri.*



**behin-behineko espetxeratze-auto** [*auto de prisión provisional*] ♦ *Zuz. Proz.* Jurisdikzio-organoak emandako ebazpena, norbait behin-behinean espetxeratzeko kautelazko neurria agintzen duena. **Ik.** *behin-behineko espetxeratze*.

**behin-behineko exekuzio** [*ejecución provisional*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *behin betiko betearazpen*.

**behin-behineko largespen** [*sobreseimiento provisional*] ♦ *Zuz. Proz.* Denboraldi batez zigor-prozesua geldiarazten duen eta jarduketan artxiboa emaitza duen ebazpen judiziala. Legezko zioetan oinarritzen da: delitua egin dela behar bezala justifikatuta geratu ez izana edo pertsona bat akusatzeko zio nahikorik ez izatea. **Oh.** PKL, 641. art. **Sin.** *behin-behineko artxibatze*.

**behin-behineko likidazio** [*liquidación provisional*] ♦ *Fin. Zuz.* Kasu berezietan alda dai-tekeen likidazioa.

**behin-behineko neurri** [*medida provisional*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio-prozedura hasi ondoren, ebazteko eskumena duen organoak ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko harturiko neurria. Prozedura hasi aurretik ere har daitezke horrelako neurriak, betiere, urgentzia geroraezina dagoen kasuetan eta ukitutako interesak behin-behinekoz babestu behar direnean. **Oh.** 39/2015 Legea, 56. art.

**behin-behineko ordain-agindu** [*ordenación del pago provisional*] ♦ *Fin. Zuz.* Horretarako baimendua dagoen agintari edo funtzionarioak burututako eragiketa, sortutako zor batekin loturik Altxorraren aurka dagokion agindua ematean datzana. **Sin.** *behin-behineko ordainketa-agindu*.

**behin-behineko ordainketa-agindu** [*ordenación del pago provisional*] ♦ *Fin. Zuz.* **Ik.** *behin-behineko ordain-agindu*.

**behin betiko artxibatze** [*archivo definitivo*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *largespen aske*.

**behin betiko betearazpen** [*ejecución definitiva*] ♦ *Zuz. Proz.* Irmoa den kondenazko epai bat edo bestelako titulu exekutibo bat egikaritzeko prozedura judiziala. **Sin.** *behin betiko exekuzio*.

**behin betiko exekuzio** [*ejecución definitiva*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *behin betiko betearazpen*.

**behin betiko largespen** [*sobreseimiento definitivo*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *largespen aske*.

**behin betiko likidazio** [*liquidación definitiva*] ♦ *Fin. Zuz.* Behin betiko izaera izan gabe ordaintzeko agindutakoa. **Ik.** *zerga-likidazio behin betiko*, *zerga-likidazio behin-behineko*.

**bekaldura** [*careo*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuan zehar lekukoek edo ikertu, auzipetu edo akusatuek emandako adierazpenen artean kontraesanak edo desadostasunak daudenean eta haiek argitzeko helburuz instrukzioan edo ahozko epaiketan burututako ezohiko eginbidea, epailearen aurrean egindako ahozko konfrontazio batean datzana. **Oh.** PKL, 451-455. art. **Sin.** *kareo*.

**beldur gaindiezin** [*miedo insuperable*] ♦ *Zig. Zuz.* Kalte baten mehatxuak sortzen duen beldur gaindiezinagatik delitu bat burutzean aplikatzen den salbueslea, arau penala erresetatzea galdagarria ez izateagatik. **Oh.** ZK, 20.6 art. **Ik.** *erruduntasuna*.

**benetako babes judizialerako eskubide** [*derecho a la tutela judicial efectiva*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *babes judizial eraginkorrerako eskubide*.

**benetako kuota** [*cuota efectiva*] ♦ *Fin. Zuz.* Kuota likidoari legez ezarritako kenkariak aplikatuz kalkulatzen den kuota. **Sin.** *kuota efektibo*.

**benignitas** [*benignitas*] ♦ *Zuz. Err.* Negozio juridikoetan, bereziki oinordetzarekin edota askatasunarekin loturiko gaietan, interesatuaren

alde egiteko jarrera positiboa. Zalantza kasuan, askatasunaren alde (*favor libertatis*) edota testamentuari eustearen alde (*favor testamenti*) egiten zen. **Sin.** *humanitas*.

**berandutza** [*mora*] ♦ *Zuz. Zib.* Betebeharra atzerapenez betetzea, betebeharra epez kanpo betetzea, obligazioaren ikuspuntutik, oraindik posiblea denean. Betebeharra atzerapenez betetzea gerta daiteke, zordunaren edo hartzekodunaren erruz. **Oh.** KZ, 1.100. art. **Ik.** *zordunaren berandutza, hartzekodunaren berandutza*.

**berandutza-interes** [*intereses de demora*] ♦ *Fin. Zuz.* Prestazio osagarria. Zergapekoei eta subjektu urratzaileei eskatzen zaie kasu haue- tan: epez kanpo ordaintzen dutenean, ordaintzeko emaitza duen autolikidazio edo aitortpena zerga-araudian ezarritako epea behin amaituta aurkezten dutenean, bidegabeko itzulketa bat kobratzen denean edo foru-arau bidez ezar- tzen diren gainerako kasuak gertatzen dire- nean. **Sin.** *berandutza-korritu*. ♦ *Zuz. Zib.* Zorraren ordaintzetan berandutzeak dakarren zigor ekonomikoa, zorraren zenbatekoa han- dituz gauzatzen dena (bai aldeek adostutako ehuneko batean edo legez agintzen den ehune- koan). **Ik.** *berandutza*.

**berandutza-korritu** [*intereses de demora*] ♦ *Fin. Zuz.* **Ik.** *berandutza-interes*.

**berandutza prozesal** [*mora procesal*] ♦ *Zuz. Proz.* Herritar bat prozesuan dagokion denbora igarota agertzea edo zerbait egitea, eta kasuan kasuko ondorioak pairatzea.

**berariazko sumisio** [*sumisión expresa*] ♦ *Zuz. Proz.* Gatazka juridiko baten ezagutza, normalean hartaz ezagutzeko prozesuaren aurretik, lurralde bateko epaitegiei egozte- ko alderdiek egiten duten akordio esplizitua. **Sin.** *esanbidezko sumisio*.

**berdintasun** [*igualdad*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** He- rritar guztiak eskubide eta betebeharretan pa-

rekatzen dituen printzipioa. **Oh.** EK, 1.1 art. **2.** Bereizkeriaren debekua. **3.** Gertaera edo egoera biren arteko baliokidetasuna.

**berdintasun-printzipio** [*principio de igualdad*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Legearen aurrean egoera berean daudenei tratu bera ematea agin- tzen duen printzipio juridikoa. Diskriminazioa debekatzen du. Errealitatean dauden desberdin- tasun-egoerak gainditzearen, Konstituzioan xedatzen da botere publikoen eginbeharra dela berdintasuna bermatzeko bideak jarri eta berdintasuna lortzeko izan litezkeen oztupoak kentzea. **Oh.** EK, 1.1, 14.1, 9.2 art. **Sin.** *berdin- tasunaren printzipio*. **Ik.** *diskriminazio*. ♦ *Zuz. T.* Legeak, egoera berean daudenak berdin eta ezberdin daudenak ezberdin tratatu behar di- tuela xedatzen duen Zuzenbidearen printzipio orokorra. **Oh.** EK, 14. art. **Sin.** *berdintasuna- ren printzipio*.

**berdintasunaren printzipio** [*principio de igualdad*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz., Zuz. T.* berdin- tasun-printzipio.

**berediktu** [*veredicto*] ♦ *Zuz. Proz.* Zinpekoen erabakia. Haren bitartez frogatuzat edo ez fro- gatuzat ematen dira magistratu-presidenteak aurkeztutako egitateak eta, haietan oinarrituta, akusatuaren errugabetasuna edo errugabetasun eza deklaritzen da. **Oh.** ZELO, 52-62. art.

**bereganatze** [*avocación*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** *abogazio*.

**bereizkeria** [*discriminación*] ♦ *Zuz. T.* **Ik.** *dis- kriminazio*.

**berezitasun-printzipio** [*principio de especia- lidad*] ♦ *Zuz. T.* **Ik.** *berezitasunaren printzi- pio*.

**berezitasunaren printzipio** [*principio de especialidad*] ♦ *Zuz. T.* Arau berezia arau orokorrari gailentzen zaiola xedatzen duen printzipio juridikoa. **Oh.** ZK, 8.1 art. **Sin.** *be- rezitasun-printzipio*.

**berezko kultura-identitate** [*identidad cultural propia*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Gizatalde baten kultura-adierazgarri diren identitate-zeinuen multzoa: tradizioa, sinesteak, ohiturak, sinboloak, hizkuntza, eta abar. Kideei gizataldeko parte izatearen zentzua ematen die, eta baita beste identitate kolektiboengandik bereizteko irizpideak ere.

**berme** [*garantía*] ♦ *Konst. Zuz. 1.* Arriskua edo beharra dagoen kasuarekiko ziurtasuna edo segurtasuna. **2.** Segurtasun hori ematen duen gauza. ♦ *Merkat. Zuz.* Betebehar baten betetzea ziurtatzen duen tresna juridikoa. **Oh.** ZK, 1822. art.

**berme-endosu** [*endoso en garantía*] ♦ *Merkat. Zuz.* Endosu mugatua zeinaren bitartez, titularrak bahi gisa entregatzen baitu titulu kanbionarioa, bere kontra duen kredituren bat bermatzearen. **Oh.** KLTL, 22. art.

**berme erreal** [*garantía real*] ♦ *Zuz. Zib.* Hartzekodunaren alde, kreditua kobratuko duela bermatzeko, hirugarren baten ondasun edo eskubide bat gabatuz sortzen den eskubidea.

**berme kriminal** [*garantía criminal*] ♦ *Zig. Zuz.* Legezketasun-printzipioaren bermeetariko bat; delitua legez zehaztua egotea eskatzen du (*nullum crimen sine lege*).

**berraztertze-errekurtso** [*recurso de reposición*] ♦ *Zuz. Proz., Fin. Zuz., Lan Zuz.* Ez-debolutiboa den aurkaratze-bidea, ordenazio-eginbidea, dekretu, probidentzia edo behin-behinekua ez den auto baten kontra aurkeztua, haren ezeztapena lortzeko. **Sin.** *birjartze-errekurtso*, *erreposizio errekurtsio*. ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio-bidea amaitzen duten administrazio-egintzen aurka, egintza eman zuen organo berari jar dakioken aukerako errekurtsioa (emandako erabakia berrazter dezala eskatze-ko). **Oh.** 39/2015 Legea, 123. art.

**berrenbargatzaile** [*reembargante*] ♦ *Zuz. Proz.* Jadanik bahitura bat duen ondasun edo eskubide

baten gainean beste bat eskatzen duen norbanakoa. Aurreko enbargatzaileen eskubideak asetzean geratzen dena jasoko du soilik.

**berrenbargo** [*reembargo*] ♦ *Zuz. Proz.* Jadanik bahitura bat duen ondasun edo eskubide baten gainean beste bat sortzea. Aurreko enbargatzaileen eskubideak asetzean geratzen dena soilik kobratzeko eskubidea aitortzen du.

**berrerorle** [*reincidente*] ♦ *Zig. Zuz.* Delitua burutzen duenean Zigor Kodeko titulu berean jasotzen den delitu batengatik kondenatua izan dena, delitu hori izaera berekoa bada. **Oh.** ZK, 22.8 eta 94. art. **Ik.** *berrerortze*.

**berrerortze** [*reincidencia*] ♦ *Zig. Zuz.* Delitua aurrekariak edukitzeagatik zigorra astuntzea dakarren inguruabarra. Nazioarteko berrerortzearen kasuan aurrekaria atzerrian egindako delitua izaten da. **Oh.** ZK, 22.8 art. **Ik.** *astungarri*, *aurrekari*.

**berrespen** [*ratificación, refrendo*] ♦ *Konst. Zuz. 1.* Ekintzak, hitzak edo idazkiak onartzea, haiek benetakotzat eta baliozkotzat jotzea. **2.** Estatuburuaren ekintzen baliozkotasuna osatzeko haiei gaineratzen zaien sinadura, Gobernuko presidentek edota Diputatuen Kongresuko presidentek sinatuta. **Oh.** EK, 56.3 art. **Sin.** *berreste*, *berri-enpe*.

**berrespen-egintza** [*acto confirmatorio*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio publikoak aurretik eman, eta irmoa den edo interesdunak bere hartan aurkaratu gabe utzitako beste administrazio-egintza baten erreproduktzioa. Berrespen-egintzak ezin dira errekurritu. **Oh.** 29/1998 Legea, 28. art.

**berreste** [*ratificación, refrendo*] ♦ *Konst. Zuz. Ik.* *berrespen*.

**berretsi** [*ratificar, refrendar*] ♦ *Zuz. T.* Aurretiaz erabaki denaren baliozkotasuna baieztatzea. ♦ *Konst. Zuz. 1.* Ekintzak, hitzak edo idazkiak onartu, haiek benetako eta baliozko-

tzat jo. **2.** Estatuburuaren ekintzen baliozkotasuna osatzeko sinadura erantsi; eskuarki, Gobernuko presidenteari dagokio gaitasun hau. **Oh.** EK, 56.3 art. **Sin.** *berritzenpetu*.

**berrigorpen** [*reenvío*] ♦ *Nart. Zuz. Pr.* Egoera hau sortzen da foroko gatazka-arauak ezargarri den ordenamendutzat atzerritar ordenamendu bat jotzen duenean eta azken horri dagozkion gatazka-arauek beste ordenamendu bat ezargarri izendatzean dutenean. Ordenamendu hori foroko estatuarena edo beste estatu batena izan daiteke.

**berrikuspen-epaiketa** [*juicio de revisión*] ♦ *Zuz. Proz.* Irmoak diren epaiak balio gabetzea helburu duen eta zentzu hertsian errekurtsioa ez den aurkaratze-bidea, lege prozesalak zehaztutako zioengatik baino aurkeztu ezin dena. **Oh.** PKL, 954-961. art. eta PZL, 509-516. art.

**berrikuspen-errekurtso** [*recurso de revisión*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio-bidean irmoak diren egintzen aurka jar daiteken errekurtsioa. Legek aurreikusitako kasuetan soilik jar daiteke errekurtsio hau. **Oh.** 39/2015 Legea, 125. art. ♦ *Lan Zuz.* Epai irmoen aurkako errekurtsioa. Auzitegi Gorenaren aurrean jarri behar da.

**berrikuspen-prozedura arrunt** [*procedimiento ordinario de revisión*] ♦ *EB. Zuz.* Tratatu sortzaileen erreforma gauzatzeko izaera orokorra duen prozedura. **Oh.** EBT, 48. art.

**berrikuspen-prozedura sinplifikatu** [*procedimiento de revisión simplificado*] ♦ *EB. Zuz.* Tratatu sortzaileetan modu espresuan aurreikusita datozen erreforma partzialeko kasu espezifikotarako erabil daitekeen berrikuspen-prozedura. **Oh.** EBT, 48. art.

**berrizenpe** [*ratificación, refrendo*] ♦ *Konst. Zuz. Ik. berrespen*.

**berrizenpetu** [*ratificar, refrendar*] ♦ *Konst. Zuz. Ik. berretsi*.

**bestereenezintasun** [*inalienabilidad*] ♦ *Admin. Zuz.* Halakoa da ondasun bat edo eskubide bat, ezin denean, legearen arabera. ez eskualdatu, ez laga, ez saldu. **Oh.** 33/2003 Legea, 6. art.

**bestereintasun** [*ajenidad*] ♦ *Lan Zuz.* Langileak egindako lanaren fruitua enpresaburuak bereganatzearen ezaugarria. **Oh.** LE, 1.1 art.

**bestereitze** [*transmisión*] ♦ *Zuz. Zib.* Eskubide edo obligazio baten titulartasunaren gertatzen den aldaketa, pertsona batek aurreko titularra ordezkatzeko delako, haren posizio juridikoa eskuratuz. Besterentze, eskualdatze, transmisio hau *inter vivos* zein *mortis causa* gerta daiteke. **Sin.** *eskualdatze, transmisio*.

**bete** [*cumplir, satisfacer*] ♦ *Zuz. T.* Agindutakoa, eskatutakoa, iragarritakoa... gauzatu.

**bete beharreko zuzenbide** [*derecho necesario*] ♦ *Lan Zuz. Ik.* zuzenbide beharrezko.

**betearazi 1** [*ejecutada, ejecutado*] ♦ *Zuz. Proz.* Betearazpen-prozesu bat pairatzen duen herritarra; epaileak betearazpena agintzen du beraren kontra, betearazpen-tituluan zordun moduan agertzen delako. **Sin.** *exekutatu 1*.

**betearazi 2** [*ejecutar*] ♦ *Zuz. Proz., Admin. Zuz., Zuz. T.* Epai edo titulu exekutiboak bete eragin, haien egikaritze erreala lortu. **Sin.** *exekutatu 2*.

**betearazle 1** [*ejecutante*] ♦ *Zuz. Proz., Konst. Zuz., Zuz. T.* Betearazpena eskatzen duen alderdia. **Sin.** *exekutatzaile*.

**betearazle 2** [*ejecutivo*] ♦ *Zuz. Proz., Admin. Zuz., Zuz. T.* Ebazpen, titulu edo zor baten betearazpena lortzera zuzendutako prozeduraren izaera.

**betearazpen** [*ejecución*] ♦ *Zuz. Proz., Admin. Zuz.* Epai eta beste exekuzio-titulu batean erabakitakoa betetzera behartzeko jarduera judiziala. **Sin.** *exekuzio*.

**betearazpen-babes** [*tutela ejecutiva*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *babes betearazle.*

**betearazpen-demanda** [*demanda ejecutiva*] ♦ *Zuz. Proz.* Betearazpen-prozesuari hasiera ematen dion dokumentua. Dokumentu horretan herritarrak, epai bidezko babes eraginkorrerako eskubidea egikaritzuz, babes exekutiboan eskatzen dio epaileari. **Sin.** *exekuzio-demanda.*

**betearazpen-direktiba** [*directiva de ejecución*] ♦ *EB. Zuz.* **Ik.** *zuzentarau betearazle.*

**betearazpen-egintza** [*acto de ejecución*] ♦ *EB. Zuz.* **Ik.** *exekuzio-egintza.*

**betearazpen espezifiko** [*ejecución específica*] ♦ *Zuz. Proz.* Epaille aurrean herritarrak uzi gisa eskatu duen gauzaren, eskubidearen edo prestazioaren egikaritze zehatza, hau da, beraren edukia errespetatuz gauzatzen dena. **Sin.** *exekuzio espezifiko.*

**betearazpen generiko** [*ejecución genérica*] ♦ *Zuz. Proz.* Epaille aurrean herritarrak uzi gisa eskatu duen gauzaren, eskubidearen edo prestazioaren egikaritze zehatza ezinezkoa denean, dirutan gauzatzea. **Sin.** *exekuzio generiko.*

**betearazpen-immunitate** [*inmunidad de ejecución*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* **Ik.** *exekuzio-immunitate.*

**betearazpen-prozesu** [*proceso de ejecución*] ♦ *Zuz. Proz.* Epaian edo titulu exekutiboan jasotakoa betetzeko prozedura judiziala. **Sin.** *exekuzio-prozesu.*

**betearazpen-titulu** [*título ejecutivo*] ♦ *Zuz. Proz.* Exekuzio-prozesu bat abiarazi eta garatzeko dokumentua. Legeak berariaz izendatzen ditu betearazpen-demandak, eta betebeharrak bat jasotzen dute. **Sin.** *exekuzio-titulu.*

**betearazpen-uzi** [*pretensión ejecutiva*] ♦ *Zuz. Proz.* Exekuzio-prozesuaren objektua; betearazpen-titulu bat egikaritzeko epaileari egindako eskaera. **Sin.** *exekuzio-uzi.*

**betebehar** [*obligación*] ♦ *Zuz. Zib., Zuz. T.* Zuzenbidezko edo moralaren ondoriozko lotura, zerbait eman, egin edo ez egitean datzana. Ikuspegi etimologikotik, betebeharrak hitza latineko *obligatio* hitzetik dator; *ob ligatio*, lotura zerbaiten inguruan. **Sin.** *obligazio.* **Ik.** *betebehar juridiko.*

**betebehar juridiko** [*obligación jurídica*] ♦ *Zuz. Zib.* Zuzenbidezko lotura, zerbait eman, egin edo ez egitean datzana eta gauzatu ezean, judizialki galda daitekeena. Betebehar juridiko hori erator daiteke kontratuzko erlazio juridiko batetik edo kontratuz kanpoko erlazio batetik. **Oh.** *KZ, 1.088. art. eta hurr.*

**betebeharren eduki** [*contenido obligacional*] ♦ *Lan Zuz.* Hitzarmen kolektiboaren atal bat da, hitzarmena sinatu duten alderdien eskubiak eta betebeharrak erregulatzen dituena.

**betebeharren eraginkortasun** [*eficacia obligacional*] ♦ *Lan Zuz.* Hitzarmen kolektiboak hitzarmenaren alderdi sinatzaileen arteko eskubide eta betebeharrei dagokienez duen eraginkortasuna.

**betetze** [*cumplimiento*] ♦ *Zuz. Zib.* Zor den prestazioa zuzen eta garaiz gauzatzea, objektua edozein delarik ere (gauza edo dirua eman, zerbitzu bat eman, zerbait egin edo ez egin). Betetzeak obligazioa iraungi, hartzekoduna ase eta zorduna obligaziotik askatzen du. **Oh.** *KZ, 1156-1157. art.*

**betetze-auditoretza** [*auditoría de cumplimiento*] ♦ *Fin. Zuz.* Ekonomia- eta finantzakudeaketako egintzak, eragiketak eta prozedurak aplikatzekoak diren arauekin bat egin direla egiaztatzea helburu duen auditoretza mota.

**beteto** [*veto*] ♦ *Konst. Zuz.* Erakunde edo agintaritzak batek zerbait saihestu, oztopatu zein debekatzea duen gaitasuna.

**beteto-eskubide** [*derecho de veto*] ♦ *Nart. Zuz. Pu. 1.* Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun

Kontseiluak funtsezko erabakiak hartzeko orduan erabaki bati onespena emateko erabiltzen duen prozedura, zeinaren arabera, erabaki bat onesteko, bederatziki kideren aldeko botoa eskatzen baita, eta horien barne-kide iraunkor guztien aldeko botoak. Organo honen praktikan, abstentzioak ez dakar betorik. **Oh.** NBG, 27.3. art. **2.** Erabakiak hartzeko orduan ahobatezkotasuna eskatzen den kasuetan edota eskatutako gehiengoan zenbait estatu zehatzen aldeko botoa ezinbesteko denean, nazioarteko erakunde baten kide batek erabakia atzera botatzeko duen ahalmena.

**bezeriagatiko kalte-ordain [indemnización por clientela]** ♦ *Merkat. Zuz.* Agentzia-kontrata amaitzean, kalte-ordaina eskuratzeko agenteak duen aukera, baldin eta enpresari nagusiari ekarri dizkion bezero berriek jarduera-gorakada nabarmena ekarri badute. Hala izango da, bezero horiek enpresari nagusiari oraindik ere abantaila nabarmenak eskaintzen badizkiote eta, beti ere, bidezkoa bada abantaila horiek partekatzea, dela agenteak galduko dituen komisiogatik, dela lehia egiteko duen debekuagatik edota dela bestelako egoera batengatik. Kalte-ordainaren zenbatekoa agenteari azken bost urteetan egokitu zaionaren batezbestekoa izango da gehienez ere. **Oh.** AgKL, 28. art.

**bidegabearen elementu subjektibo [elemento subjetivo del injusto]** ♦ *Zig. Zuz.* Tipoak doloaz gain galdatzen duen bestelako elementu subjektiboa; hau da, bestelako asmoak izatea. Adibidez, ebasketa-delituak eskatzen du egi-leak irabazi-asmoa izatea.

**bidegabekeria [injusticia]** ♦ *Zuz. T. 1.* Justiziarik eza. **Sin.** *injusticia*. **2.** Zuzena edo bidezkoa denaren kontrako ekintza.

**bidegabeko aberaste [enriquecimiento injusto]** ♦ *Zuz. Zib.* Zuzenbideko printzipio orokorra, bestearen txirotzearen kontura lortutako kausa gabeko aberastea galarazten duena. Kausa gabeko aberastearen debekua da, honek beste pertsona baten ondarearen gutxitzea da-

karrean. Aberasteak arrazoi edo kausarik ez duenez, jasotakoa itzultzeko betebeharra sortzen da bidegabeki aberastu denarentzat.

**bidegabeko atzerapen [dilación indebida]** ♦ *Zuz. Proz.* Kasu zehatzaren komplexutasunean edo beste arrazoi batzuetan oinarrituta ez dagoen auziaren izapiderean atzerapena, jurisdikzio-organoari egozgarri zaiona. Espainiako Konstituzioak aintzatesten du bidegabeko atzerapenik gabeko prozesurako oinarritzko eskubidea. **Oh.** EK, 24. art. **Sin.** *bidegabeko luzamendu*. **Ik.** *babes eraginkorrerako eskubide*.

**bidegabeko eralgitze [administración desleal]** ♦ *Zig. Zuz.* Ondarearen aurkako delitua, beste inoren ondarea administratzeko ahalak izanik eta ahalok gehiegikeriaz egikaritzearen ondorioz administratutako ondareari kaltea eragiten diona. **Oh.** ZK, 252. art. **Sin.** *administrazio-desleial*. **Ik.** *bidegabeko eralgitze publiko*.

**bidegabeko jabetze [apropiación indebida]** ♦ *Zig. Zuz.* Ondarearen aurkako delitua, beste pertsona baten diruaz, efektuez, baloreez nahiz beste edozein gauza higigarri jabetzea eragiten duena. **Oh.** ZK, 253. art.

**bidegabeko kaleratze [despido improcedente]** ♦ *Lan Zuz.* Epai bitartez legezkontraktotzat jo den kaleratzea, hondoko zein formako akatsengatik. Kasu hauetan, enpresaburuak hauta dezake langileren berronartzea edo, horren orde, langileari kalte-ordaina ematea. **Oh.** LE, 56. art.

**bidegabeko luzamendu [dilación indebida]** ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *bidegabeko atzerapen*.

**bidegabetasun [injusticia]** ♦ *Konst. Zuz.* Justiziaren aurkakoa denaren ezaugarria.

**bideragarritasun [viabilidad]** ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Zerbait, haren baldintza edo ezaugarriak direla eta, garatzeko aukera izatea. **2.** Giza enbrioiei aplikatuta, pertsona bat izateraino garatzeko gaitasuna.

**bideragarritasun ekonomiko** [*viabilidad económica*] ♦ *Lan Zuz.* Aurrera begira, enpresak alderdi ekonomikotik bizirauteko duen aukera baloratzea.

**bidezko** [*correcto; justo; legítimo*] ♦ *Zuz. T.* Zuzena denaren arabera, Zuzenbidea barne.  
**Sin.** *justu. Ik. zuzen.*

**bidezko arrazoi** [*causa justa*] ♦ *Zuz. Zib. Ik.* *bidezko kausa.*

**bidezko defentsa** [*legítima defensa*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Eraso armatu bati aurre egiteko estatuek, modu indibidual zein kolektiboan, indarra erabiltzeko duten eskubidea. Erantzuna kolektiboa den kasuetan, ezinbestekoa izango da erasotua izan den estatuak eskaria egin izana edo alde zuzenetik hitzarmen bat sinatu izana. Edonola ere, bidezko defentsaren egikaritzak beharrezko, berehalako eta proportzional izan behar du, eta Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluak horren berri berehala jaso behar du. **Oh.** NBG, 5. art.

**bidezko defentsa prebentibo** [*legítima defensa preventiva*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Oraindik egin ez den eraso armatu bat jasango delako uste sendoan oinarrituta estatu batek bere burua babesteko egiten duen indarraren erabilera. Nazioarteko zuzenbideak bidezko defentsaren zilegitasunerako ezartzen duen baldintza nagusia betetzen ez denean (eraso armatua), ez da zilegizat joko defentsa-ekintza prebentiboa. **Oh.** NBG, 5. art.  
**Sin.** *aurretiazko bidezko defentsa.*

**bidezko interes** [*interés legítimo*] ♦ *Admin. Zuz.* Abantaila edo baliagarritasun juridikoaren egoera potentzialaren titularitatea, zeina, aurrera egingez gero, gauzatu ere egingo baita.

**bidezko kaleratze** [*despido procedente*] ♦ *Lan Zuz.* Epai bitartez eduki zein forma aldetik legekotzat jo den kaleratzea. **Oh.** LE, 55. art.

**bidezko kausa** [*causa justa*] ♦ *Zuz. Zib.* Adostasunarekin eta objektuarekin batera kontratu

baten baliozkotasunerako beharrezkoa den betekizuna, beronen izate arrazoia egiazkoa eta legezkoa dela frogatzen duena. Arrazoi horiek gauza edo zerbitzu bat eman edo hitzematea, ordaindu beharreko zerbitzu zein onura edota eskuzabaltasuna badira ere, zordunak kontrako esan ezean, bidezko kausa egon badagoela sumatzen da. **Oh.** KZ, 1274-1277. art. **Sin.** *bidezko arrazoi.*

**bidezkotasun** [*procedencia*] ♦ *Lan Zuz.* Bidezkoa izatearen nolakotasuna.

**bidezkotu** [*justificar, legitimar*] ♦ *Zuz. T.* Zerbait bidezkoa dela egiaztatu edo bidezko bihurtu. **Sin.** *legitimat.*

**bidezkotze-kausa** [*causa de justificación*] ♦ *Zig. Zuz.* Delitua zilegi bilakatzen duen egoera. Norberaren burua defendatzearen, beste baten bizitza edo antzeko ondasun baliotsua salbatzearen, edo lanbidez egitera behartuta egotearen egiten da, baina ez da delituztat jotzen. **Oh.** ZK, 20.4, 20.5, 20.7 art. **Ik.** *beharrian egoera, eginbehar baten betetze, eskubide baten bidezko egikaritzea, legebidezko defentsa.*

**bigamia** [*bigamia*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Berrito ezkontzea, alde zuzenetik legearen arabera ezkontza bat indarrean dagoela jakinda ere, eta aurreko ezkontzari legezko amaiera eman gabe. **Oh.** ZK, 217. art.

**bigarren auzialdi** [*segunda instancia*] ♦ *Zuz. Proz.* Auzialdi bikoitzeko sisteman, lehenengo ebazpenaren berrikuspena egiteko prozedura judiciala; ebazpena eman duen organoaren goragokoak egiten du berrikuspena. Apelazio-errekurtsoak ematen dio bide bigarren auzialdiari.

**bihurtze-neurri** [*medida de retorsión*] ♦ *Nart. Zuz. Pu. Ik.* *erretortsio-neurri.*

**bikarriotza-sistema** [*sistema vicarial*] ♦ *Zig. Zuz.* Zigorrek eta segurtasun-neurriak batera ezartzen direnean, horiek nola eta zein orde-

natan bete behar diren arautzen duen sistema. Segurtasun-neurriak beti du lehentasuna eta gero pena askatasun-gabetzailea betetzen da aurrekoarekin pasatutako denbora deskontatuz.

**Oh.** ZK, 99. art. **Ik.** *salbuesle ez-oso, segurtasun-neurri*.

**bikote egonkor** [*pareja estable*] ♦ *Zuz. Zib. Ik. izatezko bikote*.

**biktima** [*víctima*] ♦ *Zig. Zuz. 1.* Delituaren subjektu pasiboa; hau da, kaltetua izan den ondasun juridikoaren titularra. **Oh.** Delituaren Biktimaren Estatutua, 2. art. **2.** Zuzeneko biktima izango da bere buruaren edo ondarearen gaineko kaltea pairatu duen pertsona fisikoa. Heriotza- eta desagertze-egoeran, zeharkako biktimak izan daitezke: subjektu pasiboaren ezkontidea edo antzeko harremana duena; seme-alabak; gurasoak; zaintzan, tutoretzan edo kuradoreztapean izan direnak, edo anai-arrebak.

**bilatze- eta atxilotze-agindu** [*orden de busca y captura*] ♦ *Zuz. Proz.* Auzipetu edo akusatua non dagoen ikertzeko eta atxilotzeko jurisdikzio-organoak emandako ebazpena. **Oh.** PKL, 512. eta 784.4 art.

**bilduma** [*compilación*] ♦ *Zuz. T. Ik. konpilazio*.

**bilkura** [*asamblea, asociación, reunión*] ♦ *Konst. Zuz. 1.* Elkarte. **2.** Biltzarra. **3.** Reunión. **Ik.** *biltzar, batzar*.

**biltzar** [*asamblea*] ♦ *Konst. Zuz. 1.* Elkarte edo erakunde baten kide diren pertsonen bilera, talde gisa dagokien konturen bati arreta ematekoa. **2.** Erakunde eta organismo oso ezberdinetan dagoen goi-mailako eztabaida-organoa. **Sin.** *batzar, bilkura*.

**bindikta bidezko manumisio** [*manumisión por la vindicta*] ♦ *Zuz. Err.* Manumisioa era solemnean egiteko zeuden hiru bideetako bat (*manumissio censu, testamento, vindicta*).

Haren bidez, pretorearen aurrean, jabeak (*dominus*) bere *vindicta* esklaboaren bizkarrean jarriz, aske zela aldarrikatzen zuen eta berehala esklabo hura libre eta manumititzailearen liberto (*libertus*) bilakatzen zen. **Sin.** *manumissio vindicta*.

**bioetika** [*bioética*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Etikaren esparruko diziplina, bizitza-zientziei —medikuntzari eta biologiari nagusiki—, eztabaidagarri diren gaien inguruan, giza jardura aztertze eta erabaki gatazkatsuen zilegitasuna bideratzeko irizpideak, balioak eta printzipioak eskaintzen dizkiena.

**birgizarteratze-printzipio** [*principio de re-socialización*] ♦ *Zig. Zuz.* Zigor askatasun-gabetzaileen eta segurtasun-neurrien helburua, berreztearekin batera (EKren 25.2 art. eta Espetxe Legearen 1. art.). Horregatik, askatasun-gabetzeak dakarren gizartearekiko alboratze-efektua ekiditeko kanpoko ingurunearekin nolabaiteko komunikazioa bermatu behar da eta askatasun-bizimoduan berriro sartzeko erraztasunak eskaini behar dira.

**birjartze errekurtsio** [*recurso de reposición*] ♦ *Zuz. Proz., Fin. Zuz., Lan Zuz. Ik. berraztertze-errekurtsio*.

**birkolokazio** [*recolocación*] ♦ *Lan Zuz.* Langilea kaleratua izan ondoren, beste enpresa batean enplegua lortzea.

**birsalmenta** [*reventa*] ♦ *Merkat. Zuz.* Zer-bait erosi eta berriz saltzea. Merkataritza Kodeak dio merkataritzakoa izango dela salerosketa, baldin eta irabaziak lortzea bada birsalmentaren asmoa, modu berean zein beste batean saltzen direla ere aurretiaz erositako ondasun higigarriak. **Oh.** MK, 325. art.

**birsistematzazio** [*resistemización*] ♦ *Zuz. T.* Sistema-izaera galdu duen arau multzoa sistema definitu batean berrantolatzean edo berregituratzean datzan ekintza eta horren ondorioa.



**birtasazio** [*retasación*] ♦ *Admin. Zuz.* Desjabetutako ondasuna edo eskubidea berriro balioestea. Hartarako du eskubidea jabeak edo tituludunak, ondasun edo eskubide horren bidezko prezioa zehaztu zenetik lau urte igaro arren ordaindu edo zainpean utzi gabe dagoenean. **Oh.** Nahitazeko desjabetze Legea, 58. art.

**bista** [*vista*] ♦ *Zuz. Proz.* **1.** Jurisdikzio-organoaren aurrean burutzen den jendaurreko jarduera prozesala; alderdiek parte hartzen dute eta epaiketa bat prestatzea edo burutzea, inzitidente bat aztertzea, alderdien alegazioak entzutea eta frogak proposatzea edo burutzea du helburu. **2.** Epaitza emateko jurisdikzio-organoaren aurrean alderdiekin burututako jendaurreko epaiketa. Ahozko ekitaldia da, baina jardunaren idatzizko dokumentazio edo ikus-entzunezko grabazioei kalterik egin gabe. **Sin.** *ikustaldi*. **Ik.** *ahozko bista*.

**bitartekari** [*mediadora, mediador*] ♦ *Zuz. Proz.*, *Lan Zuz.* Alderdien arteko gatazkak konpontzeko helburuarekin akordioetara heltzen laguntzen duen hirugarrena. Haren helburua gatazkaren parte diren alderdien ikuspegiak hurbiltzen saiatzea da. ♦ *Zuz. Zib.* Kontratu zehatz bat gauzatu dezaten, hori egiteko borondatea duten pertsonak harremanetan jartzeko zeregina bere gain hartzen duen pertsona, salneurri baten truke. Bere salneurrieskubidea sortzeko, beharrezkoa da alderdien arteko kontratua gauzatzea. **Ik.** *bitartekotza*.

**bitartekaritza** [*mediación*] ♦ *Zuz. Proz.*, *Admin. Zuz.*, *Zig. Zuz.* Gatazkak konpontzeko jurisdikzioz kanpoko prozedura, non hirugarren batek parte hartzen baitu alderdien arteko ikuspuntu kontrajarriak hurbiltzeko eta akordio bat lortzeko. Lortutako konponbideak dokumentu pribatu baten ondoreak izango ditu. **Sin.** *bitartekotza*. ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Nazioarteko gatazken konponketa-prozedura, jurisdikzionala ez dena, zeinaren bidez hirugarren batek lotesleak ez di-

ren konponketa proposamenak egiten baititu aldeen akordioa ahalbidetearren. **Oh.** NBG, 33. art. **Sin.** *artekaritza-lan*. ♦ *Lan Zuz.* Bitartekoa-ren laguntzarekin, gatazkan dauden alderdiek adostasuna lortzeko prozedura. Bitartekariak konponbideak proposatzen ditu, eta alderdiek konponbidea onartzea ezinbestekoa da. Bes-tela, gatazkek irekia jarraitzen du. ♦ *Zuz. Zib.* Salneurri baten truke, kontratu zehatza egiteko borondatea duten pertsonak harremanetan jartzean datzan aldebiko kontratua. Bitartekotza-kontratutik salneurria jasotzeko eskubidea sortzeko, beharrezkoa da alderdien arteko kontratua gauzatzea.

**bitarteko egiletza** [*autoría mediata*] ♦ *Zig. Zuz.* Instrumentu bat bitartekari gisa erabiliz delitua burutzea inplikatzeko duen egiletza mota. **Oh.** ZK, 28. art.

**bitarteko erakunde** [*entidad interpuesta*] ♦ *Fin. Zuz.* Arau-hausle batek bere nortasuna ezkatatzeko asmoz eta bereak diren ondasun, eskubide edo irabazien tributazioa ekiditeko asmoz sortutako erakundea, guzti horientatik gutxiago tributatzeko erabiliko duena.

**bitarteko funtzionario** [*funcionaria interina, funcionario interino*] ♦ *Admin. Zuz.* Premiazko arrazoiak direla eta, karrerako funtzionario publikoari dagokion plaza hutsa modu iragan-korreetan betetzeko izendatutako pertsona.

**bitarteko pertsona** [*persona interpuesta*] ♦ *Fin. Zuz.* Arau-hausle batek bere nortasuna ezkatatzeko asmoz eta bereak diren ondasun, eskubide edo irabazien tributazioa ekiditeko asmoz erabiltzen duen pertsona, guzti horientatik gutxiago tributatuko duena.

**bitartekoen nahikotasun-printzipio** [*principio de suficiencia de medios*] ♦ *EB. Zuz.* **Ik.** *baliabideen nahikotasun-printzipio*.

**bitartekotza** [*mediación*] ♦ *Zuz. Proz.*, *Admin. Zuz.*, *Lan Zuz.*, *Zig. Zuz.* **Ik.** *bitartekaritza*.

**bitartekotza-kontratu** [*contrato de mediación*] ♦ *Merkat. Zuz.* Kontratu mota bat zeinaren bitartez, alderdi batek (bitartekariak), ordainsari baten truke, hirugarren bat bilatzeko obligazioa hartzen baitu, beste alderdiak harekin kontratua egin dezan.

**bizi arteko pentsio** [*pensión vitalicia*] ♦ *Lan Zuz.* Bizi artean aitorturiko pentsioa.

**bizi- eta heriotza-eskubide** [*derecho de vida y muerte*] ♦ *Zuz. Err. Potestas familiae* dela eta *paterfamilias* batek bere potestatepean ziren senide eta esklaboak epaitzeko eta haiei heriotza-zigorra emateko duen ahalmena. **Sin.** *ius vitae necisque*.

**biziarteko errenta kontratu** [*contrato de renta vitalicia*] ♦ *Zuz. Zib.* Ondasun higigarri edo higiezin osaturiko kapital baten truke, pertsona zehatz baten edo batzuen bizitzan zehar urteko pentsioa eta korrituak ordaintzera behartzen duen kontratu mota. **Oh.** KZ, 1802. art. eta hurr.

**bizigarritasun 1** [*habitabilidad*] ♦ *Zuz. Zib.* Legeak ezarritako arauak beteta, etxebizitza edo lokal batek lor dezakeen nolakotasuna, bertan bizitzea baimentzen duena.

**bizigarritasun 2** [*viabilidad*] ♦ *Zuz. Zib.* Efectu zibiletarako gaitasun juridikoa eskuratzeko bizitzeko gaitasunez jaiotzea.

**bizikidetzaren printzipio demokratiko** [*principio democrático de convivencia*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Sistema demokratikoa duten herrialdeetan elkarbizitza baketsua bideratzeko zehazten diren printzipioak. Horien artean daude, besteak beste, pertsonaren duintasunaren printzipioa eta nortasunaren garapen librearena, betiere, oinarriko eskubideen, legeen eta zuzenbide-estatuaren arabera diren heinean.

**bizileku** [*domicilio*] ♦ *Admin. Zuz., Konst. Zuz., Zuz. Err.* Pertsonak bizi ohi diren lekua. **Ik.** *egoitza*.

**biziraupen-prestazio** [*prestación de supervivencia*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *biziraupenagatiko prestazio*.

**biziraupenagatiko prestazio** [*prestación de supervivencia*] ♦ *Lan Zuz.* Hildakoarekiko menpekotasun ekonomikoa zuen, eta bizirautean duen pertsonari aitorturiko prestazioa. **Sin.** *biziraupen-prestazio*.

**bizitanle** [*habitante*] ♦ *Admin. Zuz., Kons. Zuz.* Auzoko, hiriko, probintziako, autonomia-erki-degoko zein estatuko biztanleria osatzen duten pertsonen arteko bakoitza.

**biztanleria** [*población*] ♦ *Admin. Zuz.* Leku jakin batean bizi diren pertsonen multzoa.

**bizitantze-eskubide** [*derecho de habitación*] ♦ *Zuz. Zib.* Jabearena den higiezin baten zati bat erabiltzeko titularrak duen eskubidea, bera eta bere familia bertan bizitzeko.

**blasfemia** [*blasfemia*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Jainkoa edo gauza sakratuak hitzez edo bestelako adierazpideen bitartez iraintzea. Eredu konfesionalan, erlijio ofizialaren kontrako irainek zigor penala dute. Estatu demokratiko neutraletan, berriaz, erlijio-kategoriak ez dira berariaz babesten; bai, ordea, herritarren erlijio-sentimenduak.

**blokeorako gutxiengo** [*minoría de bloqueo*] ♦ *EB. Zuz.* EBko Kontseiluaren baitan erabakiak hartzeko beharrezkoa den gehiengo kualifikatuari lotuta, gehiengo hau osatzea eragoz dezakeen boz kopurua. **Oh.** EBT, 16.4 art., EBFT, 238.3. a) art.

**bokazio** [*vocación*] ♦ *Zuz. Zib.* Kausatzai-learen oinordetzan parte hartzeko egiten den deialdi orokor eta abstraktua, hura hiltzean oinordeko izateko aukera eta gaitasuna duten pertsona guztiei luzatzen zaiona. **Ik.** *oinordeko, delazio*.

**boluntarismo** [*voluntarismo*] ♦ *Zuz. T.* Borondateari lehentasuna ematen dion doktrina. Teoria iusnaturalisten arabera, Zuzenbide natu-

ralaren jatorria Jainkoaren borondatean datzala defendatzen duena.

**borondate** [*voluntad*] ♦ *Zuz. T.* Ekintza-bide jakin bat askatasunez aukeratzeko ahalmena. **Sin.** *nahimen*.

**borondate-adierazpen** [*declaración de voluntad*] ♦ *Zuz. Zib.* Efektu juridiko bat lortzeko nahia aditzera ematen duen egintza juridikoa.

**borondatearen autonomia** [*autonomía de voluntad*] ♦ *Zuz. T.* Gizabanakoak bere portaera bideratuko duten arau moralak bere kabuz sortzeko duen ahala.

**borondatezko bilketa** [*recaudación voluntaria*] ♦ *Fin. Zuz.* Borondatezko epean burutu-tako zerga-bilketa.

**borondatezko foru** [*fuero voluntario*] ♦ *Zuz. Proz.* Demandatzaileak epai-organo baten lurralde-eskumena zenbaiten artean aukeratzeko duen aukera.

**borondatezko gizarte aurreikuspen** [*previsión social voluntaria*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren derrigorrezko mailaz haratago, borondatezkoa den maila osagarria. **Oh.** EK, 41. art.

**borondatezko hobekuntza** [*mejora voluntaria*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren derrigorrezko mailaz haratago, borondatez sortzen den maila osagarria, ekarpen gehigarria egitea eskatzen duena. **Oh.** GSLO, 43. art.

**borondatezko jaraunsle** [*heredera voluntaria, heredero voluntario*] ♦ *Zuz. Zib.* Nahitaezko jaraunsle ez izanda, kausatzaileak jaraunsle izendaturiko pertsona.

**borondatezko jurisdikzio** [*jurisdicción voluntaria*] ♦ *Zuz. Proz.* Oro har, alderdien artean uzirik edo eztabaidarik ez dagoenean jurisdikzio-organoek zuzenbidearen arlo pribatuaren inguruan burutzen duten jardueramultzoa.

**borondatezko konkurtso** [*concurso voluntario*] ♦ *Merkat. Zuz.* Zordunaren eskariz hasitako konkurtsoa. Horretarako, konkurtso-eskaeran, zordunak bere oraingo edo hurbileko zorpetzea eta kaudimengabezia adierazi behar du. Zordunak konkurtso-deklarazioa epe baten barruan eskatzeko obligazioa dauka, alegia, bere kaudimengabezia egoera ezagutzen duenetik edo ezagutu beharko lukeen unetik hasi eta hurrengo bi hilabeteen buruan. **Oh.** KonL, 2.3 eta 5.1 art.

**borondatezko oinordeko** [*sucesora voluntaria, sucesor voluntario*] ♦ *Zuz. Zib.* Nahitaezko oinordeko ez izanda, kausatzaileak oinordeko izendaturiko pertsona; legeak nahitaezko oinorde gisa aurreikusi ez duen eta oinorde izendapena jasotzen duen pertsona.

**borondatezko oinordetza** [*sucesión voluntaria*] ♦ *Zuz. Zib.* Kausatzailearen borondatea dela medio ordenatutako *mortis causa* oinordetza. Kausatzaileak horretarako tresna ezberdinak ditu eskura: testamentua, oinordetza ituna edo komisario bidezko ordenazioa. **Ik.** *legezko oinordetza, oinordetza misto*.

**borondatezko tasun** [*voluntariedad*] ♦ *Lan Zuz.* Lan-harremanaren ezaugarria, langileak lana borondatez egiten duela adierazten duena. **Oh.** LE, 1.1 art.

**bortxaezintasun** [*inviolabilidad*] ♦ *Konst. Zuz.* Zenbait karguri atxikitako pribilegioa; pribilegio horren arabera, kargudun batzuk libre daude beren funtzioak betetzean buruturiko ekintzen ondoriozko zigor-erantzukizunetik.

**bortxaketa** [*violación*] ♦ *Zig. Zuz.* Sexu-askatasunaren aurkako delitua; sexu-erasoa baginatik, uzkitik zein ahotik haragitzea denean edota lehenengo bi bide horietako batetik gauzak sar-tzean burutzen da. **Oh.** ZK, 179. art.

**botere** [*poder*] ♦ *Zuz. T.* **1.** Zerbait egiteko ahala, eskua edo indarra. **2.** Herri batean eratutako agintaritza edo edozein autoritate. ♦ *Konst. Zuz. Ik. aginte*.

**botere-banaketa** [*división de poderes*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *boterearen banaketa.*

**botere betearazle** [*poder ejecutivo*] ♦ *Konst. Zuz. Ik.* *aginte betearazle.*

**botere-desbideratze** [*desviación de poder*] ♦ *Admin. Zuz. Ik.* *aginte-desbideratze.*

**botere-eskuordetze** [*delegación de poder*] ♦ *Zuz. T.* Organo bateko pertsona juridikoak bere duen eskuduntza beste organo bateko pertsona juridikoaren esku uztean datzan ekintza eta horren ondorioa.

**botere esleitzaille** [*poder adjudicador*] ♦ *Admin. Zuz.* Arlo publikoko kontratuak esleitzeko ahala duen erakundea. Erakunde mota honetan sartuko dira administrazio publikoak; fundazio publikoak; Gizarte Segurantzarekin lankidetzan diharduten mutualitateak; aipatutako entitate horiek interes orokorrak asetzeko berariaz sortu eta kontrolatutako entitateak; eta aurreko horiek guztiek osatutako elkarteak. **Oh.** 9/2017 Legea, 3.3. eta 316.-320. art. **Sin.** *aginte esleitzaille.*

**botere inplizituen doktrina** [*doctrina de los poderes implícitos*] ♦ *EB. Zuz.* Jurisprudenzian finkaturiko doktrina, zeinaren arabera, nazioarteko erakunde batek, espresuki esleitu zaizkion ekumenez gain, beste edozein eskumen ere eskura baitezake, beti ere, eskumen hori nahitaezko badu tratatu sortzailean ezarritako helburuak lortzeko edota erakundeari dagokion funtzioak egikaritzeko.

**botere judizial** [*poder judicial*] ♦ *Konst. Zuz. Ik.* *aginte judizial*

**botere judizialaren gobernu** [*gobierno del poder judicial*] ♦ *Zuz. Proz.* Jurisdikzio-funtzioa betetzen duten epaile eta magistratuak zuzentzeko antolaketa administratiboa. Botere judizialaren gobernu Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari dagokio, baina badaude bestelako gobernu-organoak ere, eremu mu-

rritzagoa dutenak: gobernu-salak, presidenteak eta epaileak. **Sin.** *epai-boterearen gobernu.*

**botere konstituziogile** [*constituyente*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *konstituziogile.*

**botere legegile** [*poder legislativo*] ♦ *Konst. Zuz. Ik.* *aginte legegile.*

**botere politiko** [*poder político*] ♦ *Konst. Zuz.* Gobernu-sistema baten barruan kargudun diren funtzioen egikaritzari eusten dion logika.

**botere publikoen inpartzialtasun** [*imparcialidad de los poderes públicos*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Erlijio-fenomenoaren aurrean konfesionalak ez diren estatuak inolako baloraziorik egin gabe gorde beharreko neutraltasun jarrera, herriarren erlijio-askatasuna eta demokraziaren oinarri den pluraltasuna bermatzeko ezinbesteko dena. **Oh.** EK, 16.3 art. **Ik.** *estatu-akonfesional, estatu neutral.*

**botere subirano** [*poder soberano*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Subiranotasuna oinarri duen botere edo eskuduntza berariazkoa, inork lagatu gabea.

**boterearen banaketa** [*división de poderes*] ♦ *Zuz. T.* Estatuaren eginkizunen edo funtzioen ordenazioa, horietako bakoitza organo edo erakunde-multzo bati esleitzean datzana. **Sin.** *botere-banaketa.*

**boto** [*voto*] ♦ *Konst. Zuz. 1.* Neurri bat onetsi edo baztertzeko zein ordezkariak hautatzeko deituak izan diren pertsonetako bakoitzak adierazitako iritzi edo borondatea. **2.** Hauteskunde-prozesu batean hautesleek iritzia adierazteko erabili duten paper edo idazkietako bakoitza. **Sin.** *bozka.*

**boto-eskubide** [*derecho de voto*] ♦ *Merkat. Zuz.* Bazkideek baltzuaren batzarrean botoa emateko duten eskubidea, ukatu ezin zaiena. Akzio/partizipazioen balio nominalaren araberrako proportzioa jarraituz baliatzen da eskubide hori. Hala ere, salbuespen gisa, legeak onartzen

du botorik gabeko akzio/partizipazioak sortzea. Bestalde, sozietate anonimoen kasuan, estatutuetan ezar daiteke bazkide bakoitzak edota talde bereko baltzuek gehienez eman ahal izango duten boto-kopurua. **Oh.** KLTL, 188. art.

**bozeramaile** [*portavoz*] ♦ *Konst. Zuz.* Talde baten ordezkari izanda, haren izenean hitz egiteko gaitasuna duen pertsona.

**bozka** [*voto*] ♦ *Konst. Zuz.* **Ik.** *boto.*

**bozketa** [*votación*] ♦ *Konst. Zuz.* Bozka ematea.

**bultzada prozesal** [*impulso procesal*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuak aurrera egin dezan — baita fase desberdinetan ere — beharrezkoa den jarduna.

**burtsa** [*bolsa*] ♦ *Merkat. Zuz.* Erakunde pribatu bat, izaera bereziko sozietate anonimoa, Baloreen Merkatuko Komisio Nazionalaren ikuskaritzapean jarduten duena, baloreen merkatu sekundario ofizial gisa. Erakunde honen jarduera nagusia da balore negoziagarrien eta bestelako tresna finantzieroen gaineko negoziazioak ahalbidetzea. **Oh.** BML, 43. art. eta hurr.

**buru-nahaste iragankor** [*trastorno mental transitorio*] ♦ *Zig. Zuz.* Igarokorra den anomalia edo aldakuntza psikikoa, erantzukizun penala salbuesten duena, baldin eta pairatzen duen subjektuaren egozgarritasuna guztiz baztertzen badu. **Oh.** ZK, 20.1 art.

**burubabes** [*autodefensa*] ♦ *Zuz. Proz., Zuz. T.* **Ik.** *autodefentsa.*

**burujabetasun** [*independencia, soberanía*] ♦ *Konst. Zuz.* **Ik.** *independentzia.*

**burutze** [*consumación*] ♦ *Zig. Zuz.* Tipo penalaren elementu guztiak gauzatzean gertatzen den *iter criminisaren* fasea. **Oh.** ZK, 15. eta 61. art.

**buruzagitza** [*jefatura*] ♦ *Konst. Zuz.* Buruzagiaren kargua.

# C

---

**Calvo klausula** [*cláusula Calvo*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Estatu batek atzerriko partikularrekin egindako kontratuen kasuan ezartzen den kontratu bidezko praktika zaharkitua, zeinaren arabera partikular horiek estatu horretako nazionalekin parekatuz, xedatzen baita estatu horren autoritateen aurrean erreklamazioak aurkezteko eta bere babes diplomatikoari uko egiteko obligazioa.

**causa expropiandi** [*causa expropiandi*] ♦ *Admin. Zuz.* Nahitaezko desjabetzea justifikatzen duen onura publiko edo gizarte-interesa. **Oh.** Nahitaez Desjabetzeko Legea, 9. art. eta hurr.

**causa petendi** [*causa petendi*] ♦ *Zuz. Proz.* Herritarrek epaileen aurrean aurkezten duten eskaeraren edo uziaren justifikazio eta oinarria. Arlo pribatuan, alegia, egitateak. **Sin.** *eskatzeko kari.*

**cognitio** [*cognición*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *kognizio, prozedura.*

**cognitio extra** [*ordinem procedimiento extraordinario*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *ezohiko prozedura.*

**cognitor** [*representante procesal*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *ordezkari prozesala.*

**commodatum** [*comodato*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *komodato.*

**consilium domesticum** [*consejo doméstico*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *ahaide-kontseilu.*

**consul** [*cónsul*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *kontsul.*

**culpa akiliarra** [*damnum iniuria datum, culpa aquiliana*] ♦ *Zuz. Err.* Bidegabekeria edo neglijentzia tarteko, pertsona batek beste baten aurka egindako delitu pribatua, mina edo kalteak eragiten dituena. *Lex Aquilia de damno* batek sortu zuenez, gaur egun «kulpa akiliar» izenez ezagutzen da. Aurrerago, bi kulpa mota bereizi zituen Zuzenbide Erromatarrak

# D

---

*dammun iniuria datum* [*culpa aquiliana*] ♦ *Zuz. Err. Ik. culpa akiliarra.*

**debekatu** [*prohibir*] ♦ *Zuz. T.* Zerbait egiten ez utzi, batik bat Zuzenbidez edo aginduz, eta zigor baten mehatxupean.

**debekatutako froga** [*prueba prohibida*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuan erabili ezin den froga, hura lortzeko oinarriko eskubideak urratu direlako.

**debeku** [*prohibición*] ♦ *Admin Zuz., Zuz. Zib.* Zerbaiten erabilera edo betearaztea galaraztea.

**debeku-okerr** [*error de prohibición*] ♦ *Zig. Zuz.* Egileak burututako egitatearen ez-zilegitasunari buruzko okerra, gaindiezina izanez gero erantzukizun penala baztertzen duena. Okerra gaindigarria izanez gero, zigorra arinduko da. **Oh.** ZK, 14.3 art. **Ik.** *erruduntasun.*

**deduzigarritasun** [*deducibilidad*] ♦ *Zuz. T.* Arau-sistema estatikoen ezaugarria, sistemaren barneko menpeko arauak sistema bereko arau independenteetatik logikoki deduzitzen direla berekin dakarrena.

**defendatzaile** [*defensora, defensor*] ♦ *Konst. Zuz. 1.* Zerbaiti edo norbaiti babesa ematen dion pertsona. **2.** [(Herriaren) Defendatzailea] Nafarroan eta Espainian herritarren eskubideak

bermatzen dituen agintaritza, hango botere exekutiboak edo legegileak herritarrei eragin diezazkiekeen abusuen aurka jarduten duena. **Ik.** *Ararteko.* ♦ *Zuz. Proz.* Epaiketan defentsa-lanak egiten dituen pertsona.

**defendatzaile judicial** [*defensora, defensor judicial*] ♦ *Zuz. Zib., Zuz. Proz.* Behin-behineko babes erakundea. Defendatzaile judiciala gainontzeko babes-erakundeek estaltzen ez dituzten hutsuneak betetzeko izendatzen da. Hala nola, ordezkariaren eta ordezkatuaren arteko interes-gatazka gertatzen denean; ordezkariak funtzioak uzten dituen; beste ordezkari bat izendatu bitartean, edo, tutorea izendatzeko prozedurak iraun bitartean.

**defentsa** [*defensa*] ♦ *Zuz. Proz.* Epaiketan ordezkatatutako pertsonaren interesen alde abokatuak burututako egintza.

**defentsa-eskubide** [*derecho de defensa*] ♦ *Zuz. Proz.* Benetako babes judizialean bildutako eskubidea. Haren bidez, edozein prozeduratan alderdiek kontraesanean alegatu eta frogatu ahal izango dituzte beren uziak, eskubideak eta interesak, defentsa-gabeziarik sortu gabe.

**defentsa-gabezia** [*indefensión*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozedura judizialean, modu bidegabean, al-

derdien defentsa-aukerak mugatzearen edo eragoztearen ondorioz sortutako egoera. **Sin.** *babesgabetsun, babesgabezia*.

**defentsa-idazki** [*escrito de defensa*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozedura laburtuko ahozko epaiketa hasteko autoa eman ostean, alderdi akusatua-ren defentsak aurkezten duen dokumentua. Akusazioekiko ondorio zenbatu eta korrelati-boak zehazten dira idazkian, haietariko bakoitzari dagokionez adostasuna edo desadostasuna adieraziz, eta frogak eskatzen dira. **Oh.** PKL, 784. art.

**dei** [*citación*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** zitazio.

**dei** [*convocatoria*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** deialdi.

**deialdi** [*convocatoria*] ♦ *Admin. Zuz., Konst. Zuz.* **1.** Kide anitzeko organo baten kideei helarazitako bilerarako iragarkia edo komunikazioa, gaizerrenda barne duena. **Sin.** *dei*. **2.** Ekintza baten iragarki publikoa, interesa duten pertsoneri zuzendua, interesdunek hartan parte hartu ahal izan dezaten egindakoa, eta, oro har, herritarrek jakinaren gainean jartzeko argitaratua. ♦ *Zuz. Zib.* Pertsona bati edo gehiagori, ekintza konkretu batean parte har dezaten helarazten zaien iragarki edo idatzia. Adibidez: Jabetza Horizontalean, edo sozietateetan, bile-retan parte hartu ahal izateko, jabe-kide guztiei edo bazkide guztiei helarazten zaien iragarkia. **Ik.** *bokazio*.

**deklaratu beharraren dispensa** [*dispensa de la obligación de declarar*] ♦ *Zuz. Proz.* Legeak zehaztutako kasuetan deklaratu beharra ez betetzeko lekukoek duten ahalmena. Deklaratzeko betebeharretik askatuta daude: auzipetuari dagokionez, aurrekoenganako eta ondorengoenganako zuzeneko lerroan dauden ahaideak, haren ezkontidea, odolbidezko nahiz sabeleko neba-arrebak eta bigarren gradu zibilerainoko albokoak; auzipetuaren abokatu-a, hark defendatzaile gisa abokatuari azaldu dizkion egitateei dagokienez; ikertu, auzipetu

edo akusatuak, eta aurreko pertsonen arteko elkarrizketa eta komunikazioen itzultzaile eta interpreteak, haien itzulpen edo interpretazioak ukitutako egitateei dagokienez. **Oh.** PKL, 416. art. **Sin.** *deklaratu beharraren lekapen*.

**deklaratu beharraren lekapen** [*dispensa de la obligación de declarar*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *deklaratu beharraren dispensa*.

**deklarazio** [*declaración*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuan, auzia argitzeko, froga gisa aintzakotzat hartutako alderdien edo lekukoaren azalpena. **Sin.** *adierazpen*. ♦ *Fin. Zuz.* **Ik.** *aitorpen*.

**deklarazio interpretatzaile** [*declaración interpretativa*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* **Ik.** *adierazpen interpretatzaile*.

**deklinatoria** [*declinatoria*] ♦ *Zuz. Proz.* Kasuan kasuko demandatuak edo prozesuko alderdi pasibo izan daitekeen edonork auziaz ezagutzen ari den epai-organoren jurisdikzio edo eskumen falta salatzeke duen tresna prozesala.

**dekretu** [*decreto*] ♦ *Konst. Zuz.* Ministroen Kontseiluak bere eskumenen barruan egindako arau juridikoa. ♦ *Zuz. Proz.* Justizia Administrazioaren letraduaren ebazpen arrazoitua, legeak aurreikusitako egoeretan ematen dena. Oro har, demanda onartzeko edo letraduak prozedurari amaiera emateko erabiltzen den ebazpen mota.

**delazio** [*delación*] ♦ *Zuz. Zib.* Oinordeko gisa egiten den deialdi zehatza. Deituak jaraunspena onartzeko edo zapuzteko aukera izango du (*ius delationis*).

**delegazio** [*delegación*] ♦ *Konst. Zuz.* Pertsona edo talde batek hirugarren bati ematea berari dagokion botere edo gaitasunen bat.

**delitu** [*delito*] ♦ *Zig. Zuz.* Legeak zigortzen dituen dolozko edo zuhurtziagabekeriako egiteak eta ez-egiteak. **Oh.** ZK, 10. art.



**delitu erdipribatu** [*delito semiprivado*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *delitu erdipubliko.*

**delitu erdipubliko** [*delito semipúblico*] ♦ *Zuz. Proz.* Jazartzeko, biktimaren alde aurreko salaketa eskatzen duen delitua. **Sin.** *delitu erdipribatu.*

**delitu gori** [*delito flagrante*] ♦ *Zuz. Proz.* Delitua, delitugilea hura egiten ari dela edo egin berri duela ustekabean harrapatzen denean. Modu berean, delitu gorizat hartzen da, delitu hori egin eta segituan delitugilea atxilotzen denean edo segika ibiltzen zaionean, baldin eta jazarpenak irauten badu edo jazarpenera eteten ez bada delitugilea jazartzailen eskumenetik kanpo ez dagoen bitartean, eta baita ere delitua egin eta berehala delitugilea harrapatzen denean efektu, tresna edo arrastoak dituela, horiek ahalbidetzen badute delituaren parte-hartzea susmatzea. **Oh.** PKL, 795.1.1 art.

**delitu jarraitu** [*delito continuado*] ♦ *Zig. Zuz.* Egitate tipiko anitz prozesu bakar eta jarraitu baten zati moduan ulertuak izatea; hau da, egitateak aurretik prestatutako plan oso baten zati direnean edo sortutako aukera berdina erabiliz egiten direnean. Erantzuleari arau-hauste astunenaren zigorra ezarriko zaio goiko erdian, baldin eta urratutako arauak izaera berekoak edo antzekoak badira. **Oh.** ZK, 74. art.

**delitu-jazarpen** [*persecución del delito*] ♦ *Zuz. Proz.* Delituzko egitateak eta haien erantzuleak ikertzera, frogatzera eta zigortzera zuzendutako jarduera prozesala. **Sin.** *delituaren jazarpen.*

**delitu-lotura** [*conexión de delitos*] ♦ *Zuz. Proz.* Epaitu beharreko delituzko egintzen arteko lotura, guztiak prozedura bakar batean epaitzea dakarrena. **Sin.** *delituen lotura.*

**delitu-masa** [*delito masa*] ♦ *Zig. Zuz.* Delitu jarraituaren modalitate bat, soilik ondarearen aurkako arau-hausteen kasuan gerta daitekeena, betiere, pertsona askori eragiten badie eta

larritasun nabarmeneko egitatea bada. Beraz, «iruzur kolektibo» egoeran egongo ginateke, non subjektu aktiboek ez baitute elkarrekin harremanik, pertsona multzo bati sortzen baitie kalte ekonomikoa. **Oh.** ZK, 74.2 art.

**delitu-pilaketa erreal** [*concurso real de delitos*] ♦ *Zig. Zuz.* Egitate-aniztasun baten ondorioz delitu bat baino gehiago eratzea. Erantzuleari delitu guztien zigorrak ezarriko zaizkio batera betetzeko; hori bideragarria ez bada, bata bestearen ondoren beteko dira haien astuntasunaren hurrenkeraren arabera, betiere, kodeak ezarritako mugak betez. **Oh.** ZK, 73., 75. eta 76. art.

**delitu-pilaketa ideal** [*concurso ideal de delitos*] ♦ *Zig. Zuz.* Egitate bakarrak delitu bi edo gehiago eratzea. Erantzuleari arau-hauste astunenaren zigorra goiko erdian ezarriko zaio. Zigor horrek ezin du gainditu arau-haustek banaturik zigortuz gero ezarri beharreko zigorrerak dakarren zigorra; bestela, arau-haustek banaturik zigortuko dira. **Oh.** ZK, 77. art.

**delitu pribatu** [*delito privado*] ♦ *Zuz. Proz.* Jazartzeko, ofendituaren edo beraren legezko ordezkariaren kereila eskatzen duen delitua. Delitu pribatuak dira partikularren kontrako iraina eta kalumnia. **Oh.** ZK, 215.1 art.

**delitu publiko** [*delito publico*] ♦ *Zuz. Proz.* Ofizioz jazargarria den delitua. Horregatik, nahiz eta ofendituak edo kaltetuak delituzko egitatea ez salatu edo kereila ez jarri, Ministerio Fiskalak egikaritu du zigor-akzioa.

**delitua kalifikatze** [*calificación del delito*] ♦ *Zuz. Proz.* Burututako delituzko egitatea legegaren arabera egokia den zigor-tipoan sartzeta. **Oh.** PKL, 649. art.

**delituaren gorputz** [*cuero del delito*] ♦ *Zuz. Proz.* **1.** Delituzko egitatearen objektua den elementu edo pertsona. **2.** Delituzko egitatea eta haren erantzulea argitzeko baliagarria den edozein elementu. **Oh.** PKL, 334. art. eta hurr.

**delituen jazarpen** [*presecución del delito*]

◆ *Zuz. Proz.* **Ik.** delitu-jazarpen.

**delituen teoria orokor** [*teoría general del delito*]

◆ *Zig. Zuz.* Zuzenbide positibotik abiatuta, delituen teoria orokorrak delitu guztien edo delitu talde baten ezaugarri komunak egituratzen ditu. Ezaugarri horiek Zigor Zuzenbidearen zati orokorrean daude.

**delituen lotura** [*conexión de delitos*]

◆ *Zuz. Proz.* **Ik.** delitu-lotura.

**delitugile** [*autora, autor del delito*]

◆ *Zuz. Proz.* **1.** Delituzko egitatearen subjektu aktiboa, delitua egin duena. **2.** Orokorrean, delituzko egitatean parte hartzen duena.

**demanda** [*demanda*]

◆ *Zuz. Proz., Admin. Zuz., Zuz. Err.* Herritarrak, epai bidezko babes eraginkorrerako eskubidea egikaritzuz, prozesuari hasiera emateko aurkezten duen dokumentua edota prozesuaren hasierako fasea. Idazki honen edukirik garrantzitsuena demandatzaileak epaileari aurkezten dion uzia da.

**demanda errekonbentzional** [*demanda reconventional*]

◆ *Zuz. Proz.* Demandatuak, demandaren erantzuna aprobetxatuz, demandatzaileak martxan jarri duen prozedura berean beste uzi bat edo gehiago sartzeko dokumentua, uzi-metaketa bati bide ematen diona. **Sin.** errekonbentzio-demanda.

**demandaren anotazio prebentibo** [*anotación preventiva de la demanda*]

◆ *Zuz. Proz.* **Ik.** demandaren prebentziozko oharpen.

**demandaren erantzun** [*contestación a la demanda*]

◆ *Zuz. Proz.* Herritarrak, bere epai bidezko babes eraginkorrerako eskubidea egikaritzuz, beraren kontra hasi den prozesuaren eta uziaren erreazio gisa aurkezten duen dokumentua. Normalean, salbuespenak jaso ohi ditu.

**demandaren onarpen** [*admisión de la demanda*]

◆ *Zuz. Proz.* Herritarrak jarritako demanda aztertzeari eta, beraz, eskatutako pro-

zesuari epaileak baiezkoa ematea. Auzibitarre sortzen da haren ondorioz. **Ik.** auzibitarre.

**demandaren prebentziozko oharpen** [*anotación preventiva de la demanda*]

◆ *Zuz. Proz.* Inskriba daitekeen ondasun edo eskubide baten gainean eragina izan dezakeen epai bat lortu nahi den kasuan erabiltzen den kautelazko neurria. **Sin.** demandaren anotazio prebentibo.

**demandaren zabalkuntza** [*ampliación de la demanda*]

◆ *Zuz. Proz.* Epaiketa batean, hasieratik jarri den uziari (edo uziei) beste bat edo gehiago gehitzea jatorrizko demandatu edo demandatuen kontra, edota, halaber, hasieratik jarri den uzia (edo uziak) beste pertsona batzuen kontra aurkeztea.

**demandatu 1** [*demandada, demandado*]

◆ *Zuz. Proz., Zuz. Err.* Epaiketa batean posizio pasiboa betetzen duen alderdia. **Sin.** alderdi demandatu.

**demandatu 2** [*demandar*]

◆ *Zuz. Proz., Zuz. Err.* Demanda aurkeztu.

**demandatzaile** [*demandante*]

◆ *Zuz. Proz.* **Ik.** alderdi demandatzaile.

**demandatzaile zibil** [*actora, actor civil*]

◆ *Zuz. Proz.* **Ik.** auzijartzaile zibil.

**demarkazio-prozesu** [*proceso de demarcación*]

◆ *Nart. Zuz. Pu.* Mugarri izena hartzen duten marka iraunkorren bitartez, aldez aurretik nazioarteko tratatu nahiz erabaki judicial batek finkatutako muga bat lekuan bertan zehaztea dakarren ekintza teknikoa.

**demokrazia** [*democracia*]

◆ *Konst. Zuz.* **1.** Herritarren gobernu. **2.** Gobernu eta estatua antolatze modu bat, non herritarren subiranotasuna aitortzen baita. Gobernariak aukeratu eta kontrolatzeko ahalmena dute herritarrek.

**demokraziaren printzipio** [*principio de democracia*]

◆ *EB. Zuz.* Europar Batasunaren zein estatu kideen balio komuna. **Oh.** EBT, 2. art.

**denbora-egozpen** [*imputación temporal*] ♦ *Fin. Zuz.* Denbora-irizpideak erabiliz, zerga baten oinarri zergagarrian epe bateko sarrera eta gastuak noiz sartu adierazten duen erregela.

**denbora-eremu** [*ámbito temporal*] ♦ *Lan Zuz.* Hitzarmen kolektiboaren iraupenari dagokion eremua. **Oh.** LE, 86. art.

**denbora luzeko langabe** [*persona desempleada de larga duración*] ♦ *Lan Zuz.* Langabezian denbora luzez dagoen langabea; eskuarki, urtebetetik gora. **Oh.** EL, 30. art.

**denbora luzeko langabezia** [*desempleo de larga duración*] ♦ *Lan Zuz.* Denbora luzekoa den langabezia, eskuarki, urtebetetik gorakoa. Mota honetako langabeak enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituztenen artean kokatu ohi dira. **Oh.** EL, 30. art.

**deontologismo** [*deontologismo*] ♦ *Zuz. T.* Arau moralak guztiz autonomoak edo *sui generis* direla defendatzen duen ikuskera filosofikoa.

**deposito** [*depósito*] ♦ *Nart. Zuz. Pu. Ik. gordailutze.*

**depositum** [*depósito*] ♦ *Zuz. Err. Ik. gordailapen.*

**derogatu** [*derogar*] ♦ *Zuz. Zib. 1.* Lege edo arau bat indar gabe utzi, gehienetan beste batekin ordezkatuz. **2.** Indargabetu.

**derogazio** [*derogación*] ♦ *Zuz. T., Zuz. Zib.* Arauak indarrrik gabe uzteko ekintza eta horren ondorioa, jadanekotasuna galtzean datzana. **Sin.** indargabetze.

**derrigorrezko hezkuntza** [*educación obligatoria*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Konstituzioak aurreikusten du oinarrizko hezkuntza nahitaezko eta doakoa izango dela denentzat. Legeak, hain zuzen ere, hamar urteko eskolaldia aurreikusten du 6-16 urte bitartean. Botere publikoek zerbiztu publikoen bitartez bermatuko dute derri-

gorrezko hezkuntzarako eskubidea. **Oh.** EK, 27.1, 27.4, 27.5 art., 2/2006 LO, 4. art.

**derrigorrezko konkurtso** [*concurso necesario*] ♦ *Merkat. Zuz.* Zordunaren hartzeko-dunetariko baten eskariz hasitako konkurtsoa. Hartzekodunak bere konkurtso-eskaera zordunaren kontrako enbargua exekutatzeko tituluan oinarritu behar du, dagokion zorra odaintzeko ondasun nahikorik izan ez denean. Egoera horretaz gain, legeak zordunaren kaudimengabezia adierazten duten zenbait presuntzio ezartzen ditu, eta horiek ere balia ditzakete hartzekodunek konkurtso-eskaerak oinarritzeko. **Oh.** KL, 2.4 eta 3.1 art.

**derrigorrezko oinordeko** [*sucesora forzosa, sucesor forzoso.*] ♦ *Zuz. Zib. Ik. senipartedun.*

**derrigorrezko prestazio pertsonal** [*prestación personal obligatoria*] ♦ *Lan Zuz.* Pertsonak derrigorrez egin beharreko prestazioa. Derrigortasunak lan-harremanetik kanpo kokatzen du prestazio hau, ez baita borondatezkoa. **Oh.** LE, 1.1 art.

**derrigortasun** [*obligatoriedad*] ♦ *Zuz. T.* Nahitaezkoa edo beharrezkoa denaren nolakotasuna.

**derrigortze** [*coacción*] ♦ *Zig. Zuz.* Indarkeria erabiliz beste bati legeak debekatzen ez duena egiten eragozte edo egin nahi ez duena egitera behartzea. Zigorra astunduko da derrigortzearen helburua oinarrizko eskubide baten egikaritzea ekiditea denean. Derrigortzeak, aldiz, zigor arinagoa izango du portaerek izaera arina dutenean. **Oh.** ZK, 172-172 ter art.

**desadostasun** [*desacuerdo*] ♦ *Zuz. Zib.* Adostasun eza, harreman juridiko berriaren sorrera galaraziko duena.

**desadostasun-akta** [*acta de disconformidad*] ♦ *Fin. Zuz. Ik. desadostasuneko akta.*

**desadostasuneko akta** [*acta de disconformidad*] ♦ *Fin. Zuz.* Ogasunak likidatutakoare-

kin ados ez dagoelako zergapekoak edo bere ordezkariak sinatzen ez duen akta edo adostasun eza jasotzen duena. **Sin.** *desadostasun-akta*.

**desafektazio** [*desafectación*] ♦ *Admin. Zuz.* Ondasun baten afektazioaren amaiera zehazten duen deklarazioa. Horren ondorioz, ondasun hori jabari publikoko izatetik ondarezko ondasun izatera pasatzen da.

**desenkusa absolbitzaile** [*excusa absolutoria*] ♦ *Zig. Zuz.* Legez zehazturiko egoera, zeinaren arabera delitua zigor gabe geratzen baita. Portaera zuzenbide-kontrako eta tipikoa izango da, eta erruduntasuna dago, baina politika kriminaleko arrazoiak direla-eta ez da zigorra ezarriko. Adibidez, Zigor Kodearen 268. artikulua arabera, guraso eta seme-alaben arteko ebasaketak ez dira zigorgarriak izango.

**desgaikuntza** [*inhabilitación*] ♦ *Zig. Zuz.* Eskubideez gabetzeko zigorrak dira: kargu publikoaz gabetzen dutenak edo hautatua izateko eskubidea ukatzen dutenak; lan-jarduera zehatza mugatzen dutenak; edo guraso-ahalmenaren eskubidea, edo tutoretza-, zaintza- zein kuradoretza-eskubideak kentzen dituztenak.

**desgaikuntza berezi** [*inhabilitación especial*] ♦ *Zig. Zuz.* Eskubideez gabetzeko zigorra, kondena aldi bitartean enplegu edo kargu publikorako zein hautagai izateko eskubideez gabetzen duena, eta orobat lanbide, ogibide, industria nahiz merkataritzarako eskubideez edota guraso-ahalaren eskubideaz eta tutoretza-, zaintza- edo kuradoretza-eskubideez. **Oh.** ZK, 42. art. eta hurr.

**desgaitasun** [*discapacidad*] ♦ *Lan Zuz.* Pertsona baten ezaugarria, desgaitasunik ez duenarekiko desabantaila egoeran kokatzen duena, baita ere lanaren eremuan.

**desgaitasun** [*incapacidad*] ♦ *Zuz. Zib. Ik. ez-gaitasun*.

**desgaitasun-gradu** [*grado de discapacidad*] ♦ *Lan Zuz.* Desgaitasuna neurtzeko tasa. %33tik aurrera, pertsona, teknikoki, desgaitasuna duen pertsonatzat joko da.

**desgaitu** [*incapacitar*] ♦ *Zuz. Zib. Ik. ez-gaitu*.

**desgaitze** [*incapacitación*] ♦ *Zuz. Zib. Ik. ez-gaitze*.

**desjabetu** [*expropiar*] ♦ *Konst. Zuz.* Interes publikoa arrazoi delarik legearen barruan pertsona bati jabego bat kendu, normalean haren truke kalte-ordain bat emanez.

**desjabetze** [*expropiación*] ♦ *Admin. Zuz.* Gizarte-intereseko arrazoiak direla eta, eskubide bat, bidezko interesak zein jabetza pribatua kentzea, horren truke kalte-ordaina emanda.

**desjaraunspen** [*desheredación*] ♦ *Zuz. Zib. Sin. jaraunsgabetze*.

**deskargu-froga** [*prueba de descargo*] ♦ *Zuz. Proz.* Akusatuaren errugabetasuna oinarritzen duen eta epailearen balorazioaren menpe dagoen froga.

**deskolonizazio** [*descolonización*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Atzerriko potentzien menderatze politiko, sozial edota ekonomikoan dauden herrien kasuan, gobernu propioa osatu ahal izan dezaten egiten den prozesua.

**deskontzentrazio** [*desconcentración*] ♦ *Admin. Zuz.* Boterea zein eskumenak tituludun den organoaren mende dauden beste organo batzuen artean banatzea. **Oh.** 40/2015 Legea, 82. art.

**deslegeztapen** [*deslegalización*] ♦ *Admin. Zuz., Konst. Zuz., Zuz. Err.* Ordura arte lege araututako gai bat handik aurrera erregelamenduz arautuko dela adierazten duen legea. **Sin.** *deslegalizazio*.

**deslokalizatu** [*deslocalizar*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresa lan-kostu txikiagoak dauden beste leku batera joatea.

**deslokalizazio** [*deslocalización*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresa lan-kostu txikiagoak dauden beste leku batera joatearen fenomenoa.

**deslotu** [*desvincular*] ♦ *Konst. Zuz.* Zenbait pertsonaren edo gauzaren artean dauden loturak desegin.

**deslotze-tesi** [*tesis de desvinculación*] ♦ *Zuz. Proz.* Akusatzaileek egitateak akats nabariz kalifikatzeagatik, epaitu behar duen jurisdikzio-organoak erabil dezakeen ahalmena. Haren bitartez, alderdi akusatzaileek egindako kalifikazioa oker dagoela adierazten du, hartatik deslotzen da eta bere aburuz egokia dena proposatzen. **Oh.** PKL, 733. art.

**desobedientzia zibil** [*desobediencia civil*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Arau jakin bat betetzeari uko egitea, desadostasuna adierazteko erreakzio kolektibo eta baketsu gisa. Herrialde demokratikoetan, neurri honek helburu nagusi du arauaren bidegabekeria agerian jartzea eta gehien-agoa sentsibilizatuz berau alderaraztea.

**desplazamendu** [*desplazamiento*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuaren erabakiz, langilea aldi baterako lantokiz aldatzea, bere ohiko bizilekua aldatzea eragiten dion beste leku batera. **Oh.** LE, 40.6 art. **Ik.** *lekualdaketa*.

**destino-osagarri** [*complemento de destino*] ♦ *Admin. Zuz.* Funtzionarioen ordainsariaren zatia, lanpostuaren edo graduaren arabera.

**deszentralizazio** [*descentralización*] ♦ *Admin. Zuz., Konst. Zuz.* **1.** Autonomia-erkidego, probintzia edo udalerrri moduko estatuarenaren azpiko lurralde-antolakuntza, izaera politiko zein administratiboa izan dezakeena. **2.** Estatuarenaren azpiko egiturei modu autonomoan jarduteko ahal zabalak aintzatesten duen estatua antolatzeke era. **3.** Lurralde-administrazioen barruan kokaturik dauden mendeko erakundeen zein erakunde tutelatuen aldeko eskumenen eskualdatzea.

**determinazio askerako eskubide** [*derecho de libre determinación*] ♦ *Nart. Zuz. Pu. Ik. autodeterminazio-eskubide*.

**deusez** [*nulo*] ♦ *Zuz. Zib., Zuz. Proz., Nart. Zuz. Prib., Merkat. Zuz., Zuz. Err., Lan Zuz., Zuz. Adm.* Balio juridikorik ez duen egintzari dagokion izaera.

**deuseztagarri** [*anulable*] ♦ *Zuz. Zib., Zuz. Proz., Nart. Zuz. Prib., Merkat. Zuz., Zuz. Err., Lan Zuz., Zuz. Adm.* Baliogabetu daitekeen egintzari dagokion izaera.

**deuseztagarritasun** [*anulabilidad*] ♦ *Zuz. Zib., Zuz. Proz., Nart. Zuz. Prib., Merkat. Zuz., Zuz. Err., Lan Zuz., Zuz. Adm., Zuz. T.* Legeak pertsona jakin batzuei ematen dien bitarteko juridikoa, akastuna den egintza edo kontratu batek baliioduna edo baliogabea izan behar duen erabakitzeke. **Sin.** *deuseztasun erlatibo*.

**deuseztapen-errekurtsio** [*recurso de anulación*] ♦ *Zuz. Proz.* Akusatua egon gabe emandako kondena-epaien aurka balia daitekeen ezohiko inpugnazio-bidea. Baldintzei eta prozedurari dagokienez, legeak apelazio-errekurtsioari egiten dio erreferentzia. **Oh.** PKL, 793.2 art.

**deuseztapen-intzidente** [*incidente de nulidad*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesu baten emaitzaren kontra errekurtsorik ezin jar daitekeenean, oinarritzko eskubideak urratu direlakoan edo babesgabezia sortu duten forma-akatsak egon direlakoan, prozesu bat ezeztatzeke eskaria eta ondorengo izapidetzea. **Oh.** PZL, 228. eta BJLO, 241. art.

**deuseztasun** [*nulidad*] ♦ *Zuz. Zib., Zuz. Proz., Nart. Zuz. Prib., Merkat. Zuz., Zuz. Err., Lan Zuz., Zuz. Adm.* Egintza juridikoaren edo prozedura judizialaren erabateke edo jatorrizko baliogabetasuna. **Sin.** *erabateke deuseztasun, nulitate, zuzenbidezko deuseztasun*.

**deuseztasun-akzio** [*acción de nulidad*] ♦ *Admin. Zuz.*, *Zuz. Zib.*, *Zuz. Proz.* Egintza, kontratu edo xedapen baten deuseztasuna aitortzea bilatzen duen akzioa. **Oh.** 39/2015 Legea, 106. art.

**deuseztasun erlatibo** [*nulidad relativa*] ♦ *Zuz. Zib.* **Ik.** *deuseztagarritasun.*

**deuseztatu** [*anular*] ♦ *Zuz. Zib.*, *Zuz. Proz.*, *Nart. Zuz. Prib.*, *Merkat. Zuz.*, *Zuz. Err.*, *Lan Zuz.*, *Zuz. Adm.* Egintza bat baliogabetu.

**deuseztatzeko errekurtsio** [*recurso de anulación*] ♦ *EB. Zuz.* Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak Europar Batasuneko zuzenbidearen aurkakoak diren ekintzen gaineko legezko-tasun-kontrola egikaritzeko aukera zabaltzen duen akzio-bidea. **Oh.** EBFT, 263., 264. eta 266. art.

**dialektika** [*dialéctica*] ♦ *Zuz. T. 1.* Diskurtso edo eztabaida batek bere baitan biltzen dituen arrazoibideen eta argudiaketen multzoa. **2.** Kontrakoak diren arrazoibide zein argudioak alderatu eta azalduz diskurtsotan edo eztabaidetan egia aurkitzea ahalbidetzen duten teoria eta teknika erretorikoak.

**dibidendu** [*dividendo*] ♦ *Merkat. Zuz.* Kapital-sozietateetan lortutako onuretatik bazkideei banatzen zaien zatia, betiere legean nahiz sozietatearen estatutuetan zehaztutako baldintzak eta mugak errespetatuaz egiten dena. Dibidenduak banatu ahal izateko oinarritzko baldintza hauxe da: banaketaren ondorioz, sozietateko ondare netoaren balioa kapital soziala baino baxuagoa ez izatea. Ondare netoa kapital soziala baino baxuagoa denean, onurak zuzendu behar dira kopuruen arteko alde hori konpentsatzearen. Onuren banaketa egiten denean, bazkideak eskubidea du dagozkion dibidenduak jasotzeko, bere akzio edo partizipazio-kopuruaren arabera. **Oh.** KSL, 273.2 art.

**dibortzio** [*divorcio*] ♦ *Zuz. Zib.* Ezkontza lotura judicialki desagitea. Ezkontideek dibortzioa

adostasunez edo banaka eska dezakete. Ezkontza desagitearekin bat, ezkontzak sortutako efektu juridikoak bertan behera geratzen dira. **Oh.** KZ, 81. art. eta hurr.

**dies a quo** [*dies a quo*] ♦ *Admin. Zuz.* Epearen zenbaketa hasten den data.

**dies ad quem** [*dies ad quem*] ♦ *Admin. Zuz.* Epea amaitzen den data.

**dies fas** [*día fasto*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *egun fasto.*

**dies nec fas** [*día nefasto / día no fasto*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *egun nefasto.*

**digesta** [*digesto*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *digesto.*

**digesto** [*digesto*] ♦ *Zuz. Err. 1.* Jurisprudenteen erantzunak eta gainerako jurisprudentzia biltzeko balio zuen juristak berak egindako idatzien bilduma. **2.** Justiniano enperadoreak jurisprudentzia erromatar klasikoa biltzeko eta argitaratzeko 50 liburutan jasotako obra. **Sin.** *digesta, digesta Iustiniani, pandectae.*

**diktadura** [*dictadura*] ♦ *Konst. Zuz. 1.* Erregimen politiko mota bat, non pertsona batek edo pertsona talde batek mugarik gabeko botere osoa baitu. **2.** Erregimen politiko mota hori duen estatua.

**diligentzia** [*diligencia*] ♦ *Fin. Zuz.* Dokumentu publikoa, gertaerak jasotzeko nahiz zergapekoaren edo jarduketekin zerikusia duen pertsonaren adierazpenak biltzeko erabiltzen dena. Ezin izango du zergen likidazio-proposamenik eduki.

**dimisio** [*dimisión*] ♦ *Konst. Zuz.* Norbaitek zerbaiti uko egitea, bereziki kargu bati.

**diplomazia** [*diplomacia*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Estatu batek bere kanpo-politika aurrera eramateko egikaritzen dituen akzioen multzoa.

**diplomazia aldeaniztun** [*diplomacia multi-lateral*] ♦ *Nart. Zuz. Pu. 1.* Nazioarteko Erakundeen baitan egikaritzen den diplomazia.

2. Nazioarteko konferentzietan delegazioen parte-hartzearen bitartez egikaritzen den *ad hoc* diplomazia. **Sin.** *diplomazia multilateral*.

**diplomazia egonkor** [*diplomacia permanente*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Atzerrian kokatzen diren egitura egonkorren bitartez (enbaxadak nahiz bestelako bulegoak) estatu batek bere kanpo-politika aurrera eramateko egikaritzen dituen akzioen multzoa. **Sin.** *diplomazia iraunkor*.

**diplomazia iraunkor** [*diplomacia permanente*] ♦ *Nart. Zuz. Pu. Ik.* *diplomazia egonkor*.

**diplomazia multilateral** [*diplomacia multilateral*] ♦ *Nart. Zuz. Pu. Ik.* *diplomazia aldeaniztun*.

**diputatu** [*diputada, diputado*] ♦ *Konst. Zuz.*  
1. Diputatuen Kongresuko kidea. 2. Foru-diputazioen arduraduna.

**Diputatuen Kongresua** [*Congreso de los Diputados*] ♦ *Konst. Zuz.* 1. Diputatuz osaturiko Gorte Nagusien parte den ganbera. 2. Herri-tarren ordezkari-tza duen Parlamentuko behe-ganbera.

**diputazio** [*diputación*] ♦ *Admin. Zuz.* 1. Espainiako estatuan, eraentza orokorreko probintzietako erakunde administratiboa. 2. Euskal Autonomia Erkidegoan, lurralde historikoei dagokien erakunde administratiboa. **Ik.** *aldundi*. **Sin.** *foru-aldundi, foru-diputazio*. ♦ *Konst. Zuz.* Diputazio iraunkorra. Gorte Nagusietako ganbera bietan dagoen organoa, oporraldietan eta Parlamentua desagitean ganberaren funtzioak bere gain hartzen dituena. **Oh.** EK, 56.1, 3 art.

**direktiba delegatu** [*directiva delegada*] ♦ *EB. Zuz. Ik.* *zuzentarau delegatu*.

**diru-betearazpen** [*ejecución dineraria*] ♦ *Zuz. Proz.* Betearazpen orokorra; betearaziaren ondaretik ondasun batzuk atera, diru bihurtu eta betearazleari ordaintzera zuzendutako betearazpena. **Sin.** *diru-exekuzio*.

**diru-exekuzio** [*ejecución dineraria*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *diru-betearazpen*.

**diru-gordailu** [*depósito de dinero*] ♦ *Merkat. Zuz.* Kontratu mota bat, zeinaren bitartez kreditu-erakundea bezeroak entregatu dion diru-kopuruaren jabe bihurtzen baita, bezeroak hala eskatutakoan edo itundutako epea amaitzean, beste hainbeste itzultzeko obligazioa hartzen baitu. Gordailu mota honi diru-gordailu irekia esaten zaio, bezeroak dirua xedatzeko edo erabiltzeko duen aukera kontratuaren funtsezko elementua delako. Gainera, gordailu honen izaera juridikoa irregularra da, kreditu-erakundeek dirua gordailuan jasotzearen truke interes edo prezio bat ordaintzen dietelako bezeroei. **Oh.** MK, 307. 3.

**diru-laguntza arrunt** [*subvención corriente*] ♦ *Fin. Zuz.* Ondasunak sortzen eta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresei edo erakundeei herri-administrazioak ematen dien diru-laguntza.

**diru-politika bateratu** [*política monetaria única*] ♦ *EB. Zuz.* Prezioen egonkortsuna erdiesteko eurosistemak garatutako sistema, interes-tasak eta euro zonaldeko diru-kopuruaren kontrolean oinarri duena. **Oh.** EBFT, 127. art.

**diru-prestazio** [*prestación económica*] ♦ *Lan Zuz.* Objektu gisa dirua duen Gizarte Segurantzaren prestazioa. **Sin.** *diruzko prestazio*.

**diru-sarrera konputagarri** [*ingreso económico computable*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren, betekizun gisa gehienezko diru-sarrera kopuru bat ezartzen denean, kopuru horretan kontuan hartu behar den diru-sarrera.

**diruzaintza** [*tesorería*] ♦ *Fin. Zuz.* Herri-ogasunaren helburuetarako dagoen finantza-baliabideen multzoa.

**diruzaintza-geldikin** [*remanente de tesorería*] ♦ *Fin. Zuz.* Herri-administrazioaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontuen liki-

daziotik datorren geldikina. **Sin.** *diruzaintza-gerakin*.

**diruzaintzako eragiketa** [*operación de tesorería*] ♦ *Fin. Zuz.* Ordainketen eta kobrantzen kudeaketa-jarduera.

**diruzaintzako gerakin** [*remanente de tesorería*] ♦ *Fin. Zuz.* **Ik.** *diruzaintza-geldikin*.

**diruzaintza-kontu** [*cuenta de tesorería*] ♦ *Fin. Zuz.* Aurrekontu-ekitaldi bakoitzean diruzaintza nagusiak egindako eragiketak biltzen dituen kontua.

**diruzko lan-etekin** [*rendimiento de trabajo de naturaleza dineraria*] ♦ *Fin. Zuz.* Lana egiteagaitik jasotzen den dirua.

**diruzko lansari** [*retribución dineraria*] ♦ *Fin. Zuz.* Dirutan ordaintzen den ordainsaria.

**diruzko prestazio** [*prestación económica*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *diru-prestazio*.

**diruzko zehapen** [*sanción dineraria*] ♦ *Fin. Zuz.* **Ik.** *diruzko zigor*.

**diruzko zigor** [*sanción dineraria*] ♦ *Fin. Zuz.* Dirutan ordaindu beharreko isuna. **Sin.** *diruzko zehapen*.

**diruzkoa ez den zehapen** [*sanción no dineraria*] ♦ *Fin. Zuz.* **Ik.** *diruzkoa ez den zigor*.

**diruzkoa ez den zigor** [*sanción no dineraria*] ♦ *Fin. Zuz.* Dirutan ordaindu behar ez den isuna.

**diskreziionalitate** [*discrecionalidad*] ♦ *Admin. Zuz., Zuz. T.* Legeek administrazio-organoei esleitutako jardun ahalmena, zeinaren bidez arauak eskaintako aukeren artean egokiena hauta baitezakete. **Sin.** *diskreziionaltasun*.

**diskreziionalitate tekniko** [*discrecionalidad técnica*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio-diskreziionalitatearen manifestazioa, zeinaren bidez administrazio-organo eskudunak ebazpen ja-

kin bat onartzeko duen hautemate-askatasuna handitzen baita, azken hori izaera teknikoko irizpideetan oinarrituta. **Sin.** *diskreziionaltasun tekniko*.

**diskreziionaltasun** [*discrecionalidad*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** *diskreziionalitate*.

**diskreziionaltasun tekniko** [*discrecionalidad técnica*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** *diskreziionalitate tekniko*.

**diskriminazio** [*discriminación*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz., Zuz. T.* Pertsona bat beste batekiko egoera analogoan egonda, arrazoizko justifikaziorik gabe okerrago tratatzea arraza, sexua, erlijioa, pentsamoldea edo beste edozein inguruabar pertsonal edo soziala dela eta. Espainiako Konstituzioak berariaz debekutzen ditu jokabide diskriminatzaileak. **Oh.** EK, 14.1 art. ♦ *Zig. Zuz.* Bidezkoa ez den tratua, talde jakin baten partaidea izateagatik norbaiti ematen zaiona. Berdintasun-printzipioa urratzea baino haratago doa, erasotako taldearen aurkako bidegabekeriak sustrai historiko sakonak dituelako. Diskriminazio larriak delitua osa dezake. **Sin.** *bereizkeria*.

**diziplina-ahalmen** [*poder disciplinario*] ♦ *Lan Zuz.* Langileak bere kontratuko betebeharreran huts eginez gero, enpresaburuak langilea zigortzeko duen ahalmena, enpresaburuari aitortzen zaion zuzendaritza-boterean oinarritutakoa. **Oh.** LE, 58. art.

**diziplina-araubide** [*régimen disciplinario*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuaren diziplina-ahalmena arautzen duen arau-multzoa. **Oh.** LE, 58. art.

**diziplina-erantzukizun** [*responsabilidad disciplinaria*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Herri-administrazioen zerbitzura diharduten langileei euren eginkizunak eta karguak betetzean egin behar ez dituzten arau-haustek zehazten dituen eta, egitekotan, bakoitzari dagokion administrazio-zehapen edo -zigorra ezartzen duen araubidea.



**Oh.** 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 93. art. **2.** Herri-administrazioekin mendekotasun bereziko harremana duten pertsonak egin behar ez dituzten arau-hausteak eta, egitekotan, bakoitzari dagokion administrazio-zehapen edo -zigorra ezartzen duen araubidea.

**diziplinazko falta** [*falta disciplinaria*] ♦ *Lan Zuz.* Langileak bere kontratuko betebeharreran huts egitea. Hutsegite hori enpresaburuak zigor dezake, bere diziplina-ahalmena baliatuta. **Oh.** LE, 58. art.

**doako justizia** [*justicia gratuita*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *doako laguntza juridiko.*

**doako lagapen** [*cesión gratuita*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazioari lurra emateko betebeharra, dela berdeguneak, aisialdi-guneak edo hornidura publikoak egiteko, dela eraikuntzarako, betiere, legez dagokion probetxuaren portzentajearen mugetan.

**doako laguntza juridiko** [*asistencia jurídica gratuita*] ♦ *Zuz. Proz.* Izaera prozesaleko eskubide publiko subjektiboa, akzio-eskubidea egikaritzeko edo prozesu batean aurka egiteko baliabide ekonomiko nahikorik ez izatea egiaztatzen duenari dagokiona; hori dela eta, prozesuak dakartzan gastuetatik erabat edo partzialki salbuetsita geratzen da. **Sin.** *doako justizia.*

**dogma** [*dogma*] ♦ *Zuz. T.* Zientzian, erlijioan edo bestelako sistemetan onartzen den printzipio ukaezin eta erantzunezina.

**dogmatika** [*dogmática*] ♦ *Zuz. T.* **1.** Zuzenbidearen adituek egiten edo garatzen duten jarduera **Sin.** *zientzia juridiko.* **2.** Zuzenbide positiboari buruz zuzenbidearen adituek duten baloraziozko iritzien multzoa.

**dohaineko kontratu** [*contrato gratuito*] ♦ *Zuz. Zib.* Obligazioak alderdi batentzat soilik sorrarazten dituen kontratua. Eskuzabaltasun hutsa, hartzailearen kontraprestazioa galdatzen ez duena. Kontratuaren ondorioz, beraz,

batek bakarrik jasotzen du onura. Adibidez: dohaintza, komodatoa edo mandatua dohaineko kontratuak dira guztiak, alderdiek lorturiko abantaila, ezereen truke lortzen baitute hauetan guztietan. **Ik.** *dohaintza kontratu, komodatu, mandatu.*

**dohaintza** [*donación*] ♦ *Zuz. Zib.* Eskuzabaltasun egintza juridikoa, non subjektu batek beste baten mesedetan berea den gauza xedatzen duen, betiere beste subjektuak gauza onartzen badu. Doako izaera duen kontratua da; dohaintza-emaileak dohaintzaren truke ez du ordainik jasotzen. **Ik.** *dohaintza-emaile, dohaintza-hartzaile.*

**dohaintza-emaile** [*donante*] ♦ *Zuz. Zib.* Bere ondarean dagoen zerbait dohaintzan ematen duen subjektua. Dohaintzan zerbait emateko jarduteko gaitasun osoa behar da, edo kasuan kasu jarduteko gaitasuna osatu egin beharko da. **Ik.** *dohaintza, dohaintza-hartzaile.*

**dohaintza-eskritura** [*escritura de donación*] ♦ *Zuz. Zib.* Dohaintza jasotzen duen eskritura publikoa. Ondasun higiezinaren dohaintzen perfektiorako (existentziarako) ezinbesteko betekizuna da hau. Dohaintza-eskriturak eskaintza eta onarpena jaso ahal du, edo, haue-tariko borondate adierazpen bakoitza eskritura publiko ezberdin batean jasoa egon daiteke. **Ik.** *dohaintza-kontratu.*

**dohaintza-hartzaile** [*donataria, donatario*] ♦ *Zuz. Zib.* Dohaintzan eman zaiona onartzen duen subjektua. Gaitasun ikuspegitik dohaintza hartzaile izateko ez dago eragozpenik, norbaiti dohaintza onartzeko ezgaitasuna ezarri zaion kasua salbu. Betekizun bakarra dohaintza ulertzeko gaitasuna da; oinarritzko ulermen falta duen subjektuaren kasuan bere ordezkariak onartzen dute dohaintza. **Ik.** *dohaintza, dohaintza-emaile.*

**dohaintza-kontratu** [*contrato de donación*] ♦ *Zuz. Zib.* Kontratu mota bat, zeinaren bidez

pertsona batek, doako tituluz (kontraprestazio-rik espero gabe) beste baten alde gauza bat xedatu eta azken honek onartzen duen. **Oh.** KZ, 618. art. eta hurr.

**doitze, doikuntza** [*ajuste*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz. Ik. ajuste.*

**doktrina** [*doctrina*] ♦ *Zuz. T. 1.* Zientzia juridikoaren adituek emandako iritzien multzoa. Materia zehatz baten inguruko doktrina juridikoa. **Oh.** KZ, 4.1 art. **2.** Arlo jakin batean adituek ezarritako irizpideen multzoa.

**doktrinatu** [*adoctrinar*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Uste sendoen zein konbikzioen eraketa-prozesuan, ideia eta sinesteak sarraraztea, eta, horren bidez, norbaiten askatasuna bidegabeki mugatzea. Herrialde demokratikoetan, bereziki saihestekoa adingabeen kasuan eta hezkuntzaren eremuan; baita komunikabideen eremuan, iritzi publiko librearen eratzea baita babestu beharreko balioa. **Sin.** *doktrinatz.*

**doktrinatz** [*adoctrinar*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* doktrinatu.

**dokumentatutako froga** [*prueba documental*] ♦ *Zuz. Proz.* Froga baten emaitza jasotzen duen dokumentua, froga-balioa duena.

**dokumentu** [*documento*] ♦ *Kontz. Zuz. 1.* Zentzu zabalean, pentsamenduaren adierazpenen euskarri izateko erabiltzen den objektua. Idazkiak ez ezik honelakoak ere dokumentuak dira: mapak, argazkiak, filmak eta adierazpenei eusteko baliatzen diren beste objektuak. **2.** Dokumentu legala, agintaritzaren emandakoa.

**dokumentu bidezko froga** [*prueba documental*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. froga dokumental.*

**dokumentu-froga** [*prueba documental*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. froga dokumental.*

**dokumentuzko froga** [*prueba documental*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. froga dokumental.*

**dokumentuzko kreditu** [*crédito documentario*] ♦ *Merkat. Zuz.* Kontratu mota bat, zeinaren bitartez arautzen baita, elkarrengandik urruti dauden pertsonen arteko salerosketa-kontratuko obligazioak bete ahal izateko, alderdiek itundu duten kreditu-erakundearen parte hartzea. Kontratu honen arabera, kreditu-erakundeak eroslearen kontura jarduten du eta salerosketa-aren prezioa ordaintzeaz arduratzen da, betiere saldutako gauzen adierazle diren dokumentuak saltzailearengandik jasotzen dituenean.

**dolo** [*dolo*] ♦ *Zig. Zuz.* Delitua egiteko modu nagusietako bat, delitua gaineko jakintzan eta nahian oinarritua. Intentsitatearen arabera maila desberdinak onartzen ditu: lehen mailako zuzeneko doloa edo asmoa, bigarren mailako zuzeneko eta inoizkako doloa. **Oh.** ZK, 10. art. **Ik.** *zuhurtziagabekeria.* ♦ *Zuz. Zib.* Kontratu egitean fede txarrez jokatzeko, maltzurkeriaz; alderdi batek maltzurkeriaren bidez kontratuko beste alderdiaren adostasuna lortzea. Doloa bada borondatean akatsa dago. Maltzurkeriaz jokatu duenak, kontratuko alderdia engainura eraman du honen adostasuna lortzeko; engainurik gabe ez litzateke adostasunik egongo edo adostasuna ezberdina izango litzateke. **Ik.** *fede txar.*

**dolo erasotzaile** [*dolo incidental*] ♦ *Zuz. Zib.* Kontratuan adostasuna lortzera zuzendutako engainua edo maltzurkeria, baina ez adostasuna lortu izanaren arrazoia; horregatik kontratu hauek baliozkoak izango dira. Engainua ez da adostasunaren arrazoia, baina bai adostasunaren eta kontratuaren eduki zehatzaren erantzulea; engainurik gabe edukia ezberdina izango litzateke, nahiz eta kontratu bera mantendu egingo litzatekeen. Horregatik doloa erasotzaile denean, adostasuna eman duen alderdiak indemnizazioa eskatzeko eskubidea izaten du. **Ik.** *dolo.*

**dolo larri** [*dolo grave*] ♦ *Zuz. Zib.* Doloz jokatu duen alderdiaren engainu edo maltzurkeria-

rik gabe, beste alderdiaren adostasuna lortuko ez litzatekeeneko kasua. Larria edo eragilea ere esaten zaio. Engainua da adostasuna lortu izanaren arrazoia. Doloa larria den kasuan kontratua deusezta daiteke, adostasuna engainuz eman duenak edo honen ordezkoeek hala eskatzen badute. **Ik.** *dolo*.

**dominium [dominio]** ♦ *Zuz. Err.* Zuzenbide berezkoa (*sui iuris*) duen hiritar erromatarrak okupazio (*occupatio*), tradizio (*traditio*), mantzipazio (*mancipatio*), pretorearen aurreko lagapen (*in iure cessio*) edota usukapio (*usucapio*) bidez lortutako esklabo eta ondasun mantzipagarri eta mantzipaezinen gaineko jabetza-titulua. **Sin.** *mancipium, proprietas*.

**dote [dote]** ♦ *Zuz. Zib. Ik.* *ezkonsari*.

**duintasun [dignidad]** ♦ *Konst. Zuz., Zuz. T.*

1. Begirunea merezi duenaren nolakotasuna.
2. Pertsona ororen eskubidea, norbanako eta gizartekide izateagatik besteen partetik begirunea eta balioespena jasotzekoa.

**dumping sozial [dumping social]** ♦ *Lan Zuz.*

Lan-kostu apalak dituzten herrialdeek eragiten duten efektua, enpresek hara jotzen dutenean merkeago ekoitzi ahal izango baitituzte beren produktu eta zerbitzuak.

# E

**ebasketa** [*hurto*] ♦ *Zig. Zuz.* Ondarearen aurkako delitua: beste baten gauza higigarriez jabetzea, indarkeriarik gabe, larderiarik gabe eta adostasunik gabe. **Oh.** ZK, 234. art. eta hurr.

**ebazpen** [*resolución*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Administrazio-prozedura bukatzeko ohiko era. **Oh.** 39/2015 Legea, 88. art. **2.** Administrazio-prozedura batean aztertzen diren gai eta arazoen gaineko. **Oh.** 39/2015 Legea, 88. art. **3.** Pertsoneri eskubideak aitortu edo obligazioak ezartzen dizkien administrazio-egintza. **Oh.** 39/2015 Legea, 88. art.

**ebazpen interlokutorio** [*resolución interlocutoria*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuan zehar alderdien artean sortutako arazo intzidentalaren gaineko erabakia. Erabaki horrek ez dio amaierarik ematen prozesuari, ezta prozesuaren objektuaren gaineko erabakirik hartzen ere.

**ebazpen irmo** [*resolución firme*] ♦ *Zuz. Proz.* Errekurritu ezina den ebazpena; legeak errekurtsorik aurreikusten ez duelako, edota, nahiz eta errekurtsuak existitu, horiek aurkezteko epean alderdiek errekurtsorik aurkeztu ez dutelako.

**ebazpen judicial** [*resolución judicial*] ♦ *Zuz. Proz.* Jurisdikzio-organo batek, zuzenbide ob-

jektiboa egoera konkretu batean aplikatuz, alderdiek aurkeztutako auziaren gainean emandako erabakia.

**ebazpenaren lekukotza** [*testimonio de la resolución*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *ebazpenaren testimonio.*

**ebazpenaren testimonio** [*testimonio de la resolución*] ♦ *Zuz. Proz.* Espediente edo dokumentu baten kopia fede-emailea, fede emateko eskumena duen funtzionarioak emandakoa. **Sin.** *ebazpenaren lekukotza.*

**ebikzio** [*evicción*] ♦ *Zuz. Zib.* Eskubide baten galera, epai irmo baten ondorioz gertatzen dena hirugarren subjektu baten eskubidea gailendu ondoren; hau da, lehentasunezko eskubidearen ondorioz. Epai irmo bidez kendu egiten da eskuratutako eskubidea, hirugarren bati eskubide horren gaineko lehentasuna emateko.

**EBko estatu kide** [*estado miembro de la UE*] ♦ *EB. Zuz.* Europako estatu demokratikoa, atxikitze-tratatu baten bidez integratzen dena beste estatu kideen baldintza berberetan eta Europar Batasuneko zuzenbidea bere osotasunean betetzea onartzen duena. **Oh.** EBT, 49. art.

**ediktu** [*edicto*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Agintari eskudunak ematen duen agindua, pertsoneri zu-

zendu eta aldizkari ofizialetan argitaratzen dena. **Oh.** 6/1985 Lege Organikoa, 236. art. **Ik.** *agindu*. **2.** Administrazioak argitaratzen duen iragarkia, interesdunak jakinaren gainean jartzea xede duena. **Oh.** 39/2015 Legea, 44. art. **Ik.** *jakinarazpen*. **3.** Administrazioarekiko auzien jurisdikzioko idazkari judizialak egin, eta aldizkari ofizialetan argitaratzen den oharra, auzietan parte hartu behar duten pertsonak bertaratzeko deia jasotzen duena. **Oh.** 29/1998 Legea, 49.4 art.

**edoskitzealdi** [*periodo de lactancia*] ♦ *Lan Zuz.* Langilea bere umea edoskitzen ari den aldia. Egoera horrek ordaindutako baimenerako eskubidea ematen dio langileari. **Oh.** LE, 37.4 art.

**edukiera** [*contenido, intensidad*] ♦ *Zuz. T.* Kontzeptu baten konnotazioa. Hura definitzen duten ezaugarrien multzoa. **Sin.** *konnotazio*.

**edukitza** [*posesión*] ♦ *Zuz. Err.* Norbaitek jabe-titulurik ez, baina gauza (*corpus*) eta borondatea (*animus*) izanik, gauza horren jabetza izateko duen egitatezko egoera. Pretoreak interdiktuen bidez babestu egiten zuen egitatezko egoera hau. **Sin.** *possessio*. ♦ *Zuz. Zib.* Gauza batekiko norbaitek duen izatezko ahalmena edo boterea. Edukitzak zilegitasuna eskaintzen dio edukitzaileari, gauzaren titularra den edo ez zehaztu gabe. Edukitza naturala, gauza fisikoki edukitzea da. Edukitza zibila, ordea, edukitze hori norberarentzat jabe gisa izatea da.

**edukitzaile** [*poseedora, poseedor*] ♦ *Zuz. Zib.* Edukitza duena. **Ik.** *edukitza*.

**edukitzakidetz**a [*coposición*] ♦ *Zuz. Zib.* Pertsona batek baino gehiagok, gauza edo ondasun beraren edukitza aldi berean dutenean gertatzen den egoera juridikoa, beti ere edukitza, kasu horretan, zatiezina dela ulertuz. Hala, edukitzaile guztiek batera egikaritzen dute gauzaren gaineko edukitza. Adibidez: etxebizitza bat, lau lagunek edukitzan dutena. **Oh.** KZ, 445. art. **Ik.** *edukitza*.

**EEEZ** [*impuesto sobre la renta de no residentes*] ♦ *Fin. Zuz.* **Ik.** *ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga*.

**efektu debolutibo** [*efecto devolutivo*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *ondore debolutibo*.

**efektu deklaratz**aile [*efecto declarativo*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* **1.** Egintza, inskripzio, epai edo ebazpen bati dagokionez, efektu eratzailerik ez duena; aurretik badagoen eskubide edo egoera juridiko bati erreferentzia egiten diona. **2.** Prozesu bati dagokionez, exekutiboa ez dena; eskubide baten deklarazioa, deuseztasuna edo kondena helburu duena.

**efektu kristaliz**atzaile [*efecto cristalizador*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Ohitura baten edukari gaizkiolarik, behar bezain nabaria den egintza batek (tratatu aldeaniztun bat, adibidez) edo estatuen adostasun orokorraren bestelako adierazpenek nahiz frogek formazio bidean dagoen ohitura baten finkatze formalean duten eragina.

**efektu sortz**aile [*efecto creador*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Harreman juridiko bat sortzeko edo eratzeko gai den efektua.

**efektu zibil**en aitorten [*reconocimiento de efectos civiles*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Estatuaren ordenamendutik at sortutako negozio edo egoera bati efektu juridikoak aitortzea eremu zibilean, dagokion legezketasun-kontrola gaindituta betebeharrak zibilak dituela bermatuz. Esaterako ezkontza kanonikoari efektu zibilak aitortzea. **Oh.** KZ, 80. art. **Ik.** *ajuste, homologazio*.

**efikaz** [*eficaz*] ♦ *Zuz. Zib.* Eraginkorra, nahi edo espero duen ondorioa lortzen duena. **Ik.** *eraginkortasun*.

**efizientz**a [*eficiencia*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Administrazioa kudeatzeko irizpidea, zeinaren arabera, administrazioak ezinbesteko baliabideak baino ez ditu erabili behar interes publikoari lotutako helburuak erdiesteko. **Oh.** 2/2012 Lege Organikoa, 7.2 art. **2.** Ingurumen Zuzenbideari

jarraiki, naturatik eratorzen diren baliabideak era onuragarri erabiltzea helburu duen irizpidea. **Oh.** 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua. 4.1 c) art. **Sin. eragimen.**

**egia [verdad]** ♦ *Zuz. T. 1.* Arrazionalki ukatu ezin den proposamena. **2.** Proposamenaren eta adierazten duenaren arteko egokitzea.

**egia formal [verdad formal]** ♦ *Zuz. Proz.* Epaietak bilatzen duen justiziaren neurria, alderdiak asetzen dituena. Epaiak ez du bestelakorik bilatu behar. Prozesu zibilaren helburu arrunta.

**egia material [verdad material]** ♦ *Zuz. Proz.* Egitateen errealitatearekin bat datorren egoera faktikoen multzoa, zigor-prozesuan jurisdikzio-organoak bilatu behar duena.

**egiatasun [veracidad]** ♦ *Zuz. T.* Egiari edo errealitateari lotzen zaionaren nolakotasuna.

**egiazkotasun [veracidad]** ♦ *Zuz. Zib. 1.* Epaiaketa gidatzen duen printzipioa, egia prozesu osoan bermatzen dela aldarrikatzen duena. **2.** Kreditu erakundeen oinarrizko betebeharra, kontsumitzaileei luzatzen zaien dokumentazioa egiazkoa izan behar dela ziurtatzen duena, eta hala ez izatekotan bertan oinarrituriko akordio edo klausula deusez bilakatzen duena.

**egiazkotasun-presuntzio [presunción de veracidad]** ♦ *Admin. Zuz. 1.* Funtzionarioek egindako dokumentuen edukia egiazkotzat jotzen duen printzipioa. Interesdunak printzipio horri kontrajar dakizkioke, betiere, egiazkotasuna zalantzan jartzen dituzten frogak aurkeztuta. **Oh.** 39/2015 Legea, 77.5 art. **Ik. ikuskaritza. 2.** Trafiko-agenteen aktei, froga-modura, aitortzen zaien balioa, non eta ez den aurkezten egiazkotasuna zalantzan jarriko duten frogarik. **Oh.** 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 88. art.

**egiazkotasun-printzipio [principio de veracidad]** ♦ *Merkat. Zuz.* Kontabilitatea zuzentzen

duen printzipiotariko bat. Horren arabera, enpresariak benetako datu eta aldaketa patrimonialak jaso behar dituzte kontabilitatea eramaterakoan; egiazkoak direla bermatu behar dute, alegia. **Oh.** MK, 37. art.

**egiaztapen [comprobación]** ♦ *Fin. Zuz., Admin. Zuz.* Tributu-betebeharpekoek aitortzen eta autolikidazioetan jasotako egintza, elementu eta balorazioak egiaztatzea.

**egiaztapen mugatu [comprobación limitada]** ♦ *Fin. Zuz.* Prozedura honen bidez, Tributu Administrazioak egitate, egintza, osagai, jarduera eta ustiapenak egiazta ditzake, baita tributu-betebeharraren gaineko inguruabarrak ere; baina jarduketa batzuk soilik gauza ditzake. Inoiz ere ezingo zaie eskatu hirugarrenei mugimendu finantzarioei buruzko informaziorik.

**egiaztapen murriztu [comprobación limitada]** ♦ *Fin. Zuz.* Euskal Autonomia Erkidegoan arautzen den prozedura. Haren xedea da, Tributu Administrazioako beste organo batzuek eskatuta, tributu-betebeharpeko batek aurkeztutako aitortpenen osagaien bat zerga-araudiarekin bat datorrela egiaztatzea. Era berean, prozedura hau erabil daiteke, organo horiek eskatuta, egiaztatu behar denean ea bidezkoa den eskatutako itzulketa bat, zerga pizgarri jakin bat edo zergapekoak eskatutako eraentza berezi baten aplikazioa.

**egiaztatu [certificar, verificar]** ♦ *Zuz. T.* Egiatasuna edo doitasuna frogatu.

**egikaritu [ejercer, ejercitar]** ♦ *Zuz. Proz.* Prozesu judizial batean eskubide bat baliatu.

**egikaritze-agiri [título de ejecución]** ♦ *Nart. Zuz. Pr.* Atzerriar ebazpena egikaritu ahal izateko beharrezkoa den agiria. *Exequatur*-a pasa ondoren, egikaritze-agiri bihurtuko da atzerriar ebazpena.

**egikaritze-sistema [sistema de ejecución]** ♦ *Nart. Zuz. Pr.* Atzerriar ebazpen bat beste es-

tatu batean egikaritu ahal izateko jarraitzen den prozedura.

**egile** [*autora, autor*] ♦ *Zig. Zuz.* Delitua burutzen duen pertsona. **Oh.** ZK, 28. art. **Sin.** *arauhausle*.

**egile-eskubide** [*derecho de autora, autor*] ♦ *Zuz. Zib.* Obra artistiko, zientifiko edo literario batekiko pertsonak duen titulartasuna.

**egilekidetza** [*coautoría*] ♦ *Zig. Zuz.* Delituan parte hartzeko modu bat, delituaren egile nagusi bat baino gehiago eta erantzukizun-maila berean aritzean datzana. Egilekide guztiak zigor bera jasotzen dute. **Oh.** ZK, 27-28 art. **Ik.** *egile, partaide*.

**egilesle** [*otorgante*] ♦ *Zuz. Zib.* Negozio juridiko bati bere adostasuna ematen dion pertsona. Normalean, negozio juridiko hau notarioaren aurrean gauzatzen denean erabiliko da termino hau. Negozio juridiko horretatik eratortzen diren eskubide eta obligazioen subjektuak dira egilesleak. **Ik.** *negozio juridiko, notario*.

**egileste** [*otorgamiento*] ♦ *Zuz. Zib.* Negozio juridiko bati adostasuna ematean datzan ekintza, bertatik eratortzen diren ondorio juridiko guztiak bere gain hartuaz. Bereziki notarioaren aurrean emaniko adostasunetan erabiltzen da. **Ik.** *negozio juridiko, notario*.

**egiletsi** [*otorgar*] ♦ *Zuz. Zib.* Negozio juridiko bati adostasuna eman, bereziki notarioaren aurrean emaniko adostasunen kasuan. **Ik.** *negozio juridiko, notario*.

**egiletza** [*autoría*] ♦ *Zig. Zuz.* **1.** Delituan parte hartzeko modu nagusia. Delituzko jardueraren benetako protagonista da, delituaren hasiera eta bukaera kontrolpean dituen. Egiletza mota desberdinak daude: egile nagusi bakarra; egilekidetza, batzuk direnean; eta bitarteko egiletza, beste baten bitartez delitua egiten denekoa. **Oh.** ZK, 27. eta 28. art. **Ik.** *egilekidetza*. **2.**

Egiletzaren legezko kontzeptuan, egile nagusia ez ezik, inductorea eta ezinbesteko laguntzaileria ere sartzen dira, eta denek zigor berbera jasoko dute. **Oh.** ZK, 28. art.

**eginbehar** [*deber, obligación*] ♦ *Zuz. T.* Arau juridiko batek ezarritako derrigorrezko jokabidea.

**eginbehar baten betetze** [*cumplimiento de un deber*] ♦ *Zig. Zuz.* Bidezko-tze-kausetako bat da, betebehar juridiko baten ondorioz egiten den itxurazko delitua zilegi bihurtzen duena. Lanbide jakin batzuekin lotu ohi da, hala nola mediku, polizia eta antzekoekin. Bidezko-tze-kausa den neurrian, beharrezkoak eta proportzionalak diren jarduerak besterik ez dira aintzat hartzen. **Oh.** ZK, 20.7 art. **Ik.** *bidezko-tze-kausa*.

**eginbehar publiko** [*deber público*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Interes publikoa babestearren, legeak ezarrita zein agintariek hala aginduta, ardura-dun publikoek zein bestelako pertsonak bete beharrekoa, dela akzioz dela omisioz. **Oh.** EK, 9.1 art. **Sin.** *betebehar publiko*. **Ik.** *interes sozial*. **2.** Interes publikorako onuragarriak izanik, zenbait pertsonari ezatzen zaizkien betebeharrak. **Oh.** 39/2015 Legea, 18. art. **3.** Ordenamendu juridikoa betetzen dela bermatzearen Administrazioak egin beharreko ekintzak. **Oh.** EK, 103.1 art. **4.** Adiera hertsian, pertsona baten egoera juridiko pasiboa, haren interes propioak ez, baizik eta beste norbaiten interesak edo erkidegoaren interes orokorrak kontuan izanda arau-xedapen batek ezarria eta pertsona horrentzat, oro har, izaera loteslea dutenak. Administrazio-egintzek zehaztuko dute, kasuan kasuko inguruabarren arabera, betebehar orokor hori, eta, era berean, administrazio-egintza horiek berek finkatuko dute zein neurritan den pertsona horren betebeharra zerbait egitea edo ez egitea. **Oh.** EK, 30. eta 31. art.; 40/2015 Legea, 140.1 c) eta 141. art. **Sin.** *eginbehar*. **Ik.** *egoera*.

**eginbide [diligencia]** ♦ *Admin. Zuz., Konst. Zuz., Zuz. Proz.* **1.** Administrazio-bidean edo bide judizialean, prozedura bultzatzen duen izapidea. **2.** Administrazio-bidean edo bide judizialean, hainbat jardun nahiz egitate jasotzen dituen dokumentua. **Oh.** 39/2015 Legea, 70. art.; 29/1998 Legea, 48., 60.-62., 64., 92., 102. bis eta 106. art. **Sin.** *diligentzia*.

**eginbide polizialak [diligencias policiales]** ♦ *Zuz. Proz.* Hasitako ikerketa batean zehar Ministerio Fiskalaren edo instrukzio-epailearen esanetara edo hori hasi baino lehen ofizioz estatuko segurtasuneko indar eta kidegoen funtzionarioek burututako jardunen multzoa.

**egintza [acto]** ♦ *Zuz. Zib.* Pertsonaren borondatearekin bat datorren egitatea edo ekintza. **Ik.** *borondate adierazpen*.

**egintza araugile [acto legislativo]** ♦ *EB. Zuz.* **Ik.** *lege-egintza*.

**egintza atipiko [acto atípico]** ♦ *EB. Zuz.* Tratu sortzaileek definitzen dituzten egintzen ezauzgarri formalak alde batera utzita, Europar Batasuneko erakunde batek hartutako xedapena.

**egintza delegatu [acto delegado]** ♦ *EB. Zuz.* Batzordearen legez besteko egintza, Europako Parlamentuak eta Europar Batasuneko Kontseiluak delegaturiko gaien ingurukoa. Lege-egintza baten funtsezkoak ez diren osagai jakin batzuk osatzen edo aldarazten ditu eta delegazioaren xedea, edukia, irismena eta iraupena errespetatu behar ditu. **Oh.** EBFT, 290.1 art. **Sin.** *egintza eskuordetu*.

**egintza deusezkorren gaineko kaltegarritasun-adierazpen [declaración de lesividad de actos anulables]** ♦ *Fin. Zuz.* **Ik.** *ekintzak kaltegarritzat hartze*.

**egintza ez-araugile [acto no legislativo]** ♦ *EB. Zuz.* **Ik.** *legez besteko egintza*.

**egintza irmo [acto firme]** ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Denboran eta forman aurkaratu ez den egin-

tza eta aldatu ezin dena. **Oh.** 29/1998 Legea, 28. art. **Ik.** *administrazio-errekurtso, administrazio-auzien errekurtso*. **2.** Administrazio-egintza mota bat, zeinaren aurka ezin baita administrazio-errekurtsorik jarri, ez bada ezohiko berrikuspen-errekurtsoa. **Oh.** 39/2015 Legea, 122.1 eta 125. art. **Ik.** *berrikuspen-errekurtso*.

**egintza juridiko [acto jurídico]** ♦ *Zuz. Zib.* Zuzenbidezko efektuak sortzera bideratuta dagoen borondate-adierazpena. **Ik.** *borondate-adierazpen*.

**egintza kaltegarrien errebokatze [revocación de actos desfavorables]** ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio publikoen ahala, preskripzio-epaia bete ez den bitartean kargak ezartzen dituzten edo inoren kalterako diren administrazio-egintzak edozein unetan efekturik gabe uzteko eskudantzia ematen diena, betiere errebokazio hori ez bada legeek onartzen ez duten lekapean edo salbuespena, eta ez bada berdintasun-printzipioaren, interes publikoaren edo ordenamendu juridikoaren aurkakoa. **Oh.** 39/2015 Legea, 109.1 art.

**egintza legegile [acto legislativo]** ♦ *EB. Zuz.* **Ik.** *lege-egintza*.

**egintza politiko [acto político]** ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Irizpidezotasun handiko egintza, eskuarki gobernuak duen ideologiari edo pentsamoldeari atxikia, jurisdikzioak kontrolatzeko aukerak murrizten dituena. **Oh.** 29/1998 Legea, 2 a) art. **2.** Gobernuak bere estrategia edo plan politikoak sustatzeko ematen duen egintza, araututako oso irizpide gutxiri men egiten diena. **Ik.** *plangintza*.

**egintza prozesal [acto procesal]** ♦ *Zuz. Proz.* Epaileak edo auzitegiak bultzatuta edo aldean ekimenez prozesu judizialean sortutako jarduketak, gehienbat ahozkoa; egintza prozesalاک dira, adibidez, bistak, deklarazioak, galdeketak, lekukotzak, aurrez aurrekoak, esplorazioak, txostenak, peritu-txostenen berrespenak, ...



**egintza tipiko** [*acto típico*] ♦ *EB. Zuz.* Tratatutako sortzailean aurreikusitako arau moduak eta ezaugarriak jarraituz Europar Batasuneko erakunde batek hartutako xedapena. **Oh.** EBFT, 288. art.

**egintza-batasunaren printzipio** [*principio de unidad de actuación*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. jar-duera-batasunaren printzipio.*

**egitamu** [*programa*] ♦ *Konst. Zuz. Ik. programa.*

**egitarau** [*programa*] ♦ *Konst. Zuz. Ik. programa.*

**egitasmu** [*plan, proyecto*] ♦ *Konst. Zuz. Ik. programa.*

**egitate** [*hecho*] ♦ *Zuz. T. 1.* Errealitate materialean gertatu dena. **Sin.** gertaera. **2.** Ondorio juridikoak dituen gertaera.

**egitate baztertzaile** [*hecho excluyente*] ♦ *Zuz. Proz.* Epaiketa batean, demandatzaileak bere uzia oinarritzeko aurkeztutako egitate eratzailak gertatu zirela onartuta, ondoren gauzatura, haiek indarrrik gabe uzten dituen egitatea, demandatuak aurkeztua. Demandatzailearen uziaren aurkako eskubidea ematen dio hura geldiarazteko, enerbatzeko edo suntsitzeko.

**egitate epaigarri** [*hecho justificable*] ♦ *Zuz. Proz.* Zigor-prozesu batean zigor-tipo baten inguruan aztertzen ari den eta epaitua izango den egitatea. **Sin.** *egitate zigorgarri.*

**egitate erabakigarri** [*hecho determinante*] ♦ *Admin. Zuz. 1.* Administrazioak ebazpenak ematerakoan kontuan izan behar duen egitatezko inguruabarra, ordenamendu juridikoak jaso, eta hura aplikatzeko ezinbestekoa dena. **2.** Administrazioaren irizpidezketasuna kontrolatu eta mugatzeko baliabidea. **Ik.** *diskretionalitate.*

**egitate eragozle** [*hecho impeditivo*] ♦ *Zuz. Proz.* Epaiketa batean demandatzaileak bere

uzia oinarritzeko aurkeztutako egitate eratzailak hasieratik ondoreak izatea ekiditen duen egitatea, demandatuak aurkeztua.

**egitate eratzaille** [*hecho constitutivo*] ♦ *Zuz. Proz.* Epaiketa batean demandatzaileak bere uzia oinarritzeko aurkeztutako egitatea, arau baten balizko edo egitatezko egoera osatzera datorrena, alegia.

**egitate eztabaidagarri** [*hecho controvertido*] ♦ *Zuz. Proz.* Epaiketa batean alderdiatarako batek aurkeztu duen baina beste alderdiak onartzen ez duen egitatea eta, horregatik, froga galdatzen duena. **Sin.** *egitate eztabaidatu, egitate liskartsu.*

**egitate eztabaidatu** [*hecho controvertido*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. egitate eztabaidagarri.*

**egitate ez-zilegi** [*hecho ilícito*] ♦ *Zuz. Zib.* Indarrean dagoen arau zehatz baten aurka egingandako ekintza. **Ik.** *erantzukizun zibil.*

**egitate iraungitzaile** [*hecho extintivo*] ♦ *Zuz. Proz.* Epaiketa batean demandatzaileak bere uzia oinarritzeko aurkeztutako egitate eratzailak gertatu zirela onartuta, ondoren gauzatura, haiek ondore gabe uzten edo iraungitzen dituen egitatea, demandatuak aurkeztua.

**egitate juridiko** [*hecho jurídico*] ♦ *Zuz. Zib.* Legez ondorioak araututa dituen ekintza.

**egitate liskartsu** [*hecho controvertido*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. egitate eztabaidagarri.*

**egitate sorrarazle** [*hecho causante*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzako prestazioa jasotzeko eskubidea sortzea eragiten duen egitatea, betiere, horren ondorioz prestazioak eskaturiko betekizunak betetzen badira.

**egitate zigorgarri** [*hecho punible*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. egitate epaigarri.*

**egitate-bide** [*vía de hecho*] ♦ *Admin. Zuz. 1.* Dagokion eskumena egikaritu gabe eta le-

geak ezartzen duen prozedura jarraitu gabe administrazioak burutzen duen jarduera materiala. **Oh.** 39/2015 Legea, 105. art. **Ik.** *administrazio-jarduera material*. **2.** Administrazioak burutzen duen jarduera materiala, estaldura juridikorik ez duena eta edozein erakito eskubide eta interes legitimoak kaltetzen dituen. **Oh.** 29/1998 Legea, 30. art. **Ik.** *edukitza-akzio*.

**egitatezko zaintza** [*guarda de hecho*] ♦ *Zuz. Zib.* Legez edo judizialki egindako izendapen formalik gabe adingabearen edo ezgaituaren ardura hartzea. **Oh.** KZ, 303. art. eta hurr.

**egitatezko zaintzaile** [*guardadora, guardador de hecho*] ♦ *Zuz. Zib.* Egitatezko zaintza egikaritzen duen pertsona. **Ik.** *egitatezko zaintza*.

**egite-delitu** [*delito de acción*] ♦ *Zig. Zuz.* Zigor Zuzenbidean dagoen tipo mota bat, legeak debekatutako portaera kaltegarri bat gauzatzen denean burutzen dena. **Sin.** *egite-tipo*.

**egite-tipo** [*delito de acción*] ♦ *Zig. Zuz.* **Ik.** *egite-delitu*.

**egiturazko aparteko ordu** [*hora extraordinaria estructural*] ♦ *Lan Zuz.* Ohiko lana egiteko erabiltzen den aparteko ordua. **Ik.** *aparteko ordu*.

**egiturazko printzipio** [*principio estructural*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Une historiko jakin batean nazioarteko ordenamendua inspiratzen duten oinarritzko balio juridikoak, nazioarteko gizartearen antolakuntzaren printzipio bihurtu direnak.

**egoera** [*situación*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Pertsonak administrazioarekiko daukan posizioa, obligazioak betetzeari zein eskubideak egikaritzeari dagokionez. **2.** Funtzionarioaren kondizioa, zerbitzua ematen duen bitartean edo hainbat zioengatik zerbitzu horri uzten dionean. **Oh.** 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua. 85.-92. art. **Ik.** *funtzio publiko*.

**egoera zibil** [*estado civil*] ♦ *Zuz. Zib.* Pertsonaren egoera juridikoa, zeinak jarduteko gaitasun ezberdin bat adieraz dezakeen edo eskubide, ahalmen zein betebeharen multzo baten iturri izan daitekeen. Pertsonaren egoera zibila honako hauek: naziokotasuna, auzotasun zibila, ezkontza eta egoera familiarrak, adina eta gaitasun gabetzea. Egoera zibila erregistro zibilean inskribatzen dira.

**egoiliar** [*residente*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Lur-eremu jakin batean bizilekua izan, eta bertako erroldan inskribaturik dagoen pertsona. **Oh.** 7/1985 Legea, 15. art. **2.** Espainiako estatuan bizi den atzerritarra, lan egin edo bizitzeko baimena daukana. **Oh.** 4/2000 Lege Organikoa, 30. art. **Ik.** *atzerritartasun*.

**egoitza** [*domicilio*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Erroldan zehaztutakoaren arabera, pertsonaren ohiko bizilekua. **Oh.** 7/1985 Legea, 16. art. **Sin.** *bizileku*. **2.** Pertsonak intimitaterako eta bizitza pribaturako eskubidea bermatzen duen tokia, legez, bortxaezina. **Oh.** EK, 18.2 art. **Ik.** *intimitate*. **3.** Administrazioarekiko harremanetarako zein administrazioekin lotuta izapideak egiteko enpresek zein pertsona fisikoek zehazten duten helbidea. **Oh.** 39/2015 Legea, 42.2 eta 66.1 art.

**egoitza-akordio** [*acuerdo de sede*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Nazioarteko erakunde batek bere egoitza kokatzen duen estatuarekin sinatutako tratatua, zeinaren bitartez harreman horren eraentza juridikoa finkatu eta bereziki erakundeak lurralde horretan izango dituen pribilegioak eta bortxaezintasunak xedatzen baitira. **Sin.** *egoitza-hitzarmen*.

**egoitza-askatasun** [*libertad de establecimiento*] ♦ *EB. Zuz.* **Ik.** *kokatzeko askatasun*.

**egoitza elektronikoa** [*sede electrónica*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Administrazio baten inguruko informazioa modu telematikoan lortzeko herri-tarrek erabili ahal duten helbide elektronikoa.

**Oh.** 40/2015 Legea, 38. art. **Ik.** *prozedura*.  
**2.** Administrazioak kudeatzen duen webgunea, ahalbidetzen duena bai herritarrek prozedura elektronikoei dagozkien izapideak egin ditzaten eta, baita, administrazioarengandik jakinarazpenak modu telematikoan jaso ditzaten ere.

**egoitza fiskal** [*domicilio fiscal*] ♦ *Fin. Zuz. Ik.* *zerga-helbide*.

**egoitza-hitzarmen** [*acuerdo de sede*] ♦ *Nart. Zuz. Pu. Ik.* *egoitza-akordio*.

**egoitza sozial** [*domicilio social*] ♦ *Merkat. Zuz.* Sozietatearen administrazioa eta zuzendaritza egiten diren gunea edota bere jardueraren kokaleku nagusia. Sozietatearen estatutueta adierazi behar da non duen egoitza soziala.  
**Oh.** KSL, 9 eta 23. c art.

**egoitza zibil** [*residencia civil*] ♦ *Zuz. Zib.* Arlo zibilean gerta daitezkeen ondorioetarako pertsona fisikoak zein juridikoak duen bizitokia.

**egoitzako estatu** [*estado de sede*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Nazioarteko erakunde batek bere egoitza kokatzen duen estatua.

**egokiera-printzipio** [*principio de oportunidad*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *abagune-printzipio*.

**egokitasun-komite** [*comité de idoneidad*] ♦ *EB. Zuz.* Justizia Auzitegiko eta Auzitegi Orokorreko epaile eta abokatu nagusien egin-kizunak betetzeko aurkezten diren hautagaien egokitasunari buruz, izendapenak egin aurretik, iritzia emateko eskumena duen organoa.  
**Oh.** EBFT, 255. art.

**egonkortasun-printzipio** [*principio de estabilidad*] ♦ *Lan Zuz.* Enplegu mugagabearen aldeko printzipioa, enplegua amaitzeko kausa bat behar dela aldarrikatzen duena.

**egotzi 1** [*imputada, imputado*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *inputatu*.

**egotzi 2** [*imputar*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *inputatu*.

**egozgarritasun** [*imputabilidad*] ♦ *Zig. Zuz.* Erruduna izateko, beharrezkoak diren ulertze-ko eta jarduteko gaitasunak izatea.

**egozketa** [*imputación*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *inputazio*.

**egozketa-irizpideak** [*criterios de atribución*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *eskumena egozteko irizpideak*.

**egozpen** [*imputación*] ♦ *Fin. Zuz.* Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudia-  
 ren arabera, kasu batzuetan, nahiz eta zergadunak sarrerarik ez izan, errentaren bat lortu dela uste denean burutzen den errenta-esleipena.

**egozpen objektibo** [*imputación objetiva*] ♦ *Zig. Zuz.* Bi zentzutan uler daiteke: ekintzaren egozpen objektiboaren teoriaren arabera, eta emaitzaren egozpen objektiboaren teoriaren arabera. Lehenengoari jarraituz, ekintza *ex ante* egokia izan behar da tipikoki nabaria den arriskua sortzeko; bigarrenari jarraituz, jarduerari dagokion arriskua emaitzan gauzatu behar da.

**egozte** [*imputación*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *inputazio*.

**egun baliodun** [*día hábil*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Administrazioaren jardunerako balioa duen eguna. **Oh.** 39/2015 Legea, 30.7 art. **2.** Administraziooko jarduneko edozein egun, salbu eta larunbatak, igandeak eta jaiegun izendatutakoak. **Oh.** 39/2015 Legea, 30.2 art. **Ik.** *epe*.

**egun baliogabe** [*día inhábil*] ♦ *Admin. Zuz.* Administraziooko jardunerako baliorik ez duen eguna, dela larunbata edo igandea delako, dela jaiegun izendatu delako. **Oh.** 39/2015 Legea, 30.2 eta 30.7 art. **Sin.** *jaiegun. Ik.* *epe*.

**egun fasto** [*día fasto*] ♦ *Zuz. Err.* Negozio juridikoak hitzartzeko egun balioduna. **Sin.** *dies fas*.

**egun natural** [*día natural*] ♦ *Admin. Zuz.* As-  
 teko edozein egun, larunbatak, igandeak eta jaiegun izendatuak barne. **Oh.** 39/2015 Legea, 30.2 art. **Ik.** *epe*.

**egun nefasto** [*día no fasto*] ♦ *Zuz. Err.* Negrozio juridikoak hitzartzeko baliodun ez zen eguna. **Sin.** *dies nec fas*.

**eguneko lanaldi** [*jornada diaria*] ♦ *Lan Zuz.* Egun bateko lanorduei dagokion lanaldia. **Oh.** LE, 34. art.

**eguneko soldata** [*salario diario*] ♦ *Lan Zuz.* Egun bateko lanari dagokion soldata. **Oh.** LE, 29. art.

**eguneroko liburu** [*libro diario*] ♦ *Merkat. Zuz.* Liburu bat, zeinetan enpresari orok egunez egun erregistratzen baititu jardueraren eragiketata guztiak, kontabilitate ordenatua eramateko. Dena den, onartzen da eragiketata-multzoen kopuruak ere jasotzea, betiere hiru hilabete baino epe laburragoak baldin badira. **Oh.** MK, 28.2 art.

**ekarpen** [*aportación*] ♦ *Merkat. Zuz.* Bazkide bakoitzak sozietateari egiten dion ekarria, hainbat modutako izan daitekeena: dirua, ondasun materialak (higigarriak nahiz higiezinak) edo ondasun ez materialak (eskubide errealak edo kredituzkoak, patente- edo marka-eskubi-deak, enpresak, bezeroak, etab.). Ekarpen horiekin osatzen da ondare soziala. Ekonomikoki baloragarria izan behar du. Lana edo zerbitzu prestazioak ere izan daitezke bazkideen ekarpena sozietate pertsonalistetan, baina legeak ez du halakorik onartzen sozietate kapitalisten kasuan. **Oh.** KSL, 58. art. ♦ *Fin. Zuz.* Zergadun bakoitzak herri-ogasunari egiten dion emaria.

**ekarpenezko maila** [*nivel contributivo*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren barruan, kotizazioen arabera prestazioak ematen dituen maila.

**ekarpenezko mailako prestazio** [*prestación de nivel contributivo*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren barruan, kotizazioen arabera ematen den prestazioa, betiere, ekarpenezko mailaren baitakoa.

**ekarpenezko modalitate** [*modalidad contributiva*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren barruan, kotizazioen arabera prestazioak ematen dituen atala.

**ekarpenezko pentsio** [*pensión contributiva*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren barruan, kotizazioen arabera ematen den pentsioa, ekarpenezko mailaren baitakoa.

**ekarpenezko prestazio** [*prestación contributiva*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren barruan, kotizazioen arabera ematen den prestazioa.

**ekarpenezkoa ez den aldaera** [*modalidad no contributiva*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren barruan, kotizazioak egon ez arren prestazioak ematen dituen atala.

**ekarpenezkoa ez den maila** [*nivel no contributivo*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren barruan, kotizazioak egon ez arren prestazioak ematen dituen maila.

**ekidistantziaren printzipio** [*principio de equidistancia*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Aurrez aurre edo alboan kokatuak dauden bi kostaldeko estaturen uren arteko banaketa zehaztuko duen lerroa marrazteko erabiltzen den irizpidea. Bi estatu horien oinarri-lerroen arteko punturik gertuenetatik distantzia berean dauden puntuak erabiltzen ditu erreferentzia moduan. Irizpide hau nazioarteko ibaien nahiz lakuen kasuan ere erabiltzen da. **Oh.** IZNBK, 15. art.

**ekimen araugile** [*iniciativa legislativa*] ♦ *EB. Zuz. Ik. legegintza-ekimen.*

**ekimen legegile** [*iniciativa legislativa*] ♦ *EB. Zuz. Ik. legegintza-ekimen.*

**ekintza** [*acción, actuación*] ♦ *Konst. Zuz.* Subjektu batek egindako jarduera, mundu juridikoan eragina duena.

**ekintza administratibo** [*acto administrativo*] ♦ *Konst. Zuz.* Administrazioaren jarduera, eragin juridikoa duena.

**ekintzak kaltegarritzat hartze** [*declaración de lesividad*] ♦ *Fin. Zuz.* Tributu Administrazioak herri-onurarako kaltegarritzat jo ditzake interesatuen alde hartutako egintzak eta ebazpenak, baldin eta ordenamendua urratzen badute, geroago administrazioarekiko auzien bidea haien aurka erabiltzeko asmoz. Kaltegarritasun-adierazpena ezin egin daiteke behin lau urte igarota administrazio-egintza jakinarazi zenetik. **Sin.** *egintza deusezkorren gaineko kaltegarritasun-adierazpen.*

**ekintza sindikal** [*acción sindical*] ♦ *Lan Zuz.* Askatasun sindikalaren barruan, langile afiliatuek eta sindikatuek egin ditzaketen ekintzak. **Oh.** ASLO, 2. art.

**ekitaldi** [*sesión*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Enpresa edo erakunde batek egindako bilera. **2.** Jarduera edo prozesu bat garatzen den denbora tarte. **Sin.** *emanaldi, saio.*

**ekitate** [*equidad*] ♦ *Zuz. Err.* Zuzenbideak ezarritako ereduari jarraituz, bakoitzari dagokiona ematea. **Sin.** *aequitas.* ♦ *Zuz. T.* Gizabanako guztiak berdintasunez tratatu beharra ezartzen duen printzipioa, betiere, norbanakoen berez-kotasunak aintzat hartuz aplikatu beharrekoa. **Oh.** KZ, 3.2 eta 165. art.

**ekoizpenaren gorabehera** [*circunstancia de la producción*] ♦ *Lan Zuz.* Merkatuaren eskaera aldakorren arabera, enpresaren ekoizpenak dituen igoerak eta beherakadak. **Sin.** *ekoizpen-gorabehera.*

**ekoizpen-arrazoi** [*causa productiva*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaren ekoizpenari dagokion arrazoia, lan-baldintzak aldatzea edo lan-kontratuak iraungitzea justika dezakeena. **Sin.** *ekoizpeneko arrazoi.*

**ekoizpen-baliabide** [*medio de producción*] ♦ *Lan Zuz.* Ekoizteko erabiltzen den baliabidea. **Ik.** *ekoizpen-faktore.*

**ekoizpeneko arrazoi** [*causa productiva*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *ekoizpen-arrazoi.*

**ekoizpen-faktore** [*factor productivo*] ♦ *Lan Zuz.* Ekoizpenean eragiten duten faktoreak: lana, kapitala, eta lurra. **Ik.** *ekoizpen-baliabide.*

**ekoizpen-gorabehera** [*circunstancia de la producción*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *ekoizpenaren gorabehera.*

**ekoizpen-prozesu** [*proceso productivo*] ♦ *Lan Zuz.* Ekoizpenaren faseak barnebiltzen dituen prozesua.

**ekoizpen-sistema kapitalista** [*proceso productivo*] ♦ *Lan Zuz.* Kapitalaren nagusitasunean oinarritzen den ekoizpen-sistema.

**Ekonomia Itun** [*Concierto Económico*] ♦ *Fin. Zuz.* **Ik.** *Kontzertu Ekonomiko.*

**ekonomia mistoko baltzu** [*sociedad de economía mixta*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Herri-administrazioak eta pertsona fisiko zein juridiko pribatuek ekarritako kapitala duen enpresa edo sozietatea. **Oh.** 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, 104., 106. eta 108. art.; 9/2017 Legea, 22. Xedapen Gehigarria. **Ik.** *baltzu.* **2.** Toki-administrazioek kapital pribatuarekin antolatuta eta eman behar duten zerbitzu publiko zeharka kudeatzen duen zuzenbide pribatuko enpresa. **Oh.** 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, 104. art. **Ik.** *zerbitzu publiko.*

**ekonomia prozesal** [*economía procesal*] ♦ *Zuz. Proz.* Izapide prozesaletan denbora eta gastuak aurrezte. Aurrezte horrek ez du inolako kalterik edo galerarik eragiten prozesuaren beraren xedean. Ekonomia prozesalaren helburua da prozesu arinagoa eta merkeagoa bideratzea. Ahalik eta ahalegin txikiena eginez ahalik eta emaitzarik onena lortzea da funtsa. Doktrinak eta jurisprudentziak defendatu izan dute ekonomia prozesala, zenbait egintza prozesal errepikatu beharrik ez izatea dakarrelako eta horrek denbora eta diru aldetik sortuko lituzkeen gastuak gutxitzen dituelako, baina betiere prozesuaren berezko printzipioak –hau

da, kontraesan-printzipioa, publizitate-printzipioa eta aldeen berdintasun-printzipioa-urratu gabe.

**ekonomia- eta moneta-batasun** [*unión económica y monetaria*] ♦ *EB. Zuz.* Europar Batasuneko estatuen ekonomia- eta diru-politikak harmonizatu eta, azkenean, moneta bakarra (euroa) ezartzea helburu duen prozesua. **Oh.** EBFT, 119. art. **Sin.** *ekonomia- eta moneta-batasun.*

**ekonomia-administraziozko erreklamazio** [*reclamación económico administrativa*] ♦ *Fin. Zuz. Ik.* *erreklamazio ekonomiko-administratibo.*

**ekonomia-eremu eskusibito** [*zona económica exclusiva*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Ondoan egonik, lurraldeko itsasotik haratago zabaltzen den itsas eremua, lurraldeko itsasoaren oinarri-lerroetatik neurtzen hasi eta 200 itsas milietarainokoa. Eremu honek berariazko eraentza juridikoa du, zeinaren arabera kostaldeko estatuari itsas zoruaren gaineko uretan, itsas zoruan eta zorupean egon daitezkeen baliabide naturalen gaineko ikerketa, ustiaketa, kontserbazioa eta administrazioa egiteko eskubide subiranoak onartzen zaizkion. Honekin batera, kostaldeko estatuak zenbait jardueraren gaineko jurisdikzioa izango du, eta polizia- zein zehapen-eskumenak izango ditu. **Oh.** IZNBK, 55-58. art. **Sin.** *zona ekonomiko eskusibito.*

**ekonomia-jarduera** [*actividad económica*] ♦ *Fin. Zuz.* Pertsonen beharrak asetzeko produktuak, gauzak edo zerbitzuak sortu edota eskualdatzeko prozesua. **Sin.** *jarduera ekonomiko.*

**ekonomia-jardueraren etekin** [*rendimiento de actividad económica*] ♦ *Fin. Zuz.* Lan pertsonaletik eta kapitaletik, bietatik aldi berean edo horietako batetik bakarrik, eratortzen den etekina eta zergadunak ekoizpen-bideak eta giza baliabideak, edo bietako bat bakarrik, bere kontura antolatzea dakarrena, ondasun eta

zerbitzuen produkzioan edo banaketan esku hartzeko. **Sin.** *jarduera ekonomikoen etekin.*

**elbarritasun** [*minusvalía*] ♦ Pertsona baten desabantaila egoera, ezgaitasun edo gaitasunaren murrizpen fisiko edo psikologiko batetik eratorria, eta zenbait ekintza gauzatzea zaildu edo ezinezko bihurtzen duena. Adina, sexua eta faktore sozial eta kulturalak aintzat hartzen dira elbarritasuna neurtzeko.

**elegantia iuris** [*elegantia iuris*] ♦ *Zuz. Err.* Zuzenbide gaietan eta teknika juridikoan jurista erromatarrei aitortzen zitzaizen adimen eta trebezia.

**elementu diskrezional** [*elemento discrecional*] ♦ *Admin. Zuz. 1.* Administrazio-egintzan agertzen den hitz, kontzeptu edo arazo bat, zeinaren edukia ez baita garbi zehazten arauaren testuan. **2.** Administrazioak ordenamendu juridikoa aplikatzen duenean, hainbat irtenbide edo interpretazio dakarren hitz edo kategoria. **Oh.** 39/2015 Legea, 35.1 i) art.

**elizate** [*anteiglesia*] ♦ *Zuz. Zib.* Bizkaian, hiribildu ez den udalerrria. Izan ere, elizako atean biltzen ziren bertako biztanleak herriari zegozkion erabakiak hartzeko. Historikoki, elizateetan aplikatu izan da osorik Bizkaiko Foru Zuzenbidea. **Ik.** *hiribildu.*

**elkargo ofizial** [*colegio oficial*] ♦ *Admin. Zuz. 1.* Titulazio bereko pertsonen osatzen duten zuzenbide publikoko erakundea, titulazio horri lotutako lanbidea arautu, kideen interesak babestu eta ordezkatzeko xedez eratua. **Oh.** 2/1974 Legea, 1. art. **Ik.** *entitate instituzional. 2.* Lanbide batzuk egikaritzeko arauak eta eskakizunak ezartzen dituen erakunde publikoa.

**elkarrekiko aintzatespen** [*reconocimiento mutuo*] ♦ *EB. Zuz. 1.* Lege-harmonizaziorik ezean, barne-zirkulazioko askatasunak eta benetako barne-merkatu bat egotea bermatzen

dituen printzipioa, murrizketak ezartzeko aukera baztertzearan oinarritzen dena. **2.** Teknika juridikoa, zeinaren arabera, Europar Batasuneko estatu batek beste estatu kideek ezarritako arauketa nazionala berearen baliokidetzat hartzen baitute.

**elkarrekikotasun** [*reciprocidad*] ♦ *Zuz. T.* **1.** Nazioarteko erlazioei eta izaera honetako hitzarmenei dagokienez, elkarrekikotasun-printzipioak xedatzen du bi aldeei eskainiko zaizken bermeak, onurak eta zigorrak parekoak izango direla. **Oh.** EK, 13.2 art. **2.** Elkarrekiko laguntzaz eta konfiantzaz jardutearen nolakotasuna.

**elkarrekikotasun** [*sinlagma*] ♦ *Zuz. Zib.* Alderdi kontratatzaileek elkar behartzeko borondatea erakustea.

**elkarren arteko adostasun** [*mutuo acuerdo*] ♦ *Lan Zuz.* Lan-kontratua amaitzeko modua, bi alderdien adostasunean oinarritutakoa. **Oh.** LE, 49. art.

**elkarren bermerako baltzu** [*sociedad de garantía recíproca*] ♦ *Merkat. Zuz.* Kapital adakorreko sozietatea, xede mutualista duena, alegia, beren kide direnei krediturako bidea erraztea. Horretarako, kideen kredituak bermatzen ditu sozietateak. Hori horrela, baltzu hauek finantza-erakundeen izaera dute eta, ondorioz, Espainiako Bankuaren ikuskaritzaren menpe daude.

**elkarte** [*asociación*] ♦ *Zuz. Zib.* Helburu komun bat lortzeko biltzen den pertsona taldea, zeinari legeriak nortasun juridikoa esleitzen dion. Espainiako ordenamendu juridikoan, Konstituzioaren 22.1 artikuluan jasotzen den “elkartzeko” oinarritzko eskubidearen adierazpena da elkarte. Interes publikoa edo interes partikularra izan dezake helburu.

**elkarte profesional** [*asociación profesional*] ♦ *Lan Zuz.* Profesio bereko langileak biltzen dituen elkarte.

**elkartekide** [*socia, socio*] ♦ *Zuz. Zib.* Elkartebateko kide edo bazkidea.

**elusioaren aurkako klausula** [*cláusula anti-elusión*] ♦ *Fin. Zuz.* Egitate zergagarria gertatzea erabat edo partzialki saihesten denean edo oinarria edo tributu-zorra gutxitzen denean aplikatzen den klausula; betiere bi inguruabar hauek betetzen dituzten egintzen edo negozioen bidez gutxitzen denean: a) banaka zein batera hartuta, nabarmen gertatzea izandako emaitza lortzeko guztiz artifiziozkoak edo desegokiak direla egintza edo negozio horiek; b) egintza edo negozio horien erabilerak ez ekartzea ondorio juridiko edo ekonomiko garrantzitsurik, ez bada aurrezpen fiskala eta egintza edo negozio arrunt edo egokiekin lortuko ez ziren ondorioak. **Sin.** *itzurpenaren aurkako klausula, tributu-araua aplikatzeko gatazka.*

**emakida** [*concesión*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Zerbitzu publikoak zeharka emateko Administrazioak erabiltzen duen teknika edo baliabide juridikoa. **Oh.** 7/1985 Legea, 85.2 b) art. **Ik.** *zerbitzu publiko.* **2.** Herri-jabaria erabili eta okupatzeko, Administrazioak ematen duen titulua, betiere erabilera eta aprobetxamendua eskusibotasunez eta instalazio edo lan iraunkorren bidez egin dadin esleitzen dena. **Oh.** 33/2003 Legea, 86.3 art. **3.** Pertsona pribatu zein publikoek obrak eta zerbitzuak kudeatzea helburu duen administrazio-kontratua. **Oh.** 9/2017 Legea, 14. eta 15. art.

**emakidadun** [*concesionaria, concesionario*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Emakida eskuratzen duen pertsona fisiko zein juridikoa. **Ik.** *emakida.* **2.** Zerbitzu edo lan publikoak kudeatzeko kontratua esleitzen zaion pertsona fisiko zein juridikoa. **Oh.** 9/2017 Legea, 14. eta 15. art.

**emanaldi** [*sesión*] ♦ *Konst. Zuz.* **Ik.** *ekitaldi.*

**emantzipazio** [*emancipación*] ♦ *Zuz. Zib.* Egintza juridikoa, zeinaren bidez, 16 urte baino goragoko adingabeak adinez nagusiak duen

jarduteko gaitasuna eskuratzen duen. Eman-  
tzipatuaren jarduteko gaitasuna mugatua dago  
eta, horrexegatik, garrantzi ekonomiko handia  
duten erabakiak ezin ditu bere gurasoen edo  
kuratoren parte hartzerik gabe hartu. Baime-  
nik gabe gauzaten diren egintzak deusezta-  
garriak dira. Emantzipazioa lortzeko bideak bi  
dira: gurasoek baimendutakoa eta judizialki lor-  
daitekeena. Emantzipazioa erregistro zibilean  
inskrribatu behar da, hirugarrenen aurrean efeku-  
tuak izan ditzan. **Oh.** KZ, 314. art. eta hurr.

**emate** [*dación*] ♦ *Konst. Zuz.* Zor baten or-  
dainketari begira, ondasun bat entregatzea zo-  
rra kitatzeko.

**emphyteusis** [*enfiteusis*] ♦ *Zuz. Err. Ik. en-  
fiteusi.*

**emptio-venditio** [*compraventa*] ♦ *Zuz. Err.  
Ik. salerosketa.*

**enbargaezintasun** [*inembargabilidad*] ♦ *Ad-  
min. Zuz. 1.* Ebazpen bat betearazteko adminis-  
trazioak edo jurisdikzioak ondasun edo eskubi-  
dea ezin bahitua. **2.** Herri-jabariko ondasunen  
ezaugarria eta printzipioa. **Oh.** 33/2003 Legea,  
6. art. **Ik.** *jabari publiko.*

**enbargo** [*embargo*] ♦ *Zuz. Zib., Zuz. Proz.,  
Admin. Zuz.* Ondasun zehatz bat, higiezin edo  
higigarria, epailearen zaintzapean jartzea, en-  
bargoa duenaren izendapena dagokion erre-  
gistroan ezarri edo gauza gordailuan ezarri.  
Enbargoa kautelazko neurri gisa ezartzen da  
erabaki administratibo edo judizialaren zain,  
eta baita exekuzio prozeduren neurri ordain-  
tzaile edo betearazle gisa ere. Exekuzio pro-  
zeduran enbargoan dagoen ondasuna enkante  
publikoan besterentzen da, erantzuleak bere  
betebeharra bete ezean, eskubidedunaren inte-  
resa asetzeko. **Sin.** *bahi, bahitura.*

**enbargo-eginbide** [*diligencia de embargo*] ♦  
*Zuz. Proz.* Premiamendu-prozedura batean on-  
dasun baten bahitura jasotzen duen dokumen-  
tua.

**enbargo prebentibo** [*embargo preventivo*] ♦  
*Zuz. Proz.* Kautelazko neurri gisa ondasun bat  
prozesu baten menpe jartzea. **Sin.** *aurreneu-  
rrizko enbargo.*

**enbaxada** [*embajada*] ♦ *Nart. Zuz. Pu. 1.* En-  
baxadore bat buru duen maila goreneko misio  
diplomatikoa. **2.** Atzerrian kokatzen den misio  
diplomatiko iraunkor baten egoitza.

**endosu** [*endoso*] ♦ *Merkat. Zuz.* Deklarazio  
kanbiarioa zeinaren bitartez, titulu kanbia-  
rioaren edukitzaileak (endosugileak), bere si-  
naduraren bidez, beste pertsona bat (endosu-  
hartzailea) legitimatzen baitu dokumentuan  
adierazten den eskubidea balia dezan mugae-  
guna iritsitakoan. Dena den, mugaeguna iritsi  
aurretik endosu-hartzaileak dokumentua beste  
pertsona bati transmititzeko aukera dauka,  
eta, horrela, endosu-katea eratzen da. Endosu  
bidez transmititutako kreditu-eskubidea do-  
kumentuan literalki adierazitakoa da. Horrek  
esan nahi du tituluaren edukitzaileak posizio  
independente eta autonomoa duela bere au-  
rretik hartzekodun izan diren pertsonetik.  
Alegia, edukitzaileak ez du jasan beharko  
zordunak pertsona horien aurka *inter-partes*  
balia dezakeen salbuespenik, non eta ez duen  
titulua eskuratu, zorduna berariaz kaltetzeko.  
**Oh.** KLTL, 14-24. art.

**enerbazio** [*enervación*] ♦ *Zuz. Proz.* Utza-  
razpen-prozesu batean demandatutako maizter  
edo errentariak, utzarazpena ekiditeko, deman-  
datzaileari zor diona ordaintzeko edo beraren  
esku jartzeko duen ahalmena.

**enfiteusi** [*enfiteusis*] ♦ *Zuz. Err.* Errenta bat  
(*canon emphyteuticum*), zergak ordainduz, eta  
lurren ustiaketa etengabe eginez, beste inoren  
lurren gainean gozatzeko eta ustiatzeko  
eskubide erreala, heriotzarekin iraungitzen ez  
dena. **Sin.** *emphyteusis.* ♦ *Zuz. Zib.* Gozame-  
neskubide erreala mugatua, zehazki zentsu esku-  
bide erreala mota bat. Enfiteusian zentsualistak  
gauza higiezin baten jabetza soil mantentzen



du eta zentsudunari jabetza erabilgarria transmititzen dio; zentsualistak honen truke urtero kanon bat jasotzeko eskubidea eskuratzen du, eta ondasun higiezin kanonaren ordainketara lotzen da, kanona ordaindu ezean jabetza osoa berreskuratuz. **Ik.** *eskubide erreal mugatu, gozamen eskubide, jabetza, zentsu*.

**enfiteusi-zentsu** [*censo enfiteutico*] ♦ *Zuz. Zib.* Zentsualistak ondasun higiezin baten jabetza erabilgarria transmititzen dueneko zentsu mota; zentsualistak, jabetza soila mantentzen du eta, eskualdatutako jabetza erabilgarriagatik kanon bat jasotzeko eskubidea eskuratzen du. **Oh.** KZ, 1605. art. **Ik.** *zentsu*.

**enkante** [*subasta*] ♦ *Admin. Zuz.* Pertsona batek administrazioari zor dion diru-kopuru bat ordaindu ezean, enbargatu diren ondasun eta eskubideak preziorik altuena eskaintzen duenari esleitzeko era, administrazioaren beraren edo jurisdikzioaren erabakiz aplikatzen dena, premiamendu-bidearen prozedurari amaiera emanez. **Oh.** 39/2015 Legea, 101. art. **Ik.** *premiamentu bidea*.

**enkante judicial** [*subasta judicial*] ♦ *Zuz. Proz.* Exekuzio-prozesu baten magalean ondasunak egikaritzeko era, parte hartzen dutenen artean eskaintza onena egiten duenari esleitzen dizkiona. Jasotako diruarekin zorra ordaintzen zaio betearazleari, eta soberakina betearazleari itzultzen.

**enplegarritasun** [*empleabilidad*] ♦ *Lan Zuz.* Langile batek, bere ezaugarri eta formazioaren arabera, enplegatua izateko dituen aukeren zenbatespena.

**enplegatu** [*persona empleada*] ♦ *Lan Zuz.* Beste batentzat lanean ari den pertsona.

**enplegatu publiko** [*empleada pública, empleado público*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio nahiz erakunde publiko baten zerbitzuan diharduen langilea. Funtzionarioa edo lan-harremaneko langilea izan daiteke.

**enplegatzaile** [*empleadora, empleador*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *enplegu-emaile*.

**enplegatze-agentzia** [*agencia de colocación*] ♦ *Lan Zuz.* Enplegua eskaintzen dutenen eta enplegua eskatzen dutenen artean lan-bitartekaritza egiten duen agentzia. **Oh.** EL, 33. art.

**enplegatze-eskaintza** [*oferta de empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Lan-merkatuan egiten den eskaintza, enplegu-eskatzaillei zuzenduta.

**enplegatze-eskaintza egoki** [*oferta de empleo adecuada*] ♦ *Lan Zuz.* Enplegu-eskatzailleak ezinbestean onartu beharreko eskaintza. Onartu ezean, zigor administratiboa jaso dezake eskatzailleak. **Oh.** GSLO, 301. art.

**enplegatze-tasa** [*tasa de empleo*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *enplegu-tasa*.

**enplegu** [*empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Ordaindutako lana.

**enplegu-aniztasun** [*pluriempleo*] ♦ *Lan Zuz.* Aldi berean, langileak enplegu bat baino gehiago edukitzea.

**enplegu-aniztasuneko egoera** [*situación de pluriempleo*] ♦ *Lan Zuz.* Aldi berean enplegu bat baino gehiago duen langilearen lan-egoera.

**enplegu autonomo** [*empleo autónomo*] ♦ *Lan Zuz.* Norbere kontura egindako lana. **Oh.** LAE, 1. art.

**enplegu-baldintza** [*condición de empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Enplegua lortzeari edo enplegua galtzeari loturiko edozein baldintza.

**enplegu bete** [*pleno empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Enplegu-eskatzaille guztiek enplegua lortzen dutenean herrialde, eskualde edo jendarte batek duen enplegu-egoera. **Oh.** EK, 40.1 art; EL, 1. art.

**enplegu-bolumen** [*volumen del empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Enpleguaren kantitatearen neurketa.

**enplegu-bulego** [*oficina de empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Enplegu-politikaz arduratzen den bulegoa.

**enplegu egoki** [*empleo adecuado*] ♦ *Lan Zuz.* Langileari eskaintzen zaion enplegua, ezinbestean onartu beharrekoa. Onartu ezean zigor administratiboa jaso dezake eskatzaileak.

**enplegu egonkor** [*empleo estable*] ♦ *Lan Zuz.* Lan-kontratu mugagabea oinarrituriko enplegua.

**enplegu-egonkortasun** [*estabilidad del empleo*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *enpleguaren egonkortasun.*

**enplegu-emaile** [*empleadora, empleador*] ♦ *Lan Zuz.* Langilea enplegatzen duen pertsona. **Oh.** LE, 1.1 art. **Sin.** *enplegatzaile.*

**enplegu-erregulazioko espediente** [*expediente de regulación de empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Arrazoi ekonomiko, tekniko, antolakuntzako, edo ekoizpenekoengatik, lan-kontratuen geldiera edo amaiera proposatzen duen txostena. **Oh.** LE, 47. art.; LE 51. art.

**enplegu-eskaera** [*demanda de empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Lan-merkatuan egiten den eskaera, enplegu-eskaintzaileei zuzendua.

**enplegu-eskaintza** [*oferta de empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Lan-merkatuan egiten den eskaintza, enplegu-eskatzaileei zuzendua.

**enplegu-eskaintza publiko** [*oferta pública de empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Lan-merkatu publikoan egiten den eskaintza, enplegu-eskatzaileei zuzendua.

**enplegu-eskatzaile** [*demandante de empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Lan-merkatuan, enplegua eskatzen duen pertsona.

**enplegu-plan** [*plan de empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Enpleguaren aldeko plana, botere publikoek diseinatua.

**enplegu-plan nazional** [*plan nacional de empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Estatu mailako enpleguaren aldeko plana, botere publikoek enplegu-tasa igotzeko diseinatua.

**enplegu-politika** [*política de empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Enplegua sustatzeko eta langabeziari aurre egiteko neurri publikoen multzoa. **Oh.** EL, 1.1 art.

**enplegu-politika aktibo** [*política activa de empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Enplegua sustatzeko neurri publikoen multzoa. **Oh.** EL, 36. art.

**enplegu-politika pasibo** [*política pasiva de empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Langabeziaren kontrako neurri publikoen multzoa.

**enplegu prekario** [*empleo precario*] ♦ *Lan Zuz.* Aldi baterako kontratuan oinarrituriko enplegua, oro har, lan-baldintza eskasak dituena.

**enplegu publikoaren eskaintza** [*oferta de empleo público*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Administrazioan zein erakunde publiko batean hornitu nahi diren plazak — funtzionarioenak nahiz kontratutako langileenak — betetzeko deialdia onartzen duen administrazio-egintza. **Oh.** 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 70.1 art. **2.** Administrazioak behar dituen giza baliabideei buruzko neurriak jasotzen dituen dokumentu edo bitartekoa. **Oh.** 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 70.3 art.

**enplegu-tasa** [*tasa de empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Lan egiteko adina duen populazioan (16 urteitik aurrera) enplegua dutenen portzentajea. **Sin.** *enplegatze-tasa.*

**enplegu-zentro berezi** [*centro especial de empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Enpleguaz arduratzen den zerbitzua.

**enplegu-zerbitzu** [*servicio de empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Enpleguaz arduratzen den zerbitzua.

**enplegu-zerbitzu publiko** [*servicio público de empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Enpleguaz arduratzen den zerbitzu publikoa.

**enplegu-zuzenbide** [*derecho del empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Enpleguaren eta langabeziaren arloak arautzen dituen zuzenbidaren atala.

**enpleguaren egonkortasun** [*estabilidad del empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Enplegu mugagabea. Egoera horretan enplegua amaitzeko kausa bat behar da ezinbestean. **Sin.** *enplegu-egonkortasun.*

**enpleguaren egonkortasuneko printzipio** [*principio de estabilidad del empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Enplegu mugagabearen aldeko printzipioa, enplegua amaitzeko kausa bat behar dela aldarrikatzen duena.

**enpleguaren sustapen** [*fomento del empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Enplegua areagotzearen aldeko politika.

**enplegurako akordio pertsonal** [*acuerdo personal de empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Langabetuak sinaturiko dokumentua, langabetuaren eta enplegu-zerbitzu publikoaren eskubideak eta betebeharrak finkatzen dituena. **Oh.** EL, 41. art.

**enplegurako europar estrategia** [*estrategia europea de empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Europar Batasunaren enplegu-politika jasotzen duen tresna. **Oh.** EL, 1. art.

**enplegurako irispide** [*acceso al empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Enplegua lortze aldera ematen den urratsa, lanean hasteari dagokiona.

**enplegurako irispiderako berdintasun** [*igualdad en el acceso al empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Pertsona guztiek enplegua lortzeko orduan tratua bera izan dezaten eta diskriminaziorik jasan ez dezaten bermatu beharreko baldintza.

**enplegurako lanbide-prestakuntza** [*formación para el empleo*] ♦ *Lan Zuz.* Enplegua lortzera bideratutako prestakuntza, eskuarki, enpleguaren ardura duen Administrazio publikoaren eskumenekoa. **Oh.** EL, 40. art.

**enpresa** [*empresa*] ♦ *Lan Zuz.* Merkatura ondasunak edo zerbitzuak ekoizten dituen unitate ekonomikoa.

**enpresa-akordio** [*acuerdo de empresa*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuaren eta enpresako langileen

ordezkarien artean egindako akordioa, tekniko-ki hitzarmen kolektiboaz bestelakoa. **Sin.** *enpresako akordio. Ik.* *akordio kolektibo.*

**enpresa azpikontratasta** [*empresa subcontratista*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresa batek bere jarduera egin dezan kontratatzen duen bigarren enpresa. Enpresa horrek bere langile propioekin egingo du jarduera. **Oh.** LE, 42. art.

**enpresa-batzorde** [*comité de empresa*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresan diharduten langile kopurua 50ekoa edo handiagoa denean enpresako langileak ordezkatzeko dituen organoa. **Oh.** LE, 63. art. **Sin.** *enpresa komite. Ik.* *langileen delegatu.*

**enpresa-batzordeko kide** [*miembro del comité de empresa*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresa-komitean diharduen langilea. **Oh.** LE, 66. art. **Sin.** *enpresa-komiteko kide.*

**enpresa-entitate publiko** [*entidad pública empresarial*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Ondare propioa kudeatzeko ahala eta berezko nortasun juridikoa duen zuzenbide publikoko erakundea, bere finantzaketa nagusiki merkatutik eratorritako diru-sarreraren bidez lortzen duena. **Oh.** 40/2015 Legea, 103.1 art. **2.** Administrazioei edo erakunde autonomiadunei atxikita, prezio baten truke prestazio jarduerak, interes publikoko zerbitzuak edo ondasunak kudeatzen edo ekoizten dituen entitatea. Izendapen hau erabiliko da arlo edo sektore publiko estatal, foral zein lokalean. Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoan, aldiz, zuzenbide pribatuko entitate publiko deituko da. **Oh.** 40/2015 Legea, 103.2 art.

**enpresa erabiltzaile** [*empresa usuaria*] ♦ *Lan Zuz.* Aldi baterako enplegua behar duenean, aldi baterako laneko enpresaren zerbitzuak kontratatzen dituena. **Oh.** LE, 42. art.

**enpresa erabiltzailearen erantzukizun** [*responsabilidad de la empresa usuaria*] ♦ *Lan Zuz.* Aldi baterako laneko enpresaren zerbitzuak kontratatzen dituen enpresak lana ema-

ten dien aldi baterako enpresaren langileekiko duen erantzukizuna. **Oh.** LE, 42. art.

**enpresa erabiltzaileko langile** [*persona trabajadora de la empresa usuaria*] ♦ *Lan Zuz.* Aldi baterako laneko enpresaren zerbitzuak kontratatzen dituen enpresako langilea, enpresa erabiltzaile horrek kontratatuturikoa. **Oh.** LE, 42. art.

**enpresa erantzule** [*empresa responsable*] ♦ *Lan Zuz.* Hutsegiteren bat egon denean erantzukizun juridikoa duen enpresa.

**enpresa-komite** [*comité de empresa*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *enpresa batzorde.*

**enpresa-komiteko kide** [*miembro del comité de empresa*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *enpresa-batzordeko kide.*

**enpresa-kuota** [*cuota empresarial*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzari kotizatzerakoan, enpresaburuari ordaintzea dagokion zatia. **Ik.** *enpresaren ekarpen.*

**enpresa lantoki anitzeko** [*empresa con más de un centro de trabajo*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *lantoki anitzeko enpresa.*

**enpresa nagusi** [*empresa principal*] ♦ *Lan Zuz.* Bere jarduera egin dezan beste enpresa batekin kontrata egiten duen enpresa. Enpresa kontratista kontratatzen duen enpresa. **Oh.** LE, 42. art.

**enpresa-ondorengotza** [*sucesión empresarial*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *enpresaburu-aldaketa.*

**enpresa-subrogazio** [*subrogación empresarial*] ♦ *Lan Zuz.* Lan-harremanean, enpresaburu batek lehen zegoen enpresaburuaren lekua betetzea. **Oh.** LE, 44. art.

**enpresa-talde** [*grupo de empresas*] ♦ *Lan Zuz.* Ikuspegi ekonomikotik talde gisa funtzionatzen duen enpresa multzoa, enpresa baikoitzak bere nortasun juridiko propioa duela. **Sin.** *enpresen talde.*

**enpresa transnazional** [*empresa transnacional*] ♦ *Lan Zuz.* Estatu batean baino gehiagotan jarduera ekonomikoa duen enpresa.

**enpresa-zuzendaritza** [*dirección de la empresa*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaren zuzendaritza-boterea egikaritzen duen esparru edo organoa. **Oh.** LE, 20. art. **Sin.** *enpresako zuzendaritza.*

**enpresaburu** [*empresaria, empresario*] ♦ *Lan Zuz.* Lana ordaindu, zuzendu, eta lanaren fruitua bereganatzen duen subjektua. **Oh.** LE, 1.1 art. **Sin.** *enpresari.*

**enpresaburu-aldaketa** [*sucesión de empresas*] ♦ *Lan Zuz.* Lan-harremanean, enpresaburu batek lehen zegoen enpresaburuaren lekua betetzea. **Oh.** LE, 44. art. **Sin.** *enpresa-ondorengotza.*

**enpresaburu-elkarte** [*asociación empresarial*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuak biltzen dituen elkarte. **Oh.** EK, 7. art. **Sin.** *enpresaburuaren elkarte, enpresari-elkarte.*

**enpresaburu erantzule** [*persona empresaria responsable*] ♦ *Lan Zuz.* Hutsegiteren bat egon denean erantzukizun juridikoa duen enpresa.

**enpresaburu indibidual** [*persona empresaria individual*] ♦ *Lan Zuz.* Bakarka hartutako enpresa.

**enpresaburuaren agindu** [*orden empresarial*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuak, dagokion zuzendaritza-boterea egikaritzuz, ematen duen bete-beharreko agindua. **Oh.** LE, 20. art.

**enpresaburuaren erabaki kolektibo** [*decisión empresarial colectiva*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuak, aldebatez hartu, eta langileengan eragin kolektiboa duen erabakia.

**enpresaburuaren erantzukizun** [*responsabilidad empresarial*] ♦ *Lan Zuz.* Hutsegiteren bat egon denean enpresaburuak duen erantzukizun juridikoa.

**enpresaburuaren kaudimengabezia** [*insolvencia empresarial*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuak bere zor guztiak ordaintzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez edukitzea. **Oh.** LE, 33.6 art.

**enpresaburuaren nortasun juridiko** [*personalidad jurídica de la persona empresarial*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuak duen nortasuna, forma juridiko zehatz batean islatua.

**enpresaburuaren zuzendaritza-botere** [*poder de dirección empresarial*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuak duen nortasuna, forma juridiko zehatz batean islatua. **Oh.** LE, 20. art. **Ik.** *zuzendaritza-botere*.

**enpresaburuaren betebeharrak** [*obligación empresarial*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuak langilearen lana zuzentzeko duen boterea.

**enpresaburuaren elkarte** [*asociación empresarial*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *enpresaburu-elkarte*.

**enpresaburuaren ordezkaritza** [*representación empresarial*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuari lan-zuzenbideak ezarritako betebeharrak juridikoa.

**enpresako akordio** [*acuerdo de empresa*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *enpresa-akordio*.

**enpresako esparru** [*ámbito de empresa*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresari dagokion esparrua, enpresa maila gainditzen ez duena.

**enpresako hitzarmen kolektibo** [*convenio colectivo de empresa*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresa mailako esparrua duen hitzarmen kolektiboa, alegia, enpresa maila gainditzen ez duena. **Oh.** LE, 87. art.

**enpresako hitzarmenaren lehentasun** [*prioridad del convenio de empresa*] ♦ *Lan Zuz.* Hitzarmen kolektiboaren artean konkurrentzia edo talka dagoenean, enpresa mailakoak besteen gainetik duen lehentasuna. **Oh.** LE, 84.2 art.

**enpresako lantoki** [*centro de trabajo*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *lantoki*.

**enpresako zuzendaritza** [*dirección de la empresa*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *enpresa-zuzendaritza*.

**enpresaren bideragarritasun ekonomikoa** [*viabilidad económica de la empresa*] ♦ *Lan Zuz.* Aurrera begira, enpresak bizirauteko duen aukeraren zenbatespena.

**enpresaren ekarpen** [*aportación empresarial*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzari kotizatzerakoan, enpresaburuari ordaintzea dagokion zatia. **Ik.** *enpresa-kuota*.

**enpresaren eskualdaketa** [*transmisión de empresa*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresa bat eskuz aldatzea, eta, horren ondorioz, lan-harremanean, enpresaburu batek lehen zegoen enpresaburuaren lekua betetzea.

**enpresaren funtzionamenduaren beharrian** [*necesidades de funcionamiento de la empresa*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaren funtzionamenduari dagokion arazoia, lan-baldintzak aldatzea edo lan-kontratuak iraungitzea justikatu dezakeena.

**enpresaren ordezkari** [*representante de la empresa*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuaren ordezkari duen ordezkaria.

**enpresaren titular** [*titular de la empresa*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaren atzean dagoen eta nortasun juridikoa duen enpresaburuaren. **Oh.** LE, 1.1 art.

**enpresari** [*empresaria, empresario*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *enpresaburu*.

**enpresari-elkarte** [*asociación empresarial*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *enpresaburu-elkarte*.

**enpresari indibidual** [*empresaria, empresario individual*] ♦ *Merkat. Zuz.* Enpresaria edo merkataria den pertsona naturala. Printzipioz, edozein pertsona natural, adin nagusiko eta jarduteko gaitasun osoa duena izan daiteke enpresari edo merkatari indibidual, betiere merkatuan ohikotasunez jarduera ekonomi-

koren bat eginez gero. Konstituzioak hiritar guztientzat aitortzen du profesioa edo lanbidea aukeratzeko eskubidea. Ondorioz, edonork du merkataritzako izaera duen profesioa izateko legezko aukera. **Oh.** MK, 1.1, 4 eta 5. art.; EK, 38. art. **Sin.** *merkatarari indibidual.*

**enpresari sozial** [*empresaria, empresario social*] ♦ *Merkat. Zuz.* Merkatuan jarduteko pertsona juridiko forma aukeratu duen enpresaria. Enpresaria pertsona juridikoa da, ez ordea bere bazkideak. Aukera hau Konstituzioak aitortzen duen elkartzeko oinarritzko eskubidearen isla da. Enpresa sortzeko elkartzen diren pertsonen (natural zein juridikoen), oro har, askatasuna dute edozein forma juridiko aukeratzeko. Hala ere badira salbuespenak. Adibidez, kasu batzuetan, legez ezarrita dago merkatuan zentzuzko jardueraren egiteko forma juridiko zehatza erabiltzeko obligazioa (adibidez, bankugintzan edo asegurugintzan). **Oh.** MK, 1.2 art. eta EK, 22. art.

**enpresen arteko subrogazio** [*subrogación empresarial*] ♦ *Lan Zuz.* Lan-harremanean, enpresaburu batek lehen zegoen enpresaburuaren lekua betetzea. **Oh.** LE, 44. art.

**enpresen inskripzio** [*inscripción de empresas*] ♦ *Lan Zuz.* Bere jardueraren ekonomikoa hasi baino lehen, enpresak Gizarte Segurantzaren sisteman inskribatzeko duen betebeharra.

**enpresen talde** [*grupo de empresas*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *enpresa-talde.*

**entitate instituzional** [*entidad institucional*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Administrazioak sortu, zuzendu, finantzatu eta ikuskatzen duen erakunde publikoa, arauak ezarritako beharizan publiko jakinak asebeste edo helburu zehatzak lortzen dituena. **Oh.** 40/2015 Legea, 84.1 art. **Sin.** *arlotan publiko instituzional, sektore publiko instituzional.* **Ik.** *enpresa entitate publiko, erakunde autonomiadun.* **2.** Lurraldeko administrazioaren menpe dagoen erakunde publikoa,

bere arau sortzaileak jasotzen dituen helburuak eta eginkizunak betetzen dituena. **Oh.** 40/2015 Legea, 88.-108. art.

**entitate kudeatzaile** [*entidad gestora*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *erakunde kudeatzaile.*

**entitate laguntzaile** [*entidad colaboradora*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren kudeaketan laguntzen duten entitate pribatuak. Entitate horiek dira Gizarte Segurantzari laguntzen dioten mutua eta enpresak. **Oh.** GSLO, I. Tit, VI. kap.

**entitate lokal** [*entidad local*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Toki-administrazioaren zati den erakunde, Toki Autonomiaren Europako Gutunak eta Konstituzioak aitortzen duten toki-autonomiaren bermea aplikatzen zaiona. **Oh.** EK, 137.1 art. **Sin.** *toki-erakunde.* **2.** Udala, probintzia, Balear eta Kanaria Uharteak, eskualdeak, metropoli-aldeak eta udalen mankomunitateak. **Oh.** 7/1985 Legea, 3. art. **3.** Nortasun juridikorik ez daukan toki-erakunde, udalerriko lurraldea baino txikiagoa dena, autonomia-erkidego batzuetako arauak jarraiki. **Oh.** 7/1985 Legea, 24.bis art. **Ik.** *mankomunitate.*

**entzunaldi** [*audiencia*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Interesdunei espedientea erakutsi eta horiek alegazioak aurkeztea helburu duen izapidea, administrazio zein jurisdikzio prozedura batzuetan egin behar dena. **Oh.** 39/2015 Legea, 82. art. **Ik.** *administrazio-prozedura.* **2.** Zeharpen-prozeduretan ustezko erantzuleari eman behar zaion izapidea, Administrazioak aurkeztutako frogak eta alegazioak aurkaratu ahal izan ditzan. **Oh.** 39/2015 Legea, 82.4 art. **Ik.** *kontraesan-printzipio.* **3.** Administrazio-prozeduretan ebazpen proposamena eman aurretik egin behar den izapidea. **Oh.** 39/2015 Legea, 82.1 art. ♦ *Zuz. Proz.* Alderdiek alegazioak egin ahal izateko edo, kasua denean, frogak baloratzeko, prozesuan zehar burutu daitekeen izapidea.

**epai** [*sentencia*] ♦ *Zuz. Proz., Admin. Zuz., Konst. Zuz., Zuz. Err.* Epaiak edo epaimahaiak emandako ebazpen judiziala. Horren bidez aldeek eginiko eskaerei erantzuten zaie, eta amaiera ematen zaio auzialdi horretako prozesuari eta, errekurtsioen bidea agortuta, prozesuari berari, behin betiko. Epaiaren lekua eta data, erabakia zer epaiak edo epaimahaik hartu duen eta magistratu txostengilea nor den zehazten da. Epai hori arrazoitua izango da, eta xedapenez gain, hor jasoko dira, batetik, gertakariaren aurrekariak, aparteko paragrafo zenbakietan berezita; bestetik, frogatutako gertakariak; eta, azkenik, epaiaren oinarrian dauden zuzenbideko oinarriak.

**epai-agindu** [*orden judicial*] ♦ *Zuz. Proz.*  
**Ik.** *agindu judicial.*

**epai baiesle** [*sentencia estimatoria*] ♦ *Zuz. Proz.*  
Osorik edo partzialki auzibidera jo duenaren nahiak betetzen dituen epaia.

**epai-barruti** [*partido judicial*] ♦ *Zuz. Proz.*  
**Ik.** *barruti judicial.*

**epai bidezko babes** [*tutela judicial*] ♦ *Zuz. Proz.*  
**Ik.** *babes judicial.*

**epai bidezko babes eraginkorrerako eskubide** [*derecho a la tutela judicial efectiva*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *babes judicial eraginkorrerako eskubide.*

**epai-boterearen gobernu** [*gobierno del poder judicial*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *botere judicialaren gobernu.*

**epai deklaratio** [*sentencia declarativa*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesu judiziala abian jarri dutenen eskubideak aitortzen dituen epaia; hau da, epaiak eskubideak adierazten ditu eta haien efektuak, egon daitezkeen kezkek uxatuta.

**epai deuseztatzaile** [*sentencia anulatoria*] ♦ *Zuz. Proz.* Egintza juridiko bat indarrrik gabe uzten duen epaia: ondorio gabe uzten du arau bat, egintza juridiko bat, egintza admi-

nistratibo bat edo egintza prozesal bat. Beraz, galdu egiten dira arau horren eragin arautzailea edo erregulatzailea zein eragin indargabetzailea, eta, errotik akastuna izanik, arau hori inoiz existitu ez balitz bezala da.

**epai eratzaille** [*sentencia constitutiva*] ♦ *Zuz. Proz.* Besterik gabe aurreko egoera juridiko bat ontzat eman ordez egoera juridiko berri bat sortzen duen epaia. Aldarrikatzen den egunetik beretik du eragina epai horrek. Epai eratzailleak dira, adibidez, dibortzioa, adopzioa edo enpresa baten likidazio judiziala erabakitzen duena. Epai horiek gauza epaituaren maila absolutua izaten dute sarri. Bide ematen diote alde baten nahiari, baina ez dute eginbehar bat betetzeko zigorrik ezartzen; besterik gabe, eskubidea aldarrikatzen dute eta egoera juridiko berri bat sortzen dute aldean artean, edo lehendik zegoena aldatzen edo bertan behera uzten dute.

**epai ezesle** [*sentencia desestimatoria*] ♦ *Zuz. Proz.* Auzibidera jo duenaren nahiak aintzat hartzen ez dituen epaia; hau da, eskaria alde batera uzten duena.

**epai irmo** [*sentencia firme*] ♦ *Zuz. Proz., Admin. Zuz.* Errekurritu ezin den epaia, horren kontra legeak errekurtsorik aurreikusten ez duelako, posibleak diren errekurtsio guztiak agortu direlako edo errekurritzeko legez zehaztutako epea igaro delako.

**epai-karrera** [*carrera judicial*] ♦ *Zuz. Proz.*  
**Ik.** *karrera judicial.*

**epai prozesal huts** [*sentencia meramente procesal*] ♦ *Zuz. Proz.* Forma-akats edo -okerrak direla-eta uzia ebazten ez duen epaiaren azken erabakia. **Sin.** *prozesal hutsa den epai.*

**epaiaren oinarri faktiko** [*fundamento fáctico de la sentencia*] ♦ *Zuz. Proz.* Epaiaren atal bat, egitateak agertzen dituen: bai alderdiek planteatzen dituzten egitateak, bai frogatutaz ematen diren egitateak; azken horiek frogaren praktikaren ondorioz onartuak izango dira eta arrazoituak.

**epaiaren xedapenezko zati** [*parte dispositiva de la sentencia*] ♦ *Zuz. Proz.* Alderdiek prozesuan planteatu dituzten eskaera konkretuei buruzko erabakia; egindako eskaera guztiak onartuak edo ez onartuak izango dira, eta judizioaren kosten inguruan ere erabakia azalduko du.

**epaiaren zuzenbideko oinarri** [*fundamentos de derecho de la sentencia*] ♦ *Zuz. Proz.* Epaiaren oinarri juridikoa; hau da, hartuko den erabakian zuzenbidea aplikatuz eta interpreta-tuz oinarritzat hartzen den arrazoia.

**epaien bikoiztasun** [*duplicidad de sentencias*] ♦ *Zuz. Proz.* Egitate berberengatik bi epai gauzatzen diren egoera.

**epaiketa** [*juicio*] ♦ *Zuz. Proz., Konst. Zuz., Zuz. Err., Zuz. T. 1.* Epaiak gatazka ebazteko legearekin bat eta alderdiek jardundakoarekin bat egiten duen barne-gogoeta. **2.** Prozesua bera. **3.** Prozesuko ekitaldi nagusia: epailea aurrean dela alderdiek arrazoibideak ematen dituzten eta froga burutzen duten unea. **Sin.** *judizio*.

**epaiketa arrunt** [*juicio ordinario*] ♦ *Zuz. Proz.* Adierazpenezko prozesu zibilen eredua, Prozedura Zibileko Legearen 249. artikulua jasotzen dituen kasuetan erabiltzen dena. **Sin.** *judizio arrunt*.

**epaiketa aurreko arazo** [*cuestión prejudicial*] ♦ *EB. Zuz. Ik. arazo prejudizial*.

**epaiketa aurreko entzunaldi** [*audiencia previa al juicio*] ♦ *Zuz. Proz.* Adierazpenezko prozesu zibil arruntean, demandari erantzun ondoren eta epaiketaren egintzaren aurretik burutzen den fasea. **Sin.** *judizio aurreko entzunaldi*.

**epaiketa azkar** [*juicio rápido*] ♦ *Zuz. Proz.* Larritasun txikiko delitu zehatz batzuen epaitzeari aplikagarri zaion prozesua, instrukzio fasean eta ahozko epaiketaren prestaketan prozedura-

berezitasunak dituena. Beraren aplikazio-eremua irizpide hauen menpe dago: 1) gehienez bost urteko zigor askatasun-gabetzailea duen delitua izatea, eta zigorra bestelakoa denean, bakarka, batera edo hautabidez, gehienez hamar urtekoa izatea, zenbatekoa edozein izanda; 2) polizia-atestatuaren bitartez prozesua hasi izana; 3) polizia atxilotutako pertsonaren bat egotea eta guardiako epaitegiaren esku jarri izana edo, atxiloturik ez izanik, atestatuan salatu moduan agertzen dela-eta, norbaiti guardiako epaitegian agertzeko zitazioa egin izana; eta 4) baldintza hauetako bat betetzea: a) delitu gorria izatea; b) delitu hauetako bat izatea: lesioak, derrigortzeak, mehatxuak edo ohiko indarkeria fisikoa nahiz psikikoa, delitu horiek familia-eremuan egin badira; eta c) egitate zigorgarriaren instrukzioa ustez erraza izatea. **Oh.** PKL, 795-803. art.

**epaiketa kanbiario** [*juicio cambiario*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. kanbio-epaiketa*.

**epaiketa plenario** [*juicio plenario*] ♦ *Zuz. Proz.* Gatazka juridikoa inolako alegazio- eta froga-muga gabe aztertzen duen epaiketa. Haren emaitzak gauza epaituaren indarra lortzen du. **Sin.** *judizio plenario*.

**epaiketa sumario** [*juicio sumario*] ♦ *Zuz. Proz.* Gatazka juridikoa, alegazio eta frogei dagokienez, mugekin aztertzen duen epaiketa. Ondorioz, haren emaitzak ez du gauza epaituaren indarra lortzen.

**epaile** [*jueza, juez*] ♦ *Zuz. Err.* Pretoreak zabalduetako pribatuetan batean zotz eginez edo alderdiekin hala adostuta epaia (*sententia*) emateko enkargua zuen herritarra, horretarako berariaz izendatua. Epaiak ez zuten zertan zuzenbidean aditu izan haien zeregina ez baitzen frogak aztertu eta epaia ematea besterik. **Sin.** *iudex*. ♦ *Zuz. Proz., Konst. Zuz., Zuz. T.* Epaitzeko eta epaitutakoa betearazteko eginkizuna duen funtzionario publikoa. Beren eginkizunean, planteatzen zaizkien gaiekiko inolako



interes objektiborik gabe jardun behar dute epaileek, eta inpartzialak eta burujabeak izan behar dute. Era berean, epaileek aldaezinak ere izan behar dute (ikus *independentzia, inpartzialtasun judicial, aldaezintasun*). Epaitzerakoan, epaileek legeari eta zuzenbideari soilik men egin behar diote; horrek esan nahi du, eskatutako babesa ematen den edo ez erabakitzeko, zuzenbide objektiboaren arauekin bat etorritik jardun behar dutela. Era berean, beren eginkizunaren jardunean erantzukizuna ere badute, eta, zenbait kasutan, diziplinazko erantzukizuna eta zigor-erantzukizuna izan dezakete. **Oh.** EK, 112. eta 127. art.; BJLO, 12-16. art.

**epaile arrunt** [*jueza ordinaria, juez ordinario*] ♦ *Zuz. Proz.* Epaile independente eta inpartziala, konstituzio- eta lege-bermeekin ezarria eta aurretiaz zehaztutako eskumenaren barruan eta prozedurarekin bat jarduten duena. **Oh.** EK, 24.2 art. **Ik.** *legezko epailearen printzipio*.

**epaile dekan** [*jueza decana, juez decano*] ♦ *Zuz. Proz.* Hamar epaitegi edo gehiago dauden herrietan epaitegi horien titularrek legearen arabera esleitutako eginkizunak betetzeko aukeratzuten epailea. Lau urtean behin berri-itu behar da hautaketa, edo hautatuak, edozein arrazoi dela medio, kargua uzten duenean. Hamar epaitegi baino gutxiago dauden udalerrietan, eskalan posturik baxuena betetzen duen epaile edo magistratuak beteko ditu dekanoren eginkizunak.

**epaile disidente** [*jueza, juez disidente*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Epaiaren kontra bozkatu eta bere desadostasunaren arrazoiak azaltzearen, epaiaren zati xedatzailearen edo oinarri juridikoen kontra dituen argudioak jasotzen dituen testua aurkezten duen epailea.

**epaile naturalaren printzipio** [*principio de la jueza o juez natural*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *legezko epailearen printzipio*.

**epailearen erabaki** [*decisión judicial*] ♦ *Konst. Zuz. Ik.* *erabaki judicial*.

**epailearen inpartzialtasun** [*imparcialidad judicial*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *epailearen inpartzialtasun-printzipio*.

**epailearen inpartzialtasun-printzipio** [*principio de imparcialidad judicial*] ♦ *Zuz. Proz.* Jurisdikzioan jarduten ari den epailearen posizio neutrala jardun horren eraginpean dauden alderdiekiko; neutraltasuna edo epaileak prozesu batean aurrez aurre dauden aldeetako baten alde edo kontra aurretiko jarrerarik ez izatea. **Sin.** *epailearen inpartzialtasun*.

**epaile-sindiko** [*jueza-síndica, juez-síndico*] ♦ *Zuz. Proz.* Ohituran oinarrituta dagoen Valentziako Uren Auzitegiko kidea.

**epaimahai** [*jurado*] ♦ *Zuz. T.* Akusatua epaitzen duen eta epaia ematen duen pertsona-taldea.

**epai-mugape** [*demarcación judicial*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *auzitegi-mugape*.

**epai-organo** [*órgano jurisdiccional*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *jurisdikzio-organo*.

**epai-polizia** [*policía judicial*] ♦ *Konst. Zuz.* Epaitegi eta auzitegiei, bai eta Ministerio Fis-kalari ere, delituen ikerketan eta sententzien betearazpenean laguntza ematen dien polizia.

**epaitegi** [*juzgado*] ♦ *Zuz. Proz., Konst. Zuz.* Epaile bakar batek eratutako jurisdikzio-organoa.

**epaitu** [*juzgar*] ♦ *Zuz. Proz., Admin. Zuz., Zuz. T. 1.* Justizia administratu. **2.** Auzi judicial bat erabaki. **3.** Epai eman. **4.** Epailearen edo magistratuaren eginkizunak bete.

**epaitza** [*fallo*] ♦ *Zuz. Proz., Zuz. T. 1.* Aldeen nahien gaineko ebazpena, kondenan zehaztutako kopuruari eta kostuei buruzko adierazpena. **2.** Epaiaren azken zatia, zati erabakigarria.

**epaitze** [*enjuiciamiento*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *judiziamendu*.

**epatu** [*emplazar*] ♦ *Zuz. Proz.* Alderdi demandatuari edo interesdunari epaketaren berri jakinarazi, eta bere legezko eskubide edo interesen alde agertzeko epe bat eman.

**epatze** [*emplazamiento*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Administrazioarekiko auzi-jurisdikzioako errekurtoa aurkezten denean, administrazioak espedientean agertzen diren interesdun guztiei egiten zaien deialdia. **Oh.** 29/1998 Legea, 48.1 art. **2.** Administrazioak alderdi guztiei jakinarazpen bat egitea, bederlatzi eguneko epean jurisdikzio organoaren aurrean bertara daitezten. **Oh.** 29/1998 Legea, 49.1 art. ♦ *Zuz. Proz.* Jakinarazpen prozesalaren egintza bera. Haren bidez, deialdia jasotzen duen pertsonak aukera du epe jakin batean epaketan bertaratzeko eta jarduteko.

**epatze-gutun** [*carta de emplazamiento*] ♦ *EB. Zuz.* Europako Batzordeak estatu kide bati luzatzen dion eskaera, tratatuetan edo zuzenbide eratorrian jasotako obligazioaren bat ez duenean bete; horren bidez, epe bat ematen zaio estatu kideari oharrak aurkez ditzan. **Ik.** *ez-betetzearikako prozedura*.

**epe** [*plazo*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Administrazio-prozeduraren edozein izapide edo jarduera egiteko ezartzen den denbora-tartea. **Oh.** 39/2015 Legea, 29. art. **2.** Urtetan, hilabetetan, egunetan eta ordutan zenbatzen den aldia, Administrazioak zein interesdunek kontuan izan behar dutena izapideak eta jarduerak burutzen dituztenean. **Oh.** 39/2015 Legea, 31.2 art. **3.** Eskubideak hartu edo galtzeko eta administrazio-ahalak egikaritzeko aukera ematen duen denbora-tartea. **Oh.** 39/2015 Legea, 24.1 art. eta 40/2015 Legea, 30. art. **Ik.** *epemuga, preskripzio epe*. ♦ *Zuz. Zib.* Zerbait emateko, egiteko edo ez egiteko ezarrita dagoen mugatutako denbora-bitartea. **Ik.** *epearen onura, epemuga, fuintsezko epemuga, kaduzitate, preskripzio*.

**epe exekutiboko errekareru** [*recargo del período ejecutivo*] ♦ *Fin. Zuz.* Epe exekutiboan hiru errekareru mota daude: errekareru exekutibo

(% 5), premiamendu-errekargu murriztua (% 10), eta premiamendu-errekargu arrunta (% 20).

**epealdi** [*período*] ♦ *Fin. Zuz.* Aldizkako tributuetan egitate zergagarriak (adibidez, errenta lortzea) denboran zehar irauten du. Legeak jarraikortasun hori epealdietan zatitzen du eta zergaldi bakoitzetik betebeharrak bat sortzen da.

**epearen onura** [*beneficio del plazo*] ♦ *Zuz. Zib.* Obligazio jakin bat betetzeko alderdiek ezarritako epea hartzekodunaren eta zordunaren mesederako dela sumatzea edo presumitzea. Baina posible da ondorioztatzea, kasu zehatz batean, epea eurentariko baten alde bakarrik ezarri dela. Hala, alderdiek adosten dutenean hartzekodunak ezingo duela zordunaren prestazioa epea bete arte galdatu (*pacto de non petendo*), ondoriozta daiteke epea zordunaren alde ezarri dela. Aldiz, alderdiek adosten badute zordunak ez duela eskubiderik obligazioa betetzeko epea heldu arte (*pacto de non solvendo*), sumatuko da epea hartzekodunaren alde ezarri dela. **Ik.** *epe*.

**epemuga** [*término*] ♦ *Zuz. T.* Epearen hasierako edo amaierako une zehatza (hasierako epemuga eta azken epemuga, hurrenez hurren). **Oh.** 1/2000 Legea, 132. art.; 39/2015 Legea, 29. art. **Ik.** *epe*. ♦ *Zuz. Zib.* **1.** Prozedurazko egintza bat aurrera eramateko denbora muga. **2.** Negozio juridiko baten ondorioak menperatzeko edota prestazio zein betebeharrak bat aurrera eramateko ezartzen den denbora zehaztapena. **Ik.** *preskripzio*.

**erabaki** [*decisión*] ♦ *EB. Zuz.* Europar Batasuneko erakundeek hartzen duten egintza juridikoa, bere osagai guztiei dagokienez betebeharreko izaera duena. Erabakia hartzaile espezifikoko bati zuzen dakioke edo ez. **Oh.** EBFT, 288. art.

**erabaki judicial** [*decisión judicial*] ♦ *Konst. Zuz.* Botere judicialak kasu bati erantzuna ema-

teko adierazten duen irizpena edo erabakia, epaiak barne. **Sin.** *epailearen erabaki*.

**erabaki kolektibo** [*decisión colectiva*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuak, aldebatez hartu, eta lan-gileengan eragin kolektiboa duen erabakia. **Ik.** *enpresaburuaren erabaki kolektibo*.

**erabakimen** [*albedrío, arbitrio*] ♦ *Zuz. T. Ik. aukeramen*.

**erabateko desgaitasuna** [*inhabilitación absoluta*] ♦ *Zig. Zuz.* Eskubideez gabetzeko zigorra: nagusia edo erantsia izan daiteke. Zigortuak dituen ohore, enplegu eta kargu publiko guztiez behin betiko gabetzea dakar, nahiz eta hautapenekoak izan. Horrez gain, zigorrak ezgaitasuna dakar horiek guztiak lortzeko kondenaren denboraren bitartean. **Oh.** ZK, 41. art.

**erabateko deuseztasun** [*nulidad plena*] ♦ *Zuz. Zib. Ik. deuseztasun*.

**erabateko deuseztasun** [*nulidad absoluta*] ♦ *Admin. Zuz. 1.* Egintza administratiboaren baliogabetasuna, administrazioak 39/2015 Legearen 47.1 artikulua ezartzen dituen akatsak egitearen ondorioz sortzen dena. **Oh.** 39/2015 Legea, 47.1 art. **Sin.** *deuseztasun absolutu, zuzenbide osoko deuseztasun*. **Ik.** *baliogabetasun*. **2.** Pertsona askori eragiten dien baliogabetasuna, administrazioak orden publikoari eraso egiten dion jarduera ez-zilegia egin izanaren ondorioz sortzen dena. **Oh.** 29/1998 Legea, 72.1 art. **3.** Administrazioak onartutako erregelamenduaren baliogabetasuna, honako xedapen hauek urratzeagatik sortzen dena: Konstituzioa, Legea, goi lerruneko arauak, **4.** Administrazioak onartutako erregelamenduaren baliogabetasuna honako printzipio hauek bortxatzearen ondorioz sortzen dena: lege erreserba eta zigortzeko xedapenen atzeraginik eza, betiere, xedapen eta printzipio horiek aldekoak ez badira. **Oh.** 39/2015 Legea, 47.2 art.

**erabateko ezintasun iraunkor** [*incapacidad permanente total*] ♦ *Lan Zuz.* Ezintasun iraunkorraren maila. Maila hau aitortuko da langileak ezin duenean jarraitu bere ohiko lana egiten, baina beste lanak egin ditzakeenean. **Oh.** GSLO, 194. art.

**erabateko gehiengo** [*mayoría absoluta*] ♦ *Konst. Zuz.* Hauteskundeetan, guztira emandako botoetatik erdiak baino gehiago aldekoak direnean lortzen den gehiengoa.

**erabateko langabeziagatik prestazio** [*prestación por desempleo total*] ♦ *Lan Zuz.* Aldi baterako zein behin betiko lan egiteari utzi ondoren langileari jasotzea dagokion prestazioa. **Oh.** GSLO, 262.2 art.

**erabilera** [*uso*] ♦ *Admin. Zuz. 1.* Lurzorua aprobetxatzeko era, lurralde-antolamenduak, hirigintzak edo ingurugiroari buruzko plangintzak adierazten duten moduan egitekoa. **Oh.** Besteak beste, Eusko Legebiltzarrak onartutako 4/1990 edo 2/2006 Legeak. **2.** Pertsonek, herri-jabariko ondasunei ematen dieten erabilera. Jabari publikoa baliatzeko hiru modu nagusi daude: erkidea (orokorra nahiz berezia) eta pribatiboa. **Oh.** 33/2003 Legea, 85.1, 85.2 eta 85.3 art.

**erabilera-eskubide** [*derecho de uso*] ♦ *Zuz. Zib.* Titularrari gozamen mugatua aitortzen dion eskubide erreale eskualdaezina; titularrak eskubidea izango du ondasunaren fruituak jasotzeko bere eta beraren familiaren beharrezan asetzeraino. **Oh.** KZ, 524. art.

**erabilgarritasun publiko** [*utilidad pública*] ♦ *Admin. Zuz. Ik. onura publiko*.

**erabiltzaile** [*usuaria, usuario*] ♦ *Konst. Zuz. 1.* Zerbitzu publikoen hartzailea. **2.** Beste pertsona baten gauzak zenbait mugarekin erabiltzeko eskubidea duen pertsona.

**eragile** [*inductora, inductor*] ♦ *Zig. Zuz.* Beste pertsona bat edo beste batzuk, presio psiko-

logikoaren bidez, delitu egitera indutziten dituen pertsona. **Oh.** ZK, 28. art.

**eragin** [*inducir*] ♦ *Zuz. T.* 1. Ekintza bat egitera edo zerbait pentsatzera bultzatu. Zuzenbidearen eremuan, eskuarki, ekintza kaltegarriekin edo legez kontrakoekin du zerikusia. 2. Logikaren esparruan, lege orokor bat gertaera partikularren ezagueran oinarritzea.

**eragin frogagarri** [*eficacia probatoria*] ♦ *Zuz. Proz.* Frogabideek epaiketan duten eraginkortasuna. **Sin.** *eraginkortasun frogagarri.*

**eragin orokor** [*eficacia general*] ♦ *Lan Zuz.* Hitzarmen kolektiboak eragina izatea bere aplikazio eremuko langile eta enpresaburu guztiengana. Langileen estatutuko hitzarmen kolektiboek duten eraginkortasuna. **Oh.** LE, 82.3 art.

**eragin prozesal** [*eficacia procesal*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesua bukaeraraino eramateko alderdiek planteatutako egintzek edo jarduerak eragina eta ondorioak izatea.

**eragindako partaidetza** [*participación provocada*] ♦ *Zuz. Proz.* Epaiketan jada alderdi direnetako batek edo gehiagok eskatuta, ordu-ra arte hirugarren izan dena alderdi bihurtzea. Normalean demandatuak eskatu ohi du, hirugarrena bere tokian jartzeko eta hala, berak, epailearen baimenarekin, epaiketa uzteko.

**eraginkortasun** [*eficacia*] ♦ *Zuz. Zib.* Eragina sortzeko gaitasuna; eragina juridikoa da ondorio juridikoak sortzen dituenean. Kode Zibilak, arauen eraginkortasun juridikoaren ildora ondokoa dio: legea ez ezagutzeak ez duela lege edo arauaren eraginkortasuna ekiditen, legea bete egin behar dela kasu guztietan.

**eraginkortasun** [*eficiencia*] ♦ *Zuz. T.* Espero edo nahi den efektua lortzeko ahalmena. Lortu beharreko emaitzak berandutzerik gabe edo ezinbesteko eragozpenik gabe erdiestean datza.

**eraginkortasun frogagarri** [*eficacia probatoria*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *eragin frogagarri.*

**eraginkortasun pertsonal** [*eficacia personal*] ♦ *Lan Zuz.* Hitzarmen kolektiboak aplikazio-eremuko langileriari dagokionez duen eraginkortasuna.

**eraginkortasun pertsonal mugatu** [*eficacia personal limitada*] ♦ *Lan Zuz.* Hitzarmen kolektiboak arau eraginkortasuna edukitzea bakarrik alderdi sinatzaileetan afiliatuta edo asoziatuta dauden langile eta enpresaburuengan. Langileen Estatutuaren betekizunak betetzen ez dituzten hitzarmen kolektiboek duten eraginkortasuna da. **Oh.** LE, 82.3 art.

**eraginkortasun pertsonal orokor** [*eficacia personal general*] ♦ *Lan Zuz.* Hitzarmen kolektiboak arau-eraginkortasuna edukitzea bere aplikazio eremuko langile eta enpresaburu guztiengana. Langileen estatutuko hitzarmen kolektiboek duten eraginkortasuna da.

**eraginkortasun zuzen** [*eficacia directa*] ♦ *EB. Zuz.* Justizia Auzitegiak europar arauetara aitorturiko ezaugarria, zeinaren arabera, arau horiek arauen hartzaileak, hau da, estatuak eta herritarrak, berehala behartzen baitituzte eta hartzaileek galda baitezakete barne-azuzitegietan arauak bete daitezten. **Oh.** EBJaren epaia, C- 26/1962, Van Gend en Loos vs Holanda. **Sin.** *efektu zuzen, eragin zuzen.*

**eraginkortasunik ez** [*ineficacia*] ♦ *Zuz. Zib.* Eraginkorra ez denaren nolakotasuna. Kontratuen ikuspuntutik, berezko efektuak sorrazten ez dituen kontratuaren nolakotasuna. Kontratuaren eraginkortasun ezaren arrazoiak ezberdinak izan daitezke. Hala nola, kontratuaren baliozkotasunarekin erlazionatuak daudenak (deuseztasuna eta deuseztagarritasuna). Edota, kontratuaren eraketa arrunta izan arren, kontratuak efektuak galtzea sorrazten dutenak. Azken hauen artean, suntsiarazpena, errebokazioa edota hutsaltzea aurki daitezke. **Ik.** *deuseztasun, deuseztagarritasun, errebokazio, hutsaltze, suntsiarazpen.*

**eraginkortasun-printzipio** [*principio de eficacia*] ♦ *Zuz. T.* Printzipio honen arabera, ordenamendu juridiko bat edo arau bat eraginkorra izango da, baldin eta berau ematean ezarritako helburuak ondo betetzen badira. **Oh.** EK, 103. art.

**eragite** [*inducción*] ♦ *Zig. Zuz.* Beste pertsona bat edo batzuk delitua burutzeraz bultzatzean datzan partaidetza mota. Egiletzarekin partekatzen da zigorra ezartzeari begira. **Oh.** ZK, 28.a art.

**eragozpen** [*objeción*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Estatu edo nazioarteko erakunde kontratatzaile batek beste batek egindako tratatu-erreserba batekiko desadostasuna adierazten duen aldebakarreko adierazpena. Horren bitartez, elkarrekin izango dituzten harremanetan tratatu hori indarrean jartzea eragotzi daiteke edota erreserbak aipatzen dituen xedapenak aplikaezin ere bihur daitezke. Erreserbaren jakinarazpena jasotzen denetik gehienez ere 12 hileko epean formulatu behar da idatziz, baina edozein unetan erretira daiteke. **Oh.** TZVK, 20.4, 21.3 eta 22. art., 25/2014 Legea, 2. s) art.

**eragozpen fiskal** [*objeción fiscal*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Konbikzioak alegatuta, derrigorrezko zergak ordaintzeari uko egitea edo objektatzea. Esaterako, pazifismoan oinarrituta, errenta aitortpenena egiterakoan, helburu militarretara bideratzen den portzentajea estatuari ordaindu beharrean, haren baliokidea elkarte bakezale bati dohaintzan ematea. Eragozpen fiskala ez dute bidezkotzat jo ez administrazioak, ezta auzitegiek ere. **Sin.** *kontzientzia-eragozpen*. **Ik.** *objekzio fiskal*.

**erailketa** [*asesinato*] ♦ *Zig. Zuz.* Giza biziaren aurkako delitua, inguruabar hauetako bat gertatzen denean burutzen dena: maltzurkeria; prezio, saria edo hitzematea; ankerkeria, edo biziaren aurkako delitua burutzea beste delitu bat errazteko edo ezkutatzeko asmoz. **Oh.** 139. eta 140. art.

**erakunde** [*entidad, organismo*] ♦ *Zuz. T.* Pertsona juridikotzat hartzen den edozein elkarte.

**erakunde** [*institución*] ♦ *Konst. Zuz. 1.* Sistema politiko baten oinarritzko antolamendua. **Sin.** *instituzio, instituzio publiko*. **2.** Ideia baten inguruan antolatu diren arau eta harremanen multzoa. **Sin.** *erakunde juridiko*. **Ik.** *antolakunde, organizazio*.

**erakunde juridiko** [*institución jurídica*] ♦ *Zuz. Zib.* Ordenamendu juridikoaren egiturazko antolakuntzarako balio duen elementua.

**erakunde kriminal** [*organización criminal*] ♦ *Zig. Zuz.* Bi pertsonak baino gehiagok, modu adostu eta koordinatuan eta delituak gauzatze-ko helburuarekin, mugagabeko epealdirako osatutako elkarte egonkorra. **Oh.** ZK, 570 bis art.

**erakunde kudeatzaile** [*entidad gestora*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren arlo bat kudeatzen duen organo publikoa. **Oh.** GSLO, V. kap. 1. atala. **Sin.** *entitate kudeatzaile*.

**erakunde-orekaren printzipio** [*principio de equilibrio institucional*] ♦ *EB. Zuz. Ik.* *oreka instituzionalaren printzipio*.

**erakunde publiko** [*institución pública*] ♦ *Konst. Zuz.* Interes publiko bat betetzen duen organismoa. **Sin.** *instituzio publiko*.

**erakundetutu** [*institucionalizar*] ♦ *Zuz. T.* **1.** Erakunde-izaera eman. **2.** Elkarte bati legezko izatea aitortu.

**erakuts-zalekeria** [*exhibicionismo*] ♦ *Zig. Zuz.* Sexu-ukigabetasunaren aurkako delitua, adingabe edo ezgaien aurrean erakuspen-egin-tza lizunak gauzatuz burutzen dena. **Oh.** ZK, 185. art.

**eranskin** [*apéndice*] ♦ *Zuz. Zib.* Espainiako Kode Zibila aldarrikatu zenean, Estatuko lurralde batzuek zuten berezko zuzenbide zibila

jasotzen zuen testua. Foru-zuzenbide horiek, eranskinetan jasoak, Espainiako Kode Zibilar atxikitzea adostu zen. Aragoik bakarrik aldarrikatu zuen bere eranskina, 1925ean.

**erantsitako prestazio** [*prestación accesoría*] ♦ *Merkat. Zuz.* Kapital-sozietateetan ekarpenaz besteko prestazioa, kapital soziala osatuko ez duena eta estatutuetan ezarri ahal izango dena, haren eduki konkretu eta zehatza adieraziz, doan ala ordainsari baten truke emango den esanez eta hura ez betetzeak duen klausula penala ere azalduz. **Oh.** KSL, 86. art.

**erantzukizun** [*responsabilidad*] ♦ *Zuz. Zib.* Egindako kaltea ordaintzeko betebeharra. **Ik.** *erantzukizun zibil, kontratuzko erantzukizun.*

**erantzukizun kriminal** [*responsabilidad criminal*] ♦ *Zuz. Proz.* Ordena juridikoaren kontrakoa eta zigor-legeen arabera zigorgarria den egitate zehatz bat burutzeak dakarren erruduntasuna. Zigor-legeek tipifikatutako delituzko egitatea burutzeak dakarren ondorio juridikoa. **Sin.** *zigor-erantzukizun.*

**erantzukizun mugatu** [*responsabilidad limitada*] ♦ *Merkat. Zuz.* Egitura korporatiboa duten merkataritza-sozietateetan bazkideek duten erantzukizun-onura, kapital sozialera egiten duten ekarpenaren mugarekin erantzungo baitute sozietatearen zorreatatik eta ez euren ondasunekin. **Oh.** KSL, 1. art.

**erantzukizun mugatuko sozietate** [*sociedad de responsabilidad limitada*] ♦ *Merkat. Zuz.* Kapital-sozietatea, zeinean kapitala, sozietate-partaidetzatan banaturik, bazkide guztien ekarpenen bidez osatzen baita eta bazkideek ez baitute sozietatearen zorren gain inolako erantzukizun pertsonalik. **Oh.** KSL, 1.2 art.

**erantzukizun unibertsal** [*responsabilidad universal*] ♦ *Zuz. Zib.* Obligazioa betetzen ez denean, zordunak bere oraingo eta etorkizuneko ondasun guztiekin erantzuteko obligazioa.

**erantzukizun zibil** [*responsabilidad civil*] ♦ *Zuz. Zib.* Inor ez kaltetzeko obligazioa urratzean sortutako kaltea ordaintzeko sortzen den obligazioa. **Ik.** *erantzukizun, kalte.*

**erantzukizunaren printzipio** [*principio de responsabilidad*] ♦ *Konst. Zuz.* **Ik.** *erantzukizun-printzipio.*

**erantzukizunpeko adierazpen** [*declaración responsable*] ♦ *Admin. Zuz.* Interesa duen pertsona batek sinatzen duen agiri bat da, zeinean bere erantzukizunaren pean honakoak adierazten baititu: betetzen dituela indarrean den araudiak eskubide edo ahalmen bat aitortzeko edo hura baliatzeko ezarritako betekizunak, badituela hori egiaztatzen duten agiriak, Administrazioaren esku jarriko dituela agiriok hark hala eskatzen dionean, eta konpromisoa hartzen duela aurreko betebeharrak betetzeko aitortpen edo baliatze horri dagokion denbora osoan. **Oh.** 39/2015 Legea, 69. art.

**erantzukizun-printzipio** [*principio de responsabilidad*] ♦ *Konst. Zuz.* Ingurumen-zuzenbidean garatu den printzipioa, Hans Jonasi egotzia. Printzipio honen arabera, gizakien jarduerak bateragarriak izan behar dute gizakiak Lur planetan bizitzearekin. **Sin.** *erantzukizunaren printzipio.*

**erantzule** [*responsable*] ♦ *Zuz. T., Konst. Zuz.* Zerbaitengatik edo norbaitegatik ezinbestean erantzuten duena. ♦ *Fin. Zuz.* Zordun nagusiarekin batera legeak, tributu-betebeharpeko gisa izendatzen duen pertsona edo erakundea. Legean kontrako xedapenik ez bada, erantzukizuna subsidiarioa izango da. **Sin.** *tributuaren erantzule.*

**erantzule kriminal** [*responsable criminal*] ♦ *Zuz. Proz.* Delituzko egitate bat burutzeagatik epaiak errudun deklaraturako pertsona fisiko edo juridikoa. **Sin.** *zigor-erantzule.*

**erantzule solidario** [*responsable solidaria, solidario*] ♦ *Fin. Zuz.* Tributu-betebeharpeko mota

bat. Haren aurka egiteko ez da beharrezkoa zordun nagusiaren aurka premiamendu-bidea hastea; aski da zordun nagusiak borondatezko epean ez ordaintzea eta erantzukizun-adierazpena egotea.

**erantzule subsidiario** [*responsable subsidiaria, subsidiario*] ♦ *Fin. Zuz.* Tributu-bete-beharpeko mota bat. Haren aurka egiteko ez da aski zordun nagusiak (edo erantzule solidarioak, baldin halakorik bada) tributu-zorra epe barruan ez ordaintzea. Horrez gain, erantzukizun-adierazpena egon behar du, eta administrazioak zordun nagusiaren aurka premiamendu-bidea erabili behar izan du baina zorra kobratzea lortu gabe.

**erantzule zibil** [*responsable civil*] ♦ *Zuz. Proz.* Delituzko egitatea burutzearen ondorioz, kalte-galerak egonez gero, gauzaren itzulketari, kaltearen konponketari edo kalte-galeren ordainketari aurre egin behar dion pertsona. Haren kontra zuzentzen da akzio zibila, zigor-prozesuari metaturiko prozesu zibilean. **Oh.** ZK, 110. art.

**erantzule zibil subsidiario** [*responsable civil subsidiaria, subsidiario*] ♦ *Zuz. Proz.* Delituzko egitatearen egile izan gabe, eta zuzeneko erantzule zibilak erantzun ez duelako, izaera zibileko delituaaren ondorioei aurre egin behar dien pertsona.

**eraso** [*agresión*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* **1.** Indarraren erabilera ez-zilegiaren bitartez estatu batek beste baten kontra hasitako gatazka armatua. **Oh.** BN 3314 (XXIX). **Sin.** *agresio, agresio-gerra, eraso-gerra, gerra.* **2.** Indarraren erabilera ez-zilegiarekin lotuta dagoen nazioarteko zuzenbideko krimena, zeina, baldintza zorrotzak tarteko, Nazioarteko Auzitegi Penalean epaitzen baita. **Oh.** NAPE, 5. eta 8. bis art.

**eraso-gerra** [*guerra de agresión*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* **Ik.** *eraso.*

**eratzaille** [*constituyente*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *konstituziogile.*

**eratzetratatu** [*tratado constitutivo*] ♦ *EB. Zuz. Ik.* *tratatu sortzaile.*

**erdibideko arautze-metodo** [*método de reglamentación indirecto*] ♦ *Nart. Zuz. Pr.* Nazioarteko egoera pribatutik eratorritako gatazkari konponbide materialik ematen ez dion arautze-mota.

**erditze-suposizio** [*suposición del parto*] ♦ *Zuz. Zib.* Faltsuki erditze bat norbere buruari egotean datzan delituzko jarrera, inongo haurdunaldirik izan gabe bere ondorioak, erditzearen ondorengotza barne, bereganatuz.

**eremu** [*ámbito*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Toki, leku, espazio edo lurralde baten inguramendua edo inguruko muga. **Oh.** lat. *ambitus.* **2.** Arau baten baliozkotasunaren zehaztapena, araua noiz, non eta zeini aplikatzen zaion esaten duena. **Sin.** *aplikazio-eremu.*

**eremu ultraterrestre** [*espacio ultraterrestre*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Aire espaziotik haratago kokatzen den nazioarteko interesa duen eremua. Espazio horren esplorazio eta erabilera, —baita ilargia bera eta gainontzeko astroak ere—, askatasun- eta berdintasun-printzipioetan oinarritzen da: estatuen eskuratze-ezintasuna, erabilera baketsua, nazioarteko kooperazioa eta elkarren arteko laguntza.

**erkide** [*comunera, comunero*] ♦ *Zuz. Zib.* Erkidego batean parte hartzen duen pertsona.

**erkidego** [*comunidad*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Herri, eskualde edo nazio bateko pertsonen multzoa. **Oh.** lat. *comunitas.* **Sin.** *komunitate.* **2.** Akordio politiko eta ekonomikoen bidez lotutako nazioen multzoa. Adibidez, Europar Erkidegoa. **3.** Ezaugarri edo interes berdinak elkarren artean dituzten pertsonen multzoa (erkidego erlijiosoa, linguistikoa). **4.** Espainiako estatuaren lurralde-antolamenduaren barruan, entitate duen lurraldeetako bakoitza (autonomia-erkidegoa). ♦ *Zuz. Zib.* Pertsona batek baino gehiagok eskubide beraren titulartasuna aldi berean

dutenean sortzen dena. Jabetza zatikatuan ez bezala, erkidego kasuan pertsonak eskubidearen titulartasuna bere osotasunean izango dute. **Sin.** *komunitate*.

**erkidegoko metodo** [*método comunitario*] ♦ *EB. Zuz. Ik. metodo komunitario*.

**erlatibismo** [*relativismo*] ♦ *Zuz. T. Doktrina epistemologikoa, zeinaren arabera, ezagutzaren baliozkotasuna sorburuko testuinguruko aldagaien arabera baita: lekua, denbora, garaia historikoa, kultura....*

**erlatibismo juridiko** [*relativismo jurídico*] ♦ *Zuz. T. Zuzenbidea egia osokoa ez dela aldarrikatzen duen ikuspegia.*

**erlatibismo kultural** [*relativismo cultural*] ♦ *Zuz. T. Kultura guztien printzipio eta ezaugarriek balio bera dutela aldarrikatzen duen ikuspegia.*

**erlazio juridiko-tributario** [*relación jurídico tributaria*] ♦ *Fin. Zuz. Tributuen aplikazioa-gatik sortzen diren obligazio eta betebeharren, eskubide eta ahalmenen multzoa. Sin. harreman juridiko-tributario.*

**erlijio-askatasun** [*libertad religiosa*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz. Erlijio-sinesteak izateko zein ez izateko eskubidea, sineste horiek libreki eratu, aldatu, adierazi, besteei igorri, irakatsi eta horien arabera jarduteko ahala ematen duena. Agerbideetan, legez babestutako ordena publikoa izango da eskubide honen muga bakarra; zehazkiago, gainera, koen eskubide eta askatasunak errespetzea, hala nola segurtasun, osasun eta moralitate publikoaren zaintzarekin zerikusia dutenak. Oh. EK 16.1 art., 7/1980 Lege Organikoa, Erlijio-askatasunari buruzkoa, 3.1 art.*

**erlijio-ente** [*ente religioso*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz. Justizia Ministerioko Erlijio-entitateen Erregistroan inskribatu daitezkeen erlijio-izaera duten organizazioak. Horien artean, eliza, erlijio-konfesio eta komunitateak, erlijio-ordena*

eta kongregazioak eta hauen eremuan eraturiko elkarte eta federazioak. **Oh.** 594/2015 Errege Dekretua, Erlijio Entitateen Erregistroa arautzen duena.

**erlijio gutxitu** [*minoría religiosa*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz. Jarraitzaile kopuruagatik, nagusi diren erlijioekin alderatuta, kide gutxiago dituzten erlijioak. Estatu demokratikoetan, erlijio-askatasunaren titular dira eta neurriak aurreikusi ohi dira eskubide hori diskriminaziorik gabe baliatu ahal izan dezaten.*

**erlijio-konfesio** [*confesión religiosa*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz. Erlijio-askatasunaren titular kolektiboa zentzu zabalean. Erlijio baten jarraitzaile-taldea egitura organikoan bilduta. Oh. EK, 16. art.*

**erlijio-konfesioekiko harreman-eredu** [*modelo de relación con las confesiones religiosas*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz. Estatuak erlijioekin harremanak bideratzeko dituen aukerak. Aukera horien arteko bat izan daiteke botere politiko eta erlijiosoen arteko identifikazioa, baina baita bata bestea ezeztea ere. Europan, banaketa progresiboa eman eta gero, oro har, konfesionaltasuna gainditu da. Herrialde demokrati-koetan, neutraltasuna eta eremu banaketa dira irizpide nagusi. Ik. *estatu-konfesional, estatu laiko, estatu laizista, estatu neutral*.*

**ermandadeko testamentu** [*testamento de hermandad*] ♦ *Zuz. Zib. Ik. testamentu mankomunatu.*

**eroskeria** [*cohecho*] ♦ *Zig. Zuz. Administra- zio publikoaren aurkako delitua, agintari edo funtzionario publikoak, bere onurarako edo beste inoren onurarako, emaria, mesedea edo edozein motatako ordainketa jasotzea edota eskaintza edo hitzmatea onartzea, bere karguan aritzean kargu horri dagozkion eginbeharreta-ko bat ez egiteko, edo eginbeharren aurkako egite bat gauzatzeko burutzen dena. Oh. ZK, 419. art. eta hurr.*



**erosle** [*compradora, comprador*] ♦ *Zuz. Zib., Merkat. Zuz.* Prezio zehatz baten truke beste batek saltzen dion gauza jakina eskuratzen duen pertsona.

**erosteko aukera** [*opción de compra*] ♦ *Zuz. Zib.* Eskubide bat, zeinaren bidez, titularrak nahi izanez gero, objektu bat (higigarria edo higiezina) erosteko aukera egikari dezakeen, aurrez ezarritako prezioa ordainduz. Jabetza erregistroan inskriba daiteke eskubide hau, hirugarrenen aurka jarri ahal izateko.

**errakuntza** [*error*] ♦ *Zuz. Zib.* Kontratuaren funtsezko betekizuna den adostasuneko akatsa; errakuntzak adostasuna baliogabetzen duen kasua. Adostasuna lortu da, baina akatsa izan da arrazoia, beraz ez da baliotzeko adostasuna. Akatsak kontratuko funtsezko betekizun bati buruzkoa izan behar du adostasun eza dagoela ondorioztatzeko. Hau da kontratuaren objektu, kausa edo subjektuen gaineko errakuntza, akatsa.

**errebertsio** [*reversión*] ♦ *Zuz. Zib.* Aurreko jabeari gauza bat itzultzea.

**errebindikazio** [*reivindicación*] ♦ *Zuz. Zib.* Tituludunak bere jabetza berreskuratzeko eta berea dela aldarrikatzeko egikaritzen duen akzioa. **Ik.** *jabetza*.

**errebokaezintasun** [*irrevocabilidad*] ♦ *Zuz. Zib.* Burutu ostean atzera bota ezin daitekeen egintza juridikoaren nolakotasuna. Adib. Adopzioa edo emantzipazioa, egintza errebokeazinak dira. Behin burutuz gero, ezingo dira berriz egikaritu.

**errebokagarri** [*revocable*] ♦ *Zuz. Zib.* Bertan behera utz daitekeen erabakiaren izaera, aurreko egoerara itzultzeko.

**errebokagarritasun** [*revocabilidad*] ♦ *Zuz. Zib.* Erabaki bat bertan behera uzteko ahalmena aurreko egoerara itzuliz.

**errebokatu** [*revocar*] ♦ *Zuz. Zib.* Alde bakarraren erabakiz, bertan behera utzi.

**errebokatze** [*revocación*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga Administrazioaren administrazio-egintza, berak emandako beste administrazio-egintza bat ondorerik gabe uzten duena.

**errebokatze-akzio** [*acción revocatoria*] ♦ *Zuz. Zib.* Errebokazioa eragiteko asmoz egikaritu beharreko akzioa.

**errebokazio** [*revocación*] ♦ *Zuz. Zib.* Erabaki bat bertan behera utziz aurreko egoerara itzultzea.

**erreferendum** [*referéndum*] ♦ *Konst. Zuz.* Bozketa zuzena, zeinean gizarte batek erabaki behar baitu proposamen zehatz bati buruz, bera onartzeko edo baztertzeko. Demokrazia zuzenaren tresna bat da. **Oh.** EK, 92. art. **Sin.** *plebiszitu*.

**erreforma-errekurtso** [*recurso de reforma*] ♦ *Zuz. Proz.* Pertsona bakarrek jurisdikzio-organoez zigor-prozesuan emandako ebazpen interlokutorioen aurkako errekurtso arrunt eta ez-debolutiboa, erabakiaren aldaketa edo baliogabetzea eskatzeko jartzen dena. **Oh.** PKL, 216-217. eta 766.1 art.

**errefusatu** [*recusar*] ♦ *Zuz. Proz.* Modu legitimoan epaimahai, epaile, peritu edo dena delako batek prozedura edo epaiketa batean jardutea galarazi. **Sin.** *errekusatu*.

**errefusatzte** [*recusación*] ♦ *Zuz. Proz.* Legean aurreikusitako independentzia falta dela-eta, epaile edo magistratu bat auzi batetik kanpo uzteko jarraitzen den prozedura. **Sin.** *errekusatzte, errekusazio*.

**errefusatzte-intzidente** [*incidente de recusación*] ♦ *Zuz. Proz.* Epaile baten inpartzialtasunik ezaren susmoak daudenean gauzatzen den izapide prozesala. **Sin.** *errekusazio-intzidente*.

**errefuxiatu politiko** [*refugiada política, refugiado político*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Arrazagatik, erlijioagatik, herritartasunagatik, gizarte-talde bateko kidea izateagatik nahiz iritzi politikoaren

gatik jazarria izateko duen beldur sendoa dela eta, bere herritartasunari dagokion lurraldetik kanpo dagoen pertsona da, bere herrialdera itzuli ezin daitekeena edo itzuli nahi ez duena. Nazionalitaterik ez duten pertsonen kasuan, bere ohiko bizilekura hedatuko lirateke aurreko egoerak.

**errefuxiatu politikoaren estatutu** [*estatuto de refugiada política, refugiado político*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Hirugarren estatu bateko nazional baten edo apatrida baten kasuan, estatu batek egiten duen errefuxiatu izaeraren aitopena.

**errege** [*monarca, rey*] ♦ *Konst. Zuz. 1.* Monarkia baten gizonetzko estatuburua. **Oh.** lat. *rex*. **2.** Subiranotasun nazionalaren eta erakunde monarkikoaren ordezkaritza duen gizonetza.

**erregela** [*norma*] ♦ *Konst. Zuz. Ik. arau.*

**erregela** [*regla*] ♦ *Zuz. T.* Giza jarduera zuzentzen duen irizpidea.

**erregelamendu** [*reglamento*] ♦ *Admin. Zuz., Konst. Zuz., Zuz. T.* Administrazio publikoek emandako arau-xedapen juridikoa, izaera orokorra eta abstraktua duena, eta ordenamendu juridikoaren baitan legearen nahiz lege-lerruneko arau-xedapenen menpe dagoena. **Oh.** EK, 97. art. **Sin.** *araudi, arautegi* ♦ *EB. Zuz.* Europar Batasuneko erakundeek hartzen duten egintza juridikoa, irismen orokorra duena, bere elementu guztiei dagokienez betebeharrekoa dena eta estatu kide guztietan zuzenean aplikagarri dena. **Oh.** EBFT, 288. art.

**erregelamendu betearazle** [*reglamento de ejecución*] ♦ *EB. Zuz.* Legez besteko izaera duen erregelamendua Batzordeak edo, zenbait kasutan, Europar Batasuneko Kontseiluak hartzen duena Europar Batasunaren egintza juridikoki lotesleak exekutatzeko baldintza uniformeak behar direnean. **Oh.** EBFT, 291. art. **Sin.** *exekuzio-erregelamendu. Ik. exekuzio-egintza.*

**erregelamendu betearazle** [*reglamento ejecutivo*] ♦ *Zuz. T.* Lege baten edukia garatzen eta zehazten duen erregela-multzoa. Prozedura legegilearen aldetik, erregelamendu betearazleak onartzeko ezinbesteko da Estatu Kontseiluaren txostena.

**erregelamendu delegatu** [*reglamento delegado*] ♦ *EB. Zuz.* Legez besteko izaera duen erregelamendua, Batzordeak Europako Parlamentuaren edo Europar Batasuneko Kontseiluaren delegazioz hartzen duena, lege-egintza baten funtsezkoak ez diren osagaiak osatzeko edo aldatzeko. **Oh.** EBFT, 290. art. **Sin.** *erregelamendu eskuordea. Ik. egintza delegatu.*

**erregelamendu eskuordea** [*reglamento delegado*] ♦ *EB. Zuz. Ik. erregelamendu delegatu.*

**erregelamendu laboral** [*reglamento laboral*] ♦ *Lan Zuz. Ik. lan-erregelamendu.*

**erregeorde** [*regente, virrey*] ♦ *Konst. Zuz.* Errege edo erregina legitimoaren adingabetasun-, ez egote- edo ezintasun-egoeretan gobernu edo estatu baten gidaritzan beraren lekua hartzen duen gizonetza.

**erregeordetza** [*regencia, virreinato*] ♦ *Konst. Zuz. 1.* Estatu monarkiko batean eratzen den behin-behineko gobernu, errege edo erregina legitimoaren adingabetasun-, ez egote- edo ezintasun-egoerari aurre egitekoa. **2.** Erregezein erregein-orde baten gobernualdia.

**erregetza uzte** [*abdicación*] ♦ *Konst. Zuz. Ik. abdikazio.*

**erregimen** [*régimen*] ♦ *Konst. Zuz. 1.* Lurralde baten gaineko sistema politiko eta soziala. **2.** Jarduera bat antolatzen duen arauen multzoa. **Sin.** *erregimen juridiko.*

**erregimen juridiko** [*régimen jurídico*] ♦ *Konst. Zuz. Ik. erregimen.*

**erregina** [*monarca, reina*] ♦ *Konst. Zuz. 1.* Monarkia baten emakumezko estatuburua. **Oh.** lat.

*regina*. **2.** Subiranotasun nazionalaren eta erakunde monarkikoaren ordezkari den emakumezkoa.

**erreginorde** [*regente, virreina*] ♦ *Konst. Zuz.* Legitimoki izendatua izan den printze nahiz printzesa baten edo errege nahiz erregina baten ordezkari gobernatzeko edo zuzentzeko duen emakumezkoa, baldin eta hura adingabea bada, desgaitua bada edo kanpoan bada.

**erreginordetza** [*regencia, virreinato*] ♦ *Konst. Zuz.* Legitimoki izendatua izan den printze nahiz printzesa baten edo errege nahiz erregina baten ordezkari gobernatzeko edo zuzentzeko duen epea.

**erregistro** [*registro*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Miaketa. **2.** Zuzenbidearen arlo jakin bati dagozkion datuen eta gertakizun zein ekintzen dokumentazioaren ardura duen erakunde publikoa; adibidez, Jabetza Erregistroa, Erregistro Zibila.

**Erregistro Zibil** [*Registro Civil*] ♦ *Zuz. Zib.* Erregistro publikoa, zinetan inskribatzen diren pertsonen egoera zibilari buruzko gertaera guztiak (jaiotza, izen-abizenak, ezkontzak, seme-alabak, dibortzioak, heriotza...).

**Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusia** [*Dirección General de los Registros y del Notariado*] ♦ *Zuz. Zib.* Estatu erakunde, Justizia Ministerioan kokatzen dena, eta funtzio nagusizat erregistro eta notariotzen antolamendua duena. Besteak beste, legegintza prestatu, administrazio-espeditzeak izapidetu eta erabaki, eta erregistro zein notariotzen barne funtzionamendua arautzen ditu.

**erregistroko ziurtagiri** [*certificación registral*] ♦ *Zuz. Zib.* Erregistro publiko bateko informazioaz baliatzeko erregistratzaileak interesatuari luzatzen dion agiri publikoa, erregistrotik kanpo bertako liburuen edukia islatzeko bidea dena. **Oh.** HL, 233-237. art.

**erregistro-publizitate** [*publicidad registral*] ♦ *Merkat. Zuz.* Hirugarrenen aurkako egintzen edo egoeren legezko publizitatea, Merkataritza Erregistroan inskribatzen dena. Hori horrela, hirugarrenek ezin izango dute argudiatu ez zutela erregistroak jasotako informazioa ezagutzen. Era berean, publizitate honek trafikoa babesten du, hirugarrenei ezingo baitzaie aurka jarri argitaratzen ez denik. **Oh.** MEE, 9. art.

**erregu-errekurtso** [*recurso de súplica*] ♦ *Zuz. Proz., Admin. Zuz.* Pertsona anitzeko jurisdikzio-organismoek zigor-prozesuan emandako ebazpen interlokutorioen aurkako errekurtso arrunt eta ez-debolutiboa, erabakiaren aldaketa edo baliogabetzea eskatzeko jartzen dena. **Oh.** PKL, 236. eta 237. art. **Sin.** *súplica-errekurtso*.

**erregulatu** [*reglamentar, regular*] ♦ *Zuz. T.* Araudi baten jardunbidea zehaztu. **Sin.** *arautu*.

**erregulatzailerik** [*reguladora, regulador*] ♦ *Zuz. T.* **1.** Erregulatzen duena **2.** Organo erregulatzailerik dira herri bateko bizitza ekonomiko eta sozialeko funtsezko sektore estrategikoen funtzionamendu zuzena bermatzen dutenak.

**erregulazio** [*regulación*] ♦ *Zuz. T.* **1.** Zerbitzu normaltasun-egoerara ekartzeko bidea. **2.** Erregulatzeko ekintza.

**erregutze-errekurtso** [*recurso de suplicación*] ♦ *Lan Zuz.* Justizia auzitegi nagusiaren gizarte arloko salan bere barrutiko epaitegiek emandako ebazpenen aurka jar daitekeen errekurtsoa..

**errekargu exekutibo** [*recargo ejecutivo*] ♦ *Fin. Zuz.* % 5eko errekargua. Borondatezko epean ordaindu ez den zorra premiamendu-probidentzia jakinarazi aurretik ordaintzen dezan aplikatzen da.

**errekerimendu** [*requerimiento*] ♦ *Zuz. Proz., Admin. Zuz.* Jakinarazpen prozesalaren jarduketan, prozesuaren alde bati edo hirugarren bati zuzendua eta ez-egiteren bat edo jokabideren bat egin dezala agintzeko helburua duena.

**errekisitoria** [*requisitoria*] ♦ *Zuz. Proz.* Auzipetua deitzeko, bilatzeko eta epailearen esku jartzeko agintzen duen jurisdikzio-organoaren manamendua. Errekisitoria ematen da auzipe-tuak bizileku ezagunik ez duenean, ihes egin duenean edo non dagoen jakiterik ez dagoe-nean. **Oh.** PKL, 835. art.

**erreklamazio ekonomiko-administratibo** [*reclamación económico-administrativa*] ♦ *Admin. Zuz., Fin. Zuz.* Administrazio-errekurtso mota berezia, tributu-araudiak hartarako ezarritako administrazio-errekurtsoari jarraituz tributuak, hauen gaineko errekarquak eta tributu-zehapenak aplikatzeko egintzen legezketasuna berrikustea helburu duena. **Oh.** 39/2015 Legea, 112.4. art.; 58/2003 Legea, 226. art. eta 227. art. **Sin.** *ekonomia-administraziozko erreklamazio.* **Ik.** *administrazio-errekurtso.*

**errekonbenitu 1** [*reconvenida, reconvenido*] ♦ *Zuz. Proz.* Jatorriz demandatzailea denak, demandatuak beraren kontra errekonbentzio-demanda jartzen duenean, bateratutako prozesuan hartzen duen estatusa.

**errekonbenitu 2** [*reconvenir*] ♦ *Zuz. Proz.* Jatorrizko prozesuan demandatua denak, berari dagokion prozedura baliatzea beraren demandatzailearen kontra beste uzi bat (edo gehiago) jartzeko; haren ondorioz uzi- eta prozesu-meta-keta sortzen da.

**errekonbentzio-demanda** [*demanda recon-vencional*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *demanda errekon-bentzional.*

**errekonbentzio** [*reconvención*] ♦ *Zuz. Proz., Zuz. Zib.* Jatorrizko prozesuan demandatua denak, beraren demandatzailearen kontra beste uzi bat (edo gehiago) jartzeko helburuarekin dagokion prozedura baliatzean gertatzen den fenomeno prozesala; haren ondorioz, uzi- eta prozesu-metaketa sortzen da.

**errekurritu** [*recurrir*] ♦ *Zuz. Proz.* Ebazpen judicial baten aurkako errekurtsoa jarri.

**errekurtso** [*recurso*] ♦ *Zuz. Proz., Konst. Zuz., Admin. Zuz.* Jurisdikzio-organoak edo Justizia Administrazioaren letraduak emandako ebazpenen aurka lege prozesalak aurreikusitako in-pugnazio-bidea. Haren bitartez, ebazpenak ukitutako alderdiek ebazpenaren aldaketa edo baliogabetzea eskatzen dute; ebazpena eman duen organo beraren edo goragokoa den beste baten esku geratzen da erabakia.

**errekurtso arrunt** [*recurso ordinario*] ♦ *Zuz. Proz.* Jarri ahal izateko zio gisa alderdiaren kalte edo ebazpenarekiko desadostasun soila eskatzen duen errekurtsoa.

**errekurtso debolutibo** [*recurso devolutivo*] ♦ *Zuz. Proz.* Hierarkikoki in-pugnatutako ebazpena eman duen organoa baino gorago da-goen batek erabakitzen duen errekurtsoa.

**errekurtso ez-debolutibo** [*recurso no devo-lutivo*] ♦ *Zuz. Proz.* In-pugnatutako ebazpena eman duen organo berak aztertzen eta erabaki-tzen duen errekurtsoa.

**errekurtsogile** [*recurrente*] ♦ *Zuz. Proz.* Erre-kurtsoa jartzen duen alderdia.

**errekusatu** [*recusar*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *errefu-satu.*

**errekusatze** [*recusación*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio-prozedura baten izapidetzearen edozein unetan interesdunek langile edo agin-tari publiko baten arbuatzea edo errefusatzeta galdatzeko duten eskubidea, gai bat ebatz ez dezan edo arazo batean esku har ez dezan bere inpartzialtasuna zalantzan jar dezaketen arrazoiak daudelako tartean (40/2015 Legeko 23.2 artikuluan zerrendatzen direnak, alegia). **Oh.** 40/2015 Legea, 24. art. **Ik.** *abstentzio.*

**errekusatze** [*recusación*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *errefu-satze.*

**errekusazio** [*recusación*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *errefu-satze.*

**errekusazio-intzidente** [*incidente de recusación*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. errefusatz-e-intzidente.*

**errelebu-kontratu** [*contrato de relevo*] ♦ *Lan Zuz.* Partzialki jubilatzen den langileak utzitako lanaldia betetzeko beste langile batekin egiten den kontratua. **Oh.** LE, 12. art.

**errelebu-langile** [*persona trabajadora relevista*] ♦ *Lan Zuz.* Partzialki jubilatzen den langileak utzitako lanaldia betetzeko kontratatua den langilea. **Oh.** LE, 12. art.

**erremate** [*remate*] ♦ *Zuz. Proz., Zuz. Zib.* Enkantean eskainitako eskaintza onena onartzea. Legean ezarritako gutxienekoak betez, Justizia Administrazioaren letraduak egiten du eskaintza hori, eta eskaintza egiten duenari lehentasuna ematen dio enkantean jarritako ondasuna eskuratzeko.

**errenta** [*renta*] ♦ *Fin. Zuz.* Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan pertsona batek izandako sarrerak (lanaren, kapitalaren eta jarduera ekonomikoen etekinak, ondare-irabaziak eta -galerak eta errenten egozpenak). ♦ *Zuz. Zib.* Ondasun batek ematen duen onura.

**errenta konputagarri** [*renta computable*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzian, betekizun gisa gehieneko errenta kopuru bat ezartzen denean, kopuru horretan kontuan hartu behar den errenta. **Ik.** *diru-sarrera konputagarri.*

**errenta orokor** [*renta general*] ♦ *Fin. Zuz.* Estatuan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan kontzeptu hauetaz osatutako errenta: lanaren etekinak, jarduera ekonomikoen etekinak, kapitalaren etekinak (salbu kapital higigarriaren etekin gehienak), ondare-irabaziak eta -galerak eskualdaketa batetik ez datozenean, eta errenten egozpenak.

**errentak eratxikitze araubide** [*régimen de atribución de rentas*] ♦ *Fin. Zuz.* Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, bazkide, oinordeko, komunero edo partaideei egozten

zaizkie errenten esleipen-eraentzan dauden entitateen (adibidez, sozietate zibilak) errentak, kasu bakoitzean aplikagarri diren arauen edo itunen arabera.

**errentak indibidualizatz** [*individualización de rentas*] ♦ *Fin. Zuz.* Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan errenta-iturriaren titularraren ezkontideari bakarrik egozte errentak, alde batera utziz ezkontzaren eraentza juridikoa.

**errentamendu** [*arrendamiento*] ♦ *Zuz. Err.* Alderdi bat (*locator* edo errentatzaileak) beste alderdi bati (*conductor, colonus, inquilinus* errenteru edo maizterrari) prezio baten truke (*pensio, merces, honorarium, soldata*, prezio edo errenta) gauza kontsumiezin baten erabilerara utzi edota lan edo zerbitzua eskaintzera behartzen duen adostasunezko kontratu sinagmatiko perfektua. **Sin.** *locatio-conductio.* ♦ *Zuz. Zib., Merkat., Zuz., Zuz. Err.* Kontratu bat, zeinaren bidez, kontratugile batek (errentatzaileak) bere gain hartzen duen beste alderdiari (errentariari) gauza baten gozatzea edo erabilerara emateko obligazioa, epe zehatzerako eta prezio jakinaren truke.

**errentari** [*arrendataria, arrendatario*] ♦ *Zuz. Zib.* Errentamendu kontratuan, errentatzailearen gauza, epe zehatz batean eta prezio jakinaren truke, erabili edo gozatzen duen pertsona.

**errentatzaile** [*arrendadora, arrendador*] ♦ *Zuz. Zib., Merkat. Zuz., Zuz. Err.* Errentamendu kontratuan, epe zehatzerako eta prezio jakinaren truke, beste alderdiari gauzaren gozatzea edo erabilerara emateko obligazioa bere gain hartzen duen pertsona.

**erreposizio-errekurtso** [*recurso de reposición*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. berraztertze-errekurtso.*

**errepresalia** [*represalia*] ♦ *Nart. Zuz. Pu. Ik. kontraneurri.*

**errepresalia armatu** [*represalia armada*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Indar armatuan oinarritutako

neurri hertsatzailea, estatu batek egin duen akzio ez-zilegiaren ondorioz kaltetua izan den estatuak erantzun moduan hartzen duena. Nazioarteko Zuzenbideak debekatu egiten ditu indar armatuaren horrelako erabilerak.

**errepublik**a [*república*] ♦ *Konst. Zuz.* Herriaren boterearen isla den gobernu-era erreprezentatiboa, zeinaren arabera hauteskunde-prozesu baten ondorioz aukeratzen baita estatuburu eta presidentea.

**erreserba** [*reserva*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Orokorrean, beharra dagoenerako edo kasua denarako gordetzen diren gauzen multzoa. **2.** [*lege erreserba*] Konstituzio batek eskusibotasunez botere legegileari gorde dizkion gaitasunen multzoa; debekatuta dago gaitasunok beste botereei eskuordetzea. ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Nazioarteko tratatu aldeaniztun batekiko obligatzeko adostasuna adierazteko unean estatuak edo nazioarteko erakunde batek egindako aldebakarreko adierazpena, helburu duena estatu horrekiko tratatuaren hainbat xedapenen efektu juridikoak baztertzea edo aldatzea. **Oh.** TZVK, 2.1 d) eta 19. art.; TNAL, 2. r) eta 17. art. ♦ *Zuz. Zib.* Gauza bat prebentiboki gordetzea.

**erreserba mental** [*reserva mental*] ♦ *Zuz. Zib.* Kontratzeko adostasuna adieraztean, alderdietako batek barne nahia (kontratzeko borondatea) ez den beste borondate-adierazpen bat egiten duenean gertatzen den egoera.

**erreserbagile** [*reservista*] ♦ *Zuz. Zib.* Jaraunspenaren erreseba eratu behar duen pertsona. **Ik.** *jaraunspen*.

**erreserba-hartzaile** [*reservataria, reservatorio*] ♦ *Zuz. Zib.* Jaraunspenaren erreserba-onura duen pertsona. **Ik.** *jaraunspen*.

**erreserba-zentsu** [*censo reservatorio*] ♦ *Zuz. Zib.* Zentsualistak zentsudunari ondasun higiezin baten jabetza transmititzen dioneko zentsu mota; ordainez, zentsudunak kanon bat ordaindu behar dio urtero zentsualistari. Berme gisa,

zentsudunak jaso duen ondasun higiezina grabatu egiten da zentsualistaren aldeko eskubide erreale mugatu honekin. **Ik.** *zentsu*.

**erresistentzia** [*resistencia*] ♦ *Zuz. T.* **1.** Zer bait jasaten duen edo zerbaiti aurre egiten dion pertsonaren jarrera. **2.** Aldaketa politiko, sozial eta kultural iraultzailea egin nahi dutenen protesta-taktika. ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuan alderdi pasiboa ez kondenatzea edo haren absuluzioa eskatzea. **Sin.** *aurka egite*.

**erresuma** [*reino*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Errege edo erregina gobernuburu duen lurraldea. **2.** Monarkia batek gidatzen duen estatu.

**erretentzio** [*retención*] ♦ *Zuz. Zib.* Legeak hartzekodunari zordunaren gauza bat eskuan hartzeko ematen dion eskubidea, zordunak ordaindu arte.

**erretiro** [*jubilación*] ♦ *Admin. Zuz.* Adina dela-eta zerbitzu-harremana nahiz karrerako funtzionario-izaera galtzeko dauden arrazoietako bat. **Oh.** 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 63. eta 67. art. ♦ *Lan Zuz.* Langileak bere adinagatik lana utzi eta pentsioa jasotzeko duen eskubidea. **Sin.** *jubilazio*.

**erretiro-adin** [*edad de jubilación*] ♦ *Lan Zuz.* Erretiroa hartu ahal izateko, betekizun gisa, legeak ezartzen duen adina.

**erretiro aurreratu** [*jubilación anticipada*] ♦ *Lan Zuz.* Langileak arrazoi desberdinengatik adin arrunta bete baino lehen erretiratzeko duen eskubidea. Langileak pentsioa jasotzeko eskubidea dauka; alabaina, hainbat kasutan adin arruntari dagokiona baino txikiagoa izango da.

**erretiro partzial** [*jubilación parcial*] ♦ *Lan Zuz.* Langile berak erretiro-pentsio partziala jasotzea lan partziala egitearekin bateragarria egiten duen erretiro mota. **Oh.** LE, 12. art.

**erretiro-pentsio** [*pensión de jubilación*] ♦ *Lan Zuz.* Erretiro arrazoiagatik langileari dago-kion bizi arteko prestazioa.

**erretiro-pentsiorako irispide** [*acceso a la pensión de jubilación*] ♦ *Lan Zuz.* Eskaturiko betekizunak betez gero, erretiro-pentsiorako eskubidea aitortzea.

**erretortsio-neurri** [*medida de retorsión*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Hirugarren estatu batek aldeztu aurretik egindako egintza ez-zilegi bati erantzun gisa estatu batek autotutela neurri moduan aurrera eramaten dituen ekintza kaltegarri zein ez-lagunartekoak, betiere, nazioarteko zuzenbidearekin bat datozenak. Neurri horien helburua da estatua bultzatea hark egindako egintza ez-zilegia etetera eta bere ondorioak konpontzera. **Sin.** *bihurtze-neurri.*

**errola** [*censo*] ♦ *Konst. Zuz.* Ezaugarri jakin batzuk jasotzen dituen toki bateko biztanleen zerrenda.

**erru** [*culpa*] ♦ *Zuz. Zib.* Pertsona bati, betebeharraren izaera, subjektua, denbora eta lekuaren inguruabarrak kontuan izanik, egokitzun zaion arreta ez izateak dakarren egoera. Betebeharrak adierazten ez duenean zein arreta izan behar duen hura betetzean, guraso on batek izango lukeena da eskatzeko modukoa. **Oh.** KZ, 1104. art. **Sin.** *kulpa.*

**errubrika** [*rúbrica*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Negoziatzaileek sinatzeko botere osoa jaso ez duten kasuetan edo sinadura formalak zeremonia solemne batean lehen mailako agintariak egitea negoziatu den kasuetan egiten den tratatu baten sinadura laburra (normalean, negoziatzaileen initzial hutsak daramatzana).

**errudun** [*culpable*] ♦ *Konst. Zuz.* Egite edo ez-egite baten errua duen pertsona edo erruaren egozpena jaso duena. **Sin.** *hobendun, kulpadun.*

**erruduntasun** [*culpabilidad*] ♦ *Zig. Zuz.* Portaera tipiko eta zuzenbide-contrakoa egileari egozteko baldintzak betetzen diren aztertzen duen delituen kategorioa. Haren barruan aztertzen dira egozgarritasuna, zuzenbide-contrako-

tasunaren ezagutza eta beste portaera baten galdagarritasuna. **Oh.** ZK, 14.3, 20.1, 20.2, 20.3, 20.5, 20.6 eta 454. art. **Ik.** *beharrian egoera, beldur gaindiezin, debeku-oker, egozgarritasun.*

**erruduntasun-printzipio** [*principio de culpabilidad*] ♦ *Zig. Zuz.* Erruduntasuna baztertzen duten kausak gertatzen ez direnean delitugileari zuzenbide-contrakoa den ekintza bat egoztean datzan printzipioa.

**errugabetasun** [*ausencia de culpabilidad, ino-cencia*] ♦ *Konst. Zuz.* Erruduntasun-gabezia.

**errugabetasun-presuntzio** [*presunción de inocencia*] ♦ *Zuz. Proz., Admin. Zuz.* Akusatuaren oinarriko eskubidea eta berme prozesala. Haren ondorioz, prozesu batean beharrezko bermeak errespetatuz burutako karguko gutxieneko jarduera frogagarriaren bitartez erruduntasuna frogatu arte, pertsona oro errugabea da.

**erru larri** [*culpa grave*] ♦ *Zuz. Zib.* Betebeharraren izaera, subjektua, denbora eta lekuaren inguruabarrak kontuan izanik, norbaiti galdakiokeen arreta argi eta nabarmen urratzen duen portaera mota. Zenbait alorretan, doloren erantzunkizun bera aurreikusten zaio arretaren urraketa larri honi.

**erruztatu 1** [*inculpada, inculpado*] ♦ *Zuz. Proz.* Pertsona, zeinaren kontra zigor-ikerketak zuzentzen baita.

**erruztatu 2** [*inculpar*] ♦ *Zuz. Proz.* Pertsona zehatz baten aurka zigor-ikerketak zuzendu.

**esakune** [*enunciado, frase*] ♦ *Zuz. T.* Zentzu bete eta autonomia sintaktikoa duen hitz-multztoa.

**esanbidezko** [*expresa, expreso*] ♦ *Zuz. Zib.* Espresuki adierazia, isilbidezko egintzaren aurkako kontzeptua.

**eseki** [*suspender*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuko ekintza edo ekitaldi bat geldiarazi edo aldi baterako atzeratu.

**esekipen** [*suspensión*] ♦ *Zig. Zuz.* Epe eta baldintza batzuk betez gero zigor askatasungabetzaileen exekuzioa etetea baimentzen duen instituzioa. **Oh.** ZK, 80. art. ♦ *Zuz. Proz.* Aurreikusitako arrazoiengatik prozesuko jarduketak geratzea eta aldi baterako atzeratzea.

**esentzialismo** [*esencialismo*] ♦ *Zuz. T.* Esistentzialismoari aurre eginez, funtsaren nagusitasuna existentziaren gainean sostengatzen dela aldarrikatzen duen doktrina.

**eskaintza** [*oferta*] ♦ *Zuz. Zib.* Borondate-adietazpena, zeinaren bidez, kontratu bat egitea proposatzen zaion beste pertsona bati. Kontratuaren eremuan, eskaintza onartzen den unetik eratzten da kontratua, eta sortzen dira alderdien arteko lotura juridikoa eta obligazioak. **Oh.** KZ, 1258. art.

**eskaintzapeko prestakuntza** [*formación de oferta*] ♦ *Lan Zuz.* Enplegu-zerbitzu publikoek programatu eta eskainitako lanbide-prestakuntza.

**eskakizun** [(*derecho de*) *petición*] ♦ *Konst. Zuz.* Pertsona batek duen ahalmena, erakunde edo botere publikoei egoera zein gertakizun baten berri ematekoa eta hari aurre egiteko eskatzekoa. **Oh.** EK, 29. art. **Sin.** *eskakizun-eskubidea*. **Ik.** *eskakizun-eskubide*.

**eskakizun-eskubide** [(*derecho de*) *petición*] ♦ **Ik.** *eskakizun*.

**eskala** [*escala*] ♦ *Admin. Zuz.* Funtzionarioak taldekatzeko sistemetako bat (kidego, espezialitate edo beste sistema batzuen antzerakoa), aurretiko hautaketa-prozesu batean egiaztatu diren ezagutza eta gaitasun komunak aintzat hartuz egiten dena. Funtzionarioen hautaketa eraginkortasunez antolatzea eta lanpostuak multzokatzea du xede. **Oh.** 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 75.1 art.

**eskalafoi** [*escalafón*] ♦ *Admin. Zuz.* Kidego edo karrera profesional jakin bateko funtziona-

rioren zerrenda, euren maila, antzinasuna edo merezimenduak irizpidetzat hartuz sailkatzen dituen.

**eskatzeko kari** [*causa de pedir*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *causa petendi*.

**eskirol** [*esquirol*] ♦ *Lan Zuz.* Grebalarien ordeztze lanean ari den langilea.

**esklabotza** [*esclavitud*] ♦ *Zuz. Err.* Jaiotzez edo bestelako kausen ondorioz (zorrak, gerra, auzi baten ondorioaren zigorra) beste gizaki edo erakunde baten esklabo (*servus*) edo morrontzan dagoen gizakiak duen askatasun eza. **Sin.** *servitus, mancipium*.

**esklusibitate-printzipio** [*principio de exclusividad*] ♦ *Zuz. Proz.* **1.** [Zentzu positiboan] Eginkizun jurisdikzionala epaileek eta epaimahaikideek soilik bete dezaketela ezartzen duen printzipioa; hau da, berek soilik epaitu dezakete eta epaitutakoa betearazi. **2.** [Zentzu negatiboan] Organo jurisdikzionalak eginkizun jurisdikzionaletan baino jardun behar ez duela dioen printzipioa.

**eskola-aseguru** [*seguro escolar*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren, ikasleen araubide berezia. **Oh.** GSLO, 10. art.

**eskola judizial** [*escuela judicial*] ♦ *Zuz. Proz.* Epaileak eta magistratuak hautatzeko eta presatzeko zentroa.

**eskritura publiko** [*escritura pública*] ♦ *Zuz. Zib.* Notarioak baimendutako dokumentua. Instrumentu publikoa da, eta bere edukia egiazkotasun presuntzioa dauka, hain zuzen dokumentuan parte hartzen duten subjektu edo alderdien identitatea, edukiarekiko adostasuna, epea eta lekua.

**eskritura sozial** [*escritura social*] ♦ *Merkat. Zuz.* Sozietate-kontratua jasotzen duen eskritura publikoa. Eskritura honen inskripzioaren bidez haiek aukeratutako sozietate motari da-



gokion nortasun juridikoa lortuko dute kapital-sozietateek. **Oh.** KSL, 33. art.

**esku garbien teoria** [*teoría de las manos limpias*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Estatu baten nazioarteko erantzukizuna aldatzen duen inguruabarra. Izan ere, egintza baten ondorioz kaltetuta izan den subjektuak kaltea sortu duen ekintzan nahita edo zuhurtziagabekeriak jokatu duela frogatzen bada, inguruabar horrek eragina izango du erreparazioa finkatzeko orduan.

**eskualdaezin** [*intransmisible*] ♦ *Zuz. Zib.* Pertsonaz pertsona besterendu ezin daitezkeen ondasun edo eskubideen izaera, legeak izaera hori ematen dielako. Adib. Nortasunaren eskubideak edo eskubide politikoak. Era berean besterenezinak dira, izaera publikoko ondasunak; ibaiak, hondartzak eta abar. **Sin.** *transmitiezin*.

**eskualdatu** [*transmitir*] ♦ *Zuz. Zib.* Zerbait eskuz edo jabez aldatu. **Sin.** *transmititu*.

**eskualdatzaile** [*transmitente*] ♦ *Zuz. Zib.* Eskubide edo obligazio baten titulartasuna eskualdatzen duen pertsona fisiko zein juridikoa. **Sin.** *transmititzaile*. **Ik.** *bestereztze, eskualdatze, transmisio*.

**eskualdatze** [*transferencia*] ♦ *Zuz. Zib.* **Ik.** *bestereztze*.

**eskualde** [*cuadrilla*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** *kua-drilla*.

**eskualdearteko zuzenbide** [*derecho interregional*] ♦ *Nart. Zuz. Pr.* Estatu baten barruan ordenamendu juridiko bat baino gehiago dagoenean, ordenamendu horien arteko harremanak eraentzen dituen Zuzenbideari deritzo Eskualdearteko Zuzenbide.

**eskubide** [*derecho*] ♦ *Zuz. T. 1.* Legeak zein autoritateak gure alde ezarri duen oro egiteko edota exijitzeko aukera. **Oh.** ZK, 229.2 art. **2.** Norberaren egoeratik edota bestee-kiko harremanetatik eratortzen den ahalme-

na. **Oh.** ZK, 229.2 art. **3.** Justizia, arrazoia. **Oh.** ZK, 229.2 art. ♦ *Zuz. Zib.* Kontratu edo negozio juridikoaren eragin-gabetasun automatikoa, jatorrizkoa eta egiturazkoa. **Oh.** ZK, 229.2 art. **4.** [*derecho subjetivo*] ♦ *Zuz. T.* Arau juridikoak pertsona ooren alde ezarri duen oro egiteko edota exijitzeko aukera.

**eskubide-abusu** [*abuso de derecho*] ♦ *Zuz. Zib.* Eskubide baten gehiegizko egikaritzea. Eskubide bat, fede onak eta eskubide horren helburuak berak finkatutako mugak gaindituz egikaritzea.

**eskubide-egikaritzea** [*ejercicio del derecho*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Ordenamendu juridikoak eskubide bakoitzari aitortutako eremu legitimoan, eskubide horren edo horien titularrak titularrak oztoporik gabe baliatzea dagokion ahalmena edo jarduera. **Sin.** *eskubideen egikaritzea, eskubidea baliatzea*.

**eskubide gatazka** [*conflicto de derechos*] ♦ *Zuz. Zib.* Subjektu batek duen eskubidearen egikaritzeak, beste subjektu baten eskubidearekin talka egiten duenean gertatzen den egoera. Kasuan kasu erabaki behar da bi eskubideen artean zein gailentzen den. Adibidez: informazio eskubidearen eta intimitate eta ohorearen arteko eskubide gatazka.

**eskubide-haztapen** [*ponderación de derechos*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Eskubideen arteko gatazka bideratzeko saiakera teknikoa, lehian dauden eskubideen egikaritzea bateratua bilatzen duena. Bakoitzaren eremu legitimoa eta mugak aztertu ondoren murriztapenak beharko balira, proportzionaltasuna izango da irizpide. **Sin.** *eskubideen haztapen*. ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* **Ik.** *eskubide-ponderazio*.

**eskubide erreal** [*derecho real*] ♦ *Zuz. Zib.* Gauzen gaineko eskubide edo erregimen juridikoa. Pertsona batek edo gehiagok gauza baten gainean duten botere eta ahalmen multzoa biltzen duen eskubidea. Berehalako botere

zuzena ematen dio titularrari eta *erga omnes* efikazia du, hau da: eskubidea urratzen duen edonoren aurrean defenda liteke. Eskubide errealak dira: jabetza, edukitza, gozamen eskubidea, erabiltzeko eskubidea eta biztantzeko eskubidea, zortasuna, zentsua eta enfiteusia, azalera eskubidea, hipoteka, bahia, antikresia, tanteoa eta erretraktoa.

**eskubide erreal mugatu** [*derecho real limitado*] ♦ *Zuz. Zib.* Jabetza-eskubideak baino ahalmen gutxiago dituen eskubidea; honek definitzen du mugatu izaera; eskubide erreal mugatuak jabetza mugatzen dute. Nahiz eta zerrenda ez den itxia, aratuak diren eskubide erreal mugatuak dira: gozamen eskubidea, erabiltzeko eskubidea eta biztantzeko eskubidea, zortasuna, zentsua eta enfiteusia, azalera eskubidea, hipoteka, bahia, antikresia, tanteoa eta erretraktoa.

**eskubide, lanbide edo kargu baten bidezko egikaritzea** [*cumplimiento de un deber o ejercicio legítimo de un derecho, oficio o cargo*] ♦ *Zig. Zuz.* Penala ez den arau batek baimentzen duen esparruan jardutean portaera tipiko bat burutzen duenari aplikagarri zaion bidezkotze-kausa. **Oh.** ZK, 20.7 art.

**eskubide oneko itxura** [*apariencia de buen derecho*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. fumus boni iuris.*

**eskubide sindikal** [*derecho sindical*] ♦ *Lan Zuz.* Askatasun sindikalaren esparruan langileari edo sindikatuari dagokion eskubidea. **Oh.** ASLO, 2. art.

**eskubide subirano** [*derecho soberano*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Subiranotasuna iturri bakar duen eskuordetu gabeko jatorrizko botere edo eskubidea.

**eskubide-ukaiezintasun** [*irrenunciabilidad de derechos*] ♦ *Lan Zuz.* Langileak kontratu bitartez lanaren zuzenbideak aitortzen dizkion eskubideei ezin diela uko egin ezartzen duen printzipioa.

**eskubide xedagarri** [*derecho disponible*] ♦ *Zuz. Proz.* Normalean ondasunen inguruko eskubidea, alderdiek nahi duten moduan egikaritu dezaketena.

**eskubidea baliatzea** [*ejercicio del derecho*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz. Ik. eskubide-egikaritzea.*

**eskubideen arteko gatazka** [*conflicto de derechos*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz. Ik. eskubide-gatazka.*

**eskubideen arteko ponderazio** [*ponderación entre derechos*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz. Ik. eskubide-ponderazio.*

**eskudantzia-gatazka** [*conflicto de atribuciones*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio berekoak izanik, hierarkia-loturarik ez duten administrazio-organoen artean sortzen den gatazka, betiere, administrazio-prozedura bukatu gabe duten gaiei buruzkoa. Horretarako eskumena duen administrazio bereko organo bati dagokio eskudantzia-gatazka ebatzea. **Oh.** 40/2015 Legea, 14.3 art.

**eskudun** [*competente*] ♦ *Zuz. T.* Gai jakin bat ebazteko autoritatea duena.

**eskuduntza** [*competencia*] ♦ *Zuz. Zib.* Organo jurisdikzional zehatz bati auzi jakin baten gainean ebazteko ahalmena aitortzen dion erregela. Jarraitu beharreko irizpideak hiru dira: irizpide objektiboa, gatazkaren objektuan oinarrituko dena, lurralde-irizpidea eta irizpide funtzionala, organo jurisdikzionalaren jarduera prozesala aintzat hartzen duena. **Sin.** *eskumen.*

**eskuetsi** [*autorizada, autorizado*] ♦ *Zuz. T.* **1.** Eskuduna izan gabe ere, ekintza bat egiteko baimena eskuratu duena. **2.** Norbait ordezkatzeko baimendutako pertsona.

**esku-hartze humanitario** [*intervención humanitaria*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Bere naziootasuna kontuan hartu gabe, sarraski-egintzek mehatxatutako populazioen biziak babestu nahian, estatu batek bere mugetatik kanpo egiten duen aldebakarreko indarraren erabilera.

**eskuhartze zientifiko** [*intervencionismo científico*] ♦ *Lan Zuz.* Lanaren zuzenbidea sortu baino lehen, lanaren mundua eta bere arazoak ezagutzeko egindako saioa.

**eskumen** [*competencia*] ♦ *Admin. Zuz.* 1. Estatuak eta autonomia erkidegoek egikari ditzaketen funtzioak, betiere, Konstituzioak eta autonomia-erkidego bakoitzeko estatutuak, hurrenez hurren, esleitutakoak. **Oh.** EK, 148. art. eta 149. art. **Sin.** *eskuduntza*. 2. Administrazio-organo bati soilik dagokion jarduteko ahalmena, 40/2015 Legearen arabera uko egin ezin zaiona. **Oh.** 40/2015 Legea, 8.1 art. **Sin.** *eskuduntza*. **Ik.** *administrazio-organo*. ♦ *Zuz. Proz.*, *Admin. Zuz.*, *Konst. Zuz.*, *Zuz. T.* Epaitegi edo auzitegi batek gai bati buruz ezagutzeko duen ahalmena, ordena jurisdikzional bereko gainerako organo guztiak kanpoan uzten dituen. Organo judizialen eskumena hiru kategoriatan banatzen da: eskumen objektiboa, eskumen funtzionala eta lurralde-eskumena.

**eskumen-arazo** [*cuestión de competencia*] ♦ *Zuz. Proz.* Ordena jurisdikzional bereko bi organo jurisdikzionalak, eskumen objektiboa eta funtzionala finkatu ondoren, prozedura jakin baten berri jakiteko beren burua eskuduntzat edo ez-eskuduntzat hartzen dutenean sortzen den gorabehera prozesala.

**eskumen eskusibo** [*competencia exclusiva*] ♦ *EB. Zuz.* Europar Batasunaren eskumen-eremua, zeinean Europar Batasunak bakarrik onartu ahal izango baititu zuzenbidearen arabera lotura-indarra duten egintzak. Estatu kideek soilik egikari ahal dituzte eskumenok Europar Batasunak horretarako ahalmena ematen badie edota Europar Batasunaren egintzak aplikatzeko bada. **Oh.** EBT, 2.1 eta 3. art.

**eskumen funtzional** [*competencia funcional*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuan sortzen diren gorabeherak, epaien aurka jarritako errekursoak eta epai horiek betearazteko balizko eginkizuna zer epailek edo auzitegik bideratuko dituen

zehazten duen eskumena. ♦ *EB. Zuz.* Helburu zehatzak lortzeko sortuak izan diren xede funtzionaleko erakundeak diren heinean, nazioarteko erakundeei dagokien eskumena, Estatuak duten xede integraleko lurralde-eskumenaren-gandik ezberdinetzen dena. **Sin.** *eskuduntza funtzional*.

**eskumen generiko** [*competencia genérica*] ♦ *Zuz. Proz.* Araubide juridikoa lau ordena jurisdikzionaletan zatitzen duen irizpidea; lau ordena hauetan, hain zuzen: zuzenbide zibila, zigor-zuzenbidea, lan-zuzenbidea eta zuzenbide administratiboa.

**eskumen inplizitu** [*competencia implícita*] ♦ *EB. Zuz.* Tratatueta jasotako helburu bat erdiesteko Europar Batasunari zabaltzen zaion aukera beharrezko eskumenik berariaz aurreikusi ez denean edo, aurreikusi arren, berau nahikoa ez denean. **Oh.** EBFT, 352. art.

**eskumen objektibo** [*competencia objetiva*] ♦ *Zuz. Proz.* Epaitzeko ahalmena, planteatzen den uzi prozesalaren arabera, jurisdikzio-ordena konkretu bateko organo jurisdikzionalen artean banatzea ahalmentzen duen irizpidea.

**eskumen partekatuta** [*competencia compartida*] ♦ *EB. Zuz.* Legegintzarako eta juridikoki lotesleak diren egintzak hartzeko ahalmenean Europar Batasunak eta bere estatu kideek elkarbanatzen duten eremua. Estatuak soilik egikari dezakete eskumen hau Europar Batasunak egikaritu ez badu edo egikaritzeari utzi badio. Europar Batasunak eskumen hau egikaritzera koan subsidiarioritasun eta proportzionaltasun printzipioak errespetatu behar ditu. **Oh.** EBFT, 2.2 eta 4. art. **Ik.** *subsidiarioritasun-printzipio*.

**eskumena egozteko irizpideak** [*criterios de atribución de la competencia*] ♦ *Zuz. Proz.* Auzi jakin bat epaitzeko eskumena esleitzeko irizpideak. Objektiboak, funtzionalak eta lurraldekoak izan daitezke. **Sin.** *atribuzio-irizpideak*, *egozketa-irizpideak*, *eskumen-irizpideak*.

**eskumenaren eskuordetze** [*delegación de (la) competencia*] ♦ *Admin. Zuz.* Eskumenaren egikaritzea eskumen horren titularra ez den administrazio bereko administrazio-organo bati esleitzea, eskumen hori atxikiz legeak aurreikusitako kasuetan eta moduan. **Oh.** 40/2015 Legea, 9.1 art. **Sin.** *eskumenaren delegazio.* **Ik.** *eskumen.*

**eskumen-gatazka** [*conflicto de competencia*] ♦ *Zuz. Proz.* Ordena jurisdikzional desberdinetako organo jurisdikzionalak prozedura jakin baten berri jakiteko beren burua eskuduntzat edo ez-eskuduntzat hartzen dutenean sortzen den gorabehera prozesala.

**eskumen-immunitate** [*inmunidad de jurisdicción*] ♦ *Nart. Zuz. Pr.* Estatu baten eskumenaren salbuespena da, zeinaren arabera estatu horretako epaitegiek ez baitute, *ratione materiae*, auzia ezagutzeko eskumenik. Hori horrela, estatu bateko epaitegiek ezin izango dute partikular batek atzerriko estatu baten edota honen organo baten aurka jarritako auzia ezagutu, baldin eta estatu atzerritarra edo bere organoak *jure iure*-arekin aritzen baldin badira. **Oh.** BJLO, 21.2 art.

**eskumen-irizpideak** [*criterios de competencia*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *eskumena egozteko irizpideak.*

**eskumiku** [*excomunió*] ♦ *Zuz. T.* Eliza katolikoaren kasuan, komunitate erlijiosotik baztertea eta sakramentuak jasotzeko debekua dakarren agintari erlijiosoen erabakia.

**eskuordetu** [*deleg*] ♦ *Konst. Zuz., Zuz. Zib.* Pertsona edo erakunde batena den funtzio bat edo erantzukizun bat beste bati esleitu, haren lekuan edo haren ordeze egikaritu dezan.

**eskuordetza** [*delegación*] ♦ *Zuz. Zib.* Eskuordetzeko ekintza eta horren ondorioa.

**eskuratze-preskripzio** [*prescripción adquisitiva*] ♦ *Zuz. Zib.* Jabegoa zein beste eskubide

erreal bat eskuratzeko erakunde juridikoa, itxura juridiko bat babesten duen denbora jakin bat igarotzeagatik gauzatzen dena. **Ik.** *preskripzio, preskripzio azkentzaile.*

**eskusio-onura** [*beneficio de excusión*] ♦ *Zuz. Zib.* Exekuzio prozedura batean exekutatu izango den fidatzaileak duen eskubidea, hartzekodunari galdatzeko, aldezturik, zordun nagusiaren ondasunak exekutatuzeko, hauek bahituz eta salduz. **Ik.** *fidantza, fidatzaile.* ♦ *Merkat. Zuz.* Sozietate kolektiboaren zorrekiko, bazkide kolektiboen erantzukizun subsidiarioa adierazten du, haien ondarea ezin izango baita exekutatu aurretiaz ez bada egiten sozietate-ondarearen eskusioa. **Oh.** MK, 237. art.

**esleipen** [*adjudicación*] ♦ *Zuz. Zib.* **1.** Esleitzeko ekintza eta horren ondorioa. **2.** Ondasun jakin bat pertsona zehatz batena dela adieraztea.

**esleipen-printzipio** [*principio de atribución*] ♦ *EB. Zuz.* Europar Batasunaren eta bere estatu kideen artean egiten den eskumenen mugarritzea eraentzen duen printzipioa. Estatu kideek Tratatu sortzaileetan egiten dute eskumenen egikaritzaren esleipena Europar Batasunaren alde. **Oh.** EBT, 5. art.

**esleitu** [*adjudicar*] ♦ *Zuz. Zib.* Zerbait norbaitena dela edo norbaiti edo zerbaiti dagokiola ebatzi.

**espetxealdiaren ordezeppen** [*sustitución de la pena de prisión*] ♦ *Zig. Zuz.* Zigor Kodea aldatu zuen 1/2015 Lege Organikoak 88. artikulua (espetxealdiaren ordezeppen arautzen zuena) indargabetu zuen, eta ordezeppen zigorren bete-arazpenaren etetearen arauketarekin bateratu da sistema orokor batean. **Oh.** ZK, 80. art.

**espetxeratu** [*presa, preso*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *preso.*

**espetxeratu prebentibo** [*presa preventiva, preso preventivo*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *preso prebentibo.*

**espetze-zigor** [*pena de prisión*] ♦ *Zig. Zuz.* Kondenatua mugitzeko askatasunaz gabetzen duen eta egoitza kartzelan finkatzera behar-tzen duen zigorra; zigorraren sailkapenaren arabera, presondegiko erregimenetako bat aplikatuko zaio. **Oh.** ZK, 35. art. **Sin.** *kartzela-zigor*. **Ik.** *kartzela-zigor iraunkor berri-kusgarri*.

**espromisio** [*expromisión*] ♦ *Zuz. Zib.* Harreman juridikoan zordun subjektuaren aldaketa edo hirugarren batengatik ordezea. Hirugarrena izango da zordun berria, baina aldaketa gauzatu ahal izateko hartzekodunaren adostasuna behar da.

**establezimendu iraunkor** [*establecimiento permanente*] ♦ *Fin. Zuz.* Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan bi inguruabarrek definitzen dute establezimendua: a) zergadunak Espainiako estatuan instalazioak edo lanlekuak izatea; b) Espainiako estatuan jardutea baimendutako agente baten bidez.

**estaltze** [*encubrimiento*] ♦ *Zig. Zuz.* Justizia-administrazioaren aurkako delitua, modu haue-takoren batez gauzatzen da (baina delituan parte hartu gabe): delituaren probetxu, ekoizkin edo prezioetik onura ateratzeko laguntza emanez; delituaren gorputza, efektuak edo tresnak ezkutatzeko, aldatzeko edo deusestatzeko asmoz; edo ikerketa saihesteko edo erantzuleei bilaketatik edo harrapaketatik ihes egiteko laguntza emanez. **Oh.** ZK, 451. art.

**estatu** [*estado*] ♦ *Konst. Zuz.* Lurralde jakin baten gainean eskusibotasunez botere politikoa egikaritzen duten erakundeen multzoa, barne- eta kanpo-subiranotasuna duena.

**estatu akonfesional** [*estado aconfesional*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Inolako konfesorik bere egiten edo jarraitzen ez duen estatua. Erlijio gaie-tan neutral edo inpartzial agertzen den estatua. **Oh.** EK, 16.3 art. **Sin.** *estatu ez-konfesional, estatu neutral*.

**estatu-eredu** [*modelo de estado*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Estatuak duen forma politikoa zein antola-tzeko izan dezakeen aukera edo modua. Esate-rako, Konstituzioaren arabera, Espainiako es-tatua zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoa da, autonomikoa eta, Konstituzio Auzitegiaren arabera, akonfesionala edo laikotasun positibo-koa. **Oh.** EK, 1.1, 2. eta 16. art.

**estatu ez-konfesional** [*estado no confesional*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* **Ik.** *estatu akonfesional*.

**estatu kide** [*estado parte*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Bere burua tratatuz lotzea adostu duen eta be-rari dagokionez tratatua indarrean dagoen es-tatua. **Oh.** TZVK, 2. g) art. **Sin.** *alderdi den estatu*.

**estatu kideen nazio-identitatearekiko erres-petu-printzipio** [*principio del respecto a la identidad nacional de los estados miembros*] ♦ *EB. Zuz.* Printzipio honen arabera Euro-par Batasunak estatu kideen nazio-identitatea errespetatuko du. Nazio-identitatea estatu-entzako egitura politikoa eta konstituzio-egiturari lotuta dago, eta toki- zein eskualde-autonomiari dagokion egitura ere hartzen du barne. **Oh.** EBT, 4.2 art.

**estatu konfesional** [*estado confesional*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Erlijio bat ofizial deklaratu erlijio horri lehentasun-egoera eskaintzen dion estatua. Azpiero doktrinaletan, erlijio ofizia-la egiazko bakartzat jo ohi da. Ofizialtasuna oinarritu daiteke arrazoi historiko edo soziolo-gikoetan ere. Konfesionaltasun-mailak eragina du herritarren eskubide eta askatasunetan.

**estatu laiko** [*estado laico*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Fenomeno erlijiosoaren aurrean neutraltasuna agertzen duen estatua, eremu politikoa eta erlijiosoaren arteko banaketan oinarritzen dena. Neutraltasuna herritarren erlijio-askatasuna berdintasun egoeran bermatzeko baldintza da, eta eremu-banaketa ezinbesteko da saiheteko elkari inolako injerentziarik egin diezaioten.

**Ik.** *estatu neutral, inpartzialtasun, laikotasun, laikotasun positibo.*

**estatu laizista** [*estado laicista*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Erljioarekiko balorazio negatiboa egin da eta estatuaren helburuekin bateraezina dela iritzita, erlijioa eremu publikotik kanporatu beharrekoa dela edo kasurik muturrenakoetan, debekatu edo desagertu beharrekoa dela kontsideratzen duen estatu-eredua. **Ik.** *laizismo.*

**estatu-legedi** [*legislación estatal*] ♦ *Admin. Zuz.* Gorte Nagusiek onartutako legedia. **Oh.** EK, III. tit. 2. atalburua.

**estatu neutral** [*estado neutral*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Inolako erlijiorik bere egin gabe inpartzial agertuko den estatu-eredua; ez du baloraziorik egiten, baina ez da indiferente. Estatu demokratikoetan, hauxe kontsideratzen da aukerarik egokiena erlijio-askatasunetik ondorioztatzen den aniztasuna bideratzeko. **Ik.** *estatu akonfesional, estatu laiko, laikotasun.*

**estatu-zerga** [*impuesto estatal*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga ezartzeko eta eraentzeko ahalmenaren titularra Estatua izatea. **Sin.** *zerga estatal.*

**estatuaren aintzatespen** [*reconocimiento de estado*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Estatu berri baten existentzia eta hura nazioarteko zuzenbidearen subjektutzat hartzeko borondatea espresuki edo isilbidez egiaztatzen duen egintza eskumenekoa eta deklaratihoa. Aintzatespen honek berarekin batera estatu horren gobernuaren aintzatespena dakar.

**estatuaren erlijio** [*religión del estado*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Estatu batean ofizial den erlijioa. Zehazki, kategoria honetan sartzen dira erforma protestantea gailendu zen herrialdeetan, bertako eliza kristauak Erromako Aita Santuaren menpetik atera eta erresumako printzearen babespean, ofizial izendatu zirenak. Aurrerago estatu izango diren erresuma horietako eliza propioak, non erresumako printzea izango baita, halaber, eliza horien buru.

**estatuaren ondare-erantzukizun** [*responsabilidad patrimonial del estado*] ♦ *Zuz. Proz.* Justizia Administrazioak bere jardunean pertsonen gainean sortutako oinaze eta kalteengatik kalte-ordainak emateko Justizia Ministerioaren aurrean gauzatzen den prozedura administratihoa, betiere kontuan izanik kaltetuak ez duela kaltea jasateko betebeharrak juridikorik.

**estatuaren zuzenbide** [*derecho del estado*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Estatuak botere publikoen bitartez eraturako ordenamendu juridikoa. Estatu neutraletan, eremu politiko eta erlijioso arteko banaketa dela eta, erlijio-konfesioek dituzten ordenamenduekiko independente izango da.

**estatuaren oinordetza** [*sucesión de estados*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Estatu batek beste bat ordezkatzeari, bere gain hartuz lurralde baten nazioarteko harremanak egikaritzeko erantzukizuna. **Oh.** TEOH, 2. b) art.

**estatuko abokatu** [*abogada, abogado del estado*] ♦ *Zuz. Proz.* Estatuko abokatuen kidegoko funtzionario publikoa. Edozein jurisdikzioaren aurrean —dela barne-zuzenbidekoa, dela nazioartekoa— Estatuko Administrazio Orokorra eta horren organismo publikoak eta konstituzio-organismoak ordezkatzeari eta epaiketetan juridikoki defendatzeari da beraren egitekoa, baita Estatuko Administrazio Orokorri eta horren organismo publikoei aholkularitza ematea ere.

**estatuko administrazio** [*administración (general) del estado*] ♦ *Admin. Zuz.* Funtzio publikoak betetzeko estatuaren zerbitzuan dagoen antolakuntza juridiko publikoa, hierarkikoki antolatutako organoek osaturikoa, nortasun juridiko bakarrarekin jarduten duena, eta estatu osoko lurraldean eskumenak dituena.

**estatuko fiskal nagusi** [*fiscal general del estado*] ♦ *Zuz. Proz.* Ministerio Fiskal osoaren burua. Fiskalei betetzen duten zerbitzuaren eta dituzten eginkizunen araberrako aginduak eta argibideak emateko ahalmena du.

**estatus** [*estatus, status*] ♦ *Zuz. T.* Pertsona batek gizartean edo talde sozialaren barruan hartzen duen posizioa.

**estatutu** [*estatuto*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio-antolakuntzarako arau-xedapen juridikoa, autoantolatzekeo tresna gisa erabiltzen dena.

**estipulatzaile** [*estipulante*] ♦ *Zuz. Zib.* Kontratu edo hitzarmenen eduki diren estipulazioak (arau-indarra dutenak) sortu, garatu eta ezarri dituen kontratuko alderdia.

**estipulazio** [*estipulación*] ♦ *Zuz. Err.* Antzinako *sponsio*-tik zetorren alde bakarreko, zuzenbide hertsiko eta izaera formal eta solemneko hitzezko kontratu abstraktu eta ez-kausala, galde-erantzunen eskemari jarraitzen diona. Horren bidez, erantzungileak galdegilerari (stipulator) lotzen zion bere burua. **Sim.** *stipulatio*.

**estortzio** [*extorsión*] ♦ *Zig. Zuz.* Ondarearen aurkako delitua; norbaitek irabaziak lortzeko asmoz eta indarkeria edo larderia erabiliz beste pertsona bat egintza edo negozio juridikoa bat egitera edo ez egitera behartzea pertsona horren edo beste inoren ondarearen kalterako. **Oh.** ZK, 243. art.

**estradizio** [*extradición*] ♦ *Zig. Zuz.* Nazioarteko elkarlaneko prozedura bat, helburu hauetako bat lortzeko sinatzen dena: beste herrialde batean dagoen pertsona bat delitua burutu duen estatuan epaitu ahal izateko, edo bete beharreko zigorra betearazi ahal izateko.

**eszedentzia** [*excedencia*] ♦ *Admin. Zuz. Ik. lan-eszedentzia*.

**eszeptizismo** [*escepticismo*] ♦ *Zuz. T.* Inongo ezagutza irmorik ez dagoela aldarrikatzen duen doktrina filosofikoa.

**eszeptizismo etiko** [*escepticismo ético*] ♦ *Zuz. T.* Balorazio edo judizio moralen baliozkotasuna zehazteko arrazoizko metododik ez dagoela eta ezaguera morala ezinezkoa dela aldarrikatzen duen doktrina.

**etekin** [*rendimiento*] ♦ *Fin. Zuz.* Pertsona batek edo gauza batek ematen duen produktua edo utilitatea.

**etekin oso** [*rendimiento íntegro*] ♦ *Fin. Zuz.* Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan pertsona fisiko batek lortutako etekinak —murrizpenak eta gastu kengarriak aplikatu gabe—.

**etendura** [*interrupción*] ♦ *Zuz. Zib.* Preskripzioa gertatzeko igaro behar den denbora geldiaraztea, auziz edo auziz kanpoko erreklamazio bidez, edo zordunak zorra aitortuaz. **Oh.** KZ, 1973. art.

**etete** [*suspensión*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio-egintzen eraginkortasuneko printzipio orokorraren haustura. Administrazio-bidean, errekurtsioa ebazteko eskumena duen organoari dagokio geldiera erabakitzea. Auzibidean, berriz, epaileek eta tribunalek ere erabaki dezakete egintza administratibo baten berehalako egikaritzea, kasuan kasu, jokoan dauden esku-bide eta interesei kalteak sor diezazkioketela edo atzeraezineko egoerak sor ditzaketela uste dutelako. **Oh.** 39/2015 Legea, 117. art. eta 29/1998 Legea, 129-136. art.

**etika** [*ética*] ♦ *Zuz. T. 1.* Ongia eta gaitza zein hauek moralarekin eta giza portaerarekin dituzten harremanak aztertzen dituen diziplina filosofikoa. **2.** Gizarte batean giza portae-ra balioesten eta zuzentzen duten ohituren eta arauen multzoa.

**etika araugile** [*ética normativa*] ♦ *Zuz. T.* Sistema arauemaileak justifikatzen dituzten printzipio orokorrak zehazten saiatzen den etikaren adarra, arauak zergatik zehaztu argudiatzeko arrazoibidea eskaintzea xede duena.

**etxe-langile** [*persona empleada doméstica*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuaren etxean, eta etxeko lanak eginez, lan egiten duen langilea. Lan-harreman berezi gisa dago arautua.

**eudemonismo** [*eudemonismo*] ♦ *Zuz. T.* Helburua zoriona lortzea bada, helburu hori erdies- teko egiten den guztia onargarria dela aldarri- katzen duen teoria etikoa.

**eugenesia** [*eugenesia*] ♦ *Zuz. Zib.* Biologia zientzien parte bat, oinordetza-lege biologi- koak ikasten eta aztertzen dituen, giza espe- ziearen hobetzea bilatu nahian.

**euro** [*euro*] ♦ *EB. Zuz.* Ekonomia- eta diru- batasunaren azken fasera iritsi eta eurogunea osatzen duten Europar Batasuneko estatu ki- deen legezko dirua. **Ik.** *Eurogune.*

**euro zonalde** [*eurozona, zona euro*] ♦ *EB. Zuz. Ik. Eurogune.*

**euroaren gune** [*eurozona, zona euro*] ♦ *EB. Zuz. Ik. Eurogune.*

**Eurogune** [*eurozona, zona euro*] ♦ *EB. Zuz.* Diru ofizial gisa euroa bere egin duten Europar Batasuneko estatu kideen taldea. **Sin.** *euro zo- nalde, euroaren gune. Ik. euro.*

**Europako Egonkortasun Mekanismoa** [*Mecanismo Europeo de Estabilidad*] ♦ *EB. Zuz.* Eurogune herrialdeek 2012an sortutako nazioarteko erakundea. Bere xedea laguntza finantzarioa emango duen mekanismo egonko- rra bat eratzea da, estatu kideren batek finan- tzaketa-arazo larriak dituen laguntza eman diezaion, betiere, Eurogune egonkortasun finantzarioa babesteko ezinbestekoa denean. **Oh.** Europako Egonkortasun Mekanismoaren Tratatu Sortzailea, 2012ko otsailaren 2koa.

**Europako Erkidegoa** [*Comunidad Europea*] ♦ *EB. Zuz.* 1992ko Maastrichteko Tratatuan 1957ko Erromako Tratatueta sorturiko Eu- ropako Ekonomia Erkidegoaren jarraipen eta oinordeko gisa definitzen den erakundea, eta Lisboako Tratatuarekin Europar Batasunak or- dezkatu duena.

**Europar Batasuna** [*Unión Europea, UE*] ♦ *EB. Zuz.* Integraziozko nazioarteko erakundea,

legitimitate bikoitzean -demokratikoan eta go- bernuarterkoan- oinarritzen dena. Europar Er- kidegoetako estatu kideek 1992an eratu, eta Lisboako Tratatuaz geroztik Europako Erkide- goa ordezkatu, eta hari jarraipena eman diona. **Oh.** EBT, 1. art.

**Eurosistema** [*Eurosistema*] ♦ *EB. Zuz.* Eu- ropako Banku Zentralak eta Eurogune estatu- etako banku zentralak osatutako diru-agin- taritza; diru-batasuna bideratzea eta prezioen egonkortasuna lortzea dira horren helburu na- gusiak. **Oh.** EBFT, 282.1. art.

**eutanasia** [*eutanasia*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Oi- naze fisiko nahiz psikologikoz, sendabiderik gabe, oro har, bizitzaren amaieran edo bere buruaz jabe izateko desgaitasun kroniko eta larriko egoeran dagoen pertsonaren heriotza bideratzea, haren duintasuna eta borondatea errespetatuz, informazio osoa eskainiz eta ba- liabide egokiak erabiliz. Legeak ezarritako mugez haratago, delitu da Zigor Kodean, gaur egun (2019).

**exegesi** [*exégesis*] ♦ *Zuz. T.* Zerbaiten azal- pena edo interpretazioa; eskuarki, egile baten lan edo testu zehatz baten gainekoa.

**exekutatu 1** [*ejecutada, ejecutado*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. betearazi 1.*

**exekutatu 2** [*ejecutar*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. betea- razi 2.*

**exekutatzaile** [*ejecutante*] ♦ *Zuz. Proz., Konst. Zuz., Zuz. T. Ik. betearazle 1.*

**exekuzio** [*ejecución*] ♦ *Zuz. Proz. Admin. Zuz. Ik. betearazpen.*

**exekuzio-agindu** [*despacho de la ejecución*] ♦ *Zuz. Proz.* Betearazpenezko prozesu zibi- lean, demanda eta berari laguntzen dion betea- razpen-titulu edota -dokumentua aztertu ondo- ren, epaileak harekin jarraitzeko ematen duen autoa.



**exekuzio-demanda** [*demanda ejecutiva*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. betearazpen-demanda.*

**exekuzio-direktiba** [*directiva de ejecución*] ♦ *EB. Zuz. Ik. zuzentarau betearazle.*

**exekuzio-egintza** [*acto de ejecución*] ♦ *EB. Zuz. EBren arau lotesleen aplikazioa gauzatzearazle. Estatuaren eskumenekoa izanik, exekuzio-baldintza uniformeak behar direnean Batzordeari, edo justifikaturiko egoera berezietan Kontseiluari, esleitzen zaiona. Oh. EBFT, 291. art. Sin. betearazpen-egintza.*

**exekuzio-erregelamendu** [*reglamento de ejecución*] ♦ *EB. Zuz. Ik. erregelamendu betearazle.*

**exekuzio espezifiko** [*ejecución específica*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. betearazpen espezifiko.*

**exekuzio generiko** [*ejecución genérica*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. betearazpen generiko.*

**exekuzio-immunitate** [*inmunidad de ejecución*] ♦ *Nart. Zuz. Pu. Beste estatu baten organoek estatuaren edo bere ondasunen kontra har ditzakeen neurri hertsakor zein erabaki judicial edo administratiboan aurrean estatuta babesten pribilegioa. Oh. BJLO, 21. art., 16/2015 Lege Organikoa, 2. b) art., Nazio Batuen Konbentzioa estatuaren eta beren ondasunen jurisdikzio-immunitateei buruzkoa (2004). Sin. betearazpen-immunitate.*

**exekuzio-prozesu** [*proceso de ejecución*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. betearazpen-prozesu.*

**exekuzio-titulu** [*título ejecutivo*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. betearazpen-titulu.*

**exekuzio-uzi** [*pretensión ejecutiva*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. betearazpen-uzi.*

**exekuzio-zuzentarau** [*directiva de ejecución*] ♦ *EB. Zuz. Ik. zuzentarau betearazle.*

**exequatur** [*exequátur*] ♦ *Nart. Zuz. Pr. Atzerriko ebazpen bat eskatzen den estatuaren ebazpen*

hori egikaritzea-agiri bihurtzen duen prozedura. *Exequatur*-ak atzerriko ebazpenari ondorio egikaritzeak esleitzen dizkio Espainian.

**exhorto** [*exhorto*] ♦ *Zuz. Proz. Epaila edo auzitegi batek beste bati zuzendutako ofizioa, bere jurisdikzio-esparrutik kanpo eginbide prozesal bat egiteko laguntza eskatzen duena.*

**exijigarritasun** [*exigibilidad*] ♦ *Fin. Zuz. Tributua galdagarri bilakatzearazle, sortzapenarekin bat edo ondoren; horrek tributuaren ordainketa egitea eskatzen du. Tributu bakoitzaren araudiak ordaindu beharreko kuota edo haren zati bat sortzapenarena ez den beste une batean galdaraztekeela ezar dezake (adibidez, PFEZ sortzapena urte-bukaeran gertatzen da, baina zorra galdatzen da hurrengo urtean autolikidazioaren epean). Sin. galdagarritasun.*

**ezagutze-saio** [*rueda de reconocimiento*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. taldeko ezagutze-saio.*

**ezarpen-arau** [*norma de funcionamiento*] ♦ *Nart. Zuz. Pr. Ik. funtzionamendu-arau.*

**ez-betetze** [*incumplimiento*] ♦ *Zuz. Zib. Obligaziozko erlazio juridikoaren objektua (prestatzioa) aurrera ez eramatea. Ez-betetzea hiru motatakoa izan daiteke: betetze atzeratua (prestatzioa epeaz kanpo egikaritzen denean), betetze akastuna (prestatzioa hitzartu denaz bestelako moduan egikaritzen denean), eta, ez-betetze absolutua (prestatzioa egikaritzen ez denean). Obligazioaren ez-betetzeak sortutako kalteak ordaintzeko obligazioa sortzen du. Ik. berandutza, kalte, kontratuzko erantzukizun.*

**ez-betetzeagatik prozedura** [*procedimiento de incumplimiento*] ♦ *EB. Zuz. Europar Batasuneko arauen arabera estatu kideei dagozkien obligazioen urraketak kontrolatu eta egiaztatzeko prozedura. Prozedura hau Batzordeak gidatzen duen lehen fase administratibo batek eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurrean gauzatu den bigarren fase jurisdikzional batek osatzen dute. Oh. EBFT, 258.-260. art.*

**ezduin** [*indigna, indigno*] ♦ *Zuz. Zib.* Ezduintasun kausan egonik, epaileak oinordetzeko ezgai adierazi duena **Ik.** *ezduintasun*.

**ezduintasun** [*indignidad*] ♦ *Zuz. Zib.* Oinordeko izateko ezintasun erlatiboa, ahaideen arteko lege betebeharrak eta betebeharrak ez betetzeak ekar dezakeena. Ez da beti ondorio zuzena, oinordekideek ez badute demandarik jartzen ez da beti aplikatu behar. **Ik.** *oinordeko, senipartedun*.

**ezduintasun-arrazoi** [*causa de indignidad*] ♦ *Zuz. Zib.* **Ik.** *ezduintasun-kausa*.

**ezduintasun-kausa** [*causa de indignidad*] ♦ *Zuz. Zib.* Kausatzailer baten oinordekoa ezduina dela adierazi ahal izateko legeak aurrekusten duen eta derrigorrez bete behar den betekizuna, oinordekoaren jarrera errefusagarri batean oinarritutakoa. **Sin.** *ezduintasun-arrazoi*.

**ez-egite** [*omisión*] ♦ *Zig. Zuz.* Egileak galdagarri zitzaion portaera bat aurrera ez eramatean datzan delitu mota. Bi ez-egite mota daude: ez-egite hutsa eta ez-egitearengatiko egitea. **Oh.** ZK, 11., 195., 196., 226., 227., 407., 408., 450. eta 476. art.

**ez-egiteagatiko errekurtsio** [*recurso por omisión*] ♦ *EB. Zuz.* Akzio-bide honen bitartez Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak Europar Batasuneko erakunde, organo edo organismoen ez-egitearen legezketasuna kontrolatzen du, eta Europar Batasuneko zuzenbidearen kontrakoa diren ala ez erabaki. **Oh.** EBFT, 265. art. **Sin.** *ez-egitearen aurkako errekurtsio*.

**ez-egitearen aurkako errekurtsio** [*recurso por omisión*] ♦ *EB. Zuz.* **Ik.** *ez-egiteagatiko errekurtsio*.

**Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga** [*Impuesto sobre la Renta de No Residentes*] ♦ *Fin. Zuz.* Kasu hauek zergapetzen dituen zerga: a) Espainiako lurraldean egoiliarrek ez diren, baina lurralde horretan establezimendu

iraunkorrik gabe diharduten pertsona fisikoek eta entitateek lortutako errenta; b) Espainiako lurraldean egoiliarrek ez diren pertsona fisikoek eta entitateek bertan helbideratutako establezimendu iraunkorren bitartez lortutako errenta. **Sin.** *EEEZ*.

**ezespen** [*desestimación*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesu judizial batean epaileak edo epaimahaiak aldeetako baten eskabide edo nahiak modu arrazoituan baztertea.

**ezetsi** [*desestimar*] ♦ *Zuz. Proz., Zuz. T.* Epai baten bidez edo bestelako ebazpen judizial edo administratibo baten bidez aldeetako baten nahia baztertu.

**ezeko elkarrekikotasun** [*reciprocidad negativa*] ♦ *Nart. Zuz. Pr.* Aintzatetsi nahi den ebazpenaren jatorrizko estatuan espainiar epailean epaiak aintzatesten ez direnean sortzen den egoera.

**ezetzapen** [*negación*] ♦ *Zuz. T. 1.* Zerbait uko egiteko ekintza. **2.** Zerbaitek edo norbaitek eskatzen duenari edo nahi duenari ematen zaion ezezko erantzuna.

**ezgai** [*incapaz*] ♦ *Zuz. Zib.* Bere burua gobernatzea galarazten dioten gaixotasun edo gabezia fisiko edo psikiko iraunkorrak dituen pertsona. Ezgaia den pertsona izan daiteke judizialki ezgaitua, baina ez da derrigorrezkoa ebazpen judizial hori pertsona bat ezgaia dela aitortzeko. **Oh.** KZ, 199. art. eta hurr. **Ik.** *ezgaitasun, ezgaitu*.

**ezgaitasun** [*incapacidad*] ♦ *Zuz. Zib.* Jarduteko gaitasuna murrizten duen egoera. Trafiko juridikoan pertsona batek dagokion gaitasuna ez duela adierazten du. Ezgaitasunak ez dakar, derrigorrez, ezgaitzea. Ezgaitzea aukera bat da eta judizialki deklaratu behar da. Adinez nagusiak zein adingabeak ezgaitu daitezke, azken hauen kasuan adin-nagusitasunera heltzean adimen urrikoak izaten jarraituko dutela uste bada. Adimen-galera larri eta iraunkorrak sortzen dituzten

gaixotasunak edo ezintasunak pertsona bat ezgaitzeko kausak dira. Ezgaitzea fisikoa edo psikikoa izan daiteke. Ezgaitzeepaiak adierazten du murrizketa horren zenbaterainokoa (osoa edo partziala izan daiteke) eta ezgaituaren gaineko babes-erakundea. Egoera aldatzen bada, epaiaren edukiak eta neurriak berrikusi behar dira. **Sin.** *desgaitasun*. ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *ezintasun*.

**ezgaitu** [*incapacitar*] ♦ *Zuz. Zib.* Norbait ezgai deklaratu. **Sin.** *desgaitu*.

**ezgaitze** [*incapacitación*] ♦ *Zuz. Zib.* Pertsona bat ezgai deklaratzeko duen ebazpen judiziala. **Sin.** *desgaitze*.

**ezgaitze-epai** [*sentencia de incapacitación*] ♦ *Zuz. Zib.* Epailearen ebazpena, pertsona fisiko bati jarduteko gaitasuna murrizten diona, behar duen babes erakundea jarritz.

**ezgaitze-prozedura** [*proceso de incapacitación*] ♦ *Zuz. Zib.* Jarduteko gaitasuna kendu edo aldatzeko prozedura. **Ik.** *ezgaitze*.

**ezinbesteko indar** [*fuerza mayor*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Nazioarteko obligazio batekin bat ez datorren estatu edo nazioarteko erakunde baten egitatearen ez-zilegitasuna baztertzen duen inguruabarra, aintzat hartzen dena baldin eta egitate hori estatuaren edo erakundearen kontrolatik at dagoen eutsi ezinezko indar batek edo ezusteko gertaera batek eragin badu, eta kasuaren inguruabar horietan materialki ezinezko bada obligazio hori betetzea. **Oh.** NZ-Bren artikuluen proiektua (2001) nazioarteko egitate ez-zilegietatik ondorioztatzen den estatuaren erantzukizunari buruzkoa, 23. art.

**ezinbesteko laguntzaile** [*cooperador necesario*] ♦ *Zig. Zuz.* Delitua gauzatzeko beharrezkoa zen ekintza baten bitartez laguntzen duen pertsona. Egiletzat hartuko da zigorra ezartzeari begira. **Oh.** ZK, 28 b art.

**ezintasun** [*imposibilidad*] ♦ *Zuz. Zib.* Zerbait egiteko aukerarik edo ahalik eza. **Ik.** *ezgaita-*

*sun*. ♦ *Lan Zuz.* Istripuen edo gaixotasunen ondorioz, langileak lan egiteko duen ezintasuna. **Sin.** *ezgaitasun*.

**ezintasun iraunkor** [*incapacidad permanente*] ♦ *Lan Zuz.* Osasun tratamendua jaso ondoren ere, ustez, behin betiko izaera duen ezintasuna, lan egiteko gaitasuna gutxitu edo ezabatzen duena. **Oh.** GSLO, 193. art. **Ik.** *aldi baterako ezintasun*.

**ezintasun iraunkor absolutu** [*incapacidad permanente absoluta*] ♦ *Lan Zuz.* Ezintasun iraunkorraren maila. Maila hau aitortuko da langileak lanean jarraitu ezin duenean, ez bere ohiko lana egiten, ezta bestelako lanetan ere. **Oh.** GSLO, 194. art.

**ezintasun iraunkor partzial** [*incapacidad permanente parcial*] ♦ *Lan Zuz.* Ezintasun iraunkorraren maila. Maila hau aitortuko da, baldin eta, lan egiteko gaitasuna gutxitu arren, langileak lanean jarrai badezake. **Oh.** GSLO, 194. art.

**ezkonsari** [*dote*] ♦ *Zuz. Zib.* Gaztelako Zuzenbidean, emaztearen ondasun kopurua, senarrak administratuko duena ezkontzaren kargak arintzeko. Euskal Zuzenbidean, ezkondu ondoren bikotearen familiaren baserrira sartu berri den ezkontideak ekarritako ondarea, baserria oinordetzan jasotzen duen ezkontideak bere anai-arreben seniparte falta orekatzeko erabiltzen duena. **Sin.** *dote*.

**ezkontide** [*cónyuge, consorte*] ♦ *Zuz. Zib.* Ezkontza-loturaren alderdia. Gizonezkoarekin zein emakumezkoarekin ezkontuta dagoen pertsona. **Ik.** *ezkontza*.

**ezkontza** [*matrimonio*] ♦ *Zuz. Zib.* Sexu bereko zein ezberdineko pertsonen arteko lotura juridikoa. Ezkontza zibilaren adierazgarria den adostasunak forma zibila zein erlijiosoa onartzen du. **Oh.** KZ, 45. art. eta hurr.

**ezkontza-deuseztasun kanoniko** [*nulidad matrimonial canónica*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.*

Eliza katolikoaren ordenamendu kanonikoak ezkontza baliozkoa izateko dituen eskakizunak bete gabe egindako ezkontza. Elizako auzitegien epaiek erabakiko dute deuseztasuna baina efektu zibiletarako homologatu egin beharko da. **Oh.** KZ, 80. art. **Sin.** *ezkontza-nulitate kanoniko*. **Ik.** *doitze, efektu zibilen aitortpen, homologazio*.

**ezkontza kanoniko** [*matrimonio canónico*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Eliza katolikoaren ordenamendu kanonikoaren arabera egindako ezkontza. Kontratu juridiko izateaz gain, dimentsio erlijioso du. Ezkontideen ongizatea eta seme-alabak izan eta hauek heztera bideratua. Deseginezina, heterosexual eta monogamo da. **Ik.** *ezkontza-deuseztasun kanoniko*.

**ezkontza-kapitulazio** [*capitulación matrimonial*] ♦ *Zuz. Zib.* Ezkontza bitartean indarrean egongo den eraentza ekonomikoa edo bestelako akordioaren bat ezartzeko, ezkontideek sinatzen duten ituna. Eskritura publikoan egin behar da, ezkondu aurretik edo ondoren. Eraentza ekonomikoa aldatzea ahalbideratzen du. **Ik.** *banatze-eraentza, ezkontzaren ondasun-eraentza, foru-komunikazio, irabazpidezko erkidego, partaidetza-eraentza*.

**ezkontza-nulitate kanoniko** [*nulidad matrimonial canónica*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* **Ik.** *ezkontza-deuseztasun kanoniko*

**ezkontzaren ondasun-eraentza** [*régimen económico matrimonial*] ♦ *Zuz. Zib.* Ezkontzan ezargarria den araubide ekonomikoa. Ezkontideek, ezkondu aurretik edo ondoren, egiten dituzten ezkontza-kapitulazioen bitartez eraentza ezarri edo aldatu ahal izango dute. Ezkontza-kapitulaziorik sinatzen ez badute, dagokion legezko ondasun- eraentza ezartzen da. **Ik.** *banatze-eraentza, ezkontza, ezkontza-kapitulazio, ezkontzaren ondasun-eraentza, foru-komunikazio, irabazpidezko erkidego, partaidetza-eraentza*.

**ezkontza-sistema** [*sistema matrimonial*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Ordenamendu orokorraren azpisistema, ezkontza zibilen eta erlijiosoen arteko harremana adierazten duena, zehatzuz ezkontza erlijiosoek efektu zibilak izango dituzten ala ez eta zein baldintzatan.

**ezohiko errekurtsio** [*recurso extraordinario*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *aparteko errekurtsio*.

**ezohiko legitimazio** [*legitimación extraordinaria*] ♦ *Zuz. Proz.* Pertsona bati epaiketan aritzeko legeak egiten dion aintzatespena. Legitimazio berezia da; izan ere, prozesu zibilean ohiko legitimazioa alderdiek berek prozesuan aritzeko duten interesaren baieztapen hutsa da.

**ezohiko prozedura** [*procedimiento extraordinario*] ♦ *Zuz. Err.* Ohiko prozeduraz kanpo (*cognitio in ordinem*), Kristo ondorengo I. mendetik aurrera, pixkana-pixkanaka, Zuzenbide Erromatarrean nagusitu ziren prozeduren artean hirugarrena. **Sin.** *cognitio extra ordinem*.

**ez-xedapenezko prozesu** [*proceso no dispositivo*] ♦ *Zuz. Proz.* Behin hasita, bere objektua alderdien eskuetatik kanpo duen prozesua.

# F

---

**faktore** [*factor*] ♦ *Merkat. Zuz.* Besteren konturako enpresa baten kudeatzailea, enpresa administratu, zuzendu eta enpresarekin zerikusia duten gauzen inguruan kontratatzeko ahalmenak dituena, enpresariak egokitzat jo duenaren arabera. **Oh.** MK, 283. art.

**factoring-kontratu** [*contrato de factoring*] ♦ *Merkat. Zuz.* Kontratu mota bat, zeinaren bidez, enpresa batek factoring-enpresa baten esku uzten baitu bere bezeroenganako dituen kreditu komertzialak. Kasuaren arabera, kreditu komertzialak eskualdatu edo kobrantza-komisioan bereganatuko dira, eta factoring-enpresak zordunaren kaudimengabeziaren arriskua bere gain hartuko du edo ez.

**falta** [*falta*] ♦ *Zig. Zuz.* Zigor Kodea aldatu zuen 1/2015 Lege Organikoak falten desagerpena ekarri zuen. Faltak ziren legeak zigor arinekin zigortzen zituen arau-hausteak. Egun, Zigor Kodean arautzen diren arau-hausteak hauek dira: delitu astunak, astuntasun txikiago delituak eta delitu arinak. **Oh.** ZK, 13. art.

**faltsutasun** [*falsedad*] ♦ *Zuz. T.* **1.** Egiazkotasunik edo benetakotasunik eza. **2.** Hitzen edo ideien eta egitateen arteko desadostasuna.

**familia** [*familia*] ♦ *Zuz. Err.* Erromako gizarte-antolamenduan zuzenbide berezkoa (*sui*

*iuris*) zen *paterfamilias* delakoak haren senide (*alieni iuris*) eta esklabo guztien gaineko funtsezko botere eta ahalmen erlijioso eta politikoa zuen gune txikiena. **Sin.** *familia*.

**familia-eredu** [*modelo de familia*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Estatu demokratikoetan, afektibitatea eta sexualitatea bideratzeko askotariko aukerak daudelako ideian oinarriturik, aintzat hartzen diren familia egiturak. Konstituzioak, oro har, familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa segurtatzen du eta seme-alaben berdintasuna bermatzen du, hauek ezkontzazkoak zein ezkontzaz kanpokoak izan. **Oh.** EK, 39. art.

**familia-protokolo** [*protocolo familiar*] ♦ *Merkat. Zuz.* Familia-enpresako kideen artean egindako akordio bat, familia-enpresaren testuinguruan, familiaren eta enpresaren arteko harremanak arautzea helburu duena, jabetza-aren, gobernuaren eta kudeaketaren alderdiei dagokienez. **Oh.** 171/2007 ED, 2. art.

**fas** [*fas*] ♦ *Zuz. Err.* Erroma zaharreko pontifize-zuzenbidearen arabera zuzenbidearekin bat datorren egintza; *nec fas*, aitzitik, Zuzenbidearekin bat ez datorren egintza da. Horren arabera, *fas* egunak (*dies fasti*) baliodunak ziren, eta *nec fas* egunak (*dies nec fasti*) baliogabeak. **Sin.** *fas*.

**fedea on** [*buena fe*] ♦ *Zuz. Zib.* Zuzenbidearen printzipio orokorra, jokabide zintzo eta leialari erreferentzia egiten diona. **Ik.** *fedea txar*.

**fedea publiko erregistratua** [*fe pública registral*] ♦ *Zuz. Zib.* Ondasun higiezinaren eta hauen gaineko eskubide errealen gaineko titulartasuna zehazteko balio duen presuntzioa. Hala, Jabetza Erregistroan inskribatuak dauden eskubide errealak, inskripzio-idazpenean adierazten den eran titularrarenak direla presumituko da. Halaber, ondasun higiezinaren zein eskubide errealen titulartasuna inskribatua duen jabeak, edukitza ere baduela presumitzen da. **Ik.** *eskubide erreal, inskripzio, jabetza erregistro*.

**fedea txar** [*mala fe*] ♦ *Zuz. Zib.* Eskubide edo ondasun baten jabetza, edukitza edo beste edozein abantaila lortzea, horren ez egokitasun edo ez zilegitasunaren berri izanik. Fedea txarra fedea onaren kontrako printzipioa da. Ondorio ezberdinak izan ditzake kasuz kasu, ekintza deuseza dela adieraztea, jokabide horrek eragindako kalteak ordaindu beharra eta abar. **Oh.** KZ, 7. art. **Ik.** *fedea on*.

**fidantza** [*fianza*] ♦ *Zuz. Zib.* Zordunak hartzekodunari zorra ordainduko diola ziurtatzeko helburua duen berme pertsonala. Fidantzaren bidez, fidatzaileak, hartzekodunaren baimenarekin, bere gain hartzen du zorraren ordainketa zordunak ordaintzen ez duen kasuetan.

**fidantza-kontratu** [*contrato de fianza*] ♦ *Merkat. Zuz.* Kontratu mota bat, zeinaren bidez, fidatzaileak betebeharra baitu zerbait ordaindu edo betetzeko zordunaren orde, baldin eta zordunak egiten ez badu. Hortaz, fidatzailearen betebeharrak izaera subsidiarioa du, eta zordunak dagozkion betebeharrak betetzen ez dituenean kontratu honek fidatzailea behartzen du, salbu eta fidatzaileak ez badu betebeharrak solidarioa hartzen zordunarekin batera. Azken kasu horretan, subsidiarioritasuna ez da izaten fidantzaren ezaugarri nagusia. **Oh.** KZ, 1822. art.

**fidatzaile** [*fiadora, fiador*] ♦ *Zuz. Zib.* Beste bati dagokion betebeharraren bermatzailea. **Ik.** *fidantza*.

**fidecommissum** [*fideicomiso*] ♦ *Zuz. Err.* **Ik.** *fideikomiso*.

**fideikomiso** [*fideicomiso*] ♦ *Zuz. Err.* Erregu moduan eta formak zaindu gabe, ordenamendu juridikoaren arabera xedatzaile batek fiduziario (*fiduciarius*) bati azkenahietan egiten dion eskaria, hirugarren baten alde (*fideicommissarius*) jarduteko helburu duena. Horren bidez, fiduziario horren fidesaren esku uzten da jaraunspena bera osorik, eta eskatzen zaio, haren kuotaren bat edo gehiago hirugarren bati (*fideicommissarius*) transmiti diezaion edota dela gauza konkretu bat emateko, dela fideikomisarioaren alde zerbait egiteko, dela enkargu berezi bat betetzeko. Fiduziarioaren borondatearen arabera zenez (*fides*), enkargua erregu aditzen bidez adierazten zen (*rogo, volo, desidero, fideicommitto*), eta ez latinez ez ezik, baita beste hizkuntza batzuetan ere (*bolimai*). Legatuak ez bezala, dokumentu honek ez zuen egitura edo forma berezirik. **Sin.** *fideicommissum*. ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Nazio Batuen Erakundearen autoritatepean ezarritako lurraldea, bere administrazioa estatu kide bati akordio berezi bidez egokitu zaiona eta Administrazio Fiduziarioko Kontseiluak gainbegiratzen duena. **Oh.** NBG, 77. art.

**fides** [*fe*] ♦ *Zuz. Err.* Obligazioetan eta edozein negozio juridikotan hitzartutakoari zor zaion leialtasuna edo fidelitate.

**fiduziario** [*fiduciaria, fiduciario*] ♦ *Zuz. Zib.* Kausatzaileak ahalorde bidez izendatzen duen konfiantzazko pertsona, bera hil ostean, bere oinordetza ordenatzeko. **Ik.** *komisario, oinordetza-fiduzia*.

**finantza-aktibo** [*activo financiero*] ♦ *Fin. Zuz.* **Ik.** *aktibo finantzario*.

**finantzaketa-koefiziente** [*coeficiente de financiación*] ♦ *Fin. Zuz.* Aurrekontuko gastu bat egiteari lotutako aurrekontuko sarrera guztiak —onartuak eta onartzeko daudenak— aurrekontuko gastu horren zenbateko osoaz —egindakoaz eta egitekoaz— zatizetik ateratzen den emaitza.

**finantzaketa lotuko gastu** [*gasto con financiación afectada*] ♦ *Fin. Zuz.* Beste erakunde batzuekin hala adostu delako (edo beren izaera edo berariazko baldintzengatik) diru-sarrera jakin eta zehatzekin osorik edo zati batean finantzatzen den gastua.

**finantza-kontrol** [*control financiero*] ♦ *Fin. Zuz.* Administrazioaren ekonomia- eta finantza-kudeaketaren barne-kontrola.

**finantza-orekaren printzipio** [*principio de equilibrio financiero*] ♦ *Fin. Zuz.* Aurrekontu bakoitzean sarrerak gastuen zenbatekoa estaltzeko adinakoak izatera behartzen duen printzipioa.

**finantzen aurretiazko taula** [*cuadro de financiamiento previsional*] ♦ *Fin. Zuz. Ik. aurreikusitako finantzaketa-aula.*

**finka** [*finca*] ♦ *Zuz. Zib.* Zentzu materialean, jabetzaren objektu izan daitekeen lurreko edozein azalera itxi.

**finka-bereizte** [*segregación de finca*] ♦ *Zuz. Zib.* Erregistro eginkizun baten ondorioz, finka batetik zati bat kentzea edo bereiztea finka berrri bat eratzeko edo beste bati osatzeko.

**finka erregistrat** [*finca registral*] ♦ *Zuz. Zib.* Jabetza Erregistroan folioa irekitzen duen ondasun higiezin (finka materialarekin bat etor daitekena edo ez) edo administrazioaren emakida. **Ik.** *finka, folio, immatrikulazio.*

**fiskal** [*fiscal*] ♦ *Zuz. Proz.* Ministerio Fiskaleko kidea. Legalitatearen, herritarren eskubideen eta legeak babestutako interes publikoaren alde justiziaren jarduna sustatzea da

beraren eginkizuna, ofizioz edo interesdunek eskatuta, eta baita auzitegien independentzia zaintzea eta haien aurrean gizarte-interesa asebetetzea ere.

**fiskal buru** [*fiscal jefe*] ♦ *Zuz. Proz.* Espainiako probintzia-hiriburu guztietan dauden fiskaltzetan lan egiten duten fiskalen burua edo arduraduna, eta ondorioz fiskaltza bakoitzeko agintari gorena.

**fiskal nagusi** [*fiscal general*] ♦ *Zuz. Proz.* Ministerio Fiskal osoaren buruzagitza duen pertsona, Gobernuak proposatuta, Erregeak izendatua, aurrez Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia eta Diputatuen Kongresuko komisiokoak entzunda.

**fiskaltza** [*fiscalía*] ♦ *Zuz. Proz.* Ordena judizialeko bulego baten aurrean diharduen ministerio publikoa.

**fisko** [*fisco*] ♦ *Fin. Zuz., Zuz. Err.* Ogasun Publikoa.

**fitxategi** [*fichero*] ♦ *Admin. Zuz.* Izaera pertsonaleko datuen inguruan antolatutako multzo oro, edozein delarik ere multzo hori sortu, biltegiratu, antolatu eta multzo horretara sartzeko modua edo modalitatea. **Oh.** 15/1999 Lege Organikoa, 3.b art.

**flexisegurtasun** [*flexiseguridad*] ♦ *Lan Zuz. Ik. malgusegurtasun.*

**folio** [*folio*] ♦ *Zuz. Zib.* Erregistroko inskripzioen liburuan finka bakoitzak irekitzen duen orria, hortik hasita finka horren historia erregistrala sortzen duena. **Ik.** *finka, finca erregistrat, inskripzio, jabetza erregistro.*

**forma-akats** [*vicio de forma*] ♦ *Zuz. T. Zuzenbideko egintza batek bere baliozkotasunerako edo konfiguraziorako legeak eskatzen dion baldintza formalen bat ez betetzeagatik osatutako formazko edo prozedurazko akatsa. **Sin.** *formazko akats.**

**forma-urraketa** [*quebrantamiento de forma*]

♦ *Zuz. Proz.* Prozesuaren erregularitasunari modu larrian kalte egiten dion forma-betekizunen haustea. Zigor-prozesuan kasazioan errekurritu ahal izateko zioetariko bat da.

**formalismo** [*formalismo*] ♦ *Zuz. T. 1.* Forma juridiko garbien teoria garatzen duen Zuzenbidearen Filosofiaren Eskola. Ez ditu errealitate sozialaren eduki enpirikoak eta helburuak aintzat hartzen. **2.** Zuzenbidearen ikuskera, zeinaren arabera, argudio juridikoa justifikatzeko iturri bakarra zuzenbide positiboa baita.

**formazko akats** [*vicio de forma*] ♦ *Admin. Zuz. Ik. forma-akats.* ♦ *Zuz. T. Ik. akats formal.*

**formula bidezko prozedura** [*procedimiento formulario*] ♦ *Zuz. Err.* Kristo aurreko II. mendeko *lex Aebutia*k indarrean jarritako idazkien (*formulas*) bidez eginiko prozedura, zeinaren arabera, alderdiek hautatutako ofiziozkoa ez den epaile batek (*iudex*), frogak aztertu ondoren, epaia (*sententia*) ematen baitzuen, aurreko legis acciones prozeduraren bi faseetako banaketa errespetatuz. **Sin.** *agere per formulas.*

**foro baztertzailer** [*foro exclusivo, competencia exclusiva*] ♦ *Nart. Zuz. Pr.* Legegileak beste estatuetako auzitegi eta epaitegi guztiak baztertuz, estatu bateko epaitegiei auzien ezagutzarako esleitzen dien eskudantzia. Horren arabera, alderdiek ere ezin izango diete beste estatu bateko eskuduntzarik esleitu.

**foru** [*fuero*] ♦ *Zuz. Proz.* Epaitegien lurralde-eremua zehazten duen araua.

**foru-administrazio** [*administración foral*] ♦ *Admin. Zuz.* Euskadiko Lurralde Historikoetako eta Nafarroako gobernu eta administrazio-organismoak, tokiko erakunde gisa. **Oh.** EAEko Autonomia Estatutua, 3. art. eta 13/1982 Lege Organikoa (LORAFNA), 28.bis art.

**foru-aldundi** [*diputación*] ♦ *Konst. Zuz. Ik. diputazio.*

**foru-arau** [*norma foral*] ♦ *Admin. Zuz.* Euskadiko Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiek onartzen duten izaera orokorreko eta goimailako xedapena. **Oh.** 27/1983 Legea, 8. art. **Sin.** *arau foral.* ♦ *Fin. Zuz.* Foru lurraldeek egiten dituzten legeen pareko araua. Arau horien bidez, zergak eta prozedurak arautzen dira.

**foru-diputazio** [*diputación foral*] ♦ *Konst. Zuz. Ik. diputazio.*

**foru-komunikazio** [*comunicación foral*] ♦ *Zuz. Zib.* Bizkaiko Zuzenbide zibilean, ezkontideen legezko erregimen ekonomikoa. Hautazko erregimen ekonomikoa da, halaber, ezkontideen eta erregiratutako izatezko bikoitentzat.

**foru-lege** [*ley foral*] ♦ *Admin. Zuz.* Nafarroako Foru Komunitateko Parlamentuak Nafarroaren eskumenekoak diren arloak arautzeko onesten duen arau-xedapena. **Oh.** 13/1982 Lege Organikoa, 20. art.

**foru-lurralde** [*territorio foral*] ♦ *Konst. Zuz.* Foruak aplikatzen diren administrazio-eremua: Euskal Autonomia Erkidegoko Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa; Nafarroa ere foru-lurraldea da.

**foru-saka** [*saca foral*] ♦ *Zuz. Zib.* Tronkaleko senideek gauzatzen duten akzioa eskualdake-ta deusezteko eta tronkaleko ondasuna lehen-tasunez eskuratzeko, ondasun horren jabeak, senide horiei ondasuna lehenago eskaini gabe, hirugarren bati kostubidez eskualdatu badio. **Sin.** *saka-eskubide. Ik. onibar, tronkaleko ondasun, tronkaleko senide, tronkalitate.*

**forudun** [*aforada, aforado*] ♦ *Zuz. Zib.* Foru-eremuko lurralde-zuzenbide jakin bat aplikagarri duen pertsona. Pertsona foruduna da lurralde bateko foruaren edo legeriaren eremupean kokatzen dena. **Ik.** *forugabe.*

**forugabe** [*no aforada, no aforado*] ♦ *Zuz. Zib.* Foru-eremuko lurralde-zuzenbide jakin bat aplikagarri ez duen pertsona. **Ik.** *forudun.*



**forum prorogatum** [*forum prorogatum*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Prozeduran parte hartzea eskatzen duten hainbat egintza prozesal gauzatzearen bitartez, Nazioarteko Justizia Auzitegiaren (NJA) eskuduntzaren isilbidezko onarpena.

**frankizia-kontratu** [*contrato de franquicia*] ♦ *Merkat. Zuz.* Kontratu mota bat, zeinaren bidez, enpresa eskubidea ematen baitio frankizia-emaileak frankizia-hartzaile denari produktu edo zerbitzuak merkaturatzeko bere sistema ustiatzeko. **Oh.** TMAL, 62. art.

**froga** [*prueba*] ♦ *Zuz. Proz., Zuz. T.* Alde batek, arau prozesalean araututako bitartekoen bidez, aurkeztutako jarduketa prozesala. Horren bidez, bere nahiaren oinarria aldarrikatu eta egiaztatzeko ahalegina egiten du, prozesu judizialean bere esanaren egiazkotasuna arrazoitzeko.

**froga-aldi** [*periodo de prueba*] ♦ *Zuz. T.* Prozesu judizial batean, frogak aurkezteko epea. ♦ *Admin. Zuz.* Interesdunek alegatutako egitateak Administrazioak egiazkotzat jotzen ez dituenean zein prozeduraren izaerak hala eskatzen duenean, prozeduraren egoki deritzon froga guztiak egin daitezten instruktoreak irekitzen duen fasea, gutxienez, hamar egunekoa eta, gehienez, hogeita hamarrekoa. **Oh.** 39/2015 Legea, 77.2 art.

**froga-baliabide** [*medio de prueba*] ♦ *Zuz. Proz., Zuz. T.* Prozesu batean zenbait gertakari egiazkoak direla frogatzeko aurkezten diren iturriei edo objektuei bide emateko jarduera bakoitza. Horien bidez, aldean baieztapenak egiazkoak edo gezurrezkoak diren erabakitzeko elementuak eskuratuko ditu epaileak. **Sin.** *frogabide.*

**froga-balorazio** [*valoración de la prueba*] ♦ *Zuz. Proz.* Epailearen jardun intelektuala, prozesuan azaldutako frogen bidez aldeek aldarrikatutako gertakariak benetan gertatu diren ala ez jakiteko sinesgarritasuna eskuratzea helburu duena.

**froga-dokumentu** [*prueba documental*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *froga dokumental.*

**froga dokumental** [*prueba documental*] ♦ *Zuz. Proz.* Idatziz edo euskarri materialean jasotako frogabidea; auzi batean alegatutako zerbaiten egiazkotasuna edo faltsutasuna erakusteko eta begien bistako egiteko datu sinesgarriak edo erabiltzeko modukoak jasotzen ditu. **Sin.** *dokumentu bidezko froga, dokumentu-froga, dokumentuzko froga, froga-dokumentu.*

**froga-egintza** [*acto de prueba*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuaren amaieran bildutako gertakarien zehaztasuna edo zehaztugabetasuna argitu ahal izateko prozesu batean aldeek agertzen duten dinamismoa. Jarduera honetan ez da kontuan hartzen frogabide materialak aurkeztea soilik; aitzitik, bildutakoa balioesteko unean epaileak egiten duen adierazpen intelektuala ere jasotzen da. Ikuspegi horretatik, jakintzarako legezko iturri bat sortzen duen jardueratzat har daiteke, eta jakintza hori ezinbestekoa da arlo jurisdikzionalen erabaki bat hartzeko unean.

**froga-eskaera** [*petición de prueba*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesu judizialean parte hartzen duten alderdiek organo jurisdikzionalari beren uziko egitateak frogatzeko proposatzen dituzten frogabideak eskatzea.

**froga-gauzatze** [*práctica de la prueba*] ♦ *Zuz. Proz.* Aldeek egiaztatu gabeko gertakariak egiaztatzeko edo gertakari horien harira aldean artean dauden desadostasunak ebazteko izapidea. Eskatu eta onartutako frogak egiten dira izapide horretan.

**froga-hastapen** [*principio de prueba*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *froga-printzipio.*

**froga-iturri** [*fuentes de prueba*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuaren aurretiko elementua edo gora-behera: dagokion frogabidearen bidez zuzenbidera ekarrita, gertakari bat positiboki edo negatiboki finkatzeko erabiltzen da balorazio judizialean.

**froga-jarduera** [*actividad probatoria*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuan aztergai den auziaren materialtasuna argitzeko eta ondorio juridikoak zehazteko egiten den borondatezko eta eza-guerazko adierazpen eta adierazpen intelektual oro, legez arautua eta esku-hartzaileek prozesuan esandakoa.

**froga-karga** [*carga de la prueba*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuaren aldeetako bati bere nahiak arrazoi-tzeko aipatzen dituen gertakariak eta gorabehe-  
rak egiaztatzeke ezartzen zaion betebeharra. **Sin.** *froga-zama*.

**froga legal** [*prueba legal*] ♦ *Zuz. Proz.* Legeak gertakari jakin bat egiaztatzeke eskatzen duen frogabide zehatza. **Sin.** *legezko froga*.

**froga pertsonal** [*prueba personal*] ♦ *Zuz. Proz.* Norbanako baten adierazpenetan oinarritutako froga. Mota horretakoak dira, esaterako, alderdien itaunketa, lekukoak eta adituak.

**froga-printzipio** [*principio de prueba*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesu judizialean egikaritzen den uzia ebatzi baino lehen, hari egiazkotasan-zantzua ematen dion edozein froga. **Sin.** *froga-hastapen*.

**froga-zama** [*carga de la prueba*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *froga-karga*.

**frogabide** [*medio de prueba*] ♦ *Zuz. Proz., Zuz. T. Ik.* *froga-baliabide*.

**frogaren balioespen aske** [*libre valoración de la prueba*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *frogaren balorazio aske*.

**frogaren balorazio aske** [*libre valoración de la prueba*] ♦ *Zuz. Proz.* Froga baloratzeko sistema. Haren arabera erabakia hartu behar duen organoak froga baloratuko du bere kontzientziaren arabera edo bere esperientzia-ereduak kontuan izanik eta irizpide logiko eta arrazionalan oinarrituz. **Sin.** *frogaren balioespen aske*.

**frogaren balorazio legal** [*valoración legal de la prueba*] ♦ *Zuz. Proz.* Froga baloratzeko sistema. Haren arabera legeak zehaztuko du frogak izan beharreko balioa. **Sin.** *frogaren legezko balorazio*.

**frogaren legezko balorazio** [*valoración legal de la prueba*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *frogaren balorazio legal*.

**frogatutako egitateak** [*hechos probados*] ♦ *Zuz. Proz.* Epaitutako gertakarien artean organo judizialak egiazkotzat jo eta epaiaren ebazpenerako funtsezkoak diren gertakarien kontakizun historikoa.

**fruitu** [*fruto*] ♦ *Zuz. Zib.* Gauza batek ematen duen produktua edo emaitza. Alor zibilean hiru motatakoak izan daitezke: naturalak (gauzaren edo animalia-aren berezko fruituak), industria-fruituak (lan egitearen ondorioz sortutakoak) eta zibilak (ekoizpenak ematen dituztenak, adibidez etxe baten errenta).

**fumus boni iuris** [*fumus boni iuris*] ♦ *Zuz. Proz.* Jurisprudentiak erabilitako irizpideetako bat da, auziaren mamia aurrez epaitu gabe, epaiketarako elementu nahikoa badagoen behin-behinean erabakitzeko, eta, horien arabera, prozedura bideratzen den bitartean kautelazko neurriak hartzeko. **Sin.** *eskubide oneko itxura*.

**fundazio** [*fundación*] ♦ *Zuz. Zib.* Irabazi-asmorik gabeko nortasun juridikoa duen interes publikoko erakundea, interes orokorreko helburua lortzeko sortua izan dena. **Ik.** *elkarte, korporazio*.

**funtsezko betekizun** [*elemento esencial*] ♦ *Zuz. Zib.* Guztizko zerbaiten elementu edo zati eratzailea. Zuzenbide Zibilaren alorrean, funtsezko betekizun kontzeptuak kontratuaren eraketara garamatza; kontratua sortzeko behar diren funtsezko betekizunak dira adostasuna, objektua eta kausa. Funtsezko betekizunen bat falta bada kontratua ez da sortzen.

**funtsezko epemuga** [*término esencial*] ♦ *Zuz. Zib.* Prestazio edo betebeharraren burutzeari baliozkotasun epea ezartzen dion epemuga; berandutzarik ez da onartzen, epez kanpoko prestazio edo betebeharra ez betetzat joko da. **Ik.** *berandutza*.

**funtzio jurisdikzional** [*función jurisdiccional*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *jurisdikzio-funtzio*.

**funtzio publiko** [*función pública*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio Zuzenbideak araututako estatutu-harreman bidez, herri-administrazioaren edo bestelako erakunde publiko baten zerbitzuan diharduen pertsonen multzoa. **Ik.** *bitarteko funtzionario, enplegatu publiko, funtzionario publiko, karrerako funtzionario*.

**funtzionamendu-arau** [*norma de funcionamiento*] ♦ *Nart. Zuz. Pr.* Gatazka-arauen ezarpen praktikoak sortutako arazoak konpontzeko erabiltzen den araua. **Sin.** *ezarpen-arau*.

**funtzionario publiko** [*funcionaria pública, funcionario público*] ♦ *Admin. Zuz., Lan Zuz.* **1.** Legearen zuzeneko xedapenaren bidez, hautaketa bidez zein agintaritzak eskudunak egiten duen izendapenaren bidez, funtzio publikoen jardueran parte hartzen duen funtzionarioa. **Oh.** ZK, 24.2 art. **2.** Administrazio publikoan edo erakunde publiko batean Administrazio Zuzenbideak araututako estatutu-harreman bidez ordaindutako zerbitzuak eskaintzen dituen pertsona. Karrerako funtzionario edo bitarteko funtzionario izan daiteke. Nolanahi ere, funtzionario publikoei dagozkie, soil-soilik, ahal publikoen egikaritzan edo Estatuaren eta administrazio publikoen interes orokorren babesean zuzenean edo zeharka esku-hartzea dakarten eginkizunak. **Oh.** 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 8., 9. eta 10. art. **Ik.** *enplegatu publiko, karrerako funtzionario*.

**furtum** [*furtum*] ♦ *Zuz. Err.* Maula bidez (*contrectatio rei alienae fraudulosa*) eta lapurreta egiteko asmo betez (*animus furandi*) burutu-

tako egintza, irabazi-asmoz egindakoa. Hiru kasu hartzen ditu barne: gauza bat ohostea, ebatsitakoa erabiltzea eta edukitzea ohostea. Egungo Zigor Zuzenbideko ebasketarekin eta lapurretarekin alderatuz, erdibidean legoke Zuzenbide Erromatarrean jasotako egintza hau.

**furtum ez-flagrante** [*robo no flagrante, hurto no flagrante*] ♦ *Zuz. Err.* Ageri-agerikoa ez den furtum egintza. Lapurtutako gauzaren balio bikoitza ordaindu beharra zekarren zigor gisa. **Sin.** *furtum nec manifestum*.

**furtum flagrante** [*robo flagrante, hurto flagrante*] ♦ *Zuz. Err.* Ageri-ageriko lapurreta egiten harrapatutakoari egotzitako delitu pribatua. Hasieran, heriotz-zigorra zekarren. Geroago, lapurtutako gauzaren balioaren laukoitza ordaintzera zigortzen zen delitugilea. **Sin.** *furtum manifestum*.

**furtum manifestum** [*furtum manifestum*] *Zuz. Err.* **Ik.** *furtum flagrante*.

**furtum nec manifestum** [*furtum nec manifestum*] *Zuz. Err.* **Ik.** *furtum ez flagrante*.

# G

---

**gaikuntza** [*habilitación*] ♦ *Admin. Zuz.* Jar-duera jakin bat onartzeko zein helburu partikular bat erdiesteko gauza bat erabiltzea onets dezaten, agintaritza eskudunak interesdunei kasu bakoitzean administrazio-egintza bat edo batzuk egiteko ematen dien ahalmena.

**gainbalio** [*plusvalía*] ♦ *Fin. Zuz.* Ondasun batek izandako balio-gehikuntza.

**gaineraikuntza** [*sobreedificación*] ♦ *Zuz. Zib.* Eraikin batean solairu berriak eraikitzeke eskubidea.

**gaitasun** [*capacidad*] ♦ *Konst. Zuz.* Pertsona batek, beste inoren esku-hartze edo baimenik eskatu gabe, bere kabuz eskubideak egikaritzeko eta betebeharrak hartzeko duen ahalmena.

**gaitasun juridiko** [*capacidad jurídica*] ♦ *Zuz. Zib.* Pertsonaren oinarritzeko ezaugarria. Eskubideen zein obligazioen titularrak izateko egokitasuna adierazten du.

**gaitasun kritiko** [*capacidad crítica*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Egitatez jabetu eta horiek balioesteko gaitasun psikiko nahiz heldutasuna. Behar den formazio eta informazioarekin, interes publikodun gaien inguruan iritzi propioak eratu eta adierazteko ahalmena.

**gaitasun prozesal** [*capacidad procesal*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuan egintzak baliozkotasunez egiteko ahalmena; hau da, epai bidezko babes eraginkorrerako eskubidea baliozkotasunez epaile aurrean egikaritzeko ahalmena. Alderdi izateko gaitasuna duen orok ez du gaitasun hau. **Sin.** *jarduteko gaitasun prozesal.*

**gaitzespen** [*desvalor*] ♦ *Zig. Zuz.* Portaera bat Zigor Zuzenbidearen kontrakoa izateko ezinbestekoa da ekintzaren gaitzespena; hau da, portaeraren balioespen negatiboa egitea, duen arriskugarritasuna dela eta. Bestetik, emaitzaren gaitzespena ere eskatzen da; portaeraren ondorioen gaineko balioespena negatiboa izango da, ondasun juridikoa lesionatu edo arriskuan jartzen delako.

**gaitzetsi** [*condenar, reprobare*] ♦ *Zuz. T.* **1.** Pertsona bat edo bere jokaera ez onartzea zein txartzat jotzea. **2.** Zigorra ezartzearekin bat, epaile batek errudunaren ekintzari buruz adierazten duena.

**gaixotasun profesional** [*enfermedad profesional*] ♦ *Lan Zuz. Ik.* *lanbide-gaixotasun.*

**gaizkile** [*malechora, malechor*] ♦ *Zuz. T.* Delitua egiten duena, eta bereziki delituzko ekintzak sarri edo ohituraz egiten dituena.

**galdagarritasun** [*exigibilidad*] ♦ *Fin. Zuz. Ik. exijigarritasun.*

**galdatu** [*exigir, recabar*] ♦ *Zuz. T.* Eskumena duenari zerbait larderiak eskatu.

**ganbera** [*cámara*] ♦ *Konst. Zuz.* Ordezkarien biltzarra.

**gardentasun** [*transparencia*] ♦ *Konst. Zuz.* Kargu publikoek herritarrei beren ekintzen eta bereziki diru-erabileraren berri emateko bete-beharra. Bereziki, ustelkeriaren prebentziorako ezartzen den eskakizuna. ♦ *Fin. Zuz.* Legegilearen mekanismo bat, zeinean errentak eta gastuak hartzaileari egotzi beharrean beste hirugarren bati egozten baitzaizkio.

**gardentasun-printzipio** [*principio de transparencia*] ♦ *EB. Zuz.* EBko erakunde-sistemaren funtzionamendua gidatzen duen printzipio orokorra, hura hiritarrentzat ulergarriagoa eta eskuragarriagoa egiteko asmoa duena. Honen adierazpen juridiko nagusi gisa ageri da EBko herritarren eskura ipintzea haren erakunde, organo eta organismoen dokumentuak. **Oh.** EBT, 1. art.; EBOEG, 42. art. **Ik.** *hurbitasun-printzipio.*

**garraio-kontratu** [*contrato de transporte*] ♦ *Merkat. Zuz.* Kontratu mota bat, zeinaren bidez garraiolariak bete-beharra hartzen baitu, prezio baten truke, bere erantzukizunpean eta denbora jakin batean, gauzak edo pertsonak leku batetik bestera eramateko. **Oh.** SLGKL, 2.1 art.

**gastu publiko** [*gasto público*] ♦ *Konst. Zuz.* Beharrian publikoak aurrera eramateko estatuak aurrekontuen bitartez egiten duen ordainketa.

**gatazka** [*conflicto*] ♦ *Konst. Zuz., Zuz. T.* **1.** Desadostasuna, bat ez etortzea. **2.** Norgehiagokak sorturiko guda- edo borroka-egoera.

**gatazka aldakor** [*conflicto móvil*] ♦ *Nart. Zuz. Pr.* Gatazka-arauaren lotura-puntua zehaz-

teko balio duen inguruabarra aldatzen denean sortutako arazoa.

**gatazka-arau** [*norma de conflicto*] ♦ *Nart. Zuz. Pr.* Nazioarteko egoera pribatua Estatu zehatz batean kokatzen duen nazioarteko zuzenbide pribatuko araua. Estatu horretako ordenamenduak nazioarteko egoera pribatua eraendu behar du. Erdibideko arautze-metodoa darabil. Aginduzko araua da. **Oh.** KZ, 12.6 art.

**gatazka kolektibo** [*conflicto colectivo*] ♦ *Lan Zuz.* Langileen interes kolektiboaren inguruan sortu eta azaleratutako gatazka.

**gatazka kolektiboko neurri** [*medida de conflicto colectivo*] ♦ *Lan Zuz.* Gatazkaren alderdi batek, langileenak zein enpresaburuenak, beste alderdiari aurre egiteko harturiko presio neurria.

**gau eta eguneko epaitegi** [*juzgado de guardia*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *guardiako epaitegi.*

**gauekotasun** [*nocturnidad*] ♦ *Lan Zuz.* Lanaren ezaugarria, soldata osagarriako eskubidea eragin dezakeena.

**gauza epaitu** [*cosa juzgada*] ♦ *Zuz. Proz.* Legeak epai irmo bati aitortzen dion eragin loteslea, objektu bera duen beste prozesu bat eragozten duena (eragin materiala), eta epai irmoaren aurkaezintasuna adierazten duena (eragin formala). **Sin.** *res iudicata.*

**gauzen zuzenbide** [*derecho de cosas*] ♦ *Zuz. Zib.* Ondasun ekonomikoen ikuspuntu estati-koa jorratzen duen Zuzenbide Pribatuaren ar-  
loa. Ondasunen sailkapena, titulartasun motak, gauzen gaineko eskubideak, mugak eta iraupe-  
na; gauzen eskubideak eskuratzeko eta galtze-  
ko erak arautzen dituena.

**gehiagotze eskubide** [*derecho de acrecer*] ♦ *Zuz. Zib.* Borondatezko oinordetzan gertatzen den eskubidea. Testamentugileak pertsona bat baino gehiago deitu badu jaraunspen zati batean eta hauetariko batek bere zatia jaso nahi

ez badu edo ezin badu, besteek hartuko dute hari zegokiona, testamentugileak kontraktorik esaten ez badu. **Ik.** *ordezkatzeko-eskubide*.

**gehiiegizko foro** [*competencia exorbitante, foro exorbitante*] ♦ *Nart. Zuz. Pr.* Estatuaren naziokotasuna duten pertsonen egoera hobetzeko legegileak estatu bateko epaitegiei esleitzen dien eskuduntza.

**gehiengo kualifikatu** [*mayoría cualificada*] ♦ *EB. Zuz.* Arau orokor gisa Kontseiluak erabakiak hartzeko darabilen gehiengoa. Gehiengo kualifikatua lor dadin, estatu kideen % 55aren aldeko botoa behar da, gutxienez, eta estatu kide horiek, gutxienez, Batasuneko biztanleriaren % 65 ordezkatzea. **Oh.** EBT, 16.3 eta 16.4 art.

**genero** [*género*] ♦ *Zuz. Zib.* Kulturak eta gizarteak sexu bakoitzari ezartzen dioten rola. Pertsona bati, sexu bateko edo besteko jaiotzeagatik kulturalki egokitzen zaizkion balioen, sentimenduen, jarrerren, jokabideen, gaitasunen, interesen, funtzioen nahiz rolen multzoa. Emakumezkoari genero femeninoa atxikitzen zaio eta gizonezkoari genero maskulinoa. Sexu-genero sistema bitarra gainditzearen, genero neutroa edo hirugarren generoa onartu da hainbat herrialdetan.

**genero-identitate** [*identidad de género*] ♦ *Zuz. Zib.* Sexu-genero sistema bitarraren baitan (emakumea edo gizona), generoa estereotipo eta rolei lotutako eraikuntza sozial eta kulturala izanik (femeninoa eta maskulinoa), genero-identitatea pertsona bakoitzak bi genero horiekiko, modu batean edo bestean, garatzen duen (edo ez duen) identifikazioa. Pertsona *cisgeneroa* izango da bere sexu-organoen arabera esleitu zaizkion sexuaren eta generoaren artean disonantziarik agertzen ez duena. Aldiz, pertsona *transgeneroa* izango da bere sexu-organoen arabera esleitu zaizkion sexuaren eta generoaren artean disonantziaren bat agertzen duena. **Ik.** *genero*.

**genozidio** [*genocidio*] ♦ *Zig. Zuz.* Nazioarteko Komunitatearen aurkako delitua, nazio, etnia, arraza edo erlijio talde bat, edota desgaitasunen batengatik bereizten den talde bat oso-osorik edo zati batean suntsitzeko asmoz egiten dena. **Oh.** ZK, 607. art.

**gentlemen agreements** [*gentlemen agreements*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Hitzez hitz hartuta, gizonen arteko akordioa. Arrunki, praktika diplomatikoan, garrantzi txikiko gaiak arautzeko adosten diren nazioarteko zuzenbideko subjektuen ordezkarien arteko akordioak. Akordio hauek ez dute efektu juridikorik sortzen hitzarmena egin dutenen arteko konpromisoaz harago. Espainiar zuzenbideak izaera araugilerik ez duten nazioarteko akordiotzat jotzen ditu.

**gerorapen** [*aplazamiento*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga-obligazioak betetzeko dagoen epearen atzerapena. **Sin.** *ordainketa geroratze*.

**gertaera** [*hecho*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *egitate*.

**gertagarri** [*contingencia*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren, gizarte-arriskua gauzatzean gertatzen dena. Adibidez, gaixotasuna, istripua.

**giza baliabide** [*recurso humano*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresan, lan-indarra eskaintzen duen pertsona.

**giza baliabideen plangintza** [*planificación de recursos humanos*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazioak onartutako plana, xede duena, bai eraginkortasuna lortzea zerbitzuen prestazioan, eta baita ere efizientzia bermatzea eskuragarri dauden baliabide ekonomikoen erabileran, betiere, aintzat hartuz zein den pertsonalaren banaketa, haien prestakuntza, promoziorako bidea, mugikortasuna eta lan-taldearen dimentsiorik egokiena. **Oh.** 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 69.1 art

**giza eskubide** [*derecho humano*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Goi mailako arauetan aitortutako eskubideak pertsonaren duintasuna eta nortasunaren

garapen librean aldarrikatzen dutenak, oro har nazioarte mailako tratatu, hitzarmen eta aldarrikapenetan jasotzen dira, esaterako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean.

**giza eskubideen errespetuaren printzipio** [*principio del respeto a los derechos humanos*] ♦ *EB. Zuz.* EBren eta bere estatu kideen balio komuna. **Oh.** EBT, 2. art.

**giza hilketak** [*homicidio*] ♦ *Zig. Zuz.* Giza bi-ziaren aurkako delitua, beste pertsona baten bi-ziari erasotzen diona. **Oh.** ZK, 138. art.

**giza portaera** [*conducta humana*] ♦ *Zuz. T.* **1.** Pertsona baten jokabide behagarrien multzoa. **2.** Giza jokabidearen adierazpena, hots, gizakiak egiten duena.

**gizabanako** [*individuo*] ♦ *Zuz. T.* Besteen-gandik bakandurik, beregaintasun osoa ezagutua duen pertsona. **Sin.** *individuo*.

**gizaki** [*ser humano*] ♦ *Zuz. T.* **1.** Pertsona, giza espezieko banakoa. **2.** Gizakiaren natura akastuna berezko duena.

**gizakien salerosketa** [*trata de seres humanos*] ♦ *Zig. Zuz.* Indarkeria, larderia edo engainua erabiliz, edota nagusitasun- edo behar-izan-egoeraz nahiz biktimaren ahulezia- z abusatuz, biktima atzematean, garraiatzean, lekualdatzean, hartzean, harrera egitean edo ostatu ematean burutzen den delitua, helburua hauetakoren bat bada: bortxazko lanak edo zerbitzuak, esklabotza edo esklabotzaren, mirabetzaren edo eskaletasunaren antzeko praktikak inposatzea, sexu-ustiaketa —pornografia barne—, gorputz organoak ateratzea edo hertsapenezko ezkontzak egitea. **Oh.** ZK, 177 bis art.

**gizalege** [*conducta, proceder*] ♦ *Zuz. T.* **1.** Hitzartutakoaren edo aurreikusitakoaren arabera ordenatutako akzio-multzoa. **2.** Pertsona baten jokatzeko modua; egoera jakin batean erantzuteko egiten dituen akzioen multzoa.

**gizarte** [*sociedad*] ♦ *Zuz. T.* Pertsona-talde antolatua, erregela juridikoen zein ohiturazko erregelen arabera erlazionatu, eta une zein leku zehatz batean kultura eta zibilizazio bera partekatzen duena.

**gizarte-aniztasun** [*pluralismo social*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Gizarte demokratikoetan aitortutako pluraltasunaren eta oinarrizko eskubideen garapenaren ondorioz sortutako aukera ugaritasuna. Aukera ugaritasun hori izan daiteke, besteak beste, ondorengo arrazoiak direla eta: kultura, hizkuntza, erlijioa, ideologia, pentsamoldea, bestelako inguruabar personalak edo sozialak. **Sin.** *gizartearen aniztasun*.

**gizarte-arrisku** [*riesgo social*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren, gizarte osoak duen arriskua. Adibidez, gaixotasuna, istripua. **Sin.** *arrisku sozial*.

**gizarte-babesaren maila** [*nivel de protección social*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte-babesaren barruko atala. Maila nagusiak hauek dira: gizarte-laguntza, derrigorrezko maila publikoa (Gizarte Segurantza), eta maila osagarri pribatua.

**gizarte-integrazio** [*integración social*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Gehiengoak eta gutxiengoak dauden gizarteetan, minoriekiko kanporatze- eta marjinazio-prozesuak gaindituz, norberak dituen berezitasunekin eta berdintasunekin egoeran gizarteratua egotea. **Ik.** *gizarte-kohesio*.

**gizarte justu** [*sociedad justa*] ♦ *Zuz. T.* Gizarte horretan aintzat hartzen den justiziaren ideia betetzen duena. Adibidez, bakoitzari dagokiona ematen dion gizartea.

**gizarte-kohesio** [*cohesión social*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Gizarteak duen gaitasuna integrazioa bideratzeko, bertako kideen artean oinarrizko beharrianak bermatuz, pobrezia eta gizarteko desberdintasun ekonomiko, sozial, kultural eta juridikoak gaindituz, eta polarizazio eta gizarte hausturak saihestuz. **Ik.** *gizarte-integrazio*.

**gizarte monokultural** [*sociedad monocultural*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Soberania-eremu berean, kultura-kode edo identitate bakarra edo ia nagusitasun osokoa duen gizartea. Egungo gizarte demokratikoetan ez dago horrelako adibide garbirik, gehiengoan kulturarekin batera, agertzen baitira gutxiengoak ere. **Ik.** *asimilazio, segregazio.*

**gizarte multikultural** [*sociedad multicultural*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Soberania-eremu berean kultura-kode edo identitate ezberdineko talde anitz biltzen dituen gizartea, desberdintasun etniko, linguistiko, erlijioso edo nazionalen ondorioz eratutakoa. Herrialde demokratikoetan talde horien onarpenaren eta dagozkien eskubideen aitortzen alde egiten da eskuarki. **Ik.** *gizarte-aniztasun, multikulturalismo.*

**gizarte-segurantzaz** [*seguridad social*] ♦ *Lan Zuz.* Pertsonen beharrian-egoerak babesteko sistema publikoa. **Oh.** EK, 41. art.

**Gizarte Segurantzarekin kolaboratzen duen mutua** [*mutua colaboradora con la seguridad social*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren kudeaketan laguntzen duten entitate pribatuak. Enpresaburu-elkartek dira.

**gizartearen aldeko lan** [*trabajo en beneficio de la comunidad*] ♦ *Zig. Zuz.* Eskubideez gabetzeko zigorra, norbait herri-onurako jarduera jakin batzuetan ordaindu gabeko laguntza ematera behartzen duena. **Oh.** ZK, 49. art. **Ik.** *gizartearentzako lan.*

**gizartearen aniztasun** [*pluralismo social*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* **Ik.** *gizarte-aniztasun.*

**gizartekide** [*miembro de la sociedad*] ♦ *Zuz. T.* Gizartearen parte dena.

**gizatasun** [*humanidad*] ♦ *Zuz. T.* **1.** Gizaki guztien berezko nolakotasuna. **2.** Gainerako pertsonengan maitasuna, ulermena edo elkartasuna sentitzeko ahalmena.

**gizatasun-printzipio** [*principio de humanidad*] ♦ *Zig. Zuz.* Estatu demokratiko batean ezartzen diren zigor guztiak gizatiarrak izan daitezen, *ius puniendiak* duen muga bat.

**gizateriaren aurkako delitu** [*delito de lesa humanidad*] ♦ *Zig. Zuz.* Nazioarteko Erkidegoaren aurkako delitua, biztanleria zibilaren edo haren zati baten aurkako eraso orokor edo sistematikoen bidez burutzen dena. **Oh.** ZK, 607 bis art.

**gobernu** [*gobierno*] ♦ *Zuz. T.* **1.** Egitura politiko-administratibo bat (estatua, erkidegoa, lurralde historikoa, udala, saila...) zuzentzen duen pertsonen eta erakundeen multzoa. **2.** Gobernatzeko akzioa.

**gobernu-sala** [*sala de gobierno*] ♦ *Zuz. Proz.* Auzitegi Gorenean, Auzitegi Nazionalean eta gobernu-eskumenak dituzten autonomia-erkidegoetako auzitegi nagusietan eratutako kide anitzeko organoa. Oro har, auzitegi horiek ez dira jurisdikzionalak izaten dagozkien esparruetan.

**goi-ordezkeri** [*alta, alto representante de la Unión para asuntos exteriores y política de seguridad*] ♦ *EB. Zuz.* **Ik.** *Batasuneko atzerri-eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkeri.*

**gomendio** [*recomendación*] ♦ *EB. Zuz.* EBko erakundeek hartzen duten egintza juridiko ez-loteslea. Eskuarki, jarraitzeko jokabide bat edo egoera edo portaera bat aldatzeko oharra adierazten du. **Oh.** EBFT, 288. art.

**gora jotzeko errekurtsio** [*recurso de alzada*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** *gorako errekurtsioa.*

**gorako errekurtsio** [*recurso de alzada*] ♦ *Admin. Zuz.* Egintza administratibo baten aurkako errekurtsioa, egintza eman zuen organo beraren aurrean edo goragoko organoaren aurrean aurkezten dena, azken horrek aztertu eta ebatz dezan. **Oh.** 39/2015 Legea, 121. art. **Sin.** *gora jotzeko errekurtsio.*



**gordailapen** [*depósito*] ♦ *Zuz. Err.* Pertsona batek (gordailugileak edo *deponens*) beste pertsona bati (gordailu-hartzailea edo *depositarius*) gauza higikor bat dohainik zaintzeko orduan egiten denaldebiko kontratu erreal, ez-perfektua. Kontratu honen arabera, gordailugileak hala eskatzen dionean, gauza itzuliko dio gordailu-hartzaileak. **Sin.** *depositum*.

**gordailu** [*depósito*] ♦ *Zuz. Zib.* Bi pertsonaren arteko kontratua, zeinaren bitartez alderdietako batek beste bati gauza bat gordetzeko obligazioa bereganatzen duen.

**gordailu judicial** [*depósito judicial*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesu zibilean epaileak, alderdi baten eskariz, erabakitzen duen kautelazko neurria, gauza bat epailearen esku uzten duena.

**gordailutze** [*depósito*] ♦ *Nart. Zuz. Pu. 1.* Nazioarteko tratatu aldeaniztunen jatorrizko testua zaintzan jartzea. **2.** Nazioarteko tratatu aldeaniztunen kasuan, estatuek beren aldeabakarreko adostasunaren instrumentuak gordailuzainari ematea. Horren bitartez, estatu batek adostutakoak efektuak izango ditu nazioarteko ordenamenduan. **Sin.** *deposito*.

**gordailuzain** [*depositario*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Nazioarteko tratatu aldeaniztunen jatorrizko testua zaintzeko eta horri loturik doazen gainontzeko funtzioak egikaritzeko enkargua jasotzen duen estatu, nazioarteko erakunde edo funtzionarioa. **Oh.** TZVK, 76. art.

**gordailuzain judicial** [*depositario judicial*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesu zibilean, epaileak kautelazko neurri baten menpe jarri duen gauza bat zaintzeko ardura duen pertsona.

**gorroto-delitu** [*delito de odio*] ♦ *Zig. Zuz.* Zio diskriminatzaileengatik burutzen den delitua, Zigor Kodeko 22.4 artikuluan aurreikusitako astun-garrietako bat betetzen bada. **Oh.** ZK, 22.4 art.

**gozamen eskubide** [*usufructo*] ♦ *Zuz. Zib.* Jabearena den ondasuna zein eskubidea era-

biltzeko eta gozatzeko eskubidea. Gozamen-dunak ezingo du bere eskubidearen objektu den ondasuna xedatu, eta bere forma eta izaera errespetatu beharko du, eraketa-tituluak edo legeak beste gauza bat adierazten ez duten bitartean. Giza merkataritzaren barne dagoen edozein gauza izan daiteke gozamen eskubidearen objektua. Bai fruituak ematen ez dituen horietakoa, edo fruituak ematen dituen. Azken kasu honetan, gozamen-dunak fruituak, naturalak eta zibilak, jasotzeko eskubidea izango du. **Sin.** *usufructu*. **Ik.** *fruitu*.

**gradu pertsonal** [*grado personal*] ♦ *Admin. Zuz.* Funtzionario batek betetzen duen edota bete izan duen lanpostuagatik zein beste merituz batzuenagatik sendotua duen ordainsari-maila.

**greba** [*huelga*] ♦ *Lan Zuz.* Lan-uzteak presio neurri gisa erabiltzeko langileek duten eskubidea. Presio-neurri hau beren interesen alde, eta enpresaburuen aurka baliatu ahal izango dute, horren ondorioz zigorrik jaso gabe. **Oh.** EK, 28.2 art.

**grinaldi** [*estado pasional*] ♦ *Zig. Zuz.* Zigorra arintzen duen inguruabar orokorra, zoroaldia, itsualdia edo antzekoa den beste edozein egoera sorrarazten duena. **Oh.** ZK, 21.3 art.

**guardiako epaitegi** [ *juzgado de guardia*] ♦ *Zuz. Proz.* Guardiako funtzioak betetzea dagoen jurisdikzio-organoa. Herri bakoitzean dauden instrukzio-epaitegiak edo lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegiak txandakatzen dira guardiako zerbitzua emateko. **Sin.** *gau eta eguneko epaitegi*.

**guda-delitu** [*delito de guerra*] ♦ *Zig. Zuz.* Gatazka armatuaren kasuan, babesturiko ondasun eta pertsonen aurka egindako delitua. **Oh.** ZK, 608. art. eta hurr.

**guraso-ahal** [*patria potestad*] ♦ *Zuz. Zib.* Gurasoek emantzipatu gabeko seme-alaben gainean duten utzi ezinezko eskubide eta betebeharr multzoa (Iturria: Erregistro Zibila. Hiztegia).

Guraso-ahala umeen onuran erabili beharko da beti, hauen nortasuna kontuan hartuz eta errespetatuz. Guraso-ahala osatzen duten eskubideak eta betebeharrak umeen arlo pertsonalean, ondarezkoan eta ordezkapenean egikaritzen dira.

**Oh.** KZ, 154. art. eta hurr.

**gutxiengo** [*minoría*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Nagusigoa duen gehiengoarengandik desberdinduz, kopuruz murrizagoak diren taldeak, beren identitatearen adierazgarritzat jo daitezkeen ezaugarri komunak dituztenak. Ezaugarri horiek, nazionalak zein ez, etnia, erlijio, hizkuntza, tradizio edota ohituretan oinarrituak egongo dira eskuarki. Bizi diren gizartean, nortasun bereziari eutsi eta sustatu nahi dute diskriminaziorik gabe. **Ik.** *gutxiengo indigena, gutxiengo nazional.*

**gutxiengo indigena** [*minoría indígena*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Estatu multikulturaletan, mendebaldeko bizimodutik eta kulturatik desberdinduta, hainbat herrialdetan dauden jatorrizko etnia edo herrietako kideak. Gehiengoan aldean, murrizagoak dira kopuruz, berezko kultura izan ohi dute eta bizimodu kolektiboa garatu. Aldarrikatzen dute lurrarekiko loturaren aitortza eta lur horretan bizitzeko eskubidea. **Ik.** *gutxiengo.*

**gutxiengo nazional** [*minoría nacional*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Estatu multikulturaletan, nazionalitate berebereko herritar izanda, gehiengoarengandik desberdinduta kultura, etnia, erlijio, hizkuntza, tradizio arrazoiak direla eta, identitate bereko gutxiengoak, beren nortasuna diskriminaziorik jasan gabe bermatu nahi dute. **Ik.** *gutxiengo.*

# H

---

**habeas corpus prozedura** [*procedimiento de habeas corpus*] ♦ *Zuz. Proz.* Legezko oinarri-rik gabeko edo legez kontrako balizko atxiloteten aurkako jurisdikzio-babeserako baliabidea, askatasun-gabetzea zuzenbidearekin bat datorren ebazteko atxilotua berehala epailearen esku jartzea helburu duena. **Oh.** EK, 17.4 art.

**harmonizazio** [*armonización*] ♦ *EB. Zuz.* Materia jakin batean estatu kide guztientzat antzekoa izango den arauketa ezartzeko EBk darabilen teknika juridikoa. Arauketen hurbiltze hau nagusiki zuzentarauak erabiliz egiten da. **Oh.** EBFT, 114. art. **Sin.** ordenamenduen harmonizazio. **Ik.** zuzentarau.

**harreman diplomatiko** [*relación diplomática*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Elkarrekiko adostasunean oinarrituta, mendeak dituen estatuen arteko instituzioa, ordezkaritza, interesen babesa, negoziazioa, informazioa eta elkarren arteko kooperazioa helburu duena. Harreman horiek estatu batek beste estatuaren autoritate zentralen aurrean ordezkaritza juridikoa izatea dakarte, baita elkarrekiko aintzatespena ere.

**harreman diplomatikoen haustura** [*ruptura de relaciones diplomáticas*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* **1.** Arrazoi politikoengatik harreman diplomatikoei amaiera ematean datzan neurria. **2.** Al-

dez aurreko egintza ez-zilegi bati ematen zaion erantzun gisa, estatu batek beste batekin zituen harreman diplomatikoei amaiera ematea dakarren autotutela neurria. Horren helburua estatu horrek egintza ez-zilegia etetea eta erreparatzea da.

**harreman juridiko** [*relación jurídica*] ♦ *Zuz. Zib.* Zuzenbideak aintzat hartzen duen subjektu biren edo gehiagoren arteko erlazioa.

**harreman juridiko material** [*relación jurídico material*] ♦ *Zuz. Proz.* Garrantzi juridikoa duen interes-gatazka batean parte hartzen duten zuzenbideko bi subjektu edo gehiagoren arteko harremana. Prozesu zibilaren aurrekari zuzena da. Aldeetako batek gatazkari konponbidea emateko prozesura jotzea erabakitzen duenean, harreman hori juridiko-prozesala bihurtzen da.

**harreman juridiko prozesal** [*relación jurídico procesal*] ♦ *Zuz. Proz.* Organo jurisdikzionalaren aurrean eskubideak aldarrikatzean sortzen den harremana. Prozesu judiziala aktibatzean, bestelako erlazio batzuk sortzen dira, eta harreman juridiko prozesala alderdien eta organo jurisdikzionalaren artean sortzen da: subjektu pasiboak estatua da, eta subjektu aktiboak, aldeak dira, hurrenez hurren.

**harrera 1** [*acogimiento*] ♦ *Zuz. Zib.* Administrazioaren zaintzapean edo tutoretzapean da goen haurra babespean hartzea. Harrera Administrazioarekin akordioa sinatua duen egoitzan edo familian egin daiteke. Familia-harrera, hiru motatakoa izan daiteke: larrialdikoa, aldi baterakoa edo egonkorra. **Oh.** KZ, 1325. art. eta hurr.

**harrera 2** [*recepción*] ♦ *Admin. Zuz.* Sektore publikoko kontratuen arloan administrazioak egiten duen adostasun-adierazpen formal eta positiboa, zeinaren bidez adierazten baita kontratistak hitzartuta zegoen prestazioa osorik, eta administrazioak eskatutako moduan eskaini duela, betiere, kontratuan zehaztuta zeuden baldintzen arabera. **Oh.** 9/2017 Legea, 210. art.

**hartzaile** [*acreedora, acreedor*] ♦ *Zuz. Zib.* **Ik.** *hartzekodun*.

**hartzekodun** [*acreedora, acreedor*] ♦ *Zuz. Zib., Merkat. Zuz., Zuz. Err.* Kreditu eskubide baten titularra. Zerbait eskatzeko akzioa edo eskubidea duena, batez ere zor baten ordainketa edo obligazio baten betetzea. Hartzekodunak beste pertsona baten gain ahalmena du gauza baten ematea, zerbitzu baten prestazioa edo egitate baten ez egitea eskatzeko. Hartzekoduna subjektu aktiboa da, zeinak obligazioaren betetzea eska diezaiokeen bere zordunari; izae-ra pertsonala duen erlazio juridikoaren subjektu pasiboa. **Sin.** *hartzaile*.

**hartzekodun kide** [*codeudora, codeudor*] ♦ *Zuz. Zib., Merkat. Zuz., Zuz. Err.* Beste pertsona batekin edo batzuekin kreditu eskubide beraren titularra.

**hartzekodunaren berandutza** [*mora de la acreedora, del acreedor*] ♦ *Zuz. Zib.* Hartzekodunari egotz dakioken kausa baten ondorioz, prestazioa gauzatzeko atzerapena gertatzea. Adibidez, teilatuko obra egiteko kontratatu dugun pertsonari, arrazoirik gabe etxeko atea ez irekitzea, eta, horren ondorioz, obra atzeratzea. **Ik.** *berandutza*.

**hartzekodunen konkurtso** [*concurso de acreedoras, acreedores*] ♦ *Merkat. Zuz., Zuz. Zib., Zuz. Proz.* Prozedura judicial bat kaudimengabeziaren ondorioz pertsona fisiko edo juridiko bat bere betebeharrak bete ezinik geratzen denean martxan jartzen dena. Prozedura honen bidez, akzio indibidualaren ordezkari prozedura kolektibo bat bideratzen da, zordunaren egoera bere onera eramaten eta zorrak kitatzen lagunduko duena. **Oh.** KL, 2. art.

**hartzekodunen maula** [*fraude de acreedoras, acreedores*] ♦ *Zuz. Zib.* Bere hartzekodunen kaltean zordunak gauzaten duen egintza, haiek beren kredituak kobratzea ekiditeko asmoarekin. **Ik.** *hutsaltze-akzio*.

**hauste prozesalengatiko errekurtsio** [*recurso por infracción procesal*] ♦ *Zuz. Proz.* Izaera prozesaleko haustea edo Espainiako Konstituzioaren 24. artikuluko oinarriko eskubideen urraketa salatzeako probintzia-auzitegiak emandako behin betiko ebazpenen aurka jar daitekeen errekurtsio ezohiko eta debolutiboa. Haren helburua lege prozesalen aplikazio eta interpretazioaren berrikuspina da. **Oh.** PZL, 477-489. art.

**hautaezintasun** [*inelegibilidad*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Hautagaia izan ezin daitekeen pertsona baten egoera. **2.** Espainiako Konstituzioaren arabera, gastu publikoak baliakizun publikoen bidezko banatze bat egingo du eta haren programazioaz eta betetzeaz erantzungo dute eragite eta ekonomia-irizpideen arabera. **Oh.** EK, 31.2 art.

**hautaketa** [*elección*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Aukera batzuen artean egokiena aukeratzea. **2.** Pertsona bat batzorde, kontseilu edo organismo bateko kargudun izan dadin egindako izendapena, askotan bozketa bidez egiten dena. **Sin.** *izendapen*.

**haztapan** [*ponderación entre derechos*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Gatazka juridiko baten au-

rrean, inguruabar zehatzak kontuan hartuz jokoan dauden ondasun eta eskubideen balioespena. Haztapenaren helburua da babestutako eta mugatutako ondasunen arteko proportzionaltasunean oinarritutako irtenbidea ematea. **Ik.** *ponderazio*.

**haztatu** [*ponderar*] ♦ *Zuz. T. 1.* Gai baten aldeko eta kontrako alderdiak arretaz eta inpartzialtasunez aztertu. **2.** Gai bat inpartzialtasunez hartu edo aztertu.

**haztatze-judizio** [*juicio de ponderación*] ♦ *Zuz. T.* Konstituzioa interpretatzeko metodoa, Konstituzioaren maila bereko printzipioen artean gatazkak sortzen direnean erabiltzen dena.

**heinekotasun-printzipio** [*principio de proporcionalidad*] ♦ *EB. Zuz. Ik.* *proporcionaltasun-printzipio*.

**heredatu** [*heredar*] ♦ *Zuz. Zib. Ik.* *jarauntsi*.

**heres** [*heredero*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *jaraunsl*.

**heriotza-deklarazio** [*declaración de fallecimiento*] ♦ *Zuz. Zib.* Norbait hilda dagoela adierazten duen deklarazioa. Kasu hauetan, norbaiten berririk gabe denbora luzean egonez gero edo norbait arrisku-egoeran desagertzean, hilda dagoelako susmoa nagusitzen da. Egoera honetan, desagertuaren oinordekoek heriotza-deklarazioa eska dezakete, oinordetza ireki dadin. Deklarazioa bertan behera geratzen da desagertua agertzen denean edo hilda dagoela zehazten denean. Heriotza-deklarazioa Erregistro Zibilean inskribatzen da.

**heriotza zibil** [*muerte civil*] ♦ *Zuz. Zib.* Nortasun zibilaren amaiera mota, iraganean apaizgoak-eta erabilia hainbat delitu politikoren zigor gisa. Egun, ordea, ez da heriotza zibilik ezartzen, pertsonaren heriotza fisikoak dakar soilik nortasun zibilaren iraungipena.

**heriotza-zigor** [*pena de muerte*] ♦ *Zuz. T.* Delituaren erruduna exekutatu izan dadin xedatzen duen zehapena.

**herri-akusazio** [*acusación popular*] ♦ *Zuz. Proz. 1.* Delituak ofenditua ez den Espainiako herritarrek egin dezakeen delituzko egitatearen jazarpenaren eskaera. **2.** Delituak ofenditua izan gabe zigor-akzioa egikaritzen duen pertsona. **Oh.** EK, 125. art.

**herri-akzio 1** [*acción popular*] ♦ *Zuz. Proz.* Delituak ofenditua ez den edozein herritar espainiarrek delitu publiko baten jazarpena eskatzeko egikaritu dezakeen akzioa. Haren helburua da delitu publikoen aurrean legez-kotasunaren defentsan justiziaren ekina sustatzea eta interes publikoa babestea. **Oh.** EK, 125. art.

**herri-akzio 2** [*acción pública*] ♦ *Admin. Zuz. Ik.* *akzio publiko*.

**herri-batzar** [*concejo*] ♦ *Admin. Zuz. Ik.* *kontzeju*.

**herri-jabari** [*dominio público*] ♦ *Admin. Zuz. Ik.* *jabari publiko*.

**herri kolonial** [*pueblo colonial*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Autonomoa ez den lurralde batean bizi den jatorrizko populazioa. Herrien determinazio askearen printzipioa egikaritzeko eskubidea duen populazioa. **Sin.** *menerapen kolonial*.

**herri-ogasun** [*hacienda pública*] ♦ *Fin. Zuz.* Ogasunaz arduratzen den administrazio zatia. ♦ *Konst. Zuz.* Estatuari dagozkion ondasun eta errenten multzoa.

**herri-segurtasun** [*seguridad ciudadana, seguridad pública*] ♦ *Admin. Zuz.* Pertsonak eta euren ondasunak babestea, eta herritarren lasaitasuna bermatzea helburu duen jardueraren multzoa. **Oh.** 4/2015 Lege Organikoa, Hitzazua-rea. **Sin.** *segurtasun publiko*.

**herri-zor** [*deuda pública*] ♦ *Fin. Zuz.* Administrazioak bere gastu eta inbertsioei aurre egiteko eskatzen dituen maileguren multzoa. **Sin.** *zor publiko*.

**herritartasun** [*ciudadanía*] ♦ *Zuz. T.* Gizar-teko kide gisa dituen eskubide eta betebeharrak pertsonari ematen dioten estatus juridikoa. Eskubide zibil, politikoa eta sozialekin du zerikusia. **Sin.** *hiritartasun*.

**hertsakor** [*coactivo*] ♦ *Zuz. T.* Premiatzeko edo behartzeko indarra duena, edo bortxa erakutsi zein egiten duena.

**hertsakortasun** [*coactividad*] ♦ *Zuz. T.* Hertsakorraren nolakotasuna.

**hertsapen** [*coacción*] ♦ *Zuz. T.* Pertsona batek bere borondatearen kontrako zerbait egin edo esan dezan lortzeko erabiltzen den indar edo bortizkeria fisiko zein psikikoa.

**hertsatu** [*coaccionar*] ♦ *Zuz. T.* Norbait bere borondatearen kontra behartzea, bortizkeria fisiko, psikiko edo morala erabilita.

**heterobabes** [*heterotutela*] ♦ *Zuz. Proz., Zuz. T.* Alderdiak beren gatazka ebazteko beren gainetik dagoen hirugarren batengana jotzea. Jurisdikzioari eta arbitrajeareari dagokienez gertatzen da.

**heziketa profesional** [*formación profesional*] ♦ *Lan Zuz. Ik.* *lanbide-heziketa*.

**hezkuntza-eredu** [*modelo educativo*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Botere publikoek hezkuntza-sistema antolatzeke dituzten aukerak. Arlo honetan gatazka-iturri izan ohi dira irakaskuntza publiko eta pribatuaren arteko harremana, finantzazio bideak, ekitatea eta bikaintasunaren arteko oreka, ebaluazioa, estatu zentral eta autonomia-erkidegoen arteko eskumen-banaketa, erlijio-irakaskuntzaren lekua, eta abar. **Ik.** *hezkuntza-sistema*.

**hezkuntza-eskubide** [*derecho a la educación*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Pertsonaren nortasuna osotara garatzeko kalitatezko irakaskuntza jasotzeko ahala. Oinarrizko hezkuntza nahitaezkoa eta doako izango da, eta hori bermatzeko, botere publikoek zerbitzu publikoa bideratuko

dute ikastetxe publikoen nahiz pribatu kontzertatuen bidez. **Oh.** EK, 27. art. **Ik.** *derrigorrezko irakaskuntza*.

**hezkuntza-ordenamendu** [*ordenamiento educativo*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Ordenamendu orokorraren azpisisistema, hezkuntza-sistema osotasunean arautzen duten arauak eta berauek interpretatzeko printzipio eta irizpideek eratua. **Ik.** *hezkuntza-sistema*.

**hezkuntza-sistema** [*sistema educativo*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Hezkuntzaren zerbitzu publikoa bideratzeko botere publikoek antolatutako egitura, besteak beste, honako hauek barnebiltzen dituena: hezkuntzaren helburuak eta gidalerroak, hezkuntza-komunitatearen eskubideak eta betebeharrak, irakaskuntza-mailak, ikaskuntza-edukiak, eta ikastetxeen antolaketa, ikuskaritza eta finantzazioa. **Ik.** *hezkuntza-ordenamendu, hezkuntzaren printzipio informatzaile*.

**hezkuntzaren printzipio informatzaile** [*principio informador de la educación*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Hezkuntza-sistemaren eraketa eta interpretazioa bideratzen duten oinarrizko ideiak edo gidalerroak, hezkuntza-ordenamenduko oinarrizko legerian aurreikusten direnak. **Oh.** 2/2006 Lege Organikoa, 1. art. **Ik.** *hezkuntza-ordenamendu, hezkuntza-sistema*.

**hierarkia** [*jerarquía*] ♦ *Konst. Zuz. 1.* Pertsonen edo gauzen mailakako antolaketa, garrantzi gehienetik gutxienera eskala ordenatu batean kokatzen dituena. **2.** Antolakuntza hierarkiko baten buru diren pertsonen multzoa. ♦ *Admin. Zuz. 1.* Behe mailako organoak bere nagusi hierarkikoarekiko duen mendekotasuneko irizpidean oinarritzen den administrazio-organoen antolamenduko oinarrizko printzipioa. **Oh.** EK, 103.1 art. eta 39/2015 Legea, 3.1, 11.2, 12.2 eta 21. art. **2.** Ordenamendu juridikoa osatzen duten arau-xedapenen artean aplikatzen den printzipioa; horren bidez, beharagoko lerruna duen arau-xedapenak gainetik dituen arau-xedapenetan ezarritakoa errespetatu

tu beharko du. Printzipio hori zaintzen ez duten arau-xedapenak deuseztatuzat jotzen dira. **Oh.** 39/2015 Legea, 47.2 art. **Sin.** *arau-hierarkia*. **Ik.** *arau-xedapen, erabateko deuseztasun*.

**hilburuko testamentu** [*testamento hilburuko*] ♦ *Zuz. Zib.* Euskal Zuzenbide Zibilean arautua, notarioaren parte hartzerik gabe heriotza arriskuan dagoen kausatzaileak hiru lekukoren aurrean ahoz zein idatziz egin deza-keena. **Oh.** EZZZL, 23. art.

**hildakoen oroimenaren errespetu** [*respeto a la memoria de los difuntos*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Ordenamenduak babestutako ondasun juridikoa, oroimen kolektiboaren parte izateagatik hildakoen memoriak merezi duen adeitasuna erakusteko. Hori gorde gabe delitu dira, besteak beste, hilobiak bortxatzea; gorpuak edo hauen erraustak profanatzea; eta urna-funerarioak, panteoiak, lapidak edo nitxoak iraintzeko asmoz birrindu edo hondatzea. **Oh.** ZK, 526. art.

**hipoteka** [*hipoteca*] ♦ *Zuz. Err.* Greziako praktika juridikotik datorren institutu honetan, edukitza ez izateak hipoteka bat baino gehiago eraikitzeak aukera dakar, eta baita haien artean lehenetasun-hierarkia bat ezartzekoa ere (*prior in tempore potior in iure*). **Sin.** *hypoteca*. ♦ *Zuz. Zib.* Ondasun higiezinaren gainean ezartzen den berme eskubide erreala. Betebehar nagusi bat beteko dela bermatzeko sortua, eta, betebeharra betetzen ez denean, grabatzen duen ondasuna exekutatzeke ahalmena ematen duena, beti ere legegileak ezarritako prozedurari jarraituz. **Ik.** *berme erreal, betebehar, ez-betetze*.

**hiri-errentamendu** [*arrendamiento urbano*] ♦ *Zuz. Zib.* Kontratu bat, zeinaren bidez, kontratugile batek bere gain hartzen duen beste alderdiari hiri-ondasun higiezin baten gozatzea edo erabilera emateko obligazioa, epe zehatzetarako edo hitzarturako eta prezio jakin baten truke. Legeak bereizten ditu: «etxebizitza errentamendua», errentariak eraikin bizigarri bat

errentan hartzen duenean, eraikin horren lehen helburua etxebizitza iraunkorra izateko beharra asetzea dela. Eta «etxebizitza erabileraz besteko errentamendua», izaera honetakoak izanez udarako zein beste denboraldi baterako sinatzen diren hiri-finken errentamenduak, eta finka batean industria-, merkataritza-, eskulangintza-, lanbide-, aisia-, laguntza-, kultura- edo irakaskuntza-jarduera bat egiteko sinatzen direnak, sinatzaileak gorabehera.

**hiribildu** [*villa*] ♦ *Zuz. Zib.* Erdi Aroan errege-erreginek, merkataritza bultzatzeko hiri-gutun bidez eratutako hiria, gehienetan harresiz inguratua. Bizkaian aparteko garrantzia izan du mendeetan zehar hiri mota honek: elizateetan Bizkaiko Zuzenbidea aplikatu izan da eta hiribilduetan, ordea, Gaztelako Zuzenbidea. **Ik.** *elizate*.

**hiritartasun** [*ciudadanía*] *Zuz. T.* **Ik.** *hiritartasun*.

**hirugarren hipotekario** [*tercera hipotecaria, tercer hipotecario*] ♦ *Zuz. Zib.* Hipoteka Legeko 34. artikulua ezartzen dituen betekizunak betetzen dituen pertsona. Jabetza Erregistroan inskribatuta dagoen ondasun higiezin baten jabetza-eskubidea bereganatzen duena da, beti ere, fede onez eta ordainketa bidez, ondasun horren jabea ez den baina Jabetza Erregistroan ondasun horren jabe bezala agertzen denak eskualdatuta eskuratzen badu.

**hirugarrenen aurka baliatzeko ahalmen** [*oponibilidad*] ♦ *Merkat. Zuz.* Batek hirugarren baten aurrean duen eskubidea baliozkotzeko ahalmena. Merkataritzako egintza bat hirugarrenen aurka jar daiteke, baldin eta soilik egintza hori Merkataritzako Erregistroan inskribatuta badago. **Oh.** MK, 21. art.

**Hirugarrenen Erregistro** [*Registro de Terceros*] ♦ *Fin. Zuz.* Kreditu-erakunde baten kontura transferentzia bidez ordaintzeko aukera ematen duten datuak eta Euskal Autonomia

Erkidegoko Diruzaintza Nagusiaren hartzeko-dun eta zordunen zerrenda biltzen dituen erregistroa.

**hirugarregotza** [*tercería*] ♦ *Zuz. Zib.* Beteazpen-prozesu batean alderdi ez den hirugarren baten esku-hartzea. Bi arrazoi izan ditzake esku-hartze honek; lehena, prozesu horretan bahituriko ondasunaren jabetza hirugarrenak aldarrikatzea, eta bigarrena, bahituriko ondasunaren gainean lehentasunezko kreditu eskubide bat duela uste izatea hirugarrenak.

**historizismo** [*historicismo*] ♦ *Zuz. T.* Historiak giza errealitate osoa azaldu dezakeela aldarrikatzen duen doktrina.

**hitzarmen** [*acuerdo, convenio, tratado*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Akordio, itun edo kontratua, kontsentsu bidez sortua eta ondorio juridikoak dituen. **2.** Pertsona batzuen parte-hartze askearekin islatu den adostasuna, egoera, iritzi, eta abarren gainekoa. **Sin.** *itun, akordio.* ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Nazioarteko zuzenbideko zenbait subjektoren artean —estatu zein nazioarteko erakunde— idatziz egindako akordioa, nazioarteko zuzenbideak arautua, agerkari bakarrean edo lotuta dauden bi agerkari edo gehiagotan jasoa, edozein ere dela ematen zaion izendapena. **Oh.** EK, 94. eta 96. art. **Sin.** *itun.* **Ik.** *akordio, tratatu.*

**hitzarmen arbitral** [*acuerdo arbitral*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* **Ik.** *akordio arbitral.*

**hitzarmen kolektibo** [*convenio colectivo*] ♦ *Lan Zuz.* Langileen ordezkarien eta enpresaburuaren edo enpresaburuaren ordezkarien artean egindako akordioa, esparru jakin bateko lanbaldintzak arautzeko egiten dena. **Oh.** EK, 37.1 art.

**(hitzarmena aplikatzeko) denbora-eremu** [*ámbito de aplicación temporal*] ♦ *Lan Zuz.* Hitzarmen kolektiboaren iraupena. **Oh.** LE, 86. art.

**(hitzarmena aplikatzeko) lurralde-eremu** [*ámbito de aplicación territorial*] ♦ *Lan Zuz.* Hitzarmen kolektiboaren aplikazio-esparrua, betiere, lurralde-eremuaren arabera.

**hitzemate** [*promesa*] ♦ *Zig. Zuz.* Zenbait delitutan zigorra astuntzen duen inguruabar subjektiboa. **Oh.** ZK, 139. eta 419. art.

**hitzez hitzeko interpretazio** [*interpretación literal*] ♦ *Zuz. Zib.* Arauak, berau osatzen duten hitzen berezko esanguraren arabera ulertzea. *In claris non fit interpretatio* printzipioan oinarritzen da, alegia, argi dagoenak ez du interpretazio beharrik. **Oh.** KZ, 3.1 art. **Ik.** *interpretazio.*

**hitzeko epaiketa** [*juicio verbal*] ♦ *Zuz. Proz.* Legeak zehazki aurreikusitako materietan edo, hala ez denean, sei mila euro arteko uziak izapidetzeko adierazpenezko prozesu zibila. Haren egokitasuna zenbatekoaren arabera zehazten denean, adierazpenezko prozesu arrunta eta plenarioa da; materiaren arabera egiten denean, berriz, adierazpenezko prozesu berezia da, eta zenbaitetan, legearekin bat, baita sumarioa ere. **Oh.** PZL, 248. eta 250. art. **Sin.** *hitzezko judizio.*

**hitzeko judizio** [*juicio verbal*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *hitzezko epaiketa.*

**hobari** [*bonificación*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga-oinarriari aplikatzen zaion murriztapena.

**hobekuntza** [*mejora*] ♦ *Zuz. Zib.* Espainiako ordenamenduan jaraunsleak duen ahalmena, jaraunspenaren hereneko mugarekin, nahitaez ondorengoan artean bati edo batzuei ondasun gehiago lagatzeko. Horretarako erabiltzen ez duena, senipartedun guztien artean banatuko da, parte berdinetan. **Oh.** KZ, 823. art. **Ik.** *jaraunspen, seniparte.*

**hobekuntza-obra** [*obra de mejora*] ♦ *Zuz. Zib.* Ondasun baten gain, normalean higiezin baten gain, egiten diren erreforma lanak, bere



balio edo erabilera igoarazten dutenak. Hobe-kuntza-obra, nahitaezko obretatik bereizten dira, eraikuntzaren segurtasun edo erabilerarako ezinbestekoak diren ala ez kontuan izanik.

**hobendun** [*culpable*] ♦ *Konst. Zuz. Ik. errudun.*

**homologazio** [*homologación*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Estatuko ordenamenduaren eremuan emandako epaiak, beste estatu baten eremuan efektuak izan ditzan gainditu beharreko prozedura judiciala. **Oh.** KZ, 80. art. **Ik.** *ajuste, efektu zibilen aitortpen.*

**homologazio bidezko aintzatespen** [*reconocimiento por homologación*] ♦ *Nart. Zuz. Pr.* Atzerritar ebazpenei aintzatespena egiteko prozedura.

**hondamen** [*ruina*] ♦ *Zuz. Zib.* Eraikin batek dituen akats fisikoengatik aldarrikatzen den egoera.

**horizontaltasunaurre** [*prehorizontalidad*] ♦ *Zuz. Zib.* **1.** Eraikitzen ari den edo eraikitze dagoen higiezinen egoera, baldin eta etorkizunean jabe desberdinen pisu eta lokaletan banatzeko asmoa badago. **2.** Jabego horizontaleko eraentza sortu aurreko egoeran dagoen eraikina.

**hornidura-kontratu** [*contrato de suministro*] ♦ *Merkat. Zuz.* Kontratu mota bat, zeinaren bidez, hornitzaileak konpromisoa hartzen baitu denboran kontratuaren objektu diren ondasunen entrega egiteko, prezio baten truke. ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio-kontratuen modalitate bat da, hain zuzen ere, erabiltzen dena produktuak zein ondasun higigarriak eskuratzeko eta alokatzeko (erosteko aukera izan zein ez) edo finantza-errentamendurako; baita informazio-prozesamendurako ekipamenduak errentan hartzeko ere, besteak beste. **Oh.** 9/2017 Legea, 16. art.

**humanitas** [*humanitas*] ♦ *Zuz. Err. Ik. humanitas.*

**hurbiltasun-printzipio** [*principio de proximidad*] ♦ *EB. Zuz.* EBren funtzionamendua gidatzen duen printzipioa, zeinaren arabera, bere erakundeen jarduerak eta erabakitze-prozesuak ahalik eta modurik irekienean eta hiritarrendik ahal bezain hurbilen egin behar baitira. **Oh.** EBT, 1. art. **Sin.** *hurbiltasunaren printzipio.* **Ik.** *gardentasun-printzipio.*

**hurbiltasunaren printzipio** [*principio de proximidad*] ♦ *EB. Zuz. Ik. hurbiltasun-printzipio.*

**hurrekotasun-printzipio** [*principio de inmediación*] ♦ *Zuz. Proz.* Printzipio honen arabera, epaileek, auzitegi bateko magistratuek eta Justizia Administrazioaren letraduek, berezkoak dituzten eginkizunak betez, aurrean egon behar dute frogak egiten direnean edo kontraesanean eta publikoki gauzatu behar den beste edozein eginbidetan. **Sin.** *hurrentasun-printzipio.*

**hurrentasun-printzipio** [*principio de inmediatez*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. hurrekotasun-printzipio.*

**hutsaltze** [*rescisión*] ♦ *Zuz. Zib., Nart. Zuz. Pr., Merkat. Zuz., Zuz. Err., Lan Zuz.* Era baliodunean egindako kontratuaren eraginkortasun eza, alderdi batentzat edo hirugarren batentzat legeak bidegabetzat jotzen duen kalte bat gertatzeagatik. Legeak ezartzen ditu kontratu bat hutsaltzeko kausak, bereiztuz zehazki «kalteagatik hutsaltzea» eta «maulagatik hutsaltzea». KZ, 1291-1293. art.

**hutsaltze-akzio** [*acción rescisoria*] ♦ *Zuz. Zib., Zuz. Proz.* Honako kasu hauetan kontratuen hutsaltzea ahalbideratzen duen akzioa: adingabeentzat edo absenteentzat kaltea sortu dutenean; hartzekodunen maulan egin direnean; gauza auzigaien gainean hitzartu direnean, alderdi auzilarietako edo agintaritzako eskudunak onetsi gabe, eta Legeak esanbidez aurreikusitako bestelako kasuetan. **Oh.** KZ, 1291-1293. art. **Ik.** *hutsaltze, pauliar akzio.*

**hypoteca** [*hipoteca*] ♦ *Zuz. Err. Ik. hipoteka*



**idazkari judicial** [*secretaria, secretario judicial*] ♦ *Zuz. Proz.* Organo jurisdikzionalen, honako eginkizun hauek bete behar dituen funtzionario publikoa: epaitegiko langileen zuzendaritza —alderdi tekniko prozesalean—, fede publiko judicialaren jarduna, autoak eta espedienteak egitea eta prozesua bultzatzea, oro har. 7/2015 Lege Organikoaz geroztik Justizia Administrazioaren letradu deitzen dira. **Ik.** *Justizia Administrazioaren letradu.*

**idazketa-printzipio** [*principio de escritura*] ♦ *Zuz. Proz.* Printzipio honen arabera, epai-leak edo auzitegiak idatzizko eginbideen bitartez jakiten du aldean nahien eta eskabideen berri. Ahozkotasan-printzipioari kontrajartzen zaio.

**idealismo** [*idealismo*] ♦ *Zuz. T.* Mundua eta bizia armonia-eredu gisa edota perfekzio ideal bezala ikusteko joera, berez, errealtatearekin bat ez datorrena.

**ideario** [*ideario*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Pertsona, mugimendu zein erakundeen adierazgarri diren ideien edo sinesteen multzoa, haien jardura bideratzen dutenak. Esaterako, erlijio-konfessio, talde politiko, ideologiko edo filosofikoek izan ohi dute ideario bat, baita hainbat ikastetxe edo komunikabide pribatuk ere.

**identifikazio fiskaleko zenbaki** [*número de identificación fiscal*] ♦ *Fin. Zuz.* Pertsona fisikoei, ondasun-erkidegoei, elkarteei, enpresei eta, oro har, erakunde publiko zein pribatuei —beren forma juridikoa zein jardura gorabehera, eta irabazi xederik duten ala ez axola ez diola— zergak direla-eta Foru Ogasunarekin dituzten harremanak egiaztatzeko izendatzen zaien identifikazioa.

**identitate-eredu** [*modelo de identidad*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Botere politiko eta erlijiosoaren arteko identifikazioan oinarritzen den estatu-eredua. Eredu demokratiko eta neutraletatik urrun, estatu-eredu honetan eremu politikoa eta erlijioso bataratuta egon ohi dira, eta, sarritan, pertsona bera da buru bi arloetan. **Ik.** *erlijio-konfessioen arteko harreman eredu.*

**identitate kultural** [*identidad cultural*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* **Ik.** *kultura-identitate.*

**identitate-zeinu** [*signo de identidad*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Norberaren sineste edo uste sendoen adierazgarri diren ikurrak edo ezaugarriak, esaterako jantziak, burukoak edo intsigniak.

**identitatearen babes-klausula** [*cláusula de salvaguarda de la identidad*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Talde baten sineste edo uste sendoen erres-

petua bermatzeko xedapenak. Esaterako, erlijio-konfesioei erabateko autonomia aitortzen die legeak, beren barne-araudian jaso ditzaten erlijio-identitatea babesteko arauak, alde batera utzi gabe Konstituzioak aitorturiko eskubideak eta askatasunak, hala nola, diskriminaziorik gabeko berdintasuna. **Oh.** 7/1980 Lege Organikoa, Erlijio-askatasunari buruzkoa, 6. art.

**ideologia-askatasun** [*libertad ideológica*] ♦ **Kontz. Ask. Zuz.** Gizarteari nahiz komunitate politikoari buruzko ideiak eta uste sendoak izateko eskubidea, betiere, legez babestutako ordena publikoaren arabera. Pertsonen nahiz komunitateen aitortzen zaie, eta haien barne-eremua gainditu eta kanpoan ere proiektatzen da, esaterako, askatasunez adierazi, elkartu, manifestatu edo irakasteko eskubideen bidez. **Oh.** EK, 16.1 art.

**igorle** [*remitente*] ♦ **Zub. Zib.** Zerbait bidaltzen duena.

**igurikimen** [*expectativa*] ♦ **Zuz. Zib.** Zerbait egin edo lortzeko itxaropena. Eman denagatik ordaina jasotzeko zentzuzko aukera edo probabilitatea.

**ihes fiskal** [*evasión fiscal*] ♦ **Fin. Zuz.** Legea urratuz zergak ez ordaintzea. Legearen aurkako egintza denez, ondorio juridikoak ditu. **Sin.** *zerga-ihes*.

**ikastetxe pribatu kontzertatu** [*centro privado concertado*] ♦ **Kontz. Ask. Zuz.** Titulartasun pribatuko ikastetxea, Konstituzioak aurreikusita, botere publikoen laguntza ekonomikoa jasotzen duena, betiere, legearen betebeharrak gordeta. Ikastetxe publikoekin batera, hezkuntzaren zerbitzu publikoa eskaintzen dute. **Oh.** 2/2006 Lege Organikoa, 108. art.

**ikastetxe publiko** [*escuela pública*] ♦ **Kontz. Ask. Zuz.** Herritarren hezkuntza-eskubidea bermatzeko agindu konstituzionala betetzearren, botere publikoek sortutako titulartasun publikoko ikastetxeak.

**ikerketa-eginbide** [*diligencia de investigación*] ♦ **Zuz. Proz.** Ahozko epaiketa prestatzeko helburuz, instrukzioan zehar Ministerio Fiskalak eta alderdiek eskatuta edo epaileak ofizioz burututako jarduna; helburua da delituzko egitate egiaztatzea eta ikertzea, eta kalifikazioan eragina izan dezaketen inguruabar guztiak eta delitugileen erruduntasuna argitzea. **Oh.** PKL, 299. art. **Sin.** *ikerketa-egintza*.

**ikerketa-egintza** [*acto de investigación*] ♦ **Zuz. Proz. Ik.** *ikerketa-eginbide*.

**ikerketa ofizialaren printzipio** [*principio de investigación oficial*] ♦ **Zuz. Proz.** Prozesuaren zuzendaritza materiala epaileari esleitzea dakarren printzipioa. Haren arabera, jurisdikzio-organoak egitateak eta frogak bilatu eta prozesura eraman behar ditu, baina, akusazio-printzipioaren ondorioz, alderdien alegazio, eskaera eta proposamenak baztertu gabe. Printzipio honen ondorioz, instrukzioan, jurisdikzio-organoak ofizioz ikertzen du, egitateak argitzeko eta ahozko epaiketa prestatzeko beharrezko eginbideak burutuz; ahozko epaiketan, aldiz, ekimena akusatzaileei dagokie, haiek baitira fase honen hasiera eskatzen, akusazioa egiten eta frogak aurkezten dituztenak; hala ere, jurisdikzio-organoak ofizioz burutu ditzake alderdiek proposatu ez dituzten frogae-eginbideak, baldin eta kalifikazio-idazkien objektua izan diren egitateak egiaztatze beharrezkotzat jotzen baditu. **Oh.** PKL, 299. eta 729.2 art.

**ikerketa pribatu** [*investigación privada*] ♦ **Admin. Zuz.** 5/2014 Legearen arabera, detektibe pribatuek emaniko zerbitzua. **Oh.** 5/2014 Legea, 2.11 eta 48.1 art.

**ikerketako behin-behineko batzorde** [*comisión temporal de investigación*] ♦ **EB. Zuz.** Europako Parlamentua osatzen duten kideen laurden baten eskariz aldi baterako sortutako batzordea, EBko zuzenbidearen aplikazioan egon diren urraketa edo administrazio okerre-

ko kasuak aztertzea helburu duena. **Oh.** EBFT, 226. art.

**ikertu** [*investigada, investigado*] ♦ *Zuz. Proz.* Inputazio formala ez dagoen bitartean delituzko egitatearekin duen harremana dela-eta ikerketaren menpe dagoen pertsona.

**ikuskapen** [*inspección*] ♦ *Admin. Zuz.* Produktu, instalazio, prozesu eta zerbitzuen kontrolerako administrazio-jarduera, helburu duena egiaztatea ea horiek guztiak betetzen dituzten aplikagarri zaizkien nahitaezko zein borondatezko baldintzak.

**ikuskapen-jarduera** [*actividad de inspección*] ♦ *Admin. Zuz. Ik.* ikuskatze-jarduera.

**ikuskeri** [*inspectora, inspector*] ♦ *Lan Zuz. Ik.* ikuskatzaile.

**ikuskaritza** [*auditoría*] ♦ *Merkat. Zuz.* Dokumentu kontableen (eta horien euskarri diren beste dokumentu batzuen) berrikuste- eta egiaztatze-lana. Ikuskaritzak hirugarren pertsonen aurrean eragina duen txostena igortzea du helburu. Txosten hori oinarri hartzen da enpresaren informazio ekonomiko finantzarioaren fidagarritasunari buruzko irizpenak egiteko. **Oh.** KAL, 1.2 art. **Ik.** auditoria.

**ikuskatzaile** [*inspectora, inspector*] ♦ *Lan Zuz.* Lanaren eta Gizarte Segurantzaren zuzenbidearen aplikazioa ikuskatzen duen funtzionario publikoa. **Sin.** ikuskari.

**ikuskatze-jarduera** [*actividad de inspección*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio publikoek subjektu pribatuen kontrolerako eta, hala bada, gokie, zerbitzu propioen zein beste administrazioen zerbitzuen kontrolerako egikaritzen duten administrazio-jarduera, helburu duena egiaztatzea ondo betetzen ote duten aplikagarri zaizkien araudia, eta, arau-hausterik egiaztatuz gero, kasu bakoitzean aurreikusten den prozedura abiatzea ekarriko duena (zehapen-prozedura, esate baterako). Ikuskapen-jar-

dueran behatutakoak ikuskapen-akta deritzon dokumentuan jasoko dira. Akta horrek frogabalioa izango du ondorio guztietarako, alegia, ustezko arau-haustearen errugabetasun-presuntzioa hausteko erabil liteke. Hori horrela, aktan jasotakoaren kontrako frogarik egon ezean, zehapen-prozedura zabaldu ahal izango da ikuskapen-prozedurara burututakoan. **Sin.** ikuskapen-jarduera.

**ikustaldi** [*vista*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. bista.*

**ildo ideologiko** [*línea ideológica*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Joera. Enpresen jarduera definitzen duten printzipio ideologiko edo erlijiosoak. Esaterako, erlijio-konfesio, talde politiko, ideologiko edo filosofikoek izan ohi dute ildo ideologiko bat, baita hainbat ikastetxek eta komunikabide pribatuk ere. **Ik.** ideario, printzipio editorial.

**immatrikulazio** [*inmatriculación*] ♦ *Zuz. Zib.* Jabetza Erregistroan finka bat lehen aldiz sartzeko egin behar den eragiketa, beharrezkoa den kalifikazio erregistrala gainditu ondoren egiten dena. **Ik.** finka erregistral, kalifikazio erregistral.

**immigrazio** [*inmigración*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Jatorrizko lurraldea utzi, eta beste herrialde batean modu iragankor zein iraunkorrean finkatzea dakarren mugimendu migratzailea.

**immisio** [*inmisión*] ♦ *Zuz. Zib.* Beste baten onibarrean sartzea (lurrak ekarrita edo ez), horretarako eskubiderik izan gabe.

**immunitate** [*inmunidad*] ♦ *Kontz. Zuz., Zuz. T.* Ofizioa edo kargua dela eta, zenbait arau, zigor edota, adibidez, zergatatik salbuetsita daudenen dohaina. ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Zigor-arauen aplikazioaren salbuespen pertsonala, nazioarteko zuzenbide publikoaren arau batetik ondorioztatzen dena.

**immunitate absolutu** [*inmunidad absoluta*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Printzipio feudal batean

oinarrituta —«ez dago ineriorik berdinen artean»—, estatu guztiak subiranoak eta berdinak izatearen ondorioz, immunitatea estatua- ren kanpo adierazpen guztietara zabaltzen duen irizpidea. Irizpide hau nagusi izan zen Lehen Mundu Gerrara arte; geroztik, immunitate erlatiboaren irizpidea joan da gailentzen.

**immunitate diplomatiko** [*inmidad diplomática*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Estatutu diplomatikoaren parte egiten duen pribilegioa, pertsonen onurarako eman baino estatuen ordezkariak dituzten funtzio diplomatikoak modu eraginkorrean bete ahal izan ditzaten bermatzeko ematen dena. Agente diplomatikoen jurisdikzio-immunitatea eta misio diplomatikoen bortxaezintasuna hartzen ditu barne. **Oh.** HDVH, 22. art. ♦ *Konst. Zuz.* Atzerriko diplomazialariari eta haien senitartekoei, bai eta batzuetan enbaxadetako langileei aplikatzen zaaien pribilegioa; harrera-lurraldearen jurisdikziotik at daudela esan nahi du. *Sin. lurraldez kanpokotasun.*

**immunitate erlatibo** [*inmidad relativa*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Estatuen inmunitatea aintzates- teko orduan bi egoera kontuan izatea dakarren irizpidea: estatua estatu moduan ari den kasua (*ius imperis*) eta estatua partikular moduan ari den kasua (*ius gestionis*). Lehen Mundu Gerraz geroztik, estatuek bakarrik lehenengo kasuan aintzatesten dute immunitatea.

**immunitate kontsular** [*inmidad consular*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Estatutu kontsularren parte den pribilegioa, pertsonen onurarako eman baino, estatuen ordezkariak dituzten funtzio kontsularrak modu eraginkorrean bete ahal izan ditzaten bermatzeko ematen dena. Funtzionario kontsularren jurisdikzio-immunitatea eta misio kontsularren bortxaezintasuna hartzen ditu barne. **Oh.** HKVH, 43. eta 45. art.

**inbentario** [*inventario*] ♦ *Admin. Zuz.* Admin- istrazioaren ondarea kudeatzen laguntzeko tresna, ondasunen zein eskubideen gaineko

xehetasun hauek zehaztasunez jasoko dituen: ondare-elementuaren identifikaziorako datuak; zein helburutarako erabiltzen den; zein lege- egoeratan dagoen; eta, eskualdatzekotan, zer muga ezarri zaizkion, arrazoia edozein delarik ere.

**inbentario-onura** [*beneficio de inventario*] ♦ *Zuz. Zib.* Jaraunsleak kausatzailearen zorreki- ko duen erantzukizun mugagabea mugatzeko tresna. Gehienetan formalki eta esanbidez es- katu behar du jaraunsleak onura hau. Eskatuz gero, bere ondare propioak ez du erantzungo kausatzailearen hartzekodunen aurrean. Ja- raunspenaren ondasunek erantzungo dute soi- lik zor haietat.

**inbertsio kolektiboko instituzio** [*institución de inversión colectiva*] ♦ *Merkat. Zuz.* Par- taide askoren funtsak, ondasunak edo eskubi- deak biltzen dituen eta aktibo jakin batzuetan, finantzarioetan edo ez-finantzarioetan, inberti- tzen dituen erakundea, betiere inbertsiogilearen etekina emaitza kolektiboen arabera ezartzen bada. Inbertsio-sozietatearen edo inbertsio- funtsaren itxura izango du. **Oh.** IKEL, 1. art.

**indagatoria** [*indagatoria*] ♦ *Zuz. Proz.* Proze- dura arruntean prozesatzeko autoa eman ostean instrukzio-epailearen aurrean auzipetuari har- tzen zaion lehengo adierazpena. **Ik.** *prozesat- zeko auto.*

**indar gaindiezinagatiko kaleratze** [*despido por fuerza mayor*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresak jasan- dako indar gaindiezinean oinarrituriko kalera- tzea. **Oh.** LE, 51.7 art.

**indar jarkiezin** [*fuerza irresistible*] ♦ *Zig. Zuz.* Ekintzarik eza sortzen duen erabateko in- dar fisiko kontrolaezin eta nahi gabekoa.

**indargabetu** [*abolir, derogar*] ♦ *Zuz. T.* Inda- rrean dagoen araua edo legea efekturik gabe utzi.

**indargabetze** [*derogación*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *de- rogazio.*

**indarkeria** [*violencia*] ♦ *Zig. Zuz.* Zenbait delitu burutzeko beharrezkoa den indar fisikoa (*vis física*).

**indarraldi** [*vigencia*] ♦ *Zuz. T.* Idatzitako arauaren edo administrazio-aginduaren edukia aplikagarri eta bete beharrekoa den denboraldia.

**independentzia** [*independencia*] ♦ *Konst. Zuz.*  
**1.** Beste batekiko mendekotasun edo dependentzia eza. **2.** Estatuaren kasuan, gaitasunaren egikaritzan eskusibotasuna, autonomia eta osotasuna. **Sin.** *burujabetasun, subiranotasun.* ♦ *Nart. Zuz. Pu.* **1.** Estatu batetik banandu nahi duen lurralde baten xede politikoa. **Oh.** BN 1514 (XV); BN 1541 (XV); BN 2625 (XXV). **2.** Estatuaren arteko harremanetan subiranotasunaren esanahia; Lurraren zati batean estatuaren funtzioak egikaritzeko eskubide eskusiboa. **Oh.** Palmas Uhartearen kasuaren erabaki arbitrala (1928).

**independentzia judizialaren printzipio** [*principio de independencia judicial*] ♦ *Zuz. Proz.* Printzipio honen arabera epaile eta magistratuek, beren tutoretza-eginkizuna eta Zuzenbide objektiboa betetzean, erabateko burujabetza dute, legea eta zuzenbidea ez den beste ezeren mende eta azpian egon gabe. Horrek esan nahi du epaile eta justizia-areto bakoitzak, erabakia hartzeko garaian, ez duela jaso behar ez partikularren, ez organo publikoen ez bestelako organo jurisdikzionalen agindurik, eta ez dagoela haien esanen mende. Legeak horrela jarduten du, epaileen burujabetza bermatzeko, baina baita epaileen aurrean duen gizartearen bermea ziurtatzeko ere.

**indibidualismo** [*individualismo*] ♦ *Zuz. T.* Nor bere borondatearen arabera aritzeko joera, bere taldeko diren gaineko banakoen iritzia kontuan hartu gabe eta pertsona horiekiko harremanak erregulatzen dituzten portaerazko arauak bete gabe.

**indibidualtasun** [*individualidad*] ♦ *Zuz. T.* Gainerakoengandik singulariki bereizten duen banakoaren nortasunaren ezaugarri partikularra.

**indibiduo** [*individuo*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *Gizabana*.

**indukzio** [*inducción*] ♦ *Zuz. T.* Legeak edo konklusio orokorrak gertakari edo egitate partikularren behaketatik ondorioztatzen dituen arrazoibidea.

**indultu** [*indulto*] ♦ *Zig. Zuz.* Estatuak zigorra oso-osorik edo zati batean barkatzea.

**informazio-eskubide** [*derecho a la información*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Edozein hedabideren bitartez egiazko informazioa komunikatu eta jasotzeko eskubidea. **Oh.** EK 20.1 d art.

**informazio publiko** [*información pública*] ♦ *Admin. Zuz.* Prozedurari amaiera ematen dion ebazpena onartu aurretik, alegazioak aurkezteko eta aldatetak proposatzeko edonoren parte-hartzea bideratzen duen administrazio-prozeduraren izapidea, bereziki arauak, planak edo hirigintzako tresnak onartzeko erabiltzen dena. **Oh.** 39/2015 Legea, 86. art. **Sin.** *jendaurrean jartze.*

**inguruabar aldarazle** [*circunstancia modificativa*] ♦ *Zig. Zuz.* Delitugilearen erantzukizun penala aldatzen duen inguruabarra; besteak beste, aringarriak, astungarriak edo inguruabar mistoa.

**inguruabar aringarri** [*circunstancia atenuante*] ♦ *Zig. Zuz. Ik.* *aringarri.*

**inguruabar astungarri** [*circunstancia agravante*] ♦ *Zig. Zuz. Ik.* *astungarri.*

**inguruabar misto** [*circunstancia mixta*] ♦ *Zig. Zuz.* Subjektu aktiboaren eta subjektu pasiboaren artean dagoen ahaidetasunezko harremana, delituaeren izaeraren arabera, erantzukizun penala astundu edo arindu egiten duena. **Oh.** ZK, 23. art.

**inguruabar salbuesle** [*circunstancia eximente*] ♦ *Zig. Zuz.* Zigor-erantzukizuna oso-osorik edo zati batean salbuesteko bete beharreko inguruabarra. Lehenengo kasuan, salbuesle osoa deritzo; eta bigarren kasuan, salbuesle ez-oso (osatugabea). Azkeneko kasu horiek inguruabar aringarri bat sortzen dute. **Oh.** ZK, 20. eta 21.1 art. **Ik.** *salbuesle*.

**inhibitoria** [*inhibitoria*] ♦ *Zuz. Proz.* Zigor-prozesuan eskumen-arazoak sustatzeko Ministerio Fiskalaren eta alderdien esku dagoen baliabidea; eskuduntzat jotzen den jurisdikzio-organoaren aurrean aurkezten da, ordura arte auzia ezagutu duen organoari inhibizioa edo ezagutzeari uzteko eska diezaion. **Oh.** PKL, 26. art.

**in iure cessio** [*in iure cessio*] ♦ *Zuz. Err.* Pretorearen aurrean egiten den eskualdatze-egintza, prozesu itxura duena (*is imaginaria*). Egintza honetan pertsona batek lagatzailearen papera hartzen du eta beste batek auzi-jartzailearena, eta, hain zuzen ere, gauza mantzipagarrien zein gauza mantzipaezinen jabe kiritarioaren eta eskuratzailearen arteko prozesua irudikatzen da. Auzi-jartzaileak (eskuratzaileak) dena delako gauza heldu, eta berea dela dio. Demandatuak (gauzaren jabeak) amore ematen du. Ondorioz, pretoreak auzijartzaileari ematen dio gauza.

**iniuria** [*iniuria*] ♦ *Zuz. Err.* Pertsona batek beste pertsona bati kalte fisikoak (kolpeak, zauriak) zein moralak (irainak, ohorearen aurkako erasoak...) eraginez egindako delitu pribatua. Hasieran, eraso fisikoak baino ez zituen barne hartzen deliu honek baina, geroago, irainak eta norbaiten, ospeari, ohoreari edo izen onari eragindako laidoak ere hartu zituen barne. Zenbaitetan delitu publikotzat ere jo izan zen (*inuria atrox*) eta tribunal publikoek ezagutu (*quaesitiones perpetuae*).

**injustizia** [*injusticia*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *bidegabekeria*.

**inkisizio-sistema** [*sistema inquisitivo*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *sistema inkisitibo*.

**inklusio** [*inclusión*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Gizarte-bazterketarako arriskuan dauden pertsona edo taldeen integrazioaren aldeko jarrerak, jarduerak eta politikak.

**inkulpatu** [*inculpada, inculpado*] ♦ *Zuz. Proz.* Zigor-ikerketaren subjektu pasiboa. **Ik.** *auzipetu 1, ikertu*.

**inpartzialtasun** [*imparcialidad*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Aurreiritzi eza. Erabaki bat hartzerakoan pertsona edo gauza baten inguruko aldeko edo kontrako joera eza. **Ik.** *neutraltasun*.

**inprebisio-klausula** [*cláusula de imprevisión*] ♦ *EB. Zuz.* Beharrezkoa izan arren, EBk arautze-eskumenik edo eskumen nahikorik ez duenean oinarri juridiko gisa jarduten duen xedapena. Honen xedea eskumenen esleipen-printzipioaren zurruntasuna gainditzea da. **Oh.** EBFT, 352. art. **Sin.** *aurreikuspen gabezia klausula*.

**inputatu 1** [*imputada, imputado*] ♦ *Zuz. Proz.* Modu oinarratuan delituzko egitatea leporatzen zaion pertsona. Gaur egun, *inputatu* hitzaren ordez, *auzipetua* eta *ikertua* terminoak erabiltzen dira, jurisdikzio-organoak modu formalean delituzko egitatea leporatu dion ala ez kontuan hartuta. **Sin.** *egotzi 1, inkulpatu*. **Ik.** *ikertu, auzipetu 1*.

**inputatu 2** [*imputar*] ♦ *Zuz. Proz.* Pertsona zehatz bati delituzko egitatearen erantzukizuna leporatu, eta horren ondorioz defentsa-eskubidea sorrarazi. **Sin.** *egotzi 2*. **Ik.** *ikertu, auzipetu 2*.

**inputazio** [*imputación*] ♦ *Zuz. Proz.* Pertsona fisiko nahiz juridikoari egitate zigorgarri batean parte hartzea leporatzen dion ebazpen edo ondorio prozesala. **Sin.** *egozketa, egozte*.

**inputazio formal** [*imputación formal*] ♦ *Zuz. Proz.* Jurisdikzio-organoaren ebazpena pertso-

na zehatz bati delitua leporatzeko, baldin haren aurka ikerketa-eginbideen emaitzaren ondorioz kriminaltasunaren zentzuzko zantzurik sortu bada. **Ik.** *auzipetu 1, auzipetu 2, inputazio, prozesatze.*

**inskripzio** [*inscripción*] ♦ *Zuz. Zib.* Eskubide baten titulartasuna nahiz pertsonari dagokion egoera, erregistroan adieraztea. Jabetza Erregistroan, inskripzioa idazpen mota bat da, zeinaren bitartez ondasun higiezin baten gaineko eskubidearen sortzeari, eratzeari eta eskualdatzeari publizitatea ematen zaion. Erregistro Zibilean, ordea, pertsonaren egoera zibilarekin erlacionatuak dauden egitateak eta egintzak adierazten dituen idazpen mota. **Ik.** *Erregistro Zibil, Jabetza Erregistro.*

**inskripzio nagusi** [*inscripción principal*] ♦ *Zuz. Zib.* Behin betiko idazpena, publizitatea eta babesa eskaintzeko balio duena fede oneko hirugarrenen aurrean. Zehaztasunaren presuntzioa duen finkaren historian agertzen den idazpena, segidako traktuari jarraituz.

**instituzio** [*institución*] ♦ *Zuz. T. 1.* Estatu-ko, nazioko edo gizarteko funtsezko erakundeetako bakoitza. **2.** Lan kultural, zientifiko, politiko edo sozial zehaztuan aritzeko sortu den organismo publiko edo pribatua. ♦ *Konst. Zuz. Ik. erakunde.*

**instituzio publiko** [*institución pública*] ♦ *Konst. Zuz. Ik. erakunde publiko.*

**instituzionalizazio** [*institucionalización*] ♦ *Zuz. T. 1.* Erakundeen sorrera-prozesuarekin zerikusia duen termino polisemikoa. **2.** Zerbait legezatzeko ekintza.

**instruitu** [*instruir*] ♦ *Zuz. Proz.* Zigor arloan ahozko epaiketa prestatzeko prozedura bideratu. Instrukzio-epailearen jardura da, burutu den delitua nahiz haren inguruabarrak eta haren egilea argitzea eta beraren erantzukizunak bermatzea helburu duena.

**instrukzio** [*instrucción*] ♦ *Admin. Zuz. 1.* Ebazpena eman beharra eragin duten egitateak zehaztu, ezagutu eta egiaztatu ahal izateko beharrezkoa den jardura. **Oh.** 39/2015 Legea, 75. art. eta hurr. **2.** Administrazio-prozeduraren hasieraren eta amaieraren artean egikaritzen den administrazio-jardura, interesdunen kontraesan- eta berdintasun-printzipioak zainduz garatu behar dena. **Oh.** 39/2015 Legea, 75. art. eta hurr. ♦ *Konst. Zuz.* Agindu mota bat, edo portaera bat zehazteko informazioa ematen duena. ♦ *Zuz. Proz.* Zigor prozesuan ahozko epaiketa prestatzeko aurretik gauzatzen den fasea. Haren bidez, eta instrukzio-epailearen zuzendaritzapean, egitate zigorgarria eta egilea argitzen dira eta kautela neurriak hartzen. Delitu arinengatiko prozeduretan salbu, zigor-prozedura guztietan araututa dagoen fasea. ♦ *Zuz. Zib.* Lege baten betekizunerako edota prestatetarako araua.

**instrukzio-egile** [*instructora, instructor*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio-prozedura bat bideratzen duen organoa.

**instrukzio-epaile** [*jueza, juez de instrucción*] ♦ *Zuz. Proz.* Instrukzio-epaitegiko titularra, atariko prozedura edo instrukzio-fasearen ardura duena.

**instrukzio-epaitegi** [*juzgado de instrucción*] ♦ *Zuz. Proz.* Kide bakarreko organo judiziala, egoitza barruti judizialeko hiriburuan duena. Berari dagokio, besteak beste, delitu arinak epaitzea eta probintzia-auzitegiak nahiz zigor-arloko epaitegiak epaitu beharreko delituen instrukzioa gauzatzea. Auzitegi Nazionalaren eremuan Instrukzio Epaitegi Zentrala deitzen zaio.

**integrazio** [*integración*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Aurretik izatea duen estatu bati erantsiz autodeterminazio-eskubidea egikartzeko modua.

**intelektualismo** [*intelectualismo*] ♦ *Zuz. T. 1.* Ezaguera-prozesuan eginkizun nagusia



adimenari esleitzen dion korrante filosofikoa. **2.** Fenomeno intelektualei fenomeno txeratsuen edo borondatezkoen aurrean lehentasuna emateko joera.

**interdiktu** [*interdicto*] ♦ *Zuz. Zib.* Edukitza urratzen denetik eta gehienez urtebetera edukitza babesteko edo berreskuratzeko egikaritu behar den akzioa.

**interes-gatazka** [*conflicto de intereses*] ♦ *Zuz. Zib.* Kargu baten egikaritzan (guraso, tutore moduan, enpresa bateko administrari gisa...) subjektu batek bizi dezakeen talka bere ardurak babestu beharreko interesen eta bere interes pertsonalen artekoa. Azken hauek baldintzatu dezakete bere karguaren egikaritza egokia. **Oh.** KZ, 162. art., 1459. art. ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio-organo bateko titularrak edozein eskumen erabakitzaile egikaritzeko orduan izan beharreko objektibotasuna zalantzan jar daitekeenean sortzen den egoera. Egoera hau sor daiteke, nagusiki, administrazio-organo titullarraren interes pribatuak nahasten direnean prozeduran edo prozesuan interesa duen norbaitekin familia-harremana duenean berak, baina baita ere bestela.

**interes sozial** [*interés social*] ♦ *Merkat. Zuz.* Kapital-sozietateetako, bazkideen baterako interesa, bazkideen zein administratzaile sozialen interes partikularren gainetik dagoena. Horrenbestez, bazkideek zein administratzaile sozialek uneoro egin behar dute horren alde. **Oh.** KSL, 227.1 art.

**interesdun** [*persona interesada*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio-prozedura sustatu duenez gain, eskubide edo interes zilegi baten tituluduna den pertsona juridiko zein fisikoa. Prozedura sustatu ez arren, interesduntzat joko da edozein pertsona fisiko edo juridiko, baldin eta prozesu horren ebazpenak haren interes zilegiak uki baditzake. Halakoetan, ebazpena eman aurretik aurkeztu behar da prozesuan. **Oh.** 39/2015 Legea, 4. art.

**interpelazio** [*interpelación*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Parlamentarietiek gobernuari egiten dioten azalpen-eskaera, politikari buruz edo kontu konkretu bati buruzkoa. **2.** Parlamentarietiek gobernu kideei galderak egiteko aukera ematen duen prozedura, parlamentuaren kontrolerako tresna. ♦ *Zuz. Zib.* Hartzekodunak zordunari bere beharra bete dezan egiten dion deia; hortik aurrera berandutzearen efektuak sortzen dituen. **Ik.** *berandutza, berandutze-interes.*

**interpretatu** [*interpretar*] ♦ *Zuz. T. 1.* Zer-baiti esanahi zehatza atxiki edo erantsi. **2.** Zer-baiten esanahia argitu edo azaldu, bereziki argia ez dagoen testua. Legeak, adibidez.

**interpretazio** [*interpretación*] ♦ *Zuz. T. 1.* Ordenamendu juridikoaren arauen aplikazio-eremua eta esanahia ezartzea helburu duen jarduera. **2.** Interpretatzeko akzioa. ♦ *Zuz. Zib.* Arauak hitzak direnez, kasu zehatz batean aplikatu ahal izateko, bere esanahia ulertzera bideraturiko ekintza. Legea interpretatzean, epaileak (edo beste eragileek) ez du askatasun osoz jokatzeko, Kodeak ezartzen dituen interpretazio-metodoak eta mugak izan behar ditu kontuan. **Oh.** KZ, 3. art. eta KZ, 1281-1289. art.

**interpretazio arau** [*norma de interpretación*] ♦ *Zuz. Zib.* Arauetako hitzen esanahai konkretua zein den erabakitze orduan, eragile juridikoek (epaileek, legegileek, notarioek...) kontuan izan behar duten erregela. **Oh.** KZ, 3. art. eta KZ, 1281-1289. art.

**interpretazio egokituaren printzipio** [*principio de interpretación conforme*] ♦ *EB. Zuz.* EBJAren doktrina, bereziki epaile eta auzitegi nazionalen zuzenduta dagoena. Horren arabera, zuzenbide nazionala aplikatzen dutenean behar turik daude berau EBko arauen testuaren eta xedearren argitan interpretatzera. **Oh.** EBJAren epaia, C-14/1983, Von Colson eta Kamann.

**interpretazio historiko** [*interpretación histórica*] ♦ *Zuz. Zib.* Araua sortu zeneko egoera

historikoa eta araua egiteko prozeduran erabiltako materialak kontuan hartzen dituen interpretazioa. **Oh.** KZ, 3. art.

**interpretazio sistematiko** [*interpretación sistemática*] ♦ *Zuz. Zib.* Arauaren esanahia, zentzua, ulertzeko, arau horren inguruko beste arauak aztertzea eta kontuan izatea. Askotan, ilun dagoen hitz baten esanahia testuinguruak berak argitzen digu. **Oh.** KZ, 3.1 art. **Ik.** *interpretazio*.

**interpretazio soziologiko** [*interpretación sociológica*] ♦ *Zuz. Zib.* Arauaren zentzua zein den ulertzeko, araua aplikatu behar den garaiko gizarte-errealitateari men egitea. Interpretazio-arau honek legeen esanahia eguneratzeko balio izan du. **Oh.** KZ, 3.1 art. **Ik.** *interpretazio*.

**interpretazio teleologiko** [*interpretación teleológica*] ♦ *Zuz. Zib.* Legearen espiritua eta helburuak argitzea bilatzen duen interpretazioa. **Oh.** KZ, 3. art. eta hurr.

**interpretazio zuzentzaile** [*interpretación correctora*] ♦ *Zuz. Zib.* Hitzez hitzeko esanguratik harantzago joanez, esanahia arauaren benetako xedera egokitzea. Interpretazio soziologikoa, esate baterako, zuzentzailea izan ohi da. **Oh.** KZ, 3.1 art. **Ik.** *interpretazioa, interpretazio soziologiko*.

**intersubjektibismo** [*intersubjetivismo*] ♦ *Zuz. T.* Ezaguera objektiboa ez ezik, ezaguera subjektiboa edo subjektuek duten ezaguera ere baliagarria dela aldarrikatzen duen ikuspegia.

**intimitate-eskubide** [*derecho a la intimidad*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Norberaren zein familiaren eremu pribatua hirugarrenen aurrean babestea helburu duen eskubidea. **Oh.** KAE 231/1988 eta 51/1997.

**intolerantzia** [*intolerancia*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Tolerantzia eza. Errespetu falta, hirugarrenen uste sendoen, pentsamenduen, sinesmenen, iritzien eta abarren aurrean.

**intzidente bidezko aintzatespen** [*reconocimiento incidental*] ♦ *Nart. Zuz. Pr.* Estatuko autoritateen aurrean atzerritar ebazpenak bertan aintzatesia izateko baldintzak betetzen ote dituen eskatzean datzan aintzatespen-prozedura, homologazio-prozeduraz bestelakoa.

**irabazpidezko erkidego** [*comunidad ganancial*] ♦ *Zuz. Zib.* Ezkontza-eraentza ekonomikoa, zeinaren bitartez ezkontide bakoitzaren irabaziak eta onurak komunak egiten diren. Eraentza likidatzean, erkidegoa osatzen duten ondasunak ezkontideen artean banatuko dira, erdibana. **Ik.** *banatze-eraentza, ezkontza-kapitulazio, ezkontzaren ondasun-eraentza, foru-komunikazio, partaidetza-eraentza*.

**irakaskuntza-askatasun** [*libertad de enseñanza*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Ezagutza eta balore multzo zehatz baten transmisioa helburu duten jarduera sistematikoak aurrera eramateko askatasuna. Eskubide honetan oinarritzen dira, besteak beste, ikastetxe pribatuak sortzeko askatasuna, katedra-askatasuna, eta seme-alaben heziketa erlijioso eta morala aukeratzeko gurasoen eskubidea. **Oh.** Hezkuntza Eskubidearen 8/1985 Lege Organikoa-ren hitzaurrea. **Sin.** *irakasteko askatasun*. **Ik.** *irakaskuntza konfesional, katedra-askatasun*.

**irakaskuntza konfesional** [*enseñanza confesional*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Sinesmen erlijioso zehatz baten printzipioetan, dogman eta moralean oinarritutako irakaskuntza. **Ik.** *irakaskuntza-askatasun*.

**irakasteko askatasun** [*libertad de enseñanza*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* **Ik.** *irakaskuntza-askatasun*

**iraungitze-epe** [*plazo de extinción*] ♦ *Zuz. Zib.* Akzio edo eskubidea noiz iraungitzen den adierazten duen epea. Epe hori gainditzeak berarekin dakar akzioa edo eskubidea bertan-behera geratzea. **Ik.** *epe, epemuga, funtsezko epemuga, kaduzitate, preskripzio*.

**iritzi publiko libre** [*opinión pública libre*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Interes publikoa duten gaien inguruan, adierazpen eta informazio askatasunek bermatzen duten aniztasun politikoarekin lotutako oinarritzko erakundea. **Oh.** KAE 82/1982.

**irizpen** [*dictamen*] ♦ *EB. Zuz.* **1.** EBko erakundeek hartzen duten egintza juridiko ez-loteslea. Eskuarki, egoerei edo jokabideei buruzko iritzi edo balorazioa adierazten du. **Oh.** EBFT, 288. art. **2.** EBJAren erabakia, tratatu baten eta jatorrizko zuzenbidearen arteko bateragarritasunari buruzkoa, tratatuko betebeharrak bere gain hartzeko adostasuna adierazi baino lehen ematen dena. Aurkako irizpenak tratatua egitea galarazten du. **Oh.** EBFT, 218.11 art. **Sin.** *diktamen*.

**irizpen arrazoitu** [*dictamen motivado*] ♦ *EB. Zuz.* Europako Batzordeak estatu kideren batek EBko zuzenbidea urratzen duela uste duenean ematen duen iritzi arrazoitua. Irizpen honekin ez-betetzeagatiko prozeduraren fase administratiboari amaiera ematen zaio, eta dagokion estatu kideari epe zehatz bat ematen zaio bere obligazioak bete ditzan. Behin epea igarota, estatu kideak Batzordearen eskaerak ez badi-tu ase, fase jurisdikzionala abian jar daiteke. **Oh.** EBFT, 258. art. **Ik.** *ez-betetzeagatiko prozedura*.

**irizpidekototasun tekniko** [*discrecionalidad técnica*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** *diskrezionalitate tekniko*.

**irmotasun** [*firmeza*] ♦ *Zuz. Proz., Zuz. Zib.* Errekurtsorik onartzen ez duen ebazpen jurisdikzionalaren izaera.

**irudi leialaren printzipio** [*principio de imagen fiel*] ♦ *Merkat. Zuz.* Urteko kontuek sozietatearen emaitzen, egoera finantzarioaren eta ondarearen irudi fidagarri edo zintzoa eskaini behar dutela xedatzen duen printzipioa. **Oh.** MK, 34.2 art.

**iruzur** [*fraude*] ♦ *Zig. Zuz.* Ondarearen aurka-ko delitua: irabaziak lortzeko asmoz beste bati okerra eragiteko engainu nahiko erabiltzea. Xedatze-ekintzak gauzatzera induzituz burutzen da. **Oh.** ZK, 248. art. eta hurr.

**iruzur fiskal** [*fraude fiscal*] ♦ *Fin. Zuz.* Zergapekoak burutako operazio erreala, nolabaiteko amarrubidea adierazten duena. Haren helburua da, bilatzen diren azken efektuak lortzeko, ohikotasunean erabiliko ez liratekeen negozio eta arauen aplikazioa. Eta hori guztia, zergazorra txikitzeko asmoz. **Sin.** *zerga-iruzur*.

**iruzurrezko egintza** [*acto fraudulento*] ♦ *Zuz. Zib.* Zordunak, fede txarrez, hartzekodunaren eskubidea kaltetzeko aurrera daraman egintza juridikoa. **Sin.** *maulazko egintza*. **Ik.** *fede txar*.

**isilbidezko** [*tácita, tácito*] ♦ *Zuz. Zib.* Igarri edo ondorioztatu beharrekoa, formalki ulertu, sumatu, entzun edo esan ezin izanagatik. Isilbidezko adostasuna, beraz, egintza ezetik ondorioztatzen den adostasuna da.

**isilbidezko aintzatespen** [*reconocimiento implícito*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Autoritate edo boterea egikaritzen duen estatu edo gobernu berri bati egiten zaion behin-behineko errekonozimendua, espresua ez dena eta efektu mugatua duena. Praktikan, eraginkortasun-printzipioaren aplikazioaren ondorioz *de iure* errekonozimendu gisa kontsolidatzen da.

**isilbidezko hobekuntza** [*mejora tácita*] ♦ *Zuz. Zib.* Testamentuzko xedapenetatik edo jaraunslearen ekintzetatik, jaraunsleak hobekuntzaren herena ondorengo bati utzi diola ondorioztatzea. **Oh.** KZ, 823. art. **Ik.** *hobekuntza*.

**isilbidezko lege-hipoteka** [*hipoteca legal tácita*] ♦ *Fin. Zuz.* **Ik.** *legezko hipoteka tazitu*.

**isiltasun** [*silencio*] ♦ *Admin. Zuz.* Herritarren eskariz hasitako prozeduran nahiz administrazioak bere kabuz hasi eta eskubideak aitortzea edo aldeko egoera juridikoa sortzea ekar de-

zakeen prozeduran gerta daitekeen egoera, eskaera edo uzia baietsizat edo ezetsizat jotzeko zilegitasuna ematen duena, baldin eta administrazioak ez badu gaia ebazten eta ez badu ebazpenaren berri jakinarazten hartarako ezarrita dagoen epe-mugaren aurretik. **Oh.** 39/2015 Legea, 21., 24. eta 25. art.

**isun** [*multa*] ♦ *Zig. Zuz.* Kondenatuari ezartzen zaion diru-zehapena. **Oh.** ZK, 50. art. eta hurr.

**iter criminis** [*iter criminis*] ♦ *Zig. Zuz.* Barnefasetik agorpenera arte delitua gauzatzeko jarraitu behar den ibilbidea.

**itsas langile** [*trabajadora, trabajador del mar*] ♦ *Lan Zuz.* Itsasoan lan egiten duen langilea.

**itsas zabalaren askatasun** [*libertad de la alta mar*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Zenbait salbuespen eta baldintzapean aplikatzen den erabilera-askatasunen multzoa. Horien artean hauek leudeke, besteak beste: nabigazio askatasuna, gainetik hegan egiteko askatasuna eta arrantza nahiz ikerketa zientifikoak egiteko askatasuna. **Oh.** IZNBK, 86-90. art.

**itsaslapurreta** [*piratería*] ♦ *Zig. Zuz.* Itsasoan eginiko lapurreta, estatu burujabe baten baime-na izan gabe. **Oh.** ZK, 616 ter art.

**itsasoko araubide berezi** [*régimen especial del mar*] ♦ *Lan Zuz.* Itsasoan lan egiten duten langileek Gizarte Segurantzaren duten araubide berezia.

**itsualdi** [*obcecación*] ♦ *Zig. Zuz.* Egilearen ezagutza-gaitasuna eta beraren portaeraren plangintza nabarmenki aztoratzen duen egoera pasionala jasotzen duen inguruabar aringarria, zoroaldia baino iraunkorragoa. **Oh.** ZK, 21.3 art. **Ik.** *zoroaldi*.

**itun** [*pacto*] ♦ *Zuz. Err.* Kontratuakideen zein demandatzailearen eta demandatuaren artean akziorik sortzen ez duen bake-hitzarmena. Horren bidez, kontratuaren klausulak edo auziaren

gorabeherak alda daitezke, klausulak bigundu edota ezadostasunak bideratu. **Sin.** *pactum*. ♦ *Konst. Zuz. Ik.* *hitzarmen*. ♦ *Nart. Zuz. Pu. Ik.* *hitzarmen*.

**itun komisorio** [*pacto comisorio*] ♦ *Zuz. Zib.* Zordunaren eta hipoteka- edo bahi-hartzekodunaren arteko akordioa, zeinaren bidez adosten duten hartzekoduna bermea bere gain duen gauzarekin geratuko dela, zordunak betebeharra betetzen ez badu.

**itun parasozial** [*pacto parasocial*] ♦ *Merkat. Zuz.* Kapital-sozietateetako, bazkideen artean isilean gordetzen diren itunak, sozietatearen aurka baliatu ezin direnak. **Oh.** KSL, 29. art.

**itundu gabeko tributu** [*tributo no concertado*] ♦ *Fin. Zuz.* Ekonomia Itunaren barruan ez dagoen estatuaren tributua; estatuaren eskumen eskusiboa da. Euskal Autonomia Erkidegoak egozpen-indizearen arabera parte hartuko du sarrera edo tributu horietan.

**itundutako tributu** [*tributo concertado*] ♦ *Fin. Zuz.* Ekonomia Itunaren mendeko tributua; halako tributuek Lurralde Historikoen tributu-sistema osatzen dute.

**itxura** [*simulación*] ♦ *Zuz. Zib.* Egiatzkoa ez den adierazpen bat egitea kontratu batean eta, horren ondorioz, iruzurra sorraraztea. Itxura bi motatakoa izan daiteke: erabatekoa (egin nahi ez den negozio juridiko baten existentzia aditzera ematea) edo erlatiboa (egin nahi den negozio juridikoa ez den beste negozio juridiko baten existentzia aditzera ematea).

**itxura-egite** [*simulación*] ♦ *Fin. Zuz. Ik.* *itxurakeria*.

**itxura juridikoaren printzipio** [*principio de apariencia jurídica*] ♦ *Merkat. Zuz.* Inskribatutako informazioa eta inskribatzaileak bere portaerarekin aditzera ematen duen informazioa bat ez datozenean aplikatzen den printzipioa. Horrelakoetan, hirugarren batek, ins-

kribatzaileak, bere portaeraren bidez aditzera emandako informazioan izan duen konfiantza babestuko du, eta ez zaio aurka jarriko erregistroak jasotzen duena. **Oh.** MEE, 9. art.

**itxurakeria** [*simulación*] ♦ *Fin. Zuz.* Hone-tan datzan engainua: operazio jakin batean aitortpenean agerian ikus daitekeena eta burutzen ari den benetako operazioa (aitortugabea eta ororentzat ikusezina) bat ez etortzea. Helburua operazio horren bidez zor den zerga txikitzea izaten da. **Sin.** *itxura-egite, simulazio.*

**itxurazko kontratu** [*contrato simulado*] ♦ *Zuz. Zib.* Alderdien arteko akordio bidez eta hirugarrenei iruzur egiteko xedearekin formalki eraturiko kontratua, aldean berezko nahia kontratua ez eratzea denean. **Oh.** KZ, 628., 755. eta 1276. art. **Ik.** *itxura.*

**itzulketa** [*devolución*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Espainian sartzeko debekua urratu edo bertan ilegalki sartzera helburu duten atzerritarrak estatuko lurraldetik inolako espedienterik gabe kanporatzea.

**itzurpenaren aurkako klausula** [*cláusula antielusión*] ♦ *Fin. Zuz. Ik.* *elusioaren aurkako klausula.*

**index** [*jueza, juez*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *epaile.*

**iuris consultus** [*jurisprudente*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *jurisprudente.*

**iuris peritus** [*jurisprudente*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *jurisprudente.*

**iuris prudens** [*jurisprudente*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *jurisprudente.*

**iuris prudentia** [*jurisprudencia*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *jurisprudenzia.*

**iuris tantum presuntzio** [*presunción iuris tantum*] ♦ *Zuz. Zib.* Kontrako frogara onartzen duen presuntzioa. **Ik.** *presuntzio.*

**ius** [*ius*] ♦ *Zuz. Err.* Zuzenbide objektiboaren arloan, zintzotasunaren eta ekitatearen teknika

da. Zuzenbide subjektiboaren arloan, pertsona batek zerbait eman, egin edo ez egiteko duen eskubidea da (*dare, facere, praestare*).

**ius civile** [*derecho civil*] ♦ *Zuz. Err.* Legeek (*leges*), pretorearen ediktuek (*edicta praetoris*) eta nagusien ohiturek (*mores maiorum*) osatzen duten hiriarren zuzenbide propioa edo herri bakoitzak berezko duen zuzenbide pribatiboa.

**ius cogens** [*norma imperativa*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Beharrezko zuzenbidea. Arau aginduzkoa. **Ik.** *aginduzko arau.*

**ius gentium** [*derecho de gentes*] ♦ *Zuz. Err.* Arrazoi naturalak ezartzen duen zuzenbidea.

**ius honorarium** [*derecho honorario*] ♦ *Zuz. Err.* Erromako pretoreek bereziki, baina baita gainerako magistratuek ere, beren *iurisdictio* ahalmena dela bide ediktuaren (*edictum*) bidez sortutako zuzenbidea. **Sin.** *ius praetorium.*

**ius naturale** [*derecho natural*] ♦ *Zuz. Err.* Gizaki eta animalia guztiei *Natura*-k erakutsitako dien zuzenbidea.

**ius praetorium** [*derecho pretoriano*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *ius honorarium.*

**ius puniendi** [*ius puniendi*] ♦ *Zig. Zuz.* Ondasun juridikoak lesionatu edo arriskuan jartzen direnean, zigorrak ezartzeko estatuak duen boterea.

**ius vitate necisque** [*derecho de vida y muerte*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *bizi- eta heriotza-eskubide.*

**iusnaturalismo** [*iusnaturalismo, naturalismo jurídico*] ♦ *Zuz. T.* Giza naturan dauden arau eta balioen multzoa, zuzenbide positiboaren aurrekoak izanik, berez eta bakarrik ere baliozkoak eta ezinbestean bete beharrekoak direla aldarrikatzen duen ikuspegia.

**iuspositibismo** [*iuspositivismo, positivismo jurídico*] ♦ *Zuz. T.* Existitzen den zuzenbide bakarra gizakiok ezarri edo sortu duguna dela

aldarrikatzen duen ikuspegia. **Ik.** *positibismo juridiko*.

**iusrealismo** [*iusrealismo, realismo jurídico*] ♦ *Zuz. T.* Zuzenbide bakarra epaileek aplikatzen dituzten arauak osatzen dutela aldarrikatzen duen ikuspegia.

**istae nuptiae** [*justas nupcias*] ♦ *Zuz. Err.* **Ik.** *ezkontza legitimo, matrimonium iustum*.

**iusitia** [*justicia*] ♦ *Zuz. Err.* *Ius*-arekin bat datorren nori berea emateko betiko eta etengabeko borondatea.

**izaki** [*ser*] ♦ *Zuz. T.* **1.** Gauza zein pertsona jakin baten bereizgarri diren ezaugarrien multzoa. **2.** Edozein entitate, bizidun zein bizigabe, material zein immaterial, benetako zein alegiazko.

**izaneko judizio** [*juicio de hecho*] ♦ *Zuz. T.* Gertaera bat balioespenik gehitu gabe deskribatzera mugatzen den judizioa **Sin.** *egitate-judizio*.

**izapide** [*trámite*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Administrazio-prozeduran ezinbestean egikaritzen den Administrazio Publiko jardulearen, partikular interesatuaren edo beste edonoren jardueretako bakoitza. **2.** Administrazio-prozedurari hasiera eta amaiera ematen dieten egintzak izan ezik, prozeduran zehar egikaritzen diren administrazio-egintza guztiak. **Oh.** 39/2015 Legea, 75. art. **Sin.** *izapide-egintza*. **Ik.** *administrazio-prozedura, instrukzio, instrukzio-egile*.

**izapide-egintza** [*trámite*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** *izapide*.

**izapidetu** [*tramitar*] ♦ *Zuz. Zib.* Legeak zehazturiko urrats, formalitate edo betekizunen arabera egintza juridiko bat bidean jarri. **Ik.** *egintza, egintza juridiko*.

**izatezko bikote** [*pareja de hecho*] ♦ *Zuz. Zib.* Ezkontzako lotura juridikorik ez duten bi pertsonaren arteko bizikidetzalotura egonkorra.

Bikote-lotura hau arautua egon daiteke ala ez. Zenbait autonomia-erkidegotan edo espainiar Estatu osoan indarra duten legeak ezartzen dituzten efektuen arabera osatzen da izatezko bikoteen estatutu juridikoa. Horretarako beharrezkoa izango da lege horietan ezartzen diren bikote-betekizunak betetzea. **Sin.** *bikote egonkor*.

**izendapen** [*elección*] ♦ *Konst. Zuz.* **Ik.** *hautaketa*.

# J

**jabari-hirugarrengotza** [*tercería de dominio*] ♦ *Zuz. Zib.* Betearazpen-prozesuan alderdi ez den hirugarren batek bertako ondasun bahiketari aurka eginez izapidetzen duen auzi-eskea, ondasun horren jabetza eskubidea izateagatik edota beste edozein eskubide izanda ere legeak horretarako ahalmena berariaz aitortzeagatik.

**jabari publiko** [*dominio público*] ♦ *Admin. Zuz.*, Zerbitzu edo erabilera publikora zuzenduta dauden eta trafiko juridikotik kanpo geratzen diren administrazio publikoaren ondare eta eskubide besterenezin, preskribaezin eta bahiezinen kategoria. **Oh.** EK, 132. art. **Sin. herri-jabari.** ♦ *Zuz. Zib.* Erabilera publikora zuzendutako ondasunen gaineko jabetza-eskubidea. Ondasunak jabari publikoko izango dira ondoko kasuetan: erabilera publikora zuzendutako ondasunak direnean (besteak beste, Estatuak eraikitako bide, kanal, ibai, uhar, portu eta zubiak; ur-bazterrak, hondartzak, itsasarteak eta horien antzekoak) eta erabilera publikora zuzendutako ondasunak izan ez arren, jabari publikoko izango dira halaber, Estuariari modu pribatiboan dagozkion ondasunak baldin eta zerbitzu publiko edo estatuko aberastasuna hobetu edo sustatzera zuzentzen badira (hala nola, harresiak, gotorlekuak eta lurraldearen defentsarako bestelako obrak, mehatzeak).

**jabe** [*propietaria, propietario*] ♦ *Zuz. Zib.* Jabetza eskubideduna. **Ik.** *jabekidetz*a, *jabetz*a, *jabetz*a pribatu.

**jabe soil** [*nuda propietaria, nudo propietario*] ♦ *Zuz. Zib.* Gauza baten jabetza duen pertsona. Gauza horren gozamen eta erabilera eskubidea, aldiz, beste pertsona baten esku dago. **Oh.** KZ, 467. art. **Ik.** *jabetz*a.

**jabego** [*dominio*] ♦ *Zuz. Zib.* **Ik.** *jabetz*a.

**jabekide** [*copropietaria, copropietario*] ♦ *Zuz. Zib.* Ondasun baten jabetza beste pertsona batzuekin eta aldi berean partekatzen duen subjektua. **Ik.** *jabekidetz*a, *jabetz*a.

**jabekidetz**a [*copropiedad*] ♦ *Zuz. Zib.* Ondasun baten jabetza, hau da, gozamen eta xedapen eskubideak, subjektu bati baino gehiagori aldi berean egokitzen zaizkienean gertatzen den egoera juridikoa. Egoera honetan, bakoitzari jabetza horren kuota bat esleitzen zaio. Adibidez, etxebizitza baten jabetza hiru subjektuk izatea, bi %20ren jabe izanik eta hirugarren bat, %60arena. **Ik.** *jabetz*a.

**jabetz**a [*propiedad*] ♦ *Zuz. Err.* Historian zehar berebiziko arrakasta izango duen *proprius* hitzetik datorren kontzeptua (norbaitena eta ez beste inorena). Jabetza-titulua bidez

adierazten da. Usufuktuan *dominus ususfructus* (usufuktudun) eta *dominus proprietatis* (jabe) artean bereizteko erabiltzen ziren hitzetatik omen dator. **Sin.** *proprietatis*. ♦ *Zuz. Zib.* Gauza baten gaineko gozamen eta xedapen eskubide osoa, legeak ezartzen dituen mugen barruan. Jabetza publikoa edo pribatua izan daiteke. **Sin.** *jabego*. **Ik.** *jabe, jabekidetz, jabetza horizontal, jabetza intelektual, jabetza pribatu*.

**Jabetza Erregistro** [*Registro de la Propiedad*] ♦ *Zuz. Zib.* Ondasun higiezinaren gaineko jabetzari eta gainerako eskubide errealei buruzko egintzen nahiz kontratuen inskripzioa edota idatzoharra jasotzen duen erregistro publikoa.

**jabetza-erreserba** [*reserva de dominio*] ♦ *Zuz. Zib.* Jabetza eskualdatzeko balio duen negozio juridiko batean, jatorrizko jabeak bere titulartasuna mantetzea, zordunak, beste alderdiak (jabetza eskuratuko duenak) bere obligazioa bete arte.

**jabetza horizontal** [*propiedad horizontal*] ♦ *Zuz. Zib.* Eraikinaren gaineko jabekidetz mota bat, zeinak pisu edo lokalen probetxu indibidualerako aukera ematen duen. **Ik.** *jabetza, jabetza intelektual*.

**jabetza industrial** [*propiedad industrial*] ♦ *Merkat. Zuz.* Hainbat ondasun ez-materialei buruzko eskubide multzoa, industrian aplikagarriak diren asmakizunak eta merkatuan parte hartzen duten eragile ekonomikoen jarduera identifikatzen duten zeinu bereizgarriak babesten dituen. Ondasun ez-material horiek patenteak, eredu erabilgarriak, diseinu industriala, markak eta izen komertzialak dira, besteak beste.

**jabetza intelektual** [*propiedad intelectual*] ♦ *Zuz. Zib.* Autoreek eta beste sortzaile batzuek beren obra edo prestazioen gain duten eskubide multzoa. **Ik.** *jabetza, jabetza horizontal*.

**jabetza pribatu** [*propiedad privada*] ♦ *Zuz. Zib.* Jabari publikokoa ez den gauza baten gaineko gozamen eta xedapen eskubide osoa, legeak ezartzen dituen mugen barruan. **Ik.** *jabetza, jabe*.

**jaiegun** [*día inhábil*] ♦ *Admin. Zuz. Ik. egun baliogabe*.

**jaiotza-inskripzio** [*inscripción de nacimiento*] ♦ *Zuz. Zib.* Erregistro Zibilean egiten den idazpena, umea noiz (zein egunetan eta orduetan) eta non jaio den adierazten duena. Eta bere sexua eta seme-alabatasuna zein den ezagutzera ematen duena.

**jakinarazpen** [*notificación*] ♦ *Admin. Zuz.* Pertsona fisiko zein juridikoen interes edo eskubideei eragiten dien erabaki administratiboaren berri emateko egintza. **Oh.** 39/2015 Legea, 40.2 art. ♦ *Zuz. Zib., Zuz. Proz.* Legeak kasuan kasu galdaturiko formak kontuan izanik, zentzuzko informazio edo erabaki, horretan interesa duen pertsonari ezagutaraztera bideratutako ekintza.

**jaraungabetu** [*desheredar*] ♦ *Zuz. Zib.* Kausatzaileak, espresuki, derrigorrezko oinordekoa legez dagokion seniparterik gabe utzi. **Ik.** *jaraungabetze*.

**jaraungabetze** [*desheredación*] ♦ *Zuz. Zib.* Kausatzaileak derrigorrezko oinordekoa legez dagokion seniparterik gabe uztea, espresuki hala adieraziz. Legeak ezartzen du zein diren jaraungabetzeko arraiak eta testamentugileak, nahi izanez gero, testamentu bidez egin dezake jaraungabetzea. Kontuan hartzekoa da errekonziliazioa ere posible dela. Kasu honetan, baliorik gabe geratzen da testamentuan egindako jaraungabetzea. **Sin.** *desjaraunpen*. **Ik.** *jaraungabetze kausa, seniparte, senipartedun*.

**jaraungabetze-arrazoi** [*causa de desheredación*] ♦ *Zuz. Zib. Ik. jaraungabetze-kausa*



**jaraunsgabetze-kausa** [*causa de desheredación*] ♦ *Zuz. Zib.* Kausatzaileak derrigorrezko oinordeko bat jaraunsgabetu ahal izateko legeak aurreikusten duen eta derrigorrez bete behar den betekizuna, oinordekoaren jarrera errefusagarri batean oinarritutakoa. **Sin.** *jaraunsgabetze-arrazoi.*

**jaraunse** [*heredera, heredero*] ♦ *Zuz. Err.* Haren bidez izendatutakoa hildakoaren lekuan jartzen zen (*in loco defuncti*). Jaraunserik gabe ez zegoen testamenturik (*heredis institutio est caput et fundamentum totius testamenti*). **Sin.** *heres.* ♦ *Zuz. Zib.* Kausatzailea titulu unibertsalez oinordetzen duen pertsona, jaraunspenaren osotasuna edota jaraunspenaren proportzio bat jasoz. Jaraunse izateko, jaraunspenera deitutako pertsonak edo, ezin badu, bere legezko ordezkariak, onartu egin behar du kausatzailearen jaraunspena, esanbidez edo isilbidez. **Ik.** *oinordeko.*

**jaraunse-erkidego** [*comunidad hereditaria*] ♦ *Zuz. Zib.* Jaraunspena osatzen duten ondasun, eskubide eta zor guztien gaineke titular-tasun plurala. Kausatzailearen jaraunspenera pertsona bat baino gehiago deituak badaude eta batek baino gehiagok onartzen badu jaraunspen hori, jaraunse bihurtuko dira guztiak. Jaraunspena onartzen dutenetik jaraunspena banatu bitarteko titulartasun-kidetasuna da jaraunse-erkidegoa. **Sin.** *jaraunse-komunitate.*

**jaraunse-komunitate** [*comunidad hereditaria*] ♦ *Zuz. Zib.* **Ik.** *jaraunse-erkidego.*

**jaraunse-titulu** [*título de heredera, heredero*] ♦ *Zuz. Zib.* Oinordeko bati jaraunse izaera aitortzen dion titulua, bai gauza jakin baten bai ondarearen osotasun, zati edo proportzio baten jaraunse izendatuz. **Oh.** KZ, 660. art. **Ik.** *jaraunse, legatu-hartzaile, oinordeko.*

**jaraunselekide** [*coheredera, coheredero*] ♦ *Zuz. Zib.* Kausatzaile jakin baten jaraunspena onartu eta beste jaraunse batzuekin batera po-

sizio juridiko hori partekatzen duen oinordekoa. **Ik.** *oinordekide.*

**jaraunspen** [*herencia*] ♦ *Zuz. Zib.* Kausatzailea hiltzean transmitigarriak diren eskubide eta ondasunetz osatutako ondarea, haren *mortis causa* oinordetzaren objektu dena.

**jaraunspen banatugabe** [*herencia yacente*] ♦ *Zuz. Zib.* Kausatzailearen oinordetza irekitzen denetik jaraunspenera deituek jaraunspena onartu bitarteko egoera. Jaraunspena osatzen duten ondasunek, eskubideek eta zorrek ez dute, egoera horretan, titularrik. Norbaitek administratuko du ondarea titular berria nor izango den zehazten den arte.

**jaraunspen-erkidego** [*comunidad hereditaria*] ♦ *Zuz. Zib.* Jaraunse batek baino gehiagok jaraunspena onartzean sortzen den behin-behineko egoera juridikoa, jaraunspenaren banaketarekin amaitzen dena. **Sin.** *jaraunspen-komunitate.*

**jaraunspen-komunitate** [*comunidad hereditaria*] ♦ *Zuz. Zib.* **Ik.** *jaraunspen-erkidego.*

**jaraunspen-ordezpen** [*sustitución hereditaria*] ♦ *Zuz. Zib.* Oinordetza eskubideen titulartasunaren gainean pertsona batek, bigarren baten alde, jasaten duen ordezpena, lehenengoak eskubide horiek berreskuratzeko nahi eza edota gaitasun eza izateagatik. **Ik.** *ordezkatzee eskubide, ordezpen arrunt, ordezpen fideikomisario, ordezpen kuasipupilar, ordezpen pupilar.*

**jaraunspena zapuztu** [*repudiar*] ♦ *Zuz. Zib.* Jaraunspena errefusatu, ez onartu.

**jaraunspenaren banaketa** [*partición*] ♦ *Zuz. Zib.* Jaraunse-erkidegoa dagoenean, jaraunspena likidatu ondoren jaraunspen-masa osatzen duten ondasunak eta eskubideak jaraunselekideen artean banatzeko operazioa.

**jaraunspenaren banaketa judicial** [*partición judicial*] ♦ *Zuz. Zib.* Jaraunspena osatzen duten ondasunak eta eskubideak jaraunselekideen

artean banatzeko operazioa epaile batek egitea.  
**Ik.** *jaraunspenaren banaketa*.

**jaraunspenaren zapuzte** [*repudiación*] ♦ *Zuz. Zib.* Jaraunspena errefusatzeko deituaren alde-bakarreko egintza, deituak jaraunspena ez duela onartzen espresuki adieraztea helburu duena.  
**Ik.** *jaraunspena zapuztu*.

**jarauntsi** [*heredar*] ♦ *Zuz. Zib.* Kausatzailearen posizio juridikoan jarri, titulu unibertsalez.  
**Sin.** *heredatu. Ik. oinordetu*.

**jarduera-batasunaren printzipio** [*principio de unidad de actuación*] ♦ *Zuz. Proz.* Printzipio honen arabera egintza eta prozedura bakarrean eztabaidatuko dira eta epai bakarrean ebatziko dira prozesu batean sortzen diren prozesu-gorabeheren inguruko eztabaida guztiak.  
**Sin.** *egintza-batasunaren printzipio*.

**jarduera ekonomiko** [*actividad económica*] ♦ *Fin. Zuz. Ik.* *ekonomia-jarduera*.

**jarduera ekonomikoen etekin** [*rendimiento de actividad económica*] ♦ *Fin. Zuz. Ik.* *ekonomia-jardueraren etekin*.

**jarduera-eza** [*inactividad*] ♦ *Admin. Zuz.*  
**1.** Arau-xedapen batek edo administrazio-egintza, kontratu nahiz hitzarmen batek administrazio publikoa pertsona baten edo batzuen aldeko prestazioa egitera behartu, eta administrazioak halakorik egiten ez duenean sortzen den egoera. Horren aurka administrazioarekiko auzien errerkurtsoa jar daiteke. **Oh.** 29/1998 Legea, 29.1 art. **2.** Administrazio-egintza irmoa izan, eta interesdunak bete dadin eskatu arren, administrazioak prestazioa eskaini gabe jarraitzen duenean sortutako egoera. Egoera horren aurka administrazioarekiko auzien errerkurtsoa jar daiteke. **Oh.** 29/1998 Legea, 29.2 art.

**jarduera-konpromiso** [*compromiso de actividad*] ♦ *Lan Zuz.* Langabezia-prestazioak jasotzen dituen langabetuak enplegua modu aktiboan bilatzeko hartzen duen konpromisoa.  
**Oh.** GSLO, 300. art.

**jarduera zergapetu eta salbuetsi** [*actividad sujeta y exenta*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga-egitatea burutu arren, zerga horretara lotua egotea baina beraren ordainketa gauzatu behar ez izatea.

**jarduera zergapetu eta salbuetsi gabe** [*actividad sujeta y no exenta*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga-egitatea burutzen delarik, zerga horretara lotua egotea eta beraren ordainketa gauzatu behar izatea.

**jarduerak artxibatze** [*archivo de las actuaciones*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *largespen*.

**jardun judizial** [*actuación judicial*] ♦ *Zuz. Proz.* Jurisdikzio-organismoaren edozein egite edo ez-egite.

**jardunbide egokiak** [*buenos oficios*] ♦ *Nart. Zuz. Pu. Ik.* *arartekaritza, ofizio onak*.

**jarduneko zerbitzu** [*servicio activo*] ♦ *Admin. Zuz.* Bere lanpostuan ari den funtzionarioaren administrazio-egoera.

**jarduteko gaitasun prozesal** [*capacidad procesal*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *gaitasun prozesal*.

**jasanarazitako kuota** [*cuota repercutida*] ♦ *Fin. Zuz.* Zeharkako zergen esparruan, azken kontsumitzaileak ordaintzen ditu kontsumoa zergatzen duten zergak; baina araudiak hala dioelako, tartean izandako ondasun-ematean kokatzen da zergatzeko obligazioa. Beraz, tarteko subjektu pasiboek ondorengo subjektuei jasanaraziko diete zerga, azken kontsumitzailearengana iritsi arte, zeina baita zerga ordaintzen duena.

**jasanarazpen** [*repercusión*] ♦ *Fin. Zuz.* Zeharkako zergen esparruan, zerga-obligazioa, zeinaren bidez subjektu pasiboak hirugarren bati pasatzen baitio zerga-kuota.

**jasandako kuota** [*cuota soportada*] ♦ *Fin. Zuz.* Zeharkako zergen esparruan, azken kontsumitzaile gisa zerga ordaintzeko obligazioa izanik, aurreko subjektu pasiboek pasatutako zerga-kuota.

**Jasotako Bermeen Erregistro** [*Registro de Garantías Recibidas*] ♦ *Fin. Zuz.* Ogasun Administrazioan, zerga-zorren ordainketen berme gisa jasotako ondasunen erregistroa.

**jatorrizko zuzenbide** [*derecho originario*] ♦ *EB. Zuz.* EBren tratatu sortzaileek, beren protokolo, eranskin eta adierazpenak barne, eta hauek aldatzen dituzten arau guztiek osatzen duten arau-multzoa. **Ik.** *tratatu sortzaile.*

**jazarpen-eskubide** [*derecho de persecución*] ♦ *Nart. Zuz. Pu. Ik.* *persekuzio-eskubide.*

**jendaurrean jartze** [*información pública*] ♦ *Admin. Zuz. Ik.* *informazio publiko.*

**joan-etorriko berrigorpen** [*reevó de retorno*] ♦ *Nart. Zuz. Pr. Ik.* *lehen mailako berrigorpen.*

**jubilazio** [*jubilación*] ♦ *Lan Zuz. Ik.* *erretiro.*

**judiziamendu** [*enjuiciamiento*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesu judizialen izapidetzea. **2.** Auzipetzea eta haren ondorioa. **Sin.** *epaitze.*

**judizio** [*juicio*] ♦ *Zuz. Proz., Konst. Zuz., Err. Zuz., Zuz. T. Ik.* *epaiketa.*

**judizio arrunt** [*juicio ordinario*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *epaiketa arrunt.*

**judizio aurreko entzunaldi** [*audiencia previa al juicio*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *epaiketa aurreko entzunaldi.*

**judizio monitorio** [*juicio monitorio*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *prozesu monitorio.*

**judizio plenario** [*juicio plenario*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *epaiketa plenario.*

**juridikotu** [*juridificar*] ♦ *Zuz. T.* Arau juridikoetan aurreikusita ez zegoen gertakizun edo egoera bat zuzenbidearen bidez arautu. **Ik.** *zuzenbidetu*

**jurisdikzio** [*jurisdicción*] ♦ *Zuz. Proz., Konst. Zuz., Zuz. Err.* Estatuaren subiranotasunetik

eratorritako ahalmena, epaituz eta epaitutakoa betearaziz eta zuzenbidea kasu konkretuetan aplikatuz epaitegi eta auzitegiek egikaritzen dutena.

**jurisdikzio-ahalmen** [*potestad jurisdiccional*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *ahalmen jurisdikzional.*

**jurisdikzio-batasun** [*unidad jurisdiccional*] ♦ *Zuz. Proz.* Epaitegi eta auzitegien antolamenduak eta funtzionamenduak oinarri duten printzipioa. Subiranotasunetik eratorzen den neurrian, jurisdikzioa bakarra da eta antolamendu bakarra du estatu osorako.

**jurisdikzio eskusiboko zonalde** [*zona de jurisdicción exclusiva*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Estatu baten jurisdikziopean modu eskusiboan dagoen eremua. Hirugarren estatuak inolako eskuduntzarik egikaritu ezin dezaketen eremua.

**jurisdikzio-funtzio** [*función jurisdiccional*] ♦ *Zuz. Proz.* Jurisdikzioak bete behar duen helburua edo eginkizuna. Ordenamendu juridikoak herritarrei aintzatetsitako eskubideak bermatzen dira jurisdikzioaren bidez, epaileak zuzenbidea kasu konkretuei aplikatuz. **Sin.** *funtzio jurisdikzional.*

**jurisdikzio-gatazka** [*conflicto de jurisdicción*] ♦ *Zuz. Proz. 1.* Auzitegi edo epaitegiak, alde batetik, eta administrazioak, bestetik, auzi bera ezagutu nahi dutenean sortzen den egoera. **2.** Jurisdikzio arrunteko organo judizialak eta jurisdikzio militarrekoak auzi bera ezagutu nahi dutenean sortzen den egoera.

**jurisdikzio-immunitate** [*inmunidad de jurisdicción*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Beste estatu baten jurisdikzio-organoei beraien kontra egikaritu dezaketen jurisdikzioaren erabileraren aurrean estatu batek zein beste zenbait ente publikok pribilegiotzat duten salbuespen prozesala. **Oh.** BJLO, 21. art., 16/2015 Lege Organikoa, 2 a) art., NBK estatuen eta beren ondasunen jurisdikzio-immunitatei buruzkoa (2004).

**jurisdikzio-ordena** [*orden jurisdiccional*] ♦ *Zuz. Proz.* Organo judizialei gaiaren arabera esleitzen zaien eskumena kontuan hartuz egiten den haien sailkapena. Botere Judizialaren Lege Organikoak lau jurisdikzio-ordena hauek jasotzen ditu: zibila, zigor-arlokoa, administrazioarekiko auzien arlokoa eta lan-arlokoa.

**jurisdikzio-organo** [*órgano jurisdiccional*] ♦ *Zuz. Proz.* Epaitzeko eta epaitutakoa betearazteko ahalmena duen estatuaren organoa; legeek zehaztutako epaitegi eta auzitegiek soilik dute ahalmen hori. **Sin.** *epai-organo, organo jurisdikzional.*

**jurisdikzioaren eskusibitate-printzipio** [*principio de exclusividad jurisdiccional*] ♦ *Zuz. Proz.* Jurisdikzioaren egikaritzea, epaituz eta epaitutakoa betearaziz, legeek zehaztutako epaitegi eta auzitegiei dagokiela soilik eta horiek beste eginkizunik beteko ez dutela ezartzen duen printzipioa.

**jurisdikzioaren hedadura** [*extensión de la jurisdicción*] ♦ *Zuz. Proz.* Espainiako jurisdikzio-organoez egindako dituzten gatazkak zehazteko irizpideen multzoa.

**jurisdikzioaren luzapen** [*prórroga de jurisdicción*] ♦ *Zuz. Proz.* **1.** Epaileak bere jurisdikziopeko lurraldetik kanpo baliozko egintza prozesalak egiteko duen ahalmena, hori egoia denean, lekua gertu dagoenean, eta epaile eskudunari berehala berri emanik. **2.** Epaile eta magistratuen hutsaldiak, lizentziak edo eta ordezkapena justifikatzen duten arrazoiak dardenean, haiek ordezkatzeko modua. Ordeztu beharrekoaren gradu eta ordena bereko epaitegi bat baldin badago beste hiri batean, hari luza diezaioke bere jurisdikzioa justizia auzitegi nagusiko presidentek eta orduan hark bi karguak beteko ditu.

**jurisdikziopeko ur** [*aguas jurisdiccionales*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Estatu batenak diren urak.

**jurisprudente** [*jurisprudente*] ♦ *Zuz. Err.* Auctoritas printzipioaz jantzitako zuzenbideko aditua, zeinaren erantzunek (*responsa*) itzal eta eragin handia zuten besteen aldean. Berari zegokion froga-gisatzat hartuak ziren auziaren alderdiak zein epailea aholkatzea (*agere*), negozio juridikoetarako aholkuak ematea (*cavere*) eta zuzenbideari buruz erantzunak eskeintzea (*respondere*). **Sin.** *iuris consultus, iuris peritus, iuris prudens, prudens.*

**jurisprudenzia** [*jurisprudencia*] ♦ *Zuz. Err.* Zuzenbidearen zientzia eta haren ezagupen sakona. Jurisprudenteen esku zegoen. ♦ *Zuz. Zib. 1.* Adiera zabalean, justizia epaitegien erabaki multzoa. **2.** Bere adiera teknikoan, Auzitegi Gorenak (edo azken instantziako auzitegiek) lege, ohitura eta Zuzenbidearen printzipio orokorrak interpretatu nahiz aplikatzean, behin eta berriz ezartzen duten doktrina. **Oh.** KZ, 1. 6 art.

**justizia** [*justicia*] ♦ *Zuz. T. 1.* Jendarteak on komun bezala finkaturiko balorea. **2.** Bakoitziari dagokiona ematea agintzen duen printzipio morala.

**Justizia Administrazio** [*administración de justicia*] ♦ *Zuz. Proz.* **1.** Zentzu hertsian, jurisdikzio-funtzioa eta funtzio hori era independentean egikaritzeko beharrezko elementuen antolakuntza. **2.** Zentzu zabalean, jurisdikzio-funtzioa izan gabe, hori egikaritzeko beharrezkoa den euskarri pertsonal eta materiala. Kasu honetan, Justizia Administrazioaren administrazioaz hitz egiten da. **Sin.** *Justizia Administrazioaren administrazio.*

**Justizia Administrazioaren administrazio** [*administración de la Administración de Justicia*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *Justizia Administrazio.*

**Justizia Administrazioaren letradu** [*letrada, letrado de la Administración de Justicia*] ♦ *Zuz. Proz.* Justizia Administrazioaren zerbitzupuan eta Estatu mailako kidego nagusi juridiko bakar batean integratuta dagoen fun-

tzionario publikoa, autoritate izaeraz bere funtzioak betetzen dituen eta bulego judizialaren zuzendaritza duena. **Ik.** *idazkari judizial*.

**justizia banatzaile** [*justicia distributiva*] ♦ *Zuz. T.* Justiziaren ikuskera bat da, sariak eta zigorrak zein modutan banatu behar diren finkatzen duena. Askotan, justizia ordainkariari kontrajartzen zaio.

**justizia ordainkari** [*justicia retributiva*] ♦ *Zuz. T.* Justiziaren ikuskera bat da, ondorioak zeintzuk diren erreparatu gabe, ezarritako zigorra egindako lege-haustearekiko proportzionala bada, zuzena dela defendatzen duena.

**justizia sozial** [*justicia social*] ♦ *Zuz. T.* Jendartean ezberdintasun sozialekin amaitzea helburu duen justiziaren ikuskera, aukera-berdintasuna, pribilegioak amaitzea eta aberastasunaren banaketa aldarrikatzen dituena.

**justizia trukakor** [*justicia conmutativa*] ♦ *Zuz. T.* Ondasunen elkartrukean berdintasuna edo oreka bilatzen duen justiziaren ikuskera. Ikuskera honen arabera, elkartruke hori bidezkoa izango da orekatua denean; alegia: elkartrukatzen diren ondasunek antzeko balioa dutenean. Beraz, alde bakoitzak ematen duenaren adina jaso beharko du.

**justizia unibertsalaren printzipio** [*principio de justicia universal*] ♦ *Zig. Zuz.* Lurraldetasun-printzipioaren salbuespen bat, lesionatutako interesak Nazioarteko Komunitatearenak izanik, estatu batean burututako delitua epaitzeko eskumena beste estatu bateko organo juridikzionaleri ematen diena. **Oh.** BJLO, 23.3 art.

**justu** [*correcta, correcto; justa, justo; legítima, legítimo*] ♦ *Zuz. T.* **Ik.** *bidezko, zuzen*.

# K

---

**kaduzitate** [*caducidad*] ♦ *Zuz. Zib.* Bere egitarizarako legeak aitorturiko epea gainditu izanagatik eskubide edo ahalmen bat iraungitzea. Preskripzioarekin alderatuz, ezaugarri bereizle moduan, kaduzitatea automatikoki gertatzen da; denbora igarotze hutsak sorrarazten du. Epaileak ofizioz aintzat har dezake.

**kaleratze** [*despido*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuaren aldebarreko erabakiaren ondorioz gertatzen den lan-kontratuaren amaiera. **Oh.** LE, 49. art.

**kaleratze baliogabe** [*despido nulo*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *kaleratze deusez.*

**kaleratze deusez** [*despido nulo*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuak kaleratzea gauzatzerakoan egindako akatsengatik deuseza den kaleratzea. **Sin.** *kaleratze baliogabe.*

**kaleratze diziplinario** [*despido disciplinario*] ♦ *Lan Zuz.* Langileak lan-kontratu ez beteagatik gertatzen den kaleratzea, enpresaburuaren diziplina-ahalmenean oinarrituta erabakitzen dena.

**kaleratze indibidual** [*despido individual*] ♦ *Lan Zuz.* Langile bakarrari edo legez ezarritako mugaren azpiko langile kopuruari eragiten dion kaleratzea. **Oh.** LE, 51.1 art.

**kaleratze kolektibo** [*despido colectivo*] ♦ *Lan Zuz.* Legez ezarritako mugaren gaineko langile kopuruari eragiten dion kaleratzea. **Oh.** LE, 51.1 art.

**kalifikatu** [*calificar*] ♦ *Zuz. Zib.* Kalifikazio prozesua gauzatu.

**kalifikazio** [*calificación*] ♦ *Fin. Zuz.* Izaera jurikikoa zehaztearen emaitza. ♦ *Zuz. Zib.* **1.** Egitatezko egoera baten izaera juridikoa finkatzea. **2.** Prozedura baten finkatutako egitatei dagokien marko juridikoa egokitzea, egitateen eta zuzenbidearen arteko lotura eginez. ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *kalifikazio-idazki.*

**kalifikazio erregistral** [*calificación registral*] ♦ *Zuz. Zib.* Interesatuak erregistroan aurkezte-idazpena luzatu ostean, legezketasun printzipioari jarraiki, erregistroko arduradunak aurkeztutako dokumentuen legezko ukanbeharrak aztertzen dituen prozesua. Dokumentuen formazko alderdiak zein edukizkoak aztertzen ditu eta kalifikazio honetarako 15 eguneko ohiko epea du.

**kalifikazio-idazki** [*escrito de calificación*] ♦ *Zuz. Proz.* Zigor-prozesuan prozesuko alderdiek ahozko epaketari buruz duten jarrera jasotzen duen idazkia. Haren bidez, prozesu-

ko alderdiek beren iritzia adierazten dute egitate, kalifikazio, parte-hartze, inguruabar eta erantzukizunei buruz. Idazki berean alderdiek froga-proposamena egiten dute. Froga burutu aurretik behin-behinekoa da kalifikazio-idazkia eta ondoren, behin betikoa. **Oh.** PKL, 650. art. **Sin.** *kalifikazio*.

**kalte** [*daño*] ♦ *Zuz. Zib.* Erantzunkizun zibilaren eremuan, bidezko interesak urratzeak sortutako galera oro. Urratutako ondasun juridikoa edo interesa edozein izanik ere (osotasun fisikoa, ohorea, jabetza eta abar), kalte ordainaren mailan, konpondu beharreko kaltea izan daiteke ondarezko kaltea edo materiala (ekonomia arloan eragindako kaltea) edo kalte morala (esparru pertsonalean eragindako kaltea). **Oh.** KZ, 1.106 art.

**kalte-galerak** [*daños y perjuicios*] ♦ *Zuz. T.* Kaltea eragin duenari ordainean eskatzen zaion konpentsazioa.

**kalte handiak** [*estragos*] ♦ *Zig. Zuz.* Seguritasun kolektiboaren aurkako delitua, arrisku komun bat eta dimentsio handiko kalte bat (besteak beste, leherketak, uholdeak edo suteak) sortzen duena. **Oh.** ZK, 346-347. art.

**kalte-konponketa** [*reparación*] ♦ *Zig. Zuz.* Egileak, prozeduraren edozein unetan, eta ahozko epaiketaren aurretik, biktimari eragindako kaltea konpontzeari edo haren ondorioak murrizteari ekitea inplikatzan duen inguruabar aringarria. **Oh.** ZK, 21.5 art.

**kalte-ordain** [*indemnización*] ♦ *Zuz. Zib.* Zordunak (prestazioa bete ez duenak edo kaltea sortu duenak), hartzekodunari zein kaltetuari sorrarazitako kalteak eta gastuak ordaintzea. **Ik.** *ez-betetze, kalte, kontratuzko erantzukizun*.

**kalte-ordainketarako akordio global** [*acuerdo de indemnización global*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Nazioarteko egitate ez-zilegi baten erreklamazioaren aurrean, oro har kalkulaturako ko-

puru zehatz baten ordainketa bidezko konponketarako egiten den estatuen arteko akordioa.

**kalumnia** [*calumnia*] ♦ *Zig. Zuz.* Ohorearen aurkako delitua. Portaera hori izango dugu beste bati delitu bat egozten zaionean jakinda faltsua dela edota egia era ausartegian mespretxatuz. **Oh.** ZK, 205. art.

**kanbio-epaiketa** [*juicio cambiario*] ♦ *Zuz. Proz.* Adierazpenezko prozesu zibil berezi eta sumarioa, kanbio-letra, txeke edo ordaindukoen inguruko gatazka juridikoak izapidetzeko erabiltzen dena. **Oh.** PZL, 819-827. art. **Sin.** *epaiketa kanbiario*.

**kanbio-letra** [*letra de cambio*] ♦ *Merkat. Zuz.* Ordainketa-titulu bat, agiriak ezartzen duen unean eta forman, diru-kantitate bat ordaintzeko betebeharra xedatzen duena. **Oh.** KLTL, 1. art.

**kanon** [*canon*] ♦ *Fin. Zuz.* Emakida administratibo baten titularrak administrazioari aldizka ordaintzen dion zenbatekoa. ♦ *Zuz. Zib.* Zentsualistak zentsudunari urtero ordaintzen dion zenbatekoa, azken honek xedatu dion kapital edo ondasun higiezinaren balioaren bestekoa guttiz ordaindu arte.

**kanoniko** [*canónico*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Eliza katolikoaren kanonen eta bestelako xedapenen arabera.

**kanpoko malgutasun** [*flexibilidad externa*] ♦ *Lan Zuz.* Edozein motatako lan-kontratuak eta kaleratzeak egiteko erraztasuna.

**kanpora bidaltze** [*expulsión*] ♦ *Zig. Zuz.* Askatasun-gabetzailea ez den segurtasun-neurria. Legez Espainian bizilekurik ez duten atzerri-tarrei epaile edo auzitegiek nazio-lurraldetik kanporatzeko neurria ezar diezaiekete bestelako segurtasun-neurrien ordezen moduan. **Oh.** ZK, 96.3 eta 108. art.

**kantzelazio** [*cancelación*] ♦ *Zuz. Zib.* Erregistro publiko batean gauzatutako inskripzio edo

prebentziorako oharpena ezabatzen duen idazpena. **Ik.** *inskripzio*.

**kapital** [*capital*] ♦ *Lan Zuz.* Beste faktore batzuekin batera —esaterako, lana, lurra, higiezinak, instalazioak eta abar—, ondasunak ekoiztean eragina duten ekoizpen-faktoreetako bat.

**kapital higiezin** [*capital inmobiliario*] ♦ *Fin. Zuz.* Pertsona fisiko edo juridiko baten ondasun higiezinak osatutako kapitala.

**kapital higiezinaren etekin** [*rendimiento de capital inmobiliario*] ♦ *Fin. Zuz.* Ondasun higiezinak sortutako etekina.

**kapital higigarri** [*capital mobiliario*] ♦ *Fin. Zuz.* Kapital higiezinak jotzen ez den ondasuna.

**kapital higigarriaren etekin** [*rendimiento de capital mobiliario*] ♦ *Fin. Zuz.* Pertsona fisiko edo juridiko baten ondasun higigarrietatik eta jabetza-eskubideetatik datorren etekina.

**kapital sozial** [*capital social*] ♦ *Merkat. Zuz.* Kapital-sozietateari eratzeko unean esleitzen zaion funts bat, zeina bazkideen ekarpenek osatzen baita eta diru-zenbateko baten bidez adierazten baita. **Oh.** KSL, 1. art.

**kapitalen eta ordainketen zirkulazio aske** [*libre circulación de capitales y pagos*] ♦ *EB. Zuz.* Estatu kideen artean eta estatu kideen eta hirugarren estatuen artean gertatzen den kapitalen eta ordainketen mugimenduari murrizketak ezartzeko debekua. **Oh.** EBFT, 63. art.

**kapitalen zuritze** [*blanqueo de capitales*] ♦ *Zig. Zuz.* Delitu batetik eratorritako ondasunak eskuratzea, edukitzea, erabiltzea, itxuraldatzea edo eskualdatzea, haien jatorria ezkutatzeko edo estaltzeko asmoz. **Oh.** ZK, 301. art. eta hurr. ♦ *Fin. Zuz.* Jatorria delituzko jarduera batean dutela jakinik, ondasunak eskuratzea, edukitzea, erabiltzea, itxuraldatzea edo eskualdatzea; baita ondasun haien jatorria zilegia ez dela ezkutatzeko edo estaltzeko asmoz edo

arau-haustean parte hartu duenari bere egintzen legezko ondorioetatik itzuri egiten laguntzeko asmoz gauzatzen den beste edozein egitate ere.

**kapitalizazio** [*capitalización*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaz, aurrezkian oinarrituriko finantzaketa.

**kapitalizazio-sistema** [*sistema de capitalización*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaz, aurrezkian oinarrituriko finantzaketa-sistema.

**kareo** [*careo*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *bekaldura*.

**karga** [*carga*] ♦ *Zuz. Zib.* Eskubide baten titularrak jasan behar duen zama pertsonal edo erreala.

**karga erreal** [*carga real*] ♦ *Zuz. Zib.* Eskubide erreal batek duen zama, legeak edota bere titularrak ezarria hirugarren baten alde, prestazio positibo bat beteko dela bermatzeko. Karga errealak eskubidearen titularra prestazio hori gauzatzera behartzen du ondorioak egotzen dizkiolako ez betetzeari; gehienetan, akzio errealaren erabilpena prestazioaren hartzeko-dunaren eskutik. **Ik.** *karga, zentsu*.

**karga-tasa** [*tipo de gravamen*] ♦ *Fin. Zuz.* Oinarriari aplikatzen zaion karga tasa.

**kargu baten bidezko egikaritzea** [*ejercicio legítimo de un cargo*] ♦ *Zig. Zuz.* Erantzukizun kriminaletik salbuetsita dago kargu baten bidezko egikaritzean jarduten duena. Horretarako, beharrezkoa da kargua publikoa izatea, egindako portaera bere eskumenaren barruan egotea, eta zilegi izatea. Adibidez, estatuko segurtasuneko indar eta kidegoen indarraren erabilera. **Oh.** ZK, 20.7 art.

**karguko frogara** [*prueba de cargo*] ♦ *Zuz. Proz.* Delitu-tipoaren elementu osagarriari buruzko frogara. Ezinbestean egon behar du jurisdikzio-organismoaren ustez errugabetasun-presuntzioa indargabetzeko.

**karrera fiskal** [*carrera fiscal*] ♦ *Zuz. Proz.* Fiskaltza osatzen duten funtzionarioen multzoa.



**karrera judicial** [*carrera judicial*] ♦ *Zuz. Proz.* Magistratura osatzen duen pertsonal jurisdikzionala. **Sin.** *epai-karrera*.

**karrerako epaile** [*jueza, juez de carrera*] ♦ *Zuz. Proz.* Oposizioa gainditu, Eskola Judizialean ikasturtea jarraitu eta burutu, eta epaile gisa bere lehen destinoa epaile-kategoriarekin —ibilbide profesionalaren hasieran— jasotzen duen pertsona.

**karrerako funtzionario** [*funcionaria, funcionario de carrera*] ♦ *Admin. Zuz.* Legez izendaturik eta Administrazio Zuzenbideak araututako estatutu-harreman bat bitarteko, administrazio publikoan edo erakunde publiko batean ordaindutako zerbitzuak era iraunkorrean eskaintzen dituen pertsona. **Oh.** 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 9. art.

**kartel** [*cartel*] ♦ *Merkat. Zuz.* Bi lehiatzaile edo gehiagoren arteko isilpeko akordioa edo konponketa, elkarren arteko lehia murriztu edo saihestearren egiten dena. Honako hauek dira, beste operadoreei merkatuan sartzeko oztopoak ipintzearen, lehia murrizteko eskuarki kartelek hartzen dituzten neurriak: salneurriak finkatzea, eskaintza murriztea edo merkatua banatzea. **Oh.** LDL, 1.1 art.

**kartzela-zigor** [*pena de prisión*] ♦ *Zig. Zuz.* **Ik.** *espetxe-zigor*.

**kartzela-zigor iraunkor berrikusgarri** [*pena de prisión permanente revisable*] ♦ *Zig. Zuz.* Delitu larri batzuentzat aurreikusten den zigor askatasun-gabetzailea, esekipen-baldintza eta -epe bereziak dituena. **Oh.** ZK, 35. eta 36. art.

**kasazio** [*casación*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *kasazio-errekurtso*.

**kasazio autonomiko** [*casación autonómica*] ♦ *Zuz. Proz.* Aparteko errekurtsu bat, justizia auzitegi nagusiaren aurrean jartzen dena urratutako araua erkidego autonomo baten Zuzenbide Zibil, foral edo bereziari dagokionean. **Oh.** BJLO, 73. art.

**kasazio-errekurtso** [*recurso de casación*] ♦ *Zuz. Proz., Admin. Zuz.* Aparteko errekurtsu debolutiboa. Legeak aurreikusitako zio jakin batzuetan oinarrituta soilik jar daiteke. Ezagutzeko eskumena Auzitegi Gorenari edo justizia, auzitegi nagusiari dagokio, esleitutako arauaren izaeraren arabera. **Oh.** BJLO, 56., 57., 73. art. **Sin.** *kasazio*.

**katastro** [*catastro*] ♦ *Zuz. Zib., Fin. Zuz.* Hazienda Ministerioan kokaturiko ondasun higiezin (landa finken eta hiri-finken) erregistro administratiboa. Bere helburua ondasun horiek fisikoki deskribatzea da, balio bat atxikiz, beraien gaineko zergak zeintzuk diren ezagutzarazteko.

**katedra-askatasun** [*libertad de cátedra*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Hezkuntza-maila eta ikastetxe mota guztietako irakasleriari aitortutako ahalmena, irakaskuntza-jarduera haiek dituzten konbikzio edo uste sendoen arabera bideratu ahal izatea bermatzen duena. **Ik.** *irakaskuntza-askatasun*.

**kategoria** [*categoría*] ♦ *Admin. Zuz.* Funtzionarioaren lanpostuak mailaz maila sailkatzeko erabiltzen den kontzeptua.

**kaudimen** [*solvencia*] ♦ *Zuz. Zib., Zuz. T.* Pertsona fisiko zein juridikoek beren betebeharre aurre egiteko duten gaitasuna. ♦ *Admin. Zuz.* Sektore publikoarekin kontratua egin ahal izateko enpresak izan behar duen gaitasun ekonomiko-finantzario, profesional zein teknikoa, kontratazio-organoak zehaztuak, betiere, kontratuaren edukiak dakartzan betebeharren arabera. **Oh.** 9/2017 Legea, 74. art. **Ik.** *sektore publikoko kontratua*.

**kaudimengabezia** [*insolvencia*] ♦ *Zuz. Zib.* Pertsona fisiko zein juridiko batek hartzeko dunen alde ordainketa betetzeko ezintasuna duenean sortzen den egoera juridikoa. **Ik.** *ezbetetze, hartzekodun*. ♦ *Fin. Zuz., Zerga-zorra* ordaindu ezin duen zergapekoaren egoera.

**kausa-harreman** [*relación de causalidad*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazioaren zein botere publikoen ondare-erantzukizuna aitortzeko beharrezko betekizuna, kaltetuak jasandako lesioa zerbitzu publikoen funtzionamendu normalaren zein anormalaren ondorio izatea eskatzen duena. **Sin.** *kausalitate-harreman*. **Ik.** *lesio, ondare-erantzukizun*.

**kausalitate** [*causalidad*] ♦ *Zuz. T. 1.* Kausa eta efektuaren arteko harremana. **2.** Filosofia-aren lege bat da, zeinaren arabera, ondorioak sortzen baitira.

**kausalitate-harreman** [*relación de causalidad*] ♦ *Zuz. Zib.* Egitatezko egoera batetik eratorzen den ondorio zuzena. **Sin.** *kausazko erlazio*. ♦ *Zig. Zuz.* Emaizta delituetan, egilearen portaera emaitza sortu duen baldintza izan dela egiaztatzea behartzen duen tipo objektiboaren elementuetariko bat. ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** *kausa-harreman*.

**kausalitatearen printzipio** [*principio de causalidad*] ♦ *Lan Zuz.* Kausa ezinbesteko betekizun gisa ezartzen duen printzipioa, aldi baterako kontratuak eta kaleratzeak egiteko aukeretan aplikagarri dena.

**kausatzaile** [*causante*] ♦ *Zuz. Zib.* Hil egin delako, bere *mortis causa* oinordetza eragiten duena.

**kausazko akzio** [*acción causal*] ♦ *Merkat. Zuz.* Kanbio-letrari dagokion eskubidea, letra izatetik ez, baizik eta letra hori jaulkitzeko jatorrian izan zen negoziotik sortzen dena. Akzio honen bidez kanbio-letraren edukitzaileak zordunari eska diezaioke zorra ordain dezala, beti ere kanbio-akzioa tartekatuta eta gero lortu ez badu zordunak bere zorra kitatzea. **Oh.** *ZK*, 1170. art.

**kausazko erlazio** [*relación causal*] ♦ *Zuz. Zib.* **Ik.** *kausalitate-harreman*.

**kautela-demanda** [*demanda cautelar*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *kautelazko demanda*.

**kautela-neurri** [*medida cautelar*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio-errekurtso bidean aurkaratutako ebazpen edo egintzaren exekuzioa etetea erabaki denean, interes publikoa edo hirugarren batzuen interesa babeste aldera eta aurkaratutako ebazpenaren zein egintzaren eraginkortasuna bermatze aldera har daitekeen behin-behineko neurria. **Oh.** 39/2015 Legea, 117. art. **Sin.** *kautelazko neurri*. **Ik.** *administrazio-prozedura, behin-behineko neurri*. ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *kautelazko neurri*.

**kautela-prozesu** [*proceso cautelar*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *kautelazko prozesu*.

**kautelazko babes** [*tutela cautelar*] ♦ *Zuz. Proz.* Jurisdikzio-organoen babes, prozesuaren ebazpenaren betearazpena bermatzea helburu duena; argitu beharreko interes edo eskubideen kontserbazioan, prebentzioan edo segurtatzean datza.

**kautelazko demanda** [*demanda cautelar*] ♦ *Zuz. Proz.* Babesaren eraginkortasuna bermatzeko alderdiak egindako eskaera, non kautelazko neurri jakin bat edo batzuk esleitzeko uzia bideratzen baita. **Oh.** *PZL*, 721. art. **Sin.** *kautela-demanda*.

**kautelazko neurri** [*medida cautelar*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuaren emaitza —ondarea edo pertsonala— bermatzeko ordenamenduak aurreikusten duen tresna sorta. **Sin.** *kautela-neurri*. ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** *kautela-neurri*.

**kautelazko prozesu** [*proceso cautelar*] ♦ *Zuz. Proz.* Jurisdikzioaren hirugarren jarduera prozesal mota (adierazpenaz eta exekuzioaz gain), kautela-neurriak izapidetzeko sortua, prozesu nagusi baten mesedetan eta haren eraginkortasuna ziurtatzeko. **Sin.** *kautela-prozesu*.

**kauzio** [*caución*] ♦ *Zuz. Zib.* Prozedura batean suerta daitezkeen gastu edo kalteei aurre egiteko interesdun edo eskatzaileak jarritako diru kantitatea.

**kazetarien kontzientzia-klausula** [*cláusula de conciencia de la periodista, del periodista*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Komunikabideen eremuko profesionalei aitortutako eskubidea aldebarreko lan-kontratua bertan behera uzteko aukera ematen diona bidegabeko irazpenaren efektu berberekin, komunikabidearen ildo ideologikoan funtsezko aldaketa bat dagoen kasuetan aplikatu daitekeena. **Oh.** 2/1997 Lege Organikoa.

**kengarritasun** [*deducibilidad*] ♦ *Fin. Zuz.* Oinarria edo kuota murrizten duten kopuruen izatera.

**kenkari** [*deducción*] ♦ *Fin. Zuz.* Kuota tributarioa murrizten duen kopurua.

**kenkariaren oinarri** [*base de la deducción*] ♦ *Fin. Zuz.* Zergapekoak inbertitzen edo jasotzen duen diru kopurua, kenkaria aplikatzeko erreferentzia gisa erabiltzen dena.

**kereila** [*querella*] ♦ *Zuz. Proz., Zuz. Err.* Subjektu aktiboak zigor-akzioa egikaritzeko duen borondate-adierazpena jasotzen duen idazkia. Kereila onartua izanez gero, aurkezlea alderdi akusatzailea bilakatzen da.

**kereilari** [*querellante*] ♦ *Zuz. Proz.* Kereilaren aurkezlea; zigor-akzioa egikaritzen duen alderdi prozesal aktiboa.

**kereilatu** [*querellada, querellado*] ♦ *Zuz. Proz.* Kereilan egitate zigorgarriaren egile gisa aipatzen den pertsona. Kereila onartua izanez gero, zigor-prozesuaren subjektu pasiboa.

**kexa-errekurtso** [*recurso de queja*] ♦ *Zuz. Proz.* Debolutiboa den inpugnazio-bidea. Zigor-prozesuan eta prozesu zibilean beste errekurtso debolutibo baten izapidetzea ukatzen duen ebazpena aurkaratzeko erabiltzen da. Horrez gain, zigor-prozesuan apelazioaren ordeko moduan erabiltzen da.

**kita** [*quita*] ♦ *Merkat. Zuz.* Zorrari egiten zaion gutxitzea. Eskuarki, hartzekodunak zorra gutxitze hori onartzen du aurreikusten duenean

zaila izango dela zor osoa jasotzea. Hartzekodunen konkurtso-egoeretan ohikoa da kitarako proposamena egitea. **Oh.** KonL, 99. art.

**kitapen** [*liquidación*] ♦ *Zuz. Zib.* Sozietateetan gauzatzen den prozesua, zeinaren bidez, sozietatea eratzten duten pertsonen artean (barkide edo ezkontideen artean, irabazpidezko sozietateetan) dagoena banatzen den, pasiboa ordaindu ostean.

**klausula** [*cláusula*] ♦ *Konst. Zuz.* Kontratu, testamendu, itun edo antzekoetan idatzitako xedapenetako bakoitza.

**klausula demokratiko** [*cláusula democrática*] ♦ *EB. Zuz.* EBk hirugarren estatuekin adosturiko akordioetan barneratzen duen klausula, zeinaren arabera, akordioaren aplikazioa baldintzatu egiten baita, betiere, demokraziaren eta giza eskubideen printzipioak errespetatzen badira.

**know-how** [*know-how*] ♦ *Merkat. Zuz.* Enpresariak merkataritzako balio erantsia lortzeko erabiltzen duen barne ezagutza tekniko eta administratiboen multzoa. Ezagutza hau babestu egiten da legez; alegia, prozesu tekniko eta administratibo horiek industria sekretutzat jotzen dira, eta, ondorioz, ez da zilegitzat jotzen ezagutza hori berariazko baimenik gabe hedatzea. **Oh.** LDL, 13. art.

**kode** [*código*] ♦ *Konst. Zuz.* Zuzenbideari dagokionez, arau eta printzipio juridikoen multzo bateratu, ordenatu eta sistematizatua.

**Kode Zibil** [*Código Civil*] ♦ *Zuz. Zib.* Espainiako Zuzenbide Zibil komunaren hein handi bat biltzen duen legezko testua, 1889ko uztailearen 24an indarrean sartu zena errege-dekretu bidez. Lau liburu nagusitan du banatua bere gorputza: pertsonak, ondasunak, jabetza eta horien aldarazpenak, jabetza eskuartzeko modu ezberdinak eta betebeharrak eta kontratuak.

**kodegintza** [*codificación*] ♦ *Zuz. T.* Kodifikatzearen ekintza edo jarduera. **Sin.** *kodifikazio*. **Ik.** *kodifikatu*.

**kodegintza-prozesu** [*proceso de codificación*] ♦ *Zuz. Zib.* Lege indarra duen gorputz bakar batean arauak sistematikoki eta modu bateratuan jasotzea. **Ik.** *kodifikazio*.

**kodifikatu** [*codificar*] ♦ *Zuz. T.* Ordenamendu juridiko jakin bati dagozkion arauak, edo horien parte bat, kode batean bildu, betiere modu ordenatu eta sistematizatuan.

**kodifikazio** [*codificación*] ♦ *Zuz. Zib.* Legezko testu bakarrean bil daitezkeen zuzenbidearen adar edo materia bateko arauen ordenazio bateratu eta sistematikoa. Konpilazioetan ez bezala, non indarrean dauden arauen antolaketara soil bat egiten den, kodifikazioaren bitartez, printzipio gidariak jarraiki, ordenamendu juridikoaren batasun organikoa bilatzen da.

**koefiziente bidezko zenbatespen objektibo** [*estimación objetiva por coeficientes*] ♦ *Fin. Zuz.* Oinarri zergagarria zehazteko koefiziente batzuk erabiltzean datzan erregimena.

**kokatze askatasun** [*libertad de establecimiento*] ♦ *EB. Zuz.* Jarduera profesionala, merkataritza- edo industria-jarduera aurrera eramango den lekua erabakitzeko askatasuna. **Oh.** EBFT, 49. art. **Sin.** *egoitza-askatasun*.

**kolazio** [*colación*] ♦ *Zuz. Zib.* Operazio bat, jaraunspenaren banaketan egin beharrekoa, kausatzailearen dispentsarik ez badago. Derrigorrezko oinordeko guztiek jaso beharrekoa jaso dezaten, senipartedun guztiek itzuli behar dute jaraunspen-masara aurretik kausatzailearengandik doan jasotakoaren balioa, atribuzio hura senipartearen aurrerapena izan zela ulertzen baita.

**kolazionagarri** [*colacionable*] ♦ *Zuz. Zib.* Jaraunspenaren banaketa egiterakoan senipartedunek jaraunspen-masara itzuli behar duten

ondasunaren ezaugarria.. Kausatzailearen dispentsarik ez dagoenez, kolazionatu behar den ondasuna.

**kolonia** [*colonia*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Autodeterminazio-printzipioa egikaritzeko eskubidea duen autonomiarik gabeko lurraldea. **Oh.** BN 1514 (XV); BN 1541 (XV); BN 2625 (XXV).

**komisario** [*comisaria, comisario*] ♦ *Zuz. Zib.* Kausatzaileak, notarioaren aurrean egiletsitako ahalorde baten bidez, hil ondoren bere oinordetza antola dezan izendatzen duen konfiantzazko pertsona. Kausatzailea hil ondoren honen oinordetza ordenatzeko enkargua jaso eta bere egiten duen pertsona. **Oh.** EZZL, 30. art. **Ik.** *fiduziario*.

**komisio-emaile** [*comitente*] ♦ *Zuz. Zib.* Komisio-kontratu batean, bere interesen kudeaketa beste bati enkargatzen dion parte. **Ik.** *obra-kontratu*.

**komisio-hartzaile** [*contratista*] ♦ *Zuz. Zib.* Obra-kontratu batean, komisio-emailearen interesen kudeaketa, ordainsari baten truke, bere gain hartzen duen alderdia. **Ik.** *komisio-emaile*.

**komisio-kontratu** [*contrato de comisión*] ♦ *Merkat. Zuz.* Merkatarien arteko konfiantzazko kontratua zeinaren bidez, merkataria batek (komisiogileak) mandatu bat agintzen baitio komisio-hartzaileari, azken horrek mandatua edo eragiketa ekonomikoa gauza dezan. Oso ohikoa da kontratu hau merkatarien artean erabiltzea, merkataria batek merkantziak urrutiko tokian saldu nahi dituzenean. **Oh.** MK, 244. art.

**kommütazio** [*conmutación*] ♦ *Zuz. Zib.* **1.** Gauza bat beste batengatik aldatzea, truketzea. **2.** Ezkontide alargunak jaraunspenean duen gozamen eskubidearen balioa dirutan edo beste ondasunekin ordaintzea. **Oh.** KZ, 839. art. eta hurr.

**komodatu** [*comodato*] ♦ *Zuz. Err.* Erabilpe-nerako mailegua; kontratu erreal, dohain, fede

oneko, sinalagmatiko ez perfektua. Horren birtartez pertsona batek (komodatugileak edo *dominus*) beste pertsona bati (komodatu-hartzai-lea edo *comodatarius*) higitari edo higiezina den gauza ez kontsumigarri bat ematen dio, honek erabili dezan, beti ere, erabili eta gero komodatugileari itzul diezaion baldintza jarrita. **Sin.** *commodatum, utendum datum.* ♦ **Zuz. Zib.** Mailegu kontratua, zeinaren bidez alderdi batek besteari dohainik ematen dion gauza suntsiezin bat, horrek epe zehatzean erabil dezan, eta, ondoren, berari itzul diezaion. **Oh.** KZ, 1.740. art.

**komodatudun** [*comodataria, comodataria*] ♦ **Zuz. Zib.** Gauza suntsiezin bat doako maileguan hartzen duen pertsona, epe zehatzean xede zehatz baterako erabiltzeko, eta, ondoren, itzultzeko. **Ik.** *komodatu, komodatugile.*

**komodatugile** [*comodante*] ♦ **Zuz. Zib.** Beste pertsona bati dohainik gauza suntsiezin bat maileguan ematen dion pertsona, epe zehatzean erabil dezan xede zehatz baterako, eta, ondoren, berari itzuli diezaion. **Ik.** *komodatu, komodatudun.*

**komunikazio** [*comunicación*] ♦ **Admin. Zuz.** **1.** Administrazioak interesdunari prozedura baten egitateen edo inguruabarren berri emateko zuzentzen dion dokumentua. **Oh.** 39/2015 Legea, 21.4 art. **Ik.** *administrazio-prozedura, interesdun.* **2.** Administrazio-organo batek administrazio bereko nahiz beste administrazio baten organoari informazioaren bat emateko nahiz izapiderean bat bidera dezan eskatzeko zuzentzen dion dokumentua. **Oh.** 39/2015 Legea, 72.2 art. **Ik.** *administrazio-organo.* **3.** Jarduera jakin bati hasiera eman nahi dion edo eskubide jakin bat baliatu nahi duen pertsona fisiko zein juridikoak administrazio publiko eskudunari aurkezten dion dokumentua. **Oh.** 39/2015 Legea, 69.2 art. **Sin.** *aurretiazko komunikazio.*

**komunikazio-egintza** [*acto de comunicación*] ♦ **Zuz. Proz.** Prozesuaren egoeraren berri

emateko erabiltzen den egintza, bai epaitegitik kanporantz (alderdiei zuzendua, adibidez), bai alderantziz (epaitegiari zuzendua, izapidetzearen azken orduaren berri emateko). Gero eta gehiago, telematikoki gauzatzen da.

**komunikazio pertsonalen kontrol** [*control de las comunicaciones personales*] ♦ **Zuz. Proz.** Zigor-prozesuko instrukzio-fasean epaileak agindu dezakeen ikerketa-eginbidea. Haren bidez era desberdinetako komunikazioak kontrola daitezke, besteak beste, posta, telegrafo edo telefono bidez egindakoak, gaur egun telekomunikazioak gailentzen badira ere.

**komunitate** [*comunidad*] ♦ **Zuz. T.** Arau jakin batzuen arabera edo interes bertsuen mesedetan elkarrekin bizi den pertsona-taldea. ♦ **Zuz. Zib.** **Ik.** *erkidego.*

**konbikzio** [*convicción*] ♦ **Kontz. Ask. Zuz.** Pertsonarengan sakon eta tinko errotuak dau den ideiak eta sinesmenak, norberaren identitate pertsonala osatzen dutenak. **Ik.** *personaren identitate, uste sendo.*

**kondena** [*condena*] ♦ **Zig. Zuz.** Epaille edo auzitegi batek emandako epaiaren zatia, alderdiren bat zerbait egitera, betetzera edo ordaintzera behartzen duena.

**kondena urratze** [*quebrantamiento de condena*] ♦ **Zig. Zuz.** Justizia Administrazioaren aurkako delitua, ezarritako kondena, segurtasun-neurria, espetxealdia, kautela-neurria edo zaintza zein eramate-prozesua haustean burutzen dena. **Oh.** ZK, 468. art. eta hurr. **Sin.** *kondena urratze delitu.*

**konduktismo** [*conductismo*] ♦ **Zuz. T.** Psikologiaren korrante bat da, aztertzen den izakiaren jokabidearen behaketan oinarritzen dena, eta estimuluei emandako erantzunetan arreta ipintzen duena.

**konfesio ofizial** [*confesión oficial*] ♦ **Kontz. Ask. Zuz.** Estatuak ofizial deklaratu duen kon-

fesioa, eta, ondorioz, lehenasun-egoeran eskaintzen dena, erlijio horren sinesmen, dogma eta moralaren defentsa eta hedapena babestuaz. **Ik.** *estatu konfesional*.

**konfiantza-abusu** [*abuso de confianza*] ♦ *Zig. Zuz.* Inoren konfiantzaz gehiegi edo era desegokian baliatzean datzan inguruabar astuntgarria. **Oh.** ZK, 22.6 art.

**konfiskatze** [*confiscación*] ♦ *Konst. Zuz. Ik.* *bahikuntza*.

**konfiskazio** [*decomiso*] ♦ *Admin. Zuz.* Arauhaustea egiteko erabilitako baliabideak nahiz arau-hauste hori egitearen ondorioz lortutako gauzak zein irabaziaz arau-hausleari kendu, eta administrazioak bereganatzea. Legez hala aurreikusitako kasuetan, zehapen-neurri gehigarri gisa ezar daiteke, baina baita zehapen-prozeduraren barruan behin-behineko neurri gisa ere. **Oh.** 2/1998 Legea, 11.3 art. **Ik.** *arau-hauste, behin-behineko neurri, zehapen*. ♦ *Zig. Zuz.* Dolozko delitua egitegatik ezarritako zigorraren ondorio erantsia. Gauza hauetakoren baten galera dakar: delituaren efektuen galera; edo delitua prestatzeko nahiz egikaritzeko erabili diren ondasunen, bitartekoen edo tresnen galera; edo delitutik datozen irabazien galera. **Oh.** ZK, 127. art. eta hurr.

**kongruentzia** [*congruencia*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuan zehar alderdien jardueraren eta epailearen jardueraren (zeina epaian gauzatzen baita) artean dagoen korrelazioa; izan ere, prozesuan ezdabaidatutakoak —objektiboki eta subjektiboki aintzat hartuta— ebazpena baldintzatzen du.

**konkurto** [*concurso*] ♦ *Fin. Zuz.* Gertaera, egoera edo gauzen aldiberekotasuna.

**konkurto zuzenbide** [*derecho concursal*] ♦ *Merkat. Zuz.* Zuzenbideak erregulatzen duen prozesu bat, zordunak dituen zorrak modu ordenatuan ordain dituzan ahalbidetzen duena. Hau da, zordun batek hartzekodun bat baino

gehiago duenean eta denei ordaintzeko adina-ko ondarrerik ez duenean, Zuzenbideak prozesu kolektibo berezi bat antolatzen du, zordunak hartzekodun guztiei baldintza berberetan ordain diezaien (*par conditio creditorum*). **Oh.** KonL, 1.1 art.

**konnotazio** [*dogmática*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *edukiera*.

**konpentsazio** [*compensación*] ♦ *Zuz. Zib.* Elkarrekikotasuna duten bi subjektuk, elkarren arteko hartzekodun eta zordun direnean aldi berean, berezko dituzten obligazio homogeneo, galdagarri eta likidoak, elkarturiko kopuruan, iraungitzeko bidea. Legezkoa ez ezik, borondatezkoa, ahalmenezkoa eta judiziala bereiz daitezke; araudian aipaturiko ukan-beharretako baten bat falta izatekotan alderdien edo epailearen esku dago konpentsazioa ezartzea.

**konpilazio** [*compilación*] ♦ *Zuz. T. 1.* Aurrez bananduta edo beste lan batzuetan zeuden liburu eta dokumentuak, edota beraien zatiak, biltzen dituen lana. **Sin.** *bilduma*. **2.** Lege edo arauen bilduma. ♦ *Zuz. Zib.* Espainiako Estatuan, 1959-1973 bitartean onartu zen lege mota bat, lurralde baten berezko Zuzenbide zibila jasotzen zuena. Zehazki, sei onartu ziren urte haietan Estatuan: Bizkaia eta Arabakoa, Kataluniakoa, Balear Uharteetakoa, Galiziakoa, Aragoikoa eta Nafarroakoa. Balear Uharteetakoa eta Nafarroakoa oraindik indarrean jarraitzen dute.

**konpromisu-kreditu** [*crédito de compromiso*] ♦ *Fin. Zuz.* Ekitaldi batean baino gehiagotan egitekoak diren jardueren finantzaketatik eratorritako betebeharrak juridikoei aurre egiteko kreditua.

**konspirazio** [*conspiración*] ♦ *Zig. Zuz.* Pres-tamen-ekintza, pertsona bi edo gehiago delitu bat egiteko ados jarri eta delitu egitea erabakitzean datzana. **Oh.** ZK, 17. art.

**konstituzio** [*constitución*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Estatu baten arau goren, haren ordenamenduaren beste arau guztiak baino goragoko maila duena. **2.** Botere konstituziogileak sorturiko testu juridikoa, zeinaren helburua baita konstituzio-botereak sortu eta botere-banaketa ezartzea.

**konstituzio-kontrakotasun** [*anticonstitucionalidad*] ♦ *Zuz. T.* Konstituzioaren aurka doanari ezartzen zaion ezaugarria.

**konstituzio-kontrakotasun arazo** [*cuestión de inconstitucionalidad*] ♦ *Konst. Zuz.* Epaile bategen eskatuta bultzatzen den prozesua, prozedura judicial batean aplikagarri den lege bat Konstituzioarekin bat datorren ala ez egiaztatzeko helburua duena. **Oh.** EK, 163. art.

**konstituziogile** [*constituyente*] ♦ *Zuz. T.* **1.** Eratu egiten duena edo konstituzioa sortzen duena. **Sin. eratzaille.** **2.** Konstituzioa eztabaidatu eta onartzeko zeregina duen batzarrari ezartzen zaion ezaugarria. **Ik. batzar konstituziogile.** **3.** Konstituzio berri bat onartzeko herriak duen ahalmen edo botere gorenari ezartzen zaion ezaugarria. **Ik. botere konstituziogile.**

**konstituzionaltasunaren kontrol** [*control de constitucionalidad*] ♦ *Konst. Zuz., Kontz. Ask. Zuz.* Konstituziozkotasun-printzipioan oinarritu duen kontrol sistema, praktikan Konstituzioaren aurkako ekintzen aurrean errekurtsoak jartzeko aukera ematean datzana.

**konstituziozkotasun-printzipio** [*principio de constitucionalidad*] ♦ *Konst. Zuz.* Ordenamendu juridikoaren irizpidea, Konstituzioa beste arau guztien eta estatu-ekintza ororen gainetik dagoela adierazten duena.

**kontabilitate-agiri** [*documento contable*] ♦ *Fin. Zuz.* Kontabilitatea jasotzen duen dokumentua.

**kontabilitate-emaiza** [*resultado contable*] ♦ *Fin. Zuz.* Kontabilitateetik irteten den emaiza.

**kontabilitate-kontrol** [*control contable*] ♦ *Fin. Zuz.* Sektore publikoaren jarduera ekonomikoaren jarraipena, haren eragiketa guztiak kontabilitatean behar bezala adierazten direla ziurtatzeko eta bermatzeko egiten dena.

**kontabilitate-printzipio** [*principio de contabilidad*] ♦ *Fin. Zuz.* Kontabilitateak aurrekusten duen printzipioa.

**kontabilitate publiko** [*contabilidad pública*] ♦ *Fin. Zuz.* Irabazi asmorik gabeko entitate publikoek eta bereziki administrazio publikoek arduratzen den kontabilitatearen adarra.

**kontrabando** [*contrabando*] ♦ *Fin. Zuz.* Aduana-zergak ordaindu gabe egiten den merkataritza-jarduera.

**kontraesan-printzipio** [*principio de contradicción*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesu ororen ezinbesteko ardatza; kondenatu aurretik alderdi guztiek beren argudioak entzunarazteko eskubidea dutela esan nahi du. Lotura estua du defentsa-eskubidearekin.

**kontraktualismo** [*contractualismo*] ♦ *Zuz. T.* Filosofia politikoaren eta zuzenbidearen filosofoaren korrante moderno bat da, jendarteren eta estatuaren jatorria gizakien arteko kontratu batean kokatzen duena, zeinaren arabera, askatasunen murrizketa onartzen baita jendarteren elkarbizitza bideratzea ahalbidetuko duten legeen truke.

**kontraneurri** [*contramedida*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Estatu baten egitate ez-zilegiaren ondorioz kaltetua izan den estatuak erantzun moduan hartutako neurri hertsatzailea, funtsean estatu horrekiko nazioarteko obligazio bat ez betetzea dakarrena. Nazioarteko Zuzenbideak onartutako neurria da, egitate ez-zilegiaren etetea eta erreparazioa helburu duen heinean. Eskuarki, izaera ekonomikoa du. **Oh.** NZBren artikuluen proiektua (2001) nazioarteko egitate ez-zilegietatik ondorioztatzen den estatuen erantzukizunari buruzkoa, 49-54. art. **Sin. errepresalia.**

**kontratzailearen profil** [*perfil de la contratante, del contratante*] ♦ *Merkat. Zuz.* Zerbitzu finantzarioak kontratatzen dituen subjektuaren ezaugarri-multzoen adierazlea. Izan ere, inbertsio-zerbitzuen enpresek bezeroen profila aintzat hartu behar dute, besteak beste, bezero hori profesional eta minoristen artean sailkatzeko. Horren arabera, produktu finantzario konplexuagoak edo xeheagoak eskainiko zaizkio bezeroari. **Oh.** BML, 78 bis art.

**kontratazioaren baldintza orokor** [*condición general de la contratación*] ♦ *Merkat. Zuz.* Masan egindako kontratuetan (atxikipen kontratuetan) erabiltzen diren klausulen multzoa. Kontratu horietan bi alderdietako batek (enpresariak) klausula horiek ezartzen ditu, aurre negoziazorik gabe, beste alderdiak (kontsumitzaileak edo enpresariak) ezinbestean bete ditzan. Klausula horiek orokorrak eta komunak dira kontratu horietara atxikitzen den ororentzat. **Oh.** KBOL, 1.1 art.

**kontratista** [*contratista*] ♦ *Zuz. Zib.* Beste baten alde, eta prezio baten truke, obra bat egiteko obligazioa bere gain hartzen duen subjektua, bere lana edo industria soilik jarriaz edo era berean, materiala ere bere kargu izanez. **Oh.** KZ, 1544. art.

**kontratu** [*contrato*] ♦ *Zuz. Zib., Nart. Zuz. Pr., Nart. Zuz. Pu., Merkat. Zuz., Zuz. Err., Lan Zuz., Admin. Zuz.* Bi pertsona edo gehiagoren arteko borondate akordioa, elkarrengan obligazioak sortzera zuzendutakoa.

**kontratu publikoen esleipen** [*adjudicación de contratos públicos*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio publiko kontratatzaileak aldeaz aurretik hautatutako kontratista bati kontratu publiko bat gauzatzeko ardura ematea, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren III. liburuko I. tituluko I. atalburuan kontratistak hautatzeko eta administrazio-kontratuak esleitzeko arautzen diren prozeduren arabera. **Oh.** 9/2017 Legea, 131. art.

**kontratugile** [*contratante*] ♦ *Zuz. Zib.* Bere borondatez, gauzak edo zerbitzuak trukatzeko xedearekin, kontratu bat gauzatzen duen subjektua. **Ik.** *kontratu.*

**kontratuzko erantzukizun** [*responsabilidad contractual*] ♦ *Zuz. Zib., Fin. Zuz.* Kontratua bete ez delako kaltea konpontzeko sortzen den betebeharra. **Ik.** *ez-betetze, kalte, kontratu.*

**kontribuzio-ahalmen** [*capacidad contributiva*] ♦ *Fin. Zuz.* Tributuak ordaintzeko ahalmena.

**kontrol kontu-hartzaile** [*control interventor*] ♦ *Fin. Zuz.* Herri-erakundearen jarduera ekonomikoaren gain ezartzen den barne-kontrola.

**konsignazio** [*consignación*] ♦ *Zuz. Zib., Zuz. Proz.* Ordenamenduak ezarritako mekanismoa, zorduna ahalmentzen duena, kasu jakin batzuetan, hartzekodunaren borondatearen kontra edo hura bazterturik, obligaziotik askatzeko, zor den gauza agintari judizialaren gordailuan eta hartzekodunaren eskura utziz. **Oh.** KZ, 1176-1178. art.

**konsignazio-zentsu** [*censo consignativo*] ♦ *Zuz. Zib.* Zentsualistak ondasun higiezin baten ordezkialde kapital bat transmititzen dueneko zentsu mota. Zentsudunarena den ondasun higiezina zentsuarekin grabatzen da jasotako kapitala urteroko kanonaren bitartez ordainduko dela bermatzeko. **Oh.** KZ, 1606. art. **Ik.** *zentsu.*

**konsolidazio fiskal** [*consolidación fiscal*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga sistema honen bidez, Sozietateen gaineko Zerga-helburuetarako, subjektu pasibo bakar bat balitz bezala zergapetzen da enpresa talde bat. **Sin.** *zerga-konsolidazio, baterakuntza fiskal.*

**kontsul** [*cónsul*] ♦ *Zuz. Err.* **1.** Erromako Errepublikan herri-batzarrak (*comitia centuriata*) urte baterako izendatutako *imperium* zuen magistratu eta agintari gorenak. **2.** Erromako Printzegoan Senatuak izendatutako *imperium* gabeko ohorezko titulua. **Sin.** *consul, consul suffectus.*



**kontsumitzaile** [*consumidora, consumidor*]

◆ *Zuz. Zib., Merkat. Zuz.* Pertsona fisikoa edo juridikoa, ondasun bat erosiz edo zerbitzu bat kontratatuz kontsumo-harreman batean azken jasotzaile gisa parte hartzen duena.

**kontsumo-mailegu** ◆ *Zuz. Zib. Ik. mailegu.*

**kontsumitzaile-irizpidea** [*principio de consumo*] ◆ *Zig. Zuz.* Lege-pilaketa gainditzeko erabilgarria den hastapena, manu penal astunak egitatea zigor arinagoarekin zigortzen duten manuak baztertzear datzana. **Oh.** ZK, 8.4 art.

**kontu korrente fiskal** [*cuenta corriente fiscal*] ◆ *Fin. Zuz.* Fiskaliterako eta Finantzetarako Departamentuak baimendutako tresna bat; zergapekoari aukera ematen dio kontuan jasotzen diren zerga-izaerako zor eta kredituak kontpensatzeko, horien titularrak denean.

**kontuen zin** [*jura de cuentas*] ◆ *Zuz. Proz.* Prozedura labur eta pribilegiatua, prokuradore eta abokatuen eskubideak —prozedura jakin batean debengatutako eta alderdiak ordaindu gabeko kredituak, hain zuzen ere— babestea helburu duena. **Oh.** PZL, 34. eta 35. art.

**kontura ordaintzeko zerga-obligazio** [*obligación tributaria de realizar pagos a cuenta*] ◆ *Fin. Zuz.* Ordainketa zatikatuak egitera behartutakoak, atxikitzaileak edo konturako sarrerak egin behar dituenak zenbateko bat ordaintzea Zerga Administrazioari. **Ik.** *konturako ordainketa.*

**konturako ordainketa** [*pago a cuenta*] ◆ *Fin. Zuz.* Etekinak diruzkoak direnean egin beharreko konturako ordainketa. **Ik.** *kontura ordaintzeko zerga-obligazio.*

**konturako sarrera** [*ingreso a cuenta*] ◆ *Fin. Zuz.* Etekinak gauzazkoak direnean egin beharreko konturako ordainketa.

**kontzeju** [*concejo*] ◆ *Admin. Zuz.* Arabako Lurralde Historikoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan udalerria baino lurralde-eremu txikiagoa

duen toki-entitatea, bere interesak kudeatzeko ahalak balia ditzakeena. **Oh.** 11/1995 Foru Araua (Araba); 6/1990 Foru Legea, 37. art. **Sin.** *herri-batzar. Ik. entitate lokal.*

**kontzentrazio-printzipio** [*principio de concentración*] ◆ *Zuz. Proz.* Ahozotasun-printzipiotik eratorritako printzipioa, epaiketaren ikustaldiaren jardunak, ahal den neurrian, saio bakarrean edo, batzuk izanez gero, gutxienez, guztiak jarraian, izapidetzea galdatzen duena.

**Kontzertu Ekonomiko** [*Concierto Económico*] ◆ *Fin. Zuz.* Euskal Autonomia Erkidegoaren finantzaketa-sistema; Euskadiren eta Espainiako estatuaren arteko harremanak ezarritzen eta arautzen ditu. **Sin.** *Ekonomia Itun.*

**Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Misto** [*Comisión Mixta del Concierto Económico*] ◆ *Fin. Zuz.* Kontzertu Ekonomikoak jasotzen duen organoa, Foru Aldundietako, Eusko Jaur-laritzako eta Estatuako administrazioari ordezkariek osatzen dutena.

**kontzientzia** [*conciencia*] ◆ *Kontz. Ask. Zuz.* Norberaren identitate pertsonala hautemateko gaitasuna. Pertsonarengan sakonki sakon eta tinko errotuak dauden ideiek eta sinesmenek osatzen dute. **Ik.** *konbikzio, kontzientzia-askatasun, kontzientzia-eragozpen, uste sendo.*

**kontzientzia-askatasun** [*libertad de conciencia*] ◆ *Kontz. Ask. Zuz.* Norberaren kontzientzia libreki eratzeko eta konbikzioei askatasunez eusteko zein konbikzio horiek aldatzeko, adierazteko eta hauen arabera jarduteko oinarritzko eskubidea. **Ik.** *konbikzio, kontzientzia-askatasun, kontzientzia-eragozpen, uste sendo.*

**kontzientzia-eragozpen** [*objeción de conciencia*] ◆ *Kontz. Ask. Zuz.* Arau juridiko baten eta norberaren kontzientzia-arauaren arteko kontraesanaren aurrean, norberaren konbikzioei lehentasuna ematearen aldeko jarrera pertsonala. Horren aurrean bi egoera gerta litezke: arau juridikoak jarrera hau legitimatzea ezarri-

tako betebeharrak nagusiari salbuespen edo beste aukera batzuk aitortuaz (*secundum legem*) eta halakorik ez aurreikusirik, eta jarrera hori zigortzea (*contra legem*). **Sin.** *kontzientzia objezio*. **Ik.** *kontzientzia, kontzientzia-askatasun, kontzientzia-gatazka*.

**kontzientzia fiskal** [*objeción fiscal*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* **Ik.** *eragozpen fiskal*.

**kontzientzia-gatazka** [*conflicto de conciencia*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Arau juridiko baten eta norberaren konbikzioak agintzen dutenaren arteko kontraesana. **Sin.** *kontzientziatzko gatazka*. **Ik.** *kontzientzia, kontzientzia-askatasun, kontzientzia-eragozpen*.

**kontzientzia-objezio** [*objeción de conciencia*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* **Ik.** *kontzientzia-eragozpen*.

**kontzientziatzko gatazka** [*conflicto de conciencia*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* **Ik.** *kontzientzia-gatazka*.

**kontziliazio-batzorde** [*comisión de conciliación*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* **Ik.** *adiskidetze-batzorde*.

**kooperazio indartu** [*cooperación reforzada*] ♦ *EB. Zuz.* EBren eskumen eskusibokoak ez diren gaietan gutxienez bederatzi estatu kidearen artean aplikatuko den egintza bat hartzeko aukera zabaltzen duen prozedura. Azken baliabide gisa erabili behar den prozedura honen xedea EBren helburuak sustatzea eta integrazioan sakontzea da, estatu kide guztiak batera politika jakin batean aurrera egiteko ados jartzen ez diren egoeretan. **Oh.** EBT, 20. art. **Sin.** *lankidetzaren indartu*.

**kooperazio leialaren printzipio** [*principio de cooperación leal*] ♦ *EB. Zuz.* Estatu kideen eta EBko erakundearen arteko harremanak eraentzen dituen printzipio orokorra, elkarri leialtasuna godetzeko betebeharrean oinarritzen dena. **Oh.** EBT, 4.3 art. **Sin.** *lankidetzaren leialaren printzipio*.

**koordinazio-printzipio** [*principio de coordinación*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio publikoaren antolakuntza-printzipioa, helburu duena bermatzea jarduketa-koherentzia egon dadin administrazio bereko organoen artean (hierarkia-harremanik ez dutenean) nahiz administrazioen artean. Teknika ugari erabili daitezke koordinazio hori erdiesteko: teknika funtzionalak (planak, programa zein egitasmoak, jarraibideak, eskudantzia-gatazkek eta abar) edo organikoak. **Oh.** 40/2015 Legea, 3.1 k eta 140.1 e art. **Ik.** *administrazio-organo, administrazio publiko, eskudantzia-gatazka, hierarkia*.

**korroa** [*corona*] ♦ *Konst. Zuz.* Estatu monarkiaren berezko erakundea, non erregea edo erregeina baita estatuburua.

**korporazio** [*corporación*] ♦ *Zuz. Zib.* Zuzenbide publikoak arautzen dituen pertsona juridiko publikoaren taldea.

**kosmos-ikuspegi** [*cosmovisión*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Munduaren eta, oro har, bizitzaren deskribapena, azalpena eta interpretazioa definitzen duten konbikzioen multzoa. **Sin.** *kosmosaren ikuspegi*. **Ik.** *konbikzio, uste sendo*.

**kosmosaren ikuspegi** [*cosmovisión*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* **Ik.** *kosmos-ikuspegi*.

**kostu prozesalak** [*costas procesales*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *kostuak*.

**kostuak** [*costas*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuaren iza-pidetzearen ondorioz sorturiko eduki ekonomikoko gastuen zati bat, hain zuzen ere, egintza prozesalean jatorria dutenak. **Oh.** PZL, 214. art. **Sin.** *kostu prozesalak*.

**kotizazio** [*cotización*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren ekarpeneko aldaeran, bai enpresaburuek eta bai langileek ere, derrigorrez egin beharreko kotizazioa.

**kotizazio-aldi** [*periodo de cotización*] ♦ *Lan Zuz.* Kotizatzen den denbora aldia.

**kotizazio-kontu** [*cuenta de cotización*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburua titular duen bankuko kontua. Gizarte Segurantzak hortik eskuratuko du kotizazioa.

**kotizazio-kuota** [*cuota de cotización*] ♦ *Lan Zuz.* Kotizatu beharreko zenbatekoa.

**kotizazio-oinarri** [*base de cotización*] ♦ *Lan Zuz.* Kotizazioaren zenbatekoa kalkulatzeko erabiltzen den oinarria; oro har, oinarri hori soldata da. **Oh.** GSLO, 74. art.

**kotizaziopeko pentsio** [*pensión contributiva*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** pentsio kontributibo.

**kreditu-aseguru** [*seguro de crédito*] ♦ *Merkat. Zuz.* Aseguru mota bat, zeinetan aseguru-poliza hartzekodunaren eta enpresa aseguratazailearen artean sinatzen baita. Horren bidez aseguratazaileak zordunek ordaindu gabe utz ditzaketen zorrak ordainduko ditu, eta zor horiek hartzekodunaren ondarean sor dezakeen kaltea gutxitu. **Oh.** AKL, 69. art.

**kreditu-eskubide** [*derecho de crédito*] ♦ *Zuz. Zib., Merkat. Zuz.* Hartzekodunak zordunaren gainean duen eskubidea, honengandik zorra (diru kantitate edo gauza baliokidea) jaso eta eskatzeko.

**kreditu-lagapen** [*cesión de crédito*] ♦ *Zuz. Zib., Merkat. Zuz.* Obligaziozko erlazio batean gerta daitekeen transmisio-negozioa, kanpoko hirugarren batek hartzekodunarekin bere posizio juridikoa hartuko duela hitzartzean. Kreditu-lagapenaren bitartez zordunari (lagapedunari) hartzekodun berri bat ezartzen zaio, jatorrizko hartzekoduna (lagatzailea) desageratuz eta bere zorra hirugarren bati (lagapen-hartzaileari) lotuz. Kode Zibilak salerosketa-kontratu moduan arautzen badu ere, beste edozein transmisio-negozioaren bidez ere eraman daiteke aurrera kreditu-lagapena, betiere, kreditua baliozkoa eta transmitigarria baldin bada. Bankuek eta entitate finantzarioek maiz laga ohi dituzte kreditu-eskubideak, merkatuan ordain-

du gabeko kredituak eskuratzeko sortu diren enpresen mesedetan. **Oh.** ZK, 1.527. art. **Sin.** *kredituaren lagapen.* **Ik.** *lagapen hartzaile, lagapedun, lagatzaile.*

**kreditu-lehenespen** [*prelación de créditos*] ♦ *Fin. Zuz.* **Ik.** *lehentasun-eskubide.*

**kredituaren lagapen** [*cesion de crédito*] ♦ *Zuz. Zib., Merkat. Zuz.* **Ik.** *kreditu-lagapen.*

**kuadrilla** [*cuadrilla*] ♦ *Admin. Zuz.* Arabako Lurralde Historikoan nortasun juridiko propioa daukan eta zuzenbide publikokoa den tokierakundea. Arabako lurraldea zazpi kuadrillek osatzen dute: Vitoria-Gasteiz, Aiara, Arabako Lautada, Biasteri-Arabako Errioxa, Zuia, Añana, eta Kanpezu-Arabako Mendialdea. **Oh.** 63/1989 Foru Araua (Araba). **Ik.** *entitate lokal, mankomunitate.*

**kuasi-kontratu** [*cuasicontrato*] ♦ *Zuz. Zib.* Egitate zilegia eta borondate hutsekoa; horien ondorioz, beren egilea obligaziopean geratzen da hirugarren bati begira, eta, batzuetan, elkarrekiko obligazioa sortzen da interesdunen artean. Legeak bi kuasi-kontratu jaso eta garatzen ditu: «negozioen kudeaketa ofiziosoa» eta «zor ez dena kobratzea». Kodeak jasotzen dituen kuasi-kontratuez gain, ez da beste kuasi-kontraturik onartzen.

**kudeaketa prozesal eta administratiboko kidego** [*cuero de gestión procesal y administrativa*] ♦ *Zuz. Proz.* Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden funtzionarioen kidego orokorra: goi-mailako titulua eskatzen da kidegoan sartzeko eta goi-mailako jarduera prozesalean laguntzen dute. **Oh.** BJLO, 476. art.

**kulpa** [*culpa*] ♦ *Zuz. Zib.* **Ik.** *erru.*

**kulpadun** [*culpable*] ♦ *Konst. Zuz.* **Ik.** *errudun.*

**kultu-askatasun** [*libertad de culto*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Erlijio-askatasunaren edukaren adierazle bat. Kultu-ekintzak, zeremoniak edo erri-tuak askatasunez burutzeko eskubidea. **Oh.** EK,

16.1 art. **Sin.** *kulturako askatasun*. **Ik.** *erlijio-askatasun, ordenu publiko*.

**kultu-leku** [*lugar de culto*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Komunitate erlijiosoek kultu-ekintzak, zere-  
moniak edo errituak egiteko egokitutako espa-  
zioa. **Sin.** *kulturako leku*. **Ik.** *kultu-askatasun*.

**kultu-ministro** [*ministra, ministro de culto*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Konfesio baten berezko litur-  
gia edo zerbitzu-erlijiosoak zuzentzeko es-  
kuduna den pertsona. **Sin.** *kulturako ministro*.  
**Ik.** *kultu-askatasun, kultu-leku*.

**kultura** [*cultura*] ♦ *Zuz. T. 1.* Herri bat  
ezaugarritzen duten ezaguera, ideia, bizimodu,  
usadio eta ohituren multzoa. **2.** Norbanakoak  
kritikotasuna eraiki dezan ahalbidetzen duen  
ezagueren multzoa.

**kultura-aniztasun** [*pluralismo cultural*] ♦  
*Kontz. Ask. Zuz.* Kultura-dibertsitatearen ai-  
torpenean eta aniztasunaren errespetuan oi-  
narrituta, gizartearen kohesioa lortzea helbu-  
ru duten politikak. **Sin.** *kultura-pluralismo*.  
**Ik.** *gizarte-aniztasun, gizarte-multikultural, kulturadibertsitate*.

**kultura-dibertsitate** [*diversidad cultural*] ♦  
*Kontz. Ask. Zuz.* Gizarte demokratikoetan aitor-  
tutako pluraltasunaren eta oinarritzko eskubideen  
garapenaren ondorioz sortutako kultura aniztasu-  
na. **Ik.** *gizarte-aniztasun, kultura-aniztasun*.

**kultura-identitate** [*identidad cultural*] ♦  
*Kontz. Ask. Zuz.* Bere partaideak talde horren  
kide bezala identifikatzea posible egiten du-  
ten kultura baten ezaugarri berezien multzoa.  
**Sin.** *identitate kultural*.

**kultura-pluralismo** [*pluralidad cultural*] ♦  
*Kontz. Ask. Zuz.* **Ik.** *kultura-aniztasun*.

**kulturako askatasun** [*libertad de culto*] ♦  
*Kontz. Ask. Zuz.* **Ik.** *kultu-askatasun*.

**kulturako leku** [*centro de culto*] ♦ *Kontz.*  
*Ask. Zuz.* **Ik.** *kultu-leku*.

**kulturartekotasun** [*interculturalidad*] ♦  
*Kontz. Ask. Zuz.* Gizartean biltzen diren kul-  
tura-identitateen arteko komunikazioa eta in-  
terakzioa berdintasunean gerta daitezzen bultza-  
tzen duten politikak. **Ik.** *kultura-aniztasun*.

**kuota** [*cuota*] ♦ *Zuz. Zib.* Eskubide edo on-  
dasun baten titular subjektu bat baino gehiago  
direnean, titulartasunaren zenbatekoa neurtzen  
duen elementua. Kuota horrek ezarriko du zen-  
batekoak diren gure eskubide eta obligazioak.  
Adibidez, jabetza erkidegoan, etxebizitza ba-  
ten %20ko kuota badut, printzipioz, gastuen  
%20 ordaindu beharko dut, eta irabazien %20  
egokituko zait era berean.

**kuota efektibo** [*cuota efectiva*] ♦ *Fin. Zuz.*  
**Ik.** *benetako kuota*.

**kuota likido** [*cuota líquida*] ♦ *Fin. Zuz.*  
Kuota osoari tributu bakoitzaren foru-arauan  
aurreikusitako murrizpen, hobari, gehiketa edo  
koefizienteak aplikatuta lortzen den kopurua.

**kuota oso** [*cuota íntegra*] ♦ *Fin. Zuz.* Liki-  
dazio-oinarriari karga-tasa aplikatzean lortzen  
den kuota.

**kupo** [*cupo*] ♦ *Fin. Zuz.* Euskal Autonomia  
Erkidegoak, modu eragingarrian bere gain har-  
tu ez dituen eskumenak finantzatzeko, Espai-  
niako estatuari ordaindu beharreko kopurua.

**kuradore** [*curadora, curador*] ♦ *Zuz. Zib.*  
Subjektu baten gaitasuna osatzeko zeregina  
duen pertsona, berau ordezkatzera iritsi gabe.  
Kuradoreak ikuskapen lanak egin behar ditu.  
Askotan, bere adostasuna ere beharrezkoa izat-  
en da, bere zaintzapean dagoen pertsonaren  
adostasunaz gain, kontratua modu egokian  
eratua izan dadin. **Oh.** KZ, 286. art. eta hurr.  
**Ik.** *kuratela*.

**kuratela** [*curatela*] ♦ *Zuz. Zib.* Subjektu baten  
gaitasuna osatzera bideraturiko babes erakun-  
dea, non kuradoreak ez duen subjektua ordezk-  
katzen, baizik eta zenbait negozio ikuskatzean

datza bere zeregina. Kuradoretzapean egon daiteke: emantzipatua, adinez gaitua, ezgaitua edo zarrastela. **Oh.** KZ, 286. art. eta hurr.

**kutxa bakar** [*caja única*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren finantza-baliabide guztiak jasotzen dituen organoa. Organo hori Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra da.



**lagapedun** [*cedida, cedido*] ♦ *Zuz. Zib.* Kreditu-lagapen bateko zorduna. **Ik.** *kreditu-lagapen*.

**lagapen-hartzaile** [*cesionaria, cesionario*] ♦ *Zuz. Zib.* Kreditu-lagapen bateko hirugarren eskuratzaila. **Ik.** *kreditu-lagapen*.

**lagatzaile** [*cedente*] ♦ *Zuz. Zib.* Kreditu-lagapen bateko jatorrizko hartzekoduna. **Ik.** *kreditu-lagapen*.

**laginketa bidezko fiskalizazio** [*fiscalización por muestreo*] ♦ *Fin. Zuz.* **Ik.** *laginketazko fiskalizazio*.

**laginketazko fiskalizazio** [*fiscalización por muestreo*] ♦ *Fin. Zuz.* Laginak aztertzean datzan kontrol-mekanismoa; zergen kudeaketan eta kopuru handiko ekintzetan horren ikuskaritza egiteko prozedurak azaltzen duen eran aztertzen dira laginak. **Sin.** *laginketa bidezko fiskalizazio*.

**laguntza humanitario** [*asistencia humanitaria*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Eskuarki, naturak zein gizakiak eragindako hondamendien biktimak zaintzearen eta hondamendiaren suntsidura leuntzearen zabaltzen den larrialdiko laguntza. **Sin.** *babes humanitario*.

**laguntza judicial** [*auxilio judicial*] ♦ *Zuz. Proz.* Funtzio jurisdikzionalaren egikaritzan eta norberaren mugapetik at eginbideren bat praktikatu behar denean legeak epaile eta auzitegien artean aurreikusten duen laguntza edo elkarlana. **Oh.** BJLO, 273. art.

**laguntza judizialeko kidego** [*cuero de auxilio judicial*] ♦ *Zuz. Proz.* Justizia Administrazioaren zerbitzura dagoen kidego orokorra; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) titulu akademikoa eskatzen da kidegoan sartzeko eta organo jurisdikzionalen jardueran laguntza ematea dagokie. **Oh.** BJLO, 478. art.

**laguntza-, koordinazio- eta osagarritasun-eskumen** [*competencias de apoyo, coordinación y complemento*] ♦ *EB. Zuz.* EBren jarduera estatu kideenarekiko osagarria den eskumenen eremua. EBren jarduera honek kooperazioa sustatzeko xedea dauka. Espresuki baztertzeko da estatu kideen araudien harmonizazioa egiteko eskumena. **Oh.** EBFT, 2.5 eta 6. art. **Sin.** *babes-, koordinazio- eta osagarritasun-eskumen*.

**laikotasun** [*laicidad*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Printzipio honen bereizgarri dira, batetik, erlijio-sinesmenekiko estatuaren neutraltasuna, eta, bestetik, eremu politikoaren eta erlijiosoaren

arteko banaketa. Laikotasuna herritarren erlijio-askatasuna berdintasun egoeran balia dadin bermatzeko baldintza da. **Ik.** *estatu akonfesional, estatu-laiko, estatu neutral, laikotasun positibo.*

**laikotasun positibo** [*laicidad positiva*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Laikotasunaren bertsio honetan, Estatuak, neutraltasun erlijiosoan mantenduta, positiboki jarduten du erlijio-askatasuna bermatzeko Konstituzioaren 16.3 artikuluan aipatzen den lankidetzaren printzipioaren arabera. **Oh.** EK, 16.3 art. **Ik.** *estatu akonfesional, estatu laiko, estatu neutral, laikotasun, lankidetzaren printzipio.*

**laizismo** [*laicismo*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Estatuaren helburuekiko bateraezintasunagatik sortzen den fenomeno erlijiosoen balorazio ezkorra. Horren arabera, eremu publikotik kanporatu beharrekoa edo kasurik muturrenekoetan, debekatu edo desagertu beharrekoa dela kontsideratzen da erlijioa. **Ik.** *estatu laizista.*

**lan** [*trabajo*] ♦ *Lan Zuz.* Ordainaren truke egiten den aktibitate produktiboa.

**lan-administrazio** [*administración laboral*] ♦ *Lan Zuz.* Lanaren eta Gizarte Segurantzaren arloaren ardura duen Administrazio publikoaren atala. **Sin.** *administrazio laboral.*

**lan-agindu** [*orden laboral*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuaren zuzendaritza-boterean oinarrituta, enpresaburuak lanaren esparruan langileari emandako agindua. **Oh.** LE, 20. art.

**lan-agintaritza** [*autoridad laboral*] ♦ *Lan Zuz.* Lan-administrazio publikoaren esparruan, aginduak eman ditzakeen autoritatea.

**lan-arrisku** [*riesgo laboral*] ♦ *Lan Zuz.* Lanak sorturiko arriskua.

**lan autonomo** [*trabajo autónomo*] ♦ *Lan Zuz.* Norbere kontura egiten den lana.

**lan-baldintza** [*condición de trabajo*] ♦ *Lan Zuz.* Lan-betebeharraren ezaugarri bat ezartzen duen elementua.

**lan-erregelamendu** [*reglamento laboral*] ♦ *Lan Zuz.* Lan arloa arautzen duen erregelamendu administratiboa. **Sin.** *erregelamendu laboral.*

**lan-eskubide** [*derecho laboral*] ♦ *Lan Zuz.* Langilearen eskubidea, bere lanaren arlokoa.

**lan-eszedentzia** [*excedencia*] ♦ *Admin. Zuz.* Funtzionario publikoari dagokion lan-jardunaren etenaldia, administrazio publikora itzultzeko eskubidea izan arren, kasurik gehienetan etenaldiak dirauen bitartean ordainsari-eskubidea galtzea dakarrena. Kontzeptu generikoa da, eta hainbat kategoria hartzen ditu barne, hala nola, norberaren gogoz hartutako lan-utzialdia, familia elkartzeko xedez hartutako lan-utzialdia, familiartekoren bat zaintzeko xedez hartutako lan-utzialdia, genero-indarkeriak eragindako lan-utzialdia edota terrorismoak eragindako lan-utzialdia. **Oh.** 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 89. art. **Sin.** *eszedentzia.* **Ik.** *egoera, funtzionario publiko.*

**lan-etekin** [*rendimiento de trabajo*] ♦ *Fin. Zuz.* Zuzenean edo zeharka lan pertsonalaren, lan-harremanaren edo estatutupeko harremanaren ondorioz dirutan edo gauzatan lortutako etekina, jarduera ekonomikoaren izaera ez duena.

**lan-etekin irregular** [*rendimiento de trabajo irregular*] ♦ *Fin. Zuz.* Batez ere Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren esparruan agertzen da, denboran zehar irregularlari jasotako ordainsariak izaten direnean, eta horregatik karga tasa txikiagoa izaten du.

**lan-harreman** [*relación laboral*] ♦ *Lan Zuz.* Langilearen eta enpresaburuaren arteko lanaren arloko hartu-eman. **Oh.** LE, 1.1 art.

**lan-harreman indibidual** [*relación laboral individual*] ♦ *Lan Zuz.* Langile indibidualaren eta enpresaburuaren arteko lanaren arloko hartu-eman. Lan-kontratuak bideratzen duen harremana da. **Oh.** LE, 1.1 art.

**lan-harreman kolektibo** [*relación laboral colectiva*] ♦ *Lan Zuz.* Langileen ordezkarien eta enpresaburuaren edo enpresaburu-elkarteen arteko lanaren arloko hartu-eman.

**lan-harreman ordaindu** [*relación laboral retribuida*] ♦ *Lan Zuz.* Lana ordaintzen denean enpresaburuaren eta langilearen artean ezarritzen den harremana.

**lan-harremaneko langile** [*empleada, empleado laboral; personal laboral*] ♦ *Admin. Zuz.* Lan Zuzenbidearen arabera kontratu idatzia bitarteko, administrazioan zein erakunde publiko batean zerbitzuak eskaintzen dituen pertsona. Kontratuaren iraupenaren eta ezaugarrien arabera, finkoa, mugagabea edo aldi baterakoa izan daiteke lan-harremana. **Oh.** 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 11. art. **Sin.** lan-kontratupeko langile. **Ik.** enplegatutako publiko.

**lan-harremanetako gatazka** [*conflicto laboral*] ♦ *Lan Zuz.* Lan-harremanetan azaleratutako desadostasuna. Langileen eta enpresaburuaren arteko desadostasuna.

**lan-kontratu** [*contrato de trabajo*] ♦ *Lan Zuz.* Langileak eta enpresaburuak beren arteko lan-harremana garatzeko hartutako akordioa. Lan hori borondatezkoa, menpekota eta ordaindua izango da, eta enpresaburuarentzat izango dira lanaren fruituak. **Oh.** LE, 1.1 art.

**lan-kontratu mugagabe** [*contrato por tiempo indefinido*] ♦ *Lan Zuz.* Iraupen mugagabeko lan-harremanari dagokion kontratua. Lan-zuzenbideko kontratu arrunta da. **Oh.** LE, 15. art.

**lan-kontratuaren alderdi** [*parte del contrato de trabajo*] ♦ *Lan Zuz.* Lan-kontratu adosten duen alderdietako bat, langilea zein enpresaburu.

**lan-kontratuaren amaiera** [*extinción del contrato*] ♦ *Lan Zuz.* Arrazoi desberdinengatik, lan-harremana amaitzea. **Oh.** LE, 49. art.

**lan-kontratuaren mota** [*modalidad de contrato de trabajo*] ♦ *Lan Zuz.* Lan-kontratuaren aldaera, lan-kontratuaren ezaugarri komunak edukita, ezaugarri bereziren bat duena iraupenari dagokionez, lanaldiari dagokionez, etab.

**lan-kontratupeko langile** [*empleada, empleado laboral, personal laboral*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** lan-harremaneko langile.

**lan-ohitura** [*costumbre laboral*] ♦ *Lan Zuz.* Lan-arloko araua. Derrigorrezkoa dela (*opinio iuris*) uste den portaera errepikakorretik sortua. **Oh.** LE, 3.4 art.

**lan ordaindu** [*trabajo remunerado*] ♦ *Lan Zuz.* Ordaindua den lana, ordainaren truke egiten dena. **Oh.** LE, 1.1 art.

**lan-prestazio** [*prestación laboral*] ♦ *Lan Zuz.* Langileak ematen duen zerbitzua; bere lana.

**lan produktibo** [*trabajo productivo*] ♦ *Lan Zuz.* Ondasunak zein zerbitzuak ekoizten dituen lana.

**lanaldi** [*jornada*] ♦ *Lan Zuz.* Langileak lana zor duen aldia; lanordu kopurua. **Oh.** LE, 34. art.

**lanaldi-murrizketa** [*reducción de jornada*] ♦ *Lan Zuz.* Hitzartutako lanaldia murriztea. Eskubidea da, baina soldataren murrizketa proportzionala dakar. **Oh.** LE, 37. art.

**lanaldi oso** [*tiempo completo*] ♦ *Lan Zuz.* Lanaldi osoaren ezaugarria. Eskuarki, eguneko 8 lanordukoa den lanaldiari dagokio. **Oh.** LE, 12. art.; LE, 34. art.

**lanaldi osoko kontratu** [*contrato a tiempo completo*] ♦ *Lan Zuz.* Lanaldi osoari dagokion kontratua. Eskuarki, eguneko 8 lanordukoa den lanaldiari dagokio. **Oh.** LE, 12. art.; LE, 34. art.

**lanaldi osoko lan-kontratu** [*contrato de trabajo a tiempo completo*] ♦ *Lan Zuz.* Eskuarki, eguneko 8 lanorduko lanaldia.



**lanaldi partzial 1** [*jornada parcial*] ♦ *Lan Zuz.* Lanaldi osoaren azpitik dagoen lanaldia, eskuarki, eguneko 8 lanordutik azpikoa. **Oh.** LE, 12. art.

**lanaldi partzial 2** [*tiempo parcial*] ♦ *Lan Zuz.* Lanaldi partzialaren ezaugarria. Eskuarki, eguneko 8 lanordu azpikoa den lanaldiari dagokio. **Oh.** LE, 12. art.

**lanaldi partzialeko kontratu** [*contrato a tiempo parcial*] ♦ *Lan Zuz.* Lanaldi partzialari dagokion kontratua. Eskuarki, eguneko 8 lanordu azpikoa den lanaldiari dagokio. **Oh.** LE, 12. art.

**lanaldi partzialeko lan** [*trabajo a tiempo parcial*] ♦ *Lan Zuz.* Lanaldi partzialean egindako lana. Eskuarki, eguneko 8 lanordu azpikoa den lanaldiari dagokio. **Oh.** LE, 12. art.

**lanaldi partzialeko lan-kontratu** [*contrato laboral a tiempo parcial*] ♦ *Lan Zuz.* Lanaldi osoaren azpitik dagoen lanaldia adostu duen lan-kontratua. **Oh.** LE, 12. art.

**lanbide** [*profesión*] ♦ *Lan Zuz.* Lan-mota. **Sin.** *profesio*.

**lanbide-gaixotasun** [*enfermedad profesional*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzari, lanak eragindako gaixotasuna, kasuko lan zehatzaren eta gaixotasun zehatzaren arteko lotura gaixotasun profesionalen zerrendan jasota baldin badago. Jasota egon ezean, lanak eragindako gaixotasuna lan-istripuztat hartzen da. **Oh.** GSLO, 157. art. **Sin.** *gaixotasun profesional*.

**lanbide-heziketa** [*formación profesional*] ♦ *Lan Zuz.* Lan egitera bideratutako ikasketak. **Sin.** *heziketa profesional*.

**landa-errentamendu** [*arrendamiento rústico*] ♦ *Zuz. Zib.* Kontratu bat, zeinaren bidez, kontratugile batek (errentatzaileak) beste alderdiari (errentariari) lagatzen dion finka bat edo gehiago, edo finka horien zatiren bat, aldi baterako, horietatik nekazaritza-, abeltzaintza-

edo baso-aprobetxamendua atera dezan, prezio edo errenta baten truke.

**landa-zortasun** [*servidumbre de predios*] ♦ *Zuz. Zib.* Jabe baten hiri edo landa-onibarrak (onibar zerbitzaria deiturikoak) grabatzen duen eskubide erreal mugatua beste onibar baten (onibar nagusi deritzonaren) titularraren probetxurako. Eskubide honen titularrak onibarrak gozatzeko aukera du, eskubidearen eraketa-tituluan adierazitako forman eta epean. **Ik.** *onibar zortasun*.

**laneko arriskuen prebentzio** [*prevención de riesgos laborales*] ♦ *Lan Zuz.* Lan mota batean dauden arriskuak identifikatu, eta arriskuei aurre egiteko plangintza egitea.

**laneko segurtasun** [*seguridad laboral*] ♦ *Lan Zuz.* Lan mota batean segurtasuna zaintzeari dagokion arloa.

**lanerako ezgaitasun** [*incapacidad profesional*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *lanerako ezintasun*.

**lanerako ezintasun** [*incapacidad laboral*] ♦ *Lan Zuz.* Lan egin ezina, langileak izandako istripu zein gaixotasunak eragina. **Sin.** *lanerako ezgaitasun*.

**lanesku** [*mano de obra*] ♦ *Lan Zuz.* Ondasun edo zerbitzuen ekoizpena bideratutako lana.

**langabezia** [*desempleo*] ♦ *Lan Zuz.* Langileak enplegua galtzen duenean, galtze hori borondatezkoa izan gabe, gertatzen den egoera. **Oh.** GSLO, 267. art.

**langabezia-prestazio** [*prestación de desempleo*] ♦ *Lan Zuz.* Betekizunak betez gero, langabezia egoeran dagoen langileari dagokion prestazioa.

**langabezia-subsidio** [*subsidio de desempleo*] ♦ *Lan Zuz.* Betekizunak betez gero, langabezia egoeran dagoen langileari dagokion maila asistentzialeko prestazioa. **Oh.** GSLO, III. Tit., III. Kap.

**langabezia-tasa** [*tasa de desempleo*] ♦ *Lan Zuz.* Populazio aktiboaren artean, enplegu bila eta enplegurik gabe dauden pertsonen portzentajea.

**langile** [*trabajadora, trabajador*] ♦ *Lan Zuz.* Lan egiten duen pertsona.

**langile autonomo** [*trabajadora autónoma, trabajador autónomo*] ♦ *Lan Zuz.* Bere kontura lan egiten duen pertsona. **Oh.** LAE, 1. art.

**langile autonomoen araubide berezi** [*régimen especial de trabajadoras autónomas, trabajadores autónomos*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren, langile autonomoen dagokien araubide berezia. **Oh.** GSLO, IV. Tit. **Sin.** langile autonomoen erregimen berezi.

**langile autonomoen erregimen berezi** [*régimen especial de trabajadoras autónomas, trabajadores autónomos*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** langile autonomoen araubide berezi.

**langile-talde** [*grupo de trabajadoras, trabajadores*] ♦ *Lan Zuz.* Talde-lana esleitzen zaion langile taldea. Lan-kontratu bakarra egin daiteke talde osoarekin. **Oh.** LE, 10. art.

**langileen delegatu** [*delegada, delegado de personal*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresako langileak ordezkatzeko dituen organoa, enpresan diharduten langile kopurua 50ekoa baino txikiagoa denean. **Oh.** LE 62. at. **Ik.** enpresa-batzordeko kide.

**langileen estatutu** [*estatuto de las trabajadoras, los trabajadores*] ♦ *Lan Zuz.* Langileen eskubide eta betebeharrak nagusiak arautzen dituen legea.

**langileen ordezkari** [*representante de las trabajadoras, los trabajadores*] ♦ *Lan Zuz.* Langileen ordezkariak kolektiboa gautzen duen organoa. Izan daiteke ordezkariak bateratua (langileen delegatua ala enpresa-batzordea), edo ordezkariak sindikala (atal sindikala, delegatu sindikala, ala sindikatua).

**langileen zirkulazio aske** [*libre circulación de trabajadoras, trabajadores*] ♦ *EB. Zuz.* EBren oinarriko lau zirkulazio askatasunetako bat, benetako barne-merkatua lortzeko beharrezkoa dena. Honen arabera, Batasuneko herritar orok eskubidea du ordainduriko lanbide batean jarduteko edozein estatu kidetan, edozein delarik ere bere nazionalitatea, lan egin nahi duen estatuko nazionalitatea duten pertsonen baldintza berberetan. **Oh.** EBFT, 45. art.

**lankidetzaren indartu** [*cooperación reforzada*] ♦ *EB. Zuz.* **Ik.** kooperazio indartu.

**lankidetzaren leialaren printzipio** [*principio de cooperación leal*] ♦ *EB. Zuz.* **Ik.** kooperazio leialaren printzipio.

**lankidetzaren printzipio** [*principio de cooperación*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Erljio-askatasunaren egikaritzaren errazteko botere publikoak konfesoekin lankidetzaren harremanak izan dituzan galdatzen duen printzipioa. **Oh.** EK, 16.3. art. **Ik.** laikotasun positibo.

**lanordua** [*hora de trabajo*] ♦ *Lan Zuz.* Lan egiten den ordua.

**lanpostu** [*puesto de trabajo*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresa batean, funtzio jakin batzuei dagokien esparrua.

**lanpostu-maila** [*nivel del puesto de trabajo*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** lanpostuaren maila.

**lanpostu-zerrenda** [*relación de puestos de trabajo*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio publikoek beren antolakuntza egituratzeko duten oinarriko tresna, bertan aurreikusten baitira administrazio-unitate bateko lanpostuak eta lanpostu bakoitzaren ezaugarri nagusienak (denominazioa, lanbide-sailkapeneko taldea, atxikita dagoen kidegoa edo eskala —hala badagokio—, hornitzeko sistema eta ordainsari osagarria, besteak beste). **Oh.** 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 74. art. **Sin.** lanpostuen zerrenda. **Ik.** eskala, kidego, talde.

**lanpostuaren maila** [*nivel del puesto de trabajo*] ♦ *Admin. Zuz.* Enplegu publikoaren egitura lanpostuak sailkatzeko erabiltzen den kategoria, aldi berean, lanpostu jakin bat betetzen duen karrera-funtzionarioaren gradu pertsonala finkatzeko balioko duena. Espainiako Administrazio Orokorrean eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazioetan lanpostuak 30 mailatan sailkatzen dira. **Oh.** 364/1995 Errege Dekretua, 70. art.; 6/1989 Legea, 45. art. **Sin.** *lanpostu-maila. Ik. funtzionario, gradu pertsonal.*

**lanpostuen zerrenda** [*relación de puestos de trabajo*] ♦ *Admin. Zuz. Ik. lanpostu-zerrenda.*

**lansari** [*sueldo*] ♦ *Lan Zuz. Ik. soldata.*

**lantoki** [*centro de trabajo*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaren baitan dagoen lantokia. Enpresak lantoki bakarra ala hainbat eduki ditzake. **Oh.** LE, 1.5 art. **Sin.** *enpresako lantoki.*

**lantoki anitzeko enpresa** [*empresa con más de un centro de trabajo*] ♦ *Lan Zuz.* Lantoki bat baino gehiago dituen enpresa. **Oh.** LE, 1.5 art. **Sin.** *enpresa lantoki anitzeko.*

**lapurreta** [*robo*] ♦ *Zig. Zuz.* Ondarearen aurkako delitua: irabaziak lortzeko asmoz beste baten gauza higigarriez jabetzea, pertsonen kontrako indarkeria edo larderia baliatuz edo gauzetan indarra erabiliz. **Oh.** ZK, 237. art. eta hurr. **Ik.** *lapurreta-delitu.*

**larderia** [*intimidación*] ♦ *Zig. Zuz.* Zenbait delitu burutzeko beharrezkoa den indar psikikoa (*vis psíquica*). **Oh.** ZK, 169. eta 243. art.

**largespen** [*sobresimiento*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuari ezohiko amaiera ematen dion ebazpena, epailearena zein Justizia Administrazioaren letratuarena. **Sin.** *artxibatze, jarduerak artxibatze, largeste.*

**largespen aske** [*sobresimiento libre*] ♦ *Zuz. Proz.* Zigor-prozesuari behin betiko amaiera ematen dion ebazpena judiciala, ahozko epai-

keta saihesten duena; auto batean jasotzen da egitatearen zantzurik ez egoteagatik, egitatea delitu ez izateagatik edota ikertua zigor erantzukizunetik salbuetsia agertzeagatik; ebazpena irmoa bilakatzearan gauza epaituaren eragina du. **Sin.** *behin betiko artxibatze, behin betiko largespen.*

**largeste** [*sobresimiento*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. largespen.*

**largetsi** [*sobreseer*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. artxibatu.*

**laudo** [*laudo*] ♦ *Zuz. Proz., Zuz. Zib.* Arbitroak jurisdikziotik at emandako ebazpen arrazoitua, gatazkan dauden bi alderdien arteko arazoa erabakitzen bideraturik dagoena. Gauza epaituaren eragina aitortzen zaio. Ondorioz, borondatez betetzen ez bada, exekutagarria da. **Oh.** 60/2003 Legea, 37. art. **Sin.** *laudo arbitral.*

**laudo arbitral** [*laudo arbitral*] ♦ *Zuz. Proz., Zuz. Zib. Ik. laudo.*

**laugarren gradu** [*libertad condicional*] ♦ *Zig. Zuz. Ik. baldintzapeko askatasun.*

**leasing-kontratu** [*contrato de leasing*] ♦ *Merkat. Zuz.* Finantza-errentamendu kontratua, zeinaren bidez ondasun higigarri edo higiezin bat erabiltzeko finantzaketa behar duen enpresari batek jotzen baitu bitartekari baten gana —leasing sozietate bat— ondasun horien erabilpena eskuratzeko ordainsari baten truke, betiere, ondasun horiek ustiatzeko baldintza jakinen arabera. Finantza-errentamendu jardueira gauzatzen duen leasing sozietatea izango da ondasunen jabea, eta horien erabilera ondasunlagatze egintza juridikoaren bidez jarriko du enpresariari eskura. Kontratu atipikoa denez, ez dago erregulatua.

**legalitate** [*legalidad*] ♦ *Merkat. Zuz. Ik. legaltasun.*

**legaltasun** [*legalidad*] ♦ *Merkat. Zuz.* Zuzenbidearen printzipioa, zeinaren bidez, legea lehenesten baita botere publikoak emandako

beste aginduen ginetik. Legalitate printzipioak agintzen du, adibidez, norbanako enpresarietara eta sozietateetara (baltzuek) Merkataritzako Erregistroan argitaratu behar izatea beraiei dagozkien merkataritzako datu garrantzitsuak. **Oh.** MK, 16. art. **Sin.** *legalitate*. ♦ *Zuz. T. Ik. legezketasun 1*.

**legatu** [*legado*] ♦ *Zuz. Err.* Jaraunsle-titulua eman gabe testatzaileak (*de cuius*) testamentuan edo baieztutako kodiziloan norberaren izenean uzten duen xedapen singular-gisako bat. Horren arabera, pertsona bati edo gehiagori transmitituko zaie gauza bat edo gehiago edota gauza baten gaineko eskubide bat edo gehiago, dela baldintzapean, dela baldintzarik gabe. **Sin.** *legatum*. ♦ *Zuz. Zib.* Banakako tituluaren bidez, jaraunspenaren kontura kausatzaileak eginiko *mortis causa* liberaltasuna. Kausatzaileak borondatez legatu-hartzaileari utzitako ondasun edo harreman juridiko zehatza.

**legatu-hartzaile** [*legataria, legatario*] ♦ *Zuz. Zib.* Kausatzailea banakako tituluaren bidez oinordetzen duena, jaraunspenetik ondasun edo eskubide zehatz bat jasoz. **Ik.** *jaraunsle*.

**legatum** [*legado*] ♦ *Zuz. Err.* **Ik.** *legatu*.

**lege** [*lege*] ♦ *Zuz. Err.* Herriak (*populus*) —herri-batza edo komisioetan bilduta— zein goi mailako magistratuek (*consul*) edo printzeek (*princeps*) —haien burujabetasuna baliatuz— agindu eta xedatutako arau juridikoa. **Sin.** *lex, lex data, lex rogata*. ♦ *Konst. Zuz.* Botere legegieak emandako arau juridikoa.

**lege-akzioen prozedura** [*procedimiento de las acciones de la ley*] ♦ *Zuz. Err.* Ahozko adierazpenez, keinuez eta solemnitaterik jantzitako erromatar prozedura arkaikoa, bi fasetan berezia, pretorearen aurrean lehena (*in iure*) eta epaile pribatuaren aurrean bestea (*apud iudicem*). Horren bidez epai bat ematen zuen dela demandatuaren alde, dela demandatzailearen alde. **Sin.** *legis actiones*.

**lege-egintza** [*acto legislativo*] ♦ *EB. Zuz.* Legegintza-prozedura bati jarraiki, izan arrunt zein berezi, harturiko egintza, oinarri juridikoa tratatuetan duena. **Sin.** *egintza araugile, egintza legegie*.

**lege-egitasmo** [*proyecto de ley*] ♦ *Konst. Zuz. Ik. lege-proiektu*.

**lege-hauste** [*infracción legal*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesu zibilar dagokionez, kasazio-errekurtso apartekoa jarri ahal izateko legeak aurreikusten duen zio bakarra. Zigor-prozesuaren kasuan ere, kasazio-errekurtsoa jartzeko zioa, formen urraketaekin batera. **Oh.** PZL, 477. PKL, 847. art.

**lege-hutsune** [*vacio legal*] ♦ *Zuz. Zib.* Materia zehatz bateko legeko araudi absentzia. Legeak materiaren osotasunarentzat edo egoera jakin baterako erantzun zehatzik ez duen kasuetan, legea ezartzea dagokienek osatu beharko dute, ordeko zuzenbidearen, interpretazioaren, analogiaren edota beste zuzenbide iturri batzuen bitartez. **Ik.** *zuzenbidearen iturri*.

**lege-maulari** [*fraude de ley*] ♦ *Zuz. Zib.* Legeari iruzur egitea. Arau baten efektuak saihesteko gauzatzen den egintza ez zilegia.

**lege organiko** [*ley orgánica*] ♦ *Konst. Zuz.* Lege mota berezi bat, arautzen dituen gaien garrantzia dela-eta Kongresuan onetsia izateko gehiengo absolutua behar duena. Besteak beste, oinarritzko eskubideen eta askatasun publikoen garapena, autonomia erkidegoen estatuak eta hauteskunde-erregimen orokorra dira lege organikoen bidez arautu beharreko gaiak. **Oh.** EK, 81. art.

**lege penal berezi** [*ley penal especial*] ♦ *Zig. Zuz.* Zigor Kodeaz bestelako legea, Zigor Zuzenbidea arautzen duten legeen multzoa osatzera datorrena. Batzuetan, Zigor Kode Militarrarekin gertatzen den modura, legea osorik zigor-legeria izango da, baina arlo zehatz batekoa. Beste batzuetan, aldiz, Zinpekoen

Epaimahaiaren Legearekin edo Hauteskunde Legearekin gertatzen den modura, soilik legearen atal batek izango du lotura Zigor Zuzenbi-dearekin.

**lege pertsonal** [*ley personal*] ♦ *Zuz. Zib.* Edo non egonik ere, pertsonaren zenbait eremuri aplikagarri izango zaien legedia zein den erabakitzen duena; Espainian, naziokotasunak erabakiko du legedi hori. Jarduteko gaitasun, egoera zibil, familiako eskubide eta bete-behar eta oinordetza eremuetan da aplikagarri. **Oh.** KZ, 9. art. **Ik.** *naziokotasun, nazionalitate.*

**lege-pilaketa** [*concurso de normas*] ♦ *Zig. Zuz.* Portaera bakar bati zigor-arau bi edo gehiago aplikatu ahal zaizkionean —arauok babestutako ondasun juridikoa berbera izanik— sortzen den egoera.

**lege-proiektu** [*proyecto de ley*] ♦ *Konst. Zuz.* Ministroen Kontseiluak Gorte Nagusiei aurkezten dien lege-proposamen. **Sin.** *lege-egitasmo.*

**legeak aurretiaz zehaztutako epailearen printzipio** [*principio de la jueza predeterminada por la ley, del juez predeterminado por la ley*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *legezko epailearen printzipio.*

**legeak aurretiaz zehaztutako epaile arruntaren printzipio** [*principio de la jueza ordinaria predeterminada por la ley, del juez ordinario predeterminado por la ley*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *legezko epailearen printzipio.*

**legeak aurretiaz zehaztutako epaile arruntarako eskubide** [*derecho a la jueza ordinaria predeterminada por la ley, al juez ordinario predeterminado por la ley*] ♦ *Zuz. Proz.* Auzia ebatziko duen jurisdikzio-organoa hura sortu aurretik legez eratuta eta bere jurisdikzioa eta eskumena zehaztuta egotea eskatzen duen oinarritzko eskubidea. **Oh.** EK, 24.2 art. **Ik.** *legeak aurretiaz zehaztutako epailearen printzipio.*

**legearen aurkako atxiloketa** [*detención ilegal*] ♦ *Zig. Zuz.* Mugitzeko askatasunaren aurkako delitua; atxilotua beraren borondatearen kontra giltzaperatzean edo atxilotzean datza. **Oh.** ZK, 163. art. eta hurr.

**legearen intereserako errekurtsio** [*recurso en interés de la ley*] ♦ *Zuz. Proz.* Doktrina jurisprudenzialaren batasuna bermatzeko, izaera prozesala duten gaitetan, legeak aurreikusten duen tresna. Ezagutzeko eskumena Auzitegi Gorenarena da. **Oh.** PZL, 490-493. art.

**legearen korrupzio** [*corrupción de ley*] ♦ *Zuz. T.* Legea justiziaren zerbitzura jarri beharrean injustiziaren mesedetan jartzen denean suertatzen den fenomeno. **Sin.** *lege-korrupzio.*

**legearen nagusitasun** [*supremacía de la ley*] ♦ *Konst. Zuz.* Zuzenbide-irizpidea, politikoki antolaturiko gizartearen bizitza —hots, estatua— eta beraren funtzionamendua legearen mende dagoela adierazten duena.

**legebidezko defentsa** [*legítima defensa*] ♦ *Zig. Zuz.* Erantzukizun penaetik salbuesten duen bidezkotze-kausetako bat. Norberaren edo hirugarrenen interesen defentsan jardutean gertatzen da, betiere baldintza hauek betetzen direnean: 1) bidezkoa ez den eraso; 2) defendatzeko premia eta erabilitako bideen arrazionaltasuna; eta 3) defendatzaileak probokazio nahikorik egin ez izana. **Oh.** ZK, 20.4 art.

**legebiltzar** [*asamblea legislativa*] ♦ *Konst. Zuz.* Legegintza-ahalmena duten autonomia-erkidegoetako oinarritzko erakunde-egituren ordezkapen-organoa.

**legedi** [*legislación*] ♦ *Zuz. Zib.* **1.** Estatu edo herrialde bat arautzen duen legeen multzoa. Adibidez, Espainiako legedia. **Sin.** *legeria.* **Ik.** *ordenamendu juridiko.* **2.** Alor jakin bat arautzen duen legeen multzoa. Adibidez, kontsumo legedia.

**legeen arteko gatazka** [*conflicto de leyes*] ♦ *Nart. Zuz. Pr.* Nazioarteko egoera pribatu bati estatu baten baino gehiagoren ordenamenduak edota legeak ezargarri zaizkionean gertatzen den egoera.

**legegile** [*legisladora, legislador*] ♦ *Zuz. T.* Legeak xedatzeko boterea duen erakundea, legegintzaz arduratzen dena. Espainiako Estatuan, Gorte Nagusiak eta legebiltzar autonomikoak dira erakunde legegileak. **Oh.** EK, 66. art. eta hurr.; 3/1979 Lege Organikoa, 25. art. eta hurr.; 13/1982 Lege Organikoa, 11. art. eta hurr.

**legegintza-dekretu** [*decreto legislativo*] ♦ *Konst. Zuz.* Legearen indarra duen dekretua, botere betearazleak ematen duena botere legegileak berariaz emandako legegintza eskuordetuaren gaitasuna erabilita.

**legegintza-ekimen** [*iniciativa legislativa*] ♦ *EB. Zuz.* EBren eskumenekoak diren eremuetan legegintza-prozedura bat hasteko ahalmena, Batzordeari dagokiona EBFTk bestelakorik xedatu ezearan. **Oh.** EBT, 17.2 art. **Sin.** *arau-gintza-ekimen. ekimen araugile, ekimen legegile.*

**legegintza eskuordetu** [*delegación legislativa*] ♦ *Konst. Zuz.* Ekintza juridiko bat, berez botere legegileari dagokion erregulazio-gaitasun bat botere betearazlearen esku uzten duena. **Oh.** EK, 82. art.

**legegintza-prozedura** [*procedimiento legislativo*] ♦ *EB. Zuz.* Lege baten onarpenera darman EBko erakundeen ekintza-multzoa.

**legeria** [*legislación*] ♦ *Zuz. Zib. Ik. legedi.*

**legez besteko egintza** [*acto no legislativo*] ♦ *EB. Zuz.* Legez besteko prozedurari jarraiki EBko erakunde edo organismo batek harturiko egintza. **Sin.** *egintza ez-araugile.*

**legez kontrakotasun** [*ilegalidad*] ♦ *Zuz. T.* Legearen aurkakoa izatearen ezaugarria.

**legezko absentzia** [*ausencia legal*] ♦ *Zuz. Zib.* Haren berririk izan gabe, bizitokitik falta den pertsona legez absente deklaratzeko. Egoera hori dela eta desagertuaren ondarea babesteko ordezkaria izendatzea beharrezkoa izango da. Desagertze hutsak, berez, ez dakar absentzia deklaraziorik. Horretarako baldintza batzuk gertatu behar dira eta prozedura judiziala ireki behar da. Absentzia deklaratzeko beharrezkoa da urte bat baino gehiagoz egoera hori mantentzea, edota, absenteak desagertu baino lehen edo ondoren ahalorde bat izendatua izango balu, desagertutakoa hiru urtez berririk eman gabe egotea. Absentzia-deklarazioa Erregistro Zibilean inskribatzen da. **Oh.** KZ, 181. art. eta hurr.

**legezko epailearen printzipio** [*principio de la jueza legal, del juez legal*] ♦ *Zuz. Proz.* Zentzu positiboan, batetik, jurisdikzio-organok antolatzeke eta auzia ebatziko duen jurisdikzio-organoa zehazteko irizpidea. Horrek eskatzen du auzia jazo aurretik honako hauek zehaztuta egotea: horretaz ebatziko duen jurisdikzio-organoa — zehaztuta eta sortuta —; horren eskumena — era guztietakoa, hau da, generikoa, objektiboa, funtzionala eta lurraldekoa —; herri berean maila bereko hainbat epaitegi egonez gero, auzigaien banaketari buruzko arauak; auzitegien kasuan, organoa osatuko duten pertsonak izendatzeko legezko prozedura; eta baita magistratu ponentea zehazteko arauak ere. Bestetik, oinarritzko eskubidea da, legeak aurretiaz zehaztutako epaile arrunterako oinarritzko eskubidea, hain zuzen. Zentzu negatiboan, printzipioak salbuespenezko auzitegiak debekatzen ditu. **Oh.** EK, 24.2, 117.6 art. **Sin.** *epaile naturalaren printzipio, legeak aurretiaz zehaztutako epaile arruntaren printzipio, legeak aurretiaz zehaztutako epailearen printzipio. Ik. epaile arrunt, legeak aurretiaz zehaztutako epaile arrunterako eskubide, salbuespenezko epaitegi.*

**legezko froga** [*prueba legal*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. froga legal.*

**legezko hipoteka tazitu** [*hipoteca legal tá-cita*] ♦ *Fin. Zuz.* Tributu-kredituaren berme bat. Haren bidez tributu-zorren ordainketa ziurtatzen da, ondasunak edo erregistro publiko batean inskribi daitezkeen eskubideak —edo haien zuzeneko produktuak, egiazkoak edo ustezkoak— periodikoki zergatzen dituzten tributuetan. Herri Ogasunak mugaeguneratuta eta ordaindu gabe dauden zerga-kredituak kobratzeko lehentasuna izango du beste hartzekodun batzuekin batera suertatuz gero; hala ere, badago salbuespen bat: hartzekodunek jaso beharreko jabaria, bahia, hipoteka edo bestelako eskubide erreala Herri Ogasunak bere eskubidea jasoarazi baino lehen erregistratu izana erregistro egokian. **Sin.** *isilbidezko lege-hipoteka.*

**legezko oinordetza** [*sucesión legal*] ♦ *Zuz. Zib.* Borondetzeko ordenaziorik ez dagoenean, legeak berak ordenatzen duen kausatzailearen *mortis causa* oinordetza. **Sin.** *ab intestato oinordetza, abintestato oinordetza.* **Ik.** *borondetzeko oinordetza, oinordetza misto.*

**legezko ordezkari** [*representante legal*] ♦ *Zub. Zib.* Zuzenbideak beste baten izenean eta kontuan aritzeko agindu dion pertsona. **Ik.** *ahalorde, ordezkari, ordezkaritza, ordezkaritza-ahalorde, ordezkatu, legezko ordezkaritza.*

**legezko ordezkaritza** [*representación legal*] ♦ *Zub. Zib.* Legeak aurreikusiriko kasuetan adingabeen eta ezgaituen izenean aritzea.

**legezkotasun 1** [*legalidad*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Lege-ekintzek eratzen duten baldintza edo egoera. **2.** Legeekin bat datozen ekintzen nolakotasuna. ♦ *Zuz. T.* Indarrean dagoen ordenamendu juridikoa. **Sin.** *legaltasun.*

**legezkotasun 2** [*legitimidad*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *zilegaltasun.*

**legezkotasun-printzipio** [*principio de legalidad*] ♦ *Konst. Zuz.* Zuzenbidearen oinarritzko printzipioa, zeinaren arabera botere publikoen

ekintza oro indarrean dagoen legearen arabera burutu behar baita. **Oh.** EK, 9. art. ♦ *Zig. Zuz.* Zigor Zuzenbidearen oinarritzko printzipioa, adierazpen honekin ezagutzen dena: *nullum crimen, nulla poena sine lege.* Horren arabera, delitu-egitateek zein zigorrek alde aurretik legean aurreikusita egon behar dute. Hortaz, segurtasun juridikoaren eskaera bat da, eta baita berme politiko bat ere, estatuaren boterea mugatzen duena.

**legezkotu** [*legalizar*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *legeztatu.*

**legeztatu** [*legalizar*] ♦ *Zuz. T. 1.* Fenomeno edo gertakari jakin bati legezko izaera eman. **Sin.** *legezkotu.* **2.** Legearen bidez baimendu.

*legis acciones* [*procedimiento de las acciones de la ley*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *lege-akzioen prozedura.*

**legitimatatu** [*justificar, legitimar*] ♦ *Zuz. T.* Aurrez zilegi ez zena zilegi egin. **Ik.** *bidezkotu.*

**legitimatzaile** [*legitimadora, legitimador*] ♦ *Zuz. T.* Zilegi egiten duena.

**legitimazio** [*legitimación*] ♦ *Zuz. T. 1.* Zilegi egitearen ekintza edo efektua. **2.** Zuzenbide prozesalean, pertsona batek prozesu judicial baten parte aktibo edo pasibo izateko duen ahalmena, epaitzen ari denarekiko duen harremanagatik.

**legitimazio aktibo** [*legitimación activa*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesu jakin bat abiaraziz uzia egitaritu ahal izateko gaitasuna, zuzenbide prozesaleko arauen bitartez erregulatua. Prozesu guztietan epaileak azter dezake egoera, bete-behar prozesala baita.

**legitimazio arrunt** [*legitimación ordinaria*] ♦ *Zuz. Proz.* Eskubide, harreman juridiko edo obligazioen titularitatetik eratorritako prozesu batean alderdia —aktibo zein pasiboa— izateko gaitasuna. **Oh.** PZL, 10.1 art.

**legitimazio berezi** [*legitimación extraordinaria*] ♦ *Zuz. Proz.* Arrazoi desberdinetan —na-

gusiki, interes pribatuan nahiz publikoan—oinarrituta, legeak espresuki eskubidearen titularitatea ez duten subjektuei esleitzen dien legitimazio mota. Ministerio fiskalarena, Espainiako Konstituzioaren 124. artikuluan oinarritua, adibide paradigmatikoa da, bai prozesu zibilean bai penalean. **Oh.** PZL, 10.2 art.

**legitimazio pasibo** [*legitimación pasiva*] ♦ *Zuz. Proz.* Egikaritutako uziari aurre egiteko eta ebentualki eskatutakoa betetzeko gaitasuna, zuzenbide prozesaleko arauen bitartez erregulatua. Prozesu guztietan epaileak azter dezake egoera, betebeharrak prozesala baita.

**legitimazio plural** [*legitimación plural*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesu jakin batean, eta uzi bakar baten inguruan, alderdi aktiboa edo pasiboa izateko gaitasuna hainbat subjekturi dagokienean gertatzen den egoera. Eratorritako alderdien aniztasuna aktiboa edota pasiboa izan daiteke. **Oh.** KZ, 1139. art.

**legitimazio prozesal** [*legitimación procesal*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuan alderdi aktiboa edo pasiboa izateko gaitasuna. Prozesuaren hasieran kontrolatu beharreko —ofizioz edo alderdi pasiboak hala adierazi duelako— betebeharrak prozesala. Legitimaziorik ezak prozesuaren deuseztasuna ekar dezake.

**lehen auzialdi** [*primera instancia*] ♦ *Zuz. Proz.* Edozein jurisdikziotan, hasieratik eta lehen epaia (aurkaragarria dena) lortu bitartean jarraitu behar den ibilbide prozesala.

**lehen mailako berrigorpen** [*reenvío de primer grado, reenvío de retorno*] ♦ *Nart. Zuz. Pr.* Egoera hau sortuko da foroko gatazka-arauak atzerritar ordenamendu bat izendatzen duenean ezargarririk ez dagoen ordenamenduzat, eta azken horren zuzenbidearen arabera, arazoa konpontzeko ezargarririk jotzen duen ordenamendua, foroko ordenamendua denean. **Sin.** joan-etorriko berrigorpen.

**lehentasun-eskubide** [*derecho de prelación*] ♦ *Fin. Zuz.* Administrazio-organo eskudunak zerga baten ondorioz sortutako tributuzko obligazioa zenbatzeko burutzen duen eragiketa multzoa eta eragiketa horien emaitza jasotzen duen dokumentua. **Sin.** kreditu-lehenespen.

**lehentasun-printzipio** [*principio de primacía*] ♦ *EB. Zuz.* EBko zuzenbidearen eta estatuko kideen ordenamenduen arteko harremana eraentzen duen printzipioa. Honen arabera, bete beharrekoak diren EBko arau guztiak estatu kideen ordenamenduetako edozein xedapeni nagusitzen zaizkio eta, ondorioz, bategarria ez den barne-arauaren aplikazioa ez dakar. **Oh.** EBJaren epaia, C-6/1964, Costa vs ENEL.

**lehentasunezko eskubide** [*derecho preferente*] ♦ *Zuz. Zib.* Beste eskubideei gailentzen zaizen eskubidea; lehentasunezko eskubidea beste eskubideen gainetik erabili ahal izango da.

**lehia** [*lehia*] ♦ *Merkat. Zuz.* Enpresarietako merkatuko jardura ekonomikoan izan behar duten jokoera, zeinaren honen bidez bermatzen baita haiek dituzten baliabideak eta horien banaketa eraginkorrak izan daitezkeen kontsumitzaileentzat eta erabiltzaileentzat. Izan ere, lehiari esker, azken horiek produktu eta zerbitzu gehiago prezio hobean izango dituzte. **Oh.** LBL, 3. art.

**lehiaketa** [*concurso*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Enplegu publikoan, karrera-funtzionarioak nahiz lan-harremaneko langileak hautatzeko erabiltzen den sistema, hautagaiek aurkeztutako merezimenduak balioestean datzana (karrera-funtzionarioen kasuan, salbuespenez erabiliko da lehiaketa langileak hautatzeko sistema bakar gisa). **Oh.** 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 61.6 eta 61.7 art.; 6/1989 Legea, 26.2. art. **Sin.** merezimendu-lehiaketa, merezimenduen lehiaketa. **Ik.** funtzionario, lan-harremaneko langile. **2.** Enplegu publikoan, karrera-funtzionarioek bete beharreko lanpos-



tuak hornitzeko erabiltzen den ohiko prozedura, hautagaien merezimenduak eta gaitasunak eta, hala dagokionean, haien trebezia teknikoak balioestean datzana. **Oh.** 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 79. art.; 6/1989 Legea, 6.4 art., 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, 33. art. **Sin.** *merezimendu-lehiaketa, meretzimenduen lehiaketa.* **Ik.** *funtzionario.* ♦ *Fin. Zuz. Ik. konkurtso.*

**lehiaketa-oposizio** [*concurso-oposición*] ♦ *Admin. Zuz.* 1. Enplegu publikoan, karrera-funtzionarioak nahiz lan-harremaneko langileak hautatzeko sistema, oposizioaren eta meretzimendu-lehiaketaren faseak dituena. Eredu honetan, meretzimenduen lehiaketari emango zaion puntuazioa ezin izango da erabakigarri izan hautatze-prozesuaren emaitzan. Langile publikoak hautatzeko sistema ohikoenetako bat da, oposizio bidezko sistemarekin batera. **Oh.** 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 61.3, 61.6 eta 61.7 art.; 6/1989 Legea, 26.3 art.; 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, 5.3 art. **Ik.** *funtzionario, lan-harremaneko langile, lehiaketa, oposizio.*

**lekualdaketa** [*traslado*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuaren erabakiz, langilea lantokiz aldatzea, gutxienez urtebetez, bere ohiko bizilekua aldatzea eragiten dion beste leku batera. **Ik.** *desplazamendu.*

**lekuko** [*testigo*] ♦ *Zuz. Proz., Zuz. Err.* Frogabaliabide bat. Prozesu jakin batean alderdi ez den pertsona batek ezagutu duen informazioa —eztabaidatuak diren eta prozesuaren objektua osatzen duten gertakarien ingurukoa — ezagutarazteko parte hartzean datza. **Oh.** PZL, 299.6, 360. art. eta hurr.

**lekuko-aditu** [*testigo-perito*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuan aldi berean lekuko eta aditu gisa parte hartzen duen pertsona: lekukoak ezagutzarentzako, artistiko, praktiko edo teknikoak baditu eta haiek beraren adierazpenen oinarri badira, ez da lekuko arrunta baizik eta izaera

bikoitza izanen du, legeak aitortzen duen legez. **Oh.** PZL, 370.4 art.

**lekukoen galdeketa** [*interrogatorio de testigos*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuko froga; alderdiek epaileari eskatzea hirugarrenek prozesuan epaitzen ari diren egitateen inguruko galderei erantzuteko. **Sin.** *lekukoen itaunketa.*

**lekukoen itaunketa** [*interrogatorio de testigos*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. lekukoen galdeketa.*

**lekukotza** [*testimonio*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesu jakin batean alderdi ez den pertsona batek, egia finkatzeko, ikusi, entzun edo sumatu duenaren berri emateko egiten duen adierazpena, froga gisa balio duena. **Sin.** *testigantza.*

**lerrun** [*rango*] ♦ *Zuz. T.* Barne-ordenamendu juridikoan arau-xedapenak hierarkikoki sailkatzeko erabiltzen den kategoria. Horren arabera, arau-xedapenek ezin izango dute goragoko lerruna duten xedapenek aurreikusitakoa urratu. Lerrun gorena duen arau-xedapena Konstituzioa da; ondoren lege-lerruna dator eta, azkenik, erregelamendu-lerruna (erregelamenduen artean, dekretuek eta Gobernuak onartutako erabakiek izango dute lerrunik altuena eta aginduak haien azpikoak izango dira). **Oh.** 39/2915 Legea, 128.3 art.; 50/1997 Legea, 24. art.; 7/1981 Legea, 59. eta 63. art.; 14/2004 Foru Legea, 56. art. **Sin.** *maila.* **Ik.** *arau-xedapen, hierarkia.*

**lesio** [*lesión*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazioaren ondare-erantzukizunaren arloan, kalte ordaingarria. Kalte batek ordaina zor du, baldin eta ezaugarri hauek baditu: antijuridikoa izatea (hots, ez egotea arrazoi juridikorik justifikatzen duena kaltetuaren egoera), benetakoa izatea, ekonomikoki balioesteko modukoa izatea eta indibidualizatua izatea (pertsona zein talde jakin bati gertatua). **Oh.** 40/2015 Legea, 32.1 eta 32.2 art. **Ik.** *ondare-erantzukizun.*

**lesioak** [*lesiones*] ♦ *Zig. Zuz.* Osotasunaren aurkako delitua; edozein bide edo prozedura erabi-

liz beste bati osasun fisikoan edo mentalean kalteak eragitean datza. **Oh.** ZK, 147. art. eta hurr.

**letradu** [*letrada, letrado*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuan alderdien defentsan parte hartzen duen abokatua.

*lex* [*ley*] ♦ *Zuz. Err. Ik. lege.*

*lex data* [*ley dada*] ♦ *Zuz. Err. Ik. lege.*

*lex rogata* [*ley rogada*] ♦ *Zuz. Err. Ik. lege.*

**liberalismo** [*liberalismo*] ♦ *Zuz. T. 1.* Doktrina filosofiko eta politikoa, eremu ekonomikoan ekimen pribatua eta eremu politikoan askatasun indibidualak defendatzen dituen. Bizitza ekonomiko, sozial zein kulturean estatuaaren abstentzionismoaren alde egiten du. **2.** Giza harremanetan tolerantzia eta askatasuna defendatzen dituen jokabidea.

**libertas** [*libertad*] ♦ *Zuz. Err.* Legeek, ohiturek edo zuzenbide-arauek ukatzen ez badute, gizakiak nahi duena egiteko duen ahalmena.

**liburu eta agirien miaketa** [*registro de libros y papeles*] ♦ *Zuz. Proz.* Delitua eta haren erantzuleak ikertzeko garrantzitsua izan daitekeen erruztatuaren edo beste pertsona batzuen dokumentazioa aztertzea helburu duen epailearen eginbidea. **Oh.** PKL, 573-578. art.

**likidazio** [*liquidación*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga Administrazioaren organo eskudunaren ebazpenegintza, zerga-zorren zenbatekoa edo zerga-arautegiaren arabera itzuli edo konpentsatu beharreko kopurua zehazten duena.

**likidazio-aldi** [*periodo de liquidación*] ♦ *Fin. Zuz.* Likidazio bakoitza likidatu beharreko denbora-tartea edo -epea. Tributu bakoitzaren araudian datoz zehaztuta kasuz kasu.

**likidazio-oinarri** [*base liquidable*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga-oinarriari zerga bakoitzari buruzko arauan ezartzen diren txikipeanak (bidezkoak badira) aplikatuta lortzen den kopurua. **Sin.** *oinarri likidagarri.*

**likidazio-proposamen** [*propuesta de liquidación*] ♦ *Fin. Zuz.* Ogasunak zergapekoari bere oniritzia eman dezan bidaltzen dion likidazioa.

**litiskonsortzio** [*litisconsorcio*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. auzikidetzeta.*

**litispendentzia** [*litispendencia*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. auzibitarte.*

**locatio-conductio** [*arrendamiento*] ♦ *Zuz. Err. Ik. errentamendu.*

**lokalizazio iraunkor** [*localización permanente*] ♦ *Zig. Zuz.* Mugitzeko zigor askatasun-gabetzailea, kondenatua beraren egoitzan edo epaileak epaian edo geroago auto ziodunean finkatutako leku zehatzean egotera behartzen duena. **Oh.** ZK, 37. art.

**lotura** [*vinculación*] ♦ *Konst. Zuz. Ik. atxikimendu.*

**lotura bikoitz** [*doble vínculo*] ♦ *Zuz. Zib.* Aita eta ama bera duten anai-arreben arteko lotura. Kode Zibilak jasotzen duen kontzeptua da, *ab intestato* edo testamentu gabeko oinordetza kasuetan, alboko ahaideak oinordeko diren kasuan oinordetza nola banatu den zehazteko. **Ik.** *afinitate, ahaide, ahaidetasun, alboko ahaide, aurreko ahaide, ondorengo ahaide.*

**lotura-puntu** [*punto de conexión*] ♦ *Nart. Zuz. Pr.* Legegileak nazioarteko egoera pribatuari ezargari zaion Zuzenbidea izendatzeko erabiltzen duen inguruabarra, nazioarteko egoeraren eta estatu baten arteko lotura adierazten duena.

**lotutako delitu** [*delito conexo*] ♦ *Zig. Zuz.* Delitu desberdinen arteko lotura edo erlazioa. Delitu bat burutzea beste delitu baten emaitza lortzeko asmoz.

**lukurreria** [*usura*] ♦ *Zuz. Zib.* Ohikoak baino goragokoak diren korrituak finkatzen dituen mailegu kontratuaren nolakotasuna, gertaeren

egoerek horietarako arrazoirik ematen ez dutenean, edo emanda ere, onartuak izan direnean mailegu hartzailearen eskarmentu gabeziagatik, bizi duen egoera larriagatik edota jarduteko gaitasunaren mugapenengatik. **Ik.** *mailegu*.

**lurralde-antolaketa** [*ordenación del territorio*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** *lurralde-antolamendu*.

**lurralde-antolakuntza** [*ordenación del territorio*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** *lurralde-antolamendu*.

**lurralde-antolamendu** [*ordenación del territorio*] ♦ *Konst. Zuz.* Estatu bat lurraldeari dagokionez antolatze dagoen era. Lurraldeari dagokionez Espainiako estatua udal, probintzia eta erkidego autonomoetan antolatuta dago eta erakunde horiek guztiek beren interesak kudeatzeko autonomia dute. **Oh.** EK, 137. art. ♦ *Admin. Zuz.* Lurzoruaren eta lur-azpiaren nahiz bertan dauden baliabideen erabilera arrazoizkoena lortzera bideratutako ekintza publikoen multzoa. Lurraldearen gain eragina izango duten aginte-mailen arteko harremanen zehaztapena. Espainiako Konstituzioak aurreikusitakoari jarraiki, autonomia-erkidegoek eskumen eskusibo gisa hartu dute lurralde-antolamendua. **Oh.** EK, 148.1.3 art.; 4/1990 Legea. **Sin.** *lurralde-antolaketa, lurralde-antolakuntza*. **Ik.** *autonomia-erkidego*.

**lurralde erkide** [*territorio común*] ♦ *Fin. Zuz.* Espainiako estatuaren lurraldea. Han aplikatzen da Euskal Autonomia Erkidegoarenak eta Nafarroakoa Foru Komunitatearenak ez diren organo eskudunek emandako arauketa fiskala.

**lurralde-eskumen** [*competencia territorial*] ♦ *Zuz. Proz.* Legeak tokiko organo jurisdikzionalaren eskumena finkatzeko erabiltzen duen irizpidea. Prozesu zibilean, oro har, demandatuaren bizilekua da. Zigor-prozesuan, aldiz, delitua burutu den tokia.

**lurralde historiko** [*territorio histórico*] ♦ *Zuz. Zib., Konst. Zuz.* Euskal Autonomia Erkidego foru-lurraldea Euskal Autonomia Erkide-

goiko Autonomia Estatuaren 2. eta 3. artikuluen arabera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoek ahalmena dute, probintzien muga berberetan, autogobernu-erakunde propioak gorde edota biziberritu edo eguneratzeko.

**lurralde historikoen ekarpen** [*aportación de los territorios históricos*] ♦ *Fin. Zuz.* Foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoari bere aurrekontu-gastuetarako ematen dioten laguntza, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuko diru-sarrearen egoera-orrietan jasotzen dena.

**lurraldeko itsaso** [*mar territorial*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Barne-uretatik eta artxipelagoko uretatik haratago zabaltzen den itsas eremua, non, nazioarteko zuzenbidearekin bat etorritik, kostaldeko estatuak subiranotasuna egikaritzen duen. Eremu hau oinarri-lerroen eta ekonomia eremu eskusiboaren artean kokatzen da, eta bere barnean hartzen ditu ur-zutabea, itsas zorua, itsas zorupea eta haren gaineko aire-eremua. **Oh.** IZNBK, 2. art.

**lurraldetasun-printzipio** [*principio de territorialidad*] ♦ *Zig. Zuz.* Lurraldetasun-printzipioaren arabera, Espainiako zuzenbidea soilik izango zaie aplikagarria Espainiako lurraldean egindako delitu-egitateei. Hori, oinarritzko printzipioa bada ere, osagarriak diren bestelako printzipioek direla eta, Espainiako zuzenbidearen aplikagarritasuna zabaldu daiteke: pertsonalitate-printzipioa, unibertsaltasun-printzipioa eta printzipio erreala. **Oh.** BJLO, 23.1 art.

**lurraldez kanpokotasun** [*inmunidad diplomática*] ♦ *Konst. Zuz.* **Ik.** *inmunidade diplomatiko*.

**luzapen-arau** [*norma de extensión*] ♦ *Nart. Zuz. Pr.* Barne-zuzenbidearen arau sustantibo jakinen lurralde-ekarpenaren eremua zabaltzen duen arau-mota. Nazioarteko zenbait egoera pribaturi ere aplikagarri zaio halakorik. **Oh.** KZ, 8. art.

# M

---

**magistratu** [*magistrada, magistrado*] ♦ *Zuz. Proz., Konst. Zuz., Zuz. Err.* Karrera judizialan bigarren kategoria — epaileen eta Auzitegi Goreneko magistratuen bitartean dagoen kategoria— osatzen duten epaileetako bakoitza. Mailaren arabera eta lehiaketaren edo proben bitartez hornitzen dira hutsik geratzen diren plazak. **Oh.** BJLO, 299. art.

**magistratu ponente** [*magistrada, magistrado ponente*] ♦ *Zuz. Proz.* Organo kolegiatu guztietan auzi bakoitzaren ardura berezia duen epaimahaikidea, besteak beste, ebazpenak proposatzen dituena. Irizpide objektiboetan oinarrituta, urtero finkatzen den txanda baten arabera aukeratzen dira. **Oh.** BJLO, 203. art.

**magistratu presidente** [*magistrada, magistrado presidente*] ♦ *Zuz. Proz.* Organo kolegiatuetako gobernu-organo nagusia. Besteak beste, auzitegien eta salen gidaritzaz, kudeaketaz, ikuskaritzaz, komunikazioaz eta ordezkaritzaz arduratzen den magistratua da. **Oh.** BJLO, 160. art.

**maila** [*rango*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** *lerrun.*

**mailakatz**e [*calificación*] ♦ *Nart. Zuz. Pr.* Nazioarteko egoera pribatu zehatz bat gatazkarau bat baino gehiagoren egitatezko supostuan

sar daitekeenean, egoera horri esleitzen zaion kalifikazioa. **Oh.** KZ, 12.1 art.

**mailegu** [*préstamo*] ♦ *Zuz. Zib.* Mailegu-emaileari, usu finantza-erakundeari, eskatzen zaion dirua edo bestelako gauza suntsigarria, akordatu ezkerer interes batekin itzuli beharrekoa. **Sin.** *kontsumo-mailegu.*

**mailegu-emaile** [*prestamista*] ♦ *Zuz. Zib.* Mailegua ematen duena. **Ik.** *mailegu.*

**mailegu-hartzaile** [*prestataria, prestatario*] ♦ *Zuz. Zib.* Mailegua hartzen duena. **Ik.** *mailegu.*

**maizter** [*inquilina, inquilino*] ♦ *Zuz. Zib.* Beste batena den gauza, higiezinaz zein higigarria, errentan hartzen duen pertsona, diru (errenta) kantitate baten truke. **Ik.** *errentamendu.*

**malgusegurtasun** [*flexiseguridad*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuen aldeko malgutasuna eta langileen aldeko segurtasuna uztartzearen aldeko planteamentua. **Sin.** *flexisegurtasun.*

**maltzurkeria** [*alevosía*] ♦ *Zig. Zuz.* Pertsonen kontrako delituetan, exekuzioa ziurtatzera bideratuta dauden bideak, moduak edo erak erabiltzean datzan inguruabar astungarria, egilearentzat biktimaren defentsatik arriskurik sor ez dadin. **Oh.** ZK, 22.1 art.

**manamendu** [*mandamiento, orden*] ♦ *Zuz. T. 1.* Autoritatea duen norbaitek emandako agindua. **Sin.** *manu.* **Ik.** *agindu.* **2.** Zuzenbidean, epaile batek idatziz ematen duen agindua. **Ik.** *agindu.*

**manamendu judizial** [*mandamiento judicial*] ♦ *Zuz. Proz.* Komunikazio-egintza judiziala, agiri edo egiaztapenak libratzeko —edo jarduketa jakin bat gauzatzeko— agindua. Erregistradore, notario eta beste autoritate batzuei zuzentzen zaie.

**manatu** [*mandar, ordenar*] ♦ *Zuz. T.* Zerbaiten agindua eman. **Ik.** *agindu.*

**mancipatio** [*mancipación*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *mantzipazio.*

**mancipium** [*mancipio, esclava, esclavo*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *mantzipio, esklabo.*

**mandatari** [*mandataria, mandatario*] ♦ *Zuz. Zib. Ik.* *mandatu-hartzaile.*

**mandatu** [*mandato*] ♦ *Zuz. Err.* Alde bat (mandatu-hartzaileak edo *mandator, dominus*) beste baten (mandatugilearen edo *mandatarius, procurator*) enkargu bat (zerbitzu-kudeaketa) dohainik egitera behartzen duen aldebiko adostasuneko kontratu ez-perfektua. **Sin.** *mandatum.* ♦ *Zuz. Zib.* Gestio-kontratu mota bat, zeinaren bidez, alderdi batek (mandatu-hartzaileak) beste norbaiten (mandatu-emailearen) kontura eta bere kargu egintza juridiko bat edo batzuk egiteko betebeharra hartzen duen. **Oh.** KZ, 1.709. art. eta hurr.

**mandatugile** [*mandante*] ♦ *Zuz. Zib.* Mandatu kontratu batean, beste pertsona bati bere kontura eta bere kargu negozio juridiko bat edo zerbitzuren bat egitea agintzen dion pertsona, gauzatzen den egintzatik sortzen diren eskubide eta betebeharrak bere gain hartuaz. **Oh.** KZ, 1709. art. eta hurr. **Ik.** *mandatu.*

**mandatu-hartzaile** [*mandataria, mandatario*] ♦ *Zuz. Zib.* Mandatu-kontratuan beste baten

kontura eta hark aginduta egintza edo zerbitzua gauzatzen duen pertsona. Bere betebeharrak nagusia, agindu zaiona betetzea litzateke. Mandatugileak ezarritako jarraibideen arabera, fede onez eta mandatugilearen interesean jokatu behar du. **Oh.** KZ, 1709. art. eta hurr. **Sin.** *mandatari.* **Ik.** *mandatu.*

**mandatum** [*mandato*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *mandatu.*

**mankomunitate** [*mancomunidad*] ♦ *Admin. Zuz.* Nortasun juridiko propioa daukan eta zuzenbide publikokoa den toki-erakundea, bi udalek edo gehiagok, beren udal-eskumeneko obrak egin zein zerbitzuak eskaintzearen, elkarren artean sortutakoa. Udal horiek lurralde historiko ezberdinetakoak izan daitezke, eta ez dute zertan autonomia-erkidego berekoak izan behar. **Oh.** 7/1985 Legea, 44. art.; 2/2016 Legea, 102-103. art.; 6/1990 Foru Legea, 47-52. art. **Ik.** *entitate lokal, kuadrilla.* ♦ *Zuz. Zib.* Obligazio batean, hainbat hartzekodun edo hainbat zordun (edo batzuk eta besteak) egonez, kreditua edo zorra esku komunean galdatzea eta prestatzea ezinbestekoa denean gertatzen den egoera. Mankomunitatea, betebeharra izaeraz zatiezina denean aplikatzen da. **Ik.** *partziaritate, solidaritate, subjektu aniztasun.*

**mantenu-eskubide** [*derecho de alimentos*] ♦ *Zuz. Zib.* Beharrian egoeran aurkitzen diren ahaideen arteko legezko obligazioa. Mantenua emateko eta jasotzeko bokazioa duten ahaideak honako hauek dira: ezkontideak, aurreko eta ondorengo ahaideak eta anai-arrebak. Obligazioa sortzen da, zerrendatutako ahaideren batek bizitzeko oinarrikoak diren baliabideen falta duenean eta mantenua ordaindu behar duen ahaideak ezbehar horri aurre egiteko ahalmen ekonomikoa duenean, berezko beharrei huts egin gabe. Bi betekizun hauek gertatzean, obligazioa sortzen da, baina ez dago ordaintzeko behar juridikorik, ordainketa judizialki eskatzen ez den bitartean. **Oh.** KZ, 142-153. art.

**mantzipazio** [*mancipación*] ♦ *Zuz. Err.* Bron-tzezko txanpona (*raudusculum*) eta balantza (*libra*) baliatuz bost lekukoren eta balantza-eramalearen (*libripens*) aurrean egiten zen hots handiko egintza. Horren bidez, gauza mantzipagarrien gaineko (*res Mancipi*) jabetza kiritarioa (*dominium ex iure Quiritium*) eskualdatzen zen. **Sin.** *mancipatio*.

**mantzipio** [*mancipio*] ♦ *Zuz. Err.* Eskuaren edo gogorkeria fisikoaren bitartez bereganatzea (*manu capere*) esan nahi duen antzinako hitza, «jabetza» adierazten duena. Zuzenbide erromatar klasikoan *mancipio dare* (mantzipioz eman) edo *mancipio accipere* (mantzipioz eskuratu) esaerak erabiltzen dira «jabetza-titulua eskuratu» adierazteko. **Sin.** *mancipium*.

**manu** [*mandamiento, orden*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *manamendu*.

**manumissio vindicta** [*manumisión por la vindicta*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *bindikta bidezko manumissio*.

**marka-eskubide** [*derecho sobre la marca*] ♦ *Merkat. Zuz.* Eskubide honen bidez enpresariari bere produktu eta zerbitzuen markaren gaineko eskubide eskusiboa esleitzen zaio. Hori horrela, baimendua ez dagoen hirugarren batek ezin izango du enpresari horren marka erabili. Era berean, eskubide horrek galarazten du Marken Erregistroan inskriba dadin errorea sor dezakeen bestelako zeinu bereizlerik. **Oh.** ML, 34. art.

**marxismo** [*marxismo*] ♦ *Zuz. T. 1.* Karl Marxen eta Friedrich Engelesen ideietan oinarritzen den doktrina filosofiko, politiko eta ekonomikoa. Kapitalismoa errefusatu eta klase sozialik zein estatutirik gabeko jendartea aldarrikatzen du. Materialismo historiko eta dialektikoa dira doktrina honek analisirako utzi dituen metodo nagusiak. **2.** Doktrina honetan oinarritzen diren mugimendu politikoen multzoa.

**materia-akats** [*vicio material, vicio sustantivo*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *akats material*.

**materiazko akats** [*vicio material, vicio sustantivo*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *akats material*.

**materiazko, egitezko edo aritmetikazko oker-zuzentze** [*rectificación de errores materiales, de hecho o aritméticos*] ♦ *Fin. Zuz. Ik.* *akats-zuzenketa*.

**matrimonium iustum** [*matrimonio legítimo*] ♦ *Zuz. Err.* *Conubium* edo uztartzeko eskubidea eta ezkontza-egoeran egoteko borondatea (*affectio maritalis*) izanik, potestatepeko seme-alaba legitimoak sortzeko gai diren eme (*uxor*) eta arren (*maritus*) artean bat egitea (*coniunctio maris et feminae et consortium omnis vitae*). Ezkontza gauzatzeko bide erabiltzen ziren. Modurik behinena eta zaharrena hauxe zen: emaztea eta senarraren *paterfamiliasaren* potestatepean jartzea (*cum manun*). Bestea, berriz, ezkontza librea izenez ezagutzen zen. Ezkontza librearen kasuan, emaztea jatorrizko *paterfamiliasaren* potestatepean jarrai zezakeen edota, zuzenbide berezko (*sui iuris*) izanik, bere jatorrizko egoerari euts diezaiokeen (*sine manu*). **Sin.** *iustae nuptiae*.

**maulazko egintza** [*acto fraudulento*] ♦ *Zuz. Zib. Ik.* *iruzurrezko egintza*.

**maximin** [*maximin*] ♦ *Zuz. T.* John Rawlsten justiziaren teorian, ezjakintasun egoeran justizia-printzipioak aukeratu behar direnean, espero daitekeen galera maximoa minimizatzeko erabakitze-metodoa. **Sin.** *maximun minimorum*.

**maximun minimorum** [*maximin*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *maximin*.

**medeapen** [*reparación*] ♦ *Zub. Zib.* Egindako kaltea konpontzearen edo ordaintzearen ondorena. **Ik.** *erantzukizun, erantzukizun zibil, kalte, kontratuzko erantzukizun*.

**medeatu** [*reparar, resarcir*] ♦ *Zuz. T.* Sortutako kaltea ordaindu edo erreparatu.

**mehatxu** [*amenaza*] ♦ *Zig. Zuz.* Askatasunaren aurkako delitua; beldurra sorrarazteko

beste bati nolabaiteko kaltea iragartzean datza. **Oh.** ZK, 169. art. eta hurr.

**mehelin** [*medianería*] ♦ *Zuz. Zib.* Finka mugakideen artean geratzen den horma, haren jabetza komuna izanik, bi finken jabeei dagokiena. Horma esanahi zabalean ulertu behar da: pareta, hesia, alambre-hesia, burdin sarea eta abar. **Oh.** KZ, 579. art.

**mendekotasun** [*sujeción*] ♦ *Zuz. T.* Araudia-  
ren edo boterearen ahalaren mendean dagoenaren nolakotasuna. **Ik.** *ahal.* ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio-ahalaren mendean dagoenaren egoera juridikoa. **Ik.** *ahal.*

**menerapen kolonial** [*dominación colonial*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* **Ik.** *herri kolonial.*

**menpeko langile** [*persona trabajadora subordinada*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuaren zuzendaritzapean lan egiten duen langilea. **Oh.** LE, 1.1 art.

**merezimendu- eta gaitasun-printzipio** [*principio de mérito y capacidad*] ♦ *Admin. Zuz.* Enplegatu publikoak hautatzerakoan hautagaien merzimuenduak (akademiko zein profesionalak) eta haien gaitasun eta trebeziak kontuan hartzea eskatzen duen printzipioa. Espainiako Konstituzioaren aginduz, enplegu publikora iristeko bidea arautzen duten legeek ezinbestean zaindu behar dute printzipio hau. **Oh.** EK, 103. 3 art. **Ik.** *enplegatu publiko.*

**merzimuendu-lehiaketa** [*concurso*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** *lehiaketa.*

**merzimuenduen lehiaketa** [*concurso*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** *lehiaketa.*

**merkantzia** [*mercancía*] ♦ *Lan Zuz.* Merkaturuan salgai dagoen ondasuna.

**merkataritari individual** [*empresaria, empresa-  
rio individual*] ♦ *Merkat. Zuz.* **Ik.** *enpresari  
indibidual.*

**merkataritza-epaitegi** [*juzgado de lo mercantil*] ♦ *Merkat. Zuz.* Lehenengo instantzian egitu-

ratu den epaitegi berezia, non hala dagokien merkataritza-epaileak Merkataritza Zuzenbideari buruzko arazoen inguruko erabakiak ematen baititu. Besteak beste, gai hauei buruzko epaiak emanten ditu: konkurtsoak, lehiaren zuzenbidea, jabetza intelektuala, industria-jabetza, garraioa eta itsas zuzenbidea. Merkataritzako epaitegiak lurraldeko hiriburuetan daude, eta hiriburu batek bat baino gehiagok izan dezake honelako epaitegi bat. Era berean, probintzia-auzitegiek merkataritzako gaiei buruzko bigarren instantzia bat izaten dute. Horretarako, sekzio bereziak sortzen dira. **Oh.** BJLO, 86. art. eta PZL, 629. art.

**Merkataritza Erregistro** [*Registro Mercantil*] ♦ *Merkat. Zuz.* Erregistro administratiboa, zeinetan inskribatzen baitira enpresariak (pertsone fisikoak eta sozietateak) eta horiei dagozkien hainbat egintza juridiko eta ekonomiko. Erregistro honen helburu nagusia hau da: merkaturari enpresari horiei buruzko gorabeherak ezagutaraztea. Informazioaren hedapena Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialaren bidez egin ohi da. **Oh.** MK, 16. art. **Sin.** *Merkataritzako Erregistro.*

**Merkataritza Kode** [*Código de Comercio, Código Mercantil*] ♦ *Merkat. Zuz.* Merkataritzako erlazioak erregulatzen dituen araudia edo legea. **Oh.** MK, 2. art.

**Merkataritzako Erregistro** [*Registro Mercantil*] ♦ *Merkat. Zuz.* **Ik.** *Merkataritza Erregistro.*

**merkataritza-politika erkide** [*política comercial común*] ♦ *EB. Zuz.* Izaera autonomo edo konbentzionala izan dezaketen tresna edo neurrien multzoa, Europar Batasuneko erakundeek hartzen dutena kanpo-harreman komertzialak arautzeko. **Oh.** EBFT, 206. eta 207. art.

**merkataritza-salerosketa** [*compraventa mercantil*] ♦ *Merkat. Zuz.* Merkataritzako kontratu bat da, zeinaren bidez saltzaile batek ondasun

bat eskualdatuko baitio erosleari prezio baten ordainean. Merkataritzako salerosketa eta salerosketa zibila antzekoak izan arren, merkataritzakoak zenbait bereizgarri ditu. Merkataritzan egiten diren erosketen xedea erosgaiak berriro saltzea da, betiere, etekinak lortzearren. Bestalde, eskuarki, erosgai horiek eraldatu egiten dira ekoizpen prozesu baten bidez berriro saldu aurretik. Era berean, merkataritzako salerosketen kasuan, kontratuaren alderdi biak enpresariak izan ohi dira. **Oh.** MK, 325. art.

**merkatu** [*mercado*] ♦ *Lan Zuz.* Ondasun eta zerbitzuen eskaintza eta eskaera elkartzen diren gunea.

**metaetika** [*metaética*] ♦ *Zuz. T.* Epai edo judizio moralen analisi logikoaren arazoak aztertzen dituen etikaren atala.

**metafisika** [*metafísica*] ♦ *Zuz. T.* Errealitatearen izaera, egitura, osagaiak eta oinarizko printzipioak aztertzen dituen filosofiaren adarra.

**metodo** [*método*] ♦ *Zuz. T.* **1.** Helburu edo emaitza batera heltzeko modu ordenatu eta sistematikoa. **2.** Zerbait lortzeko jarraitzen den prozedura. **3.** Zientzietan, emaitza topatzeko jarraitzen den prozedura.

**metodo komunitario** [*método comunitario*] ♦ *EB. Zuz.* Erabakitze-prozesuan parte hartzen duten Europar Batasuneko erakundeen jarduteko modua, oreka instituzionalaren errespetua eta elkarren arteko kooperazioa adierazten duena. **Sin.** *erkidegoko metodo.*

**metodologia** [*metodología*] ♦ *Zuz. T.* **1.** Metodoak aztertzen dituen zientzia. **2.** Lan zientifiko edo doktrinalak garatzeko jarraitzen diren metodoen multzoa.

**minimo salbuetsi** [*mínimo exento*] ♦ *Fin. Zuz.* Bizitzeko beharrezkotzat jotzen den gutxieneko kopurua, zergapetu gabe uzten dena.

**ministerio** [*ministerio*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Ministro baten autoritatearen pean dauden zerbitzu

publikoen multzoa. **2.** Eremu politiko zehatz baten ardura duen gobernu-sailetako bakoitza. **3.** Gobernu-sailetako bakoitzaren egoitza.

**Ministerio Fiskal** [*Ministerio Fiscal*] ♦ *Zuz. Proz., Admin. Zuz.* Zigor-prozesuaren dinamika bermatu ahal izateko artifizialki sortutako erakundea; alderdi akusatzaile publiko gisa jarduten du, gizartearen babesean.

**Ministroen Kontseilu** [*Consejo de Ministros*] ♦ *Konst. Zuz.* Estaturuaren presidentetzaren pean dauden gobernuakideen erakundea.

**moduzko dohaintza edo kostuzkoa** [*donación modal u onerosa*] ♦ *Zuz. Zib.* Dohaintza berezia. Moduzko edo kostuzko kontzeptuak baliokideak dira, eta karga bati egiten diote erreferentzia; ez da baldintza, karga baidarik. Kargaren balioak dohaintzan ematen den gauzaren balioa baino txikiagoa izan behar du, bestela dohakotasun betekizuna desagertu egiten da. Karga edo moduak izaera ezberdina izan dezake (ekonomikoa, portaerazkoa, etab); adibidez dohaintzan eman den gauza portaera zehatz bat aurrera eramateko erabilia izan da dila. Dohaintza berezi hau kontratu misto bat da, kostuzko kontratuen eta dohako kontratuen arauak aplikatzen zaizkio eta.

**moneta-politika bateratu** [*política monetaria única*] ♦ *EB. Zuz. Ik. diru-politika bateratu.*

**monismo** [*monismo*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Errealitatearen ikuspegi bakarra eta baztertzaila defendatu eta sustatzen duen doktrina. Ikuspegi monista duten hiru azpi-eredu daude: eskusibotasun-eredua, identitate-eredua eta erabilgarritasun-eredua. **Ik.** *arteko harreman eredu, erlijio-konfesioen, identitate-eredu.*

**monopolio** [*monopolio*] ♦ *Fin. Zuz.* Jarduera bat estatuak edo emakidadun batek bakarrik garatzen duenean gertatzen den egoera.

**moral** [*moral*] ♦ *Zuz. T.* **1.** Giza jokabidearen doktrina, jokabide indibidual eta kolek-



tiboak ongiaren eta gaizkiaren arabera arautu nahi dituen. **2.** Gizarte batek ongiatz eta gaizkiaz duen ikuskera.

**moral publiko** [*moral pública*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Garaiaren eta lekuaren arabera, hainbat zehaztapen izan ditzakeen bizitza sozialaren elementu etiko komuna, ordenamenduaren arau gorenetan juridifikatua dagoena. Ordena publikoaren kontzeptu orokorrean barnebiltzen da. **Oh.** KAE 62/1982. **Ik.** *ordena publiko*.

**moralitate** [*moralidad*] ♦ *Zuz. T. 1.* Jendar-tean pertsonen ekintzak epaitu edo zuzentzeko egoki jotzen diren ohitura eta arau moralen multzoa. **Sin.** *moraltasun*. **2.** Moralarekiko adostasuna.

**moraltasun** [*moralidad*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *moralitate*.

**more uxorio bizikidetz**a [*convivencia more uxorio*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Izatezko bikotea. Juridikoki formalizatu gabeko bikote-harremana, bizikidetz publiko eta egonkorra duena.

**mortis causa dohaintza** [*donación mortis causa*] ♦ *Zuz. Zib.* Bere heriotza hurbilari begira, dohaintza-egileak dohaintza-hartzailearen alde egindako ondarezko atribuzioa, beti ere hura hildakoan honek bizirik jarraituko duen baldintzapean. Legedi batzuetan errebokagarria da eta bestetan, aldiz, oinordetza-itudari parekatzen zaio.

**mortis causa negozio** [*negocio mortis causa*] ♦ *Zuz. Zib.* Haren efikaziarako alderdietako baten heriotza ezinbestekoa duen negozio juridikoa. Adibidez testamentua edo *mortis kausa* izaerako dohantzak. **Ik.** *negozio juridikoa*.

**mortis causa oinordetza** [*sucesión mortis causa*] ♦ *Zuz. Zib.* Pertsona bat hiltzen denean beste batek bere tokia hartzea, posizio juridikoa bera aldatu gabe, ondasun-masa oso bati, ondarearen proportzio bati edo ondasun jakin bati dagokionez. **Ik.** *jaraunspen, oinordetza*.

**motibazio** [*motivación*] ♦ *Admin. Zuz. Ik.* *arrazoitze*.

**mugakide** [*colindante*] ♦ *Zuz. Zib.* Oinbar edo lursail bati dagokionez, haren mugan dagoen beste oinbar edo lursail bat. Mugakidetasunak oinbarren gain eskubide zein betebeharrak zor ditzake, beraien gaineko jabetza nolabait mugatuz.

**mugape judicial** [*demarcación judicial*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *auzitegi-mugape*.

**mugarri** [*mojón*] ♦ *Zuz. Zib.* Lursailen arteko mugak adierazten dituen harri zatia.

**mugarritu** [*amojonar*] ♦ *Zuz. Zib.* Mugarriak ipini, lursailen arteko mugak zeintzuk diren adierazteko. **Sin.** *mugarritzatu, zedarritu, zedarrizatu*. **Ik.** *mugarri*.

**mugarritzatu** [*amojonar*] ♦ *Zuz. Zib. Ik.* *mugarritu*.

**multikulturalismo** [*multiculturalismo*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Kultura-dibertsitatearen eta desberdintasunerako eskubidearen aitortzearen oinarritutako aniztasuna kudeatzeko politikaredua. Politika hauek, maiz, taldeen banaketarako joera dakarte efektu gisa, eta getizazio-prozesua eragiten dute. **Ik.** *gizarte aniztasun, kultura aniztasun, kultura-dibertsitate*.

**multikulturalitate** [*multiculturalidad*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Lurralde-eremu zehatz batean kultura bat baino gehiago daudela adierazteko erabiltzen den kontzeptu soziologikoa. **Ik.** *gizarte aniztasun, kultura aniztasun, kultura-dibertsitate*.

**murrizpen** [*reducción*] ♦ *Fin. Zuz.* Lege bakoitzean oinarri zergagarriari aplikatzen zaion txikipena.

**mutualitate** [*mutualidad*] ♦ *Merkat. Zuz.* Entitate aseguratzaile mota bat, partaideen borondatezko atxikipena bereizgarri duena. Ematen dituen prestazioak derrigorrezko Gi-

zarte Segurantzaren osagarri dira. Honako hauek izan daitezke mutualitate baten partaide: pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta entitate babesleak. Entitate hauek Merkataritza Erregistroan inskribatu behar dute nahitaez. **Oh.** MK, 16. 1. 3 art.

**mutui datio** [*dación en mutuo*] ♦ *Zuz. Err. Ik. mutuo.*

**mutuo** [*mutuo*] ♦ *Zuz. Err.* Pertsona batek (mutuogilea edo *mutuo accipiens*) beste pertsona bati (mutuo-hartzailea edo *mutuo accipiens*) gauza kontsumigarri edo diru-kopuru bat dohainik transmititzeko egiten den aldebakarreko kontratu erreala, zeinaren arabera, transmititutako gauza edo dirua ezarritako epean itzuliko baita. **Sin.** *mutui datio, mutuum.*

**muturreko arrisku** [*peligro extremo*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Nazioarteko obligazio batekin bat ez datorren estatu edo nazioarteko erakunde baten egitatearen ez-zilegitasuna baztertzen duen inguruabarra, egintza horren egileak bere bizia edo bere zaintzapean dituen pertsonen bizia salbatzeko zentzuzko beste modurik ez badu. Ez-zilegitasuna baztertzen duen inguruabar hau ezin izango da muturreko arriskua alegatu, baldin eta hori, soilik edo beste faktore batzuekin batera, estatu edo nazioarteko erakunde horren jokabideak berak eragin badu, edo litekeena bada egintza horrek antzekoa edo handiagoa den arriskua sortzea. **Oh.** NZBren artikuluen proiektua (2001) nazioarteko egitate ez-zilegietatik ondorioztatzen den estatuen erantzukizunari buruzkoa, 24. art. **Sin.** *arrisku extremo.*

**mutuum** [*mutuo*] ♦ *Zuz. Err. Ik. mutuo.*

# N

---

**nagusitasun-abusu** [*abuso de superioridad*] ♦ *Zig. Zuz.* Inguruabar astungarri bat, subjektuen arteko desoreka nabariaren ondorioz gertatzen dena. Subjektu aktiboak jakitun izan behar du subjektu pasiboaren defentsa-gaitasuna nabarmenki mugatzen duela. **Oh.** ZK, 22. 2 art.

**nahasketa** [*confusión*] ♦ *Zuz. Zib.* Obligazioak iraungitzeko bidea, pertsona berberarengan hartzekodun- eta zordun-izaerak pilatzea-gatik. **Oh.** KZ, 1192. art.

**nahigabeko preterizio** [*preterición no intencional*] ♦ *Zuz. Zib.* Testamentuan seniparteduna nahi gabe baztertzea, ez aipatzea. **Ik.** *testamentu, seniparte.*

**nahimen** [*voluntad*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *borondate.*

**nahitaezko betearazte** [*ejecución forzosa*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio-egintza jakin batek behartuta dauden pertsonak dagokiena beren borondatez bete nahi ez dutenean administrazioak egintza hori betearazteko duen ahala eta, aldi berean, horretarako erabiliko duen prozedura. 39/2015 Legeak lau bide zehazten ditu administrazio-egintzak betearazteko: ondarearen gaineko premiamendua, betearazpen subsidiarioa, hertsapenezko isuna eta pertsonen gaineko indarra. **Oh.** 39/2015 Legea, 99. art.

eta hurr. **Sin.** *nahitaezko exekuzio.* **Ik.** *administrazio-prozedura, ahala, egintza, premiamendu-bide.*

**nahitaezko exekuzio** [*ordenación del territorio*] ♦ *Admin. Zuz. Ik.* *nahitaezko betearazte.*

**nazioarteko auzibartete** [*litispendencia internacional*] ♦ *Nart. Zuz. Pr.* Objektu, alderdi eta kausa berberak dituen auzia bi estatutan ebaztek dagoenean sortzen den egoera.

**nazioarteko auzitegi** [*tribunal internacional*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Tratatu baten bidez zein nazioarteko erakunde baten akordio edo ebazpenaren bitartez eratutako jurisdikzio-organoa, nazioarteko eremuan sortutako gatazkak ebazteko eskuduntza duena. Gatazka horiek estatuen artekoak, nazioarteko erakundeen baitan gertatutakoak edo partikularrek egindako nazioarteko krimenei buruzkoak izan daitezke.

**nazioarteko herri-ordena** [*orden público internacional*] ♦ *Nart. Zuz. Pr.* Gatazka-arauaren ohiko funtzionamenduaren salbuespena. Honen arabera, auzia ezagutzen ari diren epaitegien estatuko zuzenbidearen oinarritzko printzipioen aurkakoa den atzerriko legearen ezarpena baztertzen da. **Oh.** KZ, 12. 3 art. **Sin.** *ordena publiko.*

**nazioarteko itsasarte** [*estrecho internacional*]

◆ *Nart. Zuz. Pu.* Nazioarteko nabigaziorako erabilgarri edo egokitzat jotzen den igarobide estu eta naturala, estatu bat edo gehiagoren lurraldeko itsasoko urek osatutakoa eta itsas zabal edo zona ekonomiko eskusiboko bi eremu komunikatzen dituen edo itsas zabal edo zona ekonomiko eskusiboko eremu bat eta kostaldeko estatuarena ez den lurraldeko itsasoa batzen dituen. **Oh.** IZNBK, 37. eta 45. art.

**nazioarteko itun** [*tratado internacional*]

◆ *Konst. Zuz.* Nazio desberdinen arteko edota estatu baten eta nazioarteko erakunde baten arteko ituna.

**nazioarteko judiziozko eskuduntza** [*competencia judicial internacional*]

◆ *Nart. Zuz. Pr.* Estatu bateko herri-autoritateek eta epaitegiek nazioarteko egoera pribatuek sortutako auziak ezagutzeko duten legezko ahalmena. **Sin.** *nazioarteko judiziozko eskumen.*

**nazioarteko komunitate** [*comunidad internacional*]

◆ *Nart. Zuz. Pu.* Nazioarteko subjektu multzoak partekatzen dituen oinarritzko interes nahiz balioen babesean oinarritzen den komunitatea, nazioarteko ordena publiko solidarioa helburu duena.

**nazioarteko lege-maula** [*fraude de ley internacional*]

◆ *Nart. Zuz. Pr.* Egoerari ezgarri izango litzaiokeen ordenamendua saihestearren, gatazka-arauak lotura-puntu gisa erabiltzen duen inguruabarraren aldaketa maltzuraren bidez alderdiek egiten duten iruzurra. **Oh.** KZ, 12. 4 art.

**Nazioarteko Zuzenbide Pribatu** [*Derecho Internacional Privado*]

◆ *Nart. Zuz. Pr.* Atzerriartasunaren osagaia duten pertsona pribatuen arteko harremanak eta egoerak arautzen dituen estatuko zuzenbidearen adarra eta sistema.

**naziokotasun** [*nacionalidad*] ◆ *Zuz. Zib.* Pertsonaren eta estatuaren arteko lotura juridiko-

politikoa. Naziokotasuna egoera zibil bat da, pertsonaren jarduteko gaitasuna baldintzaten duena. Naziokotasunak erabakitzen du pertsonari zein lege aplikatu behar zaion, adibidez, familia eta oinordetza kontuetan. **Oh.** KZ, 9.1 art. **Sin.** *nazionalitate.* ◆ *Nart. Zuz. Pu.* Estatuaren eta pertsonaren artean dagoen lotura juridikoa, estatuaren barne-eskuduntzak ezartzen dituen irizpideen arabera xedatzen dena. Lotura juridiko hori hedaturaz, pertsona juridikoei eta zenbait objekturi ere zaie aplikagarri; azken horien artean itsasontziak, hegazkinak eta espaziora jaurtitako objektuak daude.

**nazionalitate** [*nacionalidad*] ◆ *Zuz. Zib., Nart. Zuz. Pu. Ik.* *naziokotasun.*

**negozio juridiko** [*negocio jurídico*]

◆ *Zuz. Zib.* Borondate-autonomiaren ekintza, zeinaren bidez berau ematen dutenek, beren interesak erregulatzen dituzten, legeak onarturiko efektu juridikoak sortuaz bertatik. Izaera oso desberdinekoak izan daitezke, adibidez: kontratuak, oro har, testamentua... *Negozio* hitza agertu arren, ez du kostubidezkoa izan beharrik.

**negozioen banaketa** [*reparto de asuntos*]

◆ *Zuz. Proz. Ik.* *auzigaien banaketa.*

**nekagarritasun** [*penosidad*] ◆ *Lan Zuz.* Lanaren ezaugarria, soldata osagarriko eskubidea eragin dezakeena.

**nobazio** [*novación*] ◆ *Zuz. Err.* Ordenamendu juridiko erromatarrak aurreko obligazioa iraungitzeko onartutako modu bat, aurrekoaz bestelako obligazio bat sortzen duena. **Sin.** *novatio.*

**norbanakoaren autonomia** [*autonomía individual*]

◆ *Lan Zuz. Ik.* *autonomia indibidual.*

**norbanakoaren eskubide** [*derecho de la personalidad*]

◆ *Zuz. Zib.* Pertsona fisikoaren nortasun eskubideak barne hartzen dituen eskubide multzoa. Adibidez: Ohorea, norbanakoaren eta familiaren intimitatea, norbanakoaren irudia edo izena.

**nortasun juridiko** [*personalidad jurídica*] ♦

*Zuz. Zib.* Eskubide eta obligazioen titular izateko gaitasuna eta jarduteko gaitasuna egikaritzeko ahalmena ematen duen nolakotasuna. Pertsona fisiko edo juridikoei egokitzen zaiena. **Sin.** *nortasun zibil*.

**nortasun zibil** [*personalidad civil*] ♦ *Zuz. Zib.*

**Ik.** *nortasun juridiko*.

**nortasunaren garapen libre** [*libre desarrollo de la personalidad*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.*

Nork bere nortasuna kanpo-hertsapenik gabe eratze-ko prozesua. **Ik.** *kontzientzia-eragozpen*.

**notario** [*notaria, notario*] ♦ *Zuz. Zib.*

Erregimen profesionaleko funtzionario publikoa, zeinak kontratu, testamentu eta oro har, judizioz kanpoko ekintzetan fede emateko gaitasuna aitortua duen.

**novatio** [*novación*] ♦ *Zuz. Err. Ik. nobazio*.**nulitate** [*nulidad*] ♦ *Zuz. Zib. Ik. deuseztasun*.**nuncupatio** [*nuncupación*] ♦ *Zuz. Err. Ik. nunkupazio*.**nunkupazio** [*nuncupación*] ♦ *Zuz. Err.*

Obligazioak sortzeko egiten ziren negozio juridikoetan (*mancipatio, nexum*) eskuratzailerak bere borondatea adierazteko ozenki esaten zituen hitzak. **Sin.** *nuncupatio*.

# 0

**objektibismo** [*objetivismo*] ♦ *Zuz. T. 1.* Errealitate objektiboa existitzen delako sinestea, pertsonak hauteman dezaketena. **2.** Balio moralak norbanakoen eta hauek bizi diren garaitik independenteak direla defendatzen duen doktrina, zenbait teoria etikok defendatzen dutena (objektibismo etikoa).

**objektu material** [*objeto material*] ♦ *Zig. Zuz.* Portaera tipikoa jasaten duen pertsona edo gauza. Bat etor daiteke subjektu pasiboarekin (adibidez, lesioen kasuan), baina ez du zertan horrela izan (adibidez, ebasketa-delituan ebatsitako gauza izango da objektu materiala; subjektu pasiboa, aldiz, ebasten zaion pertsona izango da).

**objektu prozesal** [*objeto procesal*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesu bakoitzaren ezdabaidagaia. Prozesu zibilean edo zigor-prozesuan une eta soziali desberdinak ditu, baina oro har esan daiteke uzia dela, alderdiak epaileari beste subjektu baten aurka egindako eskaera arrazoitua, eta ebentualki haren erantzuna. Besteak beste, jurisdikzioa, eskumena, prozedura egokia eta epaiaren kongruentzia finkatzeko balio du.

**objektu sozial** [*objeto social*] ♦ *Merkat. Zuz.* Baltzuren edo sozietatearen azken xedea. Lotura dauka bazkideen helburu komuna lortzeko

asmoz sozietateak garatzen duen jarduerarekin. Hori horrela, sozietatearen jarduera tresna bat da sozietatearen azken xedea erdiesteko (irabazteko asmoa adibidez) eta sozietatearen kontratuaren kausa edo zergatia osatzen du. **Oh.** MK, 116. art.

**objekzio fiskal** [*objeción fiscal*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Zergadunaren kontzientziaren aurkako jarduerak finantziatzera esleitutako zergen zatia ordaintzearen kontrako jarrera. **Sin.** *eragozpen fiskal.* **Ik.** *kontzientzia-eragozpen.*

**obligatio** [*obligación*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *obligazio.*

**obligazio** [*obligación*] ♦ *Zuz. Err.* Norbaitek (*creditor* edo hartzekodun) beste norbaiti (*debitor* edo zordun) ondare bati dagokion portara edo prestazio positibo edo negatibo bat eskatzeko ahalmena dakarren bi pertsonaren arteko lotura juridikoa. Ligare hitza da (lotu) haren izen-jatorria eta solve (askatu) hitzetik dator, berriz, obligazioaren prestazioa bete izan adierazteko erabiltzen zen terminoa (*solutio*). **Sin.** *obligatio.* ♦ *Zuz. Zib., Zuz. T., Ik.* *betebehar.*

**obligazioen iturri** [*fuentes de las obligaciones*] ♦ *Zuz. Zib.* Obligaziozko erlazio juridikoaren sorrera zehazten duen egintza juridiko mul-

tzoa. Zerrenda hau oso kritikatu izan bada ere, egun, obligaziozko erlazio juridikoen iturriak legea, kontratua, kuasikontratua, delitua eta kuasidelitua dira. **Ik.** *erantzukizun zibil, kontratu*.

**obligaziozko erlazio** [*relación obligatoria*] ♦ *Zub. Zib.* Subjektu biren arteko botere egoera, non batek galda diezaiokeen besteari zerbait egin, ez egin edo eman dezan. **Ik.** *betebehar, betebehar juridiko*.

**obra berri** [*obra nueva*] ♦ *Zuz. Zib.* Lehendik existitzen ez zen eraikuntza. Erregistroan inskribatu ahal izateko, nahitaezkoa da notarioaren aurrean obra berriaren deklarazioa egitea. Berau egin daiteke behin eraikuntza bukatu ostean, hasi aurretik edo bukatu aurretik. **Oh.** HL, 208. art.

**obra-kontratu** [*contrato de obra*] ♦ *Zuz. Zib.* Kontratu mota bat, zeinaren bidez alderdietako bat (komisio-hartzailea) behartzen den prezio jakin baten ordainetan, beste alderdiaren aurrean (komisio-emaile, obraren jabe edo sustatzailearen aurrean) obra bat exekutatzera, hau da, produkzio eraginkor zehatz baten emaitza lortzera.

**officium** [*officium*] ♦ *Zuz. Err.* Tutoreak pupiloarekiko izan beharreko ardurak; libertoak patronoari zor dion begirunea; epaileak epaia eman aurretik zin egin beharrekoa, edota *paterfamilias* batek bere potestapekoei izan behar dutenekin duen zaintza eta errespetu obligazioa da.

**ofizialtasun-printzipio** [*principio de oficialidad*] ♦ *Zuz. Proz.* Interes publikoa nagusi denean prozesuari dagokion printzipioa. Jardueraren hasiera, bukaera eta objektuaren osaera ez dira partikularren eskuetan uzten, prozesu zibilean legez, non xedapen-printzipioa nagusi baita.

**ofizio onak** [*buenos oficios*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* **Ik.** *arartekaritza*.

**ofiziozko abokatu** [*abogado de oficio*] ♦ *Zuz. Proz.* Sistema judizialak defentsa-eskubidea bermatzeko izendatutako abokatua. Herritar batek ez badu bere defentsarako konfiantzazko abokatu bat izendatzen —printzipio orokorra da defentsa-eskubidea abokatu baten bitartez gauzatu behar dela prozesu guztietan—, sistemak bermatuko dio defentsa-eskubidea, abokatu-kolegioetan antolatutako txanda baten arabera, jardueran aurrera egin aurretik.

**ofiziozko bultzada-printzipio** [*principio de impulso de oficio*] ♦ *Zuz. Proz.* Behin abiatuta, auzitegi bakoitzari dagokio, ofizioz, prozesua aurrera egiteko behar dituen ebazpenak hartzea, alderdien eskaerarik gabe. Prozesu guztietan dago indarrean. **Oh.** PZL, 179.1 art.

**ogasun** [*hacienda*] ♦ *Konst. Zuz.* Pertsona edo erakunde bati dagozkion ondasun eta errenten multzoa.

**oharmen-aldakuntza** [*alteración de la percepción*] ♦ *Zig. Zuz.* Zigor-erantzukizunetik salbuesteko kausetako bat: jaiotzatik edo haurtzarotik errealtatearen kontzientzia modu larrian aldatua duenak bakartze soziala pairatzen du eta, beraz, ezin izango du ezagutu zigor-arloan debekatzen dena. Horren adibidea da gor-mutuen kasua. **Oh.** ZK, 20.3 art.

**oharpen** [*anotación*] ♦ *Zuz. Zib.* Akta edo inskripzio baten bazterrean egiten den oharra, testuan jasotzen diren datuak gehitu, zuzendu edo eguneratzeko. **Ik.** *inskripzio*.

**ohartarazpen** [*apercebimiento*] ♦ *Zig. Zuz.* Jakinarazpen, zitazio edo errekerimenduetan erabilitako formula; agindutakoa bete ezean ondorioak eta zehapenak ezartzen ditu. **Oh.** ZK, 502. art. ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Nahitaezko exekuziora jo aurretik Administrazioak egin beharreko urratsa, interesdunari asmo horren berri ematea helburu duena. **Oh.** 39/2015 Legea, 99. art. **Ik.** *nahitaezko betearazte*. **2.** Administrazioaren zehapenahalaren arloan (dizi-

plina-arloan bereziki), arau-hauste arinentzat aurreikusitako zehapena, zeinaren bidez arau-hausleari izandako portaeraren desegokitasuna nabarmenduko baitzaio, eta berriz errepikatuz gero, zehapen larriagoa jarriko zaiola abisatuko. **Oh.** 33/1986 Errege Dekretua, 14. art. **Ik.** *arau-hauste, zehapen*. **3.** Datu-babesaren arloan, organo zehatzaileari ematen zaion salbuespenezko aukera —arau-haustea arina edo astuna den kasuan eta erantzulea aurrez ohartarazia izan ez bada, betiere— zehapen-prozedura hastea erabaki ordez, erantzuleari epe jakin batean egokiak diren neurri zuzentzaileak hartzeko errekerimendua egitean datzana. **Oh.** 15/1999 Lege Organikoa, 45.6 art. **Ik.** *arau-hauste, zehapen*.

**ohiko bizileku** [*residencia habitual*] ♦ *Fin. Zuz.* Zergapekoa bizi den lekua. Leku bat zergapekoaren bizilekutzat hartzeko, beharrezkoa da, legearen arabera, zergapekoak urte naturalaren barruan ehun eta laurogeita hiru egunetik gora ematea leku horretan eta leku hori izatea haren jarduera eta interes ekonomikoen oinarri edo gune nagusia ♦ *Zub. Zib.* Pertsona fisikoa izatez eta era egonkor batean bizi den tokia.

**ohiko delitugile** [*delincuente habitual*] ♦ *Zig. Zuz.* Bost urte arteko epean Zigor Kodeko kapitulu bereko hiru delitu edo gehiago egin dituen delitugilea, baldin eta horren ondorioz kondena jaso badu. **Oh.** ZK, 94. art.

**ohiko lanaldi** [*jornada ordinaria*] ♦ *Lan Zuz.* Eskuarki, eguneko 8 lanorduko lanaldia. **Ik.** *lanaldi-osoko lan-kontratu*.

**ohitura** [*costumbre*] ♦ *Zuz. Zib.* Pertsona multzo batek behin eta berriro duen portaera. Jarduera jakin bat behin eta berriro errepikatze hori, ezinbestekoa delako ustean egiten denean sorrazten da balio juridikodun ohitura. Ohitura, zuzenbidearen iturri gisa, lege aplikagarririk ez dagoenean bakarrik aplikatzen da. **Oh.** KZ, 1. 3 art. **Sin.** *usadio*. **Ik.** *lege-hutsune, zuzenbidearen iturri*.

**ohitura juridiko** [*costumbre jurídica*] ♦ *Zuz. Zib.* Pertsona multzo batek, behin eta berriro duen portaera, jarduera jakin horren behin eta berriroko errepikapena, ezinbestekoa delako ustean egiten denean. **Ik.** *ohitura, zuzenbidearen iturri*.

**ohiturazko arau** [*norma consuetudinaria*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Zuzenbidetzat onartutako Nazioarteko Zuzenbide Publikoko subjektuen praktika orokor, jarrai, uniforme eta iraunkorraren emaitza den arau idatzigabea. **Sin.** *arau konsuetudinario*.

**ohiturazko auzitegi** [*tribunal consuetudinario*] ♦ *Zuz. Proz.* Espainiako Konstituzioak aurreikusten duen auzitegi mota, herritarrek justizia-administrazioan parte hartzea dakarrena. Egun, bi auzitegiri aitortzen zaie izaera hori: *Tribunal de las Aguas de la Vega Valenciana* eta *Consejo de Hombres Buenos de Murcia* auzitegiei, hain zuzen ere. **Oh.** EK, 125. art.

**oinarri ezargarri** [*base imponible*] ♦ *Fin. Zuz.* Pertsona fisiko edo juridiko batek ordaindu behar duen zerga kalkulatzeko aintzat hartzen den abiapuntuko zenbatekoa, atxiki-penik, kenkaririk edo murriztapenik gabea. Zerga-egitatea neurtu edo kuantifikatu ondoren lortzen da, dirutan zein beste edozein neurritan. **Sin.** *zerga-oinarri*.

**oinarri-lege** [*ley de bases*] ♦ *Konst. Zuz.* Gorte Nagusiek emandako eskuordetza-legea; haren bidez botere legegileak legegintza-gaitasuna esleitzen dio botere betearzleari.

**oinarri likidagarri** [*base liquidable*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga-oinarriari zerga bakoitzari buruzko arauan ezartzen diren txikipenak (bidezkoak badira) aplikatuta lortzen den kopurua. **Ik.** *likidazio-oinarri*.

**oinarri likidagarri orokor** [*base liquidable general*] ♦ *Fin. Zuz.* Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, oinarri zergagarri orokorrari dagozkion murriztapenak aplikatuta lortzen den zenbatekoa.



**oinarrizko eskubide** [*derecho fundamental*]

◆ *Konst. Zuz.* **1.** Ordenamendu batek pertsona orori pertsona izateagatik aitortu dion eskubidea. **2.** Giza eskubideen artean, ordenamendu juridiko zehatz batek babespean jarri duen eskubidea.

**oinarrizko ordainsari** [*retribución básica*]

◆ *Admin. Zuz.* Funtzionario publikoei dagoen ordainsariaren zati bat da, langilearen titulazioa, lanpostuaren kategoria zein taldea eta antzinakotasuna kontuan hartzen duena. Oinarrizko ordainsaria honako kontzeptu hauek osatzen dute: soldata, hiru-tekoak eta ezohiko ordainsariaren batezbesteko zatia.

**oinordekide** [*cosucesora, cosucesor*] ◆ *Zuz. Zib.*

Kausatzaile jakin baten oinordetzara beste pertsona batzuekin batera deitua den pertsona.

**oinordeko** [*sucesora, sucesor*] ◆ *Zuz. Zib.*

Kausatzailea oinordetzen duen pertsona, titulu unibertsalaren bidez edo banakako tituluaren bidez. **Ik.** *jaraunsle, legatu-hartzaile.*

**oinordeko unibertsal** [*sucesora, sucesor unibersal*] ◆ *Zuz. Zib.*

Kausatzailearen ondarearen osotasunean, zati edo proportzio batean haren tokia hartzen duen pertsona. Ez da termino hau jaraunslearekin nahasi behar, alikuota legatu-hartzailea ere oinordeko unibertsala baita. **Oh.** KZ, 660. art. **Ik.** *jaraunsle.*

**oinordetu** [*suceder*] ◆ *Zuz. Zib.*

Kausatzailearen posizio juridikoan jarri, titulu unibertsalaren bidez edo banakako tituluaren bidez. **Ik.** *jarauntsi.*

**oinordetza** [*sucesión*] ◆ *Zuz. Zib.*

Pertsona bat beste baten postuan jartzea, baina posizio juridikoak berak aldatetik jasan gabe. Unibertsala edo partikularra izan daiteke oinordetza. Unibertsala da ondasun-masa oso bat edo proportzio bat denean oinordetzaren objektu. Partikularra da ondasun edo harreman juridiko jakin bat denean oinordetzaren objektu. **Ik.** *jaraunspen.*

**oinordetza-fiduzia** [*fiducia sucesoria*] ◆ *Zuz. Zib.*

Kausatzaileak, ahalorde bidez, konfiantzazko pertsona bat izendatzea, izendatutakoak, kausatzailea hil ostean, haren oinordetza ordenatzeko. **Ik.** *fiduziario, komisario.*

**oinordetza-itun** [*pacto sucesorio*] ◆ *Zuz. Zib.*

*Mortis causa* oinordetza antolatzekeo tresna, kausatzailearen eta oinordekoaren artean adostutako kontratua. Testamentua erabat errebo-kagarria da; aldiz, oinordetza-ituna ezin dute bertan behera utzi itungileek euren kabuz.

**oinordetza misto** [*sucesión mixta*] ◆ *Zuz. Zib.*

Kausatzailearen borondatearekin eta legeak aurreikusitakoarekin ordenatutako *mortis causa* oinordetza. Kausatzailearen oinordetzaren zati bat kausatzaileak berak edo hirugarren batek antolatzen du eta beste zati bat, borondatezko antolaketarik jaso ez duenez, legeak ordenatzen du. **Ik.** *borondatezko oinordetza, legezko oinordetza.*

**Oinordetza Zuzenbide** [*Derecho Sucesorio*]

◆ *Zuz. Zib.* Pertsona fisiko baten heriotzaren ondorioz, *mortis causa* sortzen den oinordetzaren gaineko zuzenbidea. Kausatzaile edo hilaren ondarearen (aktibo eta pasiboaren) administrazio eta banaketa, eta testamentudun eta testamentu gabeko oinordetza arautzen du. **Ik.** *borondatezko oinordetza, jarauntsi kausatzaile, legezko oinordetza, mortis causa oinordetza, testamentu.*

**oker judicial** [*error judicial*] ◆ *Zuz. Proz.*

**Ik.** *akats judicial.*

**okerreko sarrerren itzulketa** [*devolución de ingresos indebidos*] ◆ *Fin. Zuz.*

Bidegabeko sarrerak itzultzeko eskubidea aintzatesten duen prozedura. Ofizios edo interesdunak eskatuta hasiko da, honako kasu hauetan: a) zergazorren edo -zehapenen ordainketa birritan egiten denean; b) ordaindutako zenbatekoa administrazio-egintzatik edo autolikidaziotik sortutakoa baino handiagoa denean; c) Adminis-

trazioaren ahalak erabiltzeko preskripzio-epaia edo iraungipen-epaia igaro ostean zerga-zorren eta zehapenen zenbatekoak ordaindu direnean (ez dira inoiz itzuliko ordaindutako zenbatekoak, baldin eta zenbateko horiek araututako erantzukizunetik salbuesteko erabili badira); d) zergen arloko arautegiak hala ezartzen duenean. **Sin.** *zor ez diren sarrerak itzultze.*

**okupazio [ocupación]** ♦ *Zuz. Zib.* Jabetza eskubidea eskuratzeko jatorrizko modua. Inorena ez den (*res nullius*) trafiko juridikoan dagoen ondasun higikorra aurkitzen duenak berea egiten du, ondasuna eskuratzeko borondate eta jarrera adierazita.

**ondare [patrimonio]** ♦ *Zuz. Zib.* Dirutan neur daitezkeen eskubide eta egoera juridikoen multzoa; bere titularrak eskubide eta egoera horietaz goza dezake. Bi alde bereiz daitezke: ondarearen alde aktiboa, berau osatzen duten harremanen gain askatasunez jarduteko ahalmena, eta alde pasiboa, pertsonaren erantzukizunaren eremua.

**ondare-aitorpen [declaración patrimonial]** ♦ *Fin. Zuz.* Arauak ezarritako baldintzak betez gero, zergapekoari zerga-zamarik balegokio, ondasunak eta haien balioa aitortzea Zerga Administrazioari.

**ondare-erantzukizun [responsabilidad patrimonial]** ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio publikoak kontratuz kanpoko jardueretan pertsonen ondasun zein eskubideei eragindako kalteengatik ordaina emateko duen betebeharra, betiere, lesio hori zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondorio bada egikarrituko dena. Obligazio horretatik at geratzen dira halabeharrez edota indar menderaezinek eraginda sortutako kalteak eta, legearen arabera, egoera jakinetan, kaltetuak ezinbestean jasan beharrekoak direnak. **Oh.** 40/2015 Legea, 32. art. eta hurr. **Sin.** *administrazioaren ondare-erantzukizun.* **Ik.** *administrazio publiko, indar menderaezin, lesio, obligazio.*

**ondare-erantzukizun erreklamazio [reclamación de responsabilidad patrimonial]** ♦ *Admin. Zuz.* Administrazioak ondare-erantzukizuneko prozedura has dezan interesdunek egin ahal izango duten erreklamazioa edo eskaera; izan ere, partikularren eskubidea da administrazio publikoen kalte-ordaina jasotzea euren ondare edo eskubideetatik edozeinetan jasotako lesio ororengatik, baldin eta lesio hori zerbitzu publikoen funtzionamendu normalaren zein anormalaren ondorioz sortu bada, salbu eta ezinbesteko kasuetan edo partikularrek legearen arabera kalte horiek jasatea eginbehar juridiko denean. **Oh.** 39/2015 Legea, 67. 1 art.; 40/2015 Legea, 32.1 art. **Ik.** *administrazioaren ondare-erantzukizun.*

**ondare-galera [pérdida patrimonial]** ♦ *Fin. Zuz.* Zergapekoaren ondarearen balioan edo edukian zerga arauak etekintzat jotzen ez duen edozein aldaketa gertatzeagatik agerian jartzen den galera.

**ondare-irabazi [ganancia patrimonial]** ♦ *Fin. Zuz.* Zergapekoaren ondarearen balioan edo edukian edozein aldaketa gertatzeagatik agerian jartzen den irabazia; zerga-arauak etekintzat jotzen dutena ez da ondare-irabazitzat hartzen.

**ondare komunitario [acervo comunitario]** ♦ *EB. Zuz. Ik.* *batasunaren altxor.*

**ondare-ondasun [bien patrimonial]** ♦ *Admin. Zuz.* Administrazioaren jabari pribatuko ondasuna izanik, hots, administrazioaren titulartasunpeko ondasuna jabari publikokoa ez dena (afektaziorik izan ez duelako) edo jabari publikokoa izateari utzi diona (desafektatua izan delako). Besterik aurreikusi ezean, administrazioak eskuratzen duen ondasuna ondare-ondasun izango da. **Oh.** KZ, 340. art; 33/2003 Legea. 7. 1 art. eta 16. art. **Sin.** *administrazioaren ondare-ondasun, ondareko ondasun.* **Ik.** *afektazio, desafektazio, jabari publiko.*

**ondare sozial [patrimonio social]** ♦ *Merkat. Zuz.* Sozietateak edo baltzuak une jakin batean

dituen ondasun eta eskubideen multzoa. Balia-bide ekonomiko eta finantzario horiek hasieran sozietatearen kapitala osatzen dute. Alabaina, ondarea kapitala baino handiagoa edo murriztagoa izan daiteke, betiere, sozietateak dituen etekinen edo galeren arabera. **Oh.** KSL, 254.1 art.

**ondareko ondasun** [*bien patrimonial*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** *ondare-ondasun.*

**ondarezko erantzukizun** [*responsabilidad patrimonial*] ♦ *Zuz. Zib.* Zordunak bere ondasunekin erantzuteko duen betebeharra. **Ik.** *erantzukizun unibertsal.*

**ondarezko kalte** [*daño patrimonial*] ♦ *Zuz. Zib.* Erantzunkizunaren eremuan, ekonomiko baliua duen interes edo ondasun juridiko bat urratzea (osotasun fisikoa, jabetza, prestazioa...). Jasandako kaltea eta galdutako irabaziak barneratzen ditu kontzeptu honek. **Oh.** KZ, 1.106. art.

**ondasun** [*bien*] ♦ *Zuz. Zib.* 1. Ondarezko eskubide subjektibo oro. 2. Eskubide erreal baten objektu izan daitekeen gauza oro. 3. Balioets daitekeen edozein gauza material edo immaterial. **Ik.** *ondasun higiezin, ondasun higigarri.*

**ondasun-erkidego** [*comunidad de bienes*] ♦ *Zuz. Zib.* Eskubide baten titulartasuna edo ondasun baten jabetza aldi berean pertsona bati baino gehiagori dagokienean sortzen den egoera juridikoa. Adibidez, etxebizitza baten jabe bi pertsona direnean, bakoitza etxebizitzaren %50aren jabe izanik. **Oh.** KZ, 392. art. eta hurr.

**ondasun higiezin** [*bien inmueble*] ♦ *Zuz. Zib.* Bere izaeratik toki batean finko dagoen ondasuna, bere lekualdaketa ezinezkoa edo zaila izanik. Kode Zibilean zehazten den ondasunen sailkapenerako oinarritzko irizpidea da eta bertan zerrendatzen diren ondasunak baino ez dira higiezin kontsideratzen, bai beraien izaeratik, eransteagatik edota xedeagatik. **Oh.** KZ, 333-335. art. **Ik.** *ondasun higigarri.*

**ondasun higigarri** [*bien mueble*] ♦ *Zuz. Zib.* Bere izaeratik tokiz lekualda daitekeen ondasuna, betiere lekualdatze horrek bere osotasunean eraginik ez badu. Kode Zibilaren arabera higiezinak ez diren gainerako ondasun guztiak higikor gisa sailka daitezke, Kodeak ez baitu zerrenda itxi bat definitzen. **Ik.** *ondasun higiezin.*

**ondasun juridiko** [*bien jurídico*] ♦ *Zig. Zuz.* Zigor-ordenamendu juridikoak babesten duen interes juridikoa (adibidez: bizia, osotasun fisikoa, askatasuna...).

**ondasunen atxikipen** [*afeción de bienes*] ♦ *Fin. Zuz.* Tributu-kredituaren berme bat. Arau bidez tributu-zor baten ordainketara loturik dauden ondasunen erosleek ondasun horiek erantzuten dute subsidiarioki, tributu-akzioaren deribazioz, zerga-zorra ordaintzen ez bada. Horrela, transmititutako edo erositako gauza dagokion tributuaren ordainketara loturik gertatzen da. **Sin.** *atxikitze-eskubide.*

**ondasunen diru-bihurtze** [*realización de bienes*] ♦ *Zuz. Proz.* Betearazpen orokorrean, epaileak betearazleari ordaintzeko egin beharreko eragiketa: legearekin bat, ondasunak betearaziaren ondaretik atera eta saltzea.

**ondazilegi** [*bien comunal*] ♦ *Zuz. Zib.* Auzo-ondasuna. Lurraren gaineko jabetza-eskubidearen titulartasuna eta lurlean landatutakoaren jabetza-eskubidearen titulartasuna bereizten diren lursail mota. Historian zehar ohikoa izan da kontzeju edo herri baten jabetzakoak diren ondazilegi izeneko lur eremuetan, herritarrei landatzeko eta landatutakoaren jabe izateko eskubidea ematea.

**ondore** [*consecuencia, efecto*] ♦ *Zuz. T. 1.* Premisa edo proposizio batetik, edo hauen multzo batetik, logikaz deduzitzen den ideia. **Sin.** *ondorio.* **2.** Gertakizun batetik halabeharrez erortzen den emaitza.

**ondore debolutibo** [*efecto devolutivo*] ♦ *Zuz. Proz.* Errekurtsoa aurkeztearen ondoreetako

bat. Haren arabera, *ad quem* auzitegiari auzigaiaren gaineko ezagutza osoa eskaintzen zaio; ez bakarrik *a quo* epaileak ebatzitakoa berrikusteko aukera, baita zuzenbidezko zein egitatezko elementuak berrikusteko edo aztertzeo askatasuna ere. **Sin.** *efektu debolutibo*.

**ondorengo ahaide** [*descendiente*] ♦ *Zuz. Zib.* Beherako belaun-lerroko ahaidea (seme edo alaba, iloba, biloba...). **Ik.** *afinitate, ahaide, ahaidetasun, alboko ahaide, aurreko ahaide, lotura bikoitz*.

**ondorio prejudizial** [*efecto prejudicial*] ♦ *Zuz. Proz.* Gauza epaituaren eragin positibo edo prejudiziala. Haren arabera, alderdi beren arteko eta geroago izapidetuko den prozesu batean, ezin da modu desberdinean ebatzi gai zehatz bat, dagoeneko aurreko prozesu batean erabakia izan bada.

**ongizate** [*bienestar*] ♦ *Zuz. T. 1.* Gogobetetze pertsonaleko egoera, zeinean hainbat faktorek eragin baitezakete: osasun pertsonalak, arrakasta pertsonal edo profesionalak, norberarekiko edo inguruarekiko armoniak eta abar. **2.** Bizitza modu atsegin eta lasaian pasatzeko beharrezkoa den guztia duen pertsonak bizi duen egoera.

**ongizate-estatu** [*estado del bienestar*] ♦ *Zuz. T.* Zientzia Politikoaren kontzeptu bat da, zeinaren bidez izendatu egiten baita estatua eta jendartea antolatzeo eredu jakin bat, zeinaren arabera, estatuak herritarren oinarritzko eskubide sozialak bermatzen baititu, betiere, ekonomian esku hartuz eta zerbitzu sozial publiko indartsuak antolatuz, eta estatuaren izaera politiko liberala eta merkatuaren izaera kapitalista errespetatuz. Bigarren Mundu Gerraren ondotik etorri zen bere loraldia.

**onibar** [*bien raíz*] ♦ *Zuz. Zib.* Jabetza eta gainerako beste edozein eskubide erreal, baldin eta lurzoruaren gainekoa bada, edo bertan eraiki, landatu eta ereiten den guztiaren gainekoa. Onibar gisa hartuko dira, halaber, ondasun

higigarriak, baldin eta aurreko esaldian aipatutako ondasunetarako destinatzen badira edo horiei lotuta badaude, salbu eta, kalterik eragin gabe banantzeko modukoak izanik, modu independentean eskualdatzen direnean.

**onibar-zortasun** [*servidumbre predial*] ♦ *Zuz. Zib.* Eskubide erreal mugatua, zeinaren bitartez onibar baten jabeak (eskubidearen titularra denak) beste jabe batena den onibarra kargatzeko ahalmena izango duen.

**ontziratze-agiri** [*conocimiento de embarque*] ♦ *Merkat. Zuz.* Merkantzien itsas garraioan erabiltzen diren dokumentuetako bat. Dokumentu hau paperean zein formatu elektronikoan jaulki daiteke. Itsas garraiolariak merkantzien jabeari ematen dion dokumentua da. Garraioaren egiaztagiriri baten izaera dauka merkantziak itsasontziratzen direnean. Era berean, agiri honek dokumentuaren edukitzailea ahalbidetuko du traiektuan zehar merkantziak hirugarren bati eskualdatu ahal izan diezazkion. **Oh.** INL, 251. art.

**onura fiskal** [*beneficio fiscal*] ♦ *Fin. Zuz., Kontz. Ask. Zuz.* Baldintza jakin batzuk betetzen dituzten zergapekoentzat zerga-araudiak ezar dezakeen onura; adibidez, zerga-betebeharra gutxitzea edo jarduera jakin batzuetarako laguntzak ematea.

**onura publiko** [*utilidad pública*] ♦ *Admin. Zuz. 1.* Onura publikoari buruzko kontzeptu orokorrik ez dagoen arren, oso erabilia da administrazio publikoaren jardueraz arduratzen diren arau-xedapenetan, administrazio jarduerekin erdietsi beharreko helburuak zehazteko. Kontzeptu juridiko zehaztugabea izanik, administrazio publikoak bidezko izango du onura publikotzat zer har daitekeen interpretatzea administrazio-ahalmen zehatzak eskaintzen dizkieten legeak baliatzean. Onura pribatu edo partikularraren aurkakoa izanik, erkideak edo orokorrak diren helburuekin lotzen da. **Sin.** *erabilgarritasun publiko. 2.* Per-

tsonen ondasun, ondare-eskubide edo -interes zilegiak nahitaez desjabetzeko zioetariko bat (gizarte-interesa izango da bestea), desjabetze-prozedura hasi ahal izateko aurreitazko ezinbesteko betekizuna. **Oh.** EK, 33. 3 art., 1954ko abenduaren 16ko Legea, 9-12. art. **Ik.** *desjabetze*. **3.** Elkarrekin pribatuek jaso dezaketen administrazio-aitorpena, hainbat onura (zerga-arlokoak, ekonomikoak, dohaineko laguntza juridikoa) eman, eta betebeharrak espezifikoa (urtero kontu-ematea, jarduera-txostena, bestelako txostenak) eragingo dizkiena. **Oh.** 1/2002 Lege Organikoa, 32. art. **Ik.** *elkarrekin*. **4.** Legeak ezarritako hainbat kasutan administrazio publikoen titulartasunpeko mendiek jaso dezaketen administrazio-aitorpena, zeinaren arabera, publikoko bihurtuko baitira. Horren ondorioz, Erabilgarritasun Publikoko Mendien Katalogoan inskribatuko dira. **Oh.** 43/2003 Legea, 13. eta 16. art. **Ik.** *jabari publiko*. **5.** Dituen ezaugarri eta dohainak kontuan hartuz, berez zein modu artifizialean azaleratutako urak, jaso dezakeen administrazio-aitorpena, ur-mineral sendagarri moduan erabili eta aprobetxatzeko onespina dakarrena. **Oh.** 22/1973 Legea, 23. 1. a) art.

**onuradun** [*beneficiaria, beneficiario*] ♦ *Zuz. Zib.* Ondasun edo prestazio zehatz baten onura edo probetxua jasotzen duen pertsona.

**oposizio** [*oposición*] ♦ *Admin. Zuz.* Enplegu publikoaren kasuan, karrera-funtzionarioak nahiz lan-harremaneko langileak hautatzeko sistema. Sistema honetan hainbat proba erabil daitezke, ahozkoak zein idatziak, hautagaien balioespina egiteko. Besteak beste, hauek azter daitezke: hautagaien ezagutzak, haien analisi-gaitasuna, haien abileziak eta trebeziak, atzerriko hizkuntzen menderatze-maila, eta abar. Ahozko eta idatzizko probez gain, proba fisikoak ere egin litezke. Langile publikoak hautatzeko sistema ohikoenetakoa da hau, lehiaketa-oposizio deituriko sistemarekin batera. **Oh.** 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua,

61. 2, 61. 6 eta 61. 7 art. art.; 6/1989 Legea, 26.1 art.; 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, 5. 2 art. **Ik.** *funtzionario, lan-harremaneko langile, lehiaketa-oposizio*.

**ordainarazpen** [*exacción*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga, isun, zor eta abarren ordainketa galdatzea edo eskatzea.

**ordaindutakoaren arabera pentsio** [*pensión contributiva*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *pentsio kontributibo*.

**ordainketa** [*retribución*] ♦ *Zig. Zuz.* Zigorren tradiziozko helburu bat, justizia eta zuzentasuna bilatzen duena. Beraz, zigorra, honen arabera, delituagatik ukatua izan den borondatearen berreztea izango da.

**ordainketa bakar** [*pago único*] ♦ *Lan Zuz.* Langabezia-prestazioaren diru-kopurua pilatu egiten deneko sistema; hileror ordaindu beharrean, dena batera ordaintzen da. **Oh.** GSLO, 296. art.

**ordainketa-egozte** [*imputación de pago*] ♦ *Zuz. Zib.* Hartzekodun berberaren mesederako espezie bereko zor batzuk dituenak, ordainketa egitean adieraztea ordainketa hori zorretatik zeini aplikatuko zaion. **Ik.** *hartzekodun, zor, zordun*.

**ordainketa geroratze** [*aplazamiento de pago*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga-zorra beranduago ordaintzeko aukera izatea, araudiak horrela jasotzen duenean. **Ik.** *gerorapen*.

**ordainketa-gutun** [*carta de pago*] ♦ *Fin. Zuz.* Herri-ogasunak zor zaion kopurua zergapekoarengandik jaso duela adierazten duen dokumentua.

**ordainketa salbuetsi** [*retribución exenta*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga-egitate burutu arren, arau bidez zerga-obligaziorik sortzen ez duen ordainketa. Pertsona Fisikoen gaineko Zergan kasu kasu jasotzen da zerrenda.

**ordainketa zatikatu** [*pago fraccionado*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga-zorra zatika ordaintzea, araudiak horrela jasotzen duenean. **Sin.** *zaticako ordainketa.*

**ordainketa-zatikatz** [*fraccionamiento de pago*] ♦ *Fin. Zuz.* **Ik.** *zaticapen.*

**ordainketan emate** [*dación en pago*] ♦ *Zuz. Zib.* Hartzekodunak eta zordunak betetze-unean hitzar dezaketen ituna, zeinari jarraiki zordunak obligazioa bete dezakeen, zor ez den beste prestazio bat eginez.

**ordainsari** [*retribución*] ♦ *Lan Zuz.* Egingdako zerbitzu baten truke ematen den ordaina. ♦ *Admin. Zuz.* Administrazioari emandako zerbitzuaren truke enplegatu publikoari dagokion ordaina. **Oh.** 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 22., 26. eta 27. art.

**ordainsari** [*sueldo*] ♦ *Lan Zuz.* **Ik.** *soldata.*

**ordaintzeko konpromisodun adostasun-akta** [*acta de conformidad con compromiso de pago*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga-ikuskaritzak dokumentatzen duen akta mota. Aktan adierazten da zergapekoa ados dagoela Tributu Ikuskaritzak proposaturiko araupetzearekin (likidazio-proposamena eta dagozkion zehapenen proposamena barne).

**ordena publiko** [*orden público*] ♦ *Admin. Zuz.* Eskubideen baliatze baketsua eta betebeharren egikaritzea bermatzen duen egoera, elkarbizitza baketsurako ezinbestekoa. Ordena publikoa kontzeptu zabala da, barne hartzen duena, besteak beste, segurtasuna, ordena (zentzu hertsian), lasaitasuna eta osasun publikoa. Ordena publikoa zaintzeak eskubideak mugatzea ekar dezakeenez (batzartzeko eskubidea, manifestatzeko eskubidea, adierazpen askatasuna...), ez dago modu zabalean hura interpretatzerik; ez, behintzat, Konstituzioak babes-tutako eskubideak ukitzen baditu. ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Segurtasunaren, osasunaren eta moral publikoaren eta gainerako oinarri-

ko eskubideen errespetua barnebiltzen dituen zehaztugabeko kontzeptu juridikoa. Espainiar Konstituzioaren 16 artikulua arabera, Kontzientzia-askatasunaren muga. **Oh.** 7/1980 Lege Organikoa, Erljio-askatasunari buruzkoa, 3.1 art. **Ik.** *moral publiko.* ♦ *Nart. Zuz. Pr.* **Ik.** *nazioarteko herri-ordena.*

**ordenamendu** [*ordenamiento*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Gizarte bat gobernatzeko arauen multzoa. **2.** Zuzenbidearen alor bakoitzari dagozkion arauen multzoa (ordenamendu zibila, zigor-ordenamendua, etabar).

**ordenamendu juridiko** [*ordenamiento jurídico*] ♦ *Zuz. Zib.* Lurralde konkretu batean (Estatu bat, edo herrialde bat) eta garai konkretu batean, indarrean dagoen arau multzoa. Espaniako Ordenamendu juridikoaren iturri dira legea, ohitura eta zuzenbidearen printzipio orokorrak. **Oh.** KZ, 1. art. **Ik.** *legedi.*

**ordenamenduen harmonizazio** [*armonización*] ♦ *EB. Zuz.* **Ik.** *harmonizazio.*

**ordenantza** [*ordenanza*] ♦ *Admin. Zuz.* Udal-errietako osoko bilkurek onartzen dituzten xedapen orokorrak dira. Luzaroan irauteko onarten dira. Gizarte antolamendurako eskubideak eta betebeharrak zehazten dituzte. Hauen artean leudeke hirigintzako arauak eta zerga-antolaketakoak, besteak beste. Ordenantzek erregelamendu-lerruna dute. **Oh.** 2/2016 Legea, 1. Xedapen Gehigarria.

**ordenantza fiskal** [*ordenanza fiscal*] ♦ *Fin. Zuz.* Udal-antolakuntzan, zergak arautzen dituzten instrumentu juridikoen multzoa. Udal bakoitzaren esparruan bildutako tributuen gai formalak eta materialak arautzen dituzte.

**ordenazio** [*ordenación*] ♦ *Zuz. Zib.* Marko juridiko orokor bat ezartzea, zeinaren bidez gai baten inguruko ekintza eta prozesuak erregulatzen diren. Adibidez, Eraikuntzen Antolakuntzari buruzko 38/1999 Legea, azaroaren 5ekoa.

**ordenazio-eginbide** [*diligencia de ordenación*] ♦ *Zuz. Proz.* Justizia Administrazioaren letraduak (garai bateko idazkari judizialak) prozesua bultzatzeko eman dezakeen ebazpen mota bat. **Oh.** BJLO, 456. art. **Sin.** *antolaketa* *eginbide*.

**ordenazio-jarduera** [*actividad de ordenación*] ♦ *Admin. Zuz.* Jarduera pribatuak antolatzeko administrazio publikoak bideratzen duen jarduera. Ordenazio-jarduera administrazio-egintzak, arauak edo plangintzak baliatuz administrazio-erabakiak onartzean datza. **Sin.** *ordenazio-jardun*.

**ordenazio-jardun** [*actividad de ordenación*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** *ordenazio-jarduera*.

**ordezkapen** [*representación*] ♦ *Zuz. Zib.* Beste pertsona baten zereginak kudeatzea, nork bere izenean zein ordezkari-tza-emailearen ordezkari jardunez, betiere ordezkari-tza-aren interesean. Ordezkariak ordezkari-tza-aren baimenez edota legearen aginduz jardungo du. Ordezkariaren erabakiek sortzen dituzten ondorio juridikoek ordezkari-tza-aren egoera juridikoari eragingo diote. **Oh.** KZ, 1712. eta 1259. art.

**ordezkari** [*representante*] ♦ *Zub. Zib., Konst. Zuz.* Beste batek bere kontuan eta izenean aritzeko duen pertsona fisiko edo juridikoa. **Ik.** *ahalorde*, *legezko ordezkari*, *ordezkari-tza*, *ordezkari-tza-ahalorde*, *ordezkatu*.

**ordezkari-tza-sun nagusiko enpresaburu-elkarte** [*asociación empresarial más representativa*] ♦ *Lan Zuz.* Legezko betekizunak beteta, estatus berezia duen enpresaburu-elkartea, bere kideez haratagoko ordezkari-tza aitortua duena. **Oh.** LE, 6. Xedapen Gehigarria.

**ordezkari-tza-sun nagusiko sindikatu** [*sindicato más representativo*] ♦ *Lan Zuz.* Legezko betekizunak beteta, estatus berezia duen sindikatua, bere kideez haratagoko ordezkari-tza aitortzen zaiona. **Oh.** ASLO, 6., 7. art.

**ordezkari-tza** [*representación*] ♦ *Zuz. Zib., Konst. Zuz.* Beste baten izenean eta kontuan aritzea. **Ik.** *ahalorde*, *ordezkari-tza-ahalorde*, *ordezkatu*.

**ordezkari-tza-ahalorde** [*poder de representación*] ♦ *Zuz. Zib.* Beste baten izenean eta kontuan aritzeko ematen edo jasotzen den ahalmena. Ahalordea ematen duena, ahalorde-emailea da. Jasotzen duena, ordeza, ahalordetua da. **Ik.** *mandatu*, *mandatu-hartzaile*, *mandatugile*.

**ordezkari-tza prozesal** [*representación procesal*] ♦ *Zuz. Proz.* Alderdiei epaiketari aritzeko galdatzen zaizen betekizuna. Normalean, prokuradoreak burutzen duen lana.

**ordezkatu** [*representada, representado*] ♦ *Zub. Zib.* Ordezkari batek egikaritzen duen ahalordetza-aren bitartez jarduten duen pertsona. **Ik.** *ahalorde*, *ordezkari-tza*, *ordezkari-tza-ahalorde*.

**ordezkari-tza-eskubide** [*derecho de representación*] ♦ *Zuz. Zib.* Kausatzailearen oinordetza-za deitua izan dena hilda bada, jaraunsgabetua izan bada edo oinordetza-ko ezduin deklaratu bada, beren oinordekoek kausatzailearen oinordetza-ko aukera dute, legez eskuratzen den eskubide honen bitartez.

**ordezpen** [*sustitución*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Kargua edo lanpostua hutsik dagoenean, titularrak kanpoan edo gaixo denean haren ordezkari aldi baterako beste kide bat jartzea. Ordezpenak administrazio-organoko titularraren ordezkari egiten dio erreferentzia. Administrazio-organoren batean titularrak ez bada, edota kanpoan edo gaixorik bada, ordezkari-koa jarriko da, aldi baterako bakarrik bada ere. Ordezpena gertatuko da, halaber, abstenitze- edo errefusatzeko kasuetan ere. **Oh.** 40/2015 Legea, 19. art. **2.** Organo kolegiatuetan, organoko burutza hutsik bada, organoko burua kanpoan edo gaixorik bada, edo legezko beste arrazoiari bat bada, buruordeak ordezkari-ko du burua;

eta buruorderik ez bada, berriz, kide anitzeko organoan maila, antzinasun eta adinik handiena duen kideak ordeztuko du, betiere, hurrenkera horretan. **Oh.** 40/2015 Legea, 19. 2 art. **3.** Jarduteko gaitasuna duen edozein pertsona fisiko zein juridikok administrazioaren aurrean interesdun baten izenean jarduteko duen gaikuntza. **Oh.** 39/2015 Legea, 5. art. **Ik.** *interesdun.*

**ordezpen arrunt** [*sustitución vulgar*] ♦ *Zuz. Zib.* Lehendabizi izendaturiko oinordekoari ezarritako ordezpena, beste oinordeko baten edo hainbaten izendapenaren bitartez, lehenengoak berau eskuratzeko ezintasun hipotesiei aurrea hartuz. Hipotesi hauetan -oinordekoaren aurrez hiltzea, oinordetza eskuratzeko nahi eza edo gaitasun eza- ordezpena gertatzen da izendaturiko gainerako oinordekoen alde. **Ik.** *jaraunspen-ordezpen.*

**ordezpen fideikomisario** [*sustitución fideicomisaria*] ♦ *Zuz. Zib.* Oinordekoen artean kausatzaileak ezartzen duen ordezpena; izendatzen duen lehenengo oinordekoaren, fiduzioarioaren, eta gainerako oinordekoen, fideikomisarioen, artean gozamen eta eskualdatze xedapen bat finkatuz. Kausatzaileak deialdi anitza luzatzen du eta deitutako guztiak izaten dira bere oinordeko, baina ez aldi berean. **Ik.** *jaraunspen ordezen.*

**ordezpen kuasipupilar** [*sustitución ejemplar*] ♦ *Zuz. Zib.* Testamentua egiteko ezgaitua izan den 14 urte baino nagusiagoa den ondorengoa ordezkatzeko, aurreko ahaideek egiten duten izendapena. **Oh.** KZ, 776. art. **Ik.** *jaraunspen ordezen, ordezen arrunt, ordezen pupilar, ordezen fideikomisario.*

**ordezpen pupilar** [*sustitución pupilar*] ♦ *Zuz. Zib.* Ondorengoa 14 urte izan baino lehen hiltzen denerako, gurasoek edo aurreko ahaideek ordezkaria izendatzea. **Oh.** KZ, 775. art. **Ik.** *jaraunspen ordezen, ordezen arrunt, ordezen fideikomisario, ordezen kuasipupilar.*

**oreka instituzionalaren printzipio** [*principio de equilibrio institucional*] ♦ *EB. Zuz.* EBko erakunde bakoitzak dagozkion ahalmenak tratatuek ezarritako mugen barruan eta beste erakundeei dagozkien ahalmenak errespetatuz egikarrituko dituela eta elkarrekin kooperatuz jokatu duela ezartzen duen printzipioa. **Oh.** EBT, 13. 2 art. **Sin.** *erakunde-orekaren printzipio.*

**organismo autonomo** [*organismo autónomo*] ♦ *Admin. Zuz.* **1.** Zuzenbide publikoko entitatea, ezaugarri orokor hauek dituen: nortasun juridiko propioa; diruzaintza eta ondare propioak; eta prezio baten truke interes publikoko zerbitzuak eman eta ondasunak ekoiztea. **Oh.** 40/2015 Legea, 98.1 art. **Ik.** *entitate instituzional.* **2.** Deszentralizazio funtzionala dela eta, herri-administrazioaren menpe dagoen entitatea, ondoko jarduera hauek egiten dituen: herri-sustapena, prestazio-jarduera eta zerbitzu publikoen kudeaketa. Administrazio publikoaren jardun propioak egiten dituztenez, Administrazio Zuzenbidearen arabera jardungo dute nagusiki. **Oh.** 40/2015 Legea, 98. 2 eta 99. art.

**organizazio** [*organización*] ♦ *Konst. Zuz.* **Ik.** *antolakunde.*

**organo** [*órgano*] ♦ *Zuz. T.* Antolakunde sozial, politiko edo instituzional baten atala, normalean funtzio eta zeregin berezituak betetzen dituen.

**organo administratibo** [*órgano administrativo*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** *administrazio-organo.*

**organo jurisdikzional** [*órgano jurisdiccional*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *jurisdikzio-organo.*

**organo tributuo-biltzaile** [*órgano de recaudación tributaria*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga Administrazioaren barruan, tributuen bilketaz arduratzen den organoa. Zerga Ikuskatzailezari aintzatesten zaizkion ahalmenak ditu. **Sin.** *organo zerga-biltzaile.*



**organo zerga-biltzaile** [*órgano de recaudación tributaria*] ♦ *Fin. Zuz.* **Ik.** *organo tributubiltzaile.*

**osasan arloko informazioarako eskubide** [*derecho a la información del ámbito sanitario*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Osasan-zerbitzuen erabiltzaileek duten eskubidea, informazioa jasotzeko beren eta koletiktibitatearen osasunaren zein zerbitzu-sistemaren inguruan. **Ik.** *osasunera-ko eskubide.*

**osasunerako eskubide** [*derecho a la salud*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Osasan arloko erabiltzaileei honako hauek bermatzen dizkien eskubidea: informazioa jasotzea, norberaren osasunaren inguruan erabakitzea, kalitatezko osasan-tratamenduak jasotzea eta esparru honetako datuen inguruko intimitatea babestea. **Ik.** *osasan arloko informazio-eskubide, osasan-zerbitzu publiko, osasan-zerbitzuen sistema.*

**osasan-zerbitzu publiko** [*servicio público de salud*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Herritarren osasunerako eskubidea bermatzeko botere publikoek antolatutako osasan-zerbitzua. **Ik.** *osasunera-ko eskubide.*

**osasan-zerbitzuen sistema** [*sistema de servicio de salud*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Osasan-zerbitzuak antolatzeko eredua. Eredu teoriko desberdinak daude: eredu liberala, eredu sozialista eta eredu mistoa. Eredu mistoen artean bi dira azpimarragarri: Beveridge izenekoa (zerga bidezko finantzatzea) eta Bismarck izenekoa (kotizazioen bidezko finantzatzea). **Ik.** *osasan-zerbitzu publiko.*

**osotasun-printzipio** [*principio de plenitud*] ♦ *Zuz. T., Fin. Zuz.* **Ik.** *osotasunaren printzipio.*

**osotasunaren printzipio** [*principio de plenitud*] ♦ *Zuz. T.* Ordenamendu juridikoa ezauzgarritzen duen oinarriko printzipioa, zeinaren arabera, sistemak beti kualifikazio normatibo bat baitu edozein kasu edo gertakarirentzat. Alegia, ordenamendu juridikoak hutsune nor-

matiborik ez duela aldarrikatzen duen zuzenbidearen oinarriko printzipioa. **Sin.** *osotasun-printzipio* ♦ *Fin. Zuz.* Likidatutako eskubideak eta aitortutako betebeharrak aurrekontuetan zenbatekoa osorik adierazita aplikatzera behartzen duen printzipioa; horren arabera, bete-beharrei ezin zaie erantzun likidatu beharreko eskubideak edo dagoeneko sartuta daudenak gutxituz, non eta legezko baimenik berariaz eman ez den. Auzitegi edo agintari eskudunen batek bidegabetzat jotako sarreraren itzulketei ez zaie osotasunaren printzipioa aplikatzen. **Sin.** *osotasun-printzipio.*

# P

---

*pactum* [pacto] ♦ *Zuz. Err. Ik. itun.*

**parafiskalitate** [*parafiscalidad*] ♦ *Fin. Zuz.* Finantza-helburua duten indarrezko diru-sarrea publikoak, baina, hala ere, tributu gisa arautuak ez datozenak eta maila horretan sailkatzen ez direnak. Adibideak: Gizarte Segurantzaren, lanbide-kolegioen eta merkataritza, industria eta nabigazio-ganbaren afiliazio-kuotak, eta zenbait lanbide profesionalen arantzelak (notarioak eta erregistradoreak).

**parlamentu** [*parlamento*] ♦ *Konst. Zuz.* Bote-re legegilea duen ordezkapen-erakundea.

**partaidetza** [*participación*] ♦ *Admin. Zuz.* Esku-hartze aktibo eta kontzientea, interes publikoa duten erabakitze-prozesu formalizatuetan bideratzen dena. Eskubide positiboa da, Konstituzioak zein Legeek aitortua. **Oh.** EK, 9. 2 eta 23.1 art. ♦ *Lan Zuz.* Langileek enpresan parte hartzea: kapitalean, kudeaketan, edo emaitzetan. ♦ *Zig. Zuz.* Kanpoko egitate batean esku-hartzea. Partaideak egilearekiko bigarren maila batean kokatzen da, laguntza ematen dio. Hiru mota daude: indukzioa, ezinbesteko laguntza eta sopikuna. **Oh.** KZ, 28. eta 29. art. **Oh.** ZK, 28. eta 29. art.

**partaidetza-eraentza** [*régimen de participación*] ♦ *Zuz. Zib.* Ezkontzaren ondasun-eraen-

tza mistoa: ezkontza bitartean ezkontideei dagokie beraien ondarearen kudeaketa. Ondasun-eraentza irautitzean, ordea, irabazi gutxien edo irabazirik izan ez duen ezkontideari, beste ezkontidearen irabazietan parte hartzeko eskubidea aitortzen zaio. **Ik.** *banatze-eraentza, ezkontza, ezkontza-kapitulazio, ezkontzaren ondasun-eraentza, foru-komunikazio, irabazpidezko erkidego.*

**partaidetza itsaskor** [*intervención adhesiva*] ♦ *Zuz. Proz.* Abian dagoen prozesu batetik at dagoen pertsona bat (hirugarren bat, hain zuzen ere) alderdi bihurtzea, une jakin batean hala erabakitzen duelako, interes edo eskubide zilegi batean oinarrituta.

**partaidetza itsaskor bakun** [*intervención adhesiva simple*] ♦ *Zuz. Proz.* Partaidetza berezia, non hirugarrenaren interesa ez baitator titularkide izatetik, baizik eta interes «islatu» batetik. Prozesuan ezdabaidatzen den auzigaiak ondorio kaltegarriak izan ditzake hirrugarengoaren arlo juridikoan, eta, hain zuzen, interes propioaren defentsak zilegitzen du beraren parte-hartzea.

**partaidetza-kontu** [*cuentas en participación*] ♦ *Merkat. Zuz.* Hainbat subjektu elkartu eta ekonomia-jarduera bat lankidetzan garatzea

ahalbidetzen duen jokabidea. Jarduera hori arrera eramateko partaideek dagokien ekarpen ekonomikoa egiten dute eta kudeatzaile batek bideratzen du jarduera ekonomikoa, bere ize-nean soilik jarduten duelako itxura emanez. Horrek esan nahi du merkatuari ezkutatu egiten zaiola hainbat subjekturen barne lankidetzaren egon badagoela. Partaideek jardueraren etekinak jasotzen dituzte soilik; ez, ordea, galerarik. **Oh.** MK, 239. art.

**partaidetza litikonsortzial** [*intervención litisconsorcial*] ♦ *Zuz. Proz.* Hirugarrena harreman juridikoaren titularkidea denean gertatzen den partaidetza. Beraz, hasieratik alderdi izateko legitimazioa du, baina beraren presentzia ez da ezinbestekoa prozesua abian jartzeko. Eskubide propioa defendatuko du prozesuan zehar. **Ik.** *litikonsortzio*.

**parte-hartzearen printzipio** [*principio de participación*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Herritarrek bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte hartzeko aukera izan dezaten erraztea botere publikoei dagokiela xedatzen duen printzipio konstituzionala. Printzipio hau demokraziaren kontzeptuari hertsirik dator lotua. **Oh.** EK, 9. 2 art. **Ik.** *zuzenbide-estatu, sozial eta demokratiko*.

**partizipazio sozial** [*participación social*] ♦ *Merkat. Zuz.* Erantzukizun mugatuko sozietate bateko kapitalaren zatia, banaezina eta metagarria. Ez du balore-titularen izaerarik. Beraz, ezin da eskualdatu, eta ezta ere kontu idazpenetan ordezkatu. Sozietate baten kapitalari dagokionez, Legeak bereizten ditu partizipazio sozialak eta sozietate anonimo bateko akzioak. **Oh.** KSL, 1. 2 art.

**partziaritate** [*parciaridad*] ♦ *Zuz. Zib.* Obligazio batean, hainbat hartzekodun edo hainbat zordun (edo batzuk eta besteak) egonez, kreditua edo zorra hainbat hartzekodun edo zordunen arabera banatzea. Bi zordunek, 2000 euro zor badituzte, bakoitzari 1000 euro erreklama

dakioke. **Ik.** *mankomunitate, solidaritate, subjektu aniztasun*.

**partzuergo** [*consorcio*] ♦ *Admin. Zuz.* Sektore publiko instituzionaleko hainbat administrazio publikok zein entitatek beren artean edo entitate pribatuekin elkartzuz guztien intereseko jarduerak egitearren sortutako erakundeak, nortasun juridiko propioa eta berezia dutenak. Partzuergoek sustapen-jarduerak, prestazioak ematekoak edo zerbitzu publikoak kudeatzeko jarduerak egiten ohi dituzte, bai eta legetan aurreikusita dauden beste guztiak ere. **Oh.** 40/2015 Legea, 118. art.

**patente** [*patente*] ♦ *Merkat. Zuz.* Asmakuntza baten gaineko eskubide esklusiboa zeinari esker asmatzailea bere asmakuntzaren erabileraren jabe baita eta horri dagozkion etekinak jasotzen baititu. Asmakuntza Marken eta Patenteen Bulegoak babes dezan, berria izan behar du eta industriarako aplikagarria. Patentearen jabetza zein erabilera eskualda daitezke. **Oh.** PL, 4.1 art.

**patente-gutun** [*carta patente*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Atzerrian bere funtzioak bete ditzaten, erregeak edo estatuak bere kontsulei ematen dien egiaztatutuna. Gutun mota hau era solemnean idazten da, estatuburuaren sinadura zein zigilua darama eta Kanpo Arazoetako Ministroaren berrespena izan behar du. Bertan, titularraren izena, karguaren klasea eta kategoria zehaztu behar dira (kontsul orokorra, kontsula, kontsulordea, ...), eta baita ere egoitza-hiria eta bere funtzio zein eskuduntzen lurralde-barrutia.

**patronal** [*patronal*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuak biltzen dituen elkarteak, edo, oro har, enpresaburuak biltzen dituzten elkarteak. **Oh.** EK, 7. art. **Ik.** *ugazaben elkarte*.

**pauliar akzio** [*acción pauliana*] ♦ *Zuz. Zib.* Ordenamendu juridikoak hartzekodunei aintzatesten dien boterea edo ahalmena, beste era batean kobratu ezin badute, bere eskubidearen

maulan zordunak egindako egintzen aurka jartzeko. KZ, 1111. art. **Ik.** *hutsaltze-akzio*.

**pazientearen osotasun fisiko** [*integridad física del paciente*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Osasun-zerbitzuen erabiltzailearen eskubidea bere adostasunik gabe lesiorik, kalterik edo interbentziorik egin ez diezaioten bermatzen duena. Osasunerako eskubidearen zehaztapenetako bat. **Ik.** *osasunerako eskubide*.

**pentsio** [*pensión*] ♦ *Lan Zuz.* Bizi arteko prestazioa, edo gutxienez iraupen luzekoa.

**pentsio kontributibo** [*pensión contributiva*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzaren barruan, kotizazioen arabera ematen den pentsioa. **Sin.** *kotizaziopeko pentsio, ordaindutakoaren araberrako pentsio*.

**pentsiodun** [*pensionista*] ♦ *Lan Zuz.* Pentsioa jasotzeko eskubidea duen pertsona.

**peritu bidezko frog**a [*prueba pericial*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *aditu-froga*.

**peritu-irizpen** [*informe pericial*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *aditu-txosten*.

**permutatio** [*permuta*] ♦ *Zuz. Err.* **Ik.** *truketa*.

**persekuzio-eskubide** [*derecho de persecución*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Zenbait baldintza zehaztetan, gerra ontziek edo gobernuaren zerbitzuan dauden bestelako ontziek atzerriko itsasontzi bat jazartzeko duten ahalmena, izatez, itsas zabalean aplikagarria den nabigaziorako askatasun-printzipioaren mugatzea dakarrena. Hori posible izateko, atzerriko itsasontziak kostaldeko estatuaren subiranotasun eta jurisdikziopean dauden ur-eremuetan bere lege nahiz erregelamenduak bortxatu izanaren susmo sendoak izan beharko dira eta persekuzioa hasteko orduan ur-eremu horren mugen barruan egon beharko dute delako ontziek. **Oh.** IZNBK, 11. art. **Sin.** *jazarpen-eskubide*.

**pertsonal** [*personal*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresako langileek osaturiko multzoa.

**pertsonalismo** [*personalismo*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Ordenamendu juridikoaren ardatzak honako hauek direla aldarrikatzen duen gidalerroa: gizabanakoaren duintasuna, gizabanakoari atxiki zaizkion eskubide bortxaezinak eta gizabanakoaren nortasunaren garapen askea. **Oh.** EK, 10.1 art. **Ik.** *duintasun, nortasun-garapen aske*.

**pertsonalitate-printzipio** [*principio de personalidad*] ♦ *Zig. Zuz.* Printzipio honen arabera, ezaugarri jakin batzuk betetzen direnean Espainiako zuzenbidea espainiarrei ezarriko zaie, nahiz eta delitu-egitatea Espainiatik kanpo egitaritu. **Oh.** BJLO, 23.2 art.

**pertsonaren identitate** [*identidad de la persona*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Nork bere burua besteengandik bereizirik identifikatzea ahalbidetzen duten ezaugarri pertsonalen multzoa. Ezaugarri horien artean daude uste sendoak edo konbikzio pertsonalak. **Ik.** *konbikzio, uste sendo*.

**persona-zuzenbide** [*derecho de la persona*] ♦ *Zuz. Zib.* Pertsona fisikoaren nortasunaren eskubideak arautzen dituen zuzenbidea (pertsonaren bizitza, nortasun juridikoa, naziokotasuna, auzotasuna, osasun fisikoa, genoma, intimitatea, ohorea edo irudia izarako eskubideak barne hartzen ditu).

**pieza** [*pieza*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozedura judiziala osatzen duten zati edo ataletako bakoitza; prozeduraren objektu nagusiari buruzko edo izapidetze autonomoa behar duen beste arazo bati buruzko jarduerak jasotzen dira bertan.

**pieza banandu** [*pieza separada*] ♦ *Zuz. Proz.* Arazo nagusiarekin zerikusia izanik, prozedura berean bereiz tratatu eta erabaki behar den arazo; besteak beste, kautela-neurri pertsonalari, erantzukizun zibilari edota erantzukizun zibil subsidiarioari buruzkoak.

**pieza nagusi** [*pieza principal*] ♦ *Zuz. Proz.* Auzi edo objektu nagusiarri buruzko izapideztea jasotzen duen prozedura-atala.

**pignus** [*prenda*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *bahitura.*

**pignus datum.** *Ik.* *bahituran emana.*

**pizgarri** [*incentivo*] ♦ *Fin. Zuz.* Zergen eremuan, zenbait tributuren ordainketan txikipen edo salbuespen gisa zergapekoei ematen zaien eragingarri edo bultzagarria. Helburua da Administrazioak bultzatzea interes ekonomikoa duten jarduerak.

**plangintza** [*planificación*] ♦ *Admin. Zuz.* Aldi jakin baterako helburu publikoak eta jarduera-programak ezartzen dituen tresna juridikoa.

**planta judicial** [*planta judicial*] ♦ *Zuz. Proz.* Baliabideak eta beharrak kontuan hartuz legeak egiten duen diseinu integrala; helburua da zerbitzuaren ikuspegitik ordena jurisdikzional desberdinak eta organo jurisdikzionalak lurraldeari eta biztanleriari egokitzea. **Oh.** BJLO, 29. art.

**platonismo** [*platonismo*] ♦ *Zuz. T.* Platonen ideietan oinarritzen den doktrina edo eskola filosofikoa, zeinaren arabera, kontzeptuak aldaezinak baitira, zentzumenen bidez lortzen den ezagutza aldakorra den bitartean.

**plebiscitum** [*plebiscito*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *plebiszito.*

**plebiszito** [*plebiscito*] ♦ *Zuz. Err.* Plebeak (*plebs*) bere herri-batzar propioan (*consilium plebis*) onartu eta xedatzen duen legearen (*lex*) indar bereko arau juridikoa. **Sin.** *plebiscitum.*

**plebiszitu** [*referéndum*] ♦ *Konst. Zuz. Ik.* *erreferendum.*

**poligamia** [*poligamia*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Pertsona batekin baino gehiagorekin aldi berean ezkondua egoteko aukera onartzen duen familia-erregimena. Bi poligamia mota bereiz daitezke: poliginia (gizonezko batek emazte bat

baino gehiago duenean) eta poliandria (emakumezko batek senar bat baino gehiago duenean).

**Ik.** *ezkontza-sistema, familia-eredu.*

**polizia** [*policía*] ♦ *Admin. Zuz.* Ordena publiko eta herritarren segurtasuna zaintzeaz arduratzen den kidegoa. **Ik.** *segurtasun-indar.*

**polizia-atestatu** [*atestado policial*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *atestatu.*

**polizia judicial** [*policía judicial*] ♦ *Zuz. Proz.* Delitua ikertzeko eta delitugilea aurkitu eta zaintzapean edukitzeko eginkizunetan epaileen, auzitegien eta Ministerio Fiskalaren mende diharduen kidegoa. Funtzio hori estatuko segurtasuneko kide guztiei dagokie, hartarako eskaera egiten zaienean, edota epailearen zein Fiskaltza-ren mende dauden unitate berezi iraunkorrei.

**positibismo** [*positivismo*] ♦ *Zuz. T.* Doktrina filosofikoa, defendatzen duena ezagutza zientifikoa dela benetako ezagutza. Horrela, teoria honek aldarrikatzen du ezagutza ezin dela eskuratu, ez bada dagozkion hipotesiak edo teoriak metodo zientifikoaren bidez baieztatuz. Ezagutza zientifikoaren oinarria zentzumenen bidez jasotako datu behagarriak izango dira; alegia, behaketa enpirikoa izango da zientzia ororen oinarri.

**positibismo ideologiko** [*positivismo ideológico*] ♦ *Zuz. T.* Norberto Bobbioren sailkapenari jarraiki, iuspositibismo mota bat da, arauen baliozkotasuna eta justiziaren ideia berdindu egiten dituena. Alegia, ikuskera honen arabera, zuzenbide positiboak, positibo denez gero, justua izango da. Ez da beraz zuzenbide injusturik egongo, eta hori dela eta, baldintzarik gabe obeditu beharko da.

**positibismo juridiko** [*positivismo jurídico*] ♦ *Zuz. T.* Pentsamendu juridikoaren korrante heterogeneo bat da, askotariko ikuspegiak barnebiltzen dituena, baina, betiere, oinarri komun batekin: zuzenbidea zuzenbide positiboarekin identifikatzen du, alegia, dagokion autoritateak

emandako zuzenbide zehatzarekin. Zuzenbidearen eta moralaren arteko banaketa zorrotza defendatzen duela esan ohi da, halaber. Hortaz, iuspositibistek zientzia juridikoaren helburua baliozkoak diren arau zehatzak direla defendatzen dute, eta hori dela eta, soilik azken horiek hartzen dituzte aintzat, bestelako balorazioak (moralak edo printzipioetan oinarritutakoak) alboratuz. Hans Kelsen (1881-1973) jurista austriarra izan zen eskola honen aitzindari. **Sin.** *iuspositibismo*.

**positibismo metodologiko** [*positivismo metodológico*] ♦ *Zuz. T.* Norberto Bobbioen sailkapenari jarraiki, iuspositibismo mota bat da, gertakari judizioak eta balio-judizioak bereizi behar direla defendatzen duena, eta azken horiek zientziaren ikusmugatik at kokatu. Beraz, korrante honen arabera, balorazioak zientziaren jardunetik kanpo gelditzen dira eta posible da gututz neutralak diren azterketak egitea. Horrenbestez, neutraltasun baloraztailea litzateke helburua.

**positibismo teoriko** [*positivismo teórico*] ♦ *Zuz. T.* Norberto Bobbioen sailkapenari jarraiki, iuspositibismo mota bat da, ordenamendu juridikoaren deskribapena helburu duena. Ordenamendu juridikoa batua, osoa (hutsunerik gabea) eta koherentea (antinomiarik gabea) dela defendatzen du, eta baita arau juridikoa aginduarekin parekatu ere. Horrez gain, korrante honen arabera, legea izango da zuzenbidearen iturri nagusi, eta zuzenbidearen aplikazioa ariketa logiko hutsa izango da.

**positibizatu** [*positivizar*] ♦ *Zuz. T.* Baliozko arau zehatzen bidez (praktikan, idatzizkoak) ordenamendu juridikora inkorporatu.

**positibizazio** [*positivación*] ♦ *Zuz. T.* Ordenamendu juridiko positibora inkorporatzeko ekintza eta ondorioa. **Ik.** *positibizatu*.

**posizio aktibo** [*posición activa*] ♦ *Zuz. Proz.* Edozein prozesutan, akzio-eskubidea egikari-

tuz abian jartzen duen eta jarduera bultzatzen duen alderdia, subjektu bakarraz edo zenbait subjektuz osatua egon daitekeena. Izaera publikoa edo pribatua izan dezake.

**posizio-bitasun** [*dualidad de posiciones*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesua hasi eta garatu ahal izateko kontrajarriak diren bi posizioen presentzia ezinbestekoa; eztabaida haien artean gauzatzen da: demandatzailea eta demandatua, prozesu zibilean; akusatzailea eta akusatua, zigor-prozesuan. Posible da posizio bakoitzean zenbait alderdi, erabat autonomoak izan daitezkeenak, egotea.

**posizio pasibo** [*posición pasiva*] ♦ *Zuz. Proz.* Edozein prozesutan, akzio-eskubidearen egikaritzaren jasotzailea. Uzia aurkatu eta onar dezakeen alderdia edo, alderantziz, jarrera pasiboa har dezakeena. Subjektu bakarraz edo zenbait subjektuz osatua egon daiteke. Izaera publikoa edo pribatua izan dezake.

**possessio** [*posesión*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *edukitzea*.

**postulazio** [*postulación*] ♦ *Zuz. Proz.* Legearen eskakizuna, alderdien eta epailearen artean profesional tekniko bat egon beharra dakarrena; helburua da alderdien eskaerak modu egokian bideratzea eta organo jurisdikzionalarekiko interlokuzioa eraginkortasunez gauzatu ahal izatea. Espainian —beste herrialde batzuetan ez bezala— bi profesionalek osatzen dute postulazioa: abokatua (defentsa) eta prokuradorea (ordezkaritza). **Sin.** *postulazio prozesal*.

**postulazio prozesal** [*postulación procesal*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *postulazio*.

**potestas** [*potestad*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *potestate*.

**potestate** [*potestad*] ♦ *Zuz. Err.* Norbaitek beste norbaiti bere borondatea betearazteko duen ahalmena eta boterea, beharrezko bada, indarra erabiliz baliatuko dena.

**praecarium** [*precario*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *prekario*.

**prebarikazio** [*prevaricación*] ♦ *Zig. Zuz.* Justiziaren eta herri-administrazioaren aurkako delitua; agintari, funtzionario publiko, epaile edo magistratu batek, zuzen jarduten ez duela jakinda, nahierarako ebazpena edo zuzena ez den epai edo ebazpen bat ematea. **Oh.** ZK, 404. art. eta hurr.; 446. art. eta hurr.

**prebentzio** [*prevención*] ♦ *Zig. Zuz. Ik. aurrezaintza.*

**prebentziosko eginbide** [*diligencia de prevención*] ♦ *Zuz. Proz.* Zigor-prozesuan premia-egoeran burutzen den egintza; hauek dira helburuak: desager daitezkeen delitu-frogak gordetzea; delitua egiaztatzea eta delitugilea identifikatzea ahalbidetzen duen guztia jaso eta jagotea; hala denean, delituaren ustezko erantzuleak atxilotzea; eta delituaren ondoriozko ofendituak edo kalteak, haien familiakoak nahiz beste pertsona batzuk babestea.

**prebentziosko eskumen** [*competencia preventiva*] ♦ *Zuz. Proz.* Egitate zigorgarriaren gainean ahalmenik izan gabe, premia-egoera dagoenean jurisdikzio organo bati prebentziosko eginbideak burutzeko aintzatetsitako gaitasuna.

**prejudizialitate** [*prejudicialidad*] ♦ *Zuz. Proz.* Ordena jurisdikzional bateko epaileak, hari dagokion gatazka juridiko bat ebazteko, aurretiaz beste ordena bati dagokion gatazka bat ebatzi beharra.

**prekario** [*precario*] ♦ *Zuz. Err.* Kontratu erreala, zeinaren bitartez pertsona batek (emaille edo *praecario dans* delakoak) erreguka (*praeces*) joaten baitzaio beste pertsona bati (eskuratzaile, prekarista edo *praecario accipiens* delakoari) gauza bat entrega diezaion dohainik erabili ahal izan dezan beti ere, jabeak hala eskatuz gero, hartutako gauza itzultzekotan. **Sin.** *praecarium* ♦ *Zuz. Zib.* Titulurik gabeko edukitzaile baimendua.

**preklusio** [*preclusión*] ♦ *Zuz. Proz.* Epez kanpo egoteagatik, egintza prozesal bat burutzeko aukera galtzea. **Oh.** PZL, 136. art.

**premiamendu-bide** [*vía de apremio*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio-egintzak nahitaez betearazteko bitarteko bat da. Administrazio-egintza baten ondorioz dirua ordaindu behar izanez gero eta behartuak bere kabuz ordainketarik egiten ez badu, administrazioak premiamendu-bidezko kobratzea egiterik izango du. Horretarako administrazioak premiamendu-prozedura erregulatzen duten arauetan aurreikusitako prozedurari jarraituko dio. **Oh.** 39/2015 Legea, 101. art.

**premiamendu-probidentzia** [*providencia de apremio*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga Administrazioak zergapekoari helarazten dion zerga-jakinazpena, zergapekoaren aurkako premiamendu-prozedurari ekin zaiola adierazteko egiten dena. **Sin.** *premiamenduzko probidentzia.*

**premiamendu-prozedura** [*procedimiento de apremio*] ♦ *Fin. Zuz.* Administrazio-prozedura bat; zordunaren zerga-zorrak beraren ondareari helduta kobratzeko jarduketak egitean datza. Zerga Administrazioa da prozedura honetan eskumena duen bakarra eta berari dagokio honen inguruko gorabehera guztiak ebaztea. **Sin.** *premiamenduzko prozedura.*

**premiamendu-prozedura** [*procedimiento de apremio*] ♦ *Zuz. Proz.* Premiazko exekuzioaren azken fasea. Haren helburua da dirua lortzea exekututzaileari eman behar zaion diru kopurua —prozesuan aitortua— ordaintzeko. Abiapuntua prozesuan zehar enbargatutako ondasunak dira. **Oh.** PZL, 634. eta hurr. art.

**premiamenduzko errekaru arrunt** [*recargo de apremio ordinario*] ♦ *Fin. Zuz.* Epe exekutiboko errekaru mota, kasu honetan aplikatzen dena: errekaru exekutiboa edo premiamenduzko errekaru murriztua aplikatzeko epetik kanpo ordainketa burutzen denean.

**premiamenduzko probidentzia** [*providencia de apremio*] ♦ *Fin. Zuz. Ik. premiamendu-probidentzia.*

**premiamenduzko prozedura** [*procedimiento de apremio*] ♦ *Fin. Zuz. Ik. premiamendu-prozedura.*

**premiatzko egoera** [*estado de necesidad*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Estatu edo nazioarteko erakundeen legez kontrako egintza baten ez-zilegitasuna baztertzeko duen inguruabarra, betiere, arrisku larri eta berehalako baten aurrean estatutuaren funtzesko interes bat babesteko bide bakarra den kasuetan aplikatzekoa. Premiazko egoera ezin da alegatu dagokion obligazioak aukera hori baztertzeko badu edo hura argudiatzen duen estatu nahiz nazioarteko erakundeak egoera hori eragin duen egintzan nolabait parte hartu badu, edo beste estatu edo nazioarteko erakundeen funtsezko interesak kaltetzen baditu. **Sin.** *beharrian-egoera.*

**prerrogatiba** [*prerrogativa*] ♦ *Admin. Zuz.* Ordenamendu juridikoak administrazio publikoari eskainitako jarduteko ahalmena. Legeak administrazio publikoari administrazio-ahalak eskaintzen dizkio interes orokorreko helburuak bete ditzan. Administrazio-ahal horiei esker administrazio publikoa pribilegiozko egoera izango du; prerrogatiba-egoera, hain zuzen. Posizio horretan oinarri hartuz, administrazioak bidezko izango du administratuen egoera juridikoetan eragitea; halaber, egoera juridiko berriak sortzerik ere izango du, lehendik zeudenak aldatuz, edota egoera juridikoak azkentzerik ere, administratuak erabaki horiekin bat ez badatoz ere.

**presio fiskal** [*presión fiscal*] ♦ *Fin. Zuz.* Herrialde batek tributu bidez dituen sarrera guztien eta herrialde horretako errenta nazionalaren arteko erlazioa.

**presio-neurri** [*medida de presión*] ♦ *Lan Zuz.* Gatazkaren alderdi batek, langileenak zein

enpresaburuena, beste alderdia presionatzeko harturiko neurria. **Ik.** *gatazka kolektiboko neurri.*

**preskripzio** [*norma prescriptiva*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *arau preskribatzaile.*

**preskripzio** [*prescripción*] ♦ *Zuz. Zib.* Denbora jakin bat igarotzeagatik sortzen diren efektu juridikoak eraentzen dituen tresna juridikoa. **2.** Iraungipena. **Ik.** *eskuratze-preskripzio, preskripzio azkentzaile, preskripzio epe.*

**preskripzio azkentzaile** [*prescripción extintiva*] ♦ *Zuz. Zib.* Denbora jakin batez ez egikaritzeak eskubideen gainean duen iraungitze-efektua. **Ik.** *preskripzio, eskuratze-printzipio.*

**preskripzio-epe** [*plazo de prescripción*] ♦ *Zuz. Zib.* **1.** Jarduera edo akzioa egikaritzeko epea, hura gaindituz gero amaitzen dena. **2.** Denboraren iraganak dakarren efektu juridikoa. **Ik.** *preskripzio.*

**preso** [*presa, preso*] ♦ *Zuz. Proz.* Epaia edo behin-behineko espetxeratzearen kautelazko neurria betez espetxean dagoen pertsona. **Sin.** *espetxeratu, askatasun-gabetu.*

**preso prebentibo** [*presa prebentiva, preso prebentivo*] ♦ *Zuz. Proz.* Behin-behineko espetxeratzearen kautelazko neurria betez espetxean dagoen pertsona. **Sin.** *espetxeratu prebentibo.* **Ik.** *preso.*

**presoaldi** [*pena privativa de libertad*] ♦ *Zig. Zuz.* **Ik.** *askatasun-gabetze zigor.*

**prestamen-ekintza** [*acto preparatorio*] ♦ *Zig. Zuz.* Ez da portaera tipikoaren beraren ekintza, baizik eta hura egikaritzeko zuzenean bideratua dagoena. Zigor Kodeak prestamen-ekintzen zigorgabetasun-printzipio orokorra ezartzen du, legeak berariaz zigortu ezean. Prestamen-ekintza zigorgarriak hauek dira: konspirazioa, probokazioa eta proposatzea. **Oh.** ZK, 17. eta 18.



**prestazio** [*prestación*] ♦ *Lan Zuz.* Gizarte Segurantzak sorturiko beharrian egoerari aurre egiteko emandako baliabidea, dela dirua, dela osasun-laguntza.

**presuntzio** [*presunción*] ♦ *Zuz. Zib.* Froga zuzenik ez duen egitatea, frogatutako beste egitate batetik eratoritzen dena. **Ik.** *iuris tantum presuntzio*.

**presupostu prozesal** [*presupuesto procesal*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *aurrepresupostu prozesal*.

**preterintenzionalitate** [*preterintencionalidad*] ♦ *Zig. Zuz.* Preterintenzionalitatea gertatzen da egileak dolozko tipoa egin nahi duenean, baina lortutako emaitzak bestelako zigor-esanahia duenean. Adibidez, subjektu aktiboa lesionatzeko doloz aritzen da, baina emaitza subjektu pasiboaren heriotza denean. **Sin.** *asmoz gairindiko kausak*.

**preterizio** [*preterición*] ♦ *Zuz. Zib.* Kausatzai-leak testamentuan derrigorrezko oinordeko bat ez aipatzea. Nahita edo nahigabe eginikoa izan daiteke eta modu bakoitzak ondorio juridiko ezberdinak eragiten ditu. **Ik.** *jaraungabetze*.

**preziamendu-orri** [*hoja de aprecio*] ♦ *Admin. Zuz.* Dokumentu bat da, zeinean nahitazko desjabetze-prozeduretako alderdiek (desjabetuak, desjabetzaileak edota onuradunak) desjabetutako ondasunaren zein eskubidearen balioa jasotzen baitute. Preziamendu-orriek izaera loteslea dute eta bertan jasotzen diren kopuruek desjabetze-epaimahaiak ezar dezakeen prezioaren gain-muga zehazten dute. **Oh.** Nahitazko Desjabetzeari buruzko Legea, 29. eta 30. art.

**prezio publiko** [*precio público*] ♦ *Fin. Zuz.* Zergapekoak Administrazioari ordaindu beharreko ondarezko prestazioa, harengandik jasotako zerbitzu edo jarduera baten truke, non eta zerbitzu edo jarduera hori ez den nahitaz jaso beharrekoa eta baldin merkatuan sektore pribatuarekin lehian eskaintzen bada.

**printzipio** [*principio*] ♦ *Zuz. T. 1.* Doktrina, zientzia, teoria edo pentsamendu jakin baten oinarrian dagoen funtsezko ideia. **Sin.** *oinarri*. **2.** Pertsona baten jokabidea arautzen duen irizpide morala.

**printzipio dispositibo** [*principio dispositivo*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *xedapenezko printzio*.

**printzipio editorial** [*principio editorial*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Titulartasun pribatuko komunikabideen informazio-jarduera agintzen duten gidalerro zein printzipioak. **Ik.** *ildo ideologiko*.

**printzipio informatzaile** [*principio informador*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Kategoria honetako printzipioak zuzenbidearen arlo zehatz baten erregulazioaren oinarri dira. Alde batetik, araudia bateratu, antolatu eta sistematizatzen dute; eta, bestetik, interpretazio irizpide ere badira.

**printzipio instituzionalista** [*principio institucionalista*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Printzipio honen arabera, Estatuak bere harremanetan lehentasuna emango die erakundeei, eta herritarra bigarren mailan utzi, betiere, harreman instituzionalaren menpe. Estatu monistetan aplikatzen da printzipio hau. aldiz, Estatu pluralista eta demokratikoetan, berriz, printzipio pertsonalista izango da nagusi. **Ik.** *monismo, pertsonalismo, printzipio pertsonalista*.

**printzipio orokor** [*principio general*] ♦ *Zuz. Zib.* Zuzenbidearen interpretaziorako eta hutsuneak osatzeko balio duten ordenamenduarren balio orokorrak. **Ik.** *zuzenbidearen printzipio orokor*.

**printzipio pertsonalista** [*principio personalista*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Printzipio honen arabera, hiru hauek dira ordena politikoaren eta bake sozialaren oinarriak: gizabanakoaren duintasuna, norbanakoari atxiki zaizkion eskubide bortxa-ezinak eta haren nortasunaren garapen askea, betiere, gainerakoen eskubideak eta legeak zainduta. **Oh.** EK, 10.1 art. **Ik.** *pertsonalismo*.

**probidentzia** [*providencia*] ♦ *Zuz. Proz.* Izaera juridikzionala duen organo juridikzionalen ebazpen mota, prozesuaren ordenazioaren inguruko gaiak erabaki behar direnean egokitzen dena. Ez du motibazio-beharrik. **Oh.** BJLO, 245. art.

**produktibitate** [*productividad*] ♦ *Lan Zuz.* Lanaren eta ekointzi denaren arteko harremana.

**profesio** [*lanbide*] ♦ *Lan Zuz. Ik.* *lanbide*.

**programa** [*programa*] ♦ *Konst. Zuz. 1.* Jar-dueren egitasmo antolatua. **2.** Gai edo egoera baten inguruan egingo den hori aurretiaz adierazten duen egitasmoa. **3.** (Hauteskunde-programa) Alderdi politiko edo hautagai batek hautesleei aurkezten dien programa, hautatua izanez gero beteko dituen ekintza politikorako planak aurkezten dituena. **Sin.** *egitamu, egitarau, egitasmo*.

**prokuradore** [*procuradora, procurador*] ♦ *Zuz. Proz.* Postulazio-prozesala osatzen duten profesioaletako bat. Alderdiaren ordezkari-tza dagokio. Espainiako ordenamenduaren berezitasun bat da, herrialde gehienetan abokatuari baitagokio aldi berean defentsa eta ordezkari-tza.

**prokuradoreen elkargo** [*colegio de procuradoras y procuradores*] ♦ *Zuz. Proz.* Ordezkaritza-funtzioa duten profesionalak —prokuradoreak— biltzen dituen kolegio profesionala. Ezinbesteko tresna da taldearen interesak defendatzeko, beste erakundeen aurrean ordezkari-tzeko eta haiekin interlokuzioa eta interakzioa bermatzeko. **Ik.** *prokuradore*.

**promes egin** [*prometer*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *agindu*.

**promitente** [*promitente*] ♦ *Zuz. Zib.* Zerba-it agintzen duen pertsona.

**promulgatu** [*promulgar*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *aldarrikatu*.

**promulgazio** [*proclamación, promulgación*] ♦ *Zuz. T. Ik.* *aldarrikapen*.

**proporzionaltasunaren printzipio** [*principio de proporcionalidad*] ♦ *EB. Zuz. Ik.* *proporzionaltasun-printzipio*.

**proporzionaltasun-printzipio** [*principio de proporcionalidad*] ♦ *EB. Zuz. 1.* Europar Batasunari esleituriko eskumenen egikaritza gildatzen duen printzipioa. Europar Batasunaren ekintzak, lortu nahi dituzten xedeak kontutan hartuz, ezingo dira neurriz kanpokoak izan eta, beraz, ezingo dira ez edukian ezta formari dagokionez ere, beharrezkoa dena baino haratago joan tratatueta aurreikusiriko helburuak erdiesteko. **Oh.** Subsidiaritasuneta heinekotasun-printzipioak aplikatzeari buruzko 2. protokoloa. **Sin.** *heinekotasun-printzipio, proporzionaltasunaren printzipio*. ♦ *Fin. Zuz.* Legezko printzipioa; haren bidez bermatzen da zergapekoari eskatu ahal zaizkion zerga-obligazioen eta obligazio formalen arteko korrelazioa. Sailkatze-gida moduan erabiltzen da tributuhausteetan, graduazio-irizpideetan eta hauen txikipenetakoetan. *hauetxikipenetakoetan*.

**proporziozkotasun-printzipio** [*principio de proporcionalidad*] ♦ *Zig. Zuz.* Printzipio honen arabera, zigorra egokitu-ko zaie zuzenbide-contrako portaeraren larritasunari, egilearen erruduntasunari eta kasuaren egoera zehatzei.

**proprietas** [*propiedad*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *jabetza*.

**prostituzio** [*prostitución*] ♦ *Zig. Zuz.* Sexu-askatasun eta -ukigabatasunaren aurkako delitua; indarkeria, larderia edo engainua erabiliz, edota nagusitasun-zein beharrizan-egoeraz nahiz biktimaren ahuleziaz abusatuz, biktima prostituzioan jardutera edo horretan irautera behartzean datza. **Oh.** ZK, 187. eta 188. art. **Ik.** *prostituzioari buruzko delitu*.

**protesta** [*protesta*] ♦ *Zuz. Proz.* Ahoz nahiz idatziz, ebazpen judicial baten aurka egin beharreko adierazpena, une prozesal horretan hura errekurritu ezin eta geroko beste ebazpen bat errekurritu ahal izateko.

**protokolo** [*protocolo*] ♦ *Nart. Zuz. Pu. 1.* Harreman diplomatikoetan aritzeko modua. Atzerriko autoritateei zor zaien errespetu, ohore zein ordezkari diplomatikoen lehentasun ordena ezartzen duen erregela-multzoa. **2.** Tratatu bat osatu edo modifikatzea helburu duen akordio gehigarria.

**prozedura 1** [*cognición*] ♦ *Zuz. Err.* Demandari edo auzi-jartzaille batek (*actor*) demandatu edo *reus* izenez ezagutzen den beste bat, pretorearen aurrera eramateko baliatzen zen egintza juridikoa. Halaber, epaile pribatu bat (*iudex*) eskatzeko eta epai bat (*sententia*) lortzeko ere erabiltzen zen. Erromako ordenamendu juridiko probatuak *ordo iudiciorum privatorum* babestutako egintza hau, bi fasetan egiten zen: pretorearen aurrean (*in iure*), lehena; eta epailearen aurrean (*apud iudicem*), bigarrena. **Sin.** *agere, cognitio.*

**prozedura 2** [*procedimiento*] ♦ *Zuz. Proz., Admin. Zuz., Konst. Zuz., Zuz. Err., Zuz. T.* Egintza prozesalek baliodunak izateko hartu behar duten forma eta errespetatu behar dituzten epe eta ukanbeharren multzoa, ordenamenduan legeak aurreikusi eta arautzen duena. **Oh.** PZL, 1. art.

**prozedura-arau** [*norma procedimental*] ♦ *Zuz. T.* Prozedura jakin bati dagozkion elementuak biltzen dituen arau juridikoa. Prozedura-arauak giza jokabideak arautzen dituzten arau substantibo edo materialen osagarri dira, horien guztien aplikazio modua arautzen baitute. **Sin.** *prozedurazko arau.*

**prozedura arrunt** [*procedimiento ordinario*] ♦ *Zuz. Proz.* Bederatzi urtetik gorako askatasun-gabetze zigorra aureikusita duten delituak epaitzeko prozedura.

**prozedura laburtu** [*procedimiento abreviado*] ♦ *Zuz. Proz.* Bederatzi urte arteko askatasun-gabetze zigorra duten delituak epaitzeko prozedura, baita beste edozein izaeratako zigo-

rra duten delituak epaitzeko ere, horien zenbateko edo iraupena edozein izanda. Prozedura horren bitartez epaituko dute zigor-epaitegiek (bost urte arteko askatasun-gabetze zigorra duten delituak direnean) edo probintzia-azuitegiek (bost eta bederatzi urte arteko askatasun-gabetze zigorrak direnean) eta, hala dago-kionean, zigor-epaitegi zentralak edo Auzitegi Nazionalak. **Oh.** PKL, 757. art.

**prozesal hutsa den epai** [*sentencia meramente procesal*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* epai prozesal huts.

**prozesatze** [*procesamiento*] ♦ *Zuz. Proz.* Instrukzio-epaileak pertsona zehatz bati buruz, baldin haren aurka sumarioaren ondorioz kriminaltasunaren zentzuzko zantzurik sortu bada, egiten duen inputazio formal. **Ik.** *inputazio formal.*

**prozesatze-auto** [*auto de procesamiento*] ♦ *Zuz. Proz.* Instrukzio-epailearen ebazpena, pertsona zehatz bat, haren aurka sumarioaren ondorioz kriminaltasunaren zentzuzko zantzuak sortu direlako, modu formalean inputatzen duena.

**prozesu** [*proceso*] ♦ *Zuz. Proz., Admin. Zuz.* Estatu-egituran ahalmen jurisdikzionala duten organoei dagokien helburua —epaitzea eta epaitutakoa betearaztea— lortzeko, ordenamenduak diseinatutako tresna. Baita ere, aldi berean, herritarren babes eraginkorrerako eskubidea asetzeko aurreikusten den bitartekoa.

**prozesu aurreko arazo** [*cuestión prejudicial*] ♦ *Zuz. Proz., EB. Zuz. Ik.* arazo prejudizial.

**prozesu deklaratibo** [*proceso declarativo*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *adierazpen-prozesu.*

**prozesu monitorio** [*proceso monitorio*] ♦ *Zuz. Proz.* Diruzko zor likido, zehatz, epemugatu eta galdagarriak eskatzeko adierazpenezko prozesu zibil berezia. **Sin.** *judizio monitorio.*

**prozesuko alderdi** [*parte procesal*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. alderdi.*

**prozesuz kanpoko asetze** [*satisfacción extra-procesal*] ♦ *Zuz. Proz.* Herritarrak epai bidezko babes eraginkorrerako bere eskubidea egikaritutuz epaile aurrera eraman duen uzia epaiketatik at asetzea lortzea. **Sin.** *asetze estraprozesal.*

**prudens** [*juriprudente*] ♦ *Zuz. Err. Ik. juris-prudente.*

**publikotasun-printzipio** [*principio de publicidad*] ♦ *Zuz. Proz.* Ahozkotasun-printzipioaren ondorioa, irizpide nagusi gisa jarduera judiziala hirugarrenentzat publikoa izatea eskatzen duena. Salbuespenak egotea aurreikusita badago ere, kasuz kasu motibatu beharko dira. **Oh.** EK, 120. art.

# R

---

**rapina** [*rapina*] ♦ *Zuz. Err.* Bortizkeria baliatuz egindako gauzen bereganatze ez-zilegia. Hasieran, kuadrilan egitea zen ezinbesteko bereganatze ez-zilegia delitu pribatu hau rapinatzat jotzeko Geroago, nahikotzat jotzen zen biolentzia erabiliz egin izana.

**reivindicatio** [*reivindicatio*] ♦ *Zuz. Err. Vindicare* (erreklamatu) eta *res* (gauza) hitzen uztarketatik datorren terminoa, gauza bat defendatzeko edo erreklamatzeko balio duen akzioari men egiten diona. *Vindicta* makiltxo bat zen, *legis actiones* prozesuan jabeak gauza bat berea zela adierazteko erabiltzen zuena (makilarekin ukituz dena delako gauza edo esklabo).

**renting-kontratu** [*contrato de renting*] ♦ *Merkat. Zuz.* Alokairu izaera duen Merkatari-tzako kontratua zeinaren bidez, renting-enpresak maizterraren esku uzten baititu hainbat ondasun eta bermatu egiten baitu ondasun horien inguruan teknikariek behar diren aholkuak ematea, eta baita ere ondasun horien errebisioa eta mantenua. Kontratu atipikoa denez, ez dago erregulaturik.

**res iudicata** [*cosa juzgada*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* gauza epaitu.

# S

---

**saiakuntza** [*tentativa*] ♦ *Zig. Zuz.* Saiakuntza gertatzen da egilea delitua egiten hasten duenean, baina nahi duen emaitza lortzen ez duenean, betiere, egilearen borondateekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik. Eta beharrezkoa izango da emaitza sorrarazi beharko luketen egitate guztiak edo, behintzat, egitate batzuk egikaritzea. **Oh.** ZK, 16.1 art.

**saio** [*sesión*] ♦ *Konst. Zuz. Ik. ekitaldi.*

**saka-eskubide** [*derecho de saca*] ♦ *Zuz. Zib. Ik. foru-saka.*

**sala** [*sala*] ♦ *Zuz. Proz.* Auzitegiak funtzionalki aritzeko aretoa, BJLOren diseinuaren araberako egitura duena. Bi izaeratakoak daude: gobernuakoak, alegia, transbertsalak eta organo osoaren kudeaketaz arduratzen direnak; eta jurisdikzionalak, hots, zuzenbidearen adar desberdinetan espezializatuak. **Sin.** *areto.*

**salaketa** [*denuncia*] ♦ *Zuz. Proz., Admin. Zuz.* Ezagutza-adierazpena, Polizia Judizialari, Ministerio Fiskalari edo jurisdikzio-organismoari egitate zigorgarriaren berri ematen diona. Salaketa idatziz nahiz hitzez egin daiteke, modu pertsonalean edo beste norbaiten bidez, hari ahalorde berezia emanik.

**salako presidente** [*presidenta, presidente de sala*] ♦ *Zuz. Proz.* Sala bakoitzak duen presidentea, funtzionamendu egokia bermatzeko aretoaren zuzendaritza eta ikuskaritza bere ardurapean dituen. Auzitegiaren presidenteari informatzeko betebeharra du. Izendapenak BJKNari dagozkio. **Oh.** BJLO, 165. art.

**salatu 1** [*denunciada, denunciado*] ♦ *Zuz. Proz., Admin. Zuz.* Salaketan egitate zigorgarriaren esku-hartzaile gisa azaltzen den pertsona.

**salatu 2** [*denunciar*] ♦ *Zuz. Proz.* Salaketa aurkeztu.

**salatzaile** [*denunciante*] ♦ *Zuz. Proz., Zuz. Err.* Salaketa egiten duena. Salatzekeo betebeharra du, besteak beste, delitu publikoaren egitea ikusten duenak, kargu nahiz lanbidea dela medio edo beste edozein bidetatik delitu publikoaren berri duenak. Aldiz, hauek ez dute salatzekeo betebeharririk: nerabe ez direnek, zentzutasun osoa ez dutenek, edo ahaidetasun-nahiz lanbide-zioak direla medio salbuetsiak daudenek.

**salbuesle** [*eximente*] ♦ *Zig. Zuz.* Zigor Kodearen 20. artikuluan zehazki arautzen diren suposuetako bakoitza. Horien eraginez erantzukizun

kriminala guztiz bazterten da justifikatutako arrazoa izateagatik, errugabetasunagatik edo egotziezintasunagatik. **Oh.** ZK, 20. art.

**salbuespen [excepción]** ♦ *Zuz. Proz., Zuz. Err.* Demandatuak bere eskubide edo interesen defentsarako eskuragarri duen tresna juridikoa. Materiala da, objektua ezdabaidatutako eskubidearen ingurukoa denean. Prozesala, aldiz, harreman juridiko prozesala ezdabaidatzen denean. **Oh.** PZL, 405 art. ♦ *Fin. Zuz.* Araututako kasu berezia; halako kasuetan, zerga-egitatea burutu arren, arau bidez zerga-betebehar nagusitik kanpo (osorik edo zati batean) uzten da egingtza bat.

**salbuespen-egoera [estado de excepción]** ♦ *Konst. Zuz.* Herritarren eskubide eta askatasunen egikaritzea askea edota, adibidez, erakunde demokratikoen zein gizartearentzat funtsezko diren zerbitzuen funtzionamendu arrunta oztopatzen duten inguruabarrak direla-eta gobernuak aitor dezakeen egoera, normaltasunera itzuli bitartean aldi baterako gaitasun bereziak ematen dizkiona.

**salbuespen objektibo [excepción objetiva]** ♦ *Zuz. Zib.* Eskubide errearen edukitzea baketsua bermatzeko salbuespena. Hala, eskubide errearen titularrak salbuespena egikaritu ahal izango du, bere eskubidea errespetatzen ez duen edonoren aurrean. Salbuespen objektiboak, erreala denean *erga omnes* izaera du.

**salbuespen pertsonal edo subjektibo [excepción personal o subjetiva]** ♦ *Zuz. Zib.* Kreditu eskubidearen edukitzea baketsua bermatzeko salbuespena. Salbuespen honek izaera erlatiboa (*inter partes*) du. Hala, eskubide subjektiboaren titularrak salbuespen pertsonala edo eskubidearen errespetua soilik jar dezake obligaziozko erlazioaren beste alderdiaren aurka. **Ik.** *edukitzea, edukitzeaile.*

**salbuespenezko auzitegi [tribunal de excepción]** ♦ *Zuz. Proz.* Legeak aurreikusitako

epaile arruntaren oinarrizko eskubidea urratzen duen auzitegia, *ex post facto* gauzatua. Onartezina da zuzenbide-estatu ororentzat; besteak beste, Espainiako Konstituzioak espresuki debekatu du. **Oh.** EK, 117.6 art.

**salerosketa [compraventa]** ♦ *Zuz. Zib., Zuz. Err.* Fede oneko eta alde biko kontratu perfektu, kontsentsuala, zeinaren bidez alderdi batek (*venditor* edo saltzailea) beste alderdi bat (*emptor* edo eroslea), gauzaren (*merx, res*) edukitzea baketsu eta baliagarria transmitzera behartzen baitu, diru-kopuru baten truke. **Sin.** *emptio-venditio.* ♦ *Zuz. Zib.* Kontratu bat, zeinaren bidez, kontratugile batek bere gain hartzen duen gauza zehatza emateko obligazioa, eta besteak, gauza horren truke prezio zehatza ordaintzekoa, diruz edo dirua ordezkatzeko duen zeinuaren bidez. **Oh.** KZ, 1.445. art.

**salgaien zirkulazio aske [libre circulación de mercancías]** ♦ *EB. Zuz.* Estatu kideetan dauden salgaiak EBn zehar libreki mugiarazteko enpresarietako eta profesionalen duten eskubidea, aldi berean, aduana-tarifak edo antzeko eragina luketen neurriak ezabatzen dituenak. **Oh.** EBFT, 28.-37. art. **Ik.** *aduanaren-batasun.*

**salneurri [precio]** ♦ *Zuz. Zib.* **1.** Zerbaiten diruzko balioa. **2.** Kontratataren ordain-saria, dirutan zein beste prestazio baten bitartez ordaintzekoa. **Ik.** *salerosketa.*

**saltzaile [vendedora, vendedor]** ♦ *Zuz. Zib.* Salerosketa kontratu bateko subjektu aktiboa; zerbait saldu edo eskualdatzen duena. **Oh.** KZ, 1445. art. **Ik.** *salerosketa.*

**saneamendu [saneamiento]** ♦ *Zuz. Zib.* Saltzaileak eroslearen aurrean duen erantzukizuna, gauzaren edukitzea baketsua zein erabilera egokia bermatzen ez denerako.

**sarbide-eskubide [derecho de acceso]** ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Talde sozial eta politiko adierazgarrien eskubidea, bermatzen duena talde horiek adierazpen- eta informazio-askatasuna

izango dutela beren ideiak eta doktrinak komunikabide publikoetan hedatu ahal izateko. **Oh.** EK, 20.3 art. **Sin.** *sarbiderako eskubide*. **Ik.** *informazio-eskubide*.

**sarbiderako eskubide** [*derecho de acceso*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz. Ik. sarbide-eskubide*.

**sari** [*recompensa*] ♦ *Zig. Zuz.* Delituaren egileari egikaritzagatik ematen zaion prestazio ekonomikoa edo antzeko izaera duena. Egitatea sari baten truke gauzatzea inguruabar astungarri bat da, ulertzen baita delitua egikaritzeko motibazioa maltzurtsun handikoa dela. Adibidez, hilketa erailketa bihurtzen du sariak. **Oh.** ZK, 22.3 art.

**Schengeneko altxor** [*acervo Schengen*] ♦ *EB. Zuz.* Muga erkideetako kontrolen ezabatze mailakatuari buruzko Schengeneko Akordioaren eta bere Aplikaziorako Hitzarmenaren markoan sorturiko arau, araudia, praktika administratibo eta mekanismo operatiboen multzoa. **Oh.** Europar Batasunaren esparruan sartutako Schengengo altxorrari buruzko 19. protokoloa. **Sin.** *Schengeneko ondare*.

**Schengeneko ondare** [*acervo Schengen*] ♦ *EB. Zuz. Ik. Schengeneko altxor*.

**Schumanen adierazpen** [*declaración Schuman*] ♦ *EB. Zuz.* Frantziako Atzerri Gaietarako ministro zen Robert Schumanek 1950eko maiatzaren 9an esandako adierazpena, Jean Monnetek iradokia. Egungo integrazio prozesu europarrari hasiera eman zion adierazpena, Ikatzaren eta Altzairuaren Europako Erkidegoa sortzeko proposamena jasotzen zuena.

**segregazio** [*segregación*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Sexua, arraza, kultura, erlijioa edo ideologia dela eta, pertsona talde jakin baten bereizketa bultzatzen duen politika baztertzalea. **Ik.** *diskriminazio*.

**segurtasun-buru** [*jefa, jefe de seguridad*] ♦ *Admin. Zuz.* 5/2014 Legearen ondorioetarako,

segurtasun pribatuko langilea; hots, dagokion gaikuntza eskuratuta, segurtasun pribatuko eginkizunak betetzen dituen pertsona fisikoa. Segurtasun-buruak kide den segurtasun-enpresaren barruan aipatu legearen 35.1 artikuluan zerrendatzen diren eginkizunak bete behar ditu. **Oh.** 5/2014 Legea, 2. 8, 26. 1 eta 35. 1 art.

**segurtasun-epe** [*periodo de seguridad*] ♦ *Zig. Zuz.* Kondenatua espetxe-tratamendurako hirugarren graduan sailkatzeko muga bat, epaile edo auzitegiak agin dezakeena ezarritako espetxe-zigorrek bost urte baino gehiagoko iraupena duenean. Zigor Kodearen 36.2.2 artikulua zerrendatutako delituen kasuan eta ezarritako espetxe-zigorrek bost urte baino gehiagoko iraupena duenean halaberrez ezarriko da. **Oh.** ZK, 36.2 art.

**segurtasun- eta defentsa-politika erkide** [*política común de seguridad y defensa*] ♦ *EB. Zuz.* Atzerri- eta segurtasun-politika erkidearen eremuetako bat, EBri bitarteko zibil eta militarretan oinarrituriko ahalbide operatiboa ematen diona. Bere baitan biltzen da defentsa-politika erkidearen definizio progresiboa, defentsa erki-dea ezartzea ekar dezakeena. **Oh.** EBT, 42. art. **Ik.** *atzerri- eta segurtasun-politika erkide*.

**segurtasun-indar eta kidego** [*fuerzas y cuerpos de seguridad*] ♦ *Admin. Zuz.* Nazioko gobernuaren mendeko segurtasun-indar eta kidegoak, autonomia erkidegoen mendeko polizia-kidegoak eta toki-korporazioen mendeko polizia-kidegoak barnean hartzen dituen deitura. **Oh.** 2/1986 LO, 2. art. **Ik.** *polizia*.

**segurtasun juridiko** [*seguridad jurídica*] ♦ *Konst. Zuz., Zuz. Zib.* Zuzenbide-printzipioa, bai publikotasunean bai haren erabileran zuzenbidearen ziurtasuna oinarri duena. Zuzenbide-dea ezagutzen dela edo ezagut daitekeela esan nahi du.

**segurtasun kolektibo** [*seguridad colectiva*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Nazioarteko edo nazioz gain-



diko sistema politiko baten kideek babesten duten bake-sistema. Horren arabera, bakearen edozein asaldura kide guztien aurkakotzat joko da eta, horrenbestez, mehatxu horren aurkako erantzun bateratuari emango dio bide. Hauxe dugu, besteak beste, NATOren funtsa. **Oh.** NATO, 5. art.

**segurtasun-neurri** [*medida de seguridad*] ♦ *Zig. Zuz.* Subjektu arriskutsuari zuzendutako tratamendu bat, delitua ez egitea helburu duena. Segurtasun-neurriak, zigorrak ez bezala, ez dira delitu bati lotutako mehatxu edo zehapen bat. Segurtasun-neurriak ezarri ahal izateko aurretik delitu baten egikaritzea eskatzen da.

**segurtasun pribatu** [*seguridad privada*] ♦ *Admin. Zuz.* Pertsona fisiko zein juridiko publiko eta pribatuek, beren borondatez edota nahitaez, hartutako segurtasuneko jardueren, zerbitzuen, eginkizunen eta neurrien multzoa, segurtasun-enpresek, detektibe pribatuen bulegoek eta segurtasun pribatuko langileek eginak edo emanak, nahita egindako ekintzei edo halabeharrezko arriskuei aurre egiteko, edota pertsonen eta ondasunen gaineko ikerketak egiteko, betiere, pertsonen segurtasuna bermatzearren, eta haien ondarea babestearren eta haien jardueren garapen normala zaintzearren. **Oh.** 5/2014 Legea, 2.1 art.

**segurtasun pribatuko enpresa** [*empresa de seguridad privada*] ♦ *Admin. Zuz.* 5/2014 Legearen ondorioetarako, segurtasun pribatuko zerbitzuak emateko baimenduta dauden edo erantzukizunpeko adierazpenaren araubidearen mende dauden pertsona fisiko edo juridiko pribatuak. **Oh.** 5/2014 Legea, 2.7 art.

**segurtasun pribatuko zerbitzu** [*servicio de seguridad privada*] ♦ *Admin. Zuz.* Segurtasun pribatuko zerbitzu-emaleek segurtasun pribatuko jarduerak bideratzeko egindako ekintzak. **Oh.** 5/2014 Legea, 2.3 art.

**segurtasun publiko** [*seguridad ciudadana*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** herri-segurtasun.

**segurtasun-zaintzaile** [*vigilante de seguridad*] ♦ *Admin. Zuz.* 5/2014 Legearen ondorioetarako, segurtasun pribatuko langilea; hots, dagokion gaikuntza eskuratuta, segurtasun pribatuko eginkizunak betetzen dituen pertsona fisikoa. Segurtasun-zaintzaileak kide den segurtasun-enpresaren barruan aipatu legearen 32.1. artikuluan zerrendatzen diren eginkizunak bete behar ditu. **Oh.** 5/2014 Legea, 2. 8, 26. 1 eta 32. 1 art.

**segurtasun-zuzendari** [*directora, director de seguridad*] ♦ *Admin. Zuz.* 5/2014 Legearen arabera, segurtasun pribatuko langilea; hots, dagokion gaikuntza eskuratuta, segurtasun pribatuko eginkizunak betetzen dituen pertsona fisikoa. Segurtasun-zuzendariak kide den segurtasun-enpresaren barruan aipatu legearen 36.1. artikuluan zerrendatzen diren eginkizunak bete behar ditu. **Oh.** 5/2014 Legea, 2. 8 art., 26. 1 art. eta 36. 1 art.

**sekretu-printzipio** [*principio de secreto*] ♦ *Zuz. Proz.* Idazkuntza-printzipiotik ondorioztaturiko printzipioa. Haren ondorioz, prozesuko jardun guztiak edo haietariko batzuk sekretupean mantentzen dira. Hala, hirugarrenei edo auzian bidezko interesik ez duten pertsonen jardun judizialak ezagutzea galarazten die sekretu-printzipioak.

**sektore publiko** [*sector público*] ♦ *Admin. Zuz.* Lurraldedun eta lurralderik gabeko administrazio publikoen multzoa. Sektorre publikoak barne hartzen ditu Estatuaren Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoen administrazioak, toki-administrazioa osatzen duten entitateak eta sektore publiko instituzionala. Azken horrek honako hiru multzo hauek hartzen ditu barnean: a) Administrazio publikoei loturik edo haien mendean dagoen zeinahi organismo publiko eta zuzenbide publikoko entitate; b) Administrazio publikoei loturik edo haien

mende dauden zuzenbide pribatuko entitateak, betiere, administrazio-ahalak baliatzen dituztenean; c) Unibertsitate publikoak. **Oh.** 40/2015 Legea, 2. art. **Sin.** arlo publiko.

**sektore publikoko kontratu** [*contrato del sector público*] ♦ *Admin. Zuz.* 9/2017 Legeak 3. artikuluan adierazitako enteek, organismoek eta erakundeek kostu bidez eginiko kontratua, kontratu horien izaera juridikoa edozein izanik ere. **Oh.** 9/2017 Legea, 2.1 art. **Ik.** sektore publiko.

**sektoreko hitzarmen kolektibo** [*convenio colectivo sectorial*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresa mailako esparrua gainditzen duen hitzarmen kolektiboa, sektore ekonomikora hedatzen dena.

**sekularizazio** [*secularización*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Izaera erlijiosoa galtzea helburu duen prozesua. Sekularizazioa ezinbesteko aurrealdintza da estatua laikoa izan dadin. Ilustrazioaren mugimenduak ezarri zituen Europako mendebaldeko gizartearen sekularizazioaren oinarriak, hain zuzen ere, aldarrikatuz zientziaren, zuzenbidearen eta botere politikoaren sekularizazioa. **Ik.** *estatu akonfesional, estatu laiko, estatu neutral.*

**self-executing tratatu** [*tratado self-executing*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Nazioarteko zenbait tratatuen ezaugarria. Horren arabera, barne-ordenamenduetan ez da inolako garapen araugile edo erreglamendugilerik behar hura exekutatzeko orduan.

**seme-alabatasun** [*filiación*] ♦ *Zuz. Zib.* Gurasoen eta seme-alaben arteko lotura juridikoa. Kode Zibilean bi mota arautzen dira, hala nola: gurasotasun biologikoa eta adopziozkoa. Lehenengoak egia biologikoa du oinarri; seme-alabak gurasoen ondorengo biologikoak direla adierazten duena, alegia. Bigarrena, ordea, lotura legala da; prozedura judizial baten emaitza. Giza ugalketa tekniken ondorioz jaiotako umeak, gurasotasun biologikoan barnebiltzen

dira. Gurasotasuna juridikoki zehaztua gertatzen denean, aita, ama eta hauek dituzten seme-alabentzat elkarrekiko eskubideak eta obligazioak sortzen dira. **Oh.** KZ, 108. art.

**senatari** [*senadora, senador*] ♦ *Konst. Zuz.* Herritarrek zein autonomia-erkidegoek hautaturiko senatuko kidea.

**senatu** [*senado*] ♦ *Konst. Zuz.* **1.** Senatariz osaturiko Gorte Nagusien parte den ganberetako bat, senatariz osatua. **2.** Lurraldean ordezkariak duen Parlamentuko goi-ganbera.

**senda-agiri** [*alta por curación*] ♦ *Lan Zuz.* Langilea sendatu izana egiaztatzen duen agiria.

**senidetasun** [*parentalidad*] ♦ *Zuz. Zib. Ik.* *ahaidetasun.*

**seniparte** [*legítima*] ♦ *Zuz. Zib.* Jaraunspenaren kuota edo zatia, legearen aginduz kausatzailearen senitarteko jakin batzuk jaso behar dutena. Senipartedunak dira derrigorrezko oinordeko horiek. Senipartea jaraunse-titulua bidez, legatu edo dohaintza bidez jaso daiteke, kausatzailea bizirik dagoela edo kausatzailea hil ondoren.

**senipartearen ukiezintasun** [*intangibilidad de la legítima*] ♦ *Zuz. Zib.* Senipartea kaltetua edo baztertua suerta ez dadin, legeak aurreikusten duen tresna. Bi motatakoa izan daiteke: ukiezintasun kuantitatiboa eta kualitatiboa. Lehenengoa, senipartearen osotasuna bermatzera bideratzen da. Alegia, senipartedunei zor zaiena ematera zuzenduta dago. Horretarako, honako eragiketa hauek arautzen ditu legeak: egozpena eta murrizketa. Ukiezintasun kualitatiboa, ordea, senipartea jaraunspenaren ondarearekin (*pars bonorum*) eta kargarik gabe jasotzera bideratzen da. **Ik.** *jaraunspen, seniparte.*

**senipartedun** [*legitimaria, legitimario*] ♦ *Zuz. Zib.* Kausatzailearen jaraunspenetik, legeak aginduta, ondarearen proportzio edo kuota bat jasotzeko eskubidea duen pertsona. Derrigo-

rrazko oinordekoa. **Sin.** *derrigorrezko oinordeko*. **Ik.** *seniparte*.

**servitus [esclavitud]** ♦ *Zuz. Err. Ik. esklabotza*.

**setio-egoera [estado de sitio]** ♦ *Konst. Zuz.* Estatuaren subiranotasunaren edo independentziaren aurkako matxinada edo indar-ekintza baten aurrean gobernuak aitor dezakeen egoera, normaltasunera itzuli bitartean aldi baterako gaitasun bereziak ematen dizkiona.

**sexu-abusu [abuso sexual]** ♦ *Zig. Zuz.* Sexu-askatasun edo -ukigabetasunaren aurkako delitua, indarkeriarik gabe, larderiari gabe eta adostasunik gabe burutzen dena. **Oh.** ZK, 181. art. eta hurr.

**sexu-eraso [agresión sexual]** ♦ *Zig. Zuz.* Sexu-askatasun edo -ukigabetasunaren aurkako delitua, indarkeria edo larderia erabiltzean burutzen dena. **Oh.** ZK, 178. art. eta hurr.

**sexu-jazarpen [acoso sexual]** ♦ *Zig. Zuz.* Sexu-askatasunaren aurkako delitua. Portaera hau gertatzen da norbaitek beretzat edo beste batentzat sexu-mesedeak eskatzen dituenean eta biktima larderiako, etsaigoko edo umiliazio-egoera larrian jartzen duenean, betiere, esparru zehatz batean gertatzen bada: laneko, irakaskuntzako edo zerbitzuak eskaintzeko harreman jarraitu eta ohikoen eremuan. **Oh.** ZK, 184. 1 art.

**sexu-zirikatzeko [provocación sexual]** ♦ *Zig. Zuz.* Edozein bide erabiliz, adingabeen edo ezgaien artean pornografiako materiala saldu, hedatu edo erakustea. Sexu-ukigabetasuna da tipo honen bidez babesten den ondasun juridikoa. **Oh.** ZK, 186. art.

**simulazio [simulación]** ♦ *Fin. Zuz. Ik. itxurakeria*.

**sindikatu [sindicato]** ♦ *Lan Zuz.* Langileen interes kolektiboak defendatzea helburu duen elkarte. **Oh.** Ek, 7. art., 28. 1 art.

**sistema [sistema]** ♦ *Zuz. T. 1.* Beraien artean harremana izanik, egitura bat osatzen duten elementuen multzoa. **2.** Giza talde baten bizitza arautzen duten arauen eta prozeduren multzo ordenatua.

**sistema inquisitibo [sistema inquisitivo]** ♦ *Zuz. Proz.* Eztabaidaren interes publikoak eraginda prozesuaren ofiziozko bultzadan oinarritzen den sistema. Zigor-prozesuan epaileak hartzen du bere gain, epaitzeko funtzioarekin nahasiz, prozesua abiarazteko ekimena. **Sin.** *inkisizio-sistema*.

**sistema juridiko [sistema jurídico]** ♦ *Zuz. T.* Sistema normatibo teoriko ideiala, batasuna, osotasuna eta koherentzia dituen ezaugarritzat, eta errealitateko Zuzenbide historikoak eta hauen jarduna hobeto ulertu eta azaltzeko baliagarri dena.

**societas [sociedad]** ♦ *Zuz. Err. Ik. sozietate*.

**soldata [sueldo]** ♦ *Lan Zuz.* Langileak lanaren truke jasotzen duen ordaina. **Sin.** *lansari, ordainsari*.

**soldataren enbargaezintasuneko printzipio [principio de inembargabilidad salarial]** ♦ *Lan Zuz.* Soldata enbargatu ezin dela ezartzen duen printzipioa.

**solidaritate [solidaridad]** ♦ *Zuz. Zib.* Obligazio batean, hainbat hartzekodun edo hainbat zordun (edo batzuk eta besteak) egonez gero, hartzekodun batek prestazio guztia zordun bakar bati eskatzeko duen eskubidea eta zordun horrek prestazioa betetzeko duen beharra. Bete ondoren, zordun edota hartzekodunen artean prestazioaren edukia banatu ahalko da, hartzekodun edota zordun bakoitzari dagokion kreditu edo zor zatiaren arabera. **Ik.** *mankomunitate, partziaritate, subjektu aniztasun*.

**solidaritate-printzipio [principio de solidaridad]** ♦ *EB. Zuz.* Balio, xede, interes eta interdependentzia-lotura komunak existentzian

oinarrituriko printzipio politikoa; estatu kideen eta bere herrien arteko harreman gero eta estua-goak modu koherente eta solidarioan antolatze-ko asmoaren adierazpena. **Sin.** *elkartasunaren printzipio*.

**sopikun** [*cómplice*] ♦ *Zig. Zuz.* Egile, egilekide, bitarteko egile, ezinbesteko laguntzaile edo inductore ez dena, baina egitateak gauzaten, aurreko edo aldibereko egintzekin laguntzen duena. **Oh.** ZK, 29. art.

**sorospen-eginbeharra ez betetze** [*omisión del deber de socorro*] ♦ *Zig. Zuz.* Babesik gabe eta arrisku nabari eta larrian dagoen pertsona ez sorostea, betiere, pertsona hori sorosteak arriskurik ez badakar sorotsi behar duenarentzat edo beste batentzat. **Oh.** ZK, 195. art.

**sortutako kuota** [*cuota devengada*] ♦ *Fin. Zuz.* BEZaren esparruan, burututako eragiketen zioz kalkulatzeko den kuota. Jasandako BEZaren zenbatekoa kendu ahal izango zaio, araudiak esandako zenbait eragiketa burutuz.

**sortzapen** [*devengo*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga-egitatea gauzaten eta zerga-betebehar nagusia sortzen denean gertatzen da, zerga bakoitzari buruzko foru-arauak beste uneren batean gertatzen dela ezarri ezean. Sortzapen-egunak zehazten ditu zerga-betebeharra eratzeko kontuan hartu beharreko inguruabarrak, zerga bakoitzari buruzko foru arauak besterik ezarri ezean.

**sozietate** [*sociedad*] ♦ *Merkat. Zuz. Ik. baltzu.*

**sozietate anonimo** [*sociedad anónima*] ♦ *Merkat. Zuz. Ik. baltzu anonimo.*

**sozietate publiko** [*sociedad pública*] ♦ *Fin. Zuz. Ik. baltzu publiko.*

**sozietatea** [*sociedad*] ♦ *Zuz. Err.* Kontratuki-deen intereseko den helburu zilegi bat lortzeko egiten den aldebiko adostasunezko kontratu perfektua, sozio edo bazkideak (socii) zerbitzuren bat eskaintzera edota lanen bat egitera behartzen dituen. **Sin.** *societas*.

**sponsio** [*sponsio*] ♦ *Zuz. Err.* Jainkoa lekuko bi hiritar erromatarrek hitez egindako kontratua, obligazioak sortzeko helburua duena. Kontratu mota hau Erromako zaharretako bat da. Egintza honetan obligazioaren zordunak ontzat hartzen zuen obligazioaren hartzekodunaren eskakizuna.

**stipulatio** [*estipulación*] ♦ *Zuz. Err. Ik. estipulazio.*

**subiranotasun** [*soberanía*] ♦ *Konst. Zuz. Ik. independentzia.*

**subjektibismo** [*subjektivismo*] ♦ *Zuz. T. 1.* Doktrina epistemologiko bat da, egia absolutu edo unibertsal bat existitzen denik ukatzen duena. Doktrina honen arabera, egiaren baliozkotasuna bere errealitate zehatzaren arabera hezi eta horren araberako erabakiak hartzen dituen subjektura mugatzen da, subjektua dena delakoa izan, indibiduala zein kolektiboa. **2.** Subjektiboaren nagusitasuna.

**subjektibotasun** [*subjektividad*] ♦ *Zuz. T.* Ezau-garri bat da, subjektuaren ikuspegian oinarritzen diren, eta beraz, honen nahi eta desioek baldintzatuta dauden baieztapen zein arrazonamenduek dutena.

**subjektu** [*sujeto*] ♦ *Zuz. T.* Zuzenbidean, eskubide eta betebeharrak dituen pertsona edo entitatea.

**subjektu aktibo** [*sujeto activo*] ♦ *Zig. Zuz.* Delitua aurrera eramaten duen gizabanakoa edota gizaki-multzoa. Zentzu zabalean, bai egiletza mota guztiak bai partaideak barnebiltzen ditu. **Ik.** *subjektu pasibo*.

**subjektu-aniztasun** [*pluralidad de sujetos*] ♦ *Zuz. Zib.* Obligazioa osatzen duten alderdi aktiboan edota pasiboan, aldi berean, hainbat subjektu daudenean sortzen den egoera. Aniztasuna aktiboa (hartzekodun aniztasuna), pasiboa (zordun aniztasuna) edo mistoa (hartzekodun eta zordun aniztasuna) izan daiteke. **Ik.** *mankomunitate, partziaritate, solidaritate*.

**subjektu pasibo** [*sujeto pasivo*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga-betebehar nagusia eta hari atxikitako bete-behar formalak zergadun gisa nahiz zergadunaren ordezkio gisa bete behar dituen zergapekoa. Zerga-araudiak besterik ezarri ezean, zerga-kuota beste zergapeko bati jasanarazi behar diotenak ere subjektu pasiboak dira. ♦ *Zig. Zuz.* Delituak erasotzen duen ondasun juridikoaren titularra da. Pertsona fisiko zein juridikoak izan daitezke subjektu pasiboak. Kaltetu edo biktima, berriz, kontzeptu zabalagoak eta neurri batean desberdinak dira. **Ik.** *subjektu aktibo*.

**subjektu urratzaile** [*sujeto infractor*] ♦ *Fin. Zuz.* Tributu Foru Arau Orokorrean nahiz tributu bakoitzaren foru arauan aurreikusitako zerga-urraketak burutzen dituen subjektua.

**subrogatze-akzio** [*acción subrogatoria*] ♦ *Zuz. Zib.* Ordenamendu juridikoak hartzekodunei ematen dien boterea edo ahalmena, beste era batean kobratu ezin badute, beren zordunari dagozkion eta egikaritzen ez dituen ondarezko eskubide eta akzioetan hura ordezkatzeko. **Oh.** KZ, 1111. art. **Sin.** *zeharkako akzio*.

**subsidiaritasun-printzipio** [*principio de subsidiariedad*] ♦ *EB. Zuz.* EBri esleituriko eskumen partekatuen egikaritzea gidatzen duen printzipioa. Honen arabera, EBko erakundeek soilik egikaritze dute eskumen partekatu bat, baldin eta aurrera eraman nahi den ekintzaren helburuak estatu kideek ondo lortu ezin badituzte eta, ekintzaren dimentsioak edo ondorioak direla-eta, helburuak Batasunaren bidez hobeto lor badaitezke. **Oh.** EBT, 5. 3 art. **Ik.** *eskumen partekatu*. ♦ *Zig. Zuz.* Printzipio honen arabera, Zigor Zuzenbideak ultima ratio izan behar du; hau da, gizarte-interesak babes-teko erabil daitezkeen azken baliabidea kaltegarritasun txikiagoa duten neurriak nahikoak ez direnean. Aurretik zehapen-izaera ez duten neurriak erabiliko dira eta ondoren zigor-zehapenak ez direnak edo segurtasun-neurriak. ez direnak edo segurtasun-neurriak.

**subsumitu** [*subsumir*] ♦ *Zuz. T.* Zuzenbidean, kasu partikular bat arau juridiko orokor baten pean geratzen dela kontsideratu.

**subsuntzio** [*subsunción*] ♦ *Zuz. T.* Zuzenbidean, kasu partikular baten eta arau juridikoaren aurreikuspen orokorraren artean dagoen harreman logikoa.

**sumario** [*sumario*] ♦ *Zuz. Proz.* Bederatzi urte baino gehiagoko zigor askatasun-gabetzailea duten delituak epaitzeko prozedura arruntaren atariko edo instrukzio-fasea.

**sumisio** [*sumisión*] ♦ *Zuz. Proz.* Alderdiak prozesu zibilean lurralde-eskumena finkatzeko duten ahalmena. Esanbidezkoa edo isilbidezkoa izan daiteke, eta irizpide legalarekiko lehentasuna du. **Oh.** PZL, 54. eta hurr. art.

**suntsiarazpen** [*resolución*] ♦ *Zuz. Zib.* Obligazio sinalagmatikoetan bere prestazioa bete duen alderdiak eskatuta, beste alderdiaren ez-betetzearen aurrean, kontratua efikaziarik gabe uztea.

**suplika-errekurtsio** [*recurso de súplica*] ♦ *Zuz. Proz., Admin. Zuz.* **Ik.** *erregu-errekurtsio*.

**sustapen-jarduera** [*actividad de fomento*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazioaren jarduera, norbanakoen jarduerak bideratzea helburu duena; interes orokorrari mesede egiten dieten jarduera pribatuak bultzatzea, hain zuzen ere. Kasu horretan, administrazioaren eginkizuna norbanakoen jarduerak sustatzea baino ez da. Interes orokorreko helburuekin bateragarriak diren jarduera pribatuak bultzatzearen, pizgarriak eta bestelako laguntza publikoak erabiltzen ditu administrazioak.

**sustraitze nabari** [*notorio arraigo*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Estatuarekin akordio bat sinatu ahal izateko konfesioek bete beharreko baldintza, haren lurralde-ezarpenarekin eta sinlesle-kopuruarekin zerikusia duena. **Oh.** 7/1980 Lege Organikoa, Erljio-askatasunari buruzkoa, 7. art. **Ik.** *lankidetz-printzipio, laikotasun positibo*.

# T

**talde fiskal** [*grupo fiscal*] ♦ *Fin. Zuz.* Baltzuen gaineko Zergak dioenaren arabera, sozietate nagusi batek eta haren sozietate filial guztiek eratutako sozietate multzoa.

**taldeko ezagutze-saio** [*rueda de reconocimiento*] ♦ *Zuz. Proz.* Ustezko delitugilea identifikatzeko ikerketa-eginbidea; ustezko delitugilea eta antzeko kanpo-inguruabarrak dituzten beste pertsona batzuk batera jartzen dira identifikazioa egin behar duen pertsonaren begi-bistan. Instrukzio-epaileak agindu dezake, edo polizia ere ustezko delitugilea atxilotuta dagoenean. Kasu batean nahiz bestean, ezinbestekoa da abokatu baten parte-hartzea. **Sin.** *ezagutze-saio*.

**talde kriminal** [*grupo criminal*] ♦ *Zig. Zuz.* Bi pertsona baino gehiagoren batasuna, zeinaren helburua edo xedea baita delituak modu adostuan egitea. Antolakunde kriminalaren aldean taldearen kasuan ez da betebeharrak bat izango egonkorra izatea edo antolamendu konplexua izatea.

**talde politiko** [*grupo político*] ♦ *EB. Zuz.* Kidetasun politikoa dela-eta elkartzen diren Europar Parlamentuko diputatuen multzoa. Gutxienez estatu kideen laurden baten nazionalitatea ordezkatzen duten 25 diputatuk osa dezakete talde politiko bat.

**talde profesional** [*grupo profesional*] ♦ *Lan Zuz.* Profesio multzo bereko langileak sailkapen profesionalaren sisteman kokatzeko maila. **Oh.** LE, 22. art.

**talio** [*talión*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *talio-zigor*.

**talio-zigor** [*pena del talión*] ♦ *Zuz. Err.* Zuzenbide arkaikoetan (Hamurabiren kodea, XII Taulak...) aplikatzen zen zigor mota. Horren arabera, delitugileari berak egidako kalte berbera zegokion zigor gisa.. **Sin.** *talio*.

**tarteko fase** [*fase intermedia*] ♦ *Zuz. Proz.* Delitu larriagoetatik prozedura arruntan, sumarioari amaiera ematen dion autoaren ondoren gauzatzen den jarduketa multzoa. Fase honetan, ahozko epaiketari hasiera emango zaion ala ez eztatadutzen da eta alderdiek eskaera hauetako bat egiten dute: ahozko epaiketa hastea, prozedura largestea edo sumarioari amaiera ematen dion autoa ezeztatzea. Prozedura laburtuan aurretiazko eginbideak amaitutzat ematen dituen autoarekin batera hasten da tarteko fasea, eta hartan akusazioak, ahozko epaiketa irekitzeko eskaera egitekotan, akusazio-idazkia aurkeztu behar du harekin batera.

**tasa** [*tasa*] ♦ *Fin. Zuz.* **1.** Tributu batean oinarri likidagarriaren unitate edo tarte desberdi-

nei aplikagarri zaizkien karga-tasen multzoa. **2.** Tributu batean oinarri likidagarriaren unitate edo tarte desberdinei aplikagarri zaizkien karga-tasen multzoa.

**tasa judicial** [*tasa judicial*] ♦ *Zuz. Proz.* Herriarrak sistema judiziala erabiltzeagatik, bereziki auzitegiatara jotzeagatik, ordaindu beharreko estatu-zerga.

**tatxa** [*tacha*] ♦ *Zuz. Proz.* Ordenamenduak, lekuko eta perituen egokitasuna —partzialtasun-susmoa, hain zuzen ere— ezdabaidatzeko, alderdien esku ezartzen duen tresna. **Oh.** PZL, 343. eta 377. art.

**tatxatu** [*tachar*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesu zehatz batean eta lekuko edo peritu jakin baten aurka tatxa aurkeztu eta dagokion prozedura abiarazi. Ez du tatxatua baztertzen, baina emandako lekukotza baldintzatu dezake.

**teleologia** [*teleología*] ♦ *Zuz. T.* Metafisikaren adar bat da, gauzen azken arrazoien edo helburuen azterketa jomugan duena. Etimologikoki grezieratik datorren hitza da: *teleos* (helburu) eta *logia* (zientzia edo ikasketaketa).

**teokrazia** [*teocracia*] ♦ *Zuz. T.* **1.** Sistema politiko bat da, zeinean jainkoa baita autoritate politikoaren, boterearen eta zuzenbidearen sorburuko iturri. Hori dela eta, jainkoaren ordezkariak dira botere politikoaren dutenak, izan hauek errege, erregin zein elizgizon. **2.** Teokrazia gobernu era duen estatua.

**teologia** [*teología*] ♦ *Zuz. T.* Jainkoaren eta bere obraren ezagutzaz arduratzen den zientzia. Ez du jainkoaren existentzia zalantzan jartzen, eta hortaz, ez da bere existentzia frogatzeaz arduratzen. Etimologikoki grezieratik datorren hitza da: *Theos* (jainkoa) eta *logia* (zientzia edo ikasketaketa).

**teonomo** [*teónomo*] ♦ *Zuz. T.* Jainkoak sorturiko araua.

**teorema** [*teorema*] ♦ *Zuz. T.* Hipotesi (suposizio) bat abiapuntu hartuta, tesi bat (egitate bat) baieztatu eta frogatzen duen proposizioa.

**teoria** [*teoría*] ♦ *Zuz. T.* Fenomeno jakin bat zientifikoki esplikatzen duten arau eta printzipioen azalpen ordenatua.

**terra nullius** [*terra nullius*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Jaberik gabeko lurraldea. Okupazioaren bitartez lurralde baten subiranotasunaren baliozko eskuratzeara posible egiten duen aurrebaldintza da lur horrekiko beste estatu subiranorik ez egotea.

**terrorismo-delitu** [*delito de terrorismo*] ♦ *Zig. Zuz.* Zenbait delitu astun, Zigor Kodeak zehazten dituen hainbat ondasun juridiko eta portaera zehatzten aurkakoak direnak (adibidez, biziaren kontrakoak, edo lehergailuak edukitzea), baldin eta xedea hauetako bat bada: terrorea eragitea, bake publikoa modu larrian aztoratzea, nazioarteko erakunde baten funtzionamendua modu larrian ezegonkortzea, edo Konstituzioaren ordena iraultzea.

**testamentu** [*testamento*] ♦ *Zuz. Err. Mortis causa* erabakiak eta, batez ere, jaraunslaren (*heres*) izendapena xedatzen dituen negozio juridiko unibertsalaren gisakoa, aldebakarrekkoa, solemnea, guztiz errebokagarria, lekukoaren aurrean eginikoa eta erabat pertsonala. **Sin.** *testamentum*. ♦ *Zuz. Zib.* Pertsona baten heriotza osterako borondatea jasotzen duen aldebakarrereko eta erabat pertsonala den negozio juridikoa. Testamentuzko xedapenak ondarezkoak, ondasun guztien edota batzuen gainekoak, zein pertsonalak izan daitezke, kasuan kasu. **Oh.** KZ, 667. art. **Ik.** *oinordetza itun, testamentu berezi, testamentu ireki, testamentu itxi*.

**testamentu-ahalorde** [*poder testatorio*] ♦ *Zuz. Zib.* Kausatzaileak, bera hil osterako oinordetza antolatzeke hirugarren bati ematen dion ahalmena, derrigorrez notarioak baimendutako eskritura publikoan jaso behar dena. **Ik.** *fiduziario, komisario*.

**testamentu berezi** [*testamento especial*] ♦ *Zuz. Zib.* Testamentugilearen izaeragatik edota zilegitu beharreko egoera zein lekuagatik formazko baldintza apartekoak dituen testamentua. Testamentu berezi izaera dute testamentu militarrek, itsasoko testamentuek eta atzerrian egindako testamentuek.

**testamentu-betearazle** [*albacea*] ♦ *Zuz. Zib.* **Ik.** *albacea*.

**testamentu ireki** [*testamento abierto*] ♦ *Zuz. Zib.* Testamentugilearen azken borondatea egintza juridikoa zilegitu behar duten pertsonen aurrean adierazten den testamentua; pertsona hauek badute bertako xedapenen berri. **Oh.** KZ, 679. art.

**testamentu itxi** [*testamento cerrado*] ♦ *Zuz. Zib.* Testamentugilearen azken borondatea idatzizko agiri itxi baten bitartez egintza juridikoa zilegitu behar duten pertsonen aurrean aurkezten den testamentua; pertsona hauek ez dituzte ezagutzen bertako xedapenak. **Oh.** KZ, 680. art.

**testamentu mankomunatu** [*testamento mancomunado*] ♦ *Zuz. Zib.* Testamentu mota bat, zeinetan bi pertsonak, bizikidetzaz edo ahaidetarrek harremana eduki edo ez, beren heriotza ondorako, ondasun guztiak edo haietako batzuk tresna bakar batean xedatzen dituzten. **Sin.** *ermandadeko testamentu*.

**testamentu militar** [*testamento militar*] ♦ *Zuz. Zib.* Guda garaian, militarrek, boluntarioek, atxilotuek eta armadako gainerako langileek egin dezaketen testamentua, modu irekian gutxienez kapitain kategoria duen ofizial baten eta bi lekukoren aurrean edota modu itxian guda-komisario baten zilegitasunarekin. **Oh.** KZ, 716. art.

**testamentu olografo** [*testamento ológrafo*] ♦ *Zuz. Zib.* Testamentugileak bere kabuz idazten eta sinatzen duen testamentua; baliozkoa izateko, urtea, hilabetea, eguna eta ordua adierazi

behar ditu. Testamentu mota honek protokolizazio prozesu bat izan behar du heriotza unetik bost urte igaro baino lehenago. **Oh.** KZ, 688. art.

**testamentugile** [*testadora, testador*] ♦ *Zuz. Zib.* Testamentua egiten duen pertsona fisikoa. **Oh.** KZ, 662. art. **Ik.** *kausatzaile, testamentu*.

**testamentum** [*testamento*] ♦ *Zuz. Err.* **Ik.** *testamentu*.

**testamentuzko oinordetza** [*sucesión testamentaria*] ♦ *Zuz. Zib.* Testamentu bidez ordenatutako *mortis causa* oinordetza. **Ik.** *borondatezko oinordetza*.

**testigantza** [*testimonio*] ♦ *Zuz. Proz.* **Ik.** *lekukotza*.

**tipikotasun** [*tipicidad*] ♦ *Zig. Zuz.* Zigor Zuzenbideko printzipio bat. Printzipio honen arabera soilik izango dira tipikoak Zigor Kodean edo lege penal berezietan —kasuan kasuko zigorra zehaztuta— deskribatzen diren portaerak.

**tipo** [*tipo*] ♦ *Zig. Zuz.* Zigor Kodean edo lege penal berezietan deskribatzen eta arautzen den zuzenbide-kontrako portaera. Zigor-tipoan jasotzen dira portaera tipikoa, portaeraren subjektuak eta objektuak.

**tipo-okerr** [*error de tipo*] ♦ *Zig. Zuz.* Subjektu aktiboak dolurik gabe jardutea, aurrera eramaten duen portaera tipo penaltaren alderdi objektiboarekin bat datorrela jakin gabe. Okerra gaindiezina bada, subjektua ez da zigortuko; gaindigarria bada, aldiz, zuhurtziagabekeriagatik zigortua izango da.

**titularkide** [*cotitular*] ♦ *Zuz. Zib.* Eskubide baten titulartasuna, beste pertsona batzuekin partekatzen duen subjektua.

**titulartasun** [*titularidad*] ♦ *Zuz. Zib.* Eskubide batzuk esleitura izanagatik, edota hauen egikaritzea izateagatik, pertsona fisiko zein juridiko batek duen nolakotasuna.



**toki-administrazio** [*administración local*] ♦ *Admin. Zuz., Konst. Zuz.* Tokiko eremuan botere betearazlea ordezkatzen duten erakundeen multzoa. **Oh.** 7/1985 Legea, 19. art. **Sin.** tokiko administrazio, administrazio lokal.

**toki-ogasun** [*hacienda local*] ♦ *Fin. Zuz.* Udalerrri nahiz udalerriz beherako eremuko erakundeen ogasuna.

**tokiko administrazio** [*administración local*] ♦ *Admin. Zuz., Konst. Zuz.* **Ik.** toki-administrazio.

**tolerantzia** [*tolerancia*] ♦ *Zuz. T.* Beraiekin bat etorri ez arren, besteen ideia, pentsamendu, iritzi eta ekintzekiko errespetua.

**tolerantzia-printzipio** [*principio de tolerancia*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Sexuaren, arrazaren, kulturaren, hizkuntzaren, ideologiaren edo kulturaren aldetik desberdina denarekiko errespetua bultzatzen duen printzipioa.

**tortura** [*tortura*] ♦ *Zig. Zuz.* Agintari edo funtzionario publikoak bere karguaz abusatuz pertsona bati honelakoak eragitea, betiere aitortza edo informazioa lortzeko edo pertsona horrek gauzatu duen edo gauzatu duela sumatzen den egitatearengatik zigortzeko: gorputzeko edo buruko sufrimenduak; ezagutu, bereizi edo erabakitzeke ahalmenak ezabatzea edo gutxitzea; edo edozein modutan pertsonaren osotasun moralaren aurka atentatu egitea. **Oh.** ZK, 174. art.

**toxikazio** [*intoxicación*] ♦ *Zig. Zuz.* Medikuntzan toxikazio terminoa erabiltzen da deskribatzeko zenbait gairen kontsumoagatik sortzen den berariazko sindromea; aldaketak eragiten ditu eremu psikikoan gai horiek nerbio-sistema zentrolean duten eraginaren ondorioz. Sindromea itzulgarria da eta ezagutzeko eta jarduteko ahalmenean eragina izan dezake. Kasu horietan norbanako hori guztiz toxikatua dagoela esango genuke eta, beraz, ez da egozgarria izango; toxikazioa partziala denean egozgarritasuna arinduko da. **Oh.** ZK, 20.2 art.

**toxikotasun** [*toxicidad*] ♦ *Lan Zuz.* Lanaren ezaugarria, soldata osagarriako eskubidea eragin dezakeena.

**traditio** [*tradición*] ♦ *Zuz. Err.* Gauza ematea (*corpus*), asmoa (*animus tradendi eta accipiendi*) eta kausa justuak (*iusta causa traditionis*) direnean, *res nec mancipi* diren gauzen jabetza eskuratzeko balio duen eskualdatze-egintza. Zuzenbide Justiniarrean *res mancipi* diren gauzak ere eskuratzeko balio zuen.

**traktu** [*tracto*] ♦ *Zuz. Zib.* Onibar baten historial juridikoa erregistroan etenik gabe jasotzen dela aldarrikatzen duen printzipioa. **Oh.** HL, 20. art. **Ik.** hirugarren hipotekario.

**tramitazio prozesal eta administratiboko kidego** [*cuerpo de tramitación procesal y administrativa*] ♦ *Zuz. Proz.* Justizia-administrazioaren zerbitzura dagoen kidego orokorra, batxilergo titulu akademikoa edo baliokidea eskatzen duena. Kudeaketa prozesaleko laguntzaileak dira. **Oh.** BJLO, 477. art.

**transakzio-hitzarmen** [*acuerdo transaccional*] ♦ *Zuz. Zib.* Alderdiek, euren arteko gatazka juridiko bati bukaera emateko sinatzen duten kontratua edo akordioa, biek amore emanez.

**transexual** [*transexual*] ♦ *Zuz. Zib.* Bere sexu-organoei erreparatuta, jaiotzako sexu-generoarekin bat ez datorren pertsona eta beste sexu-generoa bere egiten duena. Emakumezko gorputzarekin jaio eta gizon sentitzen dena edo alderantziz. Gehienetan sexu-genero aldaketa izan behar du bere buruarekin ondo sentitzeko. **Ik.** genero, genero identitate.

**transexualitate** [*transexualidad*] ♦ *Zuz. Zib.* Pertsona transexualaren nolakotasuna edo izaera. **Ik.** transexual.

**transgenero** [*transgénero*] ♦ *Zuz. Zib.* Bere ezaugarri biologikoengatik jaiotzean ezarri zaion generokoa ez baizik bestekoa sentitzen

den pertsona, edo ez genero tradizional batekin eta ez bestearekin identifikatzen ez dena. **Ik.** *genero, genero identitate*.

**transmisio** [*transmisión*] ♦ *Zuz. Zib. Ik. bes-terentze*.

**transmitiezin** [*intransmisible*] ♦ *Zuz. Zib. Ik. eskualdaezin*.

**transmititu** [*transmitir*] ♦ *Zuz. Zib. Ik. eskualdatu*.

**transmititzaile** [*transmitente*] ♦ *Zuz. Zib. Ik. eskualdatzaile*.

**transposizio** [*transposición*] ♦ *EB. Zuz.* Estatu kideetako agintaritzek egiten duten lege-gintzazko, erregelamenduzko eta izaera administratiboa duten barne-arauen egokitzapena, zuzentarau batean ezarritako emaitzak lortzeko. **Ik.** *zuzentarau*.

**tratamendu** [*tratamiento*] ♦ *Zig. Zuz.* Subjektu arriskutsuak deliturik ez egitea helburu duen segurtasun-neurrietako bat. Horretarako, arriskugarritasuna sortzen duen arrazoia baztertzen edo arintzen ahalegintzen dira. Adibidez, tratamendu ambulatorioa edo mendekotasuna gainditzeko tratamendua.

**tratatu** [*tratado, convenio*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Nazioarteko zuzenbideko zenbait subjektu-aren artean —estatu zein nazioarteko erakunde— idatziz egindako akordioa, nazioarteko zuzenbideak eraendua, agerkari bakarrean edo lotuta dauden bi agerkari edo gehiagotan jasoa, edozein ere dela ematen zaion izendapena. **Oh.** EK, 94. eta 96. art., TZVK, 2.1.a), 25/2014 Legea, 2.a) art., 2.1.a) art.; TNAL, 2.a) **Sin.** *itun. Ik. akordio, hitzarmen*.

**tratatu eratzaile** [*tratado constitutivo*] ♦ *EB. Zuz. Ik. tratatu sortzaile*.

**tratatu sortzaile** [*tratado constitutivo*] ♦ *EB. Zuz.* Nazioarteko tratatua, zeinaren bidez estatuek nazioarteko erakunde bat sortzen baitute

Bertan ezartzen dira bere funtzionamendurako beharrezkoak diren organoak eta bere helburuak, eta bertan esleitzen eta jasotzen dira erakundearen xedeak erdiesteko bitartekoak. **Sin.** *eratze-tratatu, tratatu eratzaile*.

**tratatuaren gordailutze** [*depósito de los tratados*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Estatu, nazioarteko erakunde edo azken hauen funtzionario nagusi bategen nazioarteko tratatu aldean zintzen jatorrizko testuarekiko egiten duen zaintza funtzioa. Funtzio honekin batera, honen kudeaketarekin lotuak dauden beste zenbait funtzio betetzen dira, honako hauek, besteak beste: ziurtagiri zein kopien bidalketa; erreserben, eragozpen edo deklarazioen harrera edo errakuntzen zuzenketaren prozesuari hasiera ematea. **Oh.** TZVK, 76. eta 77. art.

**tratu ez-gizatiarrak** [*tratos inhumanos*] ♦ *Zig. Zuz.* Pertsona bati nahita min edo pairamen fisiko edo psikologiko handiak sortzea. Torturaren kasuan ez bezala, ez da eskatzen portaera horiek helburu zehatz bat izatea.

**tratu txarrak** [*malos tratos*] ♦ *Zig. Zuz.* Oso-tasun moralaren aurkako delitua. Ohikotasunez indarkeria fisiko edo psikikoa erabiltzea pertsona zehatz batzuen aurka. Adibidez, hauen aurka: ezkontidea dena edo izan dena, edota berarekin antzeko maitasun-harremana duena edo izan duena, ondorengoak, aurrekoak, neba-arrebak, berarekin bizi den adingabea edo babes berezia behar duten desgaituak, familia-elkarbizitzaren gunean dagoen beste edozein pertsona... **Oh.** ZK, 173. 2 eta 3 art.

**tributazio** [*tributación*] ♦ *Fin. Zuz. 1.* Ogasunari ordaindu beharreko tributu taldea. **2.** Ogasunari ordaindu beharreko tributu ordaintzea.

**tributu** [*tributo*] ♦ *Fin. Zuz.* Foru-arauak edo legeak tributatzeko betebeharrarekin lotzen duen izatezko egoera gertatzeagatik herri-administrazio batek eskatzen duen diru-pres-

tazioa; gastu publikoei aurre egiteko beharrezkoak diren sarrerak lortzea funtsezko helburu duen sarrera publikoa.

**tributu-araua aplikatzeko gatazka** [*conflicto de aplicación de la norma tributaria*] ♦ *Fin. Zuz. Ik. elusioaren aurkako klausula.*

**tributu-betebeharpeko** [*contribuyente*] ♦ *Fin. Zuz. Ik. zergadun.*

**tributu foru-arau** [*norma foral tributaria*] ♦ *Fin. Zuz.* Foru Aldundietako Batzar Orokorrek tributuen arloan onetsitako araua.

**tributu-obligazio nagusi** [*obligación tributaria principal*] ♦ *Fin. Zuz. Ik. zerga-obligazio nagusi.*

**tributu-zehapen** [*sanción tributaria*] ♦ *Fin. Zuz. Ik. zerga-zigor.*

**tributu-zor** [*deuda tributaria*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga-obligazio nagusitik edo kontura ordaintzeko obligazioetatik ateratzen den kuota edo ordaindu beharreko zenbatekoa; honako hauek osatzen dute: berandutza-interesek, aitortpena epez kanpo aurkezteagatik ezartzen diren erre-karguek, epe exekutiboko erre-karguek eta oinarri edo kuoten gainean ogasunaren alde edo bestelako ente publikoen alde legez exiji daitezkeen erre-karguek.

**tributuaren erantzule** [*responsable tributario*] ♦ *Fin. Zuz. Ik. erantzule.*

**tronkaleko ondasun** [*bien troncal*] ♦ *Zuz. Zib.* Bizkaiko Lur Lauan kokatua dagoen onibarra, bere jabea, tronkaleko senideak egonez gero, tronkalitate-printzipiotik eratorritako ondoreetara lotzen duena. **Ik.** *foru saka, onibar, tronkalitate, tronkaleko ondasun.*

**tronkaleko senide** [*pariente tronquero*] ♦ *Zuz. Zib.* Bizkaiko Lur Lauan kokatua dagoen onibar baten jabearen senitartekoa, odolezko edo adopziozko lotura dela medio, jabe ho-

riren «enbor» beretik datorrena. Tronkaleko ondasun horren jabearen gurasoetariko bakoitzak «enbor» edo «lerro» bat ordezkatzeko du. **Ik.** *foru saka, onibar, tronkaleko ondasun, tronkalitate.*

**tronkalekotasun** [*troncalidad*] ♦ *Zuz. Zib. Ik. tronkalitate.*

**tronkalitate** [*troncalidad*] ♦ *Zuz. Zib.* Ondarearen familia izaera babesten duen printzipioa, zeinaren bertutez tronkaleko ondasun baten jabeak legezko zenbait muga dauzkan ondasun hori xedatzeko, beti ere tronkaleko senideek ondasun horren gainean dituzten eskubideak errespetatu behar baititu. **Sin.** *tronkalekotasun. Ik. onibar, tronkaleko ondasun, tronkaleko senide.*

**truke** [*permuta*] ♦ *Zuz. Zib., Zuz. Err.* Kontratu mota, zeinaren kariaz kontratatzaile bakoitzak zerbait emateko obligazioa hartzen duen beste zerbait jasotzearen truke. **Sin.** *permutatio.*

**tutoretza** [*tutela*] ♦ *Zuz. Zib.* Adingabea edo ezgaitua babesteko erakundea. Tutoretzak arlo pertsonaleko zein ondarezko ordezkariak dakar. Tutoretzapean geratzen dira guraso-ahalpean ez dauden adingabeak, ezgaituak eta babesgabezia egoeran daudenak. Azken hauek Administrazioaren tutoretzapean daude. Besteentzat, ordea, epaile eskudunak tutorea izendatzen du hurrengo pertsonen artean: tutoretzapekoak izendatutako pertsona; ezkontidea; gurasoak; gurasoek izendatutakoa; aurretiko ahaideak, ondorengoak edo anai-arrebak, edota, hauen faltan, epaileak izendatutakoa.

**txandakako presidentzia** [*presidencia rotatoria*] ♦ *EB. Zuz.* EBko Kontseiluaren presidentziaren egikaritzan estatu kide guztiei dagokienez sei hilabeteko txanda (Kanpo Arazoetako Kontseiluaren presidentziaren egikaritzan salbu) **Oh.** EBT, 16. 9 art.

**txeke** [*cheque*] ♦ *Merkat. Zuz.* Dokumentu bat, kanbio-letraren antzekoa, zeinaren bidez igorleak ezinbesteko agindua ematen baitio bankuari txekearen edukitzaileari ordaintzeko, dokumentua ikusten den unetik. Balioa izateko zehaztasun hauek jaso behar dira dokumentuan: «txeke» hitza idatzita, diru-kopuru bat ordaintzeko agindua, banku ordaintzailea, ordaintzaren eguna, tokia eta igorlearen sinadura. **Oh.** KLTL, 106. art.

# U

---

**udal-errola** [*padrón municipal*] ♦ *Admin. Zuz.* Udalerriko auzotarren zerrenda eta haien datu pertsonal zenbait jasotzen dituen administrazio-erregistroa. Udal-errolako datuak udalerrian bizilekua eta ohiko egoitza izatearen froga dira. **Oh.** 7/1985 Legea, 16.1 art.

**ugazaben elkarte** [*asociación patronal*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuak biltzen dituen elkar-tea. **Oh.** EK, 7. art.

**ugazaben itxiera** [*cierre patronal*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuen eskubidea, enpresa ixteko pre-sio-neurri gisa, beren interesen alde, eta langi-leen aurka, horregatik zigortuak izan gabe.

**uko egin** [*renunciar*] ♦ *Zub. Zib.* Borondatez norbaiti dagokion gauza edo eskubidea bertan behera utzi.

**uko egin** [*renunciar*] ♦ *Zuz. Proz.* Aktoreak alde bakarretik utzi gauzatutako uzia edo titu-larra den eskubidea bera. Prozesua bukatzeko modu ezohikoa, arrazoi materialetan oinarritu-ta, hain zuzen ere. **Oh.** PZL, 20. art.

**uko egite** [*renuncia*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio-prozeduretan interesdunak prozedura amaitzeko duen bidea da, betiere bere esku-bideak baliatuz egina bada. Interesdunak uko egin arren, salbuespen gisa, administrazioak

prozedurarekin jarraitzea erabaki dezake, inte-res orokorreko arazoa bada edo uziren bat argitzea komenigarria bada. **Oh.** 39/2015 Legea, 94. art. ♦ *Zub. Zib.* Borondatez norbaiti da-gokion gauza edo eskubidea bertan behera uz-tea. ♦ *Zuz. Proz.* Prozesuaren ezohiko amaie-ra. Haren bitartez, auzi-jartzaileak auzia uzteko borondatea adierazten du, haren oinarria den eskubide materialari uko eginez. Ondorioz, es-kubide hori ezin izango da berriro epaibidean egikaritu. Epaileak onartuz gero, demandatua absolbitzeko epaia emango du.

**ultima ratio printzipio** [*principio de última ratio*] ♦ *Zig. Zuz.* Zigor Zuzenbidearen sub-sidiaritasun-printzipioarekin loturik dagoen printzipioa. Printzipio honen arabera, Zigor Zuzenbidea soilik izango da erabilia azken ba-liabide moduan, kalte txikiagoa sortzen duten bideak ez direnean nahikoak gizarte-interesak modu eraginkorrean babesteko.

**unibertsaltasun** [*universalidad*] ♦ *Zuz. T.* Unibertsala (alegia, mundu mailakoa) denari ezartzen zaion kualitatea.

**unitate organiko** [*unidad orgánica*] ♦ *Ad-min. Zuz.* Administrazioaren antolakuntza osa-tzen duten administrazio-atalak dira. Unitate organikoen artean azpisaikapen bat egiten da.

Horren arabera, alde batetik, administrazio-organoak daude, hirugarrenen aurrean ondorio juridikoak dituzten eginkizunak esleituta dituzten administrazio-unitateez osatzen direnak eta nahitaezko jarduketak egiten dituztenak. Bestetik, administrazio-unitateak daude. Azken horiek ez dute ondorio juridikorik sortzerik bere jardueren bidez, eta, era berean, ez dute esku-hartze erabakigarririk administrazio-prozeduretan ere. **Oh.** 40/2015 Legea, 5. eta 56. art. **Sin.** *administrazio-unitate*.

**urradura** [*vulneración*] ♦ *Konst. Zuz.* Legea, araua, ituna eta abar ez betetzea edo haien aurkako edota eskubideen aurkako ekintzak aurrea eramatea.

**urraketa** [*transgresión, violación*] ♦ *Zuz. T.* Eskubide bat bortxatzearen ekintza eta ondorioa. **Sin.** *bortxaketa*.

**urritasun** [*discapacidad*] ♦ *Zig. Zuz.* Funtzionamendu edo garapen maila normalera iristen ez den funtzio organiko bat duenaren egoera. Norbaiti urritasun iraunkor batek mugatu edo eragozten badio gizartearen gainerakoen baldintza berberetan guztiz eta eraginkortasunez parte hartzea, orduan desgaitasuna duela dio Zigor Kodeak. **Oh.** ZK, 25. art.

**urteko kontuak** [*cuentas anuales*] ♦ *Merkat. Zuz.* Enpresaren irudi leiala gardentasunez eta zehazki erakusten duten dokumentuen multzoa. Bost dira urteko kontuak osatzen dituzten dokumentuak: balantzea, galera eta irabazien kontua, memoria, ondare garbiaren egoera aldagarriaren agiria eta kaxa fluxua. **Oh.** MK, 34. art.

**usadio** [*uso*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Ohitura oinarri duen zuzenbidearen forma, solemnitare txikiagokoa eta zenbait arau idatziren osagarri moduan ageri dena ♦ *Zuz. Zib., Zuz. T.* Asmo juridikoa duten egintzen errepikapenaren bitartez gizarte kontzientziak sortutako arau juridikoa. Egintzaren errepikapen soila ez da nahikoa usadioa sortzeko, asmo arautzailea ere beha-

rezkoa da zuzenbide- iturri bilakatzeko. **Sin.** *ohitura*. **Ik.** *lege hutsune, zuzenbidearen iturri*.

**uste sendo** [*convicción*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Pertsonarengan modu sakon eta irmoan errotuak dauden ideiak eta sinesmenak, norberaren identitate pertsonala osatzen dutenak. **Ik.** *konbikzio, pertsonaren identitate*.

**usteltze** [*corrupción*] ♦ *Zig. Zuz.* Negozioetan lehia leialaren arauak urratzen direnean gertatzen den delitua. Hau da, lehiakide bat baztertzen denean lehiaren legeak urratuz (adibidez, komisio bat eskaini edo ordaindu delako lehiazko abantaila bat lortzeko asmoz).

**usucapio** [*usucapión*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *usucapio*.

**usufruktu** [*usufructo*] ♦ *Zuz. Err.* Pertsona batek (*usufructuarius* edo usufruktudun) beste baten (*dominus*) gauzaz denbora mugatuan gozatzeko eta horren fruituak eskuratzeko duen eskubide eta zortasun pertsonala. Egoera horretan, jabeak (*dominus*) gauzaren jabetza soila (*nuda proprietas*) izango du. Usufruktudunak, berriz, edukitza eta fruituak eskuratzeko eskibidea. Azken honek substantzia berean utzi beharko du hartutako gauza, denbora-epa amaitutakoan. **Sin.** *usus fructus* ♦ *Zuz. Zib. Ik.* *gozamen eskubide*.

**usukapio** [*usucapión*] ♦ *Zuz. Err.* Fede ona (*bona fides*), kausa justu (*iusta causa*) eta gauza (*res*) denbora batez edukitzan (*possessio*) izan ondoren, *ius civile* delakoak gauza horren jabetza eskuratzeko onartzen dituen bideetako bat. Jaetzan eskuratu ahal izateko, gauza higigarrien kasuan, urtebetez izan behar ziren aurrez edukitzan; gauza higiezinaren kasuan, berriz, bi urtez. **Sin.** *usucapio*.

**usus fructus** [*usufructo*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *usufruktu*.

**utendum datum** [*comodato*] ♦ *Zuz. Err. Ik.* *komodato*.

**utilitarismo** [*utilitarismo*] ♦ *Zuz. T.* Doktrina moral kontsekuentzialista bat da, zeinaren arabera, ekintzek ez baitute berezko balio moralik, ez bada bere ondorioen ontasunarekin eta txartasunarekin harremanetan jarritz. XVIII. mende bukaera eta XIX. mende hasiera bitartean sortu zen, Jeremy Bentham eta John Stuart Mill doktrinagileen eskutik.

**utilitas** [*utilitas*] ♦ *Zuz. Err.* Indarrean zegoen zuzenbide gorenaren aurrean erromatar juristek edota pretoreak —haien *auctoritas* eta azken horren *imperium* direla eta— *utilitatis causa* sortutako eskubide singular bat.

**utilitatearen printzipio** [*principio de utilidad*] ♦ *Zuz. T.* Utilitarismoaren printzipio nagusia da, zeinaren arabera, ekintza baten zuzentasun morala bere ondorioek zoriontasuna lortzeko duten gaitasunak determinaturik baitago. **Sin.** *utilitate-printzipio*. **Ik.** *utilitarismo*.

**utilitate-printzipio** [*principio de utilidad*] ♦ *Zuz. T.* **Ik.** *utilitatearen printzipio*.

**utis possidetis iuris** [*utis possidetis iuris*] ♦ *Nart. Zuz. Pu.* Afrikako deskolonizazioaren printzipio gidaria. Deskolonizaziotik sortutako estatu berrien arteko mugak zehazteko erabili da. Printzipio honen helburua da estatu berrien mugek jatorri dituzten lurralde kolonialen mugak errespetatzea.

**utzarazpen** [*desahucio*] ♦ *Admin. Zuz.* Administrazioak bere ondasunak berreskuratzeko duen ahal. Horren bidez, titulu nahikorik gabe finka bat okupatzen dituzten pertsonak finka hori uztera behartzen dira. **Oh.** 33/2003 Legea, 58-60. art., 1372/1986 Legegintza Errege Dekretua, 120-135. art **Sin.** *etxegabetze, kalera-tze*. **Ik.** *ahal*.

**uzi** [*pretensión*] ♦ *Zuz. Proz., Admin. Zuz., Zuz. Err.* Prozesu bakoitzeko objektuaren osagai nagusia. Eskaera oinarritu bat da, subjektu batek epaitegi baten aurrean aurkezten duena

beste norbaiten aurka eta bizitzaren ondasun baten inguruan.

# X

---

**xedaezin** [*indisponible*] ♦ *Zuz. Zib.* Legez, merkatarizatik kanpo dagoen eskubidearen edo ondasunaren ezaugarria. Trafiko juridikoan eskualda ezin daitekeena.

**xedapen** [*disposición*] ♦ *Zuz. Zib.* **1.** Beste-  
rentze, lagatze, edo kargatze ekintza. **2.** Arau dokumentuaren azken zatia, artikuluen ondoren kokatzen dena. ♦ *Admin. Zuz.* Arau juridikoaren kontzeptu baliokidea eta betebeharrekoa kasu guztietan, baina ekimen legegilearen ondorio den arauaren edukitik kanpo dagoena.

**xedapen-egintza** [*acto dispositivo*] ♦ *Zuz. Proz., Zuz. Zib.* **Ik.** *xedapenezko egintza.*

**xedapen gehigarri** [*disposición adicional*] ♦ *Zuz. Zib. Konst. Zuz.* Arauan gauzatzen den ekimen legegilearen azken xedapena, arauaren beraren edukitik kanpo dagoena, eta arauaren edukiarri gehigarri zaiona; araua osatuko duten artikuluen eduki nagusitik kanpo, araubide juridiko berezia jasotzen da xedapen gehigarrien bitartez. Maiz arau-aldaketak jasotzen dira xedapen gehigarrietan, kokatzen diren legean landutako gaiarekin zerikusia duten beste lege batzuetan arautuaren gaineko aldaketak.

**xedapen iragankor** [*disposición transitoria*] ♦ *Zuz. Zib., Konst. Zuz.* Arauan gauzatzen den

ekimen legegilearen azken xedapena, arauaren beraren edukitik kanpo dagoena, eta helburutzat arau berriaren egoera juridikora gerturatzearrazte duena. Aurreko egoera juridikoak, edo zaharrak, berrira egokitzeko araupena edo tresna juridikoak jasotzen dituen da xedapen iragankorra; arau nagusiaren salbuspena eta hartara iristeko bidea denez, modu zehatzean jaso behar du zenbat denboran eta zein egoera juridikori izango zaion aplikagarri.

**xedapen orokor** [*disposición general*] ♦ *Admin. Zuz., Zuz. Zib.* Administrazio publikoak sortutako arau juridiko idatzia, erregelamendu izaera duena.

**xedapen-prozesu** [*proceso dispositivo*] ♦ *Zuz. Proz. Ik.* *xedapenezko prozesu.*

**xedapen zehatzaile** [*disposición sancionadora*] ♦ *Zuz. Zib.* Obligazio baten ez betetzeak, obligazioaren betetzearen erantzulearekiko dakarren ondorio juridikoa. Zehapen kontzeptua zigor zuzenbide eta administrazio zuzenbidean kokatzen den terminoa da; Konstituzio Espainiarrak dio zehapena soilik ezarri ahal zaiola delitua edo administrazio arau-haustea egin duenari.

**xedapenezko egintza** [*acto dispositivo*] ♦ *Zuz. Proz.* Alderdien egintza, egoera juridiko



prozesala sortu, aldatu edo iraungitzea helburu duena. Alderdi aktiboarena izan daiteke: atzera egitea edo uko egitea. Alderdi pasiboak eragindakoa: amore ematea. Alde biek adostutakoa ere izatea aurreikusten du legeak: transakzioa.

**Sin.** *xedapen-egintza*. ♦ *Zuz. Zib.* Ondasunen eta eskubideen transmisioa helburu duen egintza juridikoa, titularren ondarearen balioa gutxitzea dakarrena. **Sin.** *xedapen-egintza*.

**xedapenezko printzipio** [*principio dispositivo*] ♦ *Zuz. Proz.* Prozesua alderdien esku dagoela eta hura zuzentzea haiei dagokiela adierazten duen printzipioa. Ondorioz, alderdien esku dago prozesuaren hasiera, garapena eta amaiera. **Sin.** *printzipio dispositibo*.

**xedapenezko prozesu** [*proceso dispositivo*] ♦ *Zuz. Proz.* Abagune-printzipioa gailentzen den prozesua. Horrek esan nahi du gizabanakoaren interesak duela nagusitasuna, interes horrek baldintzatzen baititu prozesuaren hasiera, garapena eta bukaera. Prozesu zibila da, oro har, xedapenezko prozesuaren adibide. **Sin.** *xedapen-prozesu*.

**xedatu** [*disponer*] ♦ *Zuz. Zib.* Ondasun edo eskubide bat, besterendu, laga edo kargatu.

**xedatzaile** [*disponente*] ♦ *Zuz. Zib.* Xedatze-ahalmena duen subjektua.

**xedemate** [*afectación*] ♦ *Admin. Zuz. Ik.* *afektazio*.

**xenofobia** [*xenofobia*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Norberarena ez den kultura-identitatearen aurkako arbuioa, gorrotoa, etsaitasuna edota mesfidantza. **Ik.** *baztertzaille, intolerantzia*.

# Z

**zabarkeria** [*negligencia*] ♦ *Zuz. Zib.* Pertsona bati, obligazioaren izaera eta inguruabarrak kontuan izanik, galda dakiokkeen arreta (diligentzia) ez jartzea. Legeak ezartzen du zein arreta mota galdatzen den kasu bakoitzean; orokorrean, besterik ezarri ezean, familiako guraso on batek izango lukeen arreta galdatzen da. **Oh.** KZ, 1104. art.

**zaintza** [*guarda*] ♦ *Zuz. Zib.* Pertsonak, eta hauen ondasunak eta eskubideak, babesteko erakundea. Bere titulartasunaren eta ahalmenen arabera, mota ezberdinetakoa izan daiteke. Babesgabezia dauden haurren zaintza, berez, Administrazioari dagokio, Kode Zibilak ezartzen duen prozedurari jarraiki. Hala ere, posible da norberak, bere kabuz egikaritzen duen zaintza izatea. Azken hau, egitatezko zaintza moduan ezagutzen da. **Oh.** KZ, 172. art. eta hurr.

**zaintza administratibo** [*guarda administrativa*] ♦ *Zuz. Zib.* Emantzipatu gabeko adingabeak edo ezgaituak babesteko erakundea. Zaintza administratiboa zainduaren legezko ordezkariak eskatzen dute beraiei dagozkien babes-funtzioak bete ezin dituztenean. Behin-behineko izaera dauka eta zaindua familia-harreran utziz edo zentro batera eramanez egikaritzen da. **Oh.** KZ, 172. art. eta hurr. **Ik.** *zaintza*.

**zaintzaile** [*guardadora, guardador*] ♦ *Zuz. Zib.* Legezko zaintza zein egitatezko zaintza egikaritzen duen pertsona. Emantzipatu gabeko adingabea babesteko, arlo pertsonalean zein ondarezko arloan egikari daitezkeen eskubide eta betebeharrak esleituak izan ahal ditu. **Ik.** *egitatezko zaintza, zaintza, zaintza administratibo*.

**zaintzapeko askatasun** [*libertad vigilada*] ♦ *Zig. Zuz.* Askatasunez gabetzen ez duen segurtasun-neurria. Kondenatua epailearen kontrolpean jartzen da eta Zigor Kodean zehazturiko jokarau baten edo batzuen betebeharra zehazten da. Adibidez, une oro lokalizatzeko moduan egon beharra, zehazturiko toki batean aldizka aurkeztu beharra edo biktimarengana hurbiltzeko debekua. **Oh.** ZK, 96.3 art. eta 106. art.

**zantzu bidezko froga** [*prueba indiciaria*] ♦ *Zuz. Proz.* Delituaren objektua zuzenean frogatu ordez beste egitate baten bidez zeharka frogatzeko erabiltzen den metodoa. Zantzua osatzen duen egitatea frogatu behar da eta haren eta delituaren objektua osatzen duen egitatearen artean lotura zehatz, zuzeneko eta logikoa egon behar da.

**zarrastel** [*pródiga, pródigo*] ♦ *Zuz. Zib.* Zarrasteltasun deklarazioa jaso duen pertsona. **Ik.** *mantenu-eskubide, zarrastel-deklarazio, zarrasteltasun*.

**zarrastel-deklarazio** [*declaración de prodigalidad*] ♦ *Zuz. Zib.* Mantenu obligazioaren hartzekodunek egin ahal duten eskaera bere ondarea ganora gabe xahutzen ari den obligatuaren aurka. Eskaera honen helburua mantenu obligazioen ordainketa bermatzea da.

**zarrasteltasun** [*prodigalidad*] ♦ *Zuz. Zib.* Ondarezko eremuan, kuradorezta bezalako babes erakundea ezartzeko arazoietako bat, zarrastelak bere ondarea xahutzen duenean zor dituen mantenu obligazioak kaltetuz. **Ik.** *mantenu eskubide, zarrastel-deklarazio, zarrasteltasun.*

**zaticako ordainketa** [*pago fraccionado*] ♦ *Fin. Zuz. Ik.* *ordainketa zatikatua.*

**zaticapen** [*fraccionamiento*] ♦ *Fin. Zuz.* Zergadunak zerga-zorrrak zatitan ordaintzea, betiere aurrez eskaturik eta ogasunak onartuta, eta zergadunaren egoera ekonomiko finantzarioak eragozten dionean denbora batez ordainketak ezarrita dauden epeetan egitea. **Sin.** *ordainketa-zatikatze.*

**zedarritu** [*amojonar*] ♦ *Zuz. Zib. Ik.* *mugarritu.*

**zedarritzatu** [*amojonar*] ♦ *Zuz. Zib. Ik.* *mugarritu.*

**zehapen** [*sanción, sanción administrativa*] ♦ *Admin. Zuz.* Araubideak tipifikatzen duen arau-haustea egiteagatik administrazio publikoak pertsona fisiko zein juridikoei ezartzen dien zigorra. Zigor hori ezarri ahal izateko, administrazioak kasuari dagokion prozedura zehatza izapidetu behar du. **Sin.** *zigor.*

**zehapen** [*sanción*] ♦ *Zuz. T.* Autoritate eskudun batek lege-hauste baten egileari edo bere arduradunari ezartzen dion neurri hertsatzailea, hondasun-gabetze bat dakarrena. **Sin.** *zigor.*

**zeharkako akzio** [*acción indirecta*] ♦ *Zuz. Zib. Ik.* *subrogatze-akzio.*

**zeharkako zenbatespenaren metodo** [*método de estimación indirecta*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga-

oinarria zehazteko metodo subsidiarioa. Kasu hauetan aplikatzen da: Zerga Administrazioak zerga-oinarria erabat zehazteko behar diren datuak eskuratu ezin dituzenean, zergapekoak aitorpenik aurkezten ez duelako edo aitorpena datu batzuk falta direla edo oker daudela aurkezten duelako; zergapekoak ikuskapenari jazarri, oztopatu edo saihesteko aitzakia jarri duenean edo uko egiten dionean; kontabilitate- edo erregistro-betebeharrak nabarmen betetzen ez direnean edo kontabilitateko liburuak eta erregistroak edo haietan idaztoharturiko eragiketen frogagiriak ezinbestean izanik ere desageritzen edo hondatzen direnean.

**zeharkako zerga** [*impuesto indirecto*] ♦ *Fin. Zuz.* Bitartekari batek hirugarren bati kobratu eta gero Zerga Administrazioari ordaindu behar dion zerga; aberastasuna zuzenean ez, baizik eta aberastasunak ahalbidetzen dituen egitateak (erosketak, eskualdatzeak, kontsumoak...) zergapetzen ditu.

**zeinu bereizle** [*signo distintivo*] ♦ *Merkat. Zuz.* Enpresariak duen ondasun ukiezina, enpresaren jabea bera dela adierazteko edota hainbat produktu eta zerbitzu bereak direla merkatuan ezagutarazteko balio duena. Bi zeinu dira esanguratsuenak bereizte funtzioa betetzeko: izen komertziala (enpresaria eta bere jatorria erakusten duena) eta marka (enpresariaren produktuak eta zerbitzuak bereizten dituen beste enpresariaren produktu eta zerbitzuetatik). **Oh.** ML, 4. art.

**zenbatespen objektiboaren metodo** [*método de estimación objetiva*] ♦ *Fin. Zuz.* Oinarri ezargarria tributu bakoitzaren araudian aurreikusitako magnitude, indize, modulu edo datuak aplikatuz kalkulatzeko zenbatespen-metodoa.

**zenbatetsitako balio** [*valor estimado*] ♦ *Admin. Zuz. Ik.* *balio zenbatetsi.*

**zentsu** [*censo*] ♦ *Zuz. Zib.* Zentsudunak zentsualistaren eskutik jaso duen ondasun edo

kapital batengatik ordaindu beharreko urteroko kanona bermatzen duen karga erreala. Zentsuan, zentsualistak zentsudunari kapital edo ondasun higiezin baten jabetza oso zein soila transmititzen dio, eta zentsudunak, ordainetan, eskualdatutakoaren balioa itzuli behar dio urteroko kanon baten bitartez. Ordainketa hori egingo dela bermatzeko, hain zuzen, zentsuarekin grabatzen da zentsudunak jabetzan duen ondasun higiezina, eta zentsualistak akzio erreala izaten du ondasunaren kontra ez ordaintze kasuan. Hiru zentsu mota bereiz daitezke: enfiteusi-zentsua, kontsignazio-zentsua eta erreserba-zentsua. **Oh.** KZren 1604-1664. art. **Ik.** *enfiteusi-zentsu, erreserba-zentsu, kontsignazio-zentsu.*

**zentsu-aitorpen** [*declaración censal*] ♦ *Fin. Zuz.* Tributu-obligatuak Tributu Administrazioari zerga-garrantzia duten izaera pertsonaleko datuak jakinarazten dizkion dokumentua; besteak beste, honetarako erabiltzen da: egoera zibila, egoitza fiskala eta abar komunikatzeko, Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren esleipena eskatzeko edota enpresaburu eta profesionalen kasuan dagokien zerga-erregimenaren aplikazioa eskatzeko.

**zerbitzu** [*servicio*] ♦ *Zuz. Zib.* Batek besteari ematen dion onura.

**zerbitzu publiko** [*servicio público*] ♦ *Admin. Zuz.* Zerbitzu publikoak norbanakoen oinarriko beharrak asetzea xede duten prestazioak eta jarduerak dira, dela kolektibitate osoaren alde ezarritakoak (*uti universi*), dela norbanako zehatzei eskainiak (*uti singuli*). Zerbitzu publikoko prestazio zein jarduera horiek norbanakoei eskaintzea Estatuaren edo botere publikoen ardura da, eta zuzenean eskainiko dituzte edo, bestela, hirugarrenek eskaintzen dituztela bermatu beharko dute.

**zerbitzutzuta** [*servidumbre*] ♦ *Zuz. Zib.* Pertsona batek bere ahalmenetan pairatzen duen murrizketa.

**zerga** [*impuesto*] ♦ *Fin. Zuz., Konst. Zuz.* Kontraprestaziorik gabe eskatzen den tributua; zergadunaren ahal ekonomikoa agerian jartzen duten negozio, egintza edo gertakariak eratzen dute haren zerga-gaia.

**zerga arau-hauste** [*infracción tributaria*] ♦ *Fin. Zuz. Ik.* *zerga-hauste.*

**zerga-arintze** [*desgravación*] ♦ *Fin. Zuz.* Arauak esandakoaren arabera burututako tributuaren dedukzio partzial edo erabatekoa.

**zerga berezi** [*impuesto especial*] ♦ *Fin. Zuz.* Honako hauek zergapetzen dituen zerga: kontsumo espezifikoak eta, fase bakarrean, ondasun jakin batzuen fabrikazioa, inportazioa eta, hala dagokionean, ondasunok barne-lurraldearen eremuan sartzea, garraibide jakin batzuen matrikulazioa eta ikatza kontsumorako jartzea.

**zerga-bilketa** [*recaudación tributaria*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga-zorrak kobratzeko administrazio-funtzioak betetzea.

**zerga-defizit** [*deficit presupuestario*] ♦ *Fin. Zuz. Ik.* *aurrekontu-defizit.*

**zerga-egitate** [*hecho imponible*] ♦ *Fin. Zuz. Ik.* *zerga-gai.*

**zerga-erregimen onuragarri** [*régimen fiscal beneficioso*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Pertsona edo talde jakinei zergen arloan abantailak eskaintzen dizkien erregimena.

**zerga erregresibo** [*impuesto regresivo*] ♦ *Fin. Zuz.* Zergaren oinarria handitu ahala zerga-tasa txikiagotzen duen zerga mota. **Sin.** *zerga gutxikor.*

**zerga-esleipen** [*asignación tributaria*] ♦ *Fin. Zuz.* Pertsona Fisikoen gaineko Errentaren gaineko Zergan, Eliza Katoliko eta interes sozialeko gainerako entitateei zuzenduta zergadunak ordaindu beharreko kuotaren ehunekoak.

**zerga estatal** [*impuesto estatal*] ♦ *Fin. Zuz. Ik.* *estatu-zerga.*

**zerga-gai** [*hecho imponible*] ♦ *Fin. Zuz.* Legeak finkatzen duen inguruabar edo egitate, zerga-obligazio nagusia eta honi dagozkion gainerako obligazioak sortzen dituen. **Sin.** *zerga-egitate*.

**zerga gehikor** [*impuesto progresivo*] ♦ *Fin. Zuz. Ik.* *zerga progresivo*.

**zerga gutxikor** [*impuesto regresivo*] ♦ *Fin. Zuz. Ik.* *zerga erregresibo*.

**zerga-hauste** [*infracción tributaria*] ♦ *Fin. Zuz.* Tributu-arauetan edo -legeetan arau-hauste moduan jasotako ekintza edo omisioa. **Sin.** *zerga arau-hauste*.

**zerga-helbide** [*domicilio fiscal*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga Administrazioarekiko harremanetan zergapekoa kokatzeko aintzat hartzen den lekua. **Sin.** *egoitza fiskal*.

**zerga-ihes** [*evasión tributaria*] ♦ *Fin. Zuz. Ik.* *ihes fiskal*.

**zerga-ikuskapen** [*inspección tributaria*] ♦ *Fin. Zuz.* Zergadunak deklaraturako datu eta irizpideen egiatasuna egiaztatzen duen tributu-organo eta -prozedura. **Sin.** *zerga-ikuskaritza*.

**zerga-ikuskaritza** [*inspección tributaria*] ♦ *Fin. Zuz. Ik.* *zerga-ikuskapen*.

**zerga-iruzur** [*fraude fiscal*] ♦ *Fin. Zuz. Ik.* *iruzur fiskal*.

**zerga-kontsolidazio** [*consolidación fiscal*] ♦ *Fin. Zuz. Ik.* *kontsolidazio fiskal*.

**zerga-kontsulta** [*consulta tributaria*] ♦ *Fin. Zuz.* Zergapekoak Zerga Administrazioari, behar bezala dokumentatuta, kasuan-kasuan dagokien zerga-tresnari, -sailkapenari edo -kalifikazioari buruz egindako kontsulta idatzia.

**zerga-kudeaketa** [*gestión tributaria*] ♦ *Fin. Zuz.* Ikuskapenari eta zerga-bilketari loturiko funtzioetan sartzen ez diren eta tributuak apli-

katzea helburu duten administrazio-jarduketan multzoa.

**zerga-kuota** [*cuota tributaria*] ♦ *Fin. Zuz.* Subjektu pasiboak zergaren zergapeko egitatearen errealizazioagatik, zergaren araudian aurrez ikusitako kuantifikazio-elementuen aplikazioarekin bat etorrira, ogasunari ordaindu behar dion diru kopurua.

**zerga-likidazio** [*liquidación tributaria*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga-zorrenaren zenbatekoa edo, hala badagokio, zerga-araudiaren arabera itzuli edo konpentsatu behar den kopurua kuantifikatu eta araudiaren arabera itzuli edo konpentsatu behar den kopurua kuantifikatu eta zehazteko Zerga Administrazioaren organo eskudunak ematen duen amaierako egintza.

**zerga-likidazio behin-behineko** [*liquidación tributaria provisional*] ♦ *Fin. Zuz.* Behin betikoa ez den zerga-likidazioa. **Sin.** *behin-behineko likidazio*.

**zerga-likidazio behin-betiko** [*liquidación tributaria definitiva*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga-obligazioaren elementu guztiak egiaztatu eta ikertu ondoren ikuskapen-prozedura batean egindako zerga likidazioa nahiz zerga-araudiaren arabera izaera hori duten gainerakoak. **Sin.** *behin-betiko likidazio*.

**zerga-obligazio formal** [*obligación tributaria formal*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga-araudiak diruzko izaerarik gabe zergapekoei ezartzen dien obligazioa, zordunak izan edo ez, hura betetzea zerga-jarduketa edo prozedurak garatzearekin lotuta dagoenean.

**zerga-obligazio nagusi** [*obligación tributaria principal*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga-kuota ordaintzea xedetzat duen zerga-obligazioa. **Sin.** *tributu-obligazio nagusi*.

**zerga-obligazio osagarri** [*obligación tributaria accesoría*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga Administrazioari ordaindu behar zaion diruzko prestazioa, beste

zerga-obligazio batekin lotuta exijitu behar-koak; berandutza-interesa, aitorpena epez kanpo aurkezteagatik ezartzen diren errekar-kuak eta epe exekutiboko errekar-kuak ordaintzekoak nahiz arau bidez ezartzen diren gainerakoak dira.

**zerga-oinarri** [*base imponible*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga-gaia neurtu edo baloratu ondoren lortzen den diruzko zein bestelako magnitudea. **Ik.** *oinarri ezargarri*.

**zerga pertsonal** [*impuesto personal*] ♦ *Fin. Zuz.* Egitate zergagarriaren elementu objektiboa pertsona baten inguruabarren arabera egituratzen duen zerga.

**zerga progresibo** [*impuesto progresivo*] ♦ *Fin. Zuz.* Zergaren oinarria handitu ahala zerga-tasa handiagotzen duen zerga mota. **Sin.** *zerga gehikor*.

**zerga-sistema** [*fiscalidad*] ♦ *Fin. Zuz.* Finantza-boteredun administrazioek sortutako tributuek eta haiek aplikatzeko prozedurek osatzen duten sistema.

**zerga-zigor** [*sanción tributaria*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga-urratze bat burutzearen ondorioz ezartzen den zehapena. **Sin.** *tributu-zehapen*.

**zerga-zor** [*deuda tributaria*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga-obligazio nagusitik edo kontura ordaintzeko obligazioetatik eratortzen den kuota edo ordaindu beharreko zenbatekoa.

**zerga-zorra iraungitze** [*extinción de la deuda tributaria*] ♦ *Fin. Zuz.* Zergaren zorraren desagertzea, ordaindu, preskribitu, konpentsatu edo barkatzeagatik eta lege-xedapenetan aurreikusten diren gainerako bitartekoak aplikatzeagatik gertatzea.

**zergadun** [*contribuyente*] ♦ *Fin. Zuz.* Zerga-gaia gauzatzen duen subjektu pasiboa. **Sin.** *tributu-betebeharpeko, zergapeko*.

**zergadunaren ordezk** [*sustituta, sustituto del contribuyente*] ♦ *Fin. Zuz.* Zergaduna izan

gabe, haren ordezk arauak aginduta tributu obligazio nagusi eta formalak bete behar dituen subjektu pasiboa.

**zergapeko** [*contribuyente*] ♦ *Fin. Zuz.* **Ik.** *zergadun*.

**zergapetze bikoitz** [*doble imposición*] ♦ *Fin. Zuz.* Gaitasun ekonomiko beraren gainean hainbat tributuk tributu ekitaldi berean eragitean datzan fenomenoak.

**zergatze** [*imposición*] ♦ *Fin. Zuz.* Egitate zergagarri bat burutu izanaren ondorioz tributu bat ezartzearen ondorioa.

**zesaropapismo** [*cesaropapismo*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Identitate-ereduaren azpi-eredu bat, zeinaren arabera, nahiz eta bi botereak elkarren artean identifikatu, botere politikoa botere erlijiosoari nagusitzen baitzaio. Eredu honetan, Enperadorea eta Aita Santua pertsona berbera izango da. **Ik.** *identitate-eredu*.

**zientzia juridiko** [*dogmática*] ♦ *Zuz. T.* **Ik.** *dogmatika*.

**zigor** [*pena*] ♦ *Zig. Zuz.* Zigor Zuzenbideak delitua egiten duenari ezartzen dion zehapena.

**zigor** [*sanción, sanción administrativa*] ♦ *Admin. Zuz.* **Ik.** *zehapen*.

**zigor-aurrekariak** [*antecedentes penales*] ♦ *Zig. Zuz.* Fiskaltzaren «Zigortuen eta Auzi-iheslarien Erregistro Zentralean» jasotako idatzoharrak. Bertan, norbanako bati ezarritako zigorrak azaltzen dira, delitu bat burutzearen ondoriozkoak badira eta epai irmo batean finkatuak badira. **Oh.** PKL, 252. art.

**zigor-erantzukizun** [*responsabilidad penal*] ♦ *Zig. Zuz.* Delitu gisa tipifikaturiko egitate baten ondorioz sortzen den erantzukizuna. Zigor bat ezarri ahal izateko ez da nahikoa egitatea zuzenbide-kontrakoa izatea; horretaz gain, egileak egozgarria izan behar du, eta portaerak galdagarria. Beraz, erru-

duntasunean oinarritzen da zigor-erantzukizuna.

**zigor-erantzukizun** [*responsabilidad penal*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. erantzukizun kriminal.*

**zigor-erantzule** [*responsable penal*] ♦ *Zuz. Proz. Ik. erantzule kriminal*

**zigorgarritasun** [*punibilidad*] ♦ *Zig. Zuz.* Delituaren zigorra erabakitzeko kontuan edukitzen den azkeneko arrazoibidea. Delitua eginda ere, batzuetan arrazoi politiko-kriminal bereziak hartzen dira kontuan zigorra ezarri ala ez erabakitzeko. Kontzeptu ugari hartzen ditu barnean: zigorgarritasun-baldintza objektiboak, desenkusa absolbitzaileak, immunitateak eta bortxazentasunezko kasuak. **Ik.** *desenkusa absolbitzaile.*

**zilegitasun** [*legitimidad*] ♦ *Zuz. T. 1.* Zuzenbidearen arabera egin edo ezarritakoak duen ezaugarria. **2.** Arrazoizkoa edo justua denak duen tasuna. **Sin.** *legezotasun 2.*

**zilegitu** [*legitimar*] ♦ *Zuz. T. 2.* Zilegitasuna duenak zerbait egitea baimendu. **Ik.** *zilegitasun. 2.* Zilegi bilakatu.

**zin** [*juramento*] ♦ *Zuz. T. 1.* Jainkoa lekuko bezala jarriz zerbait baieztatu edo ukatzeko ekintza. **2.** Dagokion autoritate eta legearen aurrean hitz emateko ekintza, normalean, kargu publiko bat indarrean dagoen legediaren arabera beteko dela adierazteko egiten dena.

**zinpeko** [*jurado*] ♦ *Zuz. Proz., Kontz. Ask. Zuz.* **1.** Herritarrei justizia-administrazioan parte hartzea ahalbidetzen dien erakundea. **2.** Zinpekoen epaimahaiaren zenbait delituren epaiketan parte hartzen duen herritarra. **Ik.** *zinpekoen epaimahai.*

**zinpekoen epaimahai** [*tribunal de jurado*] ♦ *Zuz. Proz.* Bederatzi zinpekok eta probintzia-auzitegiko magistratu batek, zeina epaimahaiko buru izango baita, osatzen duten organo judiziala. Akusatua forupekoa izateagatik epaiketa Au-

zitegi Gorenean edo justizia-auzitegi nagusian egin behar bada, bertako magistratua arituko da buru.

**zinpekoen epaimahaiaren prozedura** [*procedimiento del tribunal de jurado*] ♦ *Zuz. Proz.* Zinpeko epaimahaiaren kasuan burutzen den zigor-prozesu berezia. Hartan legeak zerrendatzen dituen zenbait delitu epaitzen dira. Zinpekoek epaitu beharreko egitatea frogatuz edo ez frogatuz eman behar dute eta akusatua erruduna edo errugabekoa deklaratu. Magistratu-buruak, berriz, zigorra eta segurtasun-neurria ezarriko du, egokia izanez gero, eta erantzukizun zibilari buruz erabakiko.

**zirikatze** [*provocación*] ♦ *Zig. Zuz.* Prestamen-ekintza bat, soilik legeak arautzen duen kasuetan zigorgarria izango dena. Zirikatzea gertatzen da delitu bat egitera zuzenean bultzatzen denean inprimatze, irrati-hedatze edo horien antzeko bide eraginkorrak erabiliz. Zirikatzea gertatzen da, orobat, zuzenean pertsona-multzo baten aurrean delitua egitera bultzatzen denean. **Oh.** ZK, 18. art. **Sin.** *eragite.*

**zirkulazio- eta bizileku-askatasun** [*libre circulación y residencia*] ♦ *EB. Zuz.* EBko herritarrei aintzatesten zaien eskubidea, dela Batasuneko herritartasunaren estatutuaren osagai moduan, dela EBOEGean jasotako oinarritzko eskubide gisa. Horren arabera, herritar orok du estatu kideetako lurraldean barrena askatasunez zirkulatzeko eta bertan bizilekua ezartzeko eskubidea. **Oh.** EBFT, 21. art.; EBOEG, 45. art.

**zitazio** [*citación*] ♦ *Zuz. Proz.* Komunikazio-egintza, alderdi direnei edo beste pertsona batzuei zuzendutako deia. Haren bitartez jarduera zehatz bat egiteko —toki, egun eta ordu jakin batean agertzeko— agintzen zaio hartzaileari. **Oh.** PZL, 149. art. **Sin.** *dei.*

**ziurgabetasun** [*incertidumbre*] ♦ *Zuz. T.* Ekintza baten ondorio juridikoen gaineko se-

gurtasun falta; segurtasun juridiko falta alegia.  
**Ik.** *segurtasun juridiko*.

**ziurtagiri** [*certificado*] ♦ *Admin. Zuz.* Egoera, errealitate edo administrazio-erabaki bat ziurtatzen duen dokumentua.

**zona ekonomiko eskusibo** [*zona económica exclusiva*] ♦ *Nart. Zuz. Pu. Ik.* *ekonomia-eremu eskusibo*.

**zor** [*deuda*] ♦ *Zuz. Zib.* Obligazio erlazioaren posizio pasiboaren izendatzailea eta eginbehar juridiko bat: prestazioa betetzeko eginbeharra; obligazioaren objektua eratzen duena.

**zor ez diren sarrerak itzultze** [*devolución de ingresos indebidos*] ♦ *Fin. Zuz. Ik.* *okerreko sarreraren itzulketa*.

**zor den obediencia** [*obediencia debida*] ♦ *Zig. Zuz.* Agindu-kateari jarraiki historikoki delitu baten erantzukizuna zuzitzeko erabiltzen zen kausa. Egun ez da bidezkotze-kausa gisa onartzen, eta ez du, hortaz, delitua zilegi bihurtzen. Zigorra arintzeko baina ez indargabetzeko erabil liteke zenbait kasutan. **Oh.** ZK, 410. art. **Ik.** *bidezkotze-kausa*.

**zor mankomunatu** [*deuda mancomunada*] ♦ *Zuz. Zib.* Zordunaren posizio juridikoan subjektu bat baino gehiago dagoenean, subjektu-talde edo mankomunatuari egozgarri zaion zorra. **Ik.** *zor partziario, zor solidario*.

**zor partziario** [*deuda parciaria*] ♦ *Zuz. Zib.* Zordunaren posizio juridikoan subjektu bat baino gehiago dagoenean, zordunen artean zati baliokidetan banatzen den zorra; zordun bakoitzaren zatiaren erantzule izango da. **Ik.** *zor mankomunatu, zor solidario*.

**zor publiko** [*deuda pública*] ♦ *Fin. Zuz. Ik.* *herri-zor*.

**zor solidario** [*deuda solidaria*] ♦ *Zuz. Zib.* Zor mota, zeinetan zordunaren posizio juridikoan subjektu bat baino gehiago egonik, zordun guz-

tiak zor kopuru osoaren erantzule diren hartze-kodunaren aurrean. Zordunen arteko erlazioetan, ordea, zor guztia ordaindu duen zordunak, gainontzekoei beraien zor-kuota itzultzea eska diezaike. Solidaritatea ez da presumitzen, alderdiek, adostasunez, edo legeak hala adierazita aplikatzen da. **Ik.** *zor mankomunatu, zor partziario*.

**zordun** [*deudora, deudor*] ♦ *Zuz. Zib.* Obligaziozko erlazio juridiko baten subjektu pasiboa. Prestazioa betetzera behartuta dagoen pertsona; hau da, lege, kontratu, kuasi-kontratu, delitu edo kuasi-delitu bati jarraiki zerbait eman, egin edo ez egin behar duena.

**zordunaren berandutza** [*mora de la deuda, del deudor*] ♦ *Zuz. Zib.* Obligazioa betetzeko garaia iritsi eta zorduna, bere eruz edo doluz, prestazioa betetzean atzeratzea, zeinak obligazioaren behin behineko ez betetzea dakarren. Efektu juridikoak sor ditzan, orohar, hartzekodunak zordunari betebeharra kunplitzea galdatu behar dio, judizialki, edo judizios kanpo. **Oh.** KZ, 1.100. art. eta hurr. **Ik.** *berandutza*,

**zordunkide** [*codeudora, codeudor*] ♦ *Zuz. Zib., Merkat. Zuz., Zuz. Err.* Beste pertsona batekin edo batzuekin obligazio beraren zorduna. **Ik.** *zordun*.

**zoroaldi** [*arrebato*] ♦ *Zig. Zuz.* Egilearen ezagutza-gaitasuna eta beraren portaeraren plangintza nabarmenki aztoratzen duen egoera pasionala jasotzen duen inguruabar aringarria; itsualdia ez bezala, une batekoa da. **Oh.** ZK, 21.3 art. **Ik.** *itsualdi*.

**zorria barkatze** [*condonacion*] ♦ *Zuz. Zib.* Obligazioak iraungitzeko bidea, non hartzekodunak liberaltasun egintzaren bidez zor den prestazioari uko egiten dion.

**zuhaitz pozoituaren fruituen teoria** [*teoría de los frutos del árbol envenenado*] ♦ *Zuz. Proz.* Oinarrizko eskubide edo askatasunak urratuz lortutako frogaren baliozkotasunari eta



eraginkortasunari buruzko araua. Haren arabera, ez du eraginkortasunik izango oinarrizko eskubideak zuzenean urratuz lortzen den frogak, ezta hartatik eratoritzen denak ere.

**zuhurtziagabekeria** [*imprudencia*] ♦ *Zig. Zuz.* Delitua egiteko modu nagusietako bat, kontuz ez ibiltzearen delituzko emaitza sortzean datzana. Kontuz ibiltzeko agintzen duen arauaren urraketaren arabera larria edo arina izan daiteke. Oro har, dolozko ekintza baino gutxiago zigortzen da. **Oh.** ZK, 10. eta 13. art. **Ik.** *dolo*.

**zuritze** [*blanqueo*] ♦ *Zig. Zuz.* Zuritze-delitua egiten du ondasunak eskuratu, eduki, erabili, bihurtu edo eskualdatzen dituenak, haien jatorria delituzko jokabidea dela jakinda. Egoera berean egongo da ondasun horien jatorri ez-zilegia ezkutatu edo estaltzen duena, edo portaeraren egileari bere egintzen legezko ondorioak saihesten laguntzen diona. **Oh.** ZK, 301.1 art.

**zuriz eratutako lege penal** [*ley penal en blanco*] ♦ *Zig. Zuz.* Lege penalak delituaren deskribapena zati batean egin gabe, zuri, uzten duen lege-teknika. Delitua zertan datzan jakiteko penala ez den beste arlo batera ere jo beharra dago, lege penalak hala aginduta. Askotan lanaren arloko urraketa edota urraketa administratiboa oinarri duten delituak deskribatzeko erabiltzen da. **Ik.** *legezketasun-printzipio*.

**zuzen** [*correcto, justo*] ♦ *Zuz. T.* Justiziarekin eta arrazoiarekin bat datorrena. **Sin.** *justu, bidezko*.

**zuzenbide** [*derecho*] ♦ *Zuz. T. 1.* Legeen ikasketak helburu duen zientzia. **2.** Jendarte batean giza harreman publiko zein pribatuak arautzen dituen printzipio, ohitura eta legeen multzoa.

**zuzenbide beharrezko** [*derecho necesario*] ♦ *Lan Zuz.* Derrigorrez bete beharrezkoa den zuzenbidea. **Oh.** LE, 3.3 art. **Sin.** *bete beharrezko zuzenbide*.

**zuzenbide eratorri** [*derecho derivado*] ♦ *EB. Zuz.* EBren jatorrizko zuzenbidean oinarrituz EBko erakundeek hartutako arauen eta egintzen multzoa. Arau eta egintza horiek izaera instituzionala edota internazionala izan dezakete.

**zuzenbide-estatu** [*estado de derecho*] ♦ *Konst. Zuz.* Estatu mota bat, estatu-botere oro ordenamenduaren menpe izateagatik bereizten dena.

**zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko** [*estado social y democrático de derecho*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Herritarren parte-hartzea bermatzen duen estatu-eredua, legearen menpe dagoena eta herritarren berdintasun materialaren alde jarduten duena. **Oh.** EK, 1.1 art.

**zuzenbide iragankor** [*derecho transitorio*] ♦ *Zuz. Zib.* Arauan gauzatzen den ekimen legegilearen azken xedapena, arauaren beraren edukitik kanpo dagoena. Helburutzat, egitateak edo egoera juridiko zaharrak arau berrira eta egoera berrira egokitzea duena. **Ik.** *xedapen iragankor*.

**zuzenbide-kontrakotasun** [*antijuridicidad*] ♦ *Zig. Zuz.* Zuzenbidearen aurkako egitatearen ezaugarria: egitate bat zuzenbide-kontrakoa izango da legeak aurreikusi eta zigortzen duenean, betiere bidezkotze-kausarik ez bada.

**zuzenbide-kontrako** [*antijurídico*] ♦ *Zuz. T., Zig. Zuz.* Arau juridikoek ezartzen dutenaren aurkakoa dena. **Ik.** *antijuridiko*.

**Zuzenbide Zibil** [*Derecho Civil*] ♦ *Zuz. Zib.* Zuzenbide pribatu orokorra, beste zuzenbideen ordezkoa. Zuzenbidearen alor hau osatzen duten atal nagusiak pertsona, familia, ondarea eta kontratuzko harremanak dira.

**zuzenbide zibil autonomiko** [*derecho civil autonómico*] ♦ *Zuz. Zib.* Estatuak lagatzen dizkion eskumenez baliaturik (EK, 149. 1. 8 art.) Eusko Legebiltzarrak, arlo pribatuan, ematen duen arau multzoa.

**zuzenbidearen iturri** [*fuerza de derecho*] ♦ *Zuz. Zib.* Zuzenbidea sortzeko edo produzitzeko modua. Espainiar zuzenbidearen iturri formalak dira: legea, ohitura eta zuzenbidearen printzipio orokorrak. **Ik.** *ohitura, zuzenbidearen printzipio orokor.*

**zuzenbidearen printzipio orokor** [*principio general del derecho*] ♦ *Admin. Zuz., Zuz. Zib., Antolakuntza* juridikoaren oinarritzko ideia eta balioen multzoa da, araei zentzua ematen diena. Zuzenbidearen printzipio orokorrak baliagarri dira ordenamendu juridikoaren interpretazioa osatzeko, eta neurri berean zuzenbidearen iturri dira lege eta ohiturarik ezean. Zuzenbidearen printzipio orokortzat hartzen dira, besteak beste, justizia, ekitatea, askatasuna, berdintasuna, fede ona... ♦ *Nart. Zuz. Pu.* **1.** Justiziaren ikuskerara komun bat adieraztearen ondorioz, nazioarteko harremanetara hedatzen diren barne-ordenamenduetan komunak diren printzipioak. **2.** Nazioarteko arauetatik eratorritzen diren eta nazioarteko ordenamenduaren sektore bat informatzen duten printzipioak.

**zuzenbidetu** [*juridificar*] ♦ *Zuz. T.* Arau juridikoek aurreikusten ez zuten egoera bat zuzenbidearen bidez arautu. **Sin.** *juridikotu. Ik. juridikotu.*

**zuzenbidezko deuseztasun** [*nulidad de pleno derecho*] ♦ *Zuz. Zib. Ik. deuseztasun.*

**zuzenbidezko erregela** [*norma jurídica*] ♦ *Konst. Zuz. Ik. arau juridiko.*

**zuzendaritza-botere** [*poder de dirección*] ♦ *Lan Zuz.* Enpresaburuen boterea langileen lana zuzentzeko. **Oh.** LE, 20. art. **Ik.** *enpresaburuen zuzendaritza-botere.*

**zuzeneko erantzule zibil** [*responsable civil directo*] ♦ *Zuz. Proz.* Delituzko egitatearen egilea. Delituarengatik erantzule kriminala den pertsona orok erantzukizun zibila ere badu, baldin eta egitateak kalte edo galerak badaukartzat. Dena dela, legeak posible egiten du

hainbatetan hirugarren pertsona batzuk zuzeneko erantzule zibilak izatea. **Oh.** ZK, 116.1 art. **Ik.** *erantzule zibil.*

**zuzeneko zenbatespenaren metodo** [*método de estimación directa*] ♦ *Fin. Zuz.* Lehenespenez oinarri ezargarria kalkulatzeko erabiltzen den metodoa, tributu-obligatuaren benetakoa errealitate ekonomikoa islatzen saiatzen dena.

**zuzeneko zenbatespen arrunt** [*estimación directa normal*] ♦ *Fin. Zuz.* Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan jarduera ekonomikoekin etekin garbia kalkulatzeko metodo orokorra, sarrerei zerga-kenkaria dakarten gastuak kendu eta lotutako ondare-elementuen irabazien eta galeren saldo garbia gehituz kalkulatu dena.

**zuzeneko zenbatespen erraztu** [*estimación directa simplificada*] ♦ *Fin. Zuz.* Zergadunak berak hautatuta eta aurreko urtean jarduera ekonomiko guztietan egindako eragiketen bolumena 600.000 euro baino txikiagoa denean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan jarduera ekonomikoekin etekin garbia kalkulatzeko erabil daitekeen metodoa.

**zuzeneko zerga** [*impuesto directo*] ♦ *Fin. Zuz.* Zergapeko batek Ogasunari zuzenean ordaindu behar dion zerga, eskuratutako errenta, irabazia edo ondarea zuzenean zergapetzen dituen.

**zuzenketa-eskubide** [*derecho de rectificación*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz.* Pertsona natural eta juridikoaren eskubidea, beraiei buruz komunikabide batek zabalduko informazioa zuzentzeko aukera ematen diena, informazio hori okerra izanik, horren hedapenak kalteak sortzea diezazkioketelakoan **Oh.** 2/1984 LO, 1. art. **Sin.** *zuzenketarako eskubide.*

**zuzenketarako eskubide** [*derecho de rectificación*] ♦ *Kontz. Ask. Zuz. Ik. zuzenketa-eskubide.*

**zuzentarau [directiva]** ♦ *EB. Zuz.* EBko erakundeek harturiko egintza juridikoa, estatu kideak helburu edo emaitza bat lortzera behar-tzen dituen, agintaritze nazionalen esku utziz forma eta bitartekoak aukeratzeko askatasuna. **Oh.** EBFT, 288. art. **Sin.** *direktiba*.

**zuzentarau betearazle [directiva de ejecución]** ♦ *EB. Zuz.* Legez besteko izaera duen zuzentaraua, juridikoki lotesleak diren egin-tzen exekuziorako baldintza uniformeak behar direnean hartzen dena. **Oh.** EBFT, 291. art. **Sin.** *betearazpen direktiba, exekuzio-direkti-ba, exekuzio-zuzentarau*. **Ik.** *exekuzio-egintza*.

**zuzentarau delegatu [directiva delegada]** ♦ *EB. Zuz.* Legez besteko izaera duen zuzenta-raua, Batzordeak Europako Parlamentuaren edo EBko Kontseiluaren delegazioz hartzen duena, lege-egintza baten funtsezkoak ez diren osagaiak osatzeko edo aldatzeko. **Oh.** EBFT, 290. art. **Sin.** *direktiba delegatu, zuzentarau eskuorde*. **Ik.** *egintza delegatu*.

**zuzentarau eskuorde [directiva delegada]** ♦ *EB. Zuz.* **Ik.** *zuzentarau delegatu*.

# GLOSARIOA



## A

- abandono:** abandonu  
**abdicación:** abdikazio; erregetza uzte  
**abogacía:** abokatutza  
**abogada, abogado:** abokatu; *Zuz. Err. advocatus*  
**abogada, abogado del estado:** estatuko abokatu  
**abogada, abogado general:** abokatu nagusi  
**abogado de oficio:** ofiziozko abokatu  
**abolir, derogar:** indargabetu  
**aborto:** abortu  
**absentismo:** absentismo  
**absolución:** absoluzio  
**absolución de instancia:** auzialdiko absoluzio  
**absolutismo:** absolutismo  
**abstención:** abstentzio  
**abuso:** abusu  
**abuso de confianza:** konfiantza-abusu  
**abuso de derecho:** eskubide-abusu  
**abuso de superioridad:** nagusitasun-abusu  
**abuso sexual:** sexu-abusu  
**accesión:** akzesio  
**acceso a la pensión de jubilación:** erretiro-pentsiorako irispide  
**acceso al empleo:** enplegurako irispide  
**acción:** akzio; *Zuz. Err. actio*  
**acción, actuación:** ekintza  
**acción cambiaria en vía de regreso:** atzerabidezko kanbio-akzio  
**acción causal:** kausazko akzio  
**acción de nulidad:** deuseztasun-akzio  
**acción de repetición, acción de regreso:** atzerabidezko akzio  
**acción directa:** akzio zuzen  
**acción exterior:** atzerri-ekintza  
**acción indirecta:** zeharkako akzio  
**acción pauliana:** pauliar akzio  
**acción popular:** herri-akzio  
**acción protectora:** babes; babesgintza  
**acción pública:** akzio publiko; herri-akzio  
**acción Publiciana:** actio *Publiciana*  
**acción rescisoria:** hutsaltze-akzio  
**acción revocatoria:** errebotatze-akzio  
**acción sindical:** ekintza sindikal  
**acción subrogatoria:** subrogatze-akzio  
**aceptar, estimar:** baietsi  
**acervo comunitario:** ondare komunitario  
**acervo de la Unión:** Batasunaren altxor; Batasunaren ondare

**acervo Schengen:** Schengeneko altxor; Schengeneko ondare  
**acogimiento:** harrera  
**aconfesionalidad:** akonfesionaltasun  
**acoso sexual:** sexu-jazarpen  
**acreedora, acreedor:** hartzaile; hartzekodun  
**acta:** akta  
**acta de conciliación:** adiskidetze-akta  
**acta de conformidad:** adostasun-akta; adostasuneko akta  
**acta de conformidad con compromiso de pago:** ordaintzeko konpromisodun adostasun-akta  
**acta de disconformidad:** desadostasun-akta; desadostasuneko akta  
**actio libera in causa:** *actio libera in causa*  
**actio popularis:** *actio popularis*  
**actividad administrativa material:** administrazio-jarduera material; administrazio-jarduera tekniko  
**actividad de fomento:** sustapen-jarduera  
**actividad de inspección:** ikuskapen-jarduera; ikuskatze-jarduera  
**actividad de ordenación:** ordenazio-jarduera; ordenazio-jardun  
**actividad económica:** ekonomia-jarduera; jarduera ekonomiko  
**actividad probatoria:** froga-jarduera  
